



2010  
55, 2

# EUSKERA

2010  
55, 2

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque  
Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

EUSKERA



10,00 €



Euskera 2010, 55, 2, 565 - 1076, Bilbo. ISSN 0210-1564

# E U S K E R A



2010  
55, 2  
BILBO  
ISSN 0210-1564



# EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo  
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44  
e.posta: info@euskaltzaindia.net • web gunea: www.euskaltzaindia.net

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da  
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones  
Cette revue s'échange avec d'autres publications  
This journal can be exchanged for others by agreement

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

*Diseinua:* www.ikeder.es

*Preinpresioa:* Composiciones Rali, S.A.  
Particular de Costa, 8-10. 48010 Bilbo

*Inprimategia:* Baster, Talleres Gráficos, S.L.L.  
Pol. Atxukarro, 2, 48480 Arrigorriaga (Bizkaia)

**Euskera** Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da, 1920. urtetik argitaratzen dena. Urtean hiru zenbaki argitaratzen ditu, lehena eta hirugarrena, Euskaltzaindiaren lana eta bitzitza akademikoa biltzen dituztenak (sarrera-hitzaldiak, hizkuntza-arauak, jardunaldiak...), eta bigarrena, Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen dituena.

*Euskerako* artikuluak banan-banan katalogatzen eta indexatzen dira *Azkue Bibliotekaren* katalogoan (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) eta erakundearen web guneko bilatzaile berezi batean (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), aldi berean formatu digitalean eskainiz. Orobat, *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) datu-baseetan eta *Latindex* katalogoan (<http://www.latindex.unam.mx/>) jasotzen dira.

La revista **Euskera** es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. Publica tres números al año, de los cuales el primero y el tercero recogen los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia (discursos de ingreso, normas lingüísticas, coloquios...), mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales en los varios ámbitos de trabajo de la Academia, reseñas de libros y similares.

Los artículos de *Euskera* son catalogados e indexados en el catálogo de *Azkue Biblioteka*, la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) así como en un buscador específico disponible en su página web : (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>) donde además se ofrecen en formato digital. Asimismo se recogen en las bases de datos *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) y en el catálogo *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).

La revue **Euskera** est la publication officielle de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia, elle paraît depuis 1920. Trois numéros sont publiés par an, dont le premier et le troisième rassemblent les travaux et activités académiques d'Euskaltzaindia (discours d'intronisation, normes linguistiques, colloques, etc.), tandis que dans le deuxième sont publiés des articles originaux de recherche portant sur l'un des différents domaines de travail de l'Académie, comptes rendus de livres et autres publications.

Chaque article d'*Euskera* est répertorié et indexé dans le catalogue de la *Bibliothèque Azkue*, la bibliothèque de l'Académie de la langue basque (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) ainsi que dans un moteur de recherche spécifique disponible sur son site Web : (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), où ils sont également proposés au format numérique. Par ailleurs, ils sont enregistrés dans les bases de données *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) et dans le catalogue *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).

**Euskera** is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia and has been published since 1920. Issues are published three times a year: the first and third contain the work and academic activity of Euskaltzaindia (induction speeches, language rules, symposia...), while the second is dedicated to publishing original research articles in the various areas of the Academy's work, book reviews and the like.

*Euskera* articles are catalogued and indexed in the Royal Academy of the Basque Language's *Azkue Library*, (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) as well as on a specific search engine available on its website (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), where they are also provided in digital format. They are also held on the *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) data-bases and on the catalogue *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).

# EUSKALTZAINDIA

## EUSKERA AGERKARIA



### IDAZKETA KONTSEILUA

*Zuzendaria:* ANDRES URRUTIA BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo

*Idazkari akademikoa:* ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

*Idazkari teknikoa:* RICARDO BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA.  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JEAN-BAPTISTE COYOS.  
*Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona*

JOSEBA ANDONI LAKARRA.  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

ANDONI SAGARNA.  
*Euskaltzaindia. Donostia*

PATXI SALABERRI.  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea*

MIKEL ZALBIDE.  
*Eusko Jaurlaritzza, Hezkuntza Saila. Gasteiz*

### AHOLKU BATZORDEA

MIREN AZKARATE  
*Euskaltzaindia. Donostia*

JOXE AZURMENDI  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia*

XARLES BIDEGAIN  
*Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona*

JOSU K. BIJUESCA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

GIDOR BILBAO  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

IÑAKI CAMINO  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

ANA ETXAIDE  
*Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea*

JOSE RAMON ETXEBARRIA  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo*

MAITE ETXENIKE  
*Universitat de València. Valentzia*

PATXI GOENAGA  
*Euskaltzaindia. Gasteiz*

RICARDO GOMEZ  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

MANUEL GONZALEZ  
*Real Academia Galega. Coruña*

JEAN HARITXELHAR  
*Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitatea. Baiona*

ITZIAR IDIAZABAL  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

JOSEBA INTXAUSTI  
*Euskaltzaindia. Donostia*

IÑAKI IRAZABALBEITIA  
*Elhuyar Fundazioa. Usurbil*

JAZINTO ITURBE  
*Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa*

JABIER KALTZAKORTA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

ALBERTO LOIZATE  
*Basurtuko Ospitalea. Bilbo*

JUAN MADARIAGA  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea*

JOAN MARTÍ  
*Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartzelona*

ENEKO OREGI  
*Eusko Jaurlaritzza. IZOko burua. Gasteiz*

JON ORTIZ DE URBINA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

ROSA MIREN PAGOLA  
*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JOSE ANTONIO PASCUAL  
*Real Academia Española. Madril*

TXOMIN PEILLEN  
*Euskaltzaindia. Baiona*

IBON SARASOLA  
*Euskaltzaindia. Donostia*

JOAN MARI TORREALDAI  
*Euskaltzaindia. Donostia*

MIRIAM URKIA  
*UZEI. Donostia*

JUAN JOSE ZUBIRI  
*Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea*

*Batzorde teknikoa:* JON ARTZA eta PRUDEN GARTZIA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).

*Aholkulariak:* JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).

# E U S K E R A

## AURKIBIDEA

### XV. JAGON JARDUNALDIAK:

- [575-577] *Sarrera*  
ALEMAN ASTIZ, Sagrario
- [579-607] *Baina gu ere gazteak izan ginen!*  
*Gazte euskalduna izatearen esamahia atzo eta gaur*  
HERNÁNDEZ, Jone M.
- [609-625] *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa*  
BASURTO ARRUTI, Asier
- [627-647] *Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian*  
BAXOK, Erramun eta COYOS, Jean-Baptiste
- [649-669] «*Zer egin dezaket nire udalean nerabeek aisian eta lagunartean*  
*euskara gehiago erabiltzeko*»  
ARRUTI, Iñaki
- [671-693] *Tolosa: gazteen ahozketasunaren laborategi (I)*  
ZABALA ALBERDI, Josune eta AYERZA MUJICA, Maitane
- [695-710] *Ahozko euskara formala aisialdiko euskararen osagarri.*  
*Zornotzako gazte batzuen datuak*  
ARNEDO GAZTELURRUTIA, Maialen; BADIOLA OSTOLAIZ,  
Ane eta GANDARIAS ISPIZUA, Leire

- [711-736] *Sare sozial birtualak: kalean bezala sarean!*  
BARBERENA, Eneko
- [737-748] *Mahai-ingurua*  
AMONARRIZ, Kike
- [749-753] *Gazteak, aisialdia eta euskara. Ondorioak*  
OSA, Erramun

### LITERATURAREN HISTORIOGRAFIA JARDUNALDIAK:

- [757-760] *Sarrera*  
RETOLAZA, Iratxe
- [761-765] *Euskal literaturaren historia eta historiografia*  
LASAGABASTER, Jesus Maria
- [767-800] *Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpideak*  
TOLEDO LEZETA, Ana
- [801-821] *Euskal literaturaren historia. Eredu berrituaren aurkezpen  
historiografikoa*  
CASENAVE, Jon
- [823-839] *Euskal literaturaren historia; begirada berriaz*  
ETXANIZ, Xabier
- [841-852] *Genero periferikoen agerpena euskal literaturaren historietan*  
LÓPEZ GASENI, Jose Manuel
- [853-875] *Istorioren gizatasuna euskal literaturan: adibide bat*  
BARANDIARAN, Asier
- [877-914] *Praktika literarioaren esparru sozialak eta XVIII. mendeko  
euskal literatura penintsularra: Naissance de l'écrivain?*  
BIJUESCA, K. Josu

- [915-951] *Bertso-papereen eta baladen sailkapenez gogoetak & oharrak edizio baterako*  
URKIZU, Patri
- [953-976] *Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idazleak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta*  
RETOLAZA, Iratxe
- [977-990] *Eztabaida-saioen laburpena*

**BESTE IKERKETAK:**

- [993-1022] *Amatasunaren gaineko diskurtsoak euskal eleberrigintza garaikidean*  
LASARTE, Gema

**OHARRAK:**

- [1025-1038] *Andima Ibinagabeitiaren nortasun politikoa*  
AULESTIA TXAKARTEGI, Gorka

**LIBURU-AIPAMENAK:**

- [1041-1046] Martorell, Manuel  
*Retorno a la lealtad: El desafío carlista al franquismo*  
GARTZIA ISASTI, Pruden
- [1047-1051] Pavlac, Brian A.  
*Witch Hunts in the Western World: Persecution and Punishment from the Inquisition through the Salem Trials*  
GARTZIA ISASTI, Pruden

\* \* \*



- [1055-1058] *Euskera* agerkariaren idazketa arauak
- [1059-1062] Normas de redacción de la revista *Euskera*
- [1063-1066] Normes de rédaction de la revue *Euskera*
- [1067-1070] Writing guidelines for the journal *Euskera*

# XV. JAGON Jardunaldiak

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2010-XI-19



# Sarrera

ALEMAN ASTIZ, Sagrario

Euskaltzain osoa eta Sustapen batzordeko burua

Euskararen corpora ez ezik euskararen indarberritzea ere zertan den, zein ekarri egin litekeen aztergai izan du Euskaltzaindiak sortu zen lehenbiziko momentutik. Izatez, hizkuntza bat indarberritzeak bi beso hartzen ditu –oro har–: alde batetik, hizkuntza hori gaurkotzearekin zer ikusia duena, hiztunen behar berriak asebetetzeko asmoz, hizkuntza horren corpora arian-arian eguneratuz; eta beste aldetik, hizkuntzaren ezagutza eta haren erabilera areagotzeko ahaleginak egitearekin lotuta dagoena.

Izan ere, zertarako hizkuntza baten corpora eguneratzen ahalegindu baldin hiztunik ez badago bazterretan? Aldi berean, nola manten liteke hizkuntza bat bizirik baldin eta hizkuntza hori hiztunen behar berriak asebetetzeko gauza ez bada?

Horiek horrela izanik, euskararen indarberritzearen alderdi desberdinak ikertzeko nola baita sustatzeko asmoz, sortu zuen Euskaltzaindiak Jagon saila. Geroztik, sail honen eraginpean egon dira, besteak beste, euskarazko irakaskuntza sustatzeko ahaleginak, helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua abian jartzea eta antolatzea, eremu horretan hainbat ikerketa egitea zein laguntzea, etab.

Euskararen bizi-indarra zertan den aztertzeko gogoeta-saioak antolatzen eta ikerketak ere burutzen ditu Jagon sailaren barruan Euskaltzaindiak. Hausnarketa edota ikerketa lan horietako zenbait argitaratu dira dagoeneko, besteak beste, Jagon sailaren bilduman.

Gogoeta-saio horien inguruabarrean kokatzen dira Euskaltzaindiak antolatzen dituen Jagon jardunaldiak ere. 2010. urtekoak XV. Jagon jardunaldiak izan dira eta, azken urteotako jardunaldien hariari segida emanez, hizkuntza-erkidegoan suertatzen ari diren fenomeno berriak ikertzea era aztertzea du xede.

Euskararen ezagutza eta erabilera gazteen artean zertan den, eremu formalean eta ez-formalean gertatzen den erabilera, aisialdiko eskaintzaren azterketa, gazte belaunaldiek zer kontsumitzen duten, euskararen kontua nola bizi duten eta abar izan ziren aztergai, Bilbon, 2010eko azaroaren 19an, goizez eta arratsaldez, «Gazteak, aisialdia eta euskara» izenburupean egin ziren XV. Jagon jardunaldietan. Saio haietako batzuetan, gainera, gazteak

izan ziren protagonista. Halaxe behar zuen. Helduek gazteei buruz zer dioten ez ezik, gazteen iritziak, gogoetak eta proposamenak ere baziren interesatzen zitzaizkigunak.

Hona hemen, beraz, Jagon jardunaldietan aurkeztutako zenbait lan. Gai honetan hausnarrean, sakontzen jarraitzeko Euskaltzaindiak egiten duen ekarpen berri bat.



# **Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur**

HERNÁNDEZ, Jone M.

UPV-EHUko Gizarte Antropologiako irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24



Jada, gutako asko ez gara gazteak, baina gazteak interesatzen zaizkigu edo kezkatzen gaituzte, eta horregatik ikertu nahi ditugu. Baina, zergatik? Zertarako? Eta nondik? Datozen orrietan, galdera hauek eta beste batzuk erantzuteko saiakera egingo dut. Dena hiru ardatz nagusien inguruan. Lehenengoan gazte izaera/izatearen inguruan arituko naiz, gazte kategoria edo nozioak daukan pisu soziokulturala nabarmentzeko. Bigarreanean gazteen aisialdiaz mintzatuko naiz, denbora libreak adin talde honetan duen protagonismoa aldarrikatzeko asmoz. Azkenik, gazteak eta hizkuntzaren (euskararen) arteko loturaz hitz egingo dut eta harreman konplexu honen parte diren hainbat elementutan jarriko dut bereziki arreta.

**Hitz-gakoak:** gazteak, aisialdia, euskara.

Hoy en día, entre quienes estudiamos la juventud muchas/os no somos ya jóvenes, pero nos interesan y nos preocupan, y es por ello que los investigamos. Pero ¿para qué? ¿Por qué? Y ¿desde dónde? En las siguientes páginas voy a tratar de responder a estas preguntas, todo ello en torno a tres ejes. Primero reflexionaré sobre lo que es ser joven, con la intención de subrayar el peso socio-cultural de esta categoría o noción. Posteriormente me centraré en el ocio juvenil, para reclamar el peso que tiene el tiempo libre en esta franja de edad. Para finalizar hablaré sobre la relación entre las y los jóvenes y el euskera.

**Palabras clave:** jóvenes, ocio, euskera.

Aujourd'hui beaucoup d'entre nous ne sommes pas jeunes, mais les jeunes nous intéressent et nous préoccupent, c'est pour cela que nous réalisons cette enquête. Mais dans quel but ? pourquoi ? et à partir de quoi ? Dans les pages qui vont suivre je vais essayer de répondre à ces questions en partant de trois axes. Je réfléchirai d'abord à ce qu'est être jeune, en soulignant le poids socio-culturel de cette catégorie ou notion. Puis je m'intéresserai aux loisirs des jeunes pour souligner l'importance des loisirs dans cette frange d'âge. Pour terminer je parlerai des relations entre les jeunes et de la relation qu'ils entretiennent avec le basque.

**Mots-clés :** jeunes, loisirs, basque.

Many of us are no longer young, but we are interested in young people or we are concerned about them, and that is why we want to do research on them. But why? What for? And on what basis? In the following pages I shall be endeavouring to answer these and other questions all around three main lines. In the first, I shall be dealing with the nature of the young person, to highlight the socio-cultural weight of the category or notion of the young person. In the second, I shall be dealing with the leisure time of young people, to draw attention to the prominence of leisure time in this age group. In the last one, I shall be dealing with the bond between young people and (the Basque) language, and I shall be focusing in particular on various elements that are a part of this complex relationship.

**Keywords:** young people, leisure time, Basque.

Elyem Chej Legutioko 13 urteko neskatilak,  
guraso etorkinei egindako bertsoak:

*«Bertso koadrila beti izan da/ nire lagunik onena/  
Oihane ere izan baituzu/ Gu aguantatzeko kemena/  
Familia ere hona etorri da/ Nahiz eta ez ulertu dena/  
Bihotz-bihotzez zuentzako da/ Musurik handiena».*

Testu hau prestatzen hastean konturatu naiz jada hamar urte baino gehiago pasa direla gazteriari buruz egindako lehenengo ikerketa argitaratu nuenetik (Martínez de Luna, 1999). Garai hartan ia hogeita hamar urte nituen, eta ez dakit «gazte» kategorian sartu ninteken, baina orain baino gertuago neukan gaztaroa, orain baino hurbilagoa sentitzen nituen gazteak. Horietako batzuk elkarrizketatu nituen ikerketa hori burutzen ari nintzela eta gogoan dudanaren arabera orduan ez nituen sumatu gaur bezain urrun. Egun, unibertsitateko irakaslea naizenetik, egunero, gelan sartzen naizenean belaunaldien arteko distantzia sentitzen dut, batzuetan amildegia izatera iristen dena. Dudarik gabe bizitzako beste etapa batean nago; artikulua honen irakurle gehienentzera –pentsatzen dut–. Hori esaten digute egunero gure gazteek, nahiz eta merkatuak –eta zehazkiago eredu kontsumistak– beste diskurtso bat sinestarazi nahi izan.

Jada, gutako asko ez gara gazteak, baina gazteak interesatzen zaizkigu edo kezkatzen gaituzte, eta horregatik ikertu nahi ditugu. Baina, zergatik? Zertarako? Eta nondik? Datozen orrietan, galdera hauek eta beste batzuk erantzuteko saiakera egingo dut. Dena hiru ardatz nagusiren inguruan. Lehenengoan gazte izaera/izatearen inguruan arituko naiz, gazte kategorია edo nozioak daukan pisu soziokulturala nabarmentzeko. Bigarrenetan gazteen aisialdiaz mintzatuko naiz, denbora libreak adin talde honetan duen protagonismoa aldarrikatzeko asmoz. Azkenik, gazteak eta hizkuntzaren (euskararen) arteko loturaz hitz egingo dut eta harreman konplexu honen parte diren hainbat elementutan jarriko dut bereziki arreta.

Ondoren, hiru aspektu horien azterketari ekingo diot.

## 1. Gaztea naiz eta...

Puntu hau garatzeko orduan ezinbestekoa jotzen dut Carles Feixa antropologo katalanak burututako lana. Feixa da, dudarik gabe Estatu mailan gazteriaren inguruan aditu nagusienetarikoa bat, eta bere testuak biziki gomendatuko nizkioke gazteriarekin arduratuta dagoen edozeini. Egile honen lehendabiziko kezka gazteria bera definitzea izan da. Horrela eta tradizio antropologikoari so eginez, argi eta garbi uzten du bere lanetan gazteria eta horiei loturiko hainbat kontzeptu (besteak beste nerabezeroarena) «asmakizun» bat direla, gizarte eraikuntzak alegia, testuinguru sozial eta historiko batean sortutakoak. Zentzu honetan egileak gaztaroa eta, zehazki, nerabezeroa, industrializazioaren hastapenetan, hau da XVIII. mendearen erdialdean– sortutakoa dela dio (Feixa, 2006) nahiz eta 1900. urte ingurura arte ez den zabaltzen hasiko. Orduan belaunaldi berri batek kontzientzia hartzen du berezko kultura bat osatzen ari dela, helduen kulturarekiko ezberdina dena. Horren ildotik, gaztaroa demokratizatzen (hedatzen) hasten da gizarte erakunde nagusien aldaketekin batera (Feixa, 2006:3)

*«(...) diversas reformas en la escuela, el mercado de trabajo, la familia, el servicio militar, las asociaciones juveniles y el mundo de ocio, permitieron que surgiera una nueva generación consciente de crear una cultura propia y distintiva, diferente a la de los adultos».*

Beraz, besterik baino lehen azpimarratu behar da, gazteria kontzeptua sortutako gizarte kategoria dela. Ahaztu egin zaigu, baina gutako askok sarritan entzun izan ditugu gure guraso edo aiton-amonen istorioak. Horietan behin eta berriz azpimarratzen zuten euren gaztaroaren (eta askotan haurtzaroarena ere) iraupen laburra. Eskolatik lantokira (askok eskola garaia bukatu gabe) eta urte gutxitan familiako ardurekin. Dena goizegi (gazteegi) eta jarraian egiten zuten, eta gaztaroaren printza batzuk baino ez zituzten ezagutu, eza gutu zituztenak. Baina XX. mendea joan ahala gauzak aldatuz joango ziren mendebaldeko gizarteetan, testuinguru ekonomiko, politiko nahiz kulturalen eraldaketarekin batera. Guzti horren fruitua dira azken hamarkadetako gazte belaunaldiak. Halere, ezin dugu ahaztu beste gizarte batzuetan gauzak beste modu batean gertatu izan direla (eta gertatzen direla) eta ezberdintasun hauek, hain zuzen ere, nabarmendu dituzte maiz antropologoek.

Idea hauek xingle eta jakinak dirudite, baina inpresioa dut sarritan ez ditugula kontuan hartzen eta behin baino gehiagotan joera dugu gazteria kategoria atemporal eta unibertsal bezala ulertzeko. Uste oker honen kontra doa, hain zuzen ere, Feixak gazteriaren inguruan proposatzen dituen hiru diskurtso, narrazio, imajinario edo ereduaz azterketa. Hiru eredu horien oinarrian uste bat dago: gazteriaren nozioa aldakorra da eta praktikan helduen mundura suposatzen duen pasabide edo trantsizio hori aldiro-aldiro birplanteatzen ari da. Gaztaroa, haurtzaroa eta helduaroaren arteko garaia litzateke baina, nola definitzen da garai historiko bakoitzean igarobide fase hori? Nola definitzen du gizarte bakoitzak gazteria, gazte izatea? Nola interpretatzen dute gaztetxoek beraiek euren bizitzako etapa hori? Zeren arabera definitzen dute euren burua gazte bezala?

Egungo gazteriaren inguruan mintzatzeko lagungarriak direlakoan, ondoren, labor azalduko ditut Feixak aipatutako hiru narrazio edo eredu (Feixa, 2005a; Feixa, 2009); XVIII-XXI. mendetan zehar garatutakoak.

Lehenengo ereduak «Tarzan-en sindromearekin» identifikatu izan du antropologo katalanak. Eredu hau Jean-Jacques Rousseauk asmatu zuen XVIII. mendearen bukaeran baina astiro garatu zen eta esan daiteke XX. mendearen erdialdera arte mantendu zela indarrean. Eredu honen oinarrian uste sendo bat dago: nerabea, gaztetxoa zibilizatu beharreko gizakia litzateke, basati ona, pertsona garbia, purua. Bere baitan potentzialtasun ugari biltzen ditu, baina garatu gabe daude. Horretarako zaintza eta gizarteratze praktika egokiak jarri behar dira martxan. Baina horren aurrean zalantzak sortzen dira: noiz arte mantendu behar da nerabea bere munduan? Noiz integratu behar da helduen gizartean? Tarzanek bezala, gazte mota honek miwesmena eta beldurra sentitzen ditu –batera– helduen gizarteraren aurrean. Halere, eredu honetan trantsizioak oso azkar ematen ziren: jolasetik lan mundura; lan mundutik familiaren osaketara (behin soldaduska eginda, noski). Feixak aipatzen duenez (Feixa, 2005a:4) neurri handi batean eredu honek ahozkotasunean oinarritutako kultura batetik idazketan oinarritutako kultura batera ematen den jauzia islatzen du.

Bigarren ereduak «Peter Pan-en sindromearekin» lotzen du Feixak eta garaiko gazteriaren erretratua litzateke. Bigarren Mundu Gerra gertatu on-

doren sortu zen eta 50. hamarkadatik aurrera hasi zen zabaltzen, kapitalismoak eta kontsumo gizartearen garapenak lagunduta. Eredu honetan –dio Feixak– nerabeak subjektu iraultzaile berriak dira. Kontsumismoaren protagonista bilakatzen dira nerabeak, helduen mundua eta gizarte egituraren kontra eginez. Testuinguru berri honetan gazte izatea da helburua (*Forever Young*). Hori dela eta, heldu arorako trantsizioa moteldu egiten da eta hainbat ohiko igarobide desagertzen hasten dira, adibidez, soldaduska (Feixa, 2005a:5):

«(...) el proceso acelerado de escolarización, la creación de microsociedades adolescentes –así en la educación como en el ocio–, el aumento de la capacidad adquisitiva de los jóvenes, la desaparición de los rituales de paso hacia la edad adulta, la emergencia de «tribus» y subculturas juveniles, serían los rasgos característicos de un modelo de inserción «mecánica» en la sociedad».

Feixak musika munduan sortutako hainbat talde famaturekin lotzen du eredu hau, besteak beste *The Who* edo *Beatles* taldeekin. Antropologo katalanak (Feixa, 2009) dioen arabera, gazteriaren inguruan narrazio edo erre-lato berri bat sortzen da, kasu honetan idatzizko kultura batetik ikusme-nezko kultura baterako bidea irudikatzen duena, Guttenbergen galaxiatik, McLuhanen galaxiara doana, alegia.

Hirugarren eredu postmodernitatean kokatzen du Feixak eta «Blade Runner-en sindrome» bezala izendatu du aipatu antropologoak (Feixa, 2005a:5). Bere sorrera XX. mendearen bukaeran kokatu daiteke baina etorkizunera begiratzen du, horregatik XXI. mendean zehar guztiz zabalduko dela uste du Feixak (Feixa, 2005a:5). Eredu honen funtsean gizarte-sarearen ideologo eta bultzatzaileak –ofizialak zein alternatiboak, hau da, *hackerrak*– aurkitu daitezke. Ikuspegi berri honetatik, lana eta aisialdiaren arteko fusioa aldarrikatzen da, eta adimen artifiziala eta gizarte esperimentazioaren arteko lotura goraiatzeko da. Testuinguru honetan nerabeak izaki artifizialak –erdi robotak, erdi gizakiak– izango lirатеke. Beti kinkan: alde batetik, helduei errespetua zor; bestetik, helduen mundutik alendu nahia. Feixak azaltzen duenez, kontzientzia eta memoriarik gabeko gazteak direnez ez dira guztiz aske euren etorkizuna eraikitzeko. Baina, bestalde, teknologi berrien potentzialtasun guztiak erabiltzeko hazi eta heziak izan diren neurrian,

hobeto prestatuta daude aldaketak onartzeko eta egoera berrietara egokitzeko. Ez dituzte helduek dituzten aurreiritziak, baina beren iraultzak porrota egingo du (Feixa, 2009):

*«(...) sólo pueden protagonizar revueltas episódicas y estériles, esperando adquirir algún día la «conciencia» que los hará adultos. Como los replicantes, tienen todo el mundo a su alcance, pero no son amos de sus destinos. Y como blade runners, los adultos sienten hacia ellos una mezcla de fascinación y de miedo».*

Eredu hibrido eta zalantzakoa da guzti honen emaitza: alde batetik, gizartearen *infantilizazioa* ematen da; bestetik, teknologi berrien hedapenaren ondorioz adimen aldakorra (edo malgua) nagusitzen da. Horiekin batera beste faktore askok laguntzen dute eredu berri hau definitzen: lan munduan sartzeko edota gurasoengandik aldentzeko erresistentziak edota zailtasunak, nerabeen arteko mundu mailako sareen sendotzea, Interneteko komunitate birtualen agerpena, eta abar. Guzti hauek «Blade Runner»-en ereduaren ezaugarriak lirateke, gizarteratzeko eredu birtual batena, alegia. Hemendik narrazio berezi bat egituratuko da, ikusmenezko kultura batetik hipertestura pasatzerakoan sortzen dena, alegia. Beste hitzetan esanda, McLuhan-en galaxiatik Gates-en galaxiara igarotzeko narrazioa edo diskurtsoa.

Hiru eredu hauek, azpimarratzen du Feixak, ez dira inolaz ere bazter-tzaileak, izan ere eredu bakoitzetik sortutako aldaerak bizirik iraun dezakete egun. Baina ondorio bezala Feixak zera azpimarratzen du, gazteriak ez du esnatu nahi, ametsetan jarraitu nahi du (Feixa, 2009):

*«(...) la juventud ha dejado de ser un rito de paso para convertirse en una ritualización del impasse».*

Eta Euskal Herriko gazteak? Aplikagarria al da Feixak proposatzen duen azterketa gure errealitatera? Baliogarria da gure gazteak irudikatzen? Nābardurak alde batera utzita, baietz uste dut. Hirugarren ereduan argi agertzen den bezala egun teknologi berriek izugarritzko pisua dute gazteriaren definizioan. Errealitate honekin batera, globalizazioa eta transmigratioari loturiko fenomenoak gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira gure gizarteetan. Joera berri hauetan giltzarri nagusi bat agertzen da: fluxuena. Egundak fluxuek, sareak, mugak ordezkatu dituzte, edo hobe esanda fluxuek

mugak eztabaidagai bihurtu dituzte. Eta eztabaida horretan aurkitzen dira, hain zuzen ere, gure gazteak. Gazte bezala mundu mailako gazte komunitateen partaide sentitzen dira; euskaldun bezala kultura zehatz batean errotuta ikusten dute euren burua. Merkatuak eta maila globalean ematen ari diren gertakariak (komunikazioa, globalizazioa, transmigratioa) bultzatako prozesuen parte direla diote, baina aldi berean tokian tokiko errealitatearen partaideak kontsideratzen dira. Gainera, ezin dugu ahaztu gazte hauek, gure gazteak, hazi egin direla eta heziak izan direla testuinguru kultural batean zeinetan mugak (zentzu zabal eta anitzean) pisu sinboliko eta erreal nabarmena izan duten (eta dute) (del Valle, 1988).

Laburbilduz, nazioarte mailan ematen ari diren prozesu hauek eszenatoki berri baten aurrean kokatzen gaituztela azpimarratu nahiko nuke: lehenengo aldiz eztabaidak Estatuaren dimentsioa gaintu beharko du, mundu mailako kezka eta arazoei aurre egiteko. Identitate tradizionalak ezarritako mugak merkatuak sortutakoengatik gaintitzen edo ordezkutzen ari direla uste dut. Neurri batean internetek bultzatako sare sozialen fenomenoak hori erakusten digu: mugaz gaintiko errealitate baten antolaketa prozesua, logika eta interes berriak dituen. Praktikan, Espainiako nahiz Frantziako mugak bigarren maila batean gera daitezke. Horrela, identitateak osatzeko garaian espazioak (distantziak, gertutasunak) tradizionalki izan duen garrantzia birformulatu behar da, besteak beste egun espazioa birtuala ere izan daitekeelako. Baina nola gaintu mugak gure kulturaren duen garrantzi sinbolikoa? Nola alboratu gure identitaterako hain funtsezkoak izan diren limiteak?

Eztabaida horretan ikusten ditut nik gazteak egun. Zalantza beteta. Tentsioan: nola definitu mugarik gabeko euskalduna? Posiblea al da, edo beharrezkoa da mugarik gabeko euskaldun identitatea?

Galdera, zalantza eta tentsio honek erronka berrien aurrean jartzen gaitu. Marcyelina Morganek dionez (Morgan, 2004) komunikazioak, globalizazioak edo transmigratioak elebakartasuna utopia bilakatzen dute. Horren adibide argiena, gainera, gaztetxoek mundutik etor daiteke. Izan ere, nahiz eta hizkuntza bera ez izan, egun, munduko punta ezberdinetan bizi diren gazteak hizkuntz komunitate bat osatu dezakete, hitz egiteko modua, hizkuntzari loturiko sormena, berrikuntza gramatikalak partekatzen baiti-

tuzte. Horren adibidea Morganen artikuluan topatzen dugu, bertan egileak Paris eta New Yorken bizi diren bi *hip-hoperoen* arteko loturak aztertzen ditu eta gazte hauek hizkuntza ezberdinak hitz egin arren, hizkuntz komunitate bereko kideak kontsideratu daitezkeela aldarrikatzen du. Zergatik? Bere hitzetan (Morgan, 2004:6):

*«In the case of these hip hop artists, the speech community is not linguistically and physically located but is bound by politics, culture, social condition, and norms, values, and attitudes about language use».*

Puntu honetan nabarmendu nahi dut Morganen planteamenduak hizkuntz komunitatearen nozioa eztabaidagai bihurtzen duela eta, argi eta garbi, interpretazio eta kontzeptu berrien beharra aldarrikatzen duela. Baina momentuz ez naiz sartuko zeregin honetan. Aldiz, adibide interesgarri bat jarri nahi dut mahai gainean, ikusteko nola jada orain dela 20 urte hainbat gazte saiatu ziren fluxu mugen arteko tirabira eta tentsio honetatik alde egiten, XXI. mendeko euskal gazteriarentzat identitate eredu bat zirriborratuz. Horrela, *Negu Gorriak* musika taldea osatu zuten gazte horien aldarrikapenak nabarmendu nahiko nituzke. *Negu Gorriak* musika taldea 1989an jaio zen eta urtebete beranduago bere lehenengo diskoa atera zuten: «Esan Ozenki». Bi taldekide –Fermin eta Iñigo Muguruza anaiak– *Kortatu*–n ere taldekideak izan ziren aurretik. Proiektu hura desagerrarazi eta beste musikari batzuekin batera etapa berri bati hasiera ematea erabakitzen dute. Musikari hauek aurretik «Euskal Rock Erradikala» deitutako fenomenoarekin lotura estua izan bazuten ere, *Negu Gorriak* taldea martxan jartzerakoan erreferentzi berriak bereganatu zituzten: horrela, punk-a eta thrash rock gogorarekin lotura mantentzen badute ere, rap-aren mundura hurbiltzen hasi ziren eta bere eragina nabarmena izan zen, bai musikan, bai estetikan, eta batez ere diskurtsoan. *Public Enemy* ezinbesteko erreferentzia bilakatzen da eurentzat. Horrela azaltzen du Fermin Muguruzak (Urla, 2001:2):

*«Nos impresionó Public Enemy, la fuerza que tenía el movimiento rap, y su poder crítico, así como nos había impresionado el movimiento punk de los 77».*

Baina oraindik aldaketa nabarmenago bat azpimarratu behar da: hizkuntzarena. Teoriatik praktikara egin zuten jauzia *Negu Gorriak* taldekoek:



euskaraz bakarrik abestea erabaki zuten (ordu arteko hizkuntz praktikak apurtuz). Jacqueline Urlaren ustez (Urla, 2001:2) horren eragina handia izan zen. Muguruza anaien ibilbide artistiko eta musikala gazteleraz egina zen ordura arte<sup>1</sup>. Euskara galdua zegoen bere familian, baina ikasteko erabakia hartu zuten eta «euskaldunberriak» bihurtu ziren. Baina hizkuntza ikasteaz eta erabiltzeaz gain, hizkuntzaren inguruko hainbat lelo (geroago famatuak izango zirenak) utzi dizkigute, besteak beste ondorengoa: *Euskalduna naiz eta harro nago*. Urlak azaltzen duen moduan (Urla, 2001:2):

*Aquí se da la versión euskaldunizada de la famosa proclamación de orgullo negro hecho por James Brown –Say it loud, I’m black and I’m proud–.*

Keinu xumea izan daiteke, baina nire ustez garrantzi sinboliko handia du: lehenengo aldiz euskal gazteriarri loturiko diskurtso erradikalak (gehienbat abertzalea), mugak apurtzen ditu eta ohiko dikotomieie –punk/gizartea eta basko/espainiara– beste batzuek gehitzen zaizkie –esate baterako txuria/ez txuria–. Nazioarteko elkartasuna bultzatu nahi du eta geroztik ohikoak izango dira *Negu Gorriak* taldeak beren lanetan beste herri edo kolektibo gutxituei buruzko erreferentziak txertatzea. Nabarduretan sartu gabe, iruditzen zait *Negu Gorriak*-en kasua adibide interesgarri bat izan daiteke aurretik aipatutako joera irudikatzeke: espazioa eta denboraren «desagerpena». Horrek imaginario berri bat sortzeko aukera ematen du: euskara erdigunean, baina hiztuna eta bere errealitatea/egoera (soziala, kulturala, sexuala, etabar.) nabarmenduz (Urla, 2001:7):

*«En la letra de sus canciones, y en sus actuaciones y práctica, demuestran que el ser vasco no requiere aislarse de un mundo más amplio de gustos y preocupaciones sociales. No requiere renunciar a la chupa por la boina, ni cambiar los compactos de Fishbone por los de Benito Lertxundi. Pero sí implica que hay que hablar euskara, o por lo menos aprenderlo, y también tratar de entender la conexión y similitudes entre la opresión económica, cultural, lingüística, racial y sexual. (...) En fin, la producción musical de estos jóvenes visto en su conjunto no disminuye su identidad como patriotas o como auténticos vascos, pero sí cambia lo que ser patriota o auténtico puede significar y los símbolos a través de los cuales se reconoce».*

<sup>1</sup> Zehatzagoak izateko, Kortaturen laugarren diskoa euskara hutsean egin zuten.

## 2. Gu, gure aisialdia

Kontxi Berrio-Otxoa, Zesar Martinez eta hirurok (2003) gatzetxoan aisialdiari buruzko ikerketa burutu genuen 2001 eta 2002 urteetan. Ikerlanaren eginbehar garrantzitsuenetariko bat, gazteentzat aisialdia zer den definitzea izan zen. Zaila suertatu arren, ikerlanaren txostenari begira, horrelako definizioa osatu genuen (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:7):

*«Ezbairik gabe, gure gizartean denbora librea garrantzi handiko denbora da gazteentzat. Izan ere, ikasketekin edo bestelako betebeharrekin okupatuta ez dagoen denbora izanik, aukera ematen die gazte-garaian oso premiazkoa den beharrian bati erantzuteko: norberaren subjektibitatea garatzea eta modu librean adieraztea. Horrela, eskoletatik eta gainontzeko eginbeharretatik kanpo gelditzen zaien denbora librea bezala definituta aisialdia, aisialdiko denbora horretan bere harremanak, zaletasunak eta bete nahiak lantzeko aukera dute. Seguru asko, aisialdi momentu horiek euren barneko nahi, balio eta desioak adierazteko aukera bezala ikusten dituzte; aukera gauzatua edo frustratua izango dena, inguruan topatzen edo sortzen dituzten harreman, jarduera eta eskaintzen arabera».*

Gure ikuspegitik gazteen aisialdia aztertzeko, ulertzeko eta azaltzeko hiru eremu landu behar genituen: harremanak, jarduerak eta espazioak. Aisialdia hiru elementu horietaz osatuta ikusten genuen, eta bakoitzean gazteen bizitzan eta bereziki euren denbora librean parte hartzen duten agente guztiak biltzen ziren. Aipatutako hiru lan ildoak ikertzerakoan aisialdiari loturiko hiru galdera erantzuten saiatu ginen: aisialdia bai, baina Norekin? Zertan? Non?

Egia esan eremu bakoitzaren azterketak informazio aberatsa eta interresgarria eskaini zigen, baina hiru horien artean espazioaren azterketa biziki emankorra suertatu zen, gazteei aisialdiaren inguruko hainbat elementu, bizipen nahiz diskurtso espazioan kokatzea bereziki lagungarria gertatzen zitzairen eta. Zailtasunak zailtasun adierazteko besterik ez zutenean, gutxienez beti agertzen ziren prest euren ohiko aisialdirako gunei buruz hitz egiteko. Diskurtso mota honi helduz lau aisialdirako

gune ezberdin finkatu genituen (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:27):

- Gune konpartituak:
  - Etxea eta familia
  - Ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerak
  - Kirol eta kultur azpiegiturak: kiroldegia eta liburutegiak
- Gune monitorizatuak:
  - Kirol eta kultur taldeak
  - Aisialdiko taldeak
  - Gaztelekuak
  - Gazteentzako egitasmo bereziak (Gaukoak, Gau On, eta abar)
- Gune birziklatutak:
  - Kalea, plaza, parkea
  - Aterpeak, aparteko zokoak, atariak, etxepeak
- Berezko guneak:
  - Taberna zonaldeak
  - Diskotekak
  - Lonja/txokoak/txabola
  - Gaztetxeak

Gune hauen azterketa sakona egin genuen. Momentu honetan ez dut beharrezkoa ikusten horretara bueltatzea. Halere, badira elementu pare bat berreskuratu nahi ditudanak azterketa horretatik. Alde batetik, nabarmendu nahiko nuke berezko guneak deituriko kategoriak gazteen aisialdian duen papera. Bestalde, azpimarratu nahiko nuke gune edo toki horiek (berezko guneak) gazteen identitate osaketan duten garrantzia. Gazte izatea, gazte identitatea espazioan gauzatzen dela esan dezakegu, baina ez edozein espaziotan, aisialdia zer den azaltzeko erabiltzen dituzten esparru horietan baizik. Horrela azaltzen genuen ideia hau amaierako txostenean (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:57):

«Gaztetxoek proposaturiko aisialdiaren definiziora hurbiltzeko garaian berezko guneak kategorian parte hartzen duten espazio ezberdinek (taberna zonaldeak, diskotekak, lonjak eta gaztetxeak) ezin hobeto islatzen dituzte definizio horri atxikitzen dizkioten ezaugarriak. Ezaugarri horiek aisialdia bete-betean bizitzeko eta gozatzeko aukerarekin parekatzen dituzte nerabeek eta, era batean edo bestean, leku horietan biltzen diren elementuak lirakeke. Ikuspuntu horretatik, berezko guneak bezala izendatu dugun kategoria horren baitan agertzen diren aisialdirako tokiek datozen ezaugarriekin bat egiten dutela antzeman dugu».

Azalpen honen ondoren aipatutako ezaugarriak zehaztu genituen. Nik momentu honetan zerrendatu baino ez ditut egingo. Sakonean zegoen galdera hau zen: zergatik dira hain garrantzitsuak gune hauek gaztetxoek ikuspegitik?

- Gaztetxoek aisialdi intentsiborako aukeratutako edota sortutako berezko eremuak direlako. Hau da, helduen mundutik aparte bereganatutako espazioak eta denborak direlako.
- Gaztetxoek neurritik egindako mundua osatzen dutelako. Berezko jarduerak eta adierazpenak bultzatzen dituzten guneak direlako.
- Gaztetxoek esperientzia kolektiboa garatzeko aukera eskaintzen dutelako.
- Gazte kultura ezberdinen adierazpenerako guneak direlako. Askatasunezko, ihes egiteko eta gozameneko sentsazioari lotutako espazioak direlako; erabaki gaitasuna eta protagonismoa sentitzekoak direlako.


Gune hauetan besteetan ez bezala nolabaiteko sinbiosia sumatzen zen, bertan gazte izan (identitatea) eta aisialdia bat egiten zutelako. Honek ondorio interesgarri batera eramaten gaitu: aisialdia ezinbesteko elementua litzateke gazte identitatea (gazte izatea zer den) ulertzeko, edo beste hitzetan, gazteek, neurri handi batean, aisialdiaren bitartez eraikitzen dute euren bizimodua, izaera, diskurtso... euren gazte izateko era. Eta aisialdirako gune ezberdinak identitate eraketarako eszenatoki bilakatzen dira.

Ildo honetatik galdera interesgarri bat sortzen da: zein espazio mota dira egun protagonista gazteen munduan? Guk egindako ikerketa eta beste egile batzuen ekarpenak kontuan harturik hipotesi bat azaltzera ausartuko nintzateke: egungo gazteek jarduera publikoen pribatizazioaren alde egin dute.

Ondoren, hipotesi honen azalpenean eta detektatutako joera horrek hizkuntz eremuan eduki ditzakeen ondorioetan erreparatuko dut laburki.

Orain dela ia hamar urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak haur eta nerabeen aisialdiari buruzko ikerketa bat enkargatu zigun Kontxi Berrio-Otxoa, Zesar Martinez eta hiruroi. Horren emaitzak 2000. urtean argitaratu ziren (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2000) eta bertan, besteak beste, gaztetxoan denbora librearen garapenari buruzko atal bat irakur daiteke. Ibilbide historiko hori 70. hamarkadan hasten da. Garai horretan jaiotze ginek bat egiten dugu bertan agertzen den diagnostikoarekin: momentu horretan, aisialdia, kale jokoak eta denbora-pasak sinonimoak ziren. Kalea zen nagusi haur eta nerabeen denbora librean, bertan gauzatzen zirelako euren eskola ordur kanpoko jarduerak. Horretaz aparte, elizari loturiko talde gutxi batzuk zeuden eta horiekin batera hainbat ekimen kultural nahiz kirolaren ingurukoak. Baina kopuru oso txikiaz ari gara.

Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan: bilakaera historikoaren zertzelada nagusiak.



Iturria: Berrio-Otxoa et al., 2000: 17.

Denbora joan ahala eta grafiakoan ikus daitekeen moduan haur eta gaztetxoek bizitzako esparru hori dezente korapilatzen da eta 90. hamarkadan erreparatzen badugu konturatuko gara aisialdian parte hartzen zuten agente kopurua nabarmen handitu zela. Aipatu agenteak taulan sartu ezinik badabilta, haur eta gaztetxoek egutegietan berdina gertatzen da. Helduen antzera gaztetxoek agenda bete dute egun eta zentzu horretan bi adin talde hauen bizimodua mimitizatzen ari direla esan daiteke. Kaleak tarte oso txikia du haur eta nerabeen aisialdian (kalea eskola orduz kanpoko jarduera bezala, hau da jolas librea, denbora-pasa desegituratu bezala), eta berarekin batera beste protagonista batzuk aurki daitezke: betiko aisialdi kolektiboak (adibidez scouts taldeak), aisialdi talde berriak (garai hartan jaio berriak ziren hainbat talde, esate baterako euskara taldeei lotutakoak), ikastetxeak eta erakunde publikoak, enpresa pribatuak (nagusiki eredu kontsumista bati lotuta) eta bestelako ekimenak (adibidez kirola).

Ikerlanean aldaketa prozesu honi loturiko hainbat ondorio interesgarri nabarmendu genituen. Horien artean hiru aipatuko ditut momentu honetan labur-labur (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2000: 26-27).

- Egun, aisialdia antolatu beharreko denbora bihurtu da. Orokorrean denboraren bizipenean eta erabilpenean eman diren aldaketen eraginez, eguneko orduak ordutegi eta programazio finko baten menpe kokatzeko joera nagusitu da.
- Aurreko ideari lotuta, aisialdia egin beharrik gabeko denbora izatetik, okupatu edota bete beharreko denbora izatera pasa da. Egun, jendea libre gelditzen den denbora horren beldur ote denaren susmoa areagotzen da, izan ere, gizarteak aisialdia betetzeko eta okupatzeko demaseko grina erakusten baitu. Batzuen ustez, jendeak denbora librea egin beharreko jarduerarik gabe ikusten badu ondasun preziatu bat galtzen ari dela uste du, eta ondorioz, denbora librea aprobetxatu beharreko denboratzat jotzen du.
- Azkenik, eta aurreko ideiek agerian utzi duten bezala, egun aisialdia ekintzarako denbora bihurtu dela azpimarratu beharko litzateke. Egun aukeran dauden ekintzak asko dira, baina funtsean berdin dio zein den azkenean aukeratzen den aisialdirako eskaintza, garrantzitsuena aisialdi hori antolatzea da, okupatzea.

Ikerlana amaitu zenetik hamarkada bat pasa da eta jada momentua litzateke baloratzeko orduan egindako diagnostikoa baliogarria den egungo errealitatea ulertzeko. Nik uste, oraindik ere, argazki hori baliogarria dela ildo nagusiak zirriborratzen dituelako. Garai hartan somatutako joerak (haur eta gazte aisialdiari dagozkionak) egun indarrean diraute. Baina gaurko egoerak hainbat ñabardura egitera behartzen gaitu.

Hasteko esan behar da, egungo gazteek inoiz baino argiagoa dutela, zer den aisialdia eta zer ez, non kokatzen dute muga? Ikastetxetik aterata hasten da euren aisialdia, baina argi bereiztu behar da astean zehar duten aisialdia eta asteburukoa (Emakunde, 2009). Lehenengo kasuan, denbora libre baldintzatua da, bai zuzenean eskolako betebeharrengatik, bai bestelako jarduerengatik (eskolaz kanpoko jarduera arautuak, nolabait esateko). Asteburuetan aldiz, betebeharrekin hautsi egiten da eta benetan hasten da eurentzako denbora. Nik esango nuke, bereizketa hau gero eta argiagoa agertzen dela gazteen bizitzan. Zentzu horretan, asteburuak eurentzako denbora eta espazio «sakratu» edo erritualizatu bezala agertzen dira. Konturatzen bagara, lehen berezko gune bezala aurkeztu ditudan espazioak, nagusiki asteburuetako espazioak dira. Gainera, aipatu behar da, gizarte aldaketa orokorrako eraginda (belaunaldien arteko hausturak, adibidez), merkatuak bultzatuta (gazteentzako bakarrik sortutako aisialdirako guneak, esate baterako), edo bestelako arrazoiak tartean, gazteak denbora libre euren kabuz bizitzeko joera nagusitu dela. Denbora libre hau asteburuetan kontzentratzen da eta bereziki gauean. Hor gizarte paralelo moduko bat sortzen da eta gazteak aske sentitzen dira euren grinak, desioak, kezkek, eta abarrak adierazteko. Euren identitatearen iturburua bilakatu da aisialdia, euren eskola da aisialdia, euren berezko aisialdia.

Baina, joera honetatik abiatuta, beste bi aspektu nabarmendu nahiko nituzke. Aipatu den bezala, azken urteetan gazteek euren denbora librearen definizio propioa osatuz joan dira (hainbat kasutan merkatuak lagunduta). Definizio horietan denbora eta espazioaren bereganatzea funtsezkoa izan da. Asteburua, gaua, gazteena da, eta hori bizitzeko berezko espazioak sortu dira. Batzuetan espazio publikoak dira gazteek okupatzen dituztenak eta zentzu horretan tradizioari eusten diote (plazak edo parkeak, adibidez, beti izan dira aisialdi eta harremanetarako guneak), nahiz eta bere ekintzen bi-

dez gazteek okupazio horretan hainbat aldaketa sartu. Baina beste kasu batzuetan gazteek eurentzako propio sortutako espazioak aldarrikatzen dituzte. Aldarrikapen horri erantzuteko eredu ezberdinak sortu dira: batzuk merkatuaren eskutik (diskotekak esate baterako), baina beste batzuk gazteek beraiek bultzatuak dira. Hor, adibide ezberdinen artean, bi eredu interesgarri agertzen dira: gaztetxeena eta lonjarena. Gaztetxearena ezinbesteko eredia iruditzen zait Euskal Herriko gazteria aztertzeo garaian, baina momentu honetan lonjen fenomenoan jarri nahiko nuke arreta. Zergatik? Aipatu den moduan, lehenago kalea bazen denbora librerako gune nagusia, egun etxea edota bestelako esparru pribatuak ari dira protagonismoa irabazten. Ikuspuntu horretatik esan daiteke denbora librearen pribatizazio bat gertatzen ari dela. Eta lonjak fenomeno honen muturreko adibide direla uste dut.

2001-2002. urte artean gaztetxoak eta aisialdiari buruzko azterketa burutu genuenean horrela definitu genituen lonjak (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:66):

*«(...) lonjak erabilpen pribatua ahalbideratzeko asmoz gaztetxoek sortutako tokiak dira. Beraien ekimenari eta ahaleginari esker sortutako lekuak dira. Gehienetan etxe azpiko lokalak bihurtzen dira lonja, gazte talde batek jabeari alokatu eta txukundu ondoren. (...) Txikiagoak edo handiagoak izan, edozein kasutan ondo hornituta dauden lokalak dira, izan ere, gaztetxoek diotenez, etxean bezain eroso daude bertan. (...) Handik eta hemendik lortutako, sofa, telebista, bideoa, Play Station, musika aparailua, gustuko apaindurak eta nola ez, hotzgailua izaten dira lonjaren azpiegitura osatzen duten elementuak. Diotenez, tokia lagun talde kideen artean txukundu eta garbitu egin dute, eta, orokorrean mantentzeko txandak daudela esaten dute. Horrekin batera, lonja-kide guztien arteko akordioari esker araudia zehazten dela aitortzen dute nerabeek, eta horren bitartez lonjaren erabilerarako ordutegia, gonbidatu posibleen «zerrenda» eta erabilerarako bestelako jarraibideak finkatzen dituzte».*

Nahi dutena egiteko, eta hura nahi duten moduan antolatzeo tokia eskaintzen die lonjak gaztetxoei. Lagunekin egon, musika entzun, jolastu, jende berria ezagutu, egon... Alkohola eta beste droga batzuk lasai kontsumitzeko gunea ere bada lonja. Ikusten denez, bertan egiten dituzten pla-



nak edozein gaztek egiten dituenaren antzekoak dira. Lonja izan edo ez, asteburuetak jarduerak berdintsuak dira. Orduan, zergatik sortzen da lonjaren beharra? Aipatutako ikerlana burutu genuenean bi arrazoi nabarmendu genituen (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003: 67):

*«(...) lonja edo txoko izateak bi abantaila nagusi izango lituzke gazteen arabera. Alde batetik, berotasuna eta babesa ziurtatzen die; bestetik tabernak eskaini ohi duen elkartzeko eta kontsumitzeko tokia bezain lasaia jartzten die eskura. Aipatutakoaz gain, lonjak bezalako berezko tokiek intimitatea eta talde barruko harremanak eta dinamikak garatzeko aproposak izango lirateke, bertan taldeko kideen arteko gertutasuna eta komunikazioa bultzatzen dela baitiote. (...) Azkenik, gaztetxoek aitortzen dutenaren arabera, lonja edo txokoa izateak beste abantaila garrantzitsua izango luke: alkohola eta beste drogen kontsumorako toki lasai bat izatearena».*

Helduen antzera hainbat gaztek «euren etxeko» lasaitasuna, intimitatea eta erosotasuna nahiago dute. Izan ere, ezin da ahaztu gazte hauen gurasoek ere gero eta gehiago aukeratzen dutela etxea denbora librerako esparru nagusi bezala. Era beran, aipatu behar da, etxeak gero eta prestatuago daude aisialdirako gune izateko (teknologi berriak edo bestelako aurrerakuntzak direla eta).

Feixak berak ere aitortzen du aisialdiaren pribatutasuna gero eta garrantzi gehiago hartzen ari dela XXI. mendean. Analisi berezia osatzen du berak fenomeno horren inguruan eta gaztei buruz hitz egiten duenean «gelaren kultura» aipatzen du. Bere hitzetan (Feixa, 2005b:1):

*«Niños y jóvenes han sido vistos a menudo como la vanguardia de la era digital, en su doble vertiente de héroes de la sociedad civil y víctimas de la sociedad del riesgo. Aunque casi siempre este doble proceso de idealización/satanización ha tenido lugar en el espacio público, el espacio privado adquiere cada vez mayor importancia en las culturas adolescentes del siglo XXI. Para bien y para mal las denominadas «culturas de habitación» son hoy uno de los escenarios donde se construye la identidad personal y social de nuestros hijos e hijas, el lugar físico y virtual desde el cual se abren al mundo o se encierran en si mismos».*

Fenomeno hau ilustratzeko Feixak muturreko bi adibide jartzen ditu: Hackerren figura eta hikikomorirena. Ezaguna denez hackerrak gazte sor-

tzaileak dira eta informatika bizimodu bihurtzen dute. Etxetik atera gabe orduak eta orduak pasatzen dituzte ordenagailu aurrean eta, mitoak dio beste hacker batzuekin batera, gobernuei eta multinazionaleri eraso informatikoak planifikatzen dituztela. Euren aisialdia (eta askotan lana ere) etxetik kudeatzen dute eta gela euren askatasunerako esparru kontsideratzen dute.

Hikikomoriak Japoniako hirietan bizi dira. Mutil gazteak izaten dira, 20 urte ingurukoak, eta bere gelan espetxeratzea erabakitzen dute. Zergatik? Kasu batzuetan gazte hauek ikasketak bukatu dituzte eta beldurra diote Japoniako lan merkatu lehiakorriari. Presionatuak sentitzen dira eta gainera, komunikazio eskasa dute gainontzeko familiartekoeekin. Gelan sartuta, Internetek aukera eskaintzen die munduarekin harremanetan jarraitzeko eta gehienetan auto-atxiloketak aste edo hilabete batzuk irauten badu ere, kasu batzuetan urteak igaro daitezke. Denbora honetan, aipatu den moduan, teknologi berriak dira, nagusiki euren sostengua. Ziberkulturak irentsi egiten ditu gazte hauek.

Hacker eta hikikomorien fenomenoak arrotzak ager daitezke gure begi bistan. Egia da, egun, oraindik Euskal Herrian komunitatearen sentimendua oso bizirik dagoela eta kaleko kultura txertatua mantentzen da gure errutinetan, egunerokotasunean. Gure aisialdiaren parte dira lagun arteko topaketak eta bestelako ospakizun nahiz ekitaldi kolektiboak, baina ezin dugu ahaztu Feixak jarritako bi adibide hauetan badagoela elementu komun bat gure gazteen artean gero eta garrantzi handiagoa duena, bereziki, euren aisialdia egituratzeko eta kudeatzeko garaian: teknologi berriak.

Teknologi berriek liluratu egin gaituzte eta egungo haurrak jaio bezain pronto aparailu elektronikoz inguratzen ditugu. Teknologi berriak asko erraztu dute gure bizitza. Horretan ez dago dudarik, baina neurri batean morroi bihurtu gara, bereziki hainbat kasutan gure bizitzan (helduen bizitzan behintzat) preziatuena dena eskaintzen diegulako: gure denbora. Errealitate honek era guztietako ondorioak ekarriko ditu etorkizunean, baina jada, gazteen kasuan fenomeno bat bultzatu dute: gela digitalaren sorrera (Feixa 2005b). Ordenagailua tresna ohikoa bihurtu da gure bizitza orokorrean, bai lantokian baina baita ere gure etxean. Lotura hau estuagoa da gazteen kasuan: eskolan erabiltzen dute, etxera iristerakoan ere bai, eta bertan eskuragarri ez badute beste tokitan bilatuko dute –zentro publikoe-

tan edo zibergunetan—. Feixak ohartarazten gaituen moduan, fenomeno hau oso zabalduta badago ere, badira aldagai garrantzitsu batzuk erabilitzailearen profila zehazterakoan eragiten dutenak: besteak beste, adina, sexua, gurasoen ikasketa maila edota klase soziala. Ezberdintasunak ezberdintasun argi dagoena da interneteko gazte (azpi)kultura batetaz mintzatzaren hasi dela. Momentu honetan garrantzitsuena ez da bere hedapena edota intentsitatea gure testuinguruan, teknologiak, komunikazioak eta bereziki komunikazio birtualak egunerokotasunean duen eragina baizik. Feixak horrela deskribatzen du prozesu hau (Feixa, 2005b:3):

*«Como consecuencia de la emergencia de la cultura digital que hemos analizado, se ha hecho posible la comunicación interpersonal desde el propio espacio privado: del teléfono familiar controlado por los padres y situado en el comedor o en el pasillo se ha pasado al teléfono celular personalizado que se puede usar desde la habitación; de la comunicación escrita por carta se ha pasado a la comunicación digital SMS, e-mail o chat. Gracias a Internet, los adolescentes han aprendido a acceder a comunidades virtuales que están mucho más allá de su habitación. Y gracias a los videojuegos (consola, Gameboy, Play Station), pueden practicar desde su casa lo que antes tenían que hacer en las públicas salas de juego».*

Pribatutasuna edota teknologizazioa dira etorkizunari begira asialdiak ezagutuko dituen joerak. Baina honek zein lotura du hizkuntzarekin eta bereziki, euskararekin? Agian ibilbide luzeegia egin dut honaino iristeko, baina gazteen aisialdiaz ari garela garrantzitsua iruditu zait diagnostiko xume bat osatzea, hortik, hizkuntzaren errealitatera salto egiteko. Azken finean, ezin dugu ahaztu gutxienez hamabost bat urte pasa direla gazteen aisialdiaren eremua euskalduntzeko lehenengo ahalegin formalak egiten hasi zirela<sup>2</sup> Geroztik egitasmo ugari jarri dira martxan, baina gehienek elementu komun bat izan dute: denbora libreak duen esparru formaletan edo arautuan eragin izan dute. Hau da, kirol arloa eta bestelako eskola orduz

<sup>2</sup> Gertutik ezagutzen dudan adibide bat jarriko dut: *Kalea Maixu!* egitasmoa 1994ean TTakun Kultur Elkartek martxan jarritako egitasmoa, alegia. Bere helburuak hauek ziren: Lasarte-Orian haurrentzat eta gazteentzat eskaintzen ziren jarduerak euskalduntzea; hezitzaile euskaldunek beraien jardueretan euskararen erabilera sustatzea; herrian eskaintzen ziren eskola orduz kanpoko jardueretan hezitzaile guztiak euskaldunak izatea.

kanpoko ekintzak euskalduntzea izan da helburua. Ez naiz ausartzen, inolaz ere, ahalegin honen inguruko balorazioa egitera, baina momentu honetan nire kezka ez da hainbeste egindakoa, baizik gazteen asialdia hartzen ari den norabidea ikusita (pribatutasuna, teknologizazioa) eginbeharrekoa.

Argi geratu den moduan, gazteak eta aisialdiak bat egiten dute gazte identitateaz ari garenean baina euren denbora librea –nahi duten edo gustuko duten denbora librea– irudikatzerako orduan joera berriak topatzen ditugu, eta horietan oso zaila –ia ezinezkoa– da esku-hartze bat planteatzea.

Dakidanez, orain arte esparru informal horretan planifikatu den esku-hartze nagusia Kuadrillategi egitasmoa izan da. Proiektu ausarta da Kuadrillategirena eta bere momentuan berritzailea ere izan zen. Baina, etorkizunari begira? Herri mailan fruitu interesgarriak eman ditu eta eman ditzakete Kuadrillategi bezalako ekimenek,<sup>3</sup> baina ikuspegi orokor batetik, benetan al da eraginkorra? Eta beste zalantza bat: planifikatu al dugu oinarri birtualak dituen errealitate baten inguruan? Gazteez ari naizela sentsazio bat areagotzen zait: gizarte paraleloarena. Ziurrenik gaur egun aurrez aurrekoa edo bertakoa den mundua nagusi izaten jarraitzen du, baina honek ezin du mundu birtualaren errealitatea ukatu. Zer egiten ari da hizkuntza planifikazioa horren gainean? Eta zer egin behar du?

### 3. Gazte izan eta euskalduna

Gazteak kezka eta ikergai nagusi bihurtu dira azken urteotan euskal soziolinguistikaren arloan. Gauza bera gertatu omen da beste leku batzuetan: adibidez Katalunian. Hemen ere, oraindik hizkuntza normalizatu gabe dago. Joan Pujolarrek NOVES S.L. aldizkariaren zenbaki berezi bat zuzendu zuen 2008an gazteak, hizkuntzak eta identitateak gai nagusi zituela (Pujolar, 2008). Aipatu aldizkariaren aurkezpen kapituluan («Els joves, les llengües i les identitats») gazteek hizkuntza plangintzaren ikuspegitik sortzen duten

---

<sup>3</sup> *Kuadrillategi* egitasmoak lagunartean edo koadriletan euskararen erabilera sustatzea du helburu. Horretarako esku-hartzea eta ikerketa garatu dituzte egitasmoa martxan jarri duten udalerriek. Egitasmo honi loturiko lehenbiziko esperientziak 2000 urtearen inguruan gauzatu ziren.

ikusmira (eta hainbatetan egonezina) izan zuen mintzagai Pujolarrek. Bere ustez bi dira fenomeno horren arrazoi nagusiak (Pujolar, 2008:1). Alde batetik, gazteak, hau da hiztunen belaunaldi berriak, etorkizunerako haziak kontsideratzen dira normalean eta bere partehartzea ezinbestekoa da hizkuntza gutxituen berreskurapen prozesuetan. Beste aldetik, dio Pujolarrek, gazteak beste populazio talde batzuk baino eskuragarriagoak dira ikerlarientzat. Normalean beti daude prest galdetegi bat erantzuteko edota elkarrizketatuak izateko. Zentzu honetan, Pujolarren arabera, kontuz ibili behar da, izan ere gaztei buruzko ikerlanen inflazioa gerta baitaiteke, beste populazio talde batzuen jokaerak aztertu gabe jarraitzen duten bitartean. Aipatutakoaz gain, nire ustez Pujolarrek egindako ohar honek bidea irekitzen duela hausnartzeko, orokorrean, aukeratzen ditugun ikergaiei buruz eta, sakonean, ikergai horiekiko dugun harremani buruz. Gazteak, aurretik esana dago, kezkgai bilakatu ditugu hizkuntzaren inguruan aritzen garen ikerlariok. Kezkatzen gaitu euren euskara mailak, euren euskara erabilerak eta hizkuntzarekiko adierazten duten atxikimenduak. Ez naiz sartuko eztabaidatzera arrazoiak dauden ala ez gazteak kezkgai izaten jarraitzeko, baina horren inguruan hainbat ideia nabarmendu nahiko nituzke.

Alde batetik, uste dut kontuan hartu beharko genukela gaztei loturiko arazoak edo kezkek gizarte oso baten sintomak edo metaforak direla. Euren jarrera edota jokaerak neurri handi batean orainaldiaren isla dira, egun gure gizarteak biltzen dituen itxaropen eta beldurren isla, alegia. Gainera, transmisioaren bitartez, gazteek aurreko belaunaldietan konpondu ez diren arazoak jasotzen dituzte, eta euren jokabideetan eta jarreretan sedimentu hori topatuko dugu. Beraz, gazteek sortarazten dizkiguten galderak modu orokorrago batean planteatu beharko genituzkeela uste dut.

Bestalde, askotan pentsatzen dut gutxitan konturatzen garela benetan gizarte adultozentriko<sup>4</sup> batean bizi garela. Gizarte horretan helduek pentsa-

---

<sup>4</sup> Kontzeptu hau *-adultozentrikoarena* alegia- Joan Pallarés eta Carles Feixak erabiltzen duten gisara erabili nahi izan dut nik ere. Egile hauek azaldutakoaren harira, eredu *adultozentrikoa* helduen ikuspuntu, nahi edo behar ezberdinetatik diseinatutakoa litzateke. Erdigunean gaztetxoan nahiak edo balioak baino, gurasoenak edo nagusiek dituztenak kokatzen dira. Kontzeptu honen inguruan azalpen gehiago behar izanez gero, *ikus*: Feixa, 2000.

tzen, asmatzen, esaten eta agintzen dutenak du bakarrik balioa, prestigioa eta, batez ere, legitimitatea. Mundua helduen ikuspegiaren arabera dago antolatuta eta gutxitan aitortzen diegu gazteei sormenerako duten gaitasuna. Egun –gazteez inguratuta gaudenok– sarritan kexatzen gara euren ekimen faltaz, hori akats genetikoren bat izango balitz bezala. Begira eta aztertu dezagun egungo gizartea (helduen beharretara antolatutako gizartea, alegia) eta gero agian elementu gehiago izango ditugu gazteen errealtatearen analisisa egin ahal izateko. Hizkuntzari dagokionez, ziur nago gazteek asko dutela erakusteko, baina susmoa dut ikerlariok eta bestelako eragileek oraindik ez dugula asmatu ez begiradarekin, ez planteatu beharreko galderekin, ez ikerketa teknikekin...

Aipatutako ideiak hobeto azaltzeko bi aspektu nabarmenduko ditut: lehenengoz identitatearen gaia berreskuratuko dut; ondoren, hizkuntza praktikei buruz hitz egingo dut. Biak erabilerarekin lotzen saiatuko naiz, gai hori adituen foroetan puri-purian dagoen gaia den neurrian.

### 3.1. Gure gazteek ez dute euskaraz egiten beraz...

Zergatik gazteek ez dute euskaraz egiten? Hori da behin eta berriz errepikatzen dugun galdera. Dakidanez horren inguruan jardunaldi ugari antolatu arren, erantzuna ez dugu topatu. Zergatik ez? Izan daiteke errealtatean gertatzen ari dena ulertzeko oraindik ez dugulako teoria edota tresna egokirik. Beharbada, saiakera horretan jarraitu behar dugu, baina gerta daiteke ere galdera bera gaizki formulatuta egotea.

Lehenengo aukera baztertu gabe, bigarrenaren alde egin nahi dut momentu honetan.

Euskararen ezagutza nahiko bermatua dagoelakoan gaude. Ez guztiz zabaldua eta finkatuta, noski, baina bai familia bai hezkuntza sistemari esker, egun haur, nerabe eta gazte asko euskaldunak dira, hau da, euskara dute, euskara ikasi dute. Orduan, zergatik ez dute hitz egiten euskaraz? Jada hainbat ikerketa saiatuak dira gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak detektatzen eta, nire ustez, arlo honetan egindako guztiak aurre-rapausu bat suposatzen du. Baina, batzuetan pentsatzen dut kezka honen

abiapuntuan badagoela zerbait gaizki planteatzen duguna, hasi hasieran akats bat dagoelako. Eta «akats» hori lotua dago hizkuntza definitzeko erabiltzen dugun paradigma tradizionalarekin. Horrela, puntu honetan bat egiten dut Joan Pujolarrek katalanaren inguruan egiten duen interpretazioarekin (Pujolar, 2008:2). Laburbilduz, esan dezakegu katalanaren inguruan (gure kasuan euskararenean) bere diskurtsoa definitzerakoan hiru premisa erabili dituela:

- a) Hizkuntza talde identitate baten adierazpena da, horrela, edozein pertsonak hizkuntza bereganatzerakoan (gizarteratze prozesuaren bidez) identitate hori ere jasoko luke.
- b) Hizkuntza izate independente bat da, hiztunaz aparte irudikatu eta definitu daitekeena.
- c) Bakoitzaren hizkuntza edo berezko hizkuntza hitz egitea, identitatearen adierazpen naturala izango litzateke. Beste hizkuntza bat erabiltzea, edota hizkuntzaren erabileran interferentziak (maileguak eta abar) txertatzea, anormaltasun baten seinalea kontsideratzen da.

Hau da orain arte nagusitu den paradigma eta horren arabera baloratu dugu gure hizkuntz egoera. Baina azalpen honetan automatikoa dena (hizkuntzaren jabekuntza eta gizarteratze prozesua), independentea dena (hizkuntza) eta naturala dena (bakoitzaren hizkuntza hitz egitea, hau da hizkuntza erabiltzea) ez da errealitatean gauzatzen.

Euskara hizkuntza minorizatu bat da eta denbora luzea darama desagertzeko zorian. Etorkizuna ez du bermatua eta horrek presio handia suposatzen du. Eta presio hori ona izan daiteke, baina ez beti. Presiopean sormena garatu daiteke, dudarik gabe, baina beste batzuetan antsietateak errealitatea behar den lasaitasunarekin aztertzen ez digu utziko.

1970. urtean jaio nintzen. 1985. urtean nerabea nintzen. 2010. urtean gaude gaur. Nire 40 urteotan izugarritzko hizkuntz egoeraren aldaketa ikusi eta bizi izan dut. Euskara ikasteko aukeren hedapena izan da, nire ustez, urte hauetako lorpen handiena. Haurrek eta gazteek aukera asko izan dituzte (eta dituzte) euskara ikasteko, eta hizkuntza honetan trebatzeko. Nire belaunaldikoek izan ez genituenak (berandu arte). Salbuespenak sal-

buespen, gure gazteek euskararen demokratizazioa (euskara ikasteko eskubidea) ezagutu dute. Nire ustez momentu horretan gaude oraindik. Gazteak, euren familiak eta gizartea bera hori asimilatzen ari direla uste dut. Aldaketak prozesatzen ari dira bai maila kolektiboan, bai maila indibiduallean. Euskara aniztasunez bustitzen ari da, baina susmoa dut hizkuntzaren inguruko paradigma tradizionalak indarrean dirauela, aldaketa guztiak prozesatu ezinik edo. Gazteek aldiz, krisian jartzen dute paradigma hori, deseraikitze prozesu baten beharraz ohartarazten gaituzte: zein lotura du paradigma horrek euren egunerokotasunarekin, euren gertuko errealitatearekin? Euskararekin batera euskal kulturari loturiko hainbat erreferente ezagutzen dituzte, baina nola txertatu horiek euren familiak (horietako asko erdaldunak) eskaintzen dizkien erreferenteekin? Eta gazte kulturaren erreferenteekin?

Galdera zerrenda oso luzea izan daiteke, baina agian mahai gainean utzitakoak nahikoak izan daitezke konturatzeko gazteek egin beharreko ahalegin izugarriak. Egia esan, errealitate konplexu honen aurrean ez zait oso egokia iruditzen gazteek euskaraz zergatik ez duten egiten galdetzea. Pujolarrek esaten duen moduan nahasmen horren aurrean erantzun beharreko galdera-sorta beste bat da (Pujolar, 2008:5):

*«Així, la pregunta important que falta respondre (i que sovint ni es formula) és la següent: per què les persones opten per fer ús d'uns discursos/recursos i no d'uns altres? Què els porta a optar per construir o combinar determinats models identitaris i no altres?».*

Zer eskaintzen die euskarak gure gazteei? Zer eskaintzen die gazte eta euskaldunak (edo gazte euskaldunak) izateko (edo sentitu ahal izateko)? Ildo honi eustekotan, nire ustez oraindik asko geratzen zaigu egiteko. Pertsonalki erabilerak kezkatzen nau, nola ez, baina baita sormenak ere. Gazteei begira sormen esparru guztiak iruditzen zaizkit interesgarriak, euren interesekin bat egiten dutenak. Nabarmenenak: musika bereziki, baina beste batzuk ere, adibidez, antzerkia, literatura, bertsolaritza.

Euskaldun bezala definitu edo ez, beste ezer baino lehenago gazteak dira. Hizkuntz identitatea baino lehenago hiztunak eta bere ezaugarriak nabarmenduko nituzke nik. Baina guzti honetaz oso gutxi dakigula iruditzen zait.



### 3.2. Eta gazteek ez badute euskara egiten, zer egiten dute euskararekin?

Azaldu dudan moduan nire kezka gazteak dira, hiztunak. Bere euskara maila edota euskararekin duten harremana edozein izanda ere, interesatzen zaizkit. Jada, harrigarria iruditzen zait –arestian aipatu dudan moduan– euskarak azken hamarkadatan egin duen ibilbidea belaunaldi berriei begira. Haurrak eta gazteak modu masiboan –eta ez tantaka nire garaian bezala– harremanetan egon dira (eta daude) euskararekin. Ziur nago, neurri batean edo bestean esperientzia horrek markatu duela euren bizitza. Niri kontrakoa gertatu zitzaidan, euskara ez izateak nire bizitzako norabidea baldintzatu zuen. Baina, harreman hori gertatu bada, zein fruitu eman ditu? Are gehiago, egia bada gazteek, edo hobeto esanda gazte gehienek, ez dutela euskaraz egiten, orduan zer egiten dute ikasitako euskararekin? Ez dakigu.

Estatistikek esaten digute zenbat gaztek ikasi duten euskara (teorikoki), Kale Neurketek esaten digute zenbatek erabiltzen duten gure herriko kaleetan eta bestelako ikerketek azaltzen digute zein nolako motibazioa adierazten duten euskararekiko gure neska-mutilek. Halere, inpresioa dut ez dakigula benetan zer egiten duten hizkuntzarekin.

Gure ikuspegia, beste gauza batzuen artean, ezagutza-erabilera-motibazioa eskemarengatik oso baldintzatuta dagoela uste dut, eta sekuentzia horrek irudi oso estatikoa ematen digula pentsatzen dut. Errealitateak dikotomiak zalantzan jartzen ditu: ezagutu edo ez ezagutu, erabili edo ez erabili; motibazioa izan edo ez izan. Errealitatean dibertsitatea nagusi dela iruditzen zait, eta belaunaldi euskaradun berriek bere baitan biltzen duten aniztasunaz jabetzeko beste eredu bat aplikatu behar dugulakoan nago.

Ezagutzan erreparatzea baino gaitasunean jarriko nuke nik arreta. Azken finean, zer da ezagutza? Ezagutza gaitasun batzuk bereganatzean lortzen dugu; ezagutza bide bat da, prozesu bat eta ibilbide horretan gaitasunen lanketa da giltzarria. Gaitasunaz hitz egiterakoan pertsonarengan zentratzen gara eta ohartzen gara ezagupena oso erlatiboa izan daitekeela: ahozkotakuna, idazketa eta irakurketa baino zerbait gehiago da. Nik esango nuke

gure gazte askok, gehienak badute gaitasunen bat, edo bat baino gehiago, euskarari eskaintzeko eta hortik aurrera lantzen joateko. Ez dakit lekurik eskaini diegun hori adierazteko.

Erabileraz baino, praktiketaz hitz egingo nuke nik. Praktikaren kontzeptuak errealitatera eramaten gaitu: zer egiten dute gazteek euskaraz edota euskararekin? Kezkak ez luke soilik zenbat hitz egiten duten jakitea izan behar, baizik euskara nola erabiltzen duten argitzea, Zertarako? Zer egiten dute euskararekin? Noiz? Norekin? Euskara erabiltzen dutenek ez dute beti erabiltzen, eta erabiltzen ez dutenek batzuetan erabiltzen dute, eta tartean hiztun multzo handi bat dugu. Hau jakinda, helburua litzateke aztertzea benetan zein den erabilera, zertan gauzatzen den. Ziur nago ikuspegi hone-tatik sorpresa asko jasoko genituzkeela: Jorgek eta Israelek, bi gazte ijitok, flamenkoa egiten dute euskaraz; beste batzuk sms-ak bidaltzen dituzte euskaraz; beste batzuk bertso-rap entzuten dute, eta abar.

Azkenik, motibazioaz baino, emozioaz hitz egingo nuke, tarteka bederen. Zergatik? Motibazioaren kontzeptua nahiko mugatua geratu zaigula uste dudalako. Gainera, motibazioaz hitz egiten dugunean, sakonean emozioaz ari garela pentsatzen dut. Agian ez dirudi oso kontzeptu akademikoa, baina azken boladan lan asko burutzen ari dira horren inguruan eta ikuspuntu horretatik dena egiteke dagoela uste dut, maila orokorrean eta bereziki gazteei dagokionez. Erronka horri ez badiogu heltzen, oso lan ildo aberatsa bazterten ariko garela iruditzen zait. Hizkuntza emozioz beteta dago eta emozio horiek dira neurri handi batean praktikak bultzatzen dituztenak, aldaketak eragiten dituztenak, proiektuak eta prozesuak mar-txan jartzen dituztenak. Gaztaroa emozioz beteriko garaia da, baina zein emozio lotzen dituzte gure gazteek hizkuntzarekin? Zein emozio sortaraz-ten die euskarak? Edo, galdera hori baino lehenago, emozionatzen dira euskararekin?

Ikusten denez, azken atal hau galderaz beterik dago. Jada lan asko egin du orain arte euskal soziolinguistikak, baina denbora aurrera joan da eta kontzientzia hartu behar dugu gertatutako aldaketekin. Gutako asko gaz-teak ginen euskararen berreskurapena hasi zenean (Frankismo ondorengo berreskurapenaz ari naiz, noski) eta egun ez gara hain gazteak. Edonola bi-

dean, zorionez, hainbat belaunaldi euskaldundu dira eta euskalduntzen ari dira. Kopuruek eta indizeek diote: aldaketa izugarria izan da, baina prozesuak eragindako ondorioak ez ditugu oraindik ezagutzen. Ezagupenaren belaunaldiak dira egungo gazteek osatzen dituztenak, baina uste dut horretaz gain, funtsean gutxi dakigula eurei buruz. Bitartean gizartean hainbat aldaketa gauzatu dira, horietako batzuk testu honetan landu dugun gaiarekin zerikusi zuzena dutenak: esate baterako, teknologi berrien hedapena, aisialdiaren areagotzea eta gazte izaeraren birdefinizioa. Bi prozesuen uztartaketa egitea falta zaigula uste dut, eta hori lortu ezean nekez hitz egin ahal izango dugu gure gazte euskaldunei buruz.

Eta zerumugan, euskarak duen erronka garrantzitsuena: dibertsitatearen edo aniztasunaren kudeaketa. Baina hori beste egun baterako...

## Bibliografia

BERRIO-OTXOA, Kotxesi; MARTÍNEZ, Zesar; HERNÁNDEZ, Jone M., 2000, *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

———, 2003, *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*. Soziologiako Euskal Koadernoak 13. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.

DEL VALLE, Teresa, 1988, *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona: Anthropos.

EMAKUNDE, 2009, *Adolescentes en Euskadi. Una aproximación desde el empoderamiento*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.

FEIXA, Carles, 2000, «Espacios e itinerarios para el ocio juvenil nocturno». *Estudios de Juventud*, 50 (2000) 23-42.

———, 2005a, «La habitación de los adolescentes», *Papeles del CEIC*, 16 (2005). Interneten (2010-11-27): [http://www.ceic.ehu.es/p285-content/eu/contenidos/noticia/ceic\\_noticias\\_05/es\\_noticia/adjuntos/16\\_05.pdf](http://www.ceic.ehu.es/p285-content/eu/contenidos/noticia/ceic_noticias_05/es_noticia/adjuntos/16_05.pdf)

FEIXA, Carles, 2005b, «Los hijos en casa: ¿hackers o hikikomoris?», *Revista Comunicación y Pedagogía*, 208 (2005). Internen (2010-11-27): <http://www.xtec.cat/~abernat/articles/feixa.pdf>

———, 2009, «Generación Replicante». *El País*. 18/9/2009

HERNÁNDEZ, Jone M., 2005, *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiazko Euskal Koadernoak 16. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki, 1999, *Etorbizuna Aurreikusten 99. Gaztetxoak eta euskara*. Vitoria-Gasteiz: Iñaki Martínez de Luna.

MORGAN, Marcyliena, 2004, «Speech Community» in *A Companion to Linguistic Anthropology*. London: Blackwell, 3-22.

PUJOLAR, Joan (dir.) 2008, «Els joves, les llengües i les identitats». *NOVES SL* (2008). Interneten (2010-11-27): <http://www6.gencat.cat/llengcat/noves/hemeroteca/hivern08.htm>

URLA, Jacqueline, 2001, «El nuevo «Ritmo» del Euskara: Identidad y mestizaje en la obra de Negu Gorriak». Interneten (2010-11-27): <http://www.negugorriak.net/pdfs/globalnoise.pdf>



# Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa

BASURTO ARRUTI, Asier  
Soziolinguistika Klusterra

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Artikulu honetan azaltzen dena hain konplexua den gazteen hizkuntz erabileraren fenomenoaren azterketa da. Gazteekin lanean esperientziadun jendea, gaia maila teorikoan landu duena eta ezaugarri ezberdinetako gazteen arteko hausnarketa partekatua du oinarri azterketa honek. Gazteen erabilerarekin harremanean jartzen den edonori (kanpaina baten bultzatzaile, egitasmo baten antolatzaile, kirol talde bateko entrenatzaile,...) fenomenoaren alderdi ezberdinak presente izanik bere jarduna oinarri sendo baten gainean burutzeko baliabideak eskaintzea litzateke helburua.

**Hitz-gakoak:** gazteak, erabilera, faktoreak, soziolinguistika.

Lo que se expone en este artículo es el análisis de un fenómeno tan complejo como el uso lingüístico de los jóvenes. Gente experimentada en el trabajo con la juventud, gente que ha abordado el tema desde el plano teórico y grupos de jóvenes de diferentes características fueron los que realizaron la reflexión conjunta que ha servido de base para este análisis. El objetivo sería proporcionar recursos a cualquiera (promotor de una campaña, organizador de un proyecto, entrenador de un club deportivo) para que pueda tener presente los patrones lingüísticos de estos jóvenes a la hora de relacionarse con ellos.

**Palabras clave:** jóvenes, uso, factores, sociolingüística.

Cet article s'intéresse au thème complexe de l'analyse du comportement linguistique des jeunes. Cette analyse a été réalisée par des experts qui ont une grande expérience dans le domaine de la jeunesse et qui ont abordé cette question sur un plan théorique. Cette analyse est basée sur une réflexion conjointe parmi des jeunes ayant des caractéristiques différentes. Son objectif est de donner des outils à tous ceux qui (promoteur de campagne, organisateur de projet, entraîneur d'un club sportif) doivent tenir compte des modèles linguistiques de ces jeunes lorsqu'ils doivent s'adresser à eux.

**Mots-clés :** jeunes, usage, facteurs, sociolinguistique.

What appears in this paper is an analysis of the phenomenon of language use among young people, which is a highly complex issue. This analysis is based on people with experience in working with young people, people who have worked on the subject on a theoretical level, and the shared reflection among young people of different characteristics. The aim is to offer resources to anyone (promoter of a campaign, organiser of a project, trainer of a sports team, etc.) who comes into contact with language use by young people, so that, bearing in mind the different aspects of the phenomenon, they can conduct their activity on a firm basis.

**Keywords:** young people, use, factors, sociolinguistics.

## Sarrera

Soziolinguistika eta bere barnean biltzen diren gaiak nahiko gai arrotzak dira gure gizartearen zati handi batentzat. Hizkuntza-plangintza, motibazioa, irudikapenak edo diglosia ez dira ohiko elkarrizketetan agertzen diren kontzeptuak. Era berean, herritarrak ez ditu ezagutzen bere herriko, eskualdeko eta lurraldeko adierazle soziolinguistiko nagusiak.

Hainbat arrazoi egon litezke hori hala izatearen atzean. Hasteko, soziolinguistikak tradizio akademiko laburra eta xumea du gainerako gizarte-zientzien ondoan. Horrez gain, Euskal Herrian hizkuntzaren inguruko gaiak buruzko eztabaida soziala egon arren, hizkuntza eta gizartearen arteko harremani paradigma zientifikoen arabera begiratzeko ahaleginak oso gutxi dira, zabaltzen diren irakurketa iritzi eta ideia subjektiboen alboan. Mundu akademikoaren eta euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren artean dagoen tarte ere soziolinguistika-ezagutza gizarteratzeko oztopo da. Guzti horri gehitu behar zaio jende askok euskararen gaia eta lehia politikoa zuzenean lotzen dituela, gatazka iturri gisa hautematen dituela, eta beraz, gaia ekidin egiten duela.

Soziolinguistika Klusterraren helburua bere sorreratik gabezia horiei erantzutea eta hutsuneak betetzea izan da, hau da, euskararen normalizatorako soziolinguistika-ezagutza garatzea, zabaltzea eta horren inguruko interesa piztea. Horretarako bideak esparru teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikitzea eta arloko eragileen bilgune-sareak osatzea dira. Bide horietatik, diziplina zientifiko ezberdinetan diharduen jendea soziolinguistikaren ingurura erakarritik, interes komunak dituzten eragileen arteko lankidetzak sustatuz eta gaiak ikuspegi berritzailetik helduz, kalitatezko proiektuak garatzen dihardu 2004. urtetik.

Artikulu honetan aurkezten den *Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa* proiektuak aurrez aipatutako xede eta jardunbide guztiei erantzuten die neurri batean. Proiektuaren helburu nagusia gazteei eta be-raiekin lanean dihardutenei hizkuntza-erabileraren fenomenoaren alderdi guztiak begien aurrean ipintzea eta horietan esku hartu ahal izateko oinarri bat eskaintzea izan da.



Lankidetzan garatutako proiektua izan da, *Soziolinguistika Klusterrak* bere bazkide diren Urtxintxa Eskola eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioarekin osatu baitu proiektuaren ardura izan duen lantaldea.

2008tik 2010era iraun duen prozesuan zehar, gaia ikuspegi askotatik ezagutzen duen jendeak eman du bere iritzia. Alde batetik, gazteen inguruko gaietan edo hizkuntza-normalkuntzari dagokionetan aditu eta aritu diren pertsona-taldearen ekarpenak jaso ziren. Bertan unibertsitate-esparruko jendeak, aisialdi taldeetakoak, euskara elkarteetakoak, udal administraziokoak, hedabideetakoak eta publizitatearen mundukoak parte hartu zuen, besteak beste. Eta bestalde, testuinguru soziolinguistikoari eta adinari dagokionez oso profil ezberdinak zituzten gazte-taldean iritzia ere jaso da proiektuan.

Iritziak biltzeko prozesu horrek guztiak bi motatako emaitzak eman ditu. Batetik, gazteen hizkuntza-erabileraren ezaugarri orokor batzuk azaltzen dituzten ondorioak daude. Eta bestetik, gazteen erabileran eragiten duten faktoreak irudikatzen dituen eskema. Eskema horretan, aditu, aritu eta gazteen iritzi-bilketan oinarrituz, hamaika faktore nagusi identifikatu dira. Horietako bakoitzak, halaber, hainbat azpi-faktore biltzen ditu bere barnean.

Gazteen artean euskara sustatzen diharduen hainbatek ez du lan hori arrakastaz burutzeko nahiko oinarri soziolinguistikorik; eta horiei zuzenduta dago, hain zuzen ere, proiektuaren emaitza nagusia. Erabileran eragiten duten faktoreen eskemak egitasmo bakoitzaren helburu zehatzak finkatzean, egoera bakoitza aztertzean eta egindakoa baloratzean ikuspegi sinplegiak baztertzea eta neurriko erronkak jartzea ahalbidetuko duen tresna izan nahi du.

## 1. Jatorria

Proiektu honen abiapuntua, *Gazteen erabilera. Perspektiba eta prospektiba* proiektuaren bukaera puntuan kokatzen da. 2006 eta 2007an zehar garatutako lan honetan haur eta gazteen hizkuntza erabileraren inguruan egindako esperientzia praktiko eta ikerketen bilduma egin zen eta aurrera begira gaia jorrazteko sumatzen ziren gabeziak identifikatu zituzten. Tartean, gazteen erabileran esku hartzeko, erabilera hori zerk baldintzatzen duen jakitera

ematea beharrezkotzat ikusten zen. Beharrari erantzuteko proiektu berria lantzeko erabakia hartu zuen *Soziolinguistika Klusterrak*. Eta bere bazkideen artean proposamena luzatuta, lana aurrekoan aritutako Proiektu Taldearen esku uztea erabaki zen: Soziolinguistika Klusterra (koordinatzaile), Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa eta Gipuzkoako Urtxintxa Eskola.

## 2. Proiektuaren ezaugarri nagusiak

Azterketa honen bidez asetu nahi zen beharra kontuan hartuta eta Soziolinguistika Klusterraren lan-moldeen arabera jokatzuz, proiektuaren ezaugarri nagusiak zehaztu ziren abian jarri aurretik.

Gazteen taldea gizarte-sektore anitza eta heteroegoena da. Era berean, hizkuntza erabilera fenomeno konplexua da; ulertzen, azaltzen eta aurre-saten zaila. Horregatik, bi osagai horiek dituen gazteen hizkuntza-erabilera ahalik eta modurik ulerterrazenean irudikatzen duen eskema sortzea hartu zen helburu nagusizat.

Eskema horri hasieratik eskatzen zitzaion ezaugarri bat tresna erabilgarria izatearena zen. Gazteen hizkuntza-erabileran esku hartu nahi duenak bere lanean baliatzeko modukoa izatea eskatu zaio proiektuaren emaitzari. Gainera, gazteentzat eta gazteekin harreman zuzenean dihardutenentzat ulerkorra izatea ere bermatu beharreko ezaugarritzat hartu izan da.

Horretaz gain, hausnarketa partekatuan oinarritutako proiektua izan da. Gazteen hizkuntza-erabilera ulertzeko modu asko daudenez, ikuspegi ezberdinak bateratzeko saiakera egin da. Gaia gertutik ezagutzen dutenen iritziak kontrastean jarriz eskuratu da azterketaren emaitza. Iritzi-emaile horien esperientzia eta eskarmentua da, azken finean, azterketa ereduari bermea ematen diona.

Aurreko ezaugarri guztiez gain, proiektutik sortu beharreko tresna orokorra baina moldagarria izatea ere ezinbesteko ikusten zen. Kasuan kasuko gazteen hizkuntza-erabilera aztertzeke balio behar zuela, baina testuinguru ezberdinetako erabilerak eredu berdinarekin arabera aztertzeke ere erabiliko zela argi izan zuen Proiektu Taldeak.

### 3. Metodologia eta egindako lanak

#### 3.1. Diseinua

Proiektu Taldearen lehen egitekoa, proiektuaren aztergaia ongi definitzea izan zen. Gazteen hizkuntza-erabileraren azterketaren mugak zehazteko, bi kontzeptu horien definizioak adostu ziren. Gazteez hitz egitean, 12 eta 30 urte bitarteko pertsonetaz ariko ginen. Aztertuko genuen hizkuntza-erabilera, berriz, erabilera ez formala izango zen zehazki.

Aztergaia argi izanik, metodologia definitzeari ekin zitzaion. Erabileraren inguruko hausnarketa gaia gertutik ezagutzen dutenek burutu behar zutela ikusi zen. Ikuspegi ezberdinak jasotzeko interesa zegoenez, hausnarketa partekatua burutzeko bi urrats nagusi diseinatu ziren.

Esparru teorikoan eta esparru aplikatuan esperientzia duten adituekin kontaktzea erabaki zen. Hauekin erabileran eragiten duten faktoreen eskema bat sortzea izango litzateke lehenengo urratsa.

Baina, era berean, gazteek eurek zer esana dutela eta euren hausnarketak eredia osatzen lagunduko zuela garbi ikusi zen. Horregatik, bigarren urraltsean profil ezberdineko gazte taldeekin hausnarketa saioak burutzea aurreikusi zen.

Azkenik, ondorioak atera eta bi urratsetan jasotako edukietatik gazteen erabileran eragiten duten faktoreak ulertu eta antolatzeko balio duen eredu bat osatuko zen.

#### 3.2. Analisia

##### 3.2.1. *Adituen hausnarketa*

Gazteen hizkuntza erabilerari buruz adituen hausnarketa emaitza batzuen eskuratzera bideratu asmoz Soziolinguistika Klusterrak bere beste proiektu batean erabilitako metodologia oinarri hartzea erabaki zen: Eralan proiektuko EPEsA (Marko eta Lujanbio, 2008) metodologia, hain zuzen ere.

Lantokietako erabileran eragiten duten faktoreen azterketarako metodologia abiapuntutzat hartu bazen ere, zerikusi gutxi dute kasu batean eta bestean egindako lanketek. Proiektu guztiz ezberdin honetara egokitze hainbat moldaketa egin ziren. Hasteko, ikertu nahi den sektorea eta tesuinguruaren definizioak zabalagoak direlako. Horrez gain, emaitzen hartzailen profilak ere ezberdinak dira.

Proiektu Taldeak ipinitako helburua betez, proposamenari baiezkoa eman ziotenekin gazteen errealitatea ikuspuntu ezberdinetatik ezagutzen duten pertsonak erakartzea lortu zen:

- Helena Baraibar (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa)
- Eneko Barberena (*Txatxilipurdi* elkarte)
- Jon Mikel Fernandez (*Xirika* gazte kazeta)
- Pello Jauregi (EHU-Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila)
- Joana Mendiburu (HARMAN komunikazio zerbitzuak)
- Olatz Zabaleta (Arangurengo Udala: Euskara Zerbitzua)
- Sonia Perez (Topagunea: Gazteen saila)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)

Lan-talde honekin, hiru bileratan gauzatu zen erabileraren gaineko hausnarketa eta azterketa eredu bateratuaren osatzea.

Lehen bileran, proiektuaren aurrekariak eta prozesu honen helburuak azaldu ziren. Lan-taldearen bileren emaitza nagusia erabileran eragiten duten faktoreak biltzen dituen eskema edo matrizea izango zela aurreratu zitzaizen parte hartzaileei eta pausoka norabide horretan lan egingo zela.

Kokapen honen ostean, proiektuak erantzun nahi duen galdera nagusia mahai gaineratu zen:

ZURE USTEZ ZEIN ALDAGAIK DUTE ERAGINA 12-30 URTE BILTARTEKO GAZTEEK EREMU EZ FORMALETAN DUTEN HIZKUNTZA ERABILERAN?

Bilera aurretik, lan taldean parte hartzea onartzearekin batera, galdera honen inguruan lehen hausnarketa eginda ekartzeko eskatu zitzaizen. Au-

rrer egindako horretatik abiatuta bilera gazteen hizkuntz erabileraren eragina duten faktoreen zerrenda osatzeari eskaini zitzaion. Hurrengo bilera bitartean, zerrenda osatu asmoz, faktore gehiago bidaltzeko aukera eman zitzaion.

Lehen bileran eta ondorengo asteetan zehar osatutako faktore zerrendak zehaztasun maila ezberdineko faktoreak jasotzen zituen: batzuk oso orokorrak, besteak oso zehatzak, faktore baten barruan sartzen ziren beste faktoreak,... Horregatik, 2. bilerarako faktoreak multzokatzeko proposamen bat eraman zen prestatuta. Bertan hasierako zerrendako faktore guztiak faktore eta azpi-faktore mailatan antolatuta aurkezten ziren.

Bigarren bilera horretan, lanerako euskarri nagusia faktoreak multzokatzeko proposamena izan zen. Lan taldean proposameneko multzo bakoitza eta azpi-faktore bakoitza errepasatu eta beharrezko ikusi ziren moldaketak burutu ziren. Zerrenda idatzitakoekin adierazi nahi zenaz eztabaidatu zen, errepikapenak saihesteko neurriak hartu ziren,...

Bigarren bilera eta hirugarrena bitarteko denbora tartean, zehaztutako faktore bakoitzarentzat definizio proposamen bat jasotzen zuen dokumentua zabaldu zen lan taldeko parte hartzaileen artean. Hauek, euren ekarpenak eta moldaketa proposamenak egiteko aukera izan zuten. Honela faktore bakoitzaren izenarekin adierazi nahi zena komunean jarri zen eta zerrenda itxitzat eman zen.

Hirugarren bileraren hasieran, taldekideen ekarpen eta proposamenen araberrako definizioen dokumentua aurkeztu zen eta lan taldeak ontzat eman zuen. Hurrengo pausoa gazteen erabileran eragiten duten faktoreak sailkatzea izan zen. Aurrez Euskal Herrian sortua zen oinarri teoriko bat erabiltzearen inguruan adostasuna lortu zen. Iñaki Martínez de Lunak elkarlotutako hiru dimentsioren bidez azaltzen du hizkuntza erabileraren baldintzapena (Martínez de Luna, 2001).

Horretarako ondorengo galdera baliatu zen:

**ZEIN MAILATAN ERAGITEN DU BATEZ ERE ZERRENDAKO FAKTORE BAKOITZAK: MAILA INDIBIDUALEAN, MAILA MIKRO-SOZIALEAN EDO MAILA MAKRO-SOZIALEAN?**

Faktorez faktore galdera hori eginez, maila sistemikoen ardatzean kokatu ziren zerrendakoak. Faktore bakoitzak «batez ere» eragiten duen mailaren arabera kokatu ziren eskeman.

Honen ostean, egoki ikusi zen faktoreak elkarren arteko antzekotasunaren arabera antolatzea. Sailkapen horretan faktoreak bereizteko zein kategoria erabiliko ziren eztabaidatu zen lehendabizi. Aukera bat baino gehiago baloratu ostean, Txepetxen teorian (Sanchez Carrión, 1987) bereizten diren hizkuntzaren hiru zutabeak erabiltzearen aldeko hautua egin zen.

### ZEIN MAILATAN ERAGITEN DU BATEZ ERE ZERRENDAKO FAKTORE BAKOITZAK: MOTIBAZIOAN, EZAGUTZAN EDO ERABILERAN?

Faktorez faktore galdera hori eginez, eskeman kokatu ziren zerrendakoak. Honela, definitutako faktoreekin egindako bi sailkapenak gurutzatu ziren, sailkapen bakoitza matrizearen ardatz bat zelarik. Ondoren, zegokion koordenadatan kokatu zen faktore bakoitza matrizea osatuz. Eta honenbestez eman zitzaion bukaera adituek egindako azterketari.

#### 3.2.2. *Gazteen hausnarketa*

Proiektuaren hasierako diseinutik, gazteen parte hartzea aurreikusia zegoen. Gainera, adituen hausnarketa fasea garatu bitartean, gazteek eurek hizkuntza erabilera ulertzeko duten ikuspegia jasotzeari berebiziko garrantzia eman zitzaion proiektuarekin harremana izan zuen jende askoren aldetik.

Gazteen ikuspegia jasotzeko bidea diseinatu zen hasteko. Metodologia aldetik, adituekin erabilitakoa erreferentziazko oinarri gisa izan arren, beste modu batetan gauzatu beharra argi ikusi zen. Aurreikusten zen parte hartuko zuten gazteek interes maila ezberdina izatea hizkuntza erabilerarekiko eta burutzen ari ginena bezalako azterketekiko, hori baitzen helburuetako bat. Horregatik, parte hartuko zuen pertsona bakoitzari, gehienez, saio batean parte hartzeko proposamena egin behar zitzaiola adostu zen; azterketan parte hartzea bera ez zedin izan arazo bat.

Honela, saio bakarrean erabilerari buruzko hausnarketa partekatua burutu, azterketarako eredu propio bat osatu eta adituek osatutakoari buruz iritzi batzuk biltzea bideratzeko moduko tailer parte hartzaileak diseinatu ziren. Bi ordu inguruko iraupena aurreikusi zitzairen tailer horiei, eta parte hartuko zuten gazteen profilaren arabera, metodologian egokitzapenak egiteko aukera ematen zuten.

Profil ezberdineko gazteen hausnarketak kontuan hartu behar zirela hasiera-hasieratik argi zegoen. Honela, profil horiek osatzeko hiru aldagai kontuan edukitzea erabaki zen:

- Zonalde soziolinguistikoa.
- Parte hartzaileen adina.
- Saioa burutu behar zen testuingurua.

Hiru aldagaiak kontuan hartuta, bilatzen genituen profilak betetzen zituzten gazte taldeekin kontaktazioa burutu zen. Aurreikusi baino tarte handiagoa eskaini behar izan zitzaion Soziolinguistika Klusterra eta bere bazkideen bitartez gazte talde egokiak bilatu eta saioak burutu ahal izateko hitzorduak finkatzeari. Azkenik, ondorengo koadroan bildutako saioak egitea adostu zen, erabileraz egon litezkeen ikuspegi nagusiak jasotzeko aukera emango zutelakoan.

Adina	Ingurune SL	Testuingurua
12-15	Oiartzun (Euskaldunak >%75)	Ikastolako euskara elkarte (Haurtzaro Ikastola)
16-18	Zumaia (Euskaldunak >%70)	Begirale ikastaroa euskaraz. (Urtxintxa Eskola)
16-20	Etxebarri (Euskaldunak <%25)	Gaztelekuko aisialdi taldea (Harribide fundazioa-Tiempo Libre)
20-25	Oarsoaldea (Euskaldunak %30-50)	Aisialdi antolatuko begiraleak (Urtxintxa Eskola)
20-30	Deba (Euskaldunak >%75)	Hizkuntza jarrerak aztertzekeo proiektua (Elhuyar-Debako Udala)
21-26	Euskal Herri osoa	Irakasle-eskolako ikasleak (MU-HUHEZI 3.maila)

Esan bezala, sei hausnarketa tailer edo saio burutu ziren, profil ezberdineko gazteekin egoera bakoitzaren kasura egokitutako metodologia erabiliz. Saio guzti hauetan, gazteen erabileran eragiten duten faktoreen eske- ma edo matrize bat osatzen zuten. Horrez gain, adituek osatutakoarekin alderatu eta ikusten ziren antzekotasun eta ezberdintasun nagusiak ere jasotzen ziren. Material osagarri gisa, saioetan egindako iruzkinak audio grabazio batean jasotzen ziren, ondorioak ateratzeko garaian erabili ahal izateko.

### 3.2.3. Bateratzea eta ondorioen aurkezpena

Adituen eta gazteen ikuspegiak esku artean izanik, biak bateratu eta azterketaren emaitza nagusi diren ondorioak ateratzea zen hurrengo urratsa. Proiektu Taldeak bere gain hartu zuen, prozesu osoan zehar jasotako hausnarketa, iritzi, ideia eta iruzkinak bildu, bateratu eta borobiltzeko ardura.

Oinarri gisa adituen hausnarketa erabiltzea adostu zen eta gazteen saioetan ateratako ideia, adostasun eta desadostasunak adituek egindakoaren tartean txertatzea bilatuko zen. Gazteen saioak banan-banan hartuta, matrizeak eta grabazioak aldi berean errepatatuta atera ziren ondorioak. Ondoren adituek osatutako eskemako faktore bakoitzari buruz gazteek egindako oharrak biltzen ziren.

Lehenago esan bezala, adituen hausnarketa fasean, aipatutako faktoreak nagusiki erabilera, ezagutzan edo motibazioan eragiten zutenaren arabera sailkatu ziren. Gazteekin tailerrak burutzerakoan, sailkapen honek zailtasunak sortzen zituela ikusi zen. Zenbait gazterentzat nahasgarri gertatzen zenez, ez zen erabili tailer guztietan. Hori ikusita, eta proiektuaren emaitzak ulerterraza izan behar zuela hasieratik definituta zegoela kontuan hartuta, azken emaitzan eskemaren bigarren ardatz hori ez sartzea erabaki zen.

Laburbilduz, bi taldeek aipatu eta nabarmendutakoak eskema bakarrean biltzeko ariketa burutu zen. Eta honela, erabileran eragiten duten faktoreen azterketa erdua (eskema) eta honen osaketa ateratako ondorio nagusiak txosten batean bildu ziren.



## 4. Emaitzak

### 4.1. Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa eredu

#### – HIZKUNTZAREKIKO GIZARTE-PERTZEPZIOA

- Euskaldunaren irudia (hiztunei lotutako baloreak, aurreiritziak...)
- Euskararen irudia
  - Hizkuntzaren berezko balio sinbolikoa
  - Hizkuntzaren berezko balio instrumentala

#### – EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREKIKO GIZARTE-PERTZEPZIOA

- Euskararen bilakaera historikoari buruzko pertzepzioa
- Euskararen egungo egoera soziolinguistikoari buruzko pertzepzioa
- Euskararen etorkizunari buruzko pertzepzioa
- Euskararen erabileraren aurrean dauden jokaera eta jarreraren pertzepzioa. Hizkuntza gatazkarekiko hurbiltasuna.

#### – HIZKUNTZA GAITASUNA

- Norberaren gaitasuna
  - Oinarrizko hizkuntza gaitasunaren jabetza
  - Gaitasun erlatiboa (elebitasun orekatua/desorekatua)
  - Euskarazko komunikaziorako erosotasuna (hizkuntza naturala, adierazkorra,... sortzeko gaitasuna)
  - Euskalkian aritzeko gaitasuna
- Inguruko hizkuntza gaitasuna (Hiztunen arteko gaitasun oreka/desoreka)

#### – INPUT MEDIATIKOAK

- Publizitatea/marketing-a
- Hedabideak eta kultur kontsumoa
- Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)
- Moda eta joerak


#### – PERTSONA ETA TALDE ERREFERENTEAK

- Gizartean erreferentzia diren pertsonen jokaera (famatuak, prestigio-dunak, agintariak, kirol edo ikuskizunaren munduko idoloak,...)

- Ingurune hurbileko erreferentziazko pertsonen jokaera (familiakoak, irakasleak, aisialdiko begiraleak, herriko gazteak, lagunak, laguntaldeko liderrak,...)
- KONTSUMO ESKAINTZA (Produktuak eta zerbitzuak)
  - Euskarazko produktu eskaintza
  - Euskarazko zerbitzu eskaintza
  - Euskararen erabilera sustatzera bideratutako produktu, zerbitzu eta jarduerak
- IDENTITATE KOLEKTIBOAK
  - Familia, koadrila eta inguruko taldeekiko kidesan sentimendua
  - Herria, eskualdea, lurraldea, nazioa eta kulturarekiko kidesan sentimendua
  - Euskal hiztunen taldearekiko kidesan sentimendua
- JARRERAK ETA PORTAERAK
  - Hizkuntzarekiko jarrerak: lotsa, harrotasuna, koherentzia nahia, axo-lagabetasuna,...
  - Hizkuntzarekiko portaera
- HARREMAN SAREETAKO HIZKUNTZ ARAUAK ETA OHITURAK
  - Erabilera esparruetako arau eta ohiturak
    - Lagunak/Koadrila/Bikotea
    - Etxea/Familia
    - Lantokia/ikasketa tokia
    - Antolatutako aisialdia/kirola.
  - Norbanakoa eta taldearen arteko elkarreagina
- TESTUINGURU POLITIKOA
  - Marko legala (Hizkuntzaren estatus legala)
  - Instituzioen hizkuntzarekiko jokaera
  - Beste erakundeen hizkuntzarekiko jokaera (alderdiak, gizarte mugimenduak, elkarreaginak,...)

– HAURTZAROKO HIZKUNTZ INGURUNEA (Biografia linguistikoa)

- Familian bizitako hizkuntz errealitatea (ama hizkuntza, ezagutza, erabilera, pertzepzioa,...)
- Auzoan bizitako hizkuntz errealitatea (ezagutza, erabilera, pertzepzioa,...)
- Eskolan bizitako hizkuntz errealitatea (ezagutza, erabilera, pertzepzioa,...)



#### 4.2. Ondorio Nagusiak

Aztertutako guztiak aztertuta, faktoreak antolatzeko eskemaz gain, proiektu honek zenbait ondorio orokorretara ekarri gaitu:

- Gazteen eremu informaleko hizkuntza-erabilera gizarte-fenomeno konplexua da; Errealitate hori ulertzeari eta esku hartzeari begira funtsezkoa da konplexutasun hori uneoro presente izatea, sinplifikazioaren arriskuaz jabetzea eta ahal den neurrian ekiditea.

Hizkuntzaren erabileran elkar korapilatutako faktore ugarik eragiten dutela azterketan parte hartu duten aditu eta gazteek argi izan duten

kontua da. Zaila da faktore baten eragina non hasi eta bukatzen den mugatzea, baina aldi berean ezinbestekoa da hurbilpen bat egiten saiatzea. Errealitatearen irakurketa sinplistetatik esku hartze estrategia eraginkorretara heltzea zoriaren emaitza, soilik, izan daiteke.

- Gazteek eta eurekin lanean esperientziadun adituek erabileran eragiten duten faktore bezala identifikatzen dituztenak, orokorrean oso antzekoak direla. Egindako hausnarketa guztietan agertu diren faktore guztiak berdinak ez badira ere, elkarren arteko aldeak puntualak izan dira eta komunean agertu diren elementuak, berriz, asko.
- Gazte talde bakoitzak, fenomenoak berak bizi duenaren arabera ulertzen du. Adituei, hausnarketa burutzerakoan Euskal Herriko testuinguru ezberdinak kontuan edukiz jardun beharra azalduta, ikuspegi horrekin jarduten zuten. Gazteen kasuan, aldiz, bakoitzaren testuingurua orokortua eta bakarra izango balitza bezala hitz egiteko joera sumatu da. Zaila egin zaie, kasu batzuetan, hizkuntzarekiko eurenak ez diren bizipenak dituzten beste gazteen lekuan jartzea. Azterketaren emaitzari eskatzen diogun ezaugarri bat ezinbesteko dela berresteko balio izan digu: sortutako azterketa ereduak orokorra eta aldi berean egokigarri izan behar du.
- Hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak sailkatzerakoan, gazteen artean maila indibidualerako joera nagusitu da nabarmen. Adituek baino faktore gehiago kokatzen zituzten maila horretan. Hizkuntza erabileran hautu pertsonal soilak bezala ulertzeko joera egon liteke honen atzean.
- Badira faktoreen eskematik kanpo geratu arren, hausnarketa prozesuan behin eta berriz presente egon diren kontzeptuak. Berariazko azalpena behar dutelakoan gaude:

*Adina:* Faktoreen azterketako partaideek etengabe aipatu izan dute, erabileraren baldintzatzaile gisa. Proiektu Taldeak, hala ere, azterketa ereduaren eskematik kanpo uztea erabaki du. Izan ere gazteen adin taldearen barruan (12-30 urte) erabilerarekiko jokaerak denboran zehar aldakortasuna azaldu dezaketela eta azaltzen dutela ulertu arren, al-

dakortasun hau eskeman bildutako faktoreen baldintzak aldatzearekin lotzen da. Adinean gora egin ahala identitateak, gaitasunak, pertzepzioak, erreferenteak, harremanak eta abar aldatzen direla, alegia.

*Ingurunea:* Gazteen artean Ingurunea sarritan aipatu izan da erabileran eragiten duen faktore bezala. Hala ere, kontzeptu horrek bere barnean elementu asko biltzen dituela deritzogu. Hain zuzen ere, azterketan zehar faktoreak antolatzeke erabili den eskeman, hiru maila nagusietako bati maila mikro-soziala edo ingurune hurbilekoa deitu zaio. Azterketaren emaitzan zerrendatutako faktoreak elkarrekin parekatu ahal izateko, inguruneak erabileran duen eragina xehatu beharra eta ingurunearen barruko faktoreak identifikatu beharra ikusi da.

- Aipamen berezia merezi dute gazteen hausnarketan parte hartzaileek nabarmendutako harreman sare nagusiek. 12 eta 30 urteko gazteen hizkuntza erabileran, hiru sare aipatu izan dira bereziki. Lehenik eta behin, familia edo etxeko harremanak. Bigarrenik, ikasketa prozesua edo jarduera profesionalarekin lotutako erlazioak. Eta azkenik, berdin arteko harremanak leudeke. Hauen artean bikotekidea, koadrila eta bestelako lagunak berezi beharra dezentetan aipatu izan zen, multzo bat osatu arren hiru azpitalde hauek erabileran izan dezaketen eraginaren intentsitatea eta zentzua ezberdina izan daitekeela kontuan hartuta.

## 5. Jarraipenaz

Artikuluaren hasieran azaldu bezala, bi ezaugarri eskatzen zitzaizkion, besteak beste, azterketatik lotu nahi zen ereduari: Euskal Herrian topa litezkeen testuinguru ezberdin guztietarako baliagarria izatea (1) eta haur eta gazteekin lanean diharduen jende gehienarentzat erabilgarria izan zedin ziurtatzea (2).

Erabileran eragiten duten faktoreen azterketa burutu ostean, prozesuan zehar ateratako ondorioak jaso eta azterketa eredu (eskema) plazaratu ostean, honen erabiltzaile izango denari egokitutako aldaera prestatu beharra

ikusi zen. Hori izan da, hain zuzen, azterketa honetan arduratu den Proiektu Taldeak bere gain hartu duen hurrengo zeregina. Gazteentzat eta eurekin harreman zuzenean lanean dihardutenentzat egokitutako euskarriak erabiliko dira edukiok zabaltzeko: webgunea, liburuxka eta posterra. Izaera dibulgatiboko euskarri hauen bidez, gazteekin hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak uneoro presente izatea ahalbidetzen duen tresna eskaini nahi zaio erabili nahi duenari.

## 6. Bibliografia

MARKO, J. I. (Zuz.) eta LUJANBIO, O. (koord.). (2008). ERALAN ikerketa proiektua: EPEsA metodologia. Andoain. Soziolinguistika Klusterra

MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2001). «Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeko eredu orokorraren proposamena». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 40 (47-66).

«TXEPETX» SANCHEZ CARRION, J. M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Lizarra



# Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian

BAXOK, Erramun

Ohorezko euskaltzaina eta Sustapen batzordekidea

COYOS, Jean-Baptiste

Euskaltzain osoa eta Sustapen batzordekidea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24



Ikerketa honen xede nagusia da aurkeztea gaur egun Ipar Euskal Herriko gazteen euskarazko edo euskal kulturari lotu diren aisialdiak zein diren. Eragile pribatuen eta publikoen jarduerak aurkezten dira aisialdi eremu ezberdinetan, eremu horiek hiru ikuspuntutik azter daitezkeela jakinez: hezkuntzarena, sorkuntzarena edo ekoizpenarena, eta kontsumoarena.

Egin diren inkestak baliatuz Ipar Euskal Herriko gazteriaren argazkia ematen da.

Ikerketa honen zailtasun bat da gazte horien aisialdiak berak aztertzea. Adin horietan ohiko aisialdi egituratueterik kanpo beren aisialdian gizarte paralelo bat sortzen dute, helduenetik ezkapatzeko eta une horiek aztertzea zaila da, pribatuak baitira. Ikerketa honetan aisialdi antolatua, aisialdi hezitzaileak aztertzen dira bereziki.

Bururatzean ondorioen araberako gomendioak egiten ditugu, agertu diren indarguneak azkartzeko eta ahulguneak sostengatzeko.

**Hitz-gakoak:** gazteak, euskara, aisialdia, Ipar Euskal Herria.

El objetivo principal de esta investigación es presentar cuáles son las alternativas de ocio de los jóvenes del País Vasco Norte, relacionadas con el euskera y la cultura vasca. Se muestran las actividades públicas y privadas en los diferentes campos del ocio, a sabiendas que esos campos se pueden estudiar desde tres perspectivas diferentes: educación, creación o producción, y consumo. Utilizando las encuestas realizadas se pretende mostrar la foto de la juventud del norte de Euskal Herria.

Es dificultoso estudiar el ocio juvenil. En esas edades, se alejan de las estructuras de ocio convencionales, y es a través de ese ocio particular y privado, que se alejan de los adultos y crean un mundo paralelo, lo que dificulta su estudio. Por lo tanto en este estudio se analizan las actividades organizadas y con fines educativos.

Como conclusión realizamos unas sugerencias con el objetivo de impulsar los ámbitos donde el ocio relacionado con la cultura vasca están fuertes, y a su vez sostener los más débiles.

**Palabras clave:** jóvenes, euskera, ocio, País Vasco Norte.

L'objectif principal de cette recherche est de présenter quels sont les loisirs en langue basque ou liés à la culture basque des jeunes actuellement en Pays Basque Nord. Les actions des acteurs privés et publics sont présentées dans les différents domaines, sachant que ces domaines peuvent être étudiés de trois points de vue : celui de l'éducation, celui de la création ou de la production, celui de la consommation.

A l'aide des différentes enquêtes qui ont été réalisées, on propose une photographie de la jeunesse du Pays Basque Nord.

Une des difficultés de cette recherche est l'examen des loisirs eux-mêmes de ces jeunes. A ces âges ils construisent un monde parallèle de loisirs en dehors de ceux habituellement structurés, afin d'échapper au monde des adultes. L'examen de ces loisirs est difficile car ils sont privés. Ce sont les loisirs organisés, ceux à caractère éducatifs, que nous examinons principalement ici.

Pour terminer des recommandations sont faites à partir des conclusions de cette recherche, afin de renforcer les points forts et de soutenir les points faibles dans ce domaine des loisirs des jeunes en langue basque.

**Mots-clés:** jeunes, langue basque, loisirs, Pays Basque Nord.

The main aim of this paper is to present the leisure activities in the Basque language or linked to Basque culture undertaken by the young people in the Northern Basque Country [administered by France] today. The activities of private and public players are presented in different spheres of leisure, bearing in mind that these spheres can be analysed from three perspectives: the perspectives of education, creativity or production, and consumption.

Making use of the surveys carried out, a picture of the young people in the Northern Basque Country is provided.

One difficulty in this research is examining the very leisure activities of these young people. At this age they create a parallel society in their leisure time outside the usual structured leisure activities to escape from adults, so it is difficult to examine these moments because they are private. This piece of research deals with organised leisure in particular, and of an educational nature.

Finally, we make recommendations on the basis of the conclusions, in order to reinforce the strong points and to support the weak points.

**Keywords:** young people, Basque, leisure time, Northern Basque Country.

## 1. Problematika: Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian

Ikerketa honen xede nagusia da aurkeztea gaur egun Ipar Euskal Herriko gazteen euskarazko edo euskal kulturari lotu diren aisialdiak zein diren<sup>1</sup>. Aisialdia denbora-tarte handia da gaur egungo gazte baten bizitzan. Eta belaunaldi horren kasuan hurbileko harremanek, gizarte-sareek eta modek eragin handia dute hizkuntzaren erabileran, baina ere komunikabideen eta asialdirako produktu eta zerbitzuen eskaintzak.

Eragile pribatuen eta publikoen jarduerak aurkeztuko dira aisialdi eremu ezberdinetan. Aisialdiaren eremu horiek hiru ikuspuntutik azter daitezke, hezkuntzaren ikuspuntutik, sorkuntzaren edo ekoizpenaren ikuspuntutik, eta kontsumoaren ikuspuntutik.

Ikerketa honen zailtasunetarik bat aztergaia mugatzea eta definitzea izan da, aztertu den biztanleriaren aldetik, erran nahi baita gazteak, baita ere biztanleriaren jardueraren aldetik, erran nahi baita aisialdia.

Ipar Euskal Herriak jasan dituen aldaketa demografiko eta sozial handi horiek gazteen ingurumen soziokulturalean eragin dute, biztanleria osoarenean bezala. Kultur nahasketa, kultur aniztasuna bizkortu da. Frantsesaren bizindarra azkar da hizkuntza nagusia delarik, euskararena ahulago nahiz haren aldeko ahalegin gero eta inportanteagoak egiten diren.

Adin talde hori (15-24 urtekoa da gure xede-talde nagusia) biziki heterogenoa da oraingo munduan. Helduaroaren eta adoleszentiaren arteko muga mugikorra da. Gehiengoa ikastetxeetan da oraino, baina batzuek ikasketak bururatu dituzte eta lan-merkatuan daude, lanean ari dira edo langabezia.

Beste zailtasun bat da gazte horien aisialdiak berak aztertzea. Badakigu adin horietan ohiko aisialdi egituratuetarik kanpo beren aisialdian gizarte paralelo bat sortzen dutela, helduenetik ezkapatzeko eta une horiek aztertzea zaila da, pribatuak baitira. Moda berriak sortzen dituzte, desberdin izan

---

<sup>1</sup> Ikerketa osoa 2011an argitaratu da: *Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian – Les jeunes, la langue basque et les loisirs en Pays Basque Nord*, Jagon bilduma, Bilbo, Euskaltzaindia.

nahi baitute. Ikerketa honetan aisialdi antolatutako, aisialdi hezitzaileak aztertuko dira bereziki.

## 2. Aisialdiaren definizioak

Aisia edo aisialdia denbora hutsa edo denbora betea bezala definitzen da. Euskaraz «aizina» edo denbora-pasa», frantsesez «le loisir» ou «les loisirs» esaten da lehen esanahia adierazteko.

Alde batetik «lanik edo zereginik gabeko tartea da, nork bere gogora ematen duena» (Euskal hiztegi modernoa, Elhuyar 2000). Eta bestalde hutsaren betetzeko «denbora librean eramaten diren jarduerak: jolasak, kirolak, ekoizpenari norabidetua ez den lana» (Wikipidea).

Ororen buru, denbora pasa ere merkatu bat bilakatu da: bidaia agentziak, kirol lehiaketa erraldoiak (fulbol munduko txapelketak, errugbikoak, txirrindularitza itzuliak: Tour, Giro, Vuelta, etab.), opor mota guziak (ondartza, mendia, negu kirolak, ur kirolak), lan lasaia, (baratzea, arrantza, ehiza...), bestak, festibalak. Industria alor denetan sartu da eta ekoizle gutik atsegina ematen diete kontsumitzaile askori.

Filosofia bat ere sortu zen aisialdia hedatu zelarik: aisialdia ez ote da zibilizazio berri bati buruzko bidea (Dumazelier, 1962). Ekoizpen lanaren laburpenak denbora libre luze luze du. Aste gutxi gorabehera 35/40 oren lan deramagu, 60 oren jaten eta lo egiten eta 70/75 oren gelditzen zaizkigu atsedententzat. Eta askoz aisialdi epe gehiago haur eta gazte garaian (20 urtez) eta erretreta denboran (20/30 urtez). Ikusmolde optimista batean aisialdiaren luzapena askatasunaren seinale da eta ondorioz jendetasunaren hobekuntzarena. Beste ikusmoldea da aisialdia ez ote den beste kontsumo mota bat, gizarteko ezberdintasunak azpimarratzen dituen.

## 3. Nor dira aipatzen ditugun gazteak?

Hona Ipar Euskal Herriko adin taldeen 2006ko banaketa errolda jarraikiaren arabera. Adinarteak mugatuak dira gure inkesta gehienetan agertzen

diren bezala. Jendetzaren zenbakiak erroldaren emaitza ofizialak dira, 2009ko abenduan agertu zirenak.

Adinarteak (A)	Jendetza (J)	A/J	Euskaldunak (E)	E/J
> = 65	63.000	%21,6	20.412	%32,4
50-64	61.000	%21,0	16.348	%26,8
35-49	64.000	%22,0	11.200	%17,5
25-34	32.000	%11,0	3.680	%11,5
15-24	31.000	%10,7	4.991	%16,1
0-14	40.000	%13,7	–	–
OROTARA	291.000	%100	56.631	%22,5

*Iturriak:* 2006ko errolda - IV. inkesta soziolinguistikoa.

Taulan ikus daiteke gazteen tokia herriko biztanlerian aski handia dela. Gaindegia behategiaren arabera Hego Euskal Herrian baino handiago, Akitanian baino doi bat ttipiago bada ere (2009, 10. or.). Gainera 2006az geoztik saldo naturala positibo bilakatu da.

Non daude 0 eta 24 urte arteko haur eta gazteak? Haurtzaindegiko haurrak ez ditugu kontuan hartzen ez ere 3-6 urteko haurrak ama-eskolan daudenak. 7-14 urteko haur eta gaztetxoak lehen-mailako eskolan eta kolegiotan dira; 15-24 urteko gazteak lizeoan, unibertsitatean edo lanean.

Oro har gure xede-taldea 15-24 urteko gazteek osatzen dute. Halere eskolako eta kolegioko ikasleak askotan kontuan hartzen ditugu, ikastetxean edo inguruan hartzen baitute atsedena euskaraz eramateko ohitura. Baina gure kasuan 25 urte eta gehiagoko helduak baztertzeko ditugu: askok ikasketak bururatu dituzte eta lan-merkatuan daude. Beste batzuk unibertsitatean jarraitzen dute. Batzuk ezkonduak dira eta haurrak badituzte. Ondorioz beren beharrak eta gustuak osoki ezberdinak izan daitezke.

Ikerketaren iturriak, bi hitzez azken hamarkadako bost inkestak dira (Gaztetxoak 1999, Nortasuna 2005, Euskara 2006, Ipsos media 2007, Kultura 2008) bai eta ere Euskal Kultur Erakundearen (EKE) ekintzen txostena eta Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) proiektu deialdiak, 2009ko urtean mugaturik txosten honetarako (*ikus bibliografia*).

#### 4. Gazteriaren argazkia

Nor dira 2010eko gazteak?

Duela bost edo hamar urteko ikerketak balia ditzazkegu. Alabaina, 1999an 13 urte zuten gaztetxoek orain 24 urte dituzte eta 2005eko adin talde gazteenek orain 21-29 urte. Nolako argazkia ateratzen da euskal aisialdien ulertzeko interesgarriak diren parametroak erabiliz: lehen hizkuntza, hizkuntza gaitasuna, hizkuntzen erabilera, herri nortasunaren sentimendua? Orain arte ez daukagu gazteen aisiari buruzko ikerketarik bainan bai gai honi lotuak diren hiru eremutan, kultura, hedabideak eta kirolak. Zein dira gaurko gazteen joerak?

Euskara biziki gazte gutiren ama-hizkuntza da. %14entzat doi doia. Beraz euskara ez da gehiengoaren nortasuna egituratu duen hizkuntza afektiboa. Hortako garrantzi handia luke euskara izan dadin ahal bezainbat esperientzia atsegigarriei lotuko zeien hizkuntza, adibidez aisialdian. Oraindik euskararen transmizioa auzian dago, gaztetxoek inkestak erakusten duen bezala. Gaztetxo euskaldunei galdegin zeie: Hemendik urte batzuetara, seme-alabarik bazenu, zuk euskaraz hitz egingo zenieke etxean? Erantzuna «bai» %87 Iparraldean, %74 EAEn eta %65 Nafarroan. Galdea hipotetikoa izanikan ere, aldagai hau interesgarria da nolazbait euskara jarraitzeko go-go adierazten baitu. Gutienik transmititzen den lurraldean dago transmititzeko xederik bizkorrena. Jarrera baikor hau haziko da euskara atseginarenean hizkuntza sentituko den neurrian.

Hizkuntza gaitasunaren aldetik, belaunaldi hauekin gelditzen da euskararen aspaldiko gainbehera. Eskolari buruzko hizkuntza politika eraginkorraz baliatu dira. Haien eskola herria baino euskaldunago da. Ondorioz gazteen adin taldea, lehen aldikotz, zaharragoa baino euskaldunago agertzen mintzatzeko (%16 versus %11). Halere gazte hauek ere euskaraz baino frantsesez trebeago dira. Euskal elebidunen multzoa 3 punduz goratu den denboran, elebidun orekatuen multzoa 14 punduz ahuldu da eta erdal elebitasuna 11 punduz indartu. Badakigu hitz egiteko erraztasuna faktore erabakigarria dela hizkuntza bat edo bestea hautatzerakoan.

Gazteek non erabiltzen dute euskara? Eskolan eta eskolaren inguruan, erabilera «profesionala» nolazbait. Gero, baina gutiago, familian eta lagunartean, hots gune afektiboetan.

Zein dira gazteen pentsamoldea euskarari buruz? Definizio aski tradizionala ematen diote: hizkuntza zaila da, bainan gurea delakotz zaindu behar da. Gehiago laborantzari eta iraganari lotzen diote ezinez eta etorkizuneko bizitza hiritarrari. Ondorioz ez dakite euskara baliagarria den ala ez. Halere gure nortasun kulturalaren zinezko ikurra da. Beharrezkoa da euskara irakastea eskoletan baina haientzat hautuzko ikasgai bezala. Ezagutza ez da aski, egun oroz erabili behar da euskaldunen artean, erdaldunak hor badira ere. Gazte zenbaitek euskarazko ekintza gehiago nahi lukete.

Nortasun kolektiboari buruz, bi emaitza oso ezberdin baditugu. Euskaltasuna bakarrik aipatzen delarik anitzek beren burua euskalduntzat daukate: %48 Iparraldean oro har eta %43 gazteengan, beraz hizkuntza gaitasuna baino askoz gehiago. Aldiz euskal eta frantses nortasunak lehian ezartzen direlarik, bien artean inkestatuak hautu bat egin behar duelarik, emaitzak zalantzan daude: gehiago euskal herritar %16, euskotar bezain frantses %24, gehiago frantses %53 Iparraldean oro har. Quebecar soziologoek nazio kulturala eta nazio zibikoa bereizten dituzte. Nazio kulturala ondarean, ohituretan, hezkuntzan, hizkuntzan oinarritua da. Nazio zibikoa sortzen da herritarrek herria eraikitzen dutelako kontzientzia daukatelarik, zerbitzu publikoetan, lurralde antolaketan, ekonomian, ekologian parte hartuz. Nortasun kulturala nahiko argia da, baina herritasunari buruz jendetza bikoitz agertzen da.

Bizitza kulturalari begira, hemen ere «paradoxa» baten aitzinean gara. Oharra Iñaki Martínez de Luna-rena da (Baxok, *Euskal nortasuna...*: 142. or.). Alde batetik kulturaren osagai nagusiak definitzerakoan gazteek orokorki eta euskaldunek bereziki euskarari ematen diote lehen lekua. Baina kontsumitzaile bezala zinemari ematen diote lehentasuna, herritar, guztiek bezala. Eta zineman euskararen lekua mendrea da (ikusgarrien %3). Halere kultura eragile bezala, kantua, antzerkia eta bertsolaritza gogotik praktikatzen dituzte.

Euskarazko hedabideek arrakasta handia dute herritarren artean, bereziki gazteen artean. Telebista ikusleak, irrati entzuleak eta musikazaleak %50

dira guti gorabehera, euskara ulertzen dutenak %26 direlarik. Euskara ongi dakitenek euskal hedabideetan dabilta kasik ehuneko 80aren heinean. Bana zergatik euskaldunen %40ek ez dute deus irakurtzen euskaraz?

Kirola aipatzen delarik bereizi behar dira kirola praktika bezala eta kirola ikusgarri bezala. Praktikan gazteek ibilaldiak maite dituzte bereziki mendian. Ikusle bezala gazteen lehen hautuak errugbia eta futbola dira (praktikan 3. eta 10. mailan direlarik). Pilotak aipamen berezia merezi du. Euskal Herrian kirol anblematikoa da, lehen herri kirola. Ikusle bezala gazteek 3. lerroan daukate, plazetan edo maizago telebistaren aitzinean eta praktikan 4. mailan.

«Aisialdia, gazteak eta euskara» gogoetagai dugularik, kontuan hartu behar dugu Ipar Euskal Herriko belaunaldi gaztea gero eta euskaldunago dela, euskarari eta herriari atxikia, kulturzale, kirolzale ere bai adinak erakarririk. Haatik euskara ez da ama hizkuntza gehiengo handiarentzat. Pentsa dezakegu euskara ez dela nortasuna eraiki duen hizkuntza afektiboa gazte gehiengo horrentzat. Ondorioz euskararen erabilzaille herabeak dira, doi bat etxean eta lagunartean, askoz gutiago gizarte zabalean. Estrategia da eskola hizkuntza nola bilaka daiteken hizkuntza afektiboa plazerarekin lotuz. Egia erran, ikasleak eskolan eta eskola inguruan ere euskaraz mintzo dira, auke-ra atsegingarriak aurkitzen dituzten neurrian. Ikus dezagun zer egiten den aisialdiaren eremu ezberdinetan.

## 5. Aisialdien eremuak: bilana

Ikerketarako 12 eremu bereizi ditugu: bilguneak, egonaldiak; komunikabideak (idatzizkoak, entzun-ikusizkoak, elektronikoak); argitalpena eta irakurketa; musika, dantza eta kantua; antzerkia eta bertsolaritza; kirolak eta zirkua; bestak eta festibalak; arte ederrak; ondarea; zinema; ingurumena; jarduera zientifikoak. Gainera kontuan hartu ditugu berezko aisialdiak, adibidez gaztetxeak.

Hemen adibidetzat laburbilduko ditugu 2009an Euskararen Erakunde Publikoak edota Euskal Kultur Erakundeak bost eremutan lagundu dituzten proiektuak.



### 5.1. Bilguneak, egonaldiak

Aspaldidanik izan dira oporretako egonaldiak, kanpaldiak, «koloniak», «Euskaldun xoriak» eta beste. Ikusi dugu ibilaldiak direla gazteen kirola erabiliena. Hona 2009an gauzatu diren ekintza batzuk.

Eragilea	Jarduera	Parte-hartzea
Basaizea	Aisialdi ekintza tematikoa	14 haur/gazte
Karkaila	Kultura jarduerak, ibialdiak. Musika saioak	18 perkusiolari, 594 haur
Uda Leku	Egonaldiak. Ekintzak. 3 bilgunetan	8.986 haur-egun, 25 ikasle
Cassin lizeoa	Kultura trukaketa Zornotzako ikastetxe batekin	4 egun Zornotzan
Fal kolegioa	Kultura trukaketa Bilboko Luis Brinas kolegioarekin	16 Fal ikasle, 16 Brinas ikasle
Larzabal kolegioa	Murgiltze astea: Bilbon eta Abadiako jauregian	Klase bat, 5 egunez

Alor honetan eragile nagusia Uda Leku elkarte da: hiru bilgune dauzka Baionan, Hendaian eta Biarritzen ; asteazken oroz haur eta gaztetxoak biltzen dira eta opor guztietan salbu eguberriz. 2010ean 300 haur ibili dira 14 egonaldi-ibilaldietan. Ez da harritzekoa EEPk ematen dituen diru laguntzen %97 baliatzen baitu (130.000 €).

Ohar bat: Uda Lekuren 3 bilguneak kostaldean dira, beraz barnealdeko bilguneak beharrezkoak dira, Basaizea Baigorri eta Karkaila Zuberon. Oreaka bat egin daiteke diru laguntzen banaketan ?

Alor honetako jarduerak bi motakoak dira: egonaldiak eta ikastetxeen arteko trukaketak. Trukaketa horiek esperientzia garrantzikoak eta atseginak dira: ikasleek ulertzen dute Euskal Herriaren batasuna eta aberastasuna. Gainera elkarren komunikazio hizkuntza bakarra euskara da, euskalkien ezberdintasuna jolas moldean gaintuz.

## 5.2. Antzerkia eta bertsolaritza

Antzerkia eta bertsolaritza arrakasta handiko jarduerak dira gazteen artean. Bai eta ere besteak beste Zuberoako pastoralak eta maskaradak, jokari edo ikusle bezala.

Eragilea	Jarduera	Parte-hartzea
Bertsolarien lagunak	Bertsu eskolak, saioak. <i>Hernandorena gazte saria</i>	11 bertsu eskola: 70 haur/gazte.
Maite dugulako	Antzerki tailerrak, heldu eta gazte. Antzezenak	176 tailer-oren, 25 antzerkilari
<i>Traboules</i>	Ikusgarrien sorkuntza. Txontxon-gilo emanaldiak	3 emanaldi.
Zuberoako herri lizeoa	<i>Euskamerikan</i> pastoralak. Kaliforniakoak Zuberoan	6 ikasle, 24 astez oren bat
<i>Etxepare</i> lizeoa	<i>Gordin eta bero</i> antzerkia. 3 Puntu taldeko batekin	95 haur, 8 laguntzaile
<i>Xalbador</i> kolegioa	<i>Gernika</i> antzerkiaren ikusketa	
7 antzerki talde	Sorkuntzak: <i>Sissi, Diaspora bidean, Txu-txu, Har eman, Zuhaitz maitemindua, Lapurdiko tragedia...</i>	
3 txontxon-gilo talde	Emanaldiak: <i>Kokolobatxi, Am Stram Gram, Mamuak</i>	

Aspaldidanik antzerkiak prestatzen eta ematen dira ikastetxeetan eta konpainia berezien bidez. Euskal Haziak guraso elkartean ikastetxe giristinoetan «Euskal Antzerki astea» antolatzen du: 2009an 28 eskola, 8 kolegio, 450 haur eta gaztetxo igan dira 25 antzerki oholtzatarara.

Bertsolaritzaren arrakasta berriago da. Baserritik hirietara heldu da, arte garaikide eta modernoa bilakatuz. Alor honetan tradizioa eta modernitatea lotu dira, euskararen onurako, hori bertsolaritzako eragile beraiengatik. Bertsolarien lagunak elkarrekin da eragile nagusia, bertsolari berrien formazioa, saioen antolatzailea adibidez *Hernandorena gazte sariketa*. Urteko kontuak 100.000 euroz gorakoak dira.

Ohiko jardueretaz gain, Euskal Kultur Erakundeak sorkuntza laguntzen du, nola antzerki konpainien bidez (Chimères, Versant, Elirale, Hebentik, Maite Dugulako, Lapurdi 1609), hala txontxongiloen alorrean (Tokia, Antzokiaren harian, Azika) haurrentzat bereziki.

### 5.3. Musika, dantza eta kantua

Musikak, dantzak arrakasta handia dute gazteengan, molde tradiziona-lean eta modernoagoan. Kantuak ere bai euskara dakitenekin. Kultura inkestaren arabera musika erosle gazteetan %69k euskal musika erosten dute, euskaldunak ala erdaldunak; azken 3 hilabeteetan %97 gazte euskaradun kontzertu batera joan dira (2007).

Eragilea	Jarduera	Parte-hartzea
Iparraldeko Dantza batzordea Atelier  Larzabal kolegioa  F3C <i>Iparralai</i> <i>Fal</i> kolegioa	25 dantza talde, ekintzak 25 ikastegitan, 2 musika eskola <i>Dantza hirian 2009:</i> komunikazioa euskaraz  Hip hop ikastaroak 17 astez. Bi talde, bi agerraldi  Txalaparta kurtsuak ikastetxetan 34 trikiritxa eta pandero kurtsu  Brassens-en kantuak euskaraz antzezturik	600 dantzari, 32 ikuskizun  Ekintzak 6 egunez  40 ikasle, astero 40 minutu  18 gazte, 10 orenez 314 haur, 21 irakasle 13 ikasle, 3 partaide
4 musika talde Baigorri, Isturitze 6 dantza talde Iparraldea	Sorkuntzak: <i>Alpharock, De Escurra kontzertua, Ezkia haizean kantari, Olentzero.</i>  Sorkuntzak: <i>Aurrez, aurre, Arpean, Sakratu, Urhaska, Andrearen uzta, Paisol dantza.</i>	

Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (IDB) da dantzaren arduradun nagusia. 25 talde, gertakizun handiak (Dantzari ttiki, Dantzari eguna, Mutxikoen eguna), sorkuntza anitz. EEPk ematen dituen diru laguntzen %64 erabiltzen du.

Dantza saioak gehienak tradizionalak dira, baina hip hopa ikasten da *Larzabal* kolegioan.

Musika kurtsuok ere lagunduak dira: txalaparta, trikikitxa, etab.

Euskal Kultur Erakundeak sorkuntzak sustatzen ditu musika mailan (ZTK, Eszena nazionala, Herri soinu...) bai eta ere dantza mailan (Maritzuli, Leinua, Zarena zarelako, Herri soinu, Kitzikazan/k).

Geroari buruz kantari gazte asko agertzen dira: Amaren alabak, Hau-rock Taldea, Haur kantu xapelketa...

#### 5.4. Komunikabideak

Taula honek erakusten digu gazteriaren zaletasuna irratia entzuten eta telebista ikusten. Gainara askoz jende helduak baino trebeago dira tresna elektronikoekin, ordenagailuak, jokoak ala esku telefona. Zer eskaintza dute euskaraz? Eskaintza ahula hain segur.

*16-29 urtekoen erantzunak*

<i>Azken hiru hilabeteetan zenbat aldiz erabili dituzu euskarazko hedabideak?</i>				
Zenbat aldiz	Irratiak	Telebista	Diskoak	Irakurgaiak
Egunero	%13	%06	%12	%05
Askotan	%10	%14	%17	%05
Batzutan	%15	%27	%24	%09
Sekulan	%62	%53	%45	%80

*Iturria:* Eskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran (2005)

Irrati mailan eragile nagusia Euskal Irratiak elkartea da lau irrati federatzen dituelarik: *Gure Irratia*, Uztaritzen; *Irulegiko Irratia*, Garazin; *Xiberoko Botza*, Maulen eta *Antxeta Irratia*, Hendaian. Hegoaldeko irratia ere entzuten dira. Diru laguntzaren %60 erdiesten du federazioak.

Telebista mailan eragile nagusia Euskal Telebista da. Halere tokiko telebistaren egitasmoa hor dago *Kanaldude*, TVPI.

Hedabideak definizioz orokorrak dira. Gazteentzat bada Hegoaldean Gaztea irratia eta Iparraldean emankizun bereziak: Petatxu, Borta zabalik.

Irrati interaktiboak badira: Aztibegia, Radiokultura. Interneten bidezko egunkaria Kazeta.info. eta Webgune asko: Kanaldude, EEP, EKE...

Prentsa idatzia hau da. Mintza eta Hitza astekari berriak dira, *Herria* astekaria aspaldikoa eta *Berria* egunkaria. Baina irakurle gazteen proportzioa zein den ez dakigu. Pentsa dezakegu ahula dela.

Orokorrean, irradi entzuleak eta telebista ikusleak euskara dakitenak baino gehiago dira. Baina elebidunetan ere badakigu %40k ezer ez dutela irakurtzen.

### 5.5. Bestak, festibalak

Bestetan eta festibaletan gazteak trumilka dabilta. Euskaingintzako eragileen estrategia da, dauden bestetan ahal bezainbat euskal ekintza programan sartzea. Honek ez du diru gehiago eskatzen baina erabaki guneetan egotea. Eredugarria da Baionako bestetan egiten dena<sup>2</sup>, bai eta ere beste hiri eta herri batzuetan.

Eragilea	Jarduera	Parte-hartzea
Euskal Herria Zuzenean	3 eguneko festibala. Lema: «euskara ikas eta erabil»	30.000 sartzet.
Euskaldun Gazteria Pil Pil	Formakuntza, animazioa DVD sukaldaritzaz	18 gazte, 10 oren
Hamar festibalak	Hartzaro, Xiru, Errobiko festibala, Bihar herri, Musikaren egüna, Dilin dalan, Haur kantu xapelketa, Gauzak biltzen...	

<sup>2</sup> Emeki-emeki euskarak eta euskal kulturak beren lekua eskuratzen dute besta erraldoi horietan, euskal uharte sortuz ozeano erdaldun handian (milioi bat jende, kanpotiar anitz). Urtero, Euskal Kultur Erakundeak proposaturik, bertsolari batek Baionako besteei hasiera ematen die. Egutero Jacques-Portes plazan, 16:30tik-23:00etara, *Karrikaldi* ekitaldia antolatatu da (Ibaialde, Leinua eta Baionan Kantuz elkarteak): euskal dantzak, kantuak, bertsoak... Euskal musika eta kantuak karraketan han hemenka entzuten dira, programazioan sartuak.

Ipar Euskal Herriko 10 bat festibalen eragileek laguntza bat eskatzen dute erakundeengandik: Herri Soinu, Abotia, Ezkandrai, Herri Soinu, Bil xokua, Pestacles, Euskal kantu xapelketa, Lagunekin...

Beste besta asko badira beren burua ordaintzen dutenak edo diru biltzeko antolatuak direnak: Euskal Herria Zuzenean, Herri Urrats eta beste eskola bestak, Korrika, Sagarno eguna, Nafarroaren eguna, Lapurtarren Biltzarra.

Kultur asteak urtero antolatzen dira: Bidarten, Donibane Lohizunen, Hazparnen (Kulturaldia), Hendaian, Biarritzen (Bi harriz lau xori)... Etor-kizunean, kezka nagusia izanen da besta eta festibal horietan zein den euskararen lekua, nola leku hori handitu.

### 5.6. Ondorioak: indarguneak eta ahulguneak 2009ko egitarauetan

Ezin ditugu 12 aisialdi eremuak zehazki aztertu, gazteen aisialdi ez antolatuak ez ditugula azterketan sakonki kontuen hartzen oroitaraziz. Halere ikuspegi orokor bat izan dezakegu proiektuek ardietsi duten diru laguntza publikoak konparatuz, errana baita aurrekontuak direla borondate politikoaren seinale argienak.

Taula honetan aisialdi eremuak zerrendatuak dira, eremu horretako proiektuek lortu duten dirulaguntza kopuruaren arabera. Seinale bat da botere publikoek zer-nolako garrantzia ematen dieten aipatu eremuei.

2. zutabean diru laguntzan kopuruak eta ehunekoak daude. Diru laguntzen konparaketa: bost eremu nagusik laguntzaren %92 lortu dute (791.500 €) eta beste 6 eremuek %8 (83.600 €). Orotara 875.100 €.

3. zutabeko kontuak, lagunduak diren proiektuen gastu osoak dira. 11 proiektuen kostu osoa 2.709.600 €ko da. Beraz ikus daiteke zein den laguntza publikoaren heina (%32) eta elkarteek ekarpen propioa. Eremu batzuk oraindik laguntzarik gabe daude, adibidez joko elektronikoek ekoizpena.

Aisialdi eremuak	Laguntzak €	%	Kontuak €	%
Hedabideak, bideoak	451.300	%52	1.235.400	%46
Egonaldiak, ibilaldiak	134.100	%15	521.600	%19
Antzerkiak, bertsolaritza	86.600	%10	355.800	%13
Musika, dantza, kantua	66.000	%08	200.000	%07
Bestak, festibalak	53.500	%06	77.000	%03
Kirola, jokoak	25.400	%03	168.100	%06
Argitalpena, irakurketa	20.700	%02	20.700	%01
Ondarea, erakusketak	11.000	%01	81.200	%03
Ingurumena, zientziak	9.000	%01	17.400	%01
Zinema	3.400	–	6.000	–
Arte ederrak	1.000	–	10.000	–
<b>OROTARA</b>	<b>875.100 €</b>		<b>2.709.600 €</b>	

*Iturriak:* EKEko eta EEPko dosierak (2009).

## 6. Euskal aisialdiaren politika

Gertatzen da erakunde publikoek maiz zuzenean laguntzen dituztela gazteen aisialdian sartzten diren jarduerara asko; herrietako bestak, kirol lehiaketak, festibal handiak. Bi erakunde dira hizkuntza edo kultura politika bat daramatenak aisialdiak euskalduntzeko: zuzenean Euskararen Erakunde Publikoa, zeharka Euskal Kultur Erakundea.

### 6.1. Euskararen Erakunde Publikoaren xedek

Erakundeak 2006an Hizkuntza politika proiektua definitu zuen, helburutzat hartuz «hiztun osoak» formatzea, belaunaldi gazteei lehentasuna emanez. Hortarako 12 erronka nagusi definitu dira, beren norabide estrategikoekin eta lan ardatzekin. Bosgarren erronka aisialdiarena da: «Aisialdi uneetan euskararen erabilpena sustatuz, hizkuntza eta gozamina uztartu».

Bi norabideak dira, alde batetik «lurralde osoan, familiei ematea euskarazko aisialdi eskaintza erakargarria eta kalitatezkoa hautatzeko aukera»

eta, bestalde, aisialdian diharduten profesionalen formazio bat ematea, «behar dituzten tresnak eta gaitasunak» eskura ditzaten.

2009an diagnostika ofizial bat bat egin zen hiru ministeritzetako ordezkariekin, ikusteko bost urtez zer egin zen beste bost urteko kontratua sinatzerakoan. Laburbilduz,

- bost erronka landu dira molde egituratuan: lehen haurtzarora, irakaskuntza, argitalpena, euskara bizitza sozialean eta helduen euskalduntzea;
- bost erronka landu dira molde puntualean: hedabideak, hizkuntzaren kalitatea, toponimia, ikerkuntza eta motibapena;
- bi eremutan ez da mementoko politika egituraturik: familia bidezko transmisioa eta lan honetan aztertzen dugun aisialdia.

2010-2016 epeari begira, ibilbide orria finkatu da eta aisialdiaren erronkan lau langune zehaztu dira:

- «*aisialdi harrera kolektiboaren egituretan euskararen eskaintza emendatzea eragilean eta iharduerean bitartez;*
- *hezkuntza kulturala eta artistikoa;*
- *kirol hezkuntza;*
- *aisialdi zerbitzuen kontsumoa*».

## 6.2. Euskal Kultur Erakundea eta publiko berriak

Euskarazko aisialdia ez ba berenaz Euskal Kultur Erakundearen helburuetan. Halere jarduera anitz daramatza, bereziki publiko berriei buruz, aisialdiari lotuak direnak. Adibidez 2009ko ekintzen bilduman:

- Hezkuntza artistikoa eta kulturala eskola munduan.
- Sorkuntza artistikoa profesionalekin eta amaturrekin.
- Kultura egituren eta egitasmoen sustapena.
- Mugaz gaineko harremanak.
- Ikusgarrien hedapena: antzerkia, dantza, musika.



- Festibalak eta topaketak.
- Literatura eta argitalpena.
- Euskal kulturaren baliabide numerikoak.

Gainera egun oroz Euskal Kultur Erakundearen webguneak zerrendatzen ditu aktualitatean diren hogeitaz bat kultura gertakari, hots eguneroko kulturaren aktualitatea.

## 7. Lau gomendio besteak beste

Gure xedea da alorrez alor gomendioak egitea, azterketaz baliatuz. Behin behinean lau gomendio orokor egin ditzakegu, kontuan hartuz euskalgintza eta kulturagintzaren aktualitatea.

A. *«Gazteria, elkarteak eta kirola» eskuduntzan daukaten tokiko elkargoek beren gain har dezatela euskarari tokia ematea, aisialdi eremuetan, hizkuntza teknikarien bitartez.*

Hizkuntza politika bi gertakari nagusiz baliatu behar luke: alde batetik tokiko elkargoen erreformak eskuduntza orokorra emanen die herri elkargoek eta besteak beste gazteria eta kultura mailan; bestalde Euskararen Erakunde Publikoak, partaidetzan hiriekin eta herri elkargoekin hizkuntza teknikarian sarea hedatzen du Ipar Euskal Herri osoan. Bi aldaketa nagusi hauek sinergian uztartuz euskarak aitzinamendu handia egin lezake, bereziki aisialdi eremuetan.

B. *Hizkuntza politika publikoak lagun ditzatela aisialdiak euskalduntzen dituduten eragileak eta molde berezian eragin handia duten egiturak: Uda Leku, euskal hedabideak, kirol elkarteak, festibalak.*

Aisialdiaren alorrean, etorkizunari buruz, Euskararen Erakunde Publikoaren lehen helburua da egitura eraginkorrak indartzea. *Uda Leku, Karkaila* eta *Basaiea* bezalako elkarteak bai eta ere beste batzuk adibidez *gaztetxeak*. Diru laguntzaz gain, «labelizazio dispositiboa» ere erabil daiteke. Labelizazioaren bidez, egiturak sailkatzen dira, irakaskuntzako ereduak bezala: euskarazko egiturak, egitura kolektiboki elebidunak, egitura per-

tsonalki elebidunak. Sailkapen hau egin da gurasoek jakinean hautu bat egin dezaten hartzaindegien artean. Aholku Batzordean proposamena egin zen jokamolde berdina aplikatzeko beste egitura batzuk ere kalifikatzeko erabiltzen den euskara kontuan hartuz.

*C. Aisialdia euskalduntzeko, laguntza eraginkorra hartze dute gazteengan arrakasta handia duten baliabideek eta bereziki zinemak eta joko elektronikoeak.*

Erakundeen egitarauan sartu behar dira eta indartu orain arte guti landu diren bi eremu: zinema eta joko elektronikoa. Harrigarriko arrakasta dute haur eta gaztetxoaren artean. Baina eskaintza ahula da euskaraz. Beraz filma eta joko argitalpena bultzatu behar da, sorkuntza edo bederen itzulpena lagunduz.

*D. Aisialdiaren eremuan nabari da euskalgintza eta kulturgintza uztartzen direla eta Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskal Kultur Erakundearen arteko lankidetzaren beharrezkoa dela.*

1990az geroztik Euskal Kultur Erakundeak «dena» egiten zuen. 2005ean Euskararen Erakunde Publikoa sortu zelarik kulturgintza eta euskalgintza bereizi ziren eta, oro har, baliabide publikoak hirukoiztu zirelarik. Beraz euskara irabazle atera zen, baina bi erakundearen arteko lankidetzaren ez da nabari, jarduera askotan kultura eta hizkuntza uztartuak baitira. Argitalpenean elkarlan bat egiten da. Beste alorretan ere baliabideen metaketak eraginkortasuna bizkor lezake.

## Oinarrizko bibliografia

BAXOK, Erramun, *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian*, 2006ko inkesta soziolinguistikoa, IV. Inkesta Soziolinguistikoa.

BAXOK, E. ETA BESTE, 2006, *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

BERRIO-OTXOA, Kontxesi, HERNÁNDEZ, Jone Miren, MARTÍNEZ, Zesar, 2003, *Gaztetxoak eta Aisialdia: Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*, Soziologiako Euskal Koadernoak, 13, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

DUMAZELIER, J., 1962, *Vers une civilisation des loisirs?* Paris: Seuil.

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA, 2001, *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara Iparraldeko egoera*. Euskal Kultur Erakundea.

———, 2006, *Euskal Kultura 2007-2013 Elgarrekin bilaka – Culture basque 2007-2013 Devenir ensemble*. Euskal Kultur Erakundea, [www.eke.org](http://www.eke.org).

———, 2007-2008-2009-2010, *Ekintzen bilduma – Bilan d'activités*. Euskal Kultur Erakundea, [www.eke.org](http://www.eke.org).

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2006, *Hizkuntza politika proiektua «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun»*, elebiduna, [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr).

———, 2007-2008, *Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileei zuzendua den proiektu deialdiaren ebazpena*.

———, 2009-2010, *Euskararen alorrean diharduten Ipar Euskal Herriko eragileei zuzendu hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren ebazpena*.

———, 2009, *État des lieux provisoire de l'action menée par l'Office Public de la Langue Basque*, [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr).

———, 2009, *Cadre opérationnel provisoire 2010-2016 pour la politique publique linguistique*, [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr).

———, 2010, urria, *2010-2016 urteetako hizkuntza politikaren Jokabide Esparrua «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun»*.

EUSKO JAURLARITZA, 2008, IV. *Inkesta Soziolinguistikoa 2006*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA, KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA, EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA, 2008, *Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herria 2007-2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

———, 2008, *Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa Ipar Euskal Herria 2007-2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

GAINDEGIA, 2009, abendua/décembre, *Ipar Euskal Herriko argazki sozio-demografikoa / Portrait démographique et social du Pays Basque Nord*, [www.gaindegia.org/files/IparEuskalHerrikoArgazkia.pdf](http://www.gaindegia.org/files/IparEuskalHerrikoArgazkia.pdf)

HERNÁNDEZ, J. M., 2005, *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*, Soziologiako Euskal Koadernoak, 16, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

———, 2010, « *Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur* » hitzaldia, « *Gazteak, aisialdia eta euskara* », XV. Jagon Jardunaldiak, 2010/11/19. Bilbo: Euskaltzaindia.

IPSOS MEDIA, 2007, *Komunikabideen erabilpenaren azterketa: Telebista eta irrati* - *Enquête de fréquentation des médias: Télévision et radio*, 2007. Euskararen Erakunde Publikoa, [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr).

MARTÍNEZ GARCÍA, Z., HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M., BERRIO-OTXOA DE ANGIOZAR, K., 2000, Aisialdiaren definizioa eta bilakaera, *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Gipuzkoako Foru Aldundia, [http://www.gipuzkoa.net/infojuven/guiaocioorg/eus/PDFeus/1.\\_ATALA.pdf](http://www.gipuzkoa.net/infojuven/guiaocioorg/eus/PDFeus/1._ATALA.pdf).

MARTÍNEZ DE LUNA, I. eta BERRI-OTXOA, K. [zuzend.], 2000, *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Kultur Erakunde.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, URTXINTXA, TOPAGUNEA, 2009, *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa*, Soziolinguistika Klusterra, <http://www.soziolinguistika.org/gazteak>.



# «Zer egin dezaket nire udalean nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko»

ARRUTI, Iñaki

Lasarte-Oria Udaleko Euskara Zerbitzuko arduraduna

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Zein jarduera-esparruk osatzen dute nerabeen errealitatea? Eta zein da bakoitzaren garrantzia erlatiboa? Eta erantzun bera ote dute bi galdera horiek Bilboko eta Garesko nerabeen kasuan? Eta gauza bera izango ote dira Bilboko nerabe guztien eta Garesko nerabe guztien kasuan? Eta...?

Eta udal batean kokatzeko ariketa egiten baldin badugu, zeintzuk dira gizarte-jarduera horietatik udalerrian hezurmamitzen direnak? Eta udalerrian hezurmamitu arren, udalak eragingarri, eragiteko modukoak alegia, izan daitezkeenak?

Bete-beteko erantzunik duenik ez dut ezagutzen eta nik ez dut behintzat. Hala ere, lanerako baliagarriak izan zaizkigun, interpretazio-tresna batzuetara iritsi izan gara.

Udaltop-en II. edizioan ere ([www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)) landu, landu zen gaia. Galdera bera, baina, horrelakoetan gertatu ohi den tankerara, erantzun borobil eta erabatekorik ez zen osatu. Hala ere, erantzun batzuk topatu ziren landutako ponentzietan eta bertaratutakoek lan-taldeetan egindako lanean.

**Hitz-gakoak:** nerabe, jarduera-mota, eskola, aisialdia, lagun artea, udaltop.

¿Qué tipo de actividades ocupa la realidad de los adolescentes? y ¿cuál es la importancia relativa de cada una? ¿La respuesta sería la misma entre adolescentes de Gares y de Bilbao? ¿Sería la misma entre todos los adolescentes de Gares y de Bilbao?

Y si nos centramos en un pueblo, ¿cuál de estas actividades se desarrolla verdaderamente? Y aunque se desarrollen, ¿cuáles de estas obtienen resultados satisfactorios?

No conozco a nadie que tenga las respuestas a estas cuestiones, yo no desde luego. Aun así, hemos obtenido unas herramientas de interpretación que nos han sido útiles en el trabajo a desarrollar.

La cuestión se abordó en la segunda edición de Udaltop ([www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)). Se planteó la misma cuestión y, como es habitual en estos casos, no se obtuvo una respuesta concisa y global. Aun así, en las ponencias presentadas y el trabajo hecho en grupo, algunas respuestas sí que se obtuvieron.

**Palabras clave:** adolescente, tipo de actividades, escuela, ocio, círculo de amigos, udaltop.

Quelles sont les activités des adolescents? et quelle est l'importance de chacune d'elles? La réponse serait-elle la même pour les adolescents de Puente la Reina et pour ceux de Bilbao? Serait-elle la même pour tous les adolescents de Puente la Reina et de Bilbao?

Et si nous choisissons un village, quelles sont les activités qui sont véritablement pratiquées? Et même si elles sont pratiquées quelles sont celles qui obtiennent des résultats satisfaisants?

Je ne connais personne qui puisse répondre à ces questions, moi non en tout cas. Nous avons pourtant obtenu des outils d'interprétation qui nous ont été utiles dans notre travail.

Cette question a été abordée lors de la seconde édition d'Udaltop ([www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)). On a posé cette question et comme toujours dans ce cas on n'a pu obtenir une réponse concise et globale. Pourtant dans les rapports présentés et dans le travail réalisé en groupe quelques réponses ont été données.

**Mots-clés :** adolescent, type d'activités, loisirs, cercle d'ami, udaltop.

What spheres of activity make up the reality of adolescents? And what is the relative importance of each one? And could it be that these two questions have the same answer with respect to the adolescents in Bilbao and those in Gares (Puente la Reina, Navarre)? And will the answers be the same for all the adolescents of Bilbao and all the adolescents of Gares? And...?

And if we make an effort to put ourselves in one town council, which of these social activities are the ones that are carried out in the municipality? And despite taking place in the municipality, which ones could the town council exert an influence on?

I do not know anyone who has a full answer, I myself at least do not have one. Nevertheless, we have obtained some tools for interpretation purposes and they have turned out to be useful in our work.

This was the subject that was worked on in the second edition of the Udaltop ([www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)). The same question was raised, but as usually happens in such cases, it did not receive a comprehensive reply. Nevertheless, some answers were found in the papers worked on and in the tasks done in the working groups by the people who attended.

**Keywords:** adolescent, sphere of activity, school, leisure time, group of friends, udaltop.



## 1. Sarrera

2010eko apirilaren 21ean eta 22an «Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruan) nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko?» goiburua zuen gaia landu zen Udaltop-en II. edizioan (Udaletako euskara zerbitzuetako topaketetan).

Landu, landu zen gaia, galdera bera, baina, horrelakoetan gertatu ohi den tankerara, erantzun borobil eta erabatekorik ez zen osatu. Hala ere, erantzun batzuk topatu ziren landutako ponentzian eta bertaratutakoek lantaldeetan egindako lanean.

Ez da erraza topaketa batzuen kronika beste jardunaldi batzuetara eramatea. Erraza ez izateaz gain, aspergarria ere izan daiteke (besteak beste informazio zuzenagoa eta hobea jaso ahal izan duelako entzuleak, bai bertan izan delako, bai informazioa modu osatuagoan jasotzeko web-orria bisita dezake-elako ere) eta hori behintzat ekidin nahiko luke dokumentu honek.

Jardunaldi hauetarako, ordea, Udaltopen gai honen ingurumarian esandakoen berri ematea eskatzeaz gain, udal batetik gaia lantzeko esku-hartze eskema bat izan daitekeena proposatzeko ere eskatu zaidanez, azken honetan zentratu dut txosten hau eta Udaltopeko II. edizio horretan landutakoaren erreferentzi batzuk tartekatu besterik ez ditut egingo.

## 2. Nerabeen errealitatea

Tesi bat (batzuk) egiteko gaia izan daiteke hori berori. Are gehiago ikuspegi diakroniko batetik begiratuta, oso urte gutxiko tartean, kontzeptua bera nola aldatzen ari den ikusita.

Pretentsio horietatik urrun, hemen jasotakoek intuizioak, eskarmentuak eta inguruan entzun eta irakurritakoak oinarri hartuta, egunerokotasunean udal bateko euskara-teknikari baten lana izan daitekeen lur-sail horretan aritzeko lan-eskema bat eskuratzea beste helbururik ez dute.

Urte asko dira *Eskola hiztun bila* liburuan bildutako lanetik ikasi genuela eskola-eremuaren ahalmenez eta mugez. Lan horrek haurren (eta nera-

been) errealitatean eskolak zer-nolako zatia osatzen duen zedarritzen lagundu izan gaitu.

EUSTAT-ek berak ere, hainbatetan egin izan ohi dituen denboraren erabilera sozialaren inguruko azterketek (egunean zenbat denbora eta zer egiten pasatzen dugun zehazten dute azterketa horiek, besteak beste: lanean eta prestakuntzan, fisiologi beharretan, etxeko beharretan, aisian, eta abar) gutako bakoitzaren, edo adin-taldekako multzoak bereizita, errealitatea zein zeregin/esparru/funtzioz (edo egokiena iruditzen zaizuen terminoa aukeratu) osatzen den definitzen lagundu izan ohi gaitu.

Apaltasun guztiarekin esan beharrekoa badut ere, neroni ere, beste hainbat pertsona eta erakunderen tankerara, saiatu izan naiz pertsonon errealitatea osatzen duten jarduera-esparruak zeintzuk izan ote daitezkeen eta horiek adin-talde bakoitzean eduki dezaketzen pisu erlatiboa grafikoki zirriborratzen.

Nire ahalegin horrek behintzat inoiz ez du helburu (eta metodologia) zientifikorik izan. Zirriborroak, ordea, izan du praktikotasunik eta hari hori erabili izan da hainbatetan adin-multzo bakoitza zein jarduera-esparruk osatzen duten eta bakoitzaren pisuaren/indarraren hausnarketa bideratzen laguntzeko.

Iturri horietatik edanez iritsi izan gara gure eguneroko errealitatea ondoren zehazten diren jarduera-esparru hauetan disezcionatzera: familia, irakaskuntza, lagunartea, lan-mundua, komunikabideak, gizarte-zerbitzuak, administrazioa eta aisialdia.

Egin dira beste sailkapen batzuk eta haiek ere (egingo diren beste batzuk bezala) ez dira perfektuak izango, baina baliagarriak izan daitezke, errealitatea interpretatzen laguntzen gaituzten heinean.

Zein jarduera-esparruk osatzen dute, orduan, nerabeen errealitatea? Eta zein da bakoitzaren garrantzia erlatiboa? Eta erantzun bera ote dute bi galdera horiek Bilboko eta Garesko nerabeen kasuan? Eta gauza bera izango ote dira Bilboko nerabe guztien eta Garesko nerabe guztien kasuan? Eta...?

Eta udal batean kokatzeko ariketa egiten baldin badugu, zeintzuk dira gizarte-jarduera horietatik udalerrian hezuramaitzen direnak? Eta udale-

rrian hezurmamitu arren, udalak eragingarri, eragiteko modukoak alegia, izan daitezkeenak?

Uste dut galdera guztien kasuan bete-beteko erantzunik ez dagoela. Nik ez dut behintzat, eta horren ondorioz, nabardura asko galtzen duten, baina lanerako baliagarriak izan zaizkigun, interpretazio-tresna batzuetara iritsi izan gara.

Galdera gehiago eta sakonagoak ere egin daitezke ordea. Alegia, nerabeen errealitatea osatzen duten jarduera-esparru horiek (ikuspegi soziolinguistikoa) direnak direla ere, zeintzuk dira nerabe baten hizkuntza-garapena (ikuspegi psikolinguistikoa) gehien baldintzatzen/osatzen dutenak?

Beste era batera galdetuz, haur baten (gehienen) jarduera-esparru nagusiak, adibidez, familia, eskola, eskola-orduz kanpoko jarduerak eta telebista baldin badira, berdin eragiten al du zati bakoitzak haurraren hizkuntza-garapenean?

Nik ezetz esango nuke. Eta ausartuko nintzateke baieztatzen, denen artean familiak duela hizkuntza-garapen horren espikazioaren parterik handiena, seguruenik bai denbora kantitatearen distribuzioaren ikuspuntutik, bai eraginaren kualitatibotasunaren ikuspegitik ere.

Eta nerabe baten kasuan?

Lagunartea, eskola eta aisialdia bereiziko nituzke nik, garrantzia ere hurrenkera horretan emanez. Irakurlea, ordea, dagoeneko bere buruari galdezka ariko da, ea familiak ez ote duen eraginik nerabeen kasuan, edota, haurren kasuan komunikabideak aipatu baditugu, nerabeetan hori bera denboran eta komunikabide-motetan (Internet...) hainbat aldiz biderkatuta ez ote genukeen jaso behar.

Gauza gutxi izan ohi dira zuriak edo beltzak eta hemen ere antzera. Denak eragiten du denarengan (edo ia denak behintzat). Hala ere, udal batean kokatuta, familia-esparrua haurren giza multzoan langai (eta lehentasun) jotzearen aldekoa naizen moduan, nerabeen adin-taldean uste dut ez duela lehentasunik. Uste dut urak pasata daudela. Eta ez momentu horretan familiako hizkuntza-errealitateak nerabearen hizkuntza-errealitatean eraginik ez duelako, errealitate horiek mugitzeko indarra galdu duelako baizik.

Komunikabideak, berriz (bai haurren eta bai nerabeen kasuan ere), iruditzen zait gaur egun oso neurri txikian izan daitezkeela udalerriko eremuan eragingarri, eremu horretatik gaindi dauden egituretatik sortzen eta hedatzen direlako batik bat. Hala ere, adibiderik bada (sare sozialen erabileraz batik bat) eta Udaltopen aurkeztutako ponentzien artean ere aipatuko dugu aurrerago esparru hori helmuga izan duen praktika onen bat edo beste.

Arrazoibide horrek, ezinbestean jauziak emanez aurreratzen ari naizen arren, txosten honen galderaren erantzunetara hurbilpen bat egin nahian, narama esatera udal bateko euskara-zerbitzutik nerabeen hizkuntza-errealitatean eragiteko hiru jarduera-esparru nagusiak lagunartea, irakaskuntza eta aisialdia izan daitezkeela.

### 3. Udal batetik aritzeko lan-eskema bat

Horiek horrela balira, edo baldin badira, ausartuko naiz (atrebentzia gehitxo ez baldin bada) esparru horietako bakoitzean udalak gara ditzakeen lan-ildo nagusiak zedarritzen.

Edozein kasutan, bistan denez, hemen jasotakoak ere modulatu beharrekokoak dira bakoitzaren egoerara. Esaten ari naizen gauza asko (eta segidan ere horrela egingo dut) Erkidego Autonomoko batez besteko egoera batzuk eta estandar batzuk oinarri hartuta daude esanak (egoera legalari edo irakaskuntzako euskarazko lerroen hedadura dagokionez, adibidez).

Batez besteko egoera horietatik urruntzen diren kasuei (adibidez, herria oso euskalduna delako kasu edo euskara ofiziala ez den lurralde-eremu batean kokatutako udalerrria delako beste kasu batzuetan), lan-eskema hau txikiegia edo handiegia geratuko zaie, seguruenik.

#### 3.1. Eskola

Estandar horietatik abiatuz (herriko ikastetxeetan A eredia gutxiengo bihurtu den eta gero eta pisu gutxiago duen argazki horretatik alegia), begibistakoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan euskarazko eredueta ikas-

ten ari diren nerabeen euskara-gaitasuna orokortzen ari dela. Begi-bistakoa ere bada (eta begi-bistakoaz gain, zenbait ikerketek frogatutakoa ere bai: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-sailak egindako EIFE txostenak, «B2 Euskara mailaren ebaluazioa. 4. DBH»...) euskara-gaitasun horiek anitzak direla (eta ez-nahikoak hainbatetan). Hori horrela izanda ere, ez da ez txosten honen, ez jardunaldien helburua eskola-sistemak nerabeen hizkuntza-gaitasunean egin duena, egin ez duena, egin dezakeena edo ezin egin dezakeena aztertzea.

Testuinguru horretan, uste dut Udalek esparru horri lotuta egin dezaketen hizkuntza-politikaren eskemak bi oinarri izan ditzakeela; eskolari, egiten ari den lana hobetzeko, laguntza ematea bata, eta eskolaren (eta nerabearen) gertuko ingurunea ahalik eta euskaldunena izan dadin neurriak hartzea bestea.

Oinarri horien gainean, beraz, lan-ildo nagusiak ondorengo hauek izan daitezke:

**1. Udaleko sailek eskaintzen dituzten irakaskuntzako zerbitzuak euskaraz eskaintzea.**

«Etxetik hasi behar delako...» izenburua lehenago ere hainbat kanpainatan erabili izan dugu eta, normalean, ez da aholkulari txarra izaten.

Esparru honetan ere, eta aipatutako estandar horien ingurumarian, udalak egin beharreko lehendabiziko gauza hori bera izan daiteke. Alegia, Udalak berak bere eskumeneko dituen irakaskuntza-zerbitzu horiek (behintzat aipatzen ari garen adin-tarteetatik behera) euskaraz eskaintzea.

Zeintzuk diren horiek? Herri guztietan ez dira berdinak, baina haur-eskolak, tailer okupazionalak eta antzeko zerbitzuak izan daitezke.

**2. Udaleko sailek ikastetxei eskola-orduetan egiteko eskaintzen dizkieten programak euskaraz eskaintzea**

Irakaskuntzako zerbitzuak izan gabe ere, eskola-orduetan gauzatzeko hainbat zerbitzu eman edo lagundu ohi dituzte udalek.

Igerian ikastekoak kasu (hainbat tokitan adin zehatz batzuetako herriko haur guztiak hainbat ikasturtetan egin ohi dituzte ikastaro horiek kiroldegietan), ingurumenari lotutako heziketa (eskola-orduetan gauzatu ohi dena), sexu-heziketarekin lotutakoa, bide-segurtasunerako heziketarekin lotutakoa...

Ariketa lagungarri bat izan daiteke udalaren aurrekontua departamentuz departamentu hartu (edota zerbitziburuekin hitz egin) eta zerbitzu horiek zerrendatzea.

### 3. **Eskolekin Hizkuntza Normalizazio Planak hitzartzea edo badituztenen kasuan planak aberasteko egitasmoak hitzartzea.**

Lan-ildo honek, ikastetxe gehienek ikasleen (kasu honetan nerabeen) hizkuntza-ezaugarriak hobetzeko egin ohi dituzten ahaleginak laguntzea izango luke helburu.

Eskolak egiten ari diren ahalegin horiek, kasu gehienetan, Ulibarri programak sustatutako Hizkuntza Normalizatorako Planak eginez zehazten dira ikastetxeetan. Proposatzen den hitzarmen horien bidez, plan horiek indartu ahal izango lirатеke, ikastetxe bakoitzak eskola-orduetan nerabeekin egitea onuragarri jotzen dituen programak lagunduz.

Adibidez, zer? Adibidez, hainbat tokitan udaletatik lagundu ohi dira gazte-hizkera lantzeko hitzaldi-ikastaroak. Edo hizkuntzaren gaineko jarrerak lantzeko «motibazio-saioak», edo «ahozkotasuna eta bertsolaritza» moduko programa ezagunak, edo eskola-orduetan lantzeko komunikabideren bat edota nerabeen aldizkarietako harpidetzak bultzatzeko laguntza edo erabilera-neurketak egiteko laguntzak, edo... ikastetxeak eta udalak nerabe horien hizkuntza-garapenerako eskola-orduetan langai izatea egokitzen jo dezaketene beste edozein programa.

Aipatutako adibide horietako baten berri zehatza izan genuen Udaltopen, hainbat urtez Gaztezulo aldizkariko zuzendari izandako Alberto Irazuk aurkeztutako «Nerabe eta gazteen kultur kontsumoa: GAZTEZULOren esperientzia» ponentzian. Seguruenik komunikabideen

esparruan kokatu beharko genuke egitasmo hau, baina honantz ekarri dut udalerrri askotan eskola erabili ohi delako nerabeengana heltzeko zubi modura (aldizkariaren zenbaki bat bertan aurkeztu, gero etxera nerabe bakoitzari hainbat zenbaki bidali eta azkenean harpidetzak egitea eskaini...).

Ikastetxeek beren ardura nagusizat dute ikasleen (nerabeen) hizkuntza-gaitasuna osatzea. Zeregin horretaz gain, ordea, uste dut interesgarria dela jakitea ea eskolak hizkuntza-jarrerak eta hizkuntza-erabilerak lantzea helburu ote duen (horien lanketak hizkuntza-gaitasunean ere ondorio esanguratsuak izan ditzakeelakoan).

Hala ez bada, ikuspegi horren komenigarritasunaz hitz egitea iruditzen zait dela lehendabiziko zeregina. Horrela bada, berriz, aurreko paragrafoetan aipatutako programen antzekoek hezurmami ditzakete ikuspegi edo helburu horiek.

Ildo horretan sakonduz, ikuspuntu hau (aurreko pasarte batean aipatutako programa horiek hitzartzea alegia) hobetzea ere planteatu daiteke. Nire ustean, hobekuntza hori Udaltopen «HEZHIZ: HIZkuntza HEZiketarako dinamizazioak» izenburupean Urtxintxako Jaime Altunak azaldukoaren haritik tiraka heldu (iritzi eta ondu) daiteke.

HezHiz izeneko programa Gipuzkoako Urtxintxa Eskolak 2008. urtean abian jarri zuen programa berri bat da. Urte horretan, Debako Udalaren eskariz erabilera sustatzeko hizkuntzarekiko jarreraren lanke-ta egiten hasi zena.

Programa horren bidez usteetan eta gaitasunetan eragiten saiatzen dira euskararen erabilera handitzeko. Talde dinamikan eta eragile guztien parte hartzean oinarritutako metodologiaren bidez hainbat gai jorratzen dituzte 12 eta 16 urteko gazteen artean: aurreiritzi linguistikoak, hizkuntza aniztasuna, euskararen aurreiritziak, euskara eta euskal kultura, erabileraren zailtasunak eta aukerak, erabilera handitzeko tresnak...

Ponentzia horretan, HezHiz programaren zergatiak, aurrekariak, deskribapena eta orain arteko balorazioa azaltzearekin batera, hainbat

hausnarketa labur luzatuko ziren gazteen artean erabilera handitzeko egiten den lan aplikatuari buruz.

Esan dudan bezala, uste dut programa honek, Bigarren Hezkuntza ikastetxe asko egiten ari diren lanaren hobekuntza nondik bidera daitekeen zirriborratzeko pista interesgarriak ematen dizkigula eta urrats bat aurrera egitea ahalbidera dezakeela. Ideia horietan oinarrituta, hona hemen Lasarte-Orian gai honen gainean prestatzen ari garen zirriborroan jarriak ditugun galderak:

1. Ikastetxeak hizkuntza lantzeko duen tresneria ez al litzateke asko aberastuko, hizkuntza-gaitasuna bera lantzeaz gain, hizkuntza-jarrerak eta hizkuntza-jokabideak landuko balira?
  2. Lanketa hori egiteko, ez al litzateke egokiagoa programa puntualak modu puntualean landu ordeztu (orain arte bezala), DBH1etik Batxillergoko 2. mailara arte maiztasun zehatz batekin eta adin bakoitzerako egokienak diren eduki sekuentzializatu batzuk landuz bideratzea?
  3. Posible al genituzke orain arte erabilitako programa horiek komunikazio-trebetasunak hobetzen lagunduko luketen tresna berriekin (asertibitatea, lidergoa...) integratzea?
4. **Esparruko agenteak koordinatuta lan egitea.**

Esan beharrik ez dagoela ere irudi dakiok norbaiti, baina esanda gusturago geratuko naiz. Izan ere, aurretiaz aipatutako lan-ildo horiek beren zentzua (eta kasu batzuetan bideragarritasuna ere) hartzen dute, baldin eta hori gauzatzearen lehendabiziko protagonista den ikastetxeak berak hala ikusten badu, udalerriko gainontzeko ikastetxeek ere hala ikusi, hausnartu eta adostu badute udalarekin batera eta hori modu koordinatuan eta planifikatuan egiten bada.

Koordinazio hori modu desberdinetan egin daiteke, bistan da, eta denak izan daitezke baliagarriak, eragile diren erakundeek hala kontsideratzen badituzte.



### 3.2. Aisia

Esan dugu udalaren hizkuntza-politikaren eskemak izan ditzakeen bi oinarrietako bat (eskolari laguntza emateaz gain alegia) eskolaren (eta nerabearen) gertuko ingurunea ahalik eta euskaldunena izan dadin neurriak hartzea dela.

Gertuko ingurune hori hainbat esparruk osatzen dute eta horietako bat, aisia da. Badakit aisia hitzak berak ere adiera eta definizio asko izan ditzakeela, baina saihestu egingo ditut apropos (txosten honetan langai izan nahi duenarentzat ezinbestekoa ez delakoan).

Arrazoi taxuzkoak daudela iruditzen zait udalak adin-multzoko honi zuzendutako (eta haurrei ere bai) hizkuntza-politikaren lehentasuna esparru honetara izan beharko lukeela baieztatzeko.

Ez dira berriak arrazoibide hauek, baina gogorazteak ere kalterik ez duelakoan, honatx lau:

- Nerabearen errealitatearen zati garrantzitsu bat (denbora kantitatez) osatzen du aisiak.
- Aisia gehienetan gustuko jarduera da eta jarduera hori gauzatzeko erabiltzen den hizkuntzari zeregin/funtzio hori egiteko balioa (atsegina) eransten dio hiztunak.
- Nerabe (eta haur) askoren hizkuntza-garapena (nagusiki eskolan darabaten prozesua) osatzeko eremu natural eta eskuragarriena izan daiteke.
- Aisia, zati handi batean, udalerrian bertan antolatzen da eta, zuzenean edo zeharka, udalaren eskumena izan ohi da, zati handi batean behintzat.

Gaiak hausnarketa teoriko gehiagorako aukera ematen badu ere, ez da txosten hau horretarako toki egokiena. Hala ere, gaien arakatu nahi duenarentzat bistaratu behintzat egin nahiko nituzke hari-mutur batzuk:

Adibidez, Mikel Zalbide jaunak diglosia funtzionala onuragarri litzaikeela dioenean eta arnasmuneak izatea (kasu honetan nerabeen aisialdi antolatu hori horrela ulertuta) estrategikoa dela dioenean (ikus «Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan» [www.udaltop.com-en](http://www.udaltop.com-en)), nerabeen aisialdi horretaz (ere) hitz egiten ariko ginatkeela iruditzen zait niri.

Edo, Jon Sarasua jaunak euskaldunok euskara hegemonikoa izango den guneak behar ditugula dioenean («Euskaltasunaren norabideaz, oldozpen batzuk» hitzaldiaren inguruan egindako elkarrizketa Argia aldizkariko 2.147 zenbakian), haur eta nerabeen aisialdia ezaugarri horiek izan ditzakeen (hurrengo) eremua izan daiteke (eskolaren ondoren, hainbat egoeratan)?

Edo, eta azkenik, Albert Bastardas irakasleak hizkuntza-ekologiaz eta «sostenibilitat lingüística»z ari denean («Cap a una sostenibilitat lingüística» 2005), subsidiaritate printzipioa aplikatu beharraz eta hizkuntza-komunitatearen berezko hizkuntza denak bete ditzakeen funtzioak berak betetzea eta bete ezin dituenak beste hizkuntza batzuk betetzea adostu beharraz diharduela kontuan izanik, ez al litzateke oso logikoa (linguistikoki bederen), subsidiaritate printzipioa aplikatuz, haur eta nerabeentzako antolatzen dugun esparru hori, hegemonikoki, euskaraz izatea?

Teoriak eta nabardurak gora-behera, uste dut adostu litekeen lehentasunezko praktika bat dela hori. Alegia, haur eta nerabeentzako antolatzen dugun aisia hori, D eredukoa, euskarazkoa alegia, izatea.

Agian, erdi adostua ere badugu jadanik, baina gauzatzetik, eta ongi gauzatzetik, urrun gaudela uste dut. Galdera zuzen bat eginez zehatz dezaket kezka hori, alegia, zein konkordantzia (linguistiko) dago nerabeen (eta areago haurren) ikastereduaren eta, adibidez, kirola egiterakoan duten hizkuntza praktikaren artean? Edo zuzenago esanda, zein hizkuntzatan egiten dute kirola D ereduan ikasten ari diren nerabeek?

Teorian uste dut ez dugula horri erantzun on bat ematea adosteko arazorik, baina praktikan uste dut lubaki handi bat dugula egia bihurtu bitartean. Arazoa ez dugu teorian, praktikan baizik.

Bestalde, beste hari mutur bati helduz, «antolatzen dugun aisia» idatzi dut aurreko pasarte batean eta horrek ere adiera desberdinak izan ditzake. Izan ere, udal bateko euskara zerbitzuan kokatzen bagara, segituan sortuko zaigu beste galdera hau: zer egitea komeni da, jadanik antolatuta dagoen aisia euskalduntzea edo berriaz berria euskaraz sortzea?

Gure lanean hain ohikoa den «egin edo eragin?».

Uste dut hemen ere bietatik egin izan ohi dugula eta aurrerantzean ere horrela izan beharko duela. Seguruenik, berariaz berria euskaraz sortu beharrik gabe, dagoena euskaraz eskaintzea litzateke hizkuntza normaltasunaren seinalerik onena, baina «normalean», hori horrela ez delako (eta hori horrela izatera irits dadin) antolatu izan ditugu euskarazko aisia-programak (udaleku, ludoteka eta abar oso luze bat). Beraz, lekuan-lekuan neurtu beharrekoa izango da osagai bien konbinaziorik egokiena zein den.

Oinarri horien gainean, lan-ildo nagusiak ondorengo hauek izan daitezke:

**1. Udaleko sailek eskaintzen dituzten aisiako zerbitzuak eta programak euskaraz eskaintzea.**

Eskolako eremurako esan dugunak berdin-berdin balio du esparru honetarako. Berdin-berdin kontzeptualki, askoz dimentsio handiagoan, seguruenik, zerbitzu-kopuruari dagokionean. Izan ere, bolumen oso handia hartu ohi dute udaleko sailek antolatu ohi dituzten aisiako zerbitzuek.

Oso egitura eta zerbitzu desberdinak izan ditzakete udalek alor honetan, baina oker handirik gabe aipa genitzake batzuk bederen. Kiroldegiak kasu, udalaren eskumeneko diren aisia ekoizle garrantzitsuak dira udalerriko bizitzan. Gauza bera esan dezakegu kultur etxez (musika-eskola, musika-programazio, ikastaro eta abarrez).

Nabardurak nabardura, uste dut lehentasun erabatekoa duela lan-ildo honek.

Eta nola eragin? Hori zehazteak ere luze jo dezake, baina uste dut zerbitzu horiek zuzenean ematen dituzten pertsonekin lan egin behar dela, elebidunak izan daitezen ziurtatzeko lehendabizi eta euskaraz aktiboak izan daitezen laguntzeko bigarrenik. Horrek ere soka luzea du, baina lehendabiziko puntuari, nagusiki, kontratazioen gaia landuz heldu behar zaio (pertsonen kontratazio zuzena denean era batera eta zerbitzu horiek enpresen bidez ematen direnean kontratazio horietako baldintza-pleguetan hizkuntza betebeharrak jasoz) eta bigarrenari (pertsona horiek euskaraz aktiboak izan daitezen), berriz, irizpideak emanez eta pedagogia eginez. Alegia, beraiekin egon, nerabeen

hizkuntza-errealitatea, gaitasunak, ohiturak eta abarrak azalduz eta beraien hizkuntza-jokabideak lantzeko laguntzak emanez.

Lan-ildo honetan are zentralagoa, eta nerabeengan zentratuagoa, izan ohi da hainbat udaletako gazteria zerbitzuetatik egin ohi den lana. Udal bakoitza mundu bat izan daiteke, baina zerbitzu horietatik berariaz nerabeei eskaintzen zaizkien hainbat zerbitzu ekoitzi ohi dira (kanpalekuak, jaiak, gazte-lekuak...).

Zentzu honetan, Udal batetik nola lan egin daitekeen azaldu zuten Udaltopen, hurrenez hurren, Bermeoko Udaleko euskara eta gazteria teknikariak diren Maite Alvarezek eta Iñaki Lopezek. «Gazteria eta Euskara zerbitzuen elkarlana nerabeen aisialdian eta hizkuntza ohituratan eragiteko. Bermeoko esperientzia» izeneko ponentzian.

## 2. **Herrian haur eta nerabeentzat antolatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen laguntzea.**

Udalak berak egiten, antolatzen, duen aisiaz gain, ordea, udalerrian beste hainbat zerbitzu edo jarduera izan ohi dira. Antolaketa-modu horiek dezente aldatu ohi dira udalerrri batetik bestera, baina, antolatzailerik dagokienean, esan genezake, udalaz gain, herriko ikastetxeak eta elkarteak izan ohi direla.

Ikastetxeen kasuan, gaur egun ikastetxe gehienak izan daitezke eremu hau ongi kudeatzeko beregainak. Hala ere, uste dut (ustea da) ez dagoela nahikoa koherentzia ikastetxeek ikastorduetan duten praktika linguistikoaren eta eskola-orduz kanpo ikastetxeek beraiek (guraso-elkar-teak...) nerabeentzat antolatzen dituzten jardueren hizkuntza-jardunaren artean. Eman daitezke, baina uste dut soberan dagoela atal honek duen lehentasunaren gaineko justifikazioak ematen aritzea.

Hemen ere, udal sailen atalean esan dudanaren antzera, uste dut zerbitzu horiek zuzenean ematen dituzten pertsonekin lan egin behar dela, elebidunak izan daitezen ziurtatzeko lehendabizi eta euskaraz aktiboak izan daitezen bideratzeko bigarrenik. Eta han bezala hemen ere, uste dut lehendabizikoari kontratazioen gaia landuz heldu behar zaiola, eta bigarrenari, berriz, irizpideak emanez eta pedagogia eginez.

Elkarteak antolatzaile diren aisiaren atalari dagokionez, berriz, lanke-ta konplexuagoa izan ohi da. Lehenik eta behin, udalaren beraren eskumenetatik urrutiago egosten delako, eta bigarrenik, gehienetan baliabide gutxiago izan ohi delako.

Edozein kasutan, badira horretarako ere programa eta baliabideak eta udal baten begietatik, berriz, bi jardun-modu aurreikus daitezke: sustapen lana egin eta elkarteak lagunduz bata, eta diru-laguntzak ematerakoan baldintzak jarriz bestea.

### 3. Programa zehatzak antolatzea edo laguntzea.

Aurreko bi ataletan proposatutako gauza gehienak, seguruenik, «eragin» lan-ildoaren barruan sartu beharko genituzke. Hala ere, esan dugu egin, egin izan ditugula (egin beharko ditugula) hainbat programa nerabeei euskarazko aisia hori eskaintzeko.

Zentzu honetan sortu diren programa gehienak (ez haurren adin-multzorako sortu izan direnak adina) euskara bera sustatzea helburu duten erakundeetatik sortu izan dira (udaletako euskara departamentuetatik eta euskara elkarteetatik kasu gehienetan).

Adin-tarte honentzat, nerabeentzat, sortutako programa batzuen berri eman zigun Udaltopen Kultur K2ako Aritza Escandonek «Euskararekiko motibazioan eragin: nerabeentzako kontsumo masiboko egitasmoak» ponentzian.

«Bilbo handian, nerabeek gozamenarekin lotuko dituzten esperientzia positiboak, nerabeak beraiek protagonista, sare-sozialak erabili, beraien erreferente hurbilak gerturatu...» gisako ezaugarriak dituzte *Harrapazan/k* programaren tankerako programek. Gehiago ere badira, noski, baina ponentzia horrek testuinguruan jartzen ditu ahalegin horiek.

### 4. Esparruko agenteak koordinatuta lan egitea.

Lan-ildo hauetan ere esparrua osatzen duten agenteak (udal sailak, ikastetxeak, elkarteak...) modu desberdinetan koordinatu daitezke. Hala ere, ekintza soil eta solteetatik harantzago joan nahi duen planak lan-ildo hau ezinbestean garatu beharra du.

### 3.3. Lagunartea

Hirugarren eragin-esparrua lagunartea izan daiteke. Hirugarrena aipatzeak, ordea, ez du esan nahi hizkuntza-eraginez ere hirugarrena denik.

Esparru informalek gutako bakoitzaren hizkuntza-garapenean (eta ondorioz hizkuntza normalizazioan) duten garrantziaz luze aritu gintezke, baina uste dut Pello Jauregik «Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II)» liburuan (2003, 109.or.) jasotako hausnarketaren zita honek laburbil dezakeela ondoen:

*«Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek, **eskolaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalen batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den.** Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura.»*

Hausnarketa horren haritik parte hartu zuen Pello Jauregi irakasleak «Nola indartu euskararen erabilera familietan» izenburua zuen Udaltopen I. edizioan «Berezko taldeak eta hizkuntza: bihotzaren arrazoiak» izeneko ponentziarekin. Eskuragarri daude interesa duenarentzat bai ponentzia bera eta baita bideoa ere.

Nerabeak aztergai izan dituen Udaltopen II. edizioan, berriz, «Esku hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratuta» ponentzia aurkeztu zuen. Hori ere eskuragarri dago eta bi edizioetan egindako ekarpenarekin bide berriak ireki ditu harreman-sare informal horiek eta batez ere hizkuntza-ohiturak nola funtzionatzen duten eta nola alda daitezkeen sakondu ahal izateko.

Are gehiago, seguruenik nerabeen lagunarteko hizkuntza-ohituretan eragin ahal izateko osatu den programa sendoenetako (eta bakarretako) bat *Kuadrillategi* izena daramana da (ikus Diego Egizabalek idatzitako «Koadrilletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak» 2004). Programa honen jatorriak berak ere, Pello Jauregi beraren doktore tesian du oinarri («Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia» EHU, 1994).

Esparru honetan eragitearen interesa bezain handia da eragiteak berak duen zailtasuna. Are gehiago, seguruenik, administrazio batetik abiatuta.

Edozein kasutan, badira zentzu horretan lanean ari diren elkarteak eta eremu hauetan lan egiteko dituzten egitasmo eta metodologiaren berri eman ziguten, adibidez, *Ttakun* Kultur Elkartekoek Udaltopen. Hasteko eta behin, *Kuadrillategi* programa bera urte askoan gauzatzen ari da Lasarte-Orian, *Ttakun* Kultur Elkartearen eskutik. Horretaz gain, badira hainbat urte programa bera ere Euskal Herri osoan elkarte honek kudeatzen duela.

Egitasmo horretaz gain, ordea, bai lagunarteetan, bai aisiako egitasmoe-tan ere, euskara gehiago erabiltzeko erreminta berriak sortzen dihardu *Ttakun* Kultur Elkarteak. Ezagunena «Hezitzaileek asko egin dezakete» izango da seguruenik. Taldeen dinamizazioa nola egin, erronkak nola kudeatu, lidergo naturalak eta gertuko erreferenteak nola erabili edo adimen emozionala esparru honetara nola ekar daitekeen izan litezke arakatzea berederen merezi duten adibide batzuk.

Jarrai genezake gaiarekin, baina hona arte «udal batetik aritzeko lan eskema bat» izan daitekeena. Askoz zehaztasun eta batez ere garapen sakonagoa izan dezake gaiak, hala ere, uste dut esandakoak egiten lan gehiago eta garrantzitsuagoa dugula, esandakoak hobeto esaten, eta batez ere gehiago esaten aritzea, baino.

#### 4. Informazio gehiago Udaltop II-n

Hasieran aipatu dut zaila dela, ezinezkoa, ondo egin nahi izanez gero, topaketa batzuen berri luze-zabal ematea beste jardunaldi batzuetan. Horregatik, gaiaren inguruan gehiago sakondu nahi duena [www.udaltop.com](http://www.udaltop.com) webera gonbidatu nahi dut. Han irakurri (ponentzien testu osoak daude) eta ikusi (ponentzia guztien bideo osoak daude) ahal izango ditu, hemen aipatu besterik egin ezin izan ditudanak.

Ondoren zerrendatzen ditut «Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruan) nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko» izenburupean egindako Udaltop II-ko ponentziak:

- «Esku hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratuta» Pello Jauregi (HUHEZI).

- «Euskararekiko motibazioan eragin: nerabeentzako kontsumo masiboko egitasmoak» Aritza Escandon (Kultur Ka2a).
- «HEZHIZ: HIZkuntza HEZiketarako dinamizazioak» Jaime Altuna (Urtxintxa).
- «Glisseguna: ipar euskal herriko gazteei zuzendua den surf/skate eguna» Ramuntxo Echeberri eta Estelle Goñi (Seaska).
- «Gizarte-Sareak + Euskara 2.0» Jon Aizpurua (HPS).
- Mahai-ingurua: «Sare sozialak, nerabeak eta euskara» elkarrizketa, Gorka Julio (Elurnet) eta Luistxo Fernandez (CodeSyntax) solasean. Moderatzailea: Gotzon Egia (Gipuzkoako Foru Aldundia).
- «Gazteria eta Euskara zerbitzuen elkarlana nerabeen aisialdian eta hizkuntza ohituretan eragiteko. Bermeoko esperientzia» Maite Alvarez eta Iñaki Lopez (Bermeoko Udala).
- «Nerabe eta gazteen kultur kontsumoa: GAZTEZULOren esperientzia» Alberto Irazu (Gaztezulo).
- «Maitatu euskaraz» Ttakun Kultur Elkartea.
- «Gazteen erabileraren korapiloa begi-bistan» ikerketa Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra).
- Talde-lana: Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruan) nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko?

Ponentziez gain, web-orrian gaiaren inguruko erreferentzia edo dokumentu hauen biltegia ere topa daiteke:

- II. Udaltop Topaketak – Balorazio Balantzea, 2010-05-20.
- Sare sozial birtualak (Txatxilipurdi).
- Sare sozial birtualak: gazte txokoetako hezitzaileentzat gida (Txatxilipurdi).
- Sare sozial birtualak: ludoteketako hezitzaileentzat gida (Txatxilipurdi).



- Llengua i joventut I (1978-1999) (Kataluniako Generalitateko Centre de Documentació de la Secretaria de Política Lingüística).
- Llengua i joventut II (2000-2008) (Kataluniako Generalitateko Centre de Documentació de la Secretaria de Política Lingüística).
- Llengua i joventut. Obres seleccionades i comentades (Kataluniako Generalitateko Centre de Documentació de la Secretaria de Política Lingüística).
- Euskadiko gazteak 2008 (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila)

## 5. Bibliografia

ARRUTI, Iñaki, 1992, I. *Jardunaldiak soziolingüistikaz: «Udaleko hizkuntza planifikazioa prestatzeko metodologi proposamena»*. Bilbao Udala, Kultura eta turismo saila. Bilbo.

EGIZABAL, Diego, 2004, Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak.

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA, 1991, *Escola hiztun bila*. Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA, 1999, *Euskara biziberritzeko plan nagusia*. Gasteiz/Vitoria.

EUSKO JAURLARITZA-NAFARROAKO GOBERNUA, 1995, *Euskararen jarraipena*.

IRAOLA, Joxemari, 1994, *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian*. Lasarte-Oriako Udala. Lasarte-Oria.

JAUREGI, Pello, 1998, *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia*. Euskal Herriko Unibertsitatea. EHU.

———, 2003, *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II)*. Lasarte-Oriako Udala. Lasarte-Oriako Udala.

———, 2009, «Berezko taldeak eta hizkuntza: bihotzaren arrazoiak», [www.udaltop.com](http://www.udaltop.com).

TTAKUN KULTUR ELKARTEA, 2010, «Lasarte-Oriako gazteen komunikazio-trebetasunak garatzen» txosten argitaragabea.

———, 2007, «Hezitzaileek asko egin dezakete. Eskola orduz kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko». Gipuzkoako Foru Aldundia.

UEUKO SOZIOLOGIA SAILA, 1991, *Hizkuntza normalkuntzarako ekinbideak udalerrri-mailan. Planifikaziorako orientabideak*. Bilbo.

ZALBIDE, Mikel, 2009, «Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan», [www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)



# Tolosa: gazteen ahozkoatasunaren laborategi (I)

ZABALA ALBERDI, Josune eta AYERZA MUJICA, Maitane  
Mintzola Fundazioa

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Tolosako udalak euskara eta bere erabileraren gainean egindako gogoetaren ondorio izan da Mintzola Fundazioak 2010ean abiatu berri duen ikerketa egitasmoa.

Mintzola Fundazioaren ipar nagusiak ahozketasunaren ikerketa eta gizarteratzea diren neurrian, lau urteko ikerketa egitasmoa aurkeztu eta lanari ekin dio Tolosako ikastetxe guztietan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteen hizkuntza jarrera zein jokabideak, erabilera maiztasuna eta konpetentziak aztertu, haien gainean esku hartu eta ahozketasuna ikastetxeetan eta gazteen artean lantzeko gako nagusiak bilatzeko.

Gazteek euskaraz eta ahoz gehiago zein egokiago mintzatzeko helburuz eraiki da laborategi dinamiko bihurtu nahi izan dugun ikerketa. Ikerketa-ekintzan oinarritzen da: ikerketa eta jarduna bateratzen ditu, protagonistak gogoetara, hausnarketara eta aldaketak egitera bideratzen ditu. Laborategia Tolosan lekutua bada ere, esperientzia honetako emaitzak eta esperientziak eurak baliagarri izango direla aurreikusten da gisa honetako helburuak dituen beste erakunde, herri edo ikastetxeetan aurrera eramateko.

Izan ere, ikerketa honen harira ateratako emaitzekin lortu nahi da ahozketasuna ikastetxeetan (DBHn) lantzeko praktika onen proposamenak egitea, Tolosan ez ezik, hedapena izan dezan gainerako lurraldeetan ere.

**Hitz-gakoak:** ahozketasuna, gazteak, ikerketa aplikatua, esku hartzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

El proyecto de investigación que ha llevado a cabo la Fundación Mintzola en 2010 ha sido consecuencia de la reflexión que emprendió el ayuntamiento de Tolosa sobre el euskera y su uso.

Siendo los objetivos de Mintzola la investigación y a su vez socialización de la oralidad, ha emprendido un proyecto de cuatro años en todos los centros de enseñanza de Tolosa. Se han analizado la competencia, frecuencia, actitudes y el comportamiento lingüístico de los estudiantes de Enseñanza Secundaria Obligatoria, para de ese modo tratar de averiguar las claves desde donde abordar la oralidad en los centros de enseñanza y entre los jóvenes.

El objetivo de esta investigación es crear un laboratorio dinámico, desde el cual fomentar que los jóvenes hablen euskera más y mejor. Combinamos la investigación y la promoción, intentando que los protagonistas modelen su actitud. Aunque el laboratorio está en Tolosa, los resultados y experiencias de este proyecto nos parecen fácilmente exportables a cualquier ente que tenga objetivos parecidos. Es por ello, que con los resultados de esta investigación se quiere realizar una propuesta para que las escuelas desarrollen prácticas adecuadas en torno a la oralidad.

**Palabras clave:** oralidad, jóvenes, investigación aplicada, intervención, Enseñanza Secundaria Obligatoria.

Le projet de recherche mené par la Fondation Mintzola en 2010 a été le résultat de la réflexion menée par la mairie de Tolosa sur la langue basque et son usage.

Les objectifs de Mintzola étant la recherche et la socialisation de l'oralité, la Fondation a lancé un projet de quatre ans dans tous les établissements scolaires de Tolosa. Ont été analysés la compétence, la fréquence, les attitudes et le comportement linguistique des étudiants de l'Enseignement Secondaire Obligatoire, pour essayer ainsi de trouver les clés permettant d'aborder le sujet de l'oralité dans les établissements scolaires et parmi les jeunes.

L'objectif de cette recherche est de créer un laboratoire dynamique qui incitera les jeunes à parler le basque plus et mieux. Nous associons ainsi la recherche et la promotion pour essayer de faire en sorte que les protagonistes changent leur comportement. Bien que le laboratoire se trouve à Tolosa, il nous semble que les résultats et les expériences sont facilement exportables à tout organisme qui aurait des objectifs semblables. C'est pourquoi, grâce aux résultats de ces recherches, nous souhaitons élaborer une proposition pour que les écoles développent des pratiques adaptées dans le domaine de l'oralité.

**Mots-clés :** oralité, jeunes, recherche appliquée, intervention, Enseignement Secondaire Obligatoire.

The latest research project recently launched by the Mintzola Foundation in 2010 was the consequence of a reflection made on Basque and its use by Tolosa town council.

As the main aims of the Mintzola Foundation are research into orality and the publicising of it, it has presented a four-year research project and started working in all the schools in Tolosa. It sets out to study the language attitudes and behaviour, frequency of use and competences of young people in Statutory Secondary Education, in order to intervene in them and seek the main keys for working on orality in schools and among young people.

The research which we wanted to turn into a dynamic laboratory has been set up with the aim of encouraging young people to speak more Basque and more appropriately in Basque. It is based on action research: it brings together research and activity, it encourages the players to reflect and make changes. Even though the laboratory is located in Tolosa, the results of this experience and the experiences themselves are expected to be useful for other organisations, towns or schools having similar aims, so that they can implement them.

In fact, with the results emerging in the wake of this research, the aim is to make proposals on the best practices for working on orality in schools (in Statutory Secondary Education) not only in Tolosa, but also so that these practices can be applied to other areas as well.

**Keywords:** orality, young people, applied research, intervention, Statutory Secondary Education.

## 0. Sarrera

Tolosa ahozketasunaren lantegi bihurtzeko egitasmoa da ondorengo lefroetan aurkezten dena. Euskaraz eta ahoz gehiago zein egokiago mintzatzeko helburuz eraikia. Egitasmo pilotua da gazteengan euskararekiko jokabideak, erabilera maiztasuna eta kalitatea hobetzea helburu duena. Ikerketa-ekintzan oinarritzen den proposamen berritzailea. Ikerketa eta jarduna bateratzen ditu, protagonistak gogoetara, hausnarketara eta aldaketak egitera bideratzen ditu. Labur esanik, euskararen ahozketasunaren laborategi dinamiko bat eraikitzeko bideratu den lanaren aurkezpena da honakoa.

Laborategia Tolosan lekutua izan bada ere, esperientzia honetako emaitzak eta esperientziak eurak baliagarri izango direla aurreikusten da gisa honetako helburuak dituen beste erakunde, herri edo ikastetxeetan aurrera eramateko.

Ikerketa-ekintza metodologia erabiliz Tolosako gazteen ahozko erabilera, jokabideak eta konpetentziak zein diren ikertuko da, eremu horietan gazteekin esku hartuko dugu tailerrak edo eskolak emanez, une oro ebaluatuko dira jarduera guztiak eta urteroko emaitzak baliatuko dira hurrengo urteetan hobekuntza proposamenak egin eta jarduerak berreraikitzeko.

Proposamen osoa aurrera eraman dezagun lau urtetako laborategia osatzea aurreikusten da (2010etik 2014ra artekoa). Tolosako gazteek, ikastetxeek, Jarraipen Batzordeko kideek eta Mintzola Fundazioak osatuko dute lan taldea.

### 0.1. Zergatik eta zertarako Tolosa?

Proiektu pilotu honek Tolosa du habia, Tolosako udalaren arduratik eraldatu baita laborategia eraikitzeko lehen ahalegina. Izan ere, Tolosako udalaren euskara teknikaria Mintzola Fundazioarekin jarri zen harremanetan herri mailan antzeman zituzten beharren berri eman eta ahozketasunaren gainean zuten ardura adierazteko. Herriko euskararen gainean zuten kezkarri (euskararen erabilera maiztasuna zein kalitatea beherantz doaz azken urteotan) irtenbidea bilatu nahian Mintzolari proposamen bat idazteko eska-

tu zitzaion, eta Mintzola Fundazioak erantzun egin zion Tolosako eskakizunari esparru honek bere ikerketa barrutiarekin bat egiten baitzuen.

Alde horretatik, Tolosak eskaini diezagukeen errealitate anitzak aztertzea erabaki zuen Mintzolak errealitate askotarikoak eskaintzen baititu Tolosak euskarari eta ahozketasunari dagokionean.

Herri honetan, hiru ikastetxe dira: *Laskorain*, *Orixe* eta *Hirukide*. Ikastetxe hauen errealitatea ezberdina da euskararen erabilerari dagokionez eta aniztasun hori esanguratsua izan daiteke gure ikerketarentzat. Tolosako udalak eskainitako erabilera datuak behatu besterik ez dago ikastetxe bakoitzak bere errealitate propioa duela jabetzeko.

### 1. taula. Ikastetxeetako erabilera maiztasuna

Ikastetxea	Erabilera orokorra	Ikasmailaren araberako erabilera	Eskolaz kanpoko jardueretan
a	%65,66	DBH %58,08 Batxilergoan %74,70	%56,99
b	%98,82	DBH %97,66 Batxilergoan %96,80	%95,28
c	%39,56	DBH %31,09 Batxilergoan eta Lanbide Heziketan %63,07	%39,56

Taulan ikus daitekeen moduan Tolosa herriak eskaintzen digun errealitate aniztasuna oso aberatsa da proiektu pilotu baten habia izateko, izan ere, proiektu honek beste herrientzako ere lagungarri izan nahi duen heinean ezinbestekoa da errealitate anitza eskainiko digun herria hautatzea.

### 1. Ahozko laborategiaren oinarria

Azken hamarkadan arrakasta bizia hartzen ari den ikerketa-ekintzaren (J. Elliott, 1993) metodologian oinarritzen den laborategia eraikitzea da



egitasmo honen oinarri nagusia. Hautatutako metodologiaren abantailarik handiena da landutako edozein egoera etengabe izaten dela ikertu edo aztertua, eta bertatik ateratako datuek laguntzen dutela ondorengo lanketak birmoldatu eta hobetzen. Ikerketa-ekintzan praktika ardaztat hartzen da. Prozesua praktikatik abiatzen da eta praktika hausnarketa eta teoria berria eraikitzeko tresna gisa hartzen da. Irakasleekin lan egiteko bidea da, irakasleen gain lan egiteko modua baino areago. Tolosan gauzatzen ari garen laborategiak, beraz, bi helduleku nagusi ditu: bata ikerketa eta bestea ekintza.

Zer lortzea nahi dugu horrela? Ahozko lanketaren gainean ditugun aurrezagutzak lagun, erantzun zientifikoak eskuratzea ahozko generoen ikaskuntza-irakaskuntzaren eta euskarazko ahozko generoak erabiltzeko jokabide eta erabileren gainean.

Hamabi urtetik hamaseira bitarteko gazteen hizkuntza jokabide eta ahozko konpetentziak aztertu, hobetu eta sustatu nahi dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleekin dihardugu lanean. Izan ere, ikasle hauek une preziatuan daude euren hizkuntza jarrera eta erabilera erabakitzeko. Garai inguru horretan hasten dira gazteak lagun artean ibiltzen, euren arteko hizkuntza zein izango den erabakitzen... Urteak joan ahala, gainera, kognitiboki erraz edo zailagoak diren lanketak egin behar izaten dira ahoz: jendaurrean azalpenak eman, iritziak eman edo argudiatu, kontatu... Garai aberatsa deritzogu, beraz, gisa horretako beharrei erantzungo dien esku-hartzea proposatzeko, kontuan harturik bertan egingo diren hainbat eta hainbat lanketa lagungarri (edo transferigarri) izango direla gainerako hizkuntzetan ere.

Lan hau guztia aurrera eramateko Tolosako ikastetxeak, Jarraipen Bartzordeko adituen ekarpenak eta Mintzola Fundazioaren landa-lana bateratzen dira. Lau urtetako egitasmoa izango da non urtez urte emaitzak baloratu eta esku-hartzea birmoldatuko den. Azken urterako, hala, ahozketasuna landu eta sustatzeko diseinu oso bat izango dugu eskuartean beste edozein eremutan hedatua izan daitekeena.

## 2. Ikerketaren helburuak

Hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntzaren errealitatean, hiru esparruren arteko elkarrekintzari ematen zaio garrantzia *Hiruki Didaktikoa* kontzeptuari erreparatuta (Chevallard, 1985): irakaslea, ikaslea eta irakas/ikas-gai den objektua –ahozko euskara, gure kasuan–. Hiru esparru hauen gainean egin da hainbat ikerketa, jaso dugu hainbat ezagutza batez ere ikasleari zein irakas/ikas-gai den objektuari begira. Gure laborategian, urrats bat gehiago eman nahi dugu aurrera, eta oinarri bikoitza ezarri diogu: bata da ikasle gazteen jokabide eta konpetentzietan erreparatzea eta haiek eraldatzea euskarazko ahozko hizkuntzaren erabilera eta konpetentzien onuran; bestea berriz, irakaskuntza metodologiaren gaineko gogoeta zein praktikak bideratu eta ontzeko ahalegina egitea. Helburu bikoitz hau honako bi ideiatan laburtzen dugu:

1. Ikastetxeetako gazteen jokabide eta konpetentziak zein diren aztertu eta lantzea.
2. Ahozko euskara irakasteko praktika onak zein diren identifikatzea.

Hein berean, honako hiru helmugetara begira jarrita gaude ikerketan abiatu garen unetik beretik:

- Ahozko hizkuntzaren ikaskuntza/irakaskuntza prozesuan eragiten duten aldagaiak zein diren ezagutu nahi dugu: DBHko gazteen jokabideak, konpetentziak, irakaste metodologia eta tresnak...
- Errealitate soziolinguistikoko anitzen eragina zein eta zenbaterainokoa den jakin nahi dugu ahozko hizkuntzaren ikas/irakastearen gainean.
- Euskaraz/ahoz komunikatzeko zenbait trebetasun eskura ditzaten nahi dugu testuinguru formal eta informaletan.

Horretarako guztirako, praktikaren gaineko gogoeta bideratu eta berriz ere praktikara itzultzea zilegi zaigu; halaber, onartzea hasieran jarritako helburuak aldagarri izango direla ikerketa urratsak eman ahala. Dena dela, ikerketaren abiapuntuan gaudelarik, honela zehaztu ditugu helburu nagusien jarraibideak.

## 2.1. Helburu zehatzak

### 2.1.1. *Ikasleen jokabide eta kompetentziak*

#### Ahozko komunikazioaren gainean duten jokabidea aztertu eta positibitzea

- Nor da, gure ustez, komunikatzaile ona? Zer lortzen du gugan erakargarria?
- Zein sentipen ditugu ahoz jendaurrean jartzean?
- Zein hizkuntzatan komunikatzen gara ondoen? Zergatik?
- Ahoz komunikatzen garenean, zertan gozatzen dugu eta zer da jasangaitz? Zein dira egoera horiek?

#### Euskarazko ahozko generoez jabetzea

- Zein dira euskarazko ahozko generoak?
- Zein garrantzia dute euskaraz ahozko generoek? Erabiltzen ote ditugu? Nork erabiltzen ditu? Nola eta noiz?
- Zertan ezberdintzen dira euskarazko ahozko eta idatzizko generoak?
- Nola eta zertarako baliatzen ditugu ahozko generoak komunikazioan?

#### Euskaraz ahozko komunikazioan trebatzea, aintzat hartuz gainerako hizkuntzetan baliagarri izango diren kompetentziak eskuratuko direla (hizkuntza transferentziak)

- Testuinguruaren garrantzia komunikazioan.
- Ahozketasuna testuinguruaren arabera: jarduera formalak eta informalak.
- Ahozketasunean trebatzeko tresnak. Testu motak eta estrategiak ahozkoan.
- Ahozko praktika ezberdinak testuinguru askotarikoetan.

#### Euskaraz ahozko erabilera ugartzea eta kalitatez hobetzea

- Euskararen erabilerearen gaineko gogoetak eta praktikak.
- Zenbat hitz egiten dugu eta noiz, norekin, nola?
- Zertarako landu ahozketasuna?
- Zertan hobe genezake gure erabilera maiztasuna?
- Zertarako hobetu gure ahozko komunikazioa? Eta nola egiten da hori?

### 2.1.2. Ikaskuntza/irakaskuntza metodologiak

#### **Ikerketa-ekintza metodologia landu eta garatzea**

- Metodologiaren ekarpenak baliatzea aintzat hartuz unean uneko prozedurak eta errealitatea zein diren.
- Irtendako gogoeten emaitzak une bakoitzeko azaleratzea.
- Proposamen berriak berreraikitzea.
- Irtenbide eta ondorio berriak gogoeta eta bere ondorengo praktika bihurtzea.

#### **Irakaslearen rola garrantzia aztertu eta esku hartzearen gaineko gogoeta piztea**

- Irakasle/behatzailearen praktikak aztertu eta izendatzea.
- Tresna eraginkorrak eraikitzea praktikaren gaineko gogoeta pizteko.
- Esku hartze mota ezberdinak praktikan jarri eta ebaluatzea: bakoitza bere bidetik eta konparazio sistemaren bitartez.

#### **Ahozkoaren didaktikan, metodologia garatzea eta bere kontzientzia hartzea**

- Hasierako diagnosiaren araberako esku-hartze proposamenak.
- Esku hartzeen gauzatzea: behaketa, analisia eta ondorioak.
- Urtez urteko ebaluazioa eta hobekuntza proposamenak.
- Metodologiaren analisia, ebaluazioa eta ondorioak.
- Esku hartze eta metodologiaren azken diseinua.

#### **Ahozko hizkuntza ikastetxeetan lantzeko materiala sortzea: jokabideak eta kompetentziak**

- Prozesu osoan zehar materiala sortu, ebaluatu eta berregin.
- Prozesuaren amaierarako, helburu zein edukien proposamen osoa eta material osatu bat erdietsi DBHn lantzeko (edo hezkuntza ez arautuan) baliagarria izango dena.
- Esku hartze eta metodologiaren azken diseinua.

Esanak esan, izaera eta erantzun bikoitzeko ikerketa da Tolosako laborategian landu nahi dena: ikasleei eta irakasleei begirakoa. Gazteen jokabide eta kompetentziak zein diren aztertu eta euskararen erabilera egokia sustatzeko baliabideak bilatzeko eraikia. Irakaslearen rola aztertu eta haren esku

hartzeaz gogoeta egiten duena, bidean aurkitzen diren praktika onak jaso eta modu ordenatuan aurkeztu nahi dituen.

Helburu zehatzetan bakundu dira abiapuntuan jarritako xedeak. Une honetan, galdera edo hipotesi zantzuz ezarriak dira horietatik ekingo baitiegu tailer eta esku hartzeei. Egitasmoa sakonduz doan heinean, galdera hauek guztiak xehatzea da beharrik garrantzitsuena, eta ziur asko, lanerako tresnarik interesgarri eta emankorra.

### 3. Laborategiaren diseinua

Tolosa laborategi bihurtuz, ahozketasuna gazteengan bultzatu eta erabilera konpetentziak aberastea da egitasmo honen desio handiena, eta honelaxe irudikatzen ditugu Tolosako egitasmoan gauzatzen ari garen gai aipagarriak:

1. Tolosako ikastetxeak ahozkoaren lantegi edo laborategi bihurtzea: Tolosako ikastetxe guztiak bihurtu dira laborategi; errealitate ezberdin guztiak ditugu behagai.
2. DBHko gazteei zuzenduriko ikerketa da: 12-16 urte bitarteko gazteekin bideratzen ari garena.
3. Lau urteko jarduna gauzatzea espero da, honela esku hartuta:

#### 2. taula. Esku hartzea urtez urte

	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4
2010-2011	X		X	
2011-2012	X	X	X	X
2012-2013	X	X	X	X
2013-2014	X	X	X	X

2010/2011 ikasturtean, DBH 1 eta DBH 3ko ikasleak, orotara, 22 gela.  
2011tik aurrera, DBH 1, DBH 2, DBH 3 eta DBH 4ko ikasleak, orotara, 44 gela.

2010/2011 ikasturtean ikasgela bakoitzeko 21 ordu egin dira landa lanean:

- Hasierako diagnostikoa: 3 ordu gelako.
  - Esku hartzea: 15 ordu gelako.
  - Ebaluazioa: 3 ordu gelako.
4. Ikerketa-prozesuan gai hauek guztiak lantzeko material didaktikoa eraiki dute ikertzaileek.
  5. Mintzola Fundazioak ikastetxeko arduradunekin harremanetan lan egiten du. Mintzola Fundazioaren ikertzaileek ikasleen eta proiektuaren arteko zubi-lana egiten dute: ikerketa bera gauzatu, emaitzak azalatu, ikastetxeko arduradun eta ikasleekin harremana bultzatu, ideia eta proposamen berriak aurrera eraman, unibertsitateko adituen proposamenak garatu, etab.
  6. Ikastetxe bakoitzarekin harremanetan zehazten da ikerketa lanaren egutegia.
  7. Lau urteko jardunari esker ikusi ahal izango da lehen urteko diagnostikotik azkenera bitartean zein hobekuntza eta aurrerapen egin diren gazteen jokabideetan, erabilera maiztasunean eta konpetentzietan. Horrez gain, ondorioztatu ahal izango dira ikerketaren baliagarritasuna eta alderdi metodologikoan izan diren aurrerapausoak.

Tolosako laborategian aztertu eta landuak lagun, etorkizuneko esku hartze edo behar ezberdinen eredu izango dira hainbat emaitza. Bertatik ateratako ondorioetatik euskararen ahozketasuna sustatzeko praktika-onen diseinua eraikitzeko aukera izango da, baliagarri izango dena beste eremu eta beharrei erantzuteko.

Lan honen bitartez jasotako emaitzak maila diakronikoan eta sinkronikoan aztertuko dira. Izan ere, 2010ean 12-13 urte izango dituen gazteak 16-17 urte artean zertan garatu duen ikusi ahal izango dugu ardatz diakronikoari dagozkion datuak aztertuz (2010/11tik 2013/14ra egindako aurrerapausoen analisia eginez). Urte bakoitzean egingo den lanari esker, berriz, dimentsio sinkronikoan ateratako emaitzak ere lortuko dira, testuinguru ezberdin bakoitzean gertatzen dena deskribatzeko gai izango gara.

Horrez gain, 2011/12 ikasturtetik aurrera 12-13 urtetatik 16/17 urtera arteko gazte guztien datuak izango ditugu, eta urtez urte, adinez adin egingdako esku hartzeen emaitzak ere bai. Bigarren urtetik aurrera, beraz, gure ikuspegia zabalduz eta metodologiaren gaineko gogoetak aberastuz joango dira. Azken batean, ikerketan parte hartuko duten ikasgela eta gazteen datu guztiak izango baititugu.

### 3.1. Ekarp osagarriak

Nahiera horrekin batera, badira zilegi eta interesgarri diren beste lanketa batzuk ere. Arestian aipatu dugun oinarrizko lanaren osagarri dira ondorengo lerroetan zerrendatu ditugunak, Tolosako laborategian bezala, gisa honetako helburuak bideratzeko proposatzen ditugunak:

#### a. Material didaktikoa sortu

12-17 urte bitarteko gazteentzat euskarazko ahozko generoak lan daitezzen. Tolosako egitasmoari begira egingo den lana baliagarri izan daiteke bestelako herri edo ikastetxeetan ere erabiltzeko. Bide bat urra liteke haren ekoizpen eta zabalkundeari begira, non eta oinarri hartuko den Tolosako proiektu pilotua.

#### b. Esku-hartze eta trebakuntza (motibazio) ikastaroak hezkuntza araututik kanpoko guneetan

Tolosan bertan edo herritik kanpo, helburu berdindun ikastaroak eskain litezke ikerketa-ekintza unean jasoko diren emaitzak aintzat hartuz. Egokia izan daiteke, adibidez, gazte-gunetan gai honi lotutako tailer edo lehiaketa erakargarriak proposatzea.

#### c. Herrian bertan euskarazko tradiziozko generoen eskaintza zabaltea

Aisialdiko unetarako (ipuin kontaketak, antzerkiak, bertso-saioak...), eta partaidetza sustatzea herriko euskara elkarteetatik, ikastetxeetatik, tailerretan gauzatuko diren jardueretatik...

**d. Ikastetxeko irakasleentzako prestakuntza eta proposamenak**

Ikastetxean interesgarri ikusiko balitz, ikastaro ezberdinak eskain litezke irakasleen formazioa aberasteko: ahozko generoen ikaskuntza/ irakaskuntzaz, material didaktikoa erabiltzeko bideez, ikus-entzunezko baliabideen garrantziaz, hizkuntza jarreraren lanketaz, Tolosako ikerketaren norabide eta emaitzez...

**e. Ahozketasuna bultzatzeko proposamenak**

Eskolan bertako eta eskolaz kanpoko jarduerak proposa litezke ikastetxean gazteen ahozko jarduna bultzatzeko. Horretarako, beharrezko izango litzateke teknikariaren eta irakasleen artean lankidetzatza bideratzea.

**f. Diagnostikoaren emaitzak eta ondorioak**

Herrian bertan eta urtero ikasturtean zehar egindako ikerketaren emaitzak aurkeztea garrantzitsua litzateke egitasmoarekiko interesa pizteko eta inplikazioa sustatzeko. Emaitza horietatik aterako dira hurrengo ikasturtean landu eta hobetu beharreko jarduerak eta helburuak.

**4. Ikerketa metodologia**

Jakina den bezala, ikerketa-ekintzan oinarritzen da gure laborategia, beraz, ikertu ahala garatuko da ekoizpena ere. Metodologia hau zertan den argiaraziko digu egitasmoaren faseak aurkezteak, baina horren aurretik hainbat argibide zerrendatuko ditugu:

**– Urte guztietan gauzatuko dira 3 jarduerak erabakigarri:**

1. Abiapuntuko egoeraren berri emango digun informazio bilketa galde-tegiekin eta ikasleekin lantzeko sortu diren tailerren bitartez. Hasierako lanaren helburu nagusia da ikerketa-gai izango diren alor nagusi hauek aztertu eta datu kuantitatibo zein kualitatiboak eskuratzea honako aldagaiei dagokienean:

– Irakasleen hizkuntza jokabideak eta ohiturak (euskaraz eta ahoz komunikatzearen gainean, batik bat).




- Ahozko generoen gainean duten jakintza (ikasleek ahozketasunaz dituzten aurrezagutzak zein diren jakin nahi dugu).
  - Ahozko komunikazioaren konpetentziak (ikasleen konpetentzia maila).
2. Bigarren lana da lehenengo lanetik ateratako ondorioetatik esku hartzea gauzatzea, hau da, jasotako informazioarekin ahozko jarduerak gauzatzea. Jarduera horietan lantzen dira aurrez jasotako informazioari zuzenean lotutako edukiak: hizkuntzaren jokabide eta erabilerari lotuak; ahozko konpetentziari lotuak, komunikazioari lotuak...
  3. Hirugarrena (eta ikasturte bakoitzean egingo den azken lana). Aurreko fasetan egindako lanaren ebaluazioa egiten da. Hasieran jasotako datuak berriz berreskuratu eta ikasturtearen amaierako emaitzekin alderatzen da. Informazio hau lagungarri izango zaigu hurrengo urterako datuak berreraiki eta materiala sortzeko garaian.

Lehen urtea ikerketaren abiapuntua denez, DBHko ziklo bakoitzaren lehen mailekin hasi gara esku hartzen, eta bertatik ateratako datuak lagungarri izango zaizkigu datozen urteetan mailaz maila esku hartzea eta material didaktikoa eraginkorragoak izan daitezen.

- Ikerketa gauzatu ahala, ahozko generoak lantzeko sekuentzia didaktikoak edo material didaktikoak sortuko dira. Zuzenean esku hartzea jasotzen ari diren ikasleentzat prestatuak, eta aurrerako urteei begira baliagarri eta osagarri izango diren sekuentziak eraikiko dira.
- 4 urtetako ikerketa garatuko bada ere, urtez urte jasoko dira jardunean ateratako emaitza eta proposamen berriak.

Oraintxe azaldukoak ondorengo taularen bitartez jarri dira laburbilduta:

### 1. grafikoa. Ikerketa proiektuaren urratsak urtero



### 5. Esku hartzerako proposamena

Jakin badakigu curriculum diseinuan ahozko generoen lanketari garrantzia handia ematen zaiola. Ahozketasunak leku nabarmena du hezkuntza curriculumean. Dena dela, gaur egun oraindik zailtasunak ditugu hura irakasteko. Ez digute horretan irakatsi eta deseroso sentitzen gara, esku hutsik askotan. Oso urria da ahozketasuna jorratzeko material didaktikoa. Teknologia berriak erabiltzea eskatzen digu ahozketasunak (bideo kamerak, ordenagailuak, entzungaiak...), eta ez gaude horretara ohituta. Ahozko generoak ikasgelan lantzeko tresnak eta erosotasuna falta ditugu hezkuntzan.

Egitasmo honetan, hain zuzen, ezintasun horiek gainditzea ere nahiko litzateke.

Oso gerturik izanik ahozko komunikazioaren gaineko teoria berri eta berri-tzaileak, eskuartean izanik ahozko generoak lantzeko proposatzen zaizkigun metodologiak (Suitzako eskola) eta hurbil izanik unibertsitatearen jakintza teoriko zein praktikoa, interakzionismo sozio-diskurtsiboan (Bronckart 1985, 1996) oinarritzen den hizkuntza eta didaktika ikuspegia landuko da proiektu honetan. Hain zuzen, hezkuntza curriculumak eta ikastolek bultzatzen dutena.

Helduleku horietatik abiatuta eraikitzen da, beraz, ahozketasunaren egitasmoa. Prestatuko diren jardueretan helburu komunikatiboak ezartzen dira, eta horiek izango dira, hain zuzen, gure norantza zedarrituko dutenak. Helburu komunikatiboak ezarri eta gauzatuz ahozko hizkuntzaren gaitasunak landuko dira batez ere.


Izan ere, euskara ikasi bai, baina bere erabilera maiztasuna ez dator bat ezagutza mailarekin. Eraitza soziolinguistikoek argi utzi digute hizkuntza ezagutzeak ez duela erabilera bermatzen. Erabiltze gune eta uneak eraikitzea izango da, beraz, gure egitekoa. Eta bidenabar, erabilera ziurtatuko duten helburu komunikatiboak jartzea. Testuinguru ezberdinetan ahozko hizkuntza erabiltzeko aukerak eraikitzea dagokigu.

Konpetentziei erreparatuko badiegu, ahoz komunikatzeko dugun beharra ikaragarri da handia edozein esparrutan: lanean, ikastetxean, lagun artean... Testuinguru formal eta informaletan euskaraz eta ahoz komunikatzeko hainbat tresnaren beharrean gara herritar ugari, eta horrixe erantzun nahiko lioke proiektu honek ere. Ahoz gustura eta ederki komunikatzeko trebetasunak garatzeko tresnak eman nahi dizkiogu Tolosako ikasle gazteari, eta ahozko genero ezberdinak landuz, euskaraz ahoz jarduteko jokabide eta maiztasuna hobetu zein ugaritzea izango litzateke eraitza nagusietako bat.

Horrek zer eskatzen du? Testuinguru askotarikoetako jarduerak aurrera eramatea, hau da, ahozko testu formal eta informalak lantzea (adibidez, lagun arteko elkarriketa eta irratiko elkarriketa). Eta jarduerak gauzatzen ditugun une berean hizkuntzaren erabilerarekiko gogoeta piztea, erabilera bultzatzea eta konpetentzia askotarikoak erabiltzen ikastea: erabiltzea.

Ondorengo taulan zehazten denez, honelaxe banatzen dugu ikasturteko esku hartzea:

3. taula. Urte bakoitzeko eta gela bakoitzeko lan-diseinua



6. Ebaluazioa eta ondorioak

Urtean zehar eginiko lana ebaluatu eta ondorioak aterako dira ebaluazioaren fasean. Urteroko datuak balagarriak izango dira unean bertan gauzatzen ari garen ikerketaren noranzkoa aztertzeko. Ikerketa aurrera joan ahala, berriz, gai izango gara aurrerabideak diakronian aztertu eta ondorioak ateratzeko.

Ebaluazio honetan honako edukiei emango zaie garrantzia gehien:

– **Ikastetxearen errealitateak baldintzatzen du? Zertan?**

Ikastetxeetako egoera soziolinguistikoen arabera ezberdintasunik ba ote dagoen eta zein den bere eragina.

– **Hizkuntzaren estatusak baldintzatzen du? Zertan?**

Hizkuntzaren gaineko aurreiritziak zertan diren eta horiek zertan eragiten duten.

– **Ikasleen adinak baldintzatzen du? Zertan?**

Adinak gai honetan eraginik ote duen: 12 urtetik 17ra arteko tartean zein errealitate ditugun.

– **Esku hartze motek baldintzatzen dute? Zertan?**

Ikasgeletan egingo diren esku hartzeen eragin maila zenbaterainokoa den jakitea da helburuetako bat.

– **Zein dira ahozketasuna sustatzeko praktika onak errealitate soziolinguistiko bakoitzean?**

Ahozketasuna landu eta bere erabilera sustatzeko praktika onen gakoak.

### 6.1. Ikerketaren lehen emaitzak

Aurre-diagnostikoan aurrez jarritako hainbat galderari erantzuteko parada izan dugu 2010/2011 ikasturtean, eta datu kuantitatiboek dagokienez, honelaxe laburtu dira emaitza aipagarrienak:

a) **Ikasleen adinak baldintzatzen du ikasleen hizkuntza jarrera zein erabileran?**

Aztertutako aldagaiak kontuan hartuta ikusi dugu erlazioa dagoela ikasleen adinaren eta hizkuntza jarreraren artean: bien arteko korrelazioa positiboa da. Gainera, esan daiteke adina gora joan ahala hizkuntzaren inguruko jarrera aldatzen joan dela.

Erabilerari dagokionez, berriz, ikasleen adina eta lagunarteko hizkuntza izan dira aldagaiak. Bi aldagai hauen korrelazioa ikusirik hipotesia baieztatuta gelditu da: adinak hizkuntza erabileran baldintza dezake. Estatistikoki erlazioa ahula bada ere, frekuentzietan ikusi dugu DBH 3. mailan hizkuntza ohitura aldatu egiten dela.

### b) **Ikastetxearen errealitateak baldintzatzen du?**

Hasieran aipatu dugun moduan, Tolosa herriak ikerketarako marko anitza eskaintzen digu hiru ikastetxeen errealitate soziolinguistikoa ezberdina baita. Ikastetxea bera eta identitatearekin lotzen den baieztapena hartu ditugu kontuan datuak jasotzeko garaian. Bi aldagaien artean ikusi da erlazioa dagoela eta norabide berean dabiltzala, hau da, ikastetxearen arabera ikasleen jarrera ezberdina dela.

Ikastetxea eta hizkuntz erabilera uztartu direnean ere bi aldagaien arteko erlazioa baieztatu da, hots, ikastetxeetan hizkuntza erabilera ohitura ezberdinak antzeman daitezke.

Beraz, emaitza kuantitatiboen inguruan honakoa azpimarratu daiteke:

- Ikasleen hizkuntzarekiko jarrera adinarekin aldatu egiten da eta zehazki, DBH 1en agertzen den jarrera positiboa lausotu egiten da adina gora doan heinean.
- Hizkuntz erabilera maiztasun handiagoa dago DBH 1en eta DBH 3n, berriz, gaztelaniarako joera nagusitzen da. Beraz, ikasleen adinak baldintzatzen du erabilera.
- Ikastetxeen errealitate soziolinguistikoak hizkuntzarekiko jarreraren zein erabileran eragina duela baieztatu da diagnostikoan.

Aurre-diagnostikoan ezarritako hipotesi denak bete dira maila kuantitatiboan, eta bide berean jarraitu dute maila kualitatiboan ateratako emaitzek. Ondorengo zerrendan agertzen dira ideia garrantzitsuenak:

- Gazteek hizkuntzaz hitz egiten dutenean hizkuntza mintzatuaz dihardute oro har. (Ez dute hizkuntza idatziaz hitz egiten, alegia. Horrek dirudi gaur egungo eskolako jarduera nagusiarekin kontraesanean dagoela; edo euskara bera hizkuntza erabilerarekin lotzen dutela).
- Hizkuntzaren edo euskararen garrantzia oso lotuta dago lurraldetasunarekin eta identitatearekin. Argudiorik garrantzitsuenak horiek dira. Hizkuntza ez da lotu jolasarekin, transmisioarekin, harremanekin...
- Hein berean, hizkuntza galeraren aurrean «salbatzaile» rola hartzen dute ikasle askok eta askok. Eta erabilerarekin lotzen dute.

- Hizkuntzaren jabekuntzarekin edo ikaskuntzarekin ere lotu izan da euskara: ama hizkuntza dutenek aipatu egiten dute, esplizitatu eta horrek eragin egiten die ondorengo baloraziotan.
- Beste batzuentzat asignatura bat da edo etxeko, eskolako edo kaleko hizkuntza bat. Espazio jakin batzuekin identifikatzen dute azken hauek euskara.
- Balorazioetan askotan ageri da «beharra» modalizatzailea: *salbatu beharrekoa; hitz egin beharrekoa; ikasi beharrekoa...* «-tzen duguna» eta gisakoak erabili ordez.

## 6.2. Erronka berriak

Ikerketaren lehen emaitzak jaso eta ikasturtea amaitzear dugun honetan, erronka berriak ezarrita ditugu 2011/2012 ikasturterako.

Ikerketaren ibilbidean bidelagun dugun Jarraipen Batzordean adostu da gazteen ahozko kompetentziak zertan diren eta nola hobetu daitezkeen ikeretzeak eta esperientzia ezberdinen praktikak bideratzeak hartu beharko lukeela indarra. Pisu handiena gazteen hizkuntza kompetentzien eremuak hartzea nahi izan da, eta horixe da hain zuzen, hurrengo ikasturterako ezarrita dugun eginkizun nagusia.

### **Ikastetxeetako materialaren osagarritasuna**

Datorren ikasturterako lana aurreratuz goazen honetan, ikastetxeetako curriculumak, maila bakoitzeko helburuak eta irakasleek darabiltzaten material didaktikoak aztertuta ditugu dagoeneko. Mintzola Fundazioaren ikerketa helburuekiko osagarritasuna bilatzen aritu gara eta sortuko den material didaktikoaren gainean erabakiak hartu dira: zein testu genero landuko den maila bakoitzean, zein testu mota, nolako erregistro mailak lantzea komeni den eta zein elkarrekintza motatan esku hartu nahi dugun.

Orotara, zortzi sekuentzia didaktiko sortuko dira; maila bakoitzerako bi. Eta aurrez hartutako erabakiaren arabera honakoak landuko dira maila bakoitzean:

**4. taula.** Ahozko konpetentzien lanketa esku hartzea

Maila	1. sekuentzia	2. sekuentzia
DBH 1	Testu generoa: kontaketa Testu mota: ipuina Ahozko jardun transakzionala eta formala	Testu generoa: elkarrizketa Testu mota: elkarrizketa Ahozko jardun interakzionala eta informala
DBH 2	Testu generoa: argumentazioa Testu mota: iritzi trukea Ahozko jardun interakzionala eta formala	Testu generoa: kontaketa Testu mota: anekdota umoretsuak Ahozko jardun transakzionala eta informala
DBH 3	Testu generoa: literatur generoa Testu mota: poesia errezitaldia Ahozko jardun transakzionala eta formala	Testu generoa: azalpena Testu mota: azalpen zientifikoa Ahozko jardun transakzionala eta formala
DBH 4	Testu generoa: argumentazioa Testu mota: debatea Ahozko jardun interakzionala eta formala	Testu generoa: azalpena Testu mota: aitorpenak Ahozko jardun interakzionala eta informala

Ikastetxe bakoitzeko euskara mintegiko irakasle taldea eta Mintzolako teknikariak izango dira esku hartzea aurrera eramango dutenak. Mintzolako teknikarien gelak kontrol gelatzat hartuko ditugu (jarraipen xeheagoa egingo diegu), eta esku-hartze honetatik ondorengo informazioa jasotzea espero da:

- Irakasleon eta teknikarion erregistroa.
- Mintzolako ebaluazio txantiloia.
- Aurre-testuak eta ondo-testuak.
- Irakasleekin egingo ditugun bileretatik eskuratutako informazioa.

Esku hartzearen aurretik ikerketan parte hartuko duten irakasleei formazioa emango zaie non batez ere sekuentzia didaktikoak aurkeztu eta ezagu-



tzeko baliabideak emango zaizkien eta zalantzak argitzeko aukera izango den. Jardueri buruzko erregistroa eta ebaluazioa egiteko metodologia zein izango den ere formazioan irakatsiko da. Haren ondotik ekingo zaio esku hartzeari eta ondorengo ebaluazioari.

Datorren ikasturterako, beraz, izango ditugu artikulua honetan galdegin ditugun zenbait galderen erantzunak, sortuko zaizkigu galdera eta eginkizun berriak. Ikuskizun datorkiguna eta eraikitzen ari garen laborategi honen fruituak. Epe motzean hurbil datozkigunak eta epe luzera begira bada-tozenak.

## Bibliografia

AMORRORTU, E., ORTEAGA, A., IDIAZABAL, I. ETA BARREÑA, A., 2009, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

BRONCKART, J.P., 1985, «La enseñanza de lenguas frente a sus contradicciones», in *Las ciencias del lenguaje: ¿un desafío para la enseñanza?*. Paris: UNESCO, 9-17.

CAMPS, A. ETA BESTE., 2001, *El aula como espacio de investigación y reflexión: investigaciones en didáctica de la lengua*. Bartzelona: Graó.

CALSAMIGLIA, H., 2007, *Las cosas del decir. Manual del análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel.

CESTERO, A. M.<sup>a</sup> ETA BESTE, 1998, *Estudios de comunicación no verbal*. Madril: Edinumen.

CHEVALLARD, Y., 1985, *La transposition didactique, du savoir savant au savoir enseigné*. Grenoble: La Pensée Sauvage.

CROS, A. ETA VILÁ, M., 2001, «Ahozko hizkuntza: ebaluaziorako proposamenak». *Hizpide*, 48 (2001) 92-111. (Boni Urkizuk itzulia).

DOLZ, J. ETA SCHNEUWLY, B., 1997, «Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona». *Textos de didáctica de la lengua y literatura* 11, (1997) 77-98.

ELLIOT, J., 1993, *El cambio educativo desde la investigación-acción*. Madril: Morata.

EUSKO JAURLARITZA, 2007, «Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa». Dekretua.

———, 2007, *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal curriculuma. Oinarrizko txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA, 1999, «Hezkuntza sistemak: Oinarrizko Curriculum Diseinuak». Curriculumen arteko estalduraren ikerketa lana.

MARTÍNEZ, M. ETA BESTE, 2009, *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

SAINZ, M., 2002, «Hizkuntza didaktikaren erronka berriak». *Hik Hasi*, 8 (2002) 6-21.

SCHNEUWLY, B. ETA BAIN, D., 1998, «Mecanismos de regulación de las actividades textuales: estrategias de intervención en las secuencias didácticas». *Textos de didáctica de la lengua y literatura*, 16 (1998) 25-46.



# Ahozko euskara formala aisialdiko euskararen osagarri. Zornotzako gazte batzuen datuak

ARNEDO GAZTELURRUTIA, Maialen  
EHUko Euskal Filologiako ikaslea

BADIOLA OSTOLAIZ, Ane  
EHUko Euskal Filologiako ikaslea

GANDARIAS ISPIZUA, Leire  
EHUko Euskal Filologiako ikaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Zornotzako ikastetxe batean bigarren batxilergoko D ereduko hamazazpi ikasleko talde batekin debate bat egin zen, eskolan gutxi lantzen den ahozko euskararen genero formal honetan nolako baliabideak agertzen diren aztertzeko. Bereziki aztertu diren atalak hauek dira: debatearen kudeaketa orokorra (solaskideen eta moderatzailearen parte-hartzeak nola bideratzen diren) eta debatean jorratutako eduki gaien kudeaketa (gai berriak proposatzea, mantentzea, aldatzea...) hartarako erabiltzen dituzten baliabideak aztertuz (antolatzaileak, sarrera egiturak, berformulatuzaileak,...). Emaitzen arabera ikus daiteke gazte hauek badituztela hainbat gaitasun baina gabeziak ere nabari direla. Gure ustez, aisialdian euskara gehiago erabiltzeko, eskolek euskarak berezkoak dituen ahozko genero formalak gehiago lantzea eraginkorra izango litzateke.

**Hitz-gakoak:** Ahozkotasuna, baliabide diskurtsiboak, debatea, gaiaren eraikuntza, sekuentzia didaktikoa.

Con el fin de examinar qué recursos aparecen en el debate (siendo éste un género formal poco trabajado en las escuelas), se efectuó un debate con diecisiete alumnos del modelo D de segundo de bachillerato de un instituto de Zornotza. Estos son los ámbitos que se han analizado: la gestión general del debate (cómo se gestiona la intervención de los participantes y del moderador) y la regulación de los contenidos temáticos tratados en el debate (proponer nuevos temas, mantenerlos, cambiarlos...) analizando los recursos que se usan para dichas intervenciones (organizadores textuales, estructuras de introducción, reformuladores...). En los resultados se puede ver que estos jóvenes poseen muchos recursos pero también se manifiestan algunas carencias. En nuestra opinión, sería muy eficaz que se trabajasen más los géneros formales propios del euskera en las escuelas para así promover el uso del euskera también en el ámbito del ocio.

**Palabras clave:** Oralidad, recursos discursivos, el debate, construcción del tema, secuencia didáctica.

Dans le but d'examiner les ressources qui apparaissent dans le débat (un genre formel peu utilisé à l'école), nous avons réalisé un débat dans un lycée de Zornotza avec la participation de dix-sept étudiants de second année de baccalauréat en modèle D (tout l'enseignement est donné en basque). Les domaines considérés sont les suivants: la gestion globale du débat (l'organisation de la participation des membres et du modérateur) et la gestion des contenus traités (la proposition de nouveaux thèmes, l'entretien, le changement ...) avec l'analyse des ressources utilisées pour ces gestions (les organisateurs textuels, les ressources d'introduction, les reformulations ...). Dans les résultats on s'aperçoit que ces jeunes ont certaines compétences, mais ils montrent aussi certaines lacunes. À notre avis, pour que le basque soit

plus employé en temps de loisir, il serait souhaitable que les écoles renforcent aussi l'utilisation du genre formel du basque.

**Mots-clés :** Oralité, ressources discursives, le débat, construction du thème, séquence didactique.

A debate was carried out with seventeen students in Basque in the last year of high school (17-18 years old) in Zornotza in order to understand the means that come out on this formal genre that is rarely worked on at schools. These are the fields that have been analyzed: the general management of the debate (how the participation of the members and the moderator are led) and the management of the thematic contents dealt with on the debate (proposing new themes, keeping them, changing them, etc.) while analyzing the means that have been used for that management (discourse connectors, introductory structures, reformulation, etc.). It can be observed in the results that these young people have much talent but they also have some weak points. In our opinion, it would be very effective to have these formal oral genres that are characteristic of spoken Basque language more often at schools in order to stimulate the use of Basque in leisure time.

**Keywords:** Orality, discursive resources, discussion, construction of the theme, didactic sequence.

## 0. Sarrera

Lan honek ikasle talde bati egindako debatearen grabaketa eta azterketa biltzen ditu. Hau da, alde batetik grabaketa prozesua eta, bestetik, datuen analisia.

Euskara kalean hain gutxi erabilia, gazteak ahozko egoera formaletan nola moldatzen diren aztertu nahi dugu. Hau da, debatea, argudiozko ahozko testu aberatsa da. Eskolan lantzea, gure ustez, erabilera arrunterako ere (alegia, kalerako erabilerarako) baliagarria litzateke. Izan ere, hezkuntza sistemaren bitartez gazteek debate batean euren ideiak nola arrazoitu edota argudiatu ditzaketen ikasita, euren egunerokotasunean baliagarri izango zaizkien baliabideak ikasiko dituzte. Gazteengan eragin handia izango du honek, bai euren hizkuntza gaitasunean eta baita euskararen erabileran, hizkuntza erabiltzeko tresnak barneratuta erabilera ere handiago izango baita, bai hezkuntza mailan eta baita aisialdian ere.

Azterketa hau saiakera bat da, proba bat. Guk, bildutako datuetan oinarriturik, gure azterketa eremu zehatz batera mugatu dugu; azter daitezkeen alor guztietatik gutxi batzuk landu ditugu. Ikerketarako bidea zabalik gelditzen da beraz.

Deskribapen eta azterketarekin hasi aurretik lan honetan lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahiko genizkieke: Itziar Idiazabal, Leire Diaz de Gereñu eta Ibon Manterola irakasleei eta Zornotzako *Urritxe* Institutuko irakasle eta ikasleei.


## 1. Korpusaren bilketa eta bere ezaugarriak

Debate saiakera hau Zornotzako *Urritxe Bigarren Hezkuntzako Institutuan* burutu genuen 2010eko apirilaren 28an eta 29an, bigarren batxilergoko D ereduko hamazazpi ikasleko talde batekin.

Soziolinguistika Klusterrak 2006ko urrian egindako neurketen arabera, Zornotzan %53,8koa da euskararen ezagutza. Euskararen kale erabilera, or-

dea, %25,8koa baino ez da. Hau da, aztergai ditugun ikasleok, lau elkarriketatik bakarra izan ohi dute euskaraz.

Aipaturiko datuak ondorengo taulan ikus genitzake:



Ikasle hauek ahozko genero mota hau lehenengo aldiz lantzen zutenaz, gaia aukeratzea ez zen lan erraza izan. Izan ere, gazte hauek ez dute debatea landu ez euskaraz eta ezta beste hizkuntzaren batean ere. Bestalde, hainbat aldiz irakurri izan dugu aukeratzen den gaia oso garrantzitsua dela debatearen garapen zuzenerako. Gaiak iritzi desadostasuna sortu behar zuen, baina alde/kontra gisako jarrera argudiatu gabeak saihestuz eta gaia interakzioan osatuz. Hau da, gaia oinarri hartuta azpigi eta ideia desberdinak garatzeko erraztasunak eman nahi genizkien. Hauxe izan zen aukeratutako gaia: «*Osasuna gaur egungo gazteengan: eredia aldatzen ari da*».


Ikasleek genero mota hau lehenengoz landu zutela azpimarratu nahiko genuke. Izan ere, gure ustez, ahozkotasuna lantzea ohitura balitz, eragina izango bailuke bai kale erabileran eta baita erabilera formalean ere.

Garrok (2007) bere lanean dioten moduan, debate orok ekoiztua izan aurretik aurre lanketa baten beharrezana duela uste dugunez, bi saiotan banatu genuen korpusaren bilketa.



Lehenengo saioan debateaz duten jakintza ebaluatu eta genero honen ezaugarrien eta partaideen azalpena egin genien ikasleei. Ahozko genero honen inguruan zituzten ideiak argitu ostean, debaterako gaia proposatu genuen («*Osasuna gaur egungo gazteengan: eredua aldatzen ari da*»). Gaia lantzen haste aldera ikasleak biko taldeetan banatu genituen: taldeetako bati moderatzaile rola eman genion eta beste guztiei debatakide rola. Taldeek bakoitzari zegokion rola prestatzeari ekin zioten; hots, moderatzaile taldeak debatea aurrera eraman ahal izateko gidoia eta gaiak prestatu zituen eta debatakide taldeek argudioak, adibideak... Bai irakaslea eta baita gu ere, aurre lanketa horretan mahairik mahai ibili ginen ikasleen lana bideratuz. Eskola ordua bukatzean, bikote bakoitzak pertsona bat aukeratu zuen debatean parte hartzeko eta gainerako guztiek ikusle/entzule rola bereganatu zuten.

Bigarren saioan, aurre lanketan prestaturikoa praktikan jarri genuen debatea grabatuz. Moderatzailea eta debatakideak 'U' baten gisako irudia osatuz mahaietan eseri genituen (moderatzailea erdian) eta ikusleak hauen aurrean:



Saioa aurrera eramateko ezinbestekoa izan zen mikrofonoak beteriko funtzioa. Moderatzailea izan zen mikrofonoa solaskideei banatzearen ardu-

raduna. Mikrofonoak ahalbidetu zuen solaskideen artean hitz-txandak errespetatzea eta ondorengo transkribaketa lanak erraztu zizkigun.

Grabaketa horretan lortutako korpusak ia 40 minutuko luzera dauka. Ez du kalitate onegirik, ahotsa ez baita ongi entzuten. Hala ere, grabaketa guztia hitzez hitz transkribatzea lortu genuen.

Orohar, esan genezake ikasleek primeran barneratu zutela metodologia eta saio biak arrakastatsuak izan zirela.

## 2. Korpusaren azterketarako metodologia

Korpusaren azterketan bi azterbide izango ditugu: batetik, solaskide eta moderatzaileak debate batek berezko dituen ezaugarriak (besteen hitzak aintzat hartzea, hitz-hartzeak errespetatzea...) betetzen dituzten eta, bestetik, gaiaren kudeaketa nolakoa izan den.

Hori egin aurretik, azterbide bakoitzean zer aztertuko dugun eta nola aztertuko dugun azalduko dugu:

### 2.1. Debatearen zein ezaugarri aztertuko ditugun

Debate bat aztertzerakoan hamaika ezaugarri daude aztergai. Guk, ordea, batzuk baino ez ditugu kontutan hartu, interesgarrienak iruditu zaizkigunak edo debate baten jarraibidean garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak. Debateko ezaugarri guztiak aztertu ezin genituela ikusita, aukeraketa bat egitea beharrezkoa zela ikusi genuen. Zein ezaugarri aztertu eta zein ez aukeratzea, beraz, arbitrario xamarra izan zen. Hauexek dira iruzkintzeko aukeratu genituen puntuak:

Moderatzaileak, hiztuna, egoera eta gaia aurkeztu behar ditu batetik. Bestalde, bera da kideei txanda ematearen arduraduna, baita, beharrezkoa denean solasaldia moztearena ere. Gai bakoitzaren amaieran laburpen bat egin behar du, beste azpi-gaiei ateak irekiz. Moderatzaileak objektiboa izan behar duenez, garrantzitsua da bere iritzia ez ematea. Ikus Dolz & Schneuwly (1998) liburuan debateari buruzko ezaugarri gehiago.

Solaskideek, kideen txanda errespetatu behar dute eta moderatzaileak txanda ematean soilik hitz egin. Euren iritziak arrazoiak emanez azaldu behar dituzte, lokailuak eta antolatzaileak erabiliz. Bestalde, kideen iritziak kontuan hartuz hitz egin behar dute.

## 2.2. Gaiaren kudeaketa nola ebaluatuko dugun

Azterbide hau, Garrok, Idiazabalek eta Larringanek (2007) «Gaiaren eraikuntzarako baliabide diskurtsiboak debateetan» lanean egindako sailkapenaren arabera egin dugu, nahiz eta modelo egokitu egin dugun. Autore hauek aipatzen dute gaiaren eraikuntzan bost baliabide diskurtsibo daudela:

- *Gaiaren sarrera edo hasiera*: Gaia aurkeztea da; eztabaidaren abiapuntua.
- *Gaia mantentzea*: Gaiarekiko argudioak errepikatzea, ekarpen berririk egin gabe.
- *Gaia garatzea*: Gaia zabaltze aldera ekarpenak eta birformulazio berriak egitea da.
- *Gaia desbideratzea*: Gai baten barnean itzulinguru moduko saio bat egitea da, gaia aldatzea baino mugatuagoa, baina gaia garatzea baino zabalagoa dena.
- *Gaia aldatzea*: Lantzen ari den gaiaren baitan beste gai bat proposatzea da.

Korpusaren azterketan, debatakideek baliabide diskurtsibo hauek nola garatu dituzten aztertuko dugu. Hala ere, laugarrena (gaiaren desbideratzea) ez dugu aztertuko.

## 3. Emaitzak

### 3.1. Debatearen ezaugarrien azterketa

Oro har, debatakideek goian (2.1. puntua) aipaturiko ezaugarriak espero baino hobeto betetzen dituzte. Debatearen kudeaketa, beraz, ongi joan da; emaitzak uste baino hobek izan dira.

Hurrengo taula honetan solaskideek eta moderatzaileak bete beharko lituzketen ezaugarriak ageri dira, + eta – ikurrekin, egitekoak betetzen dituzten edo ez adierazteko:

Moderatzailea		Solaskideak	
– Hitzunak, egoera eta gaia aurkeztu	+/-	– Kideen txanda errespetatu	+
– Kideei txanda eman eta kendu	+/-	– Moderatzaileak txanda ematean soilik hitz egin	+
– Gai bakoitzaren amaieran laburpena egin	+	– Euren iritziak argudiatu	+/-
– Objektiboa izan behar du	+/-	– Lokailuak eta antolatzaileak erabili	+/-
		– Kideen iritziak kontuan hartu	+/-

Taula honetan ikus genezakeen moduan, moderatzaileak, oro har, ezaugarri guztiak betetzen ditu. Hala ere, aipatzekoa da egoera ez duela aurkezten eta solaskide guztiei galdera berbera egiten diela ideia bat proposatzen den bakoitzean. Beherago aipatuko dugun moduan, zenbait unetan objektibotasuna ere galtzen du.

Solaskideek ere ezaugarri gehientsuenak betetzen dituzte. Debateko partaideek hitz egiteko mikrofono bat dutenez, txandak ongi errespetatu dituzte, ez diete bata besteari hitza kentzen. Iritziak arrazoiz babesturik ematen dituzte eta beste solaskideen iritziak kontuan hartuaz hitz egiten dute (nahiz eta badiren salbuespenak). Antolatzaile eta lokailu mordoa erabiltzen dute euren jardunean, euren diskurtsoa antolatuz. Hala ere, beti baliabide berak erabiltzera jotzen dute, hau da, lokailu eta antolatzaile berdinak erabiltzen dituzte beti.

Ikus-entzuleek isiltasuna eta arreta mantentzen dute uneoro, beraz, ongi betetzen dute ezaugarri hau.

### 3.2. Gaiaren eraikuntza

#### 3.2.1. Gaiaren sarrera edo hasiera

Debateetan, oro har, moderatzailearen lana da gaiari hasiera ematea, nahiz eta solaskideek ere proposa ditzaketen gaiak debatea aurrera doan heinean. Gure korpusean moderatzaileak metahizkuntza baliatzen du gai nagusia aurkezteko. Egoki aurkezten du kontsigna debatea hasi orduko, lehenengo hitz-hartzean:

1. M: *Arratsaldeon lagunok e gaur hemen eingo dogun debatean gaia hau izango da / osasuna gaur egingo garzteengan / eredia aldatzen ari da //*

#### 3.2.2. Gaia mantentzea

Baliabide diskurtsibo hau hasieran espero genuena baino askoz gutxiago darabilte. Solaskideek sekuentziaren kudeaketa propioak egin eta norabide propioa hartzeko gai direla ikus genezake; hau da, ez dira mugatzen baieztatzera/ezeztatzera edo alde/kontra egitera.

Gaia mantentzeak gaiaren saturazioa dakar, eta debate honetan gaiaren saturazioa ez da handia, nahiz eta kasu batzuetan badagoen:

68. S3: *Ba noizbaiten / bueno e egia esan gutxi / baina agian urtero (x2) bider batean bai joaten joaten xx xx medikura hori txekeoak edo egitera hori superzi supertizi (?superstizio) bueno gainetik jakiteko ea nola dagoen e: gure osasuna ta bai kontutan hartzekoa da ere hori ikastetxeek ikastetxeetan e: jende asko etortzen direla ba inkestak egitera hori janari haueri buruz edo elikadurari buruz eta esaten esanez hori zein den horietatik osasuntsuena eta hori gobernua hori antolatzen du ta kontutan hartzekoa da zeren hori oso responsabilitate handia da uste dugu e nagusien partetik eta yasta / hartu*

Kasu honetan, solaskideak bere bizipen pertsonalak kontatzen ditu gaia saturatuz, ez baitu ekarpen berririk egiten.

Moderatzaileak ere eragiten du gaiaren saturazioa noizbehinka. Esaterako solaskide guztiei galdera bera planteatzen die, hauei, gaia mantentzera bultzatuz:

13. M: Zuk zer pentsatzen dozu Xabier?
14. S4: Nire ustez ba gaur egungo garzteen ehuneko handi batek kirola egiten du // e eskoletan da kirolaren balioa azaltzen diote osasunarentzako da halako gauzentzako zelakoa den
15. M: Beñat ze usteozu?
16. S3: Bueno ba nik e: baten batean ez nago ados hori berak esan duenarekin baina esan behar dut hori erdizka e erdi e: erdi egie dela zeren e: bueno ikasleen zati handi bat e egiten dutena da ba bueno ikastea ta batzutan hori e: antolaketa oso txarra izaten da eta / bueno ba ikasketak hori oso batera hartzen dira eta asko ikasi behar dute eta denbora asko kentzen die / baina egia da ba denbora izaten dutenean / bueno / batzutan bai e daudela pertsona asko / hori deporte egiten dutela ta badakitela opzio oso (x3) osantsu osasuntsua dela
17. M: Arrate zuk ze usteozu?
18. S2: Ba ni be bai ados nau Beñategaz ze / gaur egun esaten dabe gazte askok eztabe plantietan hori ba telebista ikusten dabelako ta baia / ikasketek kentzen dabe denbora asko da / da azkenenan ezteko guz egunean hainbeste ordu ba dana / ondo / banatzeko edo

### 3.2.3. Gaia garatzea

Hirugarren baliabide diskurtsibo hau espero genuena baino askoz gehiago ageri da. Moderatzaileak gaitasuna du gaiaren bidea aldatzeko eta segituan antzematen du gaia noiz ari den saturatzen. Solaskideek ere gaitasun handia erakusten dute gaia garatzeko orduan, ia interbentzio guztietan ideia berriren bat proposatzen baitute.

Ondorengo hitzartzean ikus genezakeen moduan, moderatzaileak azpigi bat proposatzen du eta solaskideei iritzia eskatzen die. Solaskideek gaia-

ren inguruko ideia berriak proposatzen dituzte, ez dira moderatzailearen esana baieztatzera edo ezeztatzerara mugatzen:

36. M: Ez e hurrengoa adibidez e elikaduran eredia aldatzen ari dala esaten dabie (=dute)
37. S3: Bueno ni esan izan naiz da bakarrik hori gazteentzat e (x2) lotzen zaiion zerbait gizarte osoari afektatzen dio / egia da gaur egunotan hori e: esaten direnak janari transgenikoak hori modan jartzen ari direla / nik ziur ez dakit hori e osasunerako txarra den ala kontutan hartzekoa da batez ere gaztietan loditasun maila askoz ere sendoago askoz ere handiagoa da eta nire ustez horretan antsietateak eragin handia daukela ze mutil asko antsietatea daukatenean hori ba jaten hasten dira ta urduritasumak egiten du
38. M: E / esaten dute gazteen ehuneko laurogeiak e fast food-a hartzen duela e astean birritan / ze uste dozue hau egia dala edo?
39. S2: Bueno igual astean birritan lar da baia asteburuetan / argi dau / ba jendea extala joaten e begetariano batera jaten / ba juten dire edo burger king mcdonalds / eta holako lekuetara dalako merkeaua ta prestatzeko be bebai etxean egiten badozuz ba askobe (=askoz ere) errezaia da
40. M: Mikel?
41. S1: Ba uste dot egia dala ta fast food edo janari azkarra gero ta gehiago jaten dala / ta hori exta gazteen arazoa bakarrik / gurasoena da / gurasoen arazoa izen ahal da e gurasoek e ume txikiei gurasoek emoteotzielako janarie da (=eta) esateotzie nun jan ta dana da kontzientzia arazo bat dalako azkenean / e danon (x2) kontzientzian aldatu (x3) ein bidan gauza bat e ohitura bat e aldatu ein bidan ohitura bat
42. M: Jon zuk zegaitik uste dozu azken urteetan e hainbeste fast food jaten dala?

Bestetik, adibidez eta definizioz hornitzen dituzte argudioak, diskurtsoa aberastuz. Gainera, hitz-hartzeen amaieran proposatutako ideiak birgogoratzen eta azpimarratzen dituzte, euren iritzitari enfasia emanez. Horixe ikus genezake adibide honetan:

12. S5: *Bueno ba alde batetik ez nago guztiz ados horrekin / e uste dut e ba egia da ba kirol gitxiago egiten dela ez? ba adibidez telebistagatik e: bideojokoengatik / gazteek gero eta gehiago erabiltzen dituzte horrelako teknologiak eta / (x2) ba kirol gitxiago egiten da baina / hala ere / gazteek ez diote kirola egiteari utzi / kirola egin egiten da*

Bestalde, moderatzaileak planteatzen dituen galdera murrizak gaindizten dituzte, hitz-hartze luzeak eta aberatsak eginez. Azkenik, antolatzaile ugari eta mota desberdinetakoak erabiltzen dituzte, eta berauen erabilera egokia da.

Hala ere, gabeziak ere badituzte. Moderatzaileak galdera itxiegiak egiten dizkie solaskideei, bai/ez edo ados/kontra erantzuna dakartenak.

67. M: *Zuk ze zenbatero joaten zara e kontrol medikoak egitera?*

85. M: *Ta zu ze inoiz juan zara natural naturista batengana edo?*

Bestalde, zenbait momentutan moderatzaileak solaskideenak izan behar luketen argudioak hartu eta bere egiten ditu. Solaskideek ere burutzen dute akatsik: hitz-hartze luzeegiak egiten dituzte batetik, euren iritzia astunago eginez.

### 3.2.4. Gaia aldatzea

Korpus honetako debatearen gai nagusia bakarra da. Hortaz, ezin genezake gaikako aldaketarik aurkitu. Alabaina, baditugu hiru azpi-gai eta azpi-gai hauetariko bakoitza gai aldaketa bat dela esango dugu.

Moderatzaileak gai aldaketaren bat egin nahi duen bakoitzean, lehenengo eta behin aurreko ideiarekin laburpentxo bat egiten du eta jarraian gai edo ideia berria proposatzen du. Hala ere, badago hutsunerik.

Esate baterako, moderatzaileak baliabide edo antolatzaile diskurtsiboen ezagutza falta du gaia aldatzeko orduan. Solaskideek gai beraren bueltan ideiak proposatzen dituzte etengabe, baina ez dute gai aldaketarik egiten. Oro har, gure ustez, debate honetako solaskideen helburua, ekarpenak egitea da gai berriak proposatzea baino gehiago.



Hona hemen goian aipaturiko ezaugarrietariko batzuk biltzen dituen hitz-hartze sorta bat<sup>1</sup>:

57. M: Arrate ta goxokiak bebai jaki manipulatuak dira? / zuk e ze  
usteozu gaur egun goxoki asko jaten dire edo:?
58. S2: Ba nire ustez bai / e goxoki gehiegi saltzen die da karo umeak  
zer jango dabe eztabe jango eztabe gureko bokata bat jan / jaten  
dabez goxokiek / da horrek dekiez produkto pilo bat ta gehienak  
eztakigu zeintzuk diezen da (=eta) horrek eiten dau asko hartzen  
badozuz ba osasunarentzako ezta izango ona
59. M: Ta horren aukako / e zer al dogu ein horren aurka edo?
60. S2: Ba eztakit hori etxean be erakutsi behar da ezjala eztiela jan  
behar hainbeste
61. M: Bueno ba / hori jaki manipulatuak ikusten da ba bere alde  
onak dekozela adibidez Ikerrek esan dauzenak e eta Jonek horrek  
kontserbatzaileak edo holakoak / baina badauz e beren kalte txar  
rrak be badekie ez // e badau (x2) topiko bat esaten dabena  
gaurko (x2) gazteek e ezutela kontrol medikurik pasatzen / zer  
usteozu honen inguruen Jon?

Adibide honetan ikus genezake moderatzaileak (M) solaskide bati gai berri bat proposatzen diola eta S2 solaskideak, gaia mantentzeaz gain, ekarpen berri bat egiten duela (58. hitz-hartzea, larrosez). S2 solaskideak esandakoaren harira, moderatzaileak galdera berri bat du eta S2 solaskideak ekarpen berri bat eginaz erantzuten dio.

Bestalde, hitz-hartzearen bukaeran moderatzaileak solaskideek egindakoaren laburpena egiten du (61. hitz-hartzea, marroiz) eta, ondoren, gaia aldatzen du (61. hitz-hartzea, urdinez). Gainera, adibide batez babesten du bere esana.

Ikus genezake, antolatzaile ugari darabiltela, nahiz eta askotan errepikatzen egiten dituzten. Bestalde, iritzia emateko esapideak ere erabiltzen dituzte: *adibidez, nire ustez...*

<sup>1</sup> Azpimarraturik: gaia garatzea; beltzez eta hizki zuriekin: gaia aldatzea; gris ilunez: gaia mantentzea; gris argiz: laburpenak; lauki batean sarturik: antolatzaileak eta bestelako esapideak.

#### 4. Ondorioak

Oro har, debatearekiko dugun inpresioa positiboa da. Debatekideen he-  
rriak eta adinak debatearen jarraibidean eragin handia dutela uste dugu.  
Izan ere, ikusi ditugun datuen arabera, Zornotzan, euskararen ezagutzari eta  
erabilerari dagozkien datuak hobeak dira beste zenbait herritako egoerare-  
kin konparatuz gero. Erabilera maiztasun honek, gure ustez, eragin zuzena  
du gaztetxo hauek debaterako duten gaitasunean. Hala ere, honakoa ez da  
hipotesi bat besterik. Frogatu egin beharko genuke zonalde erdaldunago  
batean saiakera berberak zein emaitza emango lukeen.

Bestetik, adinari dagokionez, orain arte egindako debateen azterketek  
haurren korpusak zituzten oinarri. Gure korpuseko kideak, ordea, 17-18  
urteko gazteak dira eta adinak badu bere isla debatearen kalitatean. Izan  
ere, zonalde eta hizkuntza ohitura bertuko bi debate alderatuta (9-10  
urteko haurrena eta 17-18 urteko gazteena) ikusi dugu desberdintasuna  
handia dela. Hala ere, azpimarratu nahiko genuke, ez dela adina deba-  
tearen kalitatean eragiten duen bakarra; solaskideei proposaturiko  
gaiak, aurrelanketak... ere eragin zuzena dute. Debatearen emaitza uste  
genuena baino hobea bada ere, argi dugu badagoela zer konpondu eta  
zer landu.

Bestalde, burutu dugun lana euskararen ahozko ezaugarriak aztertzeko  
baliagarria dela uste dugu. Honetaz gain, eskolan ahozkotasunarekin egin-  
dako lanak kale erabilerarako baliagarria dela deritzogu. Eskolan, gisa  
honetako azterketak adin desberdineko ikasleekin egingo balira, egune-  
rokotasuneko jardunean eragina izango lukeela esango genuke. Didaktika  
zehatzen premia nabaria da.

---

\* Lan hau Itziar Idiazabalek eta Leire Diaz de Gereñuk irakasten duten Euskararen Irakaskun-  
tzarako Metodologia (Euskal Filologia, UPV/EHU) ikasgaiaren barruan egin zen 2010eko udabe-  
rrian.

## Bibliografia

ALDASORO, M. eta ELORZA, I. (2004) «Ahozkotasuna hizkuntza arloan: ikasleari hitz ematen. Planteamendu teoriko orokorra», *Ahozkotasuna: testuingurua eta esperientziak*, Zarautz: Ikastolen elkarte, 99-128 orr.

DE PIETRO, J.-F.; ERARD, S. eta KANEMAN-POUGATHCH, M. (1996/97) «Un modele didactique du «debat»: de l'objet social a la pratique scolaire», *Enjeux*, 39/40 zka., 100-129 orr.

DOLZ, J. eta SCHNEUWLY, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris: ESF.

ELHUYAR (2000) *Elhuyar hiztegia: Euskara - gaztelania. Gaztelania - euskara*, Usurbil: Elhuyar fundazioa.

GARRO, E. (2007). «Jendaurreko Debateak Euskaraz. Diskurtso Erreferituaren Azterketa. «*Les débats en basque. Analyse des discours rapportés*». EHUko Doktorego Tesi Europarra.

GARRO, E.; IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M. (argitaratzeke [2007]) «Ahozko debateetako zenbait baliabide diskurtsibo eta haien didaktika».

GARRO, Eneritz; IDIAZABAL, Itziar eta LARRINGAN, L. M. (2007): «Gaiaren eraikuntzarako baliabide diskurtsiboak debateetan». In IDIAZABAL, I. eta GARCIA AZKOAGA, I. (Ed.) «Ahozko hizkuntza. Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan (Publicación electrónica de la UPV-EHU) ISBN: 978-84-690-853-1. (Bertsio elektronikoa)

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2008). *Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz*. Bilbo: Eusko Jaurlaritza.

HARLUXET (1998) *Harluxet hiztegi entziklopedikoa*, Donostia: Klaudio Harluxet fundazioa.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r432459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/decretos\\_normativa\\_indice\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r432459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/decretos_normativa_indice_e.html) (88-148)

[http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik\\_kod=5549](http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik_kod=5549)

LARRINGAN, L. M. (2002). «Debate con jóvenes: interlocución, tema y tarea», *Textos. Didáctica de la lengua y literatura*, 29, 2002. 21-30

REDAL, E.J. eta URIARTE, J. S. (zuz.) (2009). *Baikor 2*. Zubia-Santillana.

# Sare sozial birtualak: kalean bezala sarean!

BARBERENA, Eneko  
*Txatxilipurdi* elkarteko zuzendaria

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Hitz gakoak eginez laburbildu daiteke gaur egungo IKT-en erabilera eta sare sozial birtualen egungo egoera.

Multifuntzionalitatea: Gaur egungo gailu elektronikoei aukera asko ematen dituzte. Jada ez da soilik telefonoa. Jada ez da soilik telebista. Are gehiago dira, plataforma birtualak dira non hainbat zerbitzu biltzen diren eta hainbat helburu ase: entretenimendua, komunikazioa, informazioa jasotzea...

Hartu-emana: Gaur egungo sarea 2.0 da gehien-gehienean. Hartu eta eman. Erakutsi eta ikasi. Zuzendu eta hobetu. Hori da internetek erabiltzailei eskaintzen digun gauzarik ederenetakoa, beste hiritarrek (mundu osoko hiritarrek) hartu-emanerako aukera.

Sormena: Sare sozial birtualak eta internet sormena kitzikatzeko tresna paregabeak dira. Sagu kolpe batean, eskura ditugu beste sortzaile eta ekintzaile batzuen lan eta iradokizunak. Eta ez baldin badago... guk geuk sor dezakegu! Hortaz badakigu zerbait euskaldunok (hutsetik gauzak sortzeaz) eta horregatik ondo joan dakiguke sarearen anabasan.

- Aukera: teknologia berrien tren pasatzen utziko dugu euskaldunok ez gaudelako prestaturik? Zenbaten behin pasatzen da horrelako tren bat?
- Arrakasta: Gaztetxoengan izugarritzko arrakasta dute sare sozial birtualek, datuak hor daude. Eta saltsa non, euskalakaria han.
- Osagarritasuna: Ekin eta Jarrai, Egin eta Eragin. Euskaltzaindiaren eta AED elkartearen hastapenetako leloak. Ez al da osagarria kalean egiten duguna eta sarean egiten duguna?

**Hitz-gakoak:** Multifuntzionalitatea, hartu-emana, sormena, aukera, arrakasta, osagarritasuna.

Mediante unas pocas palabras clave se puede resumir la situación actual del uso de las nuevas tecnologías y las redes sociales virtuales:

Multifuncionalidad: Los aparatos electrónicos actuales dan un sin fin de oportunidades. No es sólo el teléfono o la televisión. Las plataformas digitales ofrecen multitud de servicios y cumplen varios objetivos: entretenimiento, comunicación, información.

Comunicación: Hoy en día la red es básicamente 2.0. Dar y recibir, enseñar y aprender, corregir y mejorar. Es de lo más positivo que nos ofrece Internet. Poder comunicarse con gente de todo el mundo.

Creación: Las redes sociales virtuales e Internet son una magnífica herramienta de creación. A un tic de ratón tenemos acceso al trabajo de otros creadores, a recibir posibles sugerencias, o a ser nosotros mismos creadores.

- Oportunidad: ¿vamos a dejar pasar los vascos el tren de las nuevas tecnologías? ¿Cuántas veces pasa un tren así?

- Éxito: Las redes sociales tienen gran éxito entre los más jóvenes.
- Complementariedad: El trabajo que llevamos a cabo en la red y en la calle deben ser complementarios. *Ekin eta jarrai, Egin eta eragin* lemas de Euskaltzaindia y Arrasate Euskaldundu Dezagun, son dos buenos ejemplos.

**Palabras clave:** Multifuncionalidad, comunicación, creación, oportunidad, éxito, complementariedad.

Grâce à quelques mots-clés on peut résumer ainsi la situation actuelle de l'usage des nouvelles technologies et des réseaux sociaux virtuels :

Multifonctionnalité : Les appareils électroniques actuels donnent des opportunités infinies. Il ne s'agit pas uniquement du téléphone ou de la télévision. Les plateformes numériques offrent une multitude de services et ont plusieurs objectifs : passe-temps, communication, information.

Communication : Aujourd'hui le réseau est en général 2.0. Donner et recevoir, enseigner et apprendre, corriger et améliorer. C'est que qu'Internet nous offre de plus positif. Pouvoir communiquer avec des gens du monde entier.

Création : Les réseaux sociaux virtuels et Internet représentent un magnifique outil de création. Par un clic de souris nous avons accès aux travaux d'autres créateurs, nous pouvons recevoir des suggestions, ou même être nous-mêmes des créateurs.

- Opportunité : nous les Basques allons-nous laisser passer le train des nouvelles technologies ? Combien de fois passe un tel train ?
- Succès : Les réseaux sociaux ont beaucoup de succès parmi les plus jeunes.
- Complémentarité : Le travail que nous menons sur la toile et celui que nous menons dans la rue doivent être complémentaires. *Ekin eta jarrai, Egin eta eragin* les devises d'Euskaltzaindia et de Arrasate Euskaldundu Dezagun, en sont deux bons exemples.

**Mots-clés :** Multifonctionnalité, communication, création, opportunité, succès, complémentarité.

Today's use of ICTs and current use of virtual social networks can be summarised using a set of key words.

Multifunctionality: Today's electronic equipment provides numerous opportunities. It isn't just the telephone any more. It isn't just the TV any more. There are even more, there are virtual platforms that include many services and fulfil many purposes: entertainment, communication, the providing of information, etc.

Relationship: Today the Internet is mostly 2.0. Give and receive. Teach and learn. Correct and improve. That is one of the most wonderful things we Internet users are offered, the chance to communicate with other people (with citizens throughout the world).

Creativity: Virtual social networks and the Internet are unrivalled tools for encouraging creativity. At the click of the mouse we have the work and suggestions of other creators and entrepreneurs at our fingertips. And if not, well, *we* can create it! We Basques know something about that (about creating things out of nothing), and that is why we could be successful in the chaos of the Internet.

- Opportunity: Are we Basques going to allow the train of the new technologies to pass us by because we are not prepared? How often does a train like that come our way?
- Success: Social networks are incredibly successful among young people, as confirmed by the data. And wherever something may be cooking.
- Complementarity: Start and Go on, Do and Exert your influence. The initial slogan of the Euskaltzaindia (Royal Academy of the Basque Language) and of the AED association (set up to promote Basque in Arrasate-Mondragon). And what we do in the street and what we do over the Internet, do they not complement each other?

**Keywords:** Multifunctionality, relationships, creativity, opportunity, success, complementarity.

## Sarrera

Sare sozialek protagonismo handia hartu dute azken urteotan, bereziki nerabe eta gazteen adin tartean. Zitzu bizian doaz informatika eta ziber-mundua eta gizartean badago kezka eta egonezin bat etengabe teknologia berrietan eguneraturik egoteko.

Izan ere, noiztik ari gara honetaz hitz egiten? Hiru urte, lau urte? Noizkoa da «Google»? Eta «Youtube»? Galdera hauen erantzunak garamatza konturatzerara nolako arrapaladan ari diren bizkortzen informazio eta komunikazio teknologietan berrikuntzak.

Edozein gizartetan tamainako erronka da sare sozialen fenomenoaren ezagutu eta bertan era osasuntsu batean murgiltzea. Baina euskal hiztunon kasuan, hizkuntza minorizatu bateko hiztunak izaki erronka honek beste dimentsio bat hartzen du. «Google» hizkuntzez hitz egiten den garaiotan, euskal hiztunon esku dago gure hizkuntzak sarean presentzia izatea. Izan ere, kalean bezala sarean, lan egin behar dugu euskararen erabilera bultzatzeko.

Txatxilipurdik barne erabilerarako egin zuen ikerketa lana sare sozial birtualen inguruan, Amagoia Aristegi ikerlari Bergararraren eskutik. Jakin nahi genuen Euskal Herriko nerabeek nola erabiltzen dituzten sare sozial birtualak eta horretarako hainbat inkesta egin ditugu 11 herri eta hiritan. Lan hau berriz, haur eta nerabeekin lan egiteko dokumentu gisa erabili nahi dugu Txatxilipurdin. Dokumentu horretan oinarrituta dago ondorengo lana non aisialdi birtualaren ibilbide oso bat egiten den sare sozialetaraino iristeko.

## 1. Aisialdi birtuala

### 1.1. Definizioa

Aisialdi birtuala simulazioan oinarritutako aisia modua da, ikutezina eta funtzio ezberdinak batera integratzen dituena.



Edozein jarduera birtuala izan dadin, gorputza eta objektuaren artean distantzia egon behar da eta bi elementuen arteko distantziak ziberespazioa bezain zabala izan behar du.

Guzti honegatik **aisialdi birtualaren ezaugarri orokorrak** laburbildu ditugu:

- Simulazioan oinarritzen da nahiz eta batzuetan, irudi errealak integrazten dituen (telebistaren kasua).
- Ikutezina denez, entzumena eta ikusmenaren bitartez hautematen da.
- Funtzio ezberdinak betetzen ditu: Komunikazioa, informazioa, dibertsioa...

Aisialdi birtualak bilakaera nabarmena izan du XX. mende bukaeran eta XXI. Mende hasieran. Halere, bere hastapenak XIX. mende bukaeran kokatu ditzakegu irratia agerpenarekin (1890. urte inguruan). Ordukoak dira, besteak beste, familia osoa egongelan irratia inguruan biltzen zireneko eszenak. Hirurogei urte beranduago telebistak hartuko zuen arrakastaz irratia uhinen lekukoa. Bigarren Mundu Gerrak bere hedatzea atzeratu bazuen ere, arrakasta handikoa eta hegemonikoa izan da mundu osoan zehar. Euskal Herrian ere, egun, bakanak dira telebistarik gabeko etxeak. Bideojokoek eta kontsolek 1980. urtean ekin zioten ibilbideari gutxi gorabehera eta haur eta gaztetxoengan izan dute arrakasta handiena, nahiz eta azken belaunaldiko jokoek kasuan adin espektroa zabalagoa izan. Hamar urte beranduago, 1990. urtean hasi zen ezaguna egiten internet eta 1991 da world wide web kontzeptua (munduko sare globalaren kontzepturako oso garrantzitsua). Sakeleko telefonoak 1995etik aurrera egin dira ezagunak gure artean eta urte gutxian eboluzio nabarmena izan dute komunikazio tresna izatetik jolasteko aparatua, interneterako terminala, agenda elektronikoa... bilakatu delarik. Amaitzeko, mende berriko lehen hamarkadaren erdialdean sortzen dira sare sozial birtualak (ez dago data zehatzik, baina proposamen lez har dezagun 2004a Facebook sare ezagunena sortu zen urtea delako).

Aisialdi birtualaren ezaugarri bat aipatu dugu garapen abiadura dela, berrikuntza teknologikoak ziztu bizian ari direlako ematen. Baina beste ezaugarria da teknologia hauen etxekotze azkarra munduko zona batzuetan

behintzat (teknologikoki garatuak diren herrietan behinik behin). Euskal Herrian, Eustaten datuen arabera, 2010. urtean EAEko biztanleriaren %99,1ak erabili zuen interneta. Esan beharra dago, abiada honek banakoari prestakuntza eta inbertsio ekonomiko handia eskatzen diola.

Baina ez da izan soilik etxeratzean nabaritu aisialdi birtualaren erabilera, horretarako berariazko espazioak ere sortu dira. Laurogeigarren eta laurogeita hamargarren hamarkadan joko aretoak izan ziren bideojokoetan jolasteko, hauen ostean ziber-txokoak eta «KZguneak» ere etorri zirelarik. Gaur egun, amaitzeko, egun osoan zehar aukera izan dezakegu aisialdi birtualaz gozatzeko sakeleko telefonoen eta ordenagailu eramangarri zein «tablet»en eskutik.

## 1.2. Aisialdi birtualaren funtzioa

Aisialdi birtualean kokatzen ditugun teknologiek hiru funtzio nagusi betetzen dituzte: Informatu, komunikatu eta jolastearena. Hurrengo taulan jaso ditugu aipagarrienak edo erabilienak direnak, eta egun betetzen duten funtzio nagusia:


### A. taula. Teknologia motak eta bakoitzaren funtzioak

Teknologia berriak	Funtzioak		
	Informatu	Komunikatu	Jolastu
Irratia	X	X	
Telebista	X		
Kontsolak			X
Sakelakoa		X	
Ordenagailua/Internet	X	X	X
Sare sozial birtualak	X	X	X

Betetzen dituzten funtzioez gain garrantzitsua da funtzio hori betetzeko eskaintzen dituzten parte hartze aukeretan erreparatzea. Teknologia batzuk

besteak baino parte hartze maila aktiboagoa sustatzen dute erabiltzailearengan. Parte hartzearen gaiari heldu aurretik, hala ere, komunikazioaren axiomaz mintzatuko gara. Komunikazio prozesuaren muina ulertu ostean errazagoa baita esan nahi duguna azaltzea.

### B. taula. Komunikazioaren axioma



Komunikazioa eman dadin **beharrezkoa da igorle eta hartzailearen artean hartu-emanezko harremana bermatzea**. Mezua jaso duenak, nolabait adierazi egiten du hartu duela mezua. Hartzailearen adierazpen horrek eragina du igorlearengan.

Igorlea dena, beraz, hartzaile bihurtzen da eta hartzailea igorle. Harremerako erabiltzen den kodea era askotakoa izan daiteke: ahozkoa, idatzizkoa, gorputz adierazpenetan oinarritua, kode informatikoetan oinarritua edo kode ezberdinek osatutakoa. Garrantzitsuena igorle eta hartzailearen artean hartu emana ziurtatzea da, **harremanik egon ezean ez dago komunikaziorik**.

Taulan azaldu diren aisialdi birtualari dagozkion teknologia berrietan erreparatzen badugu, aldea aurkituko dugu taulan aipatutako batzuen eta besteen artean. Telebistaren kasuan, adibidez, ez da komunikaziorik ematen. Hartzailearen jarrera pasiboa da, telebistak igortzen duena ikusleak kontsumitzen du eta ez da mezurik itzultzen, alde bakarreko mezua da. Ordenagailuak, eta berarekin internetek, ekarpen azpimarragarria dakar berarekin: **hartu-emana**. Harreman mota birtuala izan arren, erabiltzailearen aldetik **parte hartze aktiboagoa** ematen da.

Komunikazioaren esparruan sortu den beste aukera bat telefono mugikorra da. Telefono arruntak duen funtzio berberarekin sortu zen, baina egun, ordenagailuaren funtzioak bereganatzen hasia da. Sakelako telefonoak internet, jokoak, eta era guztietako artxiboak garraiatzeko balio du, eta ordenagailua baino txikiagoa denez, eta haririk behar ez duenez, etorkizuneko makina protagonista izan daiteke. Formatua eta prezioa eskuragarria dituenez, arrakasta handia du jendartean.

Jolasaren esparruan, funtzio ludikoari erantzunez bideo jokoen hedapena eman da. 70.eko taberna eta jolas lekuetako «makiniten» bertsio modernoak dira. Jokoen formatua txikia da eta kontsolan zen ordenagailuan txertatu daitezke. Urte gutxitan protagonismo ikaragarria lortu dute kritikatuak eta baloratuak izan dira.

## 2. **Ikt-ak**

Ikt internetera lotutako informatikari buruzko termino bezala ezagutzen da, bereziki hauen ikuspegi soziala aintzat hartzen duelarik.

Teknologikoki, Ikt-ak konputagailu eta informatikaren tresnak dira, informazioa modu desberdinetan prozesatu, gorde, laburtu, erreuperatu, eta aurkezten dutenak. Informazioa lortzeko eta honen tratamendurako tresna, euskarri eta kanalen multzoa. Hauen adibide batzuk, arbel digitala (ordenagailu pertsonala + multimedia proiektorea), blogak, podcast eta webak dira.

Hezkuntzako ezarpenetarako Ikt-ak bitartekoak dira, ikaskuntza errazten duten eraikuntzarako tresna eta materialak, eta ez helburuak.

### 2.1. **Ikt-aren ezaugarriak**

Informazio eta komunikazioaren teknologiaren ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

- Komunikazio molde berriei sarrera ematen dietenez, izaera berritzaile eta sormenezkoak dira.

- Hezkuntzari onura asko ekarri dizkio, hezkuntza eskuragarriagoa eta dinamikoago bihurtzen baitu.
- Giza zientzietako soziologia, antolakuntza teoria edota kudeaketari eragiten dio.
- Teknologia berri garrantzitsuenak hauek dira:
  - Internet
  - Robotika
  - Helburu zehazterako konputagailuak
  - Diru elektronikoa

### 3. WEB 2.0

#### 3.1. Definizioa

Internet 20 urte hauetan aldatzen eta garatzen joan dela argia da. Hasi-  
ra batean zientzialari gutxi batzuk erabiltzen bazuten eta gehienbat irakur-  
tzeko eta idazteko balio zuen tresna izanik, gaur egun milioika erabiltzaile  
dituen eta **edukiak sortu eta elkarbanatzeko tresna** izatera pasa da.

Web 2.0 erabiltzaileek sortutako eta elkarbanatutako edukietan oinarri-  
tzen diren web orrien belaunaldi berria da. **Erabiltzaileen parte-hartzea eta  
informazioaren elkartrukea** esan nahi du. Interneten garapenaren bigarren  
aroa bezala definitua izan da eta «*webgune sozial*» ere deitu izan zaio.



Gaur egunean horrenbeste entzun eta erabiltzen ditugun sare sozialak, Wiki-  
pedia, EuskalTube, Del.icio.us... Web  
2.0 osatzen duten elementuak dira. Bai-  
na Web 2.0 Web 1.0 ren garapenetik  
etorritako bertsio berri eta hobetua da.  
**Web 1.0**n editoreak zuen protagonismo  
osoa, edukiak eta informazioa sortu os-  
tean, **erabiltzaileak** orri edo gune hau  
bisitatzen zuen **informazioaren kon-  
tsumitzaile soil bat** izanaz. Web 2.0 an

berriz, bai eduki aldetik, eta baita aurkezteko moduan ere, aldaketak egin daitezke. Eredu honek milioika pertsonari sarean informazioa argitaratzeko plataforma eta tresnak eskaintzen dizkio. Gaur egun edozeinek dauka blog bat sortzeko, iritzi artikulua, argazkiak, bideoak... argitaratzeko, eta hau beste erabiltzaile batzuekin elkarbanatzeko aukera. Hala ere, argi izan behar dugu elkarreraginerako tresna bat dela. Wiki bat sortuta inork erabiltzen ez badu, ez du ezertarako balioko. Honetaz gain, beste zalantza bat ere sortzen da; tresna hauek elkarlanean aritzeko tresnak izanik, off-line bizimoduan modu honetan lan egiten ez badakigu, nola lortuko da hau on-line bizimoduan? Lehenik eta behin **tresna hauek erabiltzen ikasi behar dugu, tresna hauek hor egonagatik ez baitute elkarreragiteko, partekatzeke, edota elkarlanean aritzeko filosofia bere horretan transmititzen**. Filosofia hau tresna hauek erabiltzearen ondorioz sortzen da. Web 2.0ren adibide nagusia aurrerago ikusiko dugun Wikipedia da.

### 3.2. Web 2.0 tresnak

Mundu osoan Web 2.0ko tresna ugari daude, euskal komunitatea informatika arloan ere ekimentsua eta potentzial handikoa denez, munduan zehar aurkitu daitezkeen tresnen baliokideak sortzen eta garatzen dituzte hemen ere. Aurretik dauden tresna batzuk euskaratuz eta beste batzuk sortuz. Beheko taulan aurkezten dira tresna orokorrak eta euskarazko tresna baliokideak.

### C. taula. Tresna orokorrak eta euskal baliokideak

Tresna orokorra	Euskal Baliokideak
Blogger	Blogak.com, mundua.com, blogari.com, nireblog.com
Bloglines.com, Google Reader	Alesti.com
Del.icio.us, Mr Wong, Netvibes	Bildu.net
Digg.com	Zabaldu.com
Facebook.com	GeraGaitezen.com
Flickr	Argazkiak.org
Fotolog.com	Nirudia.com
Freevlog.com	NireTV.com
Google	Elebila.eu, aurki.com, euskara.org, jalgi.com, kaixo.com
Platias.com	Tagzania.com
Slashdot	Sustatu.com, zuzeu.com, marrapuntu.org
TeacherTube.com	Ikastube.com, ikasvlogak.blogspot.com, eduvlog.org
Tuenti.com	Zugaz.com, Zulozale.com
Wikipedia.org	Eu.wikipedia.org
WordPress.org	Eu.WordPress.org
YouTube.com	EuskalTube.com

## 4. Internet

### 4.1. Definizioa eta datuak

Internet ezagutzen edota erabiltzen ez duten gutxi izango dira teknologia ezinbesteko bihurtu dugun gizarte honetan. EAE-n Eustatek (<http://www.eustat.es>) 2009. urtean egindako inkestaren arabera **15 urte baino gehiagoko erabiltzaileak % 51,7** gara. Gutako askok gure egunerokoan erabiltzen dugu; lanerako, astebururako iragarritako eguraldia edo eskaintza kulturala ikusteko, lagunekin komunikatzeko, jolasteko, ikasteko, etab luze bat.

Historia apur bat eginaz, Interneten aurrekaria Arpanet izeneko sarea zen (AEBko militarrek sortua unibertsitate ezberdinen laguntzarekin (lau ordenagailu konektatu zituzten aldi berean). 1991. urtean garatu zen *world wide web* kontzeptua, munduko sare globala sortzeko ezinbesteko urratsa. Hiru urte beranduago, 1994. urtean eman zen komertzializazioa eta nola-baiteko orokortzea/irekidura. Google moduko enpresa bat, 1997. urtean sortu zen (oso enpresa gaztea da beraz, nahiz eta interneteko aroa ikusirik beteranoa izan).

1994.urtean komertzializatu zenetik, 15 urteetan izandako arrakasta ikeragarria izan da. 2006ko urtarrilaren 3an internetek 1000 milioi erabiltzaile izatea lortu zuen. Gaur egun, beheko taulan ikusten dugun bezala, 1.668.870.408 erabiltzaile ditu, munduko populazioaren % 24,7, hain zuzen ere. 2016.urterako sareko erabiltzaileen kopurua 2.000 milioitara igoko dela aurreikusten da.

Beheko taulan interneteko erabiltzaileak herrialdeka sailkatuta ikusten ditugu. Bertan, Ipar Amerika izango litzateke internet erabiltzaile gehien dituen herrialdea, Ozeania eta Australiak jarraituta. Azkeneko postuan berriaz Afrika egongo litzateke, bertako biztanleen %6,7ak besterik ez baitu internet erabiltzen. Hemen kontutan hartu beharko genuke kontinente honetako zenbatek izango duen amarauna erabiltzeko aukera.



## MUNDUKO INTERNET ERABILTZAILIEN ESTADISTIKA

### D. taula. Internet erabiltzaileak kontinenteka

Herrialdea	Biztanleria	% Mundu biztanleri	Erabiltza	% Biztanl	Hazkundera (2000-09)	% Munduko erabil
Afrika	991.002.342	%14,7	65.903.900	%6,7	%1.359,9	%3,9
Asia	3.808.070.503	%56,3	704.213.930	%18,5	%516,1	%42,2
Europa	803.850.858	%11,9	402.380.474	%50,1	%282,9	%24,1
Ekialde Hurbila	202.687.005	%3,0	47.964.146	%23,7	%1.360,2	%2,9
Ipar Amerika	340.831.831	%5,0	251.735.500	%73,9	%132,9	%15,1
Latinoamerika/ Karibea	586.662.468	%8,7	175.834.439	%30,0	%873,1	%10,5
Ozeania/ Australia	34.700.201	%0,5	20.838.019	%60,1	%173,4	%1,2
Munduan guztira	6.767.805.208	%100,0	1.668.870.408	%24,7	%362,3	%100,0

2009ko ekaineko datuak Iturria: <http://www.exitoexportador.com/stats.htm>

## EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO ESTADISTIKA

### E. taula. EAEko internet erabiltzaileen estatistika

	Lurraldea				Sexua		Adina			
	Euskal a.e	Araba	Bizkaia	Gipuzk	Emak	Gizon	15-24	25-34	35-44	45 urte baino gehia
2009	51,7	51,2	51,8	51,7	47,7	56,0	91,7	80,0	71,5	28,6

2009ko Maiatzaren 15a.

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta –IGIF (<http://www.eustat.es>).

Baina, zer da internet? Zein da bere definizio zehatza? Era simple batean azaltzeko, internet munduan telekomunikazio azpiegitura zabal batean bi-dez konektatuta dagoen ordenagailuen sarea da.

Eta konektatuta egote honek hamaika aukera eskaintzen dizkio erabiltzaileari: musika entzun, erosketak egin, sozializatu, bidaiak antolatu... Oinezkoen bizimoduaren ispilua dela esan dezakegu, off-line egiten dena online egin daitekeelako.

#### 4.2. Internet genero ikuspegitik:

- Emakumeak teknologia berrietatik hurbil daude Euskal Herrian bederen, baina badaude hainbat oztopo oraindik (publizitatea gizonezkoei dedikatzen zaie bakarrik, emakumeen inbisibilizazio handia dago).
- Nahiz eta goi ikasketatan emakumeak gehiengoa izan, ikasketa teknikoetan gutxiengo izaten jarraitzen dute. Nahiz eta ogibide guztiek gero eta lotura hertsiago estuagoa izan internetekin, nabarmena da ingenieritza informatiko eta telekomunikazioetan emakumeen presentzia urria dela.
- Haurtzaroko bideo-joko gehienek estereotipo maskulinoak zabaltzen dituzte (neskentzat mezu goxoak, mutilentzat abentura eta emozioak).
- Emakumeentzat eduki gutxiago dago interneten gizonezkoentzat baino, informazio eredu oso androzentrikoa da. Interneten, irudi aldetik bederen, oso lotua dago emakumea estereotipo tradizionaleri eta pornografia/erotismoari.

#### 4.3. Internet hizkuntza ikuspegitik:

**Internetek kultura desberdinak ezagutzea ahalbideratzen digu**, baina honek ere badauzka bere **arriskuak**. Informazioa beti leku berdin edota antzerakoetatik etorri gero, ohitura, hizkuntza, bizi eredu eta azken finean **kultura bat ezartzeko arriskua ekar** baitezake. Kultura eta herrialde batek bere baloreak galdu ditzake, bere hizkuntza, historia, musika, dantza, nor-tasuna ...

Hizkuntzaren erabileraren inguruko datuei erreparatuta, ingelesa da gehien erabiltzen den hizkuntza, 464 milioi erabiltzailearekin, ondoren txinera

daukagu eta hirugarrenik gaztelania. Munduan 5.000 tik 6.000ra hizkuntza erabiltzen direla aintzat hartzen badugu, honek ez du islada handiegirik interneten (hizkuntza indartsuak ageri dira soilik eta hor euskarak badu presentzia, beste hizkuntza minorizatu batzuek ez ordea).

Hona hemen euskararen sustapenerako egin daitezkeen hainbat gauza:

- Ziber euskara (terminologia adib.) sortu eta sustatzeko beharra dago.
- Eleaniztasun testuinguru batean, asmatu beharko dugu euskarari zentralitatea ematen.
- Euskarazko edukiak sortzeko beharra dago etengabe.
- Produktu informatiko-digital euskaldunak zabaltzeko beharra dago.
- Ingurune kultural hurbileko behar kultural-sozialak erantzuteko estrategiak behar dira.
- Sorkuntza eta itzulpengintza profesionala bultzatu behar dira.

#### 4.4. Internetek eskaintzen dituen aukerak:

- Zerbitzu ugari eskaintzen ditu (eposta, bilatzaileak, txat-a...).
- Informazio aukera alimalekoa (galbahe gabe askotan halere).
- Komunikazioa: gailu azkar eta boteretsua, komunikazio erreala osagarritzen duena.
- Globalizazioaren testuinguruan hitzun talde minorizatuentzat aukera eta mehatxu da aldi berean. Hizkuntzaren prestigioa sakontzeko, Patxi Juaristik dioen moduan, hizkuntza gutxituen presentzia ezinbestekoa da.

#### 4.5. Interneten mehatxuak:

- Gehiegizko kontsumoa izan liteke gizartean alarma gehien sortzen duen interneteko aspektua. Dena den, ez dago alde gehiegirik orduei dagokionean telebista kontsumoari dagokionean. Honek ez du internet santifikatzen, baina ikus-entzunezkoen gehiegizko kontsumoen tradizioa internet bera baino zaharragoa da.

- Ordenagailuko funtzionamenduari eta datuen segurtasunari kalteak: spam-a, birusak, hoax-ak, pop-up leihoak...

## 5. Sare sozial birtualak

### 5.1. Definizioa

Gaur egungo mundu globalizatuan mundu osoko pertsonen arteko harremanak gero eta estuagoak dira. Duncan Watts soziologoak esana du, Frygies Karinthy idazlearen ideia harturik, munduko ezein pertsonarengana iris gaitzkeela sei urratsetan.

Numerologian jarraituz, sareen indarraz hitz egiterakoan aipatzen da pertsona bakoitzak batz bestea ehun lagun inguru ezagutzen dituela. Horrek esan nahi du, mezua bat bakoitzak bere kontaktu denei igorri gero mezua-  
ren proiektzioa ikaragarria izan litekeela. Hasieran ehun, gero mila, gero hamar mila, gero milioia...).

Baina zer dira sare sozial birtualak? Lehen definizio bat emateko, esan dezakegu sare sozial birtualak elkarrekintza sozialeko moduak direla, talde edo erakundeen artean testuinguru konplexu batean gertatzen diren truke dinamikoak.

Baina horrez gain, zer eskaintzen dute sare sozial birtualek? Bigarren definizio bat ere eman daiteke, edukiak aintzat harturik: web bidezko plataformak dira sare sozialak, zerbitzu ugari eskaintzen dituztenak eta harpidetuak bere profila egiten du informazio pertsonalaz lagunek etab. bisitatu dezaketena.

Iban Arantzabal Goienako kide eta blogariak dio, definizioa osatzeko, etengabe eraikitzen ari direla sare sozial birtualak eta dinamikotasuna dela beraien ezaugarrietako bat.

Iratxe Esnaola informatikariak eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak dio sistema irekiak direla sare sozialak, elkartruke dinamikoak eta elkarrekintza sozialerako metodoak.

Izan ere, hirugarren definizio bat ere egin dezakegu sare sozial birtualen inguruan aurreko bien osagarri: sare sozial birtual bat profil ezberdinen lotura da, egitura sozial bat lortzeraino.

## 5.2. Sare sozial birtualen zerbitzuak

Sare sozialek zerbitzu ezberdin ugari eskaintzen dituzte era dinamiko batean. Honela zerbitzu ez arrakastatsuak kentzen dira, zerbitzu berriak sartzen dira... Hona hemen sare sozial birtualetan eskaintzen diren ohiko zerbitzu garrantzitsuenak:

- Argazkiak, bideoak, musika, estekak... elkarbanatu, jendeari informazioa eskaini edo gertakari baterako interpelatu etiketazioaren bidez.
- Helbide agenda automatikoki eguneratzea.
- Jokoak, bakarrik edo beste erabiltzaile batzuekin batera jolasteko.
- Eguneroko pertsonal bat egiteko aukera.
- Forotan parte hartzeko aukera.
- Txat-a.
- Eposta bidez mezuak bidali eta jasotzeko aukra.
- Pertsonak ezagutu edota gomendatzea eta lagunei interesatzen zaizkigun pertsonak aurkeztu edota gomendatzea.

## 5.3. «Lagun» kontzeptuari buruzko ñabardura bat

Txatxilipurdin komenigarri ikusten dugu haur eta nerabeekin kontzeptu hau lantzea, bereziki argi utziz ez dela gauza bera sare sozialeko lagun izatea eta bizitza errealeko lagun. Hor bereizketa bat egitea komenigarri ikusten dugu.

Dena den, esan beharra dago sare sozial birtualei esker jada badiren harremanak sendotzen direla. Hots, ez direla erabiltzen jende ezezaguna ezagutzeko salbuespenak salbuespen. Beste era batean esateko, aurretiaz ezagutzen dugun jendea dela lagun egiten duguna.

Amaitzeko, ohartu nahi genuke ere badela arriskua popularitate dematan hasteko sare sozialetan. Izan ere, oso era grafikoan ikusten da bakoitzak zenbat «lagun» dituen. Lehen puntuarekin lotuz, gure iritziz nerabearekin hitz egin beharra dago laguntasunaz gutxiagotasun-konplexurik sor ez dadin.

#### 5.4. Hainbat datu interesgarri sare sozialez

Sare sozial birtualen fenomenoaren hedadura handia ulertzeko, hona hemen hainbat datu:

- Facebook-en 380 milioi profil daude sortuak, bataz beste munduko biztanleen %5a litzateke hori.
- Espainiar Estatuko internet erabiltzaileen %55a egunero sartzen da sare sozialetan, astean behin %80a (Sare Sozialen Behatokiko datuak dira).
- Facebook da lehen sarea Espainiar Estatuko erabiltzaileen %64arentzat, Tuenti %33arentzat. Gainontzeko %3a beste sareen artean banatzen da.
- Emakumeak dira gehiengo sareen %84an, baina Facebook eta Twitterren parekotasuna dago.

#### 5.5. Sare sozial birtualen historia laburra

Sare sozial birtualak fenomeno oso gazteak dira eta 90. hamarkadaren bigarren amaieran kokatzen dira beraien hastapenak:

- *Sixdegrees* izan zen lehen sarea, 1997an sortua (paradoxikoki porrot egin eta 2000. urtean itxi zen).
- Ondoren *Livejournal.com*, zeinak barnebiltzen zituen bloga, eguneroko pribatua... Interes enpresarial eta publizitarioen bultzadaz sortu zen.
- *Ryce.com* izan zen munduko lehen sare sozial birtual espezializatua. 2001. urtean sortua, negozio mundurantz bideratu zen.
- 2002an sortu zen *Friendster*. Bere baitan zituen on-line zerbitzu ezberdinak, gustuen arabera antolatzeko aukera ematen zuen...

- 2003an sortu ziren *Myspace* eta *Fotolog*. Lehenak musika munduan izan du garapen handiena (musika taldeek promozionatzeko eta kantak konpartitzeko erabiltzen dute) eta bigarrenak arrakasta handia izan bazuen ere hasiera batean orain erresiduala da erabileraz.
- 2004an *Flickr* eta *Facebook* sortu ziren. Lehenak argazkiak igo eta konpartitzeko funtzioa du eta bigarrena berriz mundu mailako fenomeno bihurtu da (eragin kultural nabarmena izan du, pelikulak egin dira berari buruz...).
- 2005. urtean *Yahoo 360* eta *Bebo* sortu ziren.
- 2006. urtean *Tuenti* eta *Twitter*. Lehenak nerabeen artean arrakasta handia du Hego Euskal Herrian eta Espainiar Estatuan eta bigarrenak iraultza bat suposatu du kazetaritzan.

## 5.6. Euskal sare sozial birtualen historia laburra

Sare sozial birtualen olatua ere euskaldunongana iritsi da eta gurean ere nahikoa garaiz egon da alor honi heldu dionik.

1. 2008an helduontzako den *geragaitzen.com* sortu zen Goierriin,
2. Gaztezulok *zulozale.com* sortu 2008an baita, gazteei zuzendua.
3. Goienak *zugaz.com* sortu 2009an Debagoienan, haur-nerabeei begira.
4. 2010an *zutagu.net* sortu da ezagutza partekatzeke hezkuntzaren eremuan eta profesionalen arloan.

## 5.7. Sare sozial birtualen onurak

Sare sozial birtualen inguruan eztabaida eta kalapita sortu da, ezein aurrerakuntza teknologikorekin sortzen den legez. Panazea unibertsal bat ez diren arren, badituzte hainbat onura eta hona hemen horietako garrantzitsuenak Txatxilpurdiren ustez:

- orokorrean eragin positiboa dute, etorkizuneko lan tresnekin trebatzen direlako nerabe eta gazteak modu ludikoan eta harremanen sarea elikatzen dutelako sozializatuz!
- Sare sozial birtualetan aritzeak ondo sentiarazten die. Hor galdera da zeri kentzen dien denbora sare hauetan aritzeak: telebista ikusteari, eskolako lanei, lagunartean egoteari...
- Sare sozial birtualek norbere irudia talde baten baitan kokatu eta hau kudeatzeko beharra sortu dute (gait. sozialak landu, mundu fisikoaz bateragarria da...).
- Eskolako lagun/kideekin sinergia berriak sortzen dira.
- Anonimoa ezagutzera eman dezake, eta ezberdina berdintzen eta marginatua integratzen ahalegindu.

## 5.8. Sare sozial birtualen kalteak

Sare sozial birtualen kalteen artean pribatutasunaren galera jotzen dugu garrantzitsuentzat. Dena den, hona hemen sor litezkeen arrisku garrantzitsunetako batzuk:

### 1. Pribatutasuna:

Bizitza errealean ere gero eta zailagoa da garai hauetan pribatua gordeztea, izan ere, gure gero eta jarduera gehiago geratzen dira erregistraturik (ordenagailuetako IP zenbakiak, kreditu txartelaren mugimenduak...).

Sare sozial hauetan guk geuk igotzen dugu informazioa edo hirugarren batek igo dezake gurekin erlasionaturiko edozer. Gu bagara hirugarren baten informazioen bat igo behar dugunok, komeni da baimena eskatzea honi ezer egin aurretik.

Pribatutasun klausula nahasgarriak dituzte sare sozialen atzean dauden enpresa askok (adib. Facebook sareak) eta komeni da jabetzea kide zaren sareen ezaugarri garrantzitsuenez.



Amaitzeko, pribatutasuna ahalik eta ondoen gordetzeko hona hemen hainbat gomendio: kontuz ibiltzea sarean jartzen diren esaldiekin, pasahitz seguruak erabiltzearen komenientzia, ez ematea ez helbide ez telefono pertsonalik, sare sozial ezberdinetan pasahitz ezberdinak erabiltzea, profilean izen eta bi abizenak ez jartzea...

## 2. Argazki desegokiak igotzea:

Argazki desegokiak igotzea izan liteke sare sozialen beste kalteetako bat, batez ere argazki hauek izan dezaketen hedadura azkar eta handiagatik. Horrez gain, behin edukiak internetera igota, oso zaila da hauek guztiz ezabatzea. Horrenbestez, ez igo denbora batera damua sor dezakeen argazkirik...

Hirugarren baten argazkiak igotzeko, errespetu txarrekoa da honen baimenik gabe igotzea. Txatxilipurdin diogun moduan, herriko plaza nagusian jartzea bezain publikoa da argazkia sare sozial birtualetan eskegitzea.

## 3. Ziberbulling-a:

Bulling-ak azken urteotan sarean ere izan du bere ordaina. Argazkiak lortu ondoren berauekin xantaia egitea, mehatxuak, nortasun ordezteak, intimitateari erasoak... Adingabeen kasuan, gomendioa da horrelako egoeraren bat nozituz gero heldu bati abisua ematea.

## 4. Isolatzea:

Ordenagailuak tartean daudenean, heldu askoren kezka izan ohi da gazteak beraien logelan isolatzea. Honen aurrean, gure ustez osasuntsua da ondorengo galderei erantzuna aurkitzen ahalegintzea: zer da nerabe/gazteek nahi dutena? Sare sozialetan aritzen direnean gaitasun teknologiko eta sozialak lantzen dituzte? Ez al da kezkarriagoa sare sozial birtualetan ez egotea? Zeri kentzen dio denbora sare sozial birtualetan ez egoteak?

Gure ustez gakoa da jarduera hauei neurria hartzea eta kontuan hartzea gazte guztiak ezberdinak direla eta oreka bat ezinbestekoa dela kale eta sarearen artean. Beste era batean esateko, errespetua eta konfiantza izatea gaztearengan!

### **5. Adikzioa edota denbora neurrigabea sareetan nabigatzen:**

Esan beharra dago sare sozialen erabiltzaileek, salbuespenak salbuespen, ez dituztela alboratzen kaleko lagunak (sareetako harremana harreman osagarria baita, ez nagusia). Gure ustez helburua interneteko denbora gazteekin adostea eta neurtzea izan behar da.

### **6. Asmo txarreko ezezagunekin komunikazioa:**

Aspektu honi dagokionean, komeni da gaztetxoenei azpimarratzea kalean bezala jokatu behar dutela sarean. Ezezagunekin harremantzeko orduan arreta eduki behar dela, ez dela komeni interneten ezaguturiko ezezagunekin hitzorduak jartzea, webcama era seguruan erabili behar dela...

### **7. Pishing-a:**

Arreta eduki beharra dago seguruak ez diren orriekin eta asmo txarrez eginiko web orri originalen suplantazioarekin.

## **6. Txatxilipurdiren ikerketa**

Ikerketa hau 2009 eta 2010 urte artean egin zen, Amagoia Aristegi ikerlariaren eskutik. Bertan, Euskal Herriko aditu ezberdinekin elkarrizketak egin ziren (Iban Arantzabal, Maite Goñi, Patxi Gaztelumendi, Iratxe Esnaola...) eta horrez gain inkestak egin zitzaizkien 460 gaztetxori.

### **6.1. Gaztetxoei eginiko inkestak**

Lagina: 460 gaztetxori 11 galderatako galdetegi bat pasa zitzaien idatziz ikastetxeen bidez. Herri txikietan (Antzuola, Elgeta, Aramaio, Ugao), ertainetan (Arrasate, Bergara, Etxebarri eta Arrigorriaga) eta handietan (Bilbo, Basauri, Galdakao).

- 10/12 urtetakoak 187.
- 12/14 urtetakoak 167.
- 16/18 urtetakoak 107.

**Ondorioak:**

- 10/12 urte artekoentzat Messenger programa da nagusi (momentuko elkarrizketak dituztelarik gustuko).
- Tuenti da denentzat arrakastatsuen (12 urtetik gorakoentzat). Anekdotak moduan komeni da aipatzea Espainiar Estatuan sare sozialetan aritzeko adin minimoa 14 urtekoa da.
- Gehienbat komunikatzeko erabiltzen dira sare sozialak: koadrilekin kontaktua izateko, parrandak komentatzeko, lagunek sarean eskegitako azken argazkiak edota iruzkinak ikusteko... Beste erabilpen batzuk: ondo pasatzeko, kuxkuxeatzeko, ligatzeko, denbora pasa gisa...
- Gehien Tuenti sarea erabiltzen da Hego Euskal Herrian, batzuk honekin batera Myspace, Facebook, Fotolog... Debagoienan Zugaz ere erabiltzen da, Goiena Komunikazio Taldeak sortua.
- Sare sozialetan gazteen euskararen erabilera kalean dutenaren antzekoa da: aztertu ditugun herrien datu soziolinguistikoekin aldera liteke erabilera hori.
- Erabilera anitzak baliatzen dituzten, zuku dena ateratzen diete sareei: txateatu, argazkiak igo/ikusi/komentatu, mezuak bidali...
- Gehienbat asteburuetan ibiltzen dira, astean zehar arratseko zortzietatik aurrera (eskolaz kanpoko jarduerak amaitzean). Asteburuan patroirik ez, ohitura aniztasuna dago.
- Denborari dagokionean erantzun ezberdinak jaso ditugu, nahi bestetik 5 minutura. Gehienak 15 -60 minuturen artean eguneko.
- Nerabeek arriskua ezezagunetan ikusten dute, gurasoek aldiz birusetan.
- Panda enpresaren arabera gazteen %62<sup>a</sup> egunero ibili sareetan, 18,5 min delarik batzuetan bestekoa egunero.

**6.2. Adituei elkarrizketak**

Aditu ezberdinei eginiko elkarrizketen laginak edo hausnarketak:

- Aisialdi aktiboa igo egin da, teknologiek in lotua dena. Egunero media 13 minutu eskaintzen dizkiete batz bester hiritarrek ordenagailuei aisan.
- Iratxe Esnaola: Sare sozialak ez ditu gure harremanak ordezkatu, baina denbora gutxiago eskainiko diegu kaleko harremanei. Gure harremanak osatu, komunikatuago gaudenaren sententzia emango duelarik.
- Maite Goñi: sare sozialak direla eta ez dira kaleko lagunak alde batera utziko. Batzuk isolatu, baina beste batzuk sozializatu harreman birtualak hezurramitzean.

### 6.3. Txatxilipurdiren azken ondorioen laburpena

#### ARRISKUAK BAI, BAINA...

Kalean ez dago arriskurik? Umeekin kalera joatea ez da arriskutsua? Nerabeak kalean solte egotea ez da arriskutsua? Gure ustez urteetako esperientziaren poderioz kaleko «arriskuak» kontrolaturik ditugu (kotxe trafikoa, haur eta gazteen joan-etorriak...) baina sarea hain da berria oraindik beldurra sortzen duela. Honek, halere, ez du esan nahi sarea arriskutsua denik behar den arreta edukitzen bada.

Debekua ez da irtenbidea: bizitza soziala egiten ari dira sare sozialetan ere eta gainera ez du ordezkaten eskolako patioa, osagarritu egiten du!

Obligaziorik ez: ez obligatu haur-nerabea bere borondatearen aurka sare sozialetan aritzen ez badu nahi..

Konfiantzako komunikazioa behar da gaztearekin, jarrera intrusiborik gabe hitz egin. Konfiantza ezinbestekoa da, kalean ere ez dakigu zertan ari diren nerabeak uneoro!

Ingo pausoa norbera informatzea. Guk azaldu behar diegu nola erabili, kalean nola jokatu erakusten diegun moduan.

## Bibliografia eta lanean zehar egiten diren aipuak

ARANTZABAL, Iban: Komunikazioan aditu elgetarra eta Goiena taldeko kidea, lanerako oinarri gisa hartu dugu berarekin eginiko elkarrizketa 2009ko udazkenean. Ondorengo hedabidetan aurkitu daiteke bere lana: <http://www.arantzabal.com/> eta [www.sustatu.com](http://www.sustatu.com).

ESNAOLA, Iratxe: Deustuko unibertsitate irakasle zarauztarra, lanerako oinarri gisa hartu dugu berarekin eginiko elkarrizketa 2009ko udazkenean. Bere lanak *Gaur*8 aldizkarian edo [www.guraso.com](http://www.guraso.com) gunean argitaratzen ditu besteak beste. Azken webgune honetan bada bere artikulu interesgarri bat sare sozialen inguruan.

FERNANDEZ, Luistxo: Informatikari eibartarra eta Codesyntax enpresako kidea, lanerako oinarri gisa hartu dugu berarekin eginiko elkarrizketa 2009ko udazkenean. Hainbat hedabidetan kolaboratzen du (bereziki [www.sustatu.com](http://www.sustatu.com) gunean) eta informatikaren eta sare sozial ezberdinen aspektu ugari lantzen ditu.

GOÑI, Maite: Ordiziako *Jakintza* ikastolako eta *Mondragon* Unibertsitateko irakaslea, IKT-en gaia hezkuntzan lantzen aditua. Bere webgunea [www.maitego.com](http://www.maitego.com) da, eta hainbat hedebideetan kolaboratu izan du. Berarekin 2009ko udezkenean eginiko elkarrizketen oinarritu gara.

WATTS, Duncan: Columbia Unibertsitateko irakaslea, 2003an argitaratu zuen «Six Degrees: The Science of a Connected Age» obra. Informazio gehiagorako gaztelaniaz dagoen [http://es.wikipedia.org/wiki/Duncan\\_J.\\_Watts](http://es.wikipedia.org/wiki/Duncan_J._Watts) artikulua.

# Mahai-ingurua

Honako hauek izan ziren mahai-inguruan parte hartu zutenak:

ESCANDON, Aritza  
Kultur Kabiaren zuzendaria

ALTUNA, Jaime  
Urtxintxa Aisialdi Eskolako partaidea

GARMENDIA, Lierni eta OTAMENDI, Irati  
Ordiziako Jakintza Ikastolako Batxiler 1eko ikasleak

JAUREGI, Ander eta LOPEZ, Joseba  
Gasteizko Mendebaldea Institutuko Batxiler 2ko ikasleak

Moderatzailea:

AMONARRIZ, Kike  
Soziolinguista

Partaideei zortzi galdera bidali zitzaizkien alde-z aurretik, presta zitzaten. Horietatik 6 jorratu ziren mahai-inguruan, aurrera begira erabili beharreko estrategien ingurukoa eta sare sozialei buruzkoa alde batera utzi behar izan ziren denbora faltaz.

Hona, mahai-inguruak eman zuena.

**1. Zein da zuen pertzepzioa gazteen arteko euskararen erabilerari buruz? Aurreko belaunaldiak baino gehiago edo gutxiago egiten dute/duzue? Eta hamar urte zaharragoek baino gehiago ala gutxiago?**

**Aritza.** Ni bilbotarra naiz eta Bilbon zentratuko naiz. Nire ustez pertzepzioa da gutxi egiten dela eta ezagupenaren eta erabileraren arteko aldea orain handiagoa dela. Lehen, Bilboko gazte gehienek ama-hizkuntza gaztelania zuten eta euskara eskolan jasotzen zuten. D ereduaren datuak duela 20-25 urte kaskarragoak ziren, baina, denbora honetan, ez da egon horrelako saltorik erabileran (neurketen arabera, %4-5aren inguruan dabil). Bai esango nuke, ordea, neskek mutilek baino gehiago egiten dutela. Gure programetan ere hala ikusten da, bai partaidetzan eta baita joeretan ere.

Bestalde, urte hauetan, eta batez ere aisialdian, fenomeno berriak gertatu dira: Internet, sare sozialak, ohiko eskola orduz kanpoko jarduerak (lehen baino gehiago egiten dira), saltoki handien ugaltzea, etab. Zazpi Kaleetan gaude. Orain dela gutxi lagunak afari batean elkartu ginen «gure garaiak» gogoratzeko. Lehengo lekuetara joan ginen eta gu bakarrik geunden. Zoazte *Iturribide* kalera; lehen beteta zegoen eta orain ez dago inor. Eta hori ez da ez ona eta ez txarra, kontua da egoera aldatu egin dela, beste barik.

**Joseba.** Aritzek esandakoari jarraituz, Gasteizko eta Bilboko egoerak ez dira oso desberdinak. Gasteizen gazteek oso gutxi egiten dute euskaraz, eta euskaraz hitz egiten dugunok –euskal familietakook– ez dugu erraztasunik topatzen euskara erabiltzeko.

Lehen ere, gure gurasoen garaian, Gasteizen ez zen euskara asko egiten. Baina kontutan hartu behar da Gasteiz hiri bat dela eta leku askotako jendea biltzen dela bertan. Hamar urte zaharragoek, aldiz, guk baino askoz ere gehiago egiten dute euskaraz, orokorrean.

**Irati.** Ordizian, prozesu bat gertatzen dela ikusten dugu. Hasiera batean umeez euskaraz egiten dute beti, nahiz familia euskaldunekoek nahiz erdaldunekoek, baina gaztarora heldutakoan erdara geroz eta gehiago entzuten da eta iruditzen zaigu gero eta lehenago hasten direla, 14 urterekin edo. Gero, gure adinean, gazteak bueltatu egiten dira euskararen erabilerrara. Helduen artean, denetatik aurkitzen da.

Gurasoek eta ingurukoek kontatu digutenaren arabera, geroz eta gehiago entzuten da euskara, beren garaiarekin konparatuta behintzat. Baina, ez dakit, nik behintzat nahikoa euskara gutxi entzuten dut gazteen artean.

**Jaime.** Datuek adierazten digute euskara gehiago erabiltzen dela orain, duela 30 urte baino. Pertzepzioen kontua ordea, beste bat da. Gure esperientziaren arabera, gazteen pertzepzioa da gutxi egiten dela. Ez dakit ordea, guk bultzatutakoa ez ote den. Hainbestetan esan diegu gutxi egiten dutela, azkenean, sinistu egin dutela.

Egia da hor prozesu bat gertatzen dela eta erdararen erabilera handitzen joaten dela. Inpresioa dut 12-16 urtetako gazteen artean gaztelaniarekiko joera oso agerikoa bihurtzen dela, eta ondoren, euskarazko erabilera zertxobait berreskuratzen dela. Pasaiaiko adibide bat jarriko dut, bertan gazte askorekin ari baikara lanean, aisialdi programa batean. Lehen ikusi dugu, Gasteiz, Bilbo, Ordizia edo Tolosa oso desberdinak direla. Esango nuke, herri txikiak alde batera utzita, herri gehienetan, kontraste guztiak gertatzen direla. Lehen Mintzolakoek Tolosako hiru ikastetxeetako datuak eman dizkigute eta hor ikusi da herri berean zer nolako desberdintasunak dauden. Pasaia bera ere, oso ingurune anitza da. Donibaneko gazteek eta Trintxerpekoek, soziolinguistikoki, ez daukate zerikusirik. Trintxerpeko gazteek etxean ez dute euskaraz hitz egiten inoiz, kalean ez da apenas entzuten eta, eskolan jaso arren, ez dute beraien artean ia inoiz egiten. Donibanen, Lezon edo Antxon askoz ere gehiago erabiltzen dute, guri gutxi iruditu arren.

Iaz autobus bat antolatuta genuen eskiatzera joateko gazte horiekin guztiekin, eta Trintxerpekoak autobusera igo zirenean, gazte batek honako hau esan zion beste bati: «*Mira! Son raritos*». Itxura zen, baina hizkuntzak dakarren estetikarekin zerikusi handia zuen. Horregatik, pertzepzioak aipatu ditugunez, adierazi nahi nuen pertzepzioak askotan oso engainagarriak direla.



**2. Zuen inguruan, zuen belaunaldiko gazte guztiak gai al dira euskaraz normal egiteko? Eta ulertzeko? Irakaskuntzak behar bezala betetzen al du bere funtzioa? Eta betetzen ez badu zer falta da?**

**Jaime.** Goizean Jone Mirenek zehaztapen bat egin du: ezagutza ez, gaitasuna. Nik uste galderak ere baduela horrekin zerikusia. Euskara etxean ikasi duten gazteek badute gaitasuna baina, zehaztu egin beharko genuke gaitasun horrek zertarako balio duen. Agian, gauza batzuetarako bai eta beste batzuetarako ez. Alde horretatik esango nuke irakaskuntzak, gaitasunari dagokionez, lan ona egin duela hogeita hamar urteotan, gehiago eska daitekeen arren.

**Lierni.** Zuk aipatu duzun bezala, esan daiteke irakaskuntzak bere funtzioa oso ondo bete duela. Gu gabiltzan Jakintza Ikastolan adibidez, irakasleek gurekin beti euskaraz egin dute, euskal giro batean hazi izan gara eta bai euskara batua, eta baita guk hitz egiten dugun ahozko hizkera ere, modu polit batean erakutsi dizkigute. Baina beti ikusi izan dugu gazte batek euskaraz hitz egiteko dituen zailtasunak. Esate baterako, guraso erdaldunak baldin baditu, berarentzat ez da horren erraza izango euskaraz komunikatzea. Izan ere, Ikastolan gehienbat euskara batua erabiltzen bada eta gero etxean erdara jasotzen badu, guk kalean euskara batua erabiltzen ez dugunez, orduan gazte horrek sentituko du euskarak ez diola balio eta motibazioa ere txikitzen joango zaio.

Laburtuz, irakaskuntzak bere funtzioa ondo betetzen duela iruditzen zaigu, baina gazteen euskara-mailan eta erabilpenean familiak ere zeresan handia du.

**Ander.** Guk uste dugu D ereduan ikasten duten ikasle gehienek badutela maila nahikoa ikasketak euskaraz burutzeko, baina beraiek esan duten bezala, Ikastolan ez da ahozko euskara lantzen. Hori gehiago nabaritzen da Gasteizen, familia gehienak ez baitira euskaldunak eta ikasle askok ez baitute euskara erabiltzen, ez kalean eta ez etxean. Ahozko erabilera gehiago landu beharko litzateke. Hauxe da irakaskuntzak duen hutsuneetako bat, euskararen irakaskuntza ikasketara bideratuta dagoelako, eta ez kalean euskara erabiltzera.

Beste arazo bat da, erabileraren sustapena lantzen dela, baina ez oso modu eraginkorrean. Euskararen normalkuntza gehiago landu daiteke. Irakasleak saiatzan dira baina agian beste era batera landu beharko litzateke.

**Aritza.** Orain urte gutxi kaleratu den ikerketa batean esaten zen D eredutik ateratzen den %78 edo 80a, euskaraz egiteko kapaza dela baina 12-13 urteko ibilbide hori amaituta, %20k ez duela orokorrean gaitasun nahikorik euskaraz aritzeko. Eredu akademikoan aritzeko, ikasketei loturiko gai edo ariketa bat azaltzeko bai, baina esango nuke hortik ateraz gero, gaitasuna asko jaisten dela, beti ere, eremu erdalduneko ikasleen ikuspegitik. Arrazoiak? Agian lar eskatu diogu irakaskuntzari urte hauetan, hau da, ikasleei eduki edo ezagutza batzuk transmititzea eta garatzea eta hizkuntza bat irakastea. Orain ikusten da irakaskuntzak ahal izan duena egin duela, baina D ereduaren ikasi arren asko ez direla kapaz euskaraz egiteko.

**3. Zein eremu edo erabilera-esparrutan da ohikoena euskaraz egitea eta non egin ohi da gehiago gaztelaniaz? Familia, lagunak, irakasleak, ikaskideak, eskolorduz kanpoko jarduerak, parranda...**

**Aritza.** Esango nuke familia hizkuntza euskara dutenek etxean egiten dutela. Gero, asko esan nahi du non ikasi duten eta ikastetxearen politika zein den. Esan nahi dut, futbitoan, saskibaloian edo eskolorduz kanpoko beste jardueretan dauden irizpideen arabera entrenatzaileak euskaraz egiten badu, beraiek ere euskaraz egingo dutela. Lagunen artean? Dentsitatearen arabera. Esango nuke patioan egiten dutena, gero erreproduzitu egiten dutela kalean. Bilbon, patioan erdara da nagusi eta beraz, kalean ere erdara da nagusi. Eta hau lotuko dut aisialdiaren beste esparru berri batekin, eta lehen Enekok bere lehen diapositiban jarri duen bezala «Sarean kalean bezala». Hemen ere, salbuespenak salbuespen, egoera erreproduzitu egiten delako.

**Joseba.** Aisialdiaren eta parranden kasuan, erabilera, lekuaren araberrakoa izaten da. Gasteizen, parranda Alde Zaharrean egiten dutenek, gehienbat euskaraz hitz egiten dute eta gero beste leku batera joaten direnean, adibidez diskoteka batera, gazteleraz hitz egiten dute.

Familia euskaldunetan, ohikoena euskaraz egitea da. Ikastolan, txikiak garenan gehienetan euskaraz egiten dugu baina DBHra pasatzean eta beste

eskola batzuetakoekin elkartzerakoan, euskararen erabilpena jaitsi egiten da pixka bat. Irakasleekin beti euskaraz hitz egiten da. Eskolaz kanpoko arloetan gero eta gehiago erabiltzen da, baina hala ere euskara bultzatu egin behar da.

**Irati.** Ordizian ere antzera, baina herri txikiagoa denez, gauzak hobeto ikusten dira. Iruditzen zait azpimarratzekoa dela, Ordizia, Lazkao eta Beasain guretzat Goierriko zentroa bihurtu direla eta hori dela erdaraz gehien egiten den eremua, bai lagunen artean, bai parrandan eta baita ikastolan ere. Eta jendea, Zaldibia edo Gabiria bezalako herri txikietatik datorrenean nabaritu egiten da, euskara askoz ere gehiago entzuten delako. Gainera, baserri giroko euskara da.

**Jaime.** Orokorrean, Euskal Herri mailan, euskarak duen erabilera-esparru nagusia, eta toki askotan bakarra, eskola da. Eskolatik kanpo? Bada, Asteasu, Errezil edo Villabona bezalako herrietan esparru gehiago hartuko dira. Zenbait herrietan (ez oso herri handietan) erabilera-esparru guztietan euskara da nagusi. Besteetan aldiz (eta hemen bai sartzen direla Euskal Herriko hiri handienak) eskola girotik kanpo nekez entzuten da euskara. Irunen entzundako esaldia datorkit burura «Jo tío, tú hablas euskera hasta en la calle!». Eta biak D eredukoak ziren, Ikastolan ikasitakoak txiki-txiki-tatik eta eskolako lan guztiak euskaraz egiteko gaitasun arazorik gabekoak. Baina besteari egoera informal batean euskaraz egiten entzun zionean, harritu! Berarentzat euskara eskolakoa baita, ez kalekoa. Eta hori nahikoa zabaldua dagoen errealitate bat da.

Lehen Garazik ongi azaldu du egoera hori bere hitzaldian, gainera zirkulu bihurtuta. Berak Irunberrin ikasi du euskaraz, eskolan. Hortik kanpo ez zegoen euskararik. Orain berriz, unibertsitatean (Nafarroan) euskaraz ikas-teko duen aukera bakarra irakasle izateko ikasketak egitea da. Irakasle izan zertarako? Berriz eskolan euskara irakasteko!

#### 4. Euskaraz hitz egiteko gai direnen artean, zergatik darabilte batzuk eta ez beste batzuk?

**Jaime.** Lehenengo puntua da zehaztea euskaldunak zein neurriraino garen gai euskaraz aritzeko esparru guztietan. Gaitasunari buruz ari garenean hori zehaztu egin behar da. Egia da, esate baterako, Araba, Bizkaia eta Gi-

puzkoan gazte gehiagok egiten duela selektibitatea euskaraz erdaraz baino, eta hau oso datu interesgarria da, oso azterketa garrantzitsua delako. Asko dute jokoan eta hala ere gazte gehiagok aukeratzen du azterketa euskaraz egitea erdaraz egitea baino. Baina horrek ez du esan nahi gero gaitasuna dagoenik kalean egiteko.

Asierrek goizean oso ondo azaldu du erabileran faktore asko sartzen dela; hamaika aipatu ditu eta denak bermatu beharko lirateke: pertsona eta talde erreferenteak, testuinguru politiko eta legala, hizkuntzarekiko eta egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa, hizkuntza gaitasuna... Nik ez dut ikusten aipa daitekeen arrazoi bakarra dagoenik, behintzat ez zait iruditzen jarrera edo portaera kontua bakarrik denik.

**Lierni.** Guk galdera honi buelta dezente eman genizkion eta «*ohitura*» hitza azpimarratzera heldu ginen. Gure inguruan ikusten duguna da, euskara eta erdara tartekatzen ari diren bi pertsona baldin badaude, alegia, bietako bat euskaraz eta bestea erdaraz, azkenean bietako batek amore eman behar izaten du eta normalean euskaraz hitz egiten ari denak erdarara jotzen du, errazagoa zaiolako. Eta pertsona horrekin erdaraz hitz egiteko ohitura hartzen baduzu, berarekin beti erdaraz egingo duzu.

**Ander.** Esan duten moduan ohitura oso kontu garrantzitsua da. Gasteizen euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dago eta nahikoa zaila da euskaraz hastea. Eduki ahal duzu lagun bat zeinekin hitz egiten duzun beti euskaraz, baina ohitura hori lagun talde osora zabaltzea edo zuk ezagutzen dituzun pertsona guztiakin euskaraz egitea oso zaila da Gasteizko giroak traba asko jartzen dituelako euskararen erabileran. Nahikoa gogor jokatu behar duzu egun guztian euskaraz egin nahi baduzu eta ingurukoek euskaraz egitea lortu nahi baduzu.

**Aritza.** Ohitura aipatu da hemen, baina ohitura sortzeko lehen aldi bat behar da. Esate baterako, etxera goaz, igogailura sartu gara eta gurekin batera lehen aldiz ikusten dugun auzokidea... Hor euskaraz ala gaztelaniaz egiteak geroko harremana markatuko du.

Gauza bera gazteen kasuan. Lehen berba euskaraz izan dadin, guneak, nahiak eta motibazioak egon behar dira. Hori izan daiteke faktoreetako bat.

Beste bat izan daiteke zeren gainean egiten dugun berba: sare sozialak, interneta... Gu gazte ginenean, ETB1, ETB2, TVE1 eta 2 Antena 3 eta Tele5 zeudela uste dut. Hori biderkatu egin da, gehi aisialdi eredu berriak, gehi sare sozialak. Kanpoko eragina oso handia da eta horrek erdararako bidea errazten ditu. Jasotzen duzuna gaztelaniaz jasotzen baduzu, nahiz eta gaitasuna eduki, gaztelania tartekatzen hasiko zara eta entzundakoa hitzez hitz erreproduzitzen eta azkenean, seguru aski, erdarara pasako zara.

Honekin lotutako adibide bat jarriko dut. Hemen Bilbon beti esan da «litroak egin / hacer litros», eta halako batean, telebistatik modan jarri zen Sevillan jasotako «botelloia» eta belaunaldi oso batek aldatu egin zuen aurreko berba eta amaitu zuen «botelloia» esaten. Honekin esan nahi dut, kanpoko hedabideek, erdararen kasuan, horrelako indarra badute, zer ez den gertatuko erreferenteak sortu edo baztertzeari dagokionez, tartean, hizkuntza nagusi bat eta hizkuntza minorizatu bat dauden kasuetan.

##### 5. Euskaraz egiterakoan eroso sentitzen zarete edo adierazi nahi duzuen behar bezala komunikatzeko erdarara jo beharra sentitzen duzue?

**Aritza.** Ni neu eroso sentitzen naiz, baina jaso dudan heziketarengatik eta, eremu jakin batzuetan erdaraz erosoago sentitzen naiz. Eta gure programetan dabilzan gazteak ere, batzuetan eroso sentitzen dira, baina baita deseroso ere. Horregatik, gaitasun erlatibora itzuliko gara. Ariketa aritmetiko bat egiteko gaitasuna edukiko dute baina barre egiteko, gozatzeko edo bat-batean txiste bat kontatzeko ez dute baliabide nahikorik eta erosoago sentitzen dira gaztelaniaz euskaraz baino. Eta ulertzekoa da.

**Ander.** Gu eroso sentitzen gara, badugu gaitasuna, baina beste pertsonekin euskaraz hitz egiteko ohitura baldin badaukagu. Hori da lehen puntua. Eta gero esan behar dugu Gasteizen faltan botatzen dugula euskalki bat (*entzuleen artean adostasunezko marmarra*). Hori horrela da.

**Moderatzailea.** Sortu egin beharko duzue orduan.

**Ander.** Bai, sortuko dugu! (*entzuleen artean txaloak*). Euskara batua, euskalkien aldean ez dago kaleko erabilerara horren bideratua eta hor hutsune bat sentitzen dugu.

**Lierni.** Biak familia euskaldunetan jaiok gara eta betidanik hitz egin dugu euskaraz. Ondorioz, ez dugu arazorik euskaraz aritzeko, eta deserosoago sentitzen gara erdaraz mintzatzerakoan edo euskara batuan hitz egiterakoan, ez delako guk normalean hitz egiten dugun euskara.

Horrez gain, administrazioaren aldetik jarrera nahiko ezkorra ikusten dugu. Azken batean, zu dendara batera zoaz eta ikusten duzu «*Hemen euskaraz hitz egiten da*» dioen kartel bat. Orduan, «*Kaixo!*» esan eta «*Me puedes hablar en castellano, por favor?*» erantzuten badizute... Bada, hori, azken batean, ekidin daitekeen jarrera bat da, ezta?

**Jaime.** Orokorrean, nik uste, ez Gasteizen bakarrik, Euskal Herri osoan falta dela gazteen hizkera ez formal hori garatzea. Nire lanean ikusi dut, zonalde soziolinguistiko euskaldunetan ere gazteek zailtasunak dituztela hizketa hori garatzeko. Gazteak ez garenon erakundeetatik lagundu daiteke horretan, baldintzak jartzen sor dadin.

Esate baterako, Deban, bazegoen neska hiztun horietako bat, baina hizkuntza ez formal horretan beti gaztelaniaz. Egun batean bere atzean dagoen mutilak esan dio «*Hitz egin euskaraz!*» eta berak «*Yo hablo en euskera si me da la gana!*». Eta mutilak... «*Sí, si me da la gana... ezin duzu eta euskaraz hitz egin*». «*Nola ezetz? Nik nahi badut euskaraz hitz egiten dut!*». Eta orduan, mutilak erronka bota dio: «*Ezetz hamar minutu egin euskaraz hitz egiten!*». Eta ez zen kapaz izan. Bost minutu iraun zuen, baina ez zen bera. Berak badaki euskaraz hitz egiten, azterketak gaudituko ditu, selektibitatea euskaraz egingo du, baina egoera ez formal adierazkor horretan, ez zen kapaza. Nik uste, fenomeno hau oso zabaldua dagoela.

**Moderatzailea.** Nolanahi ere, kontrako egoerak ere gertatzen dira. Due-la gutxi Tolosako bi gazteri entzun nien esaten «*Aizu, hori oso azpimarratuta doa, ezta?*»... Alegia, sudurretik sartuta zihola...

**Jaime.** Bai, nik ere, gela berean oso hitz politikak jaso ditut. Gaztelaniaz ere erabiltzen dira, baina modu berezi onetan esanda: «*Jo, tío ez motibau!*» edo «*Hauek beti poiuetan sartuta dabiltza!*».

Esan nahi dut gela berean bi mutur horiek daudela.

**6. Nola ikusten duzue euskarazko kultur produktuen kontsumoa? Liburuak, diskoak, telebista, zinema... Zeintzuk dira ondoen dabiltzan esparruak eta zeintzuk kontsumitzen dituzte? Zergatik baztertzen dira euskarazko produktuak, baztertzen badira?**

**Jaime.** Ez dut uste gazteek euskarazko produktuak baztertzen dituztenik. Ez behintzat euskaraz egoteagatik. Jone Mirenek esan duen bezala, gazteak euskaraz emozionatzeko gai dira. Bertsolari txapelketaren finalera gazte pilo bat joaten da. Baina, euskarazko kultur eskaintza oso txikia da. Fermin Muguruzak elkarrizketa batean esandakoa aipatu nahiko nuke: «*Hemengo hip-hopa euskaraz garatzen ez den bitartean, gazteek gaztelaniaz hitz egiten jarraituko dute, nahiz eta euskaldunak izan*». Exajeratu samarra izan daiteke? Beno, ni nahikoa ados nago.

**Irati.** Lehendabizi telebistaz hitz egingo dugu, hau baita, gure ustez, gaur egungo gazteok Internetarekin batera gehien kontsumitzen duguna. Gure inguruko gazte gehienei, jendearen txutxu-mutxuak eta bizimoduak kontatzen dituzten programak gustatzen zaizkie (Tele5ren programazio osoa ikusten dute askok) eta hori Euskal Telebistan eskaintzen ez denez, ez da ikusten. Honekin ez dugu esan nahi euskal kulturak horren beharrik duenik, baina hori da gustatzen dena.

Musikari buruz, esan beharra dago talde asko daudela euskal musika egiten dutenak, eta gainera, gazteen artean musika hori ere entzun egiten dela, nahiz eta beste hizkuntzetan gehiago entzun. Aipagarria da gure inguruan sortu berri den talde askok ere euskaraz abesten duela, horrek erakusten baitu gazteok musika euskaraz entzuteaz gain, sortu ere egiten dugula.

**Lierni.** Euskal literatura hazten ari bada ere, gazteok liburuak behartuta irakurri ohi ditugu, normalean Ikastolak bultzatuta. Aldizkariak gehiago gustatzen dira. Gainera, erdaraz aukera handiagoa dago eta askotan jotzen dugu beste hizkuntza batean irakurtzera, idazle konkretu bat gustatzen zai-gulako edo hizkuntza hori landu nahi dugulako, ingelera, kasu, nahiz eta nik euskal literatura nahiago dudana.

Zinemarekin amaituz, euskarazko pelikula gutxi dago eta zinemara oso gazte gutxi joaten da. Jendea, film amerikarretara ohitu da eta euskal zine-

ma industriak gazteari hori eskaintzen ez dionez, gazteari orokorrean ez zaio interesatzen. Esate baterako, «Goazen» pelikula. Ikusten da zer nolako arrakasta izan zuen, baina azken batean, film amerikarren estilokoa zelako izan zuen arrakasta.

**Joseba.** Telebistan ETB1 eta ETB3 dira euskaraz dauden kate garrantzitsuenak. ETB1 batez ere guraso eta helduentzako da eta ETB3 haurrentzat. Honekin esan nahi dut nerabeentzako programak falta direla. Zineman ere ez dugu nerabeentzako pelikularik. Oso mugatua da zinema.

Euskarazko musika da gehien kontsumitzen den produktua. Bestetik, esan behar dut gazteok gutxi irakurtzen dugula eta liburu gehienak gaztelaniaz irakurtzen ditugula. Esate baterako, nahiz eta «Harry Potter» itzulita egon, erdaraz irakurtzen da.

**Aritza.** Kontsumo masiboko produktuak falta zaizkigu. Batzuk badauzkagu, baina esango nuke hau indartu beharreko ildo delako eta hartzaileen gogoak eta gustuak kontuan hartu behar ditugula. Badakit, kontsumo hitzak halako konnotazioak dituela, baina niretzat kontsumo masiboko produktuak dira Pirritx eta Porrotx, Bertsolari Txapelketak lortutako arrakasta, Goazen pelikula, Berri Txarrak taldea, Gaztezulo aldizkaria... Mota honetako produktu gehiago behar dugu: zabalak eta anitzak.

Orain dela gutxi, Gaztea irriatiak lehen aldiz 40 Principales-ek baino audientzia handiagoa lortu du. Bada, ni poztu egiten naiz. Eta ematen du hau esatea bekatua dela, zeren orain antza, musika jartzeko irizpideak aldatu egin dituzte eta orain beste musika mota bat jartzen dute, lehen 40 Principales-ek jartzen zuena. Baina ni poztu egiten naiz Gazteak 92.000 entzuleko langa gainditu duelako eta 40 Principales-en aurretik jarri delako. Gero sartuko gara jartzen duen musika motarekin, etab.

Bestalde, badira apur bat erlatibizatu behar diren arlo batzuk. Beti literaturara joaten gara eta esaten dugu ez dela irakurtzen, baina nik uste dut gaur egun inoiz baino gehiago irakurtzen dela. Agian literatura ez, baina metroan zoazela kartelak, mugikorreko mezuak, sare sozialak... Gaur egun, inoiz baino gehiago irakurtzen da.



Eta literatura aipatu dugunez, Durangoko Azoka da behar dugun beste fenomeno bat. Egin dezagun kontu –nahiz eta hemen gai honetan ni baino dezente adituagoak direnak egon– euskarazko liburu baten lehen botaldia 1000-1500 alekoa izan ohi dela –Atxaga edo Sarrionandia ez bazara behintzat–. Bada, kontuan hartzen badugu munduan zenbat euskaldun eta zenbat gaztelaniadun dagoen eta hiruko erregela bat egiten badugu, ohartuko gara 1500 ale saltzeak esan nahi duela erdaraz 300.000 ale inguru saltzea; Perez-Revertek eta horrelako idazleek saltzen dutena, alegia.

Horregatik, batzuetan, erlatibizatu egin behar dira gauzak: «*Gutxi saltzen dugu eta....*» Kontxo! Gutxi saltzen dugu, gutxi garelako. Anormala dena da, Atxagak –zorionez– 20.000 ale saltzea.

# Gazteak, aisialdia eta euskara Ondorioak

OSA, Erramun  
Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko idazkaria

Bilbon, 2010eko azaroaren 19a

Garai batean belaunaldirik zaharrenak ziren euskaldunenak, denborarekin, ostera, euskararen indarberritze ahaleginak aurrera egin ahala, euskarak hedadura funtzionala eta geografikoa irabazteaz batera, euskararen hizkuntza-erkidegoa ere gaztetuz joan da, kezka eta erronka berriak planteatuz, bidenabar. Horiek horrela, zeintzuk dira gazteen hizkuntza-joerak? Noiz eta zertarako erabiltzen dute euskara? Zeintzuk dira euskara baliatzeko orduan topatzen dituzten zailtasunak? Euskararekiko dituzten iritziak, kontsumo-ohiturak, eta abar?

Halako zein bestelako galderen inguruan hausnarketa burutu da Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak antolatutako «Gazteak, asialdia eta euskara» izenburupeko XV. Jagon jardunaldietan. Horretarako, ohiko ikerlari eta hitzaldi-emaileen aldamenean lurralde eta eremu desberdinetan ari diren gazteak Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzara ekarri nahi izan dira.

Jone Miren Hernandez EHU-UPVko irakasleak eta antropologoak «Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur» izeneko hitzaldian gazteen ezaugarriez, ohiturez, joerez eta pentsamoldez jardun du. Horiek horrela, euskarari buruz jarduterakoan, Txepetx soziolinguista ezagunak erabilitako ezagutza, erabilera, motibazioa kontzeptuak hausnarketa-gai izan ditu; gaitasunetan erreparatzea proposatu du ezagutzetan bainoago; praktikari buruz hitz egitea eskatu du erabileraz bainoago; eta emozioez jardutea iradoki du motibazioaz harago.

Asier Basurtok, Soziolinguistika Klusterrekoak, «Gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen azterketa» ikerketaren berri eman du. Ikerketa hau Soziolinguistika Klusterra, Urtxintxa eta Topagunea elkarteen lankidetzaren emaitza izan da, gazteei eta beraiekin lanean dihardutenei hizkuntza-erabileraren fenomenoaren alderdi guztiak begien aurrean ipintzea eta horietan esku hartu ahal izateko oinarri bat eskaintzea izanik helburuen artean helburu. Ikerketa honetan hamaika faktore identifikatu dira gazteen hizkuntza-erabileran eragiten dutenak. Faktoreak hiru multzotan bildu dituzte, maila indibidualarekin, mikrosozialarekin eta makrosozialarekin zer ikusia dutenak.

Jean-Baptiste Coyos eta Erramun Baxok soziolinguistak eta Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko kideek Iparraldean gazteei zuzendutako

aisialdi-eskaintza izan dute aztergai. Horretarako, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren 2009. urteko laguntza deialdia hartu dute oinarritzat. Azterketaren arabera, gazteen aisialdi-ohiturak eta lagundutako jardueren hurrenkera ez dira bateragarriak. Horrezaz gain, lau gomendio eman dituzte; batetik, tokiko herri-aginteei aisialdian esku hartzeko deia egin die, horretarako, hizkuntza teknikariak baliatuz; bestetik, herri-aginteen hizkuntza politikak aisialdia euskalduntzen ahalegintzen diren eragileak laguntzeko are gehiago baliatzeko eskatu dute; hirugarrenik, gazteen artean arrakasta duten aisialdi-eremuak lehentasuntzat hartzea proposatu dute; eta azkenik, euskalgintzaren eta kulturgintzaren lankidetzaren premia azpimarratu dute, bereziki, Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskal Kultur Erakundearen artean.

Iñaki Arruti biologoa eta Lasarte-Oriako Udaleko euskara zerbitzuburu denak «Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruan) nerabeek aisialdian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko» gaia izan du hizpide. 2010. urtean egindako UDALTOP jardunaldietako gogoetak baliatu ditu horretarako. Horiek horrela, Fishman soziolinguista ezagunak bere sasoian egindako gogoetak kontuan hartuz, euskararen indarberritze ahaleginean eskolaren eragin mugatuaz jardun du, eskolaz kanpo jardunaren eta aisialdiaren garrantzia azpimarratuz. Zenbait ildo proposatzeaz gain, Udaletatik euskarazko aisialdiko eskaintza laguntzeaz gain, kiroldegi zein bestelakoetako aisialdi-eskaintza aztertzea eta euskaraz ere eskaintzearen komenigarritasuna azpimarratu du, besteen artean, herri-aginteen hizkuntza-jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzearen komenigarritasuna nabarmenduz.

Arratsaldeko saioaren lehenbiziko aurkezpenean, Josune Zabalak eta Maitane Ayerzak, Mintzola Fundazioko zuzendariak eta teknikariak, hurrenez hurren, «Tolosa: gazteen ahozkoitasunaren laborategi» izenburua izan duen hitzaldia eman dute. Fundazioaren helburuak aurkezteaz gain, lau urteko ikerketa-proiektu horren nondik norakoak aurkeztu dituzte. Ikerketa horretan, errealitate soziolinguistiko desberdinean bizi diren Tolosako ikastetxeetako ikasleak hartu dituzte kontuan. Errealitate soziolinguistiko horrek ikas/irakas prozesuetan nola eragiten duen, ikasleen jarrera eta kompetenziak nolakoak diren eta esku hartzeak aztertuko dituzte. Ikerketak irauten duen denboran, ikerketaren eragingarritasuna areagotzeko ira-

dokizunak-eta jasoko dituzte. Askotariko eragileekin garatu nahi duten ikerketaren amaieran, Tolosako gazteen ahozko jarduna areagotzeko gomendioak, orientabideak eta praktika onak emango dituzte aditzera.

Segidan, Garazi Labiano Nafarroako Unibertsitate Publikoan Irakasle-ikasketak egiten ari den ikasleak «Unibertsitateko ikasleen hizkuntza-jarrerak Nafarroan» izeneko hitzaldia eman du. Jagon jardunaldietarako bere-beregi prestatutako lana izan da aurkeztutakoa. Besteak beste, Nafarroako Unibertsitate Publikoko hainbat eremutan euskarak bizi duen egoerari buruz zenbait datu eta ohar egin ditu. Horrezaz gain, ikerketa egiteko baliatutako metodologia aurkeztu eta ikasleek darabilten euskarari buruz gogoetak egin ditu. Haren hitzetan, euskara baliatzeko aukera urriak ez ezik zailtasunak daude Nafarroako unibertsitate Publikoan. Ikasleek, bestalde, euskara-maila apala izateaz gain, baliatzeko joera handirik ere ez dute erakusten. Beraz, erabiltzeko egiazko aukerak sortzen eta euskara erabilia izateko jarrera eragingarriak lantzen ahalegina egin beharko da aurrerantzean.

Maialen Arnedok, Ane Badiolak eta Leire Gandariasek EHU-UPVko ikasleek, Itziar Idiazabalek eta Leire Diaz de Gereñuk irakasten duten Euskararen Irakaskuntzarako Metodologia (Euskal Filologia, UPV/EHU) ikasgaiaren barruan, 2010eko udaberrian, Zornotzako ikastetxe bateko bigarren batxilergoko D ereduko hamazazpi ikasleko talde batekin egindako azterketaren emaitzak aurkeztu dituzte. Talde honetan debate bat egin zen, eskolan gutxi lantzen den ahozko euskararen genero formal honetan nolako baliabideak agertzen diren aztertzeko. Emaitzen arabera, ikus daiteke gazte hauek badituztela hainbat gaitasun baina gabeziak ere nabariak dira. Horiek horrela, aisialdian euskara gehiago erabiltzeko, eskolak berezkoak dituen ahozko genero formalak gehiago lantzea eraginkorra izango litzatekeela uste dute azterketa egin dutenek, horretarako estrategia zehatzak erabiliz.

Gazteen artean geroz eta ohikoago eta zabaldago dauden «sare sozial birtualak» izan ditu hizpide Eneko Barberena Txatxilipurdi Elkarteko zuzendariak. Sare sozial birtualen jatorria, bilakaera, eskaintzaren nolakoa, euskararen presentzia, zertan eta zertarako baliatzen diren, on-gaitzak, ondo baliatzeko ohar eta gomendioak etab. jorratu ditu. Gazteek sare sozial bir-

tualek eskaintzen dituzten aukera guztiak baliatzen dituzte, beste pertsona batzuekin komunikatzea izanik helburuen artean xede nagusi.

Hitzaldien ondoren Kike Amonarriz soziolinguista ezagunak gidatutako mahai-ingurua egon da. Mahai-inguru honetan; Aritz Escandon (Kultur Kabia); Jaime Altuna (Urtxintxa); Irati Otamendi eta Lierni Garmendia (Ordiziako *Jakintza* Ikastola); Ander Jauregi eta Joseba Lopez, Gasteizko *Mendebaldea* Institutuko ikasleen partaidetza izan du. Gazteek euskara baliatzeko dituzten ohiturak, dituzten zailtasunak (inguruneak, harreman-sareek, eta abar eraginda), euskara-gaitasuna, kontsumo ohiturak, eta abar izan dituzte mintzagai.

Horrenbestez, Jardunaldien ondorioekin eta Euskaltzainburuak esku hartu dutenei eta hurreratu direnei eskerrona agertuz amaiera eman zaie XV. Jagon jardunaldiei.



# Literaturaren historiografia Jardunaldiak





# Sarrera

RETOLAZA, Iratxe

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzorde-idazkaria

2010eko abenduaren 10ean eta 11n, Hondarribiko Udaletxean, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak Literaturaren Historiografia I. Jardunaldiak antolatu zituen. Jardunaldi horien helburua, beraz, Euskal Literaturaren Historia egiteko erabili diren moldeez gogoeta egitea izan zen, eta halaber, Euskal Literaturaren Historia egiteko erabil litezkeen molde berriak proposatzea.

Jardunaldi horiek antolatzeko asmoa eta beharra beste proiektu batek abiatu zuen: Euskal Literaturaren Antologia proiektuak, hain zuzen ere. Egun, Literatura Ikerketa batzordeak Euskal Literaturaren Antologia proiektua du abian, eta taldean eginiko antologia hori atontzen ari ginela, ugariak izan dira euskal literaturaren historiaren inguruko kezka eta galderak. Horregatik, kezka eta galdera historiografiko horien harira sorturiko eztabaidak eta iritzi-trukeak garatzeko asmoz antolatu ziren jardunaldi horiek.

Jesus Mari Lasagabasterrek aspaldi ohartarazi bezala, euskal literaturaren inguruko ikerketetan Historiografiari dagokion esparrua oso gutxi aztertu eta ikertu da, eta oso ikerle gutxik jarri dute arreta ikerketa-esparru horretan. Hala izanik, jardunaldi horiek ikerketa-lerro horren inguruko hausnarketak abiatzea izan zuten asmo, eta lehen jardunaldi hauek euskal literaturaren garapen historikoa kontatzeko egon litezkeen arazoak identifikatzea izan zuten helburu.

Horretarako, parte-hartzaileek hainbat txosten aurkeztu zituzten, eta ondok, eztabaidarako tarte luzea zabaldu zen. Solasaldi eta eztabaida horietan jorratu ziren oraindik ere bizi-bizi diren kezka historiografikoak: nola egituratu euskal literaturaren historia? Euskal literaturaren historia batek nola egin behar dio aurre egoera diglosikoaren kontaktari? Zein irizpideren arabera hautatu historiaren katean kokatuko den corpus literarioa?

Argitalpen honetara, jardunaldi haietan jorratu ziren ikerketa-gai eta eztabaidagaiak bildu ditugu. Lehenik, Jesus Mari Lasagabasterren sarrerak jaso ditugu, jardunaldiari hasiera eman ziotenak. Bigarrenik, Literaturaren Historiografia I. Jardunaldietan aurkezturiko txostenak dituzue. Hirugarrenik, eztabaida-saioen laburpenak ere ekarri ditugu argitalpen honetara, eztabaida horietan eginiko ekarpenak ere hedatzeko asmoz.

Jardunaldi haietan proposatu ziren eztabaidagaiak bide zenbait hartu zituzten.

Lehenik, euskal literaturaren historia egiterakoan erabili diren edota erabil litezkeen irizpide eta metodologiengatik inguruan jardun duten bi txosten jaso dira. Bata, Ana Toledoren «Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpideak», eta bestea, Jon Casenaveren «Eredu historiografiko finkatu berriaz zenbait gogoeta». Bi ekarpen horietan historia literarioaren egitura-tze eta corpus osoari dagozkion galderak eta auziak mahai-gaineratu dira.

Bigarrenik, genero literarioen inguruko hausnarketa egin zuten beste bi txosten jaso dira. Bata, Xabier Etxanizen «Periodizazioa. Generotik mugimendu literariora», eta bestea, Manu Lopez Gaseniren «Genero ez-kanonikoen ekarpena euskal literaturaren historian». Bi ekarpen horietan genero ez-kanoniko edo periferikoek euskal literaturaren historian izan duten lekua eta izan beharko luketen lekuaz gogoeta egin da, genero literarioak historia literarioan duen funtzioaz ere hausnarketak eginez. Lehenak, batik bat Haur eta Gazte Literaturaren ekarpenez jardun du, eta bigarrenak, aldiz, itzulpengintzaren ekarpenez.

Hirugarrenik, aldi historiko konkretu baten inguruko gogoetak garatu dituen proposamena dugu, Josu Bijuescaren «Naissance de l'écrivain? Littérature et mezenasgoa Euskal Herri penintsularrean XVIII. mendean». Izenburuak zehazten duen moduan, aldi historiko jakin batek sortzen dituen auzi historiografikoak aztertu dira proposamen horretan.

Laugarrenik, tematikari lotu zaion ekarpen historiografiko bat ere jaso dugu, Asier Barandiaranen «Istorioen gizatasuna euskal literaturan: adibide bat». Gai zehatz batek eta ikuspegi moralak literaturaren historian duen funtzioaz eta beharko lukeen funtzioaz gogoetak zabaldu dira proposamen horretan.

Azkenik, euskal literaturaren historian herri-literaturako ekarpenak jasotzeko bidez eta aukerez gogoeta egin duten bi proposamen jaso dira. Bata, Patri Urkizuren «Bertso paperen eta baladen sailkapenez gogoeta», eta bestea, Iratxe Retolazaren «Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idaizleak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta».

Txosten horiek galdera eta norabide berriak proposatzea izan dute helburu, eta ez erantzunak ematea. Eginkizun dugu hurrengo jardunaldietarako, oraingo honetan mahai-gaineratu diren hainbat galderari edota kezkarari aterabide zehatza emango dioten ekarpen historiografikoak garatzea.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu Literaturaren Historiografia I. Jardunaldi haietan parte hartu zuten literatura aditu guztiei, jardunaldi horietan eztabaida dinamika posible egin zutelako. Mila esker, beraz, eztabaidara hurbildu zirenei: Ibai Atutxa, Asier Barandiaran, Josu Bijuesca, Ibon Egaña, Xabier Etxaniz, Manu López Gaseni. Eskerrik asko Literatura Ikerketa batzordeko kideei ere, eztabaida-saioetan eginiko ekarpenengatik: Iñaki Aldekoa, Gorka Aulestia, Jean Haritschelhar, Jean Casenave, Sebastian Gartzia Trujillo, Jon Kortazar, Ana Toledo, Mari Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi, Karlos Otegi, Txomin Peillen. Literatura aditu horiek guztiek parte hartu zuten eztabaida-saioetan, eta haien ekarpenei esker bildu ditugu argitalpen honetako hausnarketak eta eztabaidagaiak, eta halaber, haien ekarpenei esker ere garatu eta hobetu ahal izan dira jardunaldiko txostenen behin betiko testu hauek.

# Euskal literaturaren historia eta historiografia

LASAGABASTER, Jesus Maria  
Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Bereizketa bat ezarriko dut gogoeta labur hauen abiapuntu gisa. Hau behar bezain zehatza ez bada ere teoria literario hutsean, metodologikoki erabilgarri agertu dakidake ondoren azalduko ditudan ideia nagusiak garatzeko. Literaturaren historiaren eta historiografia literarioaren arteko ezberdintasuna zehazten hasiko naiz. Terminologia aristotelikoari helduz, bai historiak zein historiografiak xede material bera dutela esan genezake, hau da, literatura. Xede formala, ordea, ezberdina da, nire ustez. Literaturaren historia testuak banaka aztertzeaz arduratzen da ikuspuntu diakroniko batetik, hau da, horien hurrenkera eta garapena historian zehar du aztergai. Historiografia literarioaren xede formala, ordea, ez da banakako testuen azterketa, baizik eta testu sistemena, ikasketa literarioen oinarritzko edozein ikuspegitik landuta: testu horien teoria, historia, kritika edo interpretazioa. Aski jakina denez, historia zientzia moduan ulertuta XIX. mendean hasten da, erromantizismoaren testuinguru historiko eta kulturallean. Mugimendu erromantikoa da historiaren kontzeptua bera hedatzen duena, eta horren barruan, zehazki, literaturaren historiaren kontzeptua. Edo hobe esanda, literaturaren historian ezberdinak, herri bakoitzak bere hizkuntza du eta hizkuntza bakoitza bere literaturaren bitartez adierazi egiten da. Literatura, hizkuntza, herri baten adierazpide den heinean, literatura nazionala da. Literaturaren historia testuinguru horretan sorturik garaiko ezaugarri filosofiko eta kulturalen zordun dira, positibismo historikoa XIX. mendeko pentsamoldean hain eragin erabakigarria duena. Horrek alor praktikoan literaturaren historiak autore- eta lan-katalogo batean bilakatzea eragiten du. Dena den, literaturaren historiaren bilakaeran joera berriak agertzen dira nagusi den positibismoa erlatibizatu eta xede berriak proposatzen dituztenak, ordura arte literaturaren historiaren bereizgarri izandako erreduktzionismo positibista gaindituz. XIX. mende amaieratik historia literarioa historia orokorraren testuinguruan jartzeak duen garrantzia azpimarratu behar litzateke, literaturan bere hastapenetatik pairatutako bere solipsismo moduko horretatik atera duena. Testuinguru horretan sortzen dira literaturaren historia sozialak, literatura eta artearen interpretazio marxistaren eragin esplizituagoa edo inplizituagoa dutenak. Ikuspuntu horretatik eboluzio literarioa ez da literaturatik bertatik azaltzen, azalpen inmanente edo formalista, baizik eta eboluzioaren arau orokor eta garapen historiko orokorretatik. Korrante honen azalpen ortodoxoena erreflexuaren teoria deritzoguna da.

Literaturaren eboluzioa historiaren eboluzioaren erreflexua besterik ez da eta bere arauen menpe dago. Azkenean, literaturaren eboluzioa eta literatura bera superestruktura bat gehiago dira soilik, azken finean klase borrokaren dialektikaren menpe dagoena.

Noski, horren azalpen ortodoxo edo heterodoxoa ikuspuntuaren arabera egun interpretazio marxistaz kanpo geratzen da, eta bere eragina soilik historia literarioa gizartean eta honen barnean gertatzen diren egoera, materia, sozial, politiko, ekonomiko eta abarren osotasunean testuinguratzeraz muga-tzen da. Ikuspuntu honetatik azaltzen dira literaturaren gizarte-historiaren agerpenak. Ibon Sarasola euskal literaturari honako aurrerapen bat egiten lehena izan zen.

Ia kasu guztietan erredukzionismo metodologikoa aurkitzen dugu edozein gertakari literario azaltzerakoan, kontuan izan gabe lan literarioen autonomia, hau erlatibo izanda ere, zein mediazio deiturikoak gertakari literarioan parte hartzen duten.

Dena den, onartu beharra dago azkeneko urteotan literaturaren testuinguratze sozialak izandako eragina. Gaur egun ezinezkoa da literaturaren garapen eta aldaketak era inmanente batean azaltzea soilik literaturaren barne-arauak kontuan izanik. Literaturaren historia eta garapenean beste aldaketa garrantzitsu bat harrera-teoriari zor diogu, bereziki Constanza eskolari, Jauss eta Iser autoreak bezalako buruzagiei, zeintzuk literaturaren eta hau lideratzen duten arauen ikuspegi ezberdin eta berria proposatzen duten. Literaturaren historia ez da testuen historia, baizik eta hauek irakurleen artean izandako harrerarena. Honela, literaturaren historia harrera literarioaren historia bat da. Modu horretan kotsakratu egiten da eta Jose María Castellet-ek zientzia estatusa ematen dio duela urte anitz finkatutako formulari bere *La hora del lector* liburu famatuan. Testu literarioa testu moduan soilik irakurleak irakurri eta interpretatzen duen heinean existitzen da. Iserren bereizketa famatua da: testu (text) eta lan (work), azkenengo hau testua eta bere irakurketaren konbinazioa izanik.

Horrek guztiak literaturaren historia bere jatorrietan, XIX. mendean, izandako ikuspegi positibista eta enpirikotik oso urrun gaudela esan nahi du. Ikuspegi berri hauek, soziala edo harrerarena, historiografia literario



garaikideak ezin ditu alde batera utzi eta nazio ezberdinetako literatura historia tradizional ezberdinetara hedatu behar du. Hemen interesatzen zaigun euskal literaturaren historiaren ikuspegitik historia zein teoria literarioen arreta merezi duten oinarritzko bi gai daude: kanon literarioari buruz eta periodizazio gai garrantzitsuari buruz ari gara, euskal literaturaren kasuan profil edo aspektu oso interesgarriak eskaintzen dituztenak. Kanona egun modan dugun auzia da literaturaren teoria eta historia inguruko edozein hausnarketatan, batez ere Harold Bloom-ek zabaldu zuenetik eta literatur erreflexio garaikidean hiritar karta eman zionetik. Zein da euskal literaturan kanona, eta zein kriterioren arabera osatuko da euskal literaturaren kanona? Nire ustez ezin dira alde batera utzi euskal literatura deritzogunaren oinarritzko aspektuak. Jakina, hizkuntzak, euskarak kasu honetan, ustezko euskal literaturaren kanonaren eremua eta mugak zehaztuko ditu. Izan ere, euskarak beste edozein hizkuntzatan eman daitezkeen ezberdintasun dialektikoetatik areago, bi lurralde ezberdinetan erabiltzen den hizkuntza da, espainola eta frantsesa, testuinguratze ezberdina eskatzen duena kasu bakoitzean. Honekin, ez dut ezinbestez esan nahi kanon literario ezberdina egon behar duenik iparraldean sorturiko literaturarentzat eta hegoaldean sortutakoarentzat. Baina, edonola ere, euskal literatur kanonak kontuan hartu beharreko egoera da.

Bigarren gai garrantzitsua, gure kasuan, literatura jasoa edo landua eta herrikoiaren arteko ezberdintasuna da, eta horrekin erlazionatuta ahozko zein idatzizko literaturaren arteko ezberdintasuna. Gai hauek euskal literatur kanona baldintzatzen dute eta euskal literaturaren historialariak ezin ditu alde batera utzi. Berebiziko garrantzia ere badu euskal literaturaren historialarientzat periodizazio literarioaren gaiak. Hemen muturreko bi jarra hartzera mugi gaitzke: lehendabizikoa, euskal literaturari mendebaldeko literaturaren historian indarrean dauden garai edo etapak aplikatzea izango litzateke (Erdi Aro, Errenazimentu, barroko, erromantizismo, errealismo eta naturalismo, abangoardiak eta abar). Ez dugu ahaztu behar mugimendu literarioak historia orokorraren testuinguruan kokatzen direla, bertako egoera ezberdinak –politikoak, sozialak, ekonomikoak eta abar– berebiziko garrantzia dutelarik garai historiko bakoitzean mugatu, zehaztu, eta aurreko eta ondorengoetatik bereizten dutelako. Horrek ez du esan nahi *continuum* his-

toriko moduko zerbait ez dagoenik, alderantziz, *continuum* historiko eta kultural bat dago garai ezberdinetan mantentzen dena, substratu moduan funtzionatzen duena, zeinaren gainean garai ezberdin eta ondoz ondokoak beraien ezberdintasunak erortzen dituzten. Horrek euskal literaturaren historian periodizazio arrunt bat ondorengo bi poloren artean mugitu behar dela esan nahi du: bata, gehiegizko mimetismoa beste literatura batzuetan modelo baliagarri eta efikazak gure literaturari aplikatzea izango litzatekeena; eta bestea, gure literatura horren berezia eta ezberdina dela kontsideratzea ez lukeela inolaz ere gure literatur kanonaren kanpo beste sistema literarioekin alderatzea onartuko pentsatzea. Hausnarketa nahasi hauetatik ondorio orokor bat ondorioztatzen ausartuko nintzateke. Euskal literaturaren historia eta historiografia ez dira uharte bat ikasketa literarioen itsaso zabalean, espezifikotasun edo berezitasuna ez da inkomunikazio edo bereizketa muga gaindiezina, baizik eta ikuspegi orokor eta ireki batera eramaten gaituen zubi bat, non geuk ere zer esana daukagun literatura unibertsalaren kontzeptu orokorrean. Ziur nago, jardunaldi hauek aukera berri bat emango digutela euskal literaturak oraindik ere mahai-gaineratzen dituen itaunetan sakontzeko.



# Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpideak

TOLEDO LEZETA, Ana

Euskaltzain osoa eta Literatura Ikerketako batzordekidea

Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskal literaturaren historia euskal hiztun-komunitateak literatura moduan jaso dituen berbaldiekin osatzea proposatzen da. Gisa honetan, egileak baliatutako hizkuntzak eta haren sorkariarekin hartzaileak ezarritako harremanak erabakiko lukete historiaren osagai bihurtzeko irizpide nagusia. Beraz, hizkuntzak eratutako komunitatea nazioak eratutakoari lehenesten zaio eta berbaldia hartzeko modua, berbaldia igortzeko erabili den euskarriari eta berbaldiaren izaerari.

**Hitz-gakoak:** hiztun-komunitatea, botere politikoa, literatur sistema, berbaldi literarioa, bizitza literarioa, pragmatika.

Se propone una historia de la literatura vasca conformada por discursos recibidos como literarios por la comunidad lingüística vasca, de manera que la lengua utilizada por el autor y el modo de relacionarse con dicho discurso del receptor determinarían el criterio de selección. En consecuencia, se antepone la comunidad lingüística a la comunidad nacional y el modo de recepción del discurso al carácter y soporte que presenta.

**Palabras clave:** comunidad lingüística, poder político, sistema literario, discurso literario, vida literaria, pragmática.

Nous proposons ici une histoire de la littérature basque constituée de discours considérés comme littéraires par la communauté linguistique basque, la langue utilisée par l'auteur et la façon dont l'auditeur reçoit ce discours déterminant le critère de sélection. C'est donc la communauté linguistique qui prend le pas sur la communauté nationale, et la façon dont le discours est reçu prend le pas sur le caractère et le support qu'il présente.

**Mots-clés :** communauté linguistique, pouvoir politique, système littéraire, discours littéraire, vie littéraire, pragmatique.

A history of Basque literature made up of discourses received as literature by the Basque speech community is being proposed. The language used by the author and the relationship established by the receiver with his/her creation would thus determine the main criterion for turning it into a component of the history. So, the speech community is put before the national community, and the way of receiving the discourse is put before the medium used for transmitting it and before the nature of it.

**Keywords:** speech community, political power, literature system, literary discourse, literary life, pragmatic.

## 1. Euskal literaturaren sistemaz

Txostenaren izenburuak, lehen ariketa legez, euskal literaturaren sistemaz zer ulertzen den argitzea eskatzen du; izan ere, gerta daiteke ikuspegi desberdinak egotea kontzeptu hori mugatzerakoan.

Literatura nazional batetaz jardutean, literatura kontzeptua errealitate politiko batekin harremanetan jartzen da. Nazioa historia politiko baten subjektu izan ohi da, baita historia artistiko edo literario batena ere.

Euskal Herriak ez du inoiz eratu entitate politiko-juridiko-administratibo bakar bat. Alderdi honetatik inoiz ez da izan historia politiko baten subjektu. Historiak erakusten duena zera da, lurralde horren barrutiren batean noizbait erresumaren bat eratu zela: Nafarroakoa, alegia. Aro Modernoan bertan, murrizketa gogorra jasan zuen, 1515ean Nafarroa Garaia Gaztelako Gortetara makurtu zutenean. Murrizketaren ondoko Nafarroako erresuma txikerrari mende luze bateko iraupena baino ez zitzaion gelditu: 1617an, Frantziako erresumak bereganatu zuen.

Beraz, Aro Modernoaz gero behintzat, historia politiko baten subjektu izan ez den nazio bateko literatura litzateke euskal literatura. Gainera, nazioa eleaniztuna da aspaldidanik, nazioari izena ematen dion hizkuntza ez baita izan bertako bizilagunek erabilitako hizkuntza bakarra: euskara, gaztelania, frantsesa, gaskoia dira hiztunek baliatutako hizkuntzak.

Mundu zabalera pixka bat begiratzea nahiko da mestizaje linguistikoa aski hedaturik dagoenaz ohartzeko: ez dago hizkuntzarik estatu bateko ekoizkin bakarrik denik eta, sarritan, gehienetan ez esateagatik, estatua eta hizkuntza parekatzeak ez du euskarri handirik. Bada estatuen mugez gaindi hitz egiten den hizkuntzarik: estatu desberdinetako bizilagunek hizkuntza partekatzen dute, ez ordea, nazio-identitatea (Latinoameriketako edo Commonwealth-eko nazioak, adibidez). Honelakoetan, hizkuntza bera darabilten literaturek literatura nazional desberdinak osatuko lituzkete. Beste batzuetan, berriz, estatu bateko bizilagunek ez dute partekatzen hizkuntzarik (Canadian, Indian, kasu). Hizkuntzarik partekatzen ez den estatuetan estatua hainbat nazioz, etniaz, tribuz... osatua dago, baina ez da banatzen botere politikoa guztien artean. Aniztasuna (hizkuntzetan, nazioetan, etnietan,

tribuetan... ) onartzea arbuiatuz, subjektu politiko den nazioak besteak asimilatzea bilatzen du.

Halaber, badira estatuak hizkuntza propiorik ez dutenak (Suitza edo Belgika adibidez). Orobat, badira, baita ere, hizkuntza-komunitate batean jaio eta beste hizkuntza batean idatzi duten idazleak: Eugène Ionesco edo Milan Kundera, kasu. Era berean, badira sorkuntzarako hizkuntza bat baino gehiago erabili duten idazleak ere, Samuel Beckett edo Jorge Semprun bezala.

Literatura nazionala kontzeptuak hizkuntza eta nazioa osagaiak ditu oinarri. Halere, mugari politikoak eta linguistikoak ez doaz gehienetan batera. Gainera, bada idazlerik sorleku duen hizkuntza-komunitateko hizkuntza baztertuz, beste hizkuntza bat sor-tresna hautatu duenik.

Anabasa honetan, bada literatura nazionalak aditzera emateko erabiltzen den edo erabili izan den jentilizioa –literatura espainola, frantsesa, italiar...– alboratu eta, literatura Espainiar, literatura Frantziar, literatura Italian... gisako adierazpenez ordezkatzeko proposatu duenik<sup>1</sup>. Agerikoa da, jentilizioa ordezkatzeko estatuko literatura hartzen dela aztergai, estatu horretako komunitate linguistiko ororen literatura, hain juxtu. Azken batez, jentilizioa ezabatzean, hizkuntzaren araberrako sailkapena egitea saihestu eta, subjektu politikoaren araberrakoa hobesten da. Bestela esanda, estatuari darrion batasunaren barnean atzematen dira estatu horretako hizkuntza desberdinetan egindako literaturak. Subjektu politiko berberaren menpe garatutako literaturak elkarrekin harremanetan egotea uste izatekoa da, baina, nire ustez, aztergai horren barrutia jada ez litzateke literatura nazionalarena, baizik eta literatura erkatu edo konparatuarena.

Literatura nazionala kontzeptuaren oinarrian nazioa eta hizkuntza osagaiak dauden une beretik, bistakoa da literaturari buruzko ikuspegia ez dela agortzen honen osagai linguistikoan: gizabanakoaren eta gizateriaren artean dauden entitateak ere gogoan hartzen dira. Hizkuntzaz gain, paisaia, herria,... partekatzeak ekarritako homogenotasuna aintzakotzat hartzen da.

---

<sup>1</sup> LAMBERT, J., 2006, «En busca de los mapas literarios del mundo», in ROMERO LOPEZ, D. (ed.), *Naciones literarias*. Barcelona: Anthropos Editorial, 125.

Joseba Gabilondok gisa honetan aurreratzen du euskal literatura postnazional(aren) definizioa deitzen duena:

Euskaldun edo basko guztiek beren hizkuntza guztietan idatzitako literatura(k)<sup>2</sup>.

Aukerak bat baino gehiago izan daitezke. Bata da literatura nazioaren mugen gaindi eraikitzen den aberritatzat jotzea eta literatura nazionala kontzeptua bera arbuizatzea. Beste bat, «nazioak» emandako batasuna, hizkuntzen desberdintasunak eratutako aniztasunari gainezartzen zaiola uste izatea. Nolabait esateko, «testuingurua» partekatzeak eragindako lotura «testuinguru» horretan sortutako «testu» hizkuntzaz desberdinek eragindako aniztasunari lehenesten zaio.

Zalantzarik gabe, Pio Barojaren *La leyenda de Jaun de Alzatek* (1922) eta honekin batera «Tierra vasca» izendapenak biltzen dituen *La casa de Aizgorrik* (1900) eta *Zalacaín el aventurerok* (1909) edo *Vidas sombrías*eko (1900) «Mari Belcha» kontaketak eta gehiagok badute Euskal Herriko «paisaiarekin» loturarik. Errealismo magikoa Latinoameriketako «paisaiatik» ernezen den bezalatsu, Euskal Herriko «paisaiatik» ernetakoa izan daiteke Barojaren imaginario hau. Nahiz bata, nahiz bestea, gaztelaniaz, baina «erro» desberdinetatik sortuak.

«Euskaldun edo basko guztiek beren hizkuntza guztietan idatzitako literatura(k)» edozein kasutan, Itamar Even Zohar-ek polisistema deitu duena eratuko luke; alegia, sistema bakarra gabe, era askotakoa den sistema, sistema zenbaiten sistema. Elkartune eta gainezartzeak erakusten dituzten sistema horiek, osotasun egituratu bakar legez funtzionatuko lukete, beronen atalak elkarren menpeko izanaz. Baina, jakina, euskaldun edo basko guztiek beren hizkuntza guztietan idatzitako literatura(k) ez ezik, Espainiako, Frantziako, Italiako... literaturak aztertu ahal izango lirateke polisistemaren kontzeptuaren barnean. Baita Europako Mendebaldeko literatura ere... Izan ere, azkenean, entitate horietan osagai anitzak ugariak izan arren, bada osagai komunik: interferentziak erakusten dituzten sistemen sistema moduan azal daitezke.

---

<sup>2</sup> GABILONDO, J., 2006, *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 14.



Euskal Herrian jaiotako hainbat idazleren idazlanei buruz eginak zituen azterketak biltzen zituen liburuari «Las literaturas de los vascos» jarri zion izenburu Jesus Maria Lasagabasterrek. Plural horrek berak aditzera ematen du sistema bakar batean baino gehiagotan funtzionatu zuten idazlanez ziharduten ikaskuntzak jasotzen zituela liburuak.

Euskal Herriko herritar oren adierazpen-hizkuntza euskara izan ez den neurrian, bada beste hizkuntza batzuetan garatutako literaturarik, bereziki gaztelaniaz eta frantsesez. Horrenbestez, «las literaturas de los vascos» kontzeptuak Euskal Herriko herritarrak hizkuntza desberdinetan burututako langintza literarioa bilduko luke. Euskal Herriko herritarra izatea da osagai bateratzailea, erabilitako adierazpen-hizkuntza desberdina banatzailea.

Txosten honen izenburuak euskal literaturaren sistemari erreferentzia egiten dioenean, euskara adierazpen-hizkuntza erabili duenaz dihardu. Euskara adierazpen-hizkuntza erabili duen literaturak sistema bat osatzen du, nahiz eta bistakoa den sistema hori harremanetan dagoela beste sistemekin. Beste sistemekin orokorrean eta, hainbat garaitan bederen, bereziki «vascos» horien beste literaturen sistemekin. Esaterako, Goizuetak, Vicente Aranak, Araquistainek, Navarro Villosladak, Xahok... eta abarrek berebiziko eragina izan zuten euskara adierazpen-hizkuntza zuen literaturan. Harako Lucien Goldmann-en mundu-ikuskeraren kontzeptura joz gero, honakoa esan ahal izango litzateke: XIX. mendeko «literatura fueristak» gizarte-talde berberaren mundu-ikuskerara adierazi zuen, nola erdarez hala euskaraz baliatu zenean. Horraino iristen da sistemon arteko harremana.

Alabaina, harreman oso estuan egotera iritsi arren, sistema desberdinak osatzen dituzte; izan ere, hizkuntza izanik literatura-egilearen lanabesa, beste adierazpen artistikoetako (pintura, musika, arkitektura...) ez bezalakoa da alderdi banatzailea. Azken batez, hiztunak edo idazleak esku artean daukan lanabesaz baliatu behar du adierazi nahi duena helarazteko eta, lehen lehenik behintzat, lanabes hori ezagutzen duena du hartzaile.

«Globalizazioak» aldaketa nabarmenak ekarri ditu, noski. Esaterako, gure artean bertan jada ezaguna da, batera edo ia batera hizkuntza batean baino gehiagotan argitaratzea sortutako idazlana eta, horrela, hiztun-komunitate desberdinen eskura jartzea aldi berean. Egungo gizartearen ezaugarri

da kultura eta etnia anitzen bilgune izatea, hiztun eleanitz ugariz osatua egotea... Ez da hau, ordea, aurreko mendeetako egoera eta aurreko mendeen berri ere eman beharko da. Alegia, zirkunstantzia historiko oso desberdinetan garatu den literaturgintza azaltzeko gaitasuna lukeen eredia bilatzeak dirudi jomuga eta ez garaien arabera aldatzen doan eredia: nola XVI. mendeko hala XXI. mendeko literaturaren berri emateko gaitasuna duen ereduaren bilaketara bideratu beharko genuke iparrorratza.

Euskal Herriko herritarra izatea zela osagai bateratzailea eta erabilitako adierazpen-hizkuntza desberdina osagai banatzailea esaten zen arestian. Ez bedi uler, hizkuntza berdina darabiltenen artean heterogenotasunik ez dagoela uste dela. Agerikoa denez, adierazpen-hizkuntza berbera darabiltenen artean ere bada alderdi banatzailerik. Seguru aski, zalantzarik gabe ez esateagatik, Arnaud Oihenart Luis XIII.a Frantziako Erregeren inguruko geografo eta historialari taldearen kulturatik hurbilago zegoen, Zuberoako zeinahi artzainenetik baino. Geografo eta historialari horiekin kultura eta hizkuntza(k) ere partekatzen zituen Oihenart eleanitzak. Literaturaren alorrean zer esanik ez, Oihenarten gustu literarioak eta Zuberoako artzainarenak urrun zeuden. Gauza jakina da, Oihenartek mespretxatu egiten zuela «herri»rekin lotua zen adierazpen oro.

«Imitatioan» oinarrizteak batasun sakona eta zabala ekarri zion Errenazimenduko adierazpen literarioari. Errenazimenduko literatura egile landuetatik hurbilago dago Oihenarten kultura Zuberoako zeinahi artzainenetik baino.

Gizarte-geruzek osatzen dute gizartea: ez dago estratifikatu gabeko gizarterik. Hizkuntzak berak ere ez dio ihes egiten estratifikazioari: hizkuntza estandarra, landua, herritarra, argota... Gizarte-geruza desberdinetan kokatzeak bereizten ditu Arnaud Oihenart eta Zuberoako artzaina eta Arnaud Oihenart hurbiltzen gainontzeko bere gizarte-mailakoei eta artzaina berekoei, hizkuntzaren mugaz gaindi.

Alabaina, exenpluarekin jarraituz, Oihenart poesia egileak imitatzeko ereduak izanagatik, bazuen imita zitzakeen eredu horien egileek izan zitzaketen erronkez harantzagokorik: errege, printze, jaun, mezenas eta abarren inguruan findutako hizkuntzarik ez zeukan, eredu zituen egileek zuten

bezala. Ideiak, figurak, irudiak, sinboloak, «kanonak»,... partekatuak izango ziren, baina hizkuntza landuan adierazi behar zituen. Xehetasunak alde batera utziz esanda: artzainaren adierazpen bitarteko zen hizkuntza abiapuntu hartuta moldatu behar zuen bere poesiak eskatzen zion hizkera fina. Bada harremanik eguneroko hizkeraren eta hizkera literarioaren artean. Mario Valdes San Martin-ek dioen bezala:

una obra literaria consiste en lenguaje que, a pesar de estar organizado a través de las prácticas de la convención literaria, está, al final, derivado del uso de la vida diaria; similarmente, la cultura literaria se perpetúa, a su vez, gracias a la reabsorción de su discurso por el lenguaje de cada día<sup>3</sup>.

Oihenartek zerabilen hizkuntza ez zegoen bere ereduek zerabiltenaren parean, ez corpusaren ikuspuntutik, ezta statusarenetik ere.

Euskal Herria subjektu politiko izan ez den nazioa den aldetik entelekia hutsa baldin bada, entelekia hori hiztun-komunitate desberdinek osatu baldin badute eta hiztun-komunitate horietan euskalduna izan baldin bada botere politikorik izan ez duen bakarra, gainontzeko komunitateek aldameanean edo bertan (gaskoiaren kasua) botere politikoa izan dutenean, ez ote ondorioztatu behar sistema desberdinetan funtzionatu duela hizkuntza bakoitzeko produkzio literarioak? Eta polisistema bezala azterketa planteatzen bada, hau da, elkarguneak eta gainezartzeak dituzten sistemen sistema bezala, sistema Euskal Herrian egindako literaturetan jartzeak, markoa zabaltzea eska dezake, Espainia eta Frantziako literaturetan sistema kokatzeko; izan ere, batean, estatua, besteetan hizkuntza eta estatua partekatzeak eragingo zuen sistemen arteko interferentziarik.

Literaturaren lanabesa hizkuntza da. Mugarri geo-politikoak mugarri linguistikoekin bat ez datozenean, ezin albora daitezke botere politikoaren erabaki linguistikoak, hizkuntzaren corpusaren garapenean eta hizkuntzaren status mailan baduelako eraginik botere politiko horrek. Itamar

<sup>3</sup> VALDÉS SAN MARTÍN, M. J., 2005, «Historia de las culturas literarias: alternativa a la historia literaria», in BELTRÁN ALMERÍA, L.; ESCRIG, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco/ Libros, 204-205.

Even-Zoharren polisistemen teoriaren nazio arteko zabalkundeak oihartzun nabaria lortu du hizkuntza-sistema eta literatura-sistema desberdinak elkarrekin bizi diren lekuetan, hizkuntza, literatura eta kultura anitzen artean ematen diren interferentziak azaltzeko erakusten duen ahalmenarengatik. Euskal Herrian egindako literaturen artean bada interferentziarik, eremu zabalagoetan egindako literaturen artean interferentziak dauden bezalaxe (Europako Mendebaldea, kasu). Sistemen arteko interferentziak dira. Euskal Herriari dagokionez, bertan garatutako literaturen sistemek badute ezaugarriren bat nabarmenki bereizten dituen: hizkuntza ofizialetan eratu-takoak dira guztiak, euskalduna ezik.

Euskal Herrian hitz egiten ziren eta diren hizkuntzak corpusak ez ezik, statusak bereizten zituen eta, bereizten ditu. Euskal Herriko literatura egi-leak hizkuntzaren bat lanabes izateak uztartzen baditu ere, hizkuntza horien corpora eta statusa parean ez egoteak elkarrengandik banatzen ditu.

Ez gaztelania edo frantsesa adierazpen-hizkuntza zuen euskal herritarra- ren lanabesa, ez honen sorkariaren hartzaille potentziala egon da euskaldu- narenaren parean. Pio Barojaren idazlanak Euskal Herriko «erroetatik» sortuak izanda ere, funtziona zezaketen Euskal Herritik kanpo, errealismo magikoak Latinoameriketatik kanpo funtzionatu duen bezala. Pio Barojaren idazlanek gaztelaniaren barruti osoan funtziona zezaketen. Euskal idazlea- ren idazlanak, aurrekoa zen baldintza bat eskatzen zuen: itzulpena<sup>4</sup>.

Beraz, sistema desberdinetan funtzionatu dute Euskal Herrian egindako literaturek. Harremanetan dauden sistemak dira, noski. Literatur sistemak, –eta ez nazio edo estatu batekoak bakarrik– elkarrekin harremanetan dau- de: sistema bat beste sistema batzuetatik elikatzen da. Nazio bakoitzeko kulturak ez ditu asmatzen aldian aldiko konbentzio literarioak. Ondorioz,

---

<sup>4</sup> Itzuli da, jakina. Zer, noiz, euskaraz argitara eman eta zenbatera... itzuli den aztertzeak emango luke argibiderik aurreikusitako hartzaille potentzialaren inguruan. Badira testuak euskal hiztun- komunitatearentzat eta ez besterentzat egin nahi izan direnak eta, beste batzuk, berriz, beste hiztun-komunitateren baten ezagueran jarri nahi izan direnak. Exenplu bikaina izan daiteke *Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les poesies Basques du mesme Auteur* (1657) idazlana; izan ere, liburuxkak bere lehen zatian euskal atsotitzak bildu eta frantsesera itzulita ematen ditu, bigarreanean, berriz, mamitu zituen poesiak euskara hutsean gelditzen dira.

literatur sistemen arteko harremana agerikoa da. Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunak literatur sistema zenbaiten bilgune izatea ekarri du.

### 1.1. Parean ez dauden hizkuntzak: *corpusa eta statusa*

Hizkuntza erromanikoz baliatu den Euskal Herriko herritarra latinetik eratorritako hizkuntza batez baliatu da; alegia, berebiziko tradizio idatzia zuen hizkuntza batetik eratorritakoaz, hizkuntza landu batetik eratorritakoaz. Gainera, hizkuntza-ahaideez inguratuta dagoen hizkuntza darabil: euskarak uharte moduko bat eratzen du hizkuntza erromanikoz inguraturik. Euskal idazlearen lanabesaren ahaiderik ez da, ez inguru hurbilean, ezta urrunean ere. Erdararen bat hautatzen duen Euskal Herriko idazlearen lanabesa, aldiz, ahaideez, familiako diren hizkuntzez inguraturik dago.

Bestalde, Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntza erromanikoek beren lantzea bultzatzen duten estatuak dauzkate: botere politikoak berebiziko babes ematen die. Botere politikotik jasotako bultzadak lagundurik hizkuntzon *corpusa* hedatuz, finkatuz eta sendotuz joan zen, kultura landuko esparruetara zabaltzen.

Aro modernoko estatu-nazioak bere egitarau politikoa indartzeko funtsezko osagai izatetik zetorkien hizkuntzoi latinari aurre egiteko indarra eta baliabideak. Frantsesa, zein gaztelania estatu-nazioaren egitarau politikoaren gunean daude: Franzisko I.ak, Errege Katolikoak... hala erakusten dute.

Euskarak, babes politikoaren hausporik gabe, ez darama Euskal Herrian hitz egiten diren gainontzeko hizkuntzen abiadura berdina, ez corpusaren egokitzeari dagokionez, ezta statusari dagokionez ere. Gaztelania eta frantsesa zein bere estatuak bultzatzen du; gaskoia, aldi batean behintzat, Nafarroako erresumako hizkuntza ofiziala izan zen: Béarn-eko Estatuen legeak gaskoieraz idatz zitezela agindu zuen 1556an Albreteko Joana erreginak: ez zuen beste horrenbeste egin bere agindupeko erresumako beste hiztun batzuen hizkuntza zen euskararekin.

Hizkuntza ofizial bihurtu ez zuen euskara, haatik, ez zuen baztertu Erreforma zabaltzeko bitarteko legez. Kalbinistek 1563an Pauen egindako lehen

Sinodoan Testamentu Berria eta beste zenbait liburu euskaratzeko erabakia hartu zuten.

Lantegia bere gain izan zuen Joanes Leizarragak Albretoko Joana Erreginari berari egindako eskaintzan aitortzen dioenez:

Carguaren hartzera bathiric ecin naidiqueen, eta guti falta cedin non ezpainendin choil guibelera, nacussanean hambatez ene entrepresa handiago, cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetic etá diversenetaric: etá oraino, translationetan behinçat, usatu gabea.<sup>5</sup>

Hizkuntza antzuenetakoa eta askotarikoa izatea atxikitzen dio euskarari. Alegia, idatziz gutxi landutakoa –itzulpenean behin ere ez–, eta finkatu gabea: euskalki, azpieskalki eta aldaeretan aberatsa. Oztopo horiengatik mandatuari uko egitekotan egon omen zen.

Bada XVI. mendearen azken herenean frantsesez edo gaztelaniaz idatzitako testu erlijiosorik gisa honetako aitorenpenik egiten duenik? Hizkuntza landu tradizionalaz baliatzen ez den orori eskatzen dio hizkuntzaren erabilera zorrotza testu erlijiosoak; larritasuna erakusten duena, ordea, babes politikorik izan ez duen hizkuntza bateko hiztuna da: bere lan-tresna ez dago babes hori izan duten hizkuntzen parean.

Nahiz eta Leizarragak antzutasunari eta forma askotarikoa izateari egotzi euskarak Testamentu Berria itzultzeko sorrarazten dizkion eragozpenak, seguru aski izan bazen besterik ere: euskara hizkuntza erromanikoz inguratutako hizkuntza ez erromanikoa izatetik eratorritakoak, hain zuzen ere.

Patxi Altunaren esanetan joskeraren barrutian badago alderik Leizarragaren eta Etxepareren idazlanen artean:

se diría que Dechepare es más fiel a la lengua real y viva que Leizarraga, a quien separa del primero poco más de un cuarto de siglo. Ello revela, sin duda, un hecho claro: una mayor influencia y más visible del orden románico en prosa que en verso, cuya última expli-

---

<sup>5</sup> LEIÇARRAGA, I., 1571, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, Kalendrerá eta ABC, edo Christinoen Instructionea*. Euskaltzaindiak, Bilbon 1990ean eginiko ediziotik aipatua, 252.

cación no parece ser otra que la falta de tradición indígena en la prosa escrita. En ésta la creciente presión de las lenguas románicas circundantes apenas encuentra resistencia alguna, en tanto que el verso por su larga tradición y formas de expresión ya consagradas opone un serio obstáculo a dicho influjo.<sup>6</sup>

Prosan bertsoan baino nabarmenagoa omen da ordena erromanikoaren eragina: batean eta bestean tradizioak duen pisu desberdinari egosten dio aldea.

Tradizioaren pisua edo besterik ere izan daiteke Leizarragaren prosa ordena erromanikora «makurtzearen» zioa. Adibidez, uste izatea ordena erromanikoaren eraginpean itzulpen zehatzagoa lor zezakeela edo eguneroko mintzairaren maila Jainkoaren Hitza itzultzeko egokitzat ez jotzea, edo... Baina, zeinahi arrazoiri erantzuten diola ere, kontua da Leizarragak ez duela ikusten euskara inguruko hizkuntzen mailan ez corpusaren aldetik, ezta statusarenetik ere.

Euskal idazlearen zailtasunak ez ziren amaitu XVI. mendean. Hasi baino ez ziren egin. Mende batzuen jauzia egin ondotik ere, bada corpusak ezarritako oztopoei egindako erreferentziarik. Ibon Sarasolak, esaterako, honela dio Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) eleberriari eginiko hitzaurrean:

Euskal-nobela problema izugarri batzuen aurrean arkitzen da. Lehenik, euskal-prosa modernoaren problema. D. Agirre bat euskal-prosaren maisutza hartzen da. Orixe itzulari oso trebea omen zen. Guzi hau ongi dago. Bainan Agirreren euskera paregabeak Garoa idazteko balio zuen, eta Orixeren dohain guziaz S. Agustinen liburua euskeratzeko. Zeren, nork idatziko luke Joice-ren «Ulises»a Agirreren euskeraz? Ez dut uste Agirre edo Orixe lan huni ekiteko idazlerik egokienak izan zitezkeanik<sup>7</sup>.

Zalantzarik gabe, *Garoako* euskararekin ez zegoen James Joyceren *Ulises* itzultzerik. XX. mendearen azken herenera iritsi eta gero ere, euskarak ez

<sup>6</sup> ALTUNA, F. M., 1979, *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*, Bilbao: Mensajero, 341.

<sup>7</sup> SARASOLA, I., 1969, «Hitz-aurre», in Saizarbitoria, R., *Egunero hasten delako*. Donostia: Lur editoriala, 4.

dauzka corpus mailako eragozpen guztiak gaindituta. Lerro batzuk beherago baiezten duenez:

ikusten dugu gure hizkuntzaren moteltasuna, eskasia eta atzeratasuna, gure iztegi urria (alde batetik hitz gehiegi eta bestetik aldiz gutxiegi dituen), gure sintaxis hertsia eta ankazgoratua (alderdi batetik eta bestetik), gure jardunaren baserri-kutsu soportatu ezina (4. or.).

Honela bada, euskara adierazpide izan duen euskal herritarraren lanabesa ez da egon historikoki gaztelania edo frantsesa lanabes izan duenaren mailan, ez corpusaren, ez statusaren ikuspuntutik.

Azken mailan zegoen hizkuntza lehen mailara eraman zuela aldarrikatu arren Etxeparek, euskara idazketaren eta moldiztegiaren iragazitik lehenbiziko aldiz iragaztea baino euskarri sendoagorik eta zabalagorik behar zen lehen mailari eusteko. Beste baliabide batzuen artean, hizkuntzaren gramatika bat; izan ere, Aro Modernoak herri hizkuntzaren statusetik hizkuntza landurako jauzia burutzea hizkuntza arautuaren lorpenean jarri zuen.

Hizkuntza bat gobernatzen duten arauak zehazten dituen gramatkarik ez izateak, «arterik gabekotzat» jotzea dakar, herri-hizkuntzaren mailan kokatzea. Esteban de Garibaik euskarak gramatkarik ez izatea deitoratzen bazuen, herri-hizkuntzak hizkuntza landu bihurtzeko gramatikaren iragazitik iragaztea nahitaezko baldintza zuelako zen. Gramatika hori ez zen heldu XVIII. mende arte. Larramendi *El imposible vencido* (1729) eta *Diccionario Trilingüerekin* (1745) hor ibiliko da euskara bera inguratzen duten hizkuntzen mailan dagoela frogatu nahian XVIII. mende bete-betean.

Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak ez daude, inondik inora, parean. Botere politikoaren bultzadak lagundurik arautuz eta normalizatuz doaz gaztelania eta frantsesa, ez horrela euskara. Horiek, latinarekin lehia bizian, kultur hizkuntzaren statusa eskuratuz doaz; euskarak, berriz, luza-roan jarraituko du borroka horretan.

Euskal Herrian XVI. eta XVII. mendeetan garatzen diren letrek nahiko garbi islatzen dute hizkuntzen arteko status desberdintasuna: historia, euskararen apologia, arte poetikoa... egiteko ez da erabiltzen euskararik. Euskaraz igorritako ezaguerak eliz liburuari darion irakaskuntzara murrizten dira.



Zeinahi izanik ere erabilitako hizkuntza, garai haietan letrak ez zeuden edonoren esku: itzal handiko familiako kide da Martinez de Zaldibia historialari tolosarra; badu aurrekorik Ahaide Nagusien artean Felipe II.aren kronista izatera heldu zen Esteban de Garibai historialariak; familia diruduneko seme da Poza Lizentziatua; Sarrasquetteko jaun Juan Etxeparekoaren anaia da Bernard Etxepare, Jaurgainen ustez; Mauleko merkatari-burgesen biloba eta abokatu baten seme, Arnaud Oihenart. Hori gutxi ez zela, ezkontzaz nobleziaren maila eskuratu zuen. Eta, norena izango 2004an aurkitutako izkuizkribua eta Juan Perez de Lazarragarena, Larreako jaunarena. Eta, zein idazleren berri izango eta, Beltran de Zalgizeren berri, Nafarroako Auzitegi Gorenean Erret Aholkulari izan zen noble hugonotearena: euskal lehen poeta, Oihenarten esanetan.

Beste letradunik ere erants daiteke nahiz historialarien barrutian –Ibarguen-Cachopin, Lope de Isasti–, baita euskararen apologiarenean ere: Baltasar de Echave, kasu. Euskal Herrian XVI.-XVII. mendeetan letrak landu zituztenen gizarte-mailak argi asko erakusten du zein selektiboa zen ikasketen barrutirako sarbidea. «Aukeratu» gutxi horiek ikasketetako hizkuntzari edo hizkuntzei eutsi zioten beren bizitza intelektualean.

Hainbatek egin zion tartetxoren bat euskarari, bilketa edo goraipamen objektu bihurtuz. Historialariek –Martinez de Zaldibiak, Garibaik, Ibarguen-Cachopinek, Lope de Isastik– XIV. eta XV. mendeetako zenbait gertaeren gainean sortutako kanten puskak jaso zituzten. Baita eresiak ere. Garibaik, Oihenartek eta Zalgizek beste bilketa-lanik ere egin zuten: erre-frauak. Euskararen apologistek euskara goretsi zuten. Baina, irakaskuntza erlijiosoaz arduratu zirenetatik kanpo letradun gutxik hartu zuen euskara idazlan baterako adierazpide XVI.-XVII. mendeetan: Bernard Etxeparek, Juan Perez de Lazarragak, Oihenartek eta, dirudinez, Zalgizek.

Itamar Even-Zohar-ek dioenez,

A lo largo de la historia mundial, modelos creados en el seno de una cultura podían pasar a otras si éstas tenían motivos para desear igualarse con la cultura de la que adoptaban el modelo. Encontramos abundantes evidencias de contactos dirigidos a obtener este tipo de «préstamos». Cualquier grupo de personas que pretendiese estar a la

altura de otro grupo, puede hacerse siempre esta pregunta: «Por qué no tenemos nosotros todos estos bienes y tradiciones?». (...). Este modelo básico de relación entre el «poseer» y el «no poseer», funciona en todos los niveles socioculturales y para cualquier número de personas. Tengo la fuerte convicción de que los repertorios que he estado mencionando no fueron inventados en cada cultura de manera individual o «nacional». Cuando se tiene que establecer en una sociedad una nueva institución, uno tiene instintivamente la idea de tomarla de alguna fuente, así como tomar también el repertorio que esta institución conlleva.<sup>8</sup>

Badirudi, komunitate euskaldunak ere, ondoan zituen hizkuntza-komunitateen maila eskuratzea bilatu duela historian barrena. Hau da, horiek «zutena» «edukitzea» bilatu duela. Horiek landutako hizkuntzaren barrutiak, euskaraz ere lantzea, alegia.

Arnas handiko edo apalagoko xedea duen idazlana egiteko, euskara adierazpide hartzen duen herritarrean militantzia linguistikoaren aitorpena hedatu samarrik dago: batzuk hizkuntzak aurrez aurre jarritako erronkak gainditzeko hartu zuten luma; beste batzuk, modu apalagoan, euskararen alde, besterik gabe.

Bada egilerik militantziaz edo/eta mandatuz idazlana burutu duela aitor-tzen duenik: argitaratutako hainbat idazlanetako hitzaurreen arabera, hizkuntzaren beharrek bultzatu dute idazlearen idazketa.

Zinez, apaltasuna erakusteko toki du hitzaurrea egileak. Luma hartzeko atrebentzia izan duen idazleak, ausardia hori zuritu nahi izaten du, norbere buruaren handiusteari egotzi ez dakion. Euskal letretan deigarria da, zenbaterako maiztasunarekin ezkutatu duen egileak luma hartzeko atrebentzia, euskarari edo euskaldunari egindako zerbitzuan.

«... eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igarai-

---

<sup>8</sup> EVEN-ZOHAR, I., 1994, «La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa», in VILLANUEVA, D. (comp.), *Avances en teoría de la literatura (Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría empírica y Teoría de los Polisistemas)*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela, 365.

teko materia»<sup>9</sup> izateak bultzatu zuen Etxepareren langintza: euskara idazketaren iragazitik iragaztea zuen erronka.

XVI. mendeko Etxeparek erronka bati erantzun bazion, XVII. mendeko Oihenartek beste bati: euskaraz neurtitz zuzenak ontzearenari. Oihenart atsotitz biltzailea, berriz, aberriari zerbitzu egiteak gidatzen du.

XX. mendera etorri eta, mendearen hasieran, Txomin Agirrek *Kresalari* (1906) eginiko hitzaurrean dioenez:

KRESALA da nik euskerearen alde gaur dakartan ondar ale-txoa.<sup>10</sup>

*Garoarako* (1912) nahi baten adierazpena gorde zuen:

Erneko al dira euskeraz irakurgai gozo, ugari ta mardulak. Betoz ordu onean, betoz ainbat lasterren.<sup>11</sup>

XX. mendean aurreratu ahala ere aurki daiteke horrelako aitorpenik. Mendearen erdi inguruan, adibidez, bada hizkuntzaren egoerak sustatutako idazketarik. Joseba Eizagirrek *Ekaitzpean* (1948) eleberriari erantsi zion hitzaurrean honela dio:

Euskera galduko ba litz Euskal-Erria zearo galdua litzakela ziur ba dakigulako gure izkuntza maiteari iraupena eman nai genioke; beraz, mintzatu ta irakurri bearrean gera, eta irakurtzeko irakurgaiak bear ditugu noski<sup>12</sup>.

Jon Andoni Irazustak *Bizia garratza da...* (1950) eleberriarekin laguntzaren bat eman nahi dio hizkuntzari:

Jainkoak lagundu dezaiola [*Bizia garratza dari*] euskera zabaltzen.<sup>13</sup>

<sup>9</sup> ETXEPARE, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*. Euskaltzaindiak Bilbon 1995ean eginiko ediziotik aipatua, 79.

<sup>10</sup> AGIRRE, D., 1906, *Kresala*. Editorial Franciscana Aranzazuk Oñatin 1976an argitaratutako ediziotik aipatua, 10.

<sup>11</sup> Labayru Ikastegiak Bilbon 1987an argitaratutako ediziotik aipatua, 28. or.

<sup>12</sup> EIZAGIRRE-TAR, J., 1948, *Ekaitzpean. Ipuinberri*. Buenos Aires: Editorial Ekin, 4.

<sup>13</sup> IRAZUSTA-TAR, J. A., 1950, *Bizia garratza da...* Buenos Aires: Editorial Ekin, 9.

Mandatuz datorren idazlanik ere bada: Leizarragaren itzul lanak (1571) edo Orixeren *Euskaldunak* (1950). Biak mandatu-egileek somatzen duten hutsuneren bat betetzera datoz, dela erlijioaren barrutian, dela literaturarenean.

«Euskaltzaleak» bazkunaren mandatua betetzeko mamitu zuen Orixek 1934rako *Euskaldunak*. Mandatariek epopeia baten gabezia somatzen zuten:

Acariciaron los instigadores del Poema Vasco la idea de crear una obra a la manera del «Kalevala» o epopeya finlandesa publicada por primera vez en Helsingfor en 1835 por Lonnot<sup>14</sup>.

Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak ez dira inoiz egon parean, ez corpusaren, ez statusaren, ezta hiztun-kopuruaren ikuspuntutik ere. Gaztelaniak eta frantsesak, berriz, mundu zabaleko hiztun-komunitaterik handienetakoak osatu dituzte.

Literatura, agian, ezingo da murriztu bere osagai linguistikora, baina osagai linguistikoa ezinbesteko du. Idazlearen sorlekuaren idiosinkrasiak ekarri bereziren bat egin dezake honen obrara: jadanik aipatu dira Latinoameriketako errealismo magikoa edo Barojaren Euskal Herriko «erroak». Haatik, literatura hizkuntza bakarrik izan ez arren, nahitaezko lanabes du idazleak eta Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzetako bat, maila oso desberdinean dago bai corpusaren lantze aldetik, bai gizartean eskuratutako statusaren aldetik, bai hiztun-komunitatearen neurriaren aldetik.

Euskal letren barrutia nagusiki erlijioak eta hizkuntzaren bizi-iraupenak harrapatzen dute. Batik bat beharrak eragindako idazketa da: Erreforma lehenik, Kontraerreforma gero, zabaltzeko euskara nahitaezko komunikazio-bitartekoa da, euskaldunik gehienak elebakarrak direlako. Hizkuntzak, berriz, ondoan dauzkan erdaren parera hurbiltzeko urratsak eman behar ditu: idatziz eman, goraiatu (apologiak), gramatikaren iragazitik iragazi, hiztegia landu... eta, baita horietan mamitzen diren testu-tipoei ere toki egin. Azken batez, euskararen corpora eta statusa aldameneko erdaren pare

---

<sup>14</sup> LABAYEN, A. M., 1951, «Introducción», in ORMAETXEA, N. («Orix»), *Compendio del poema vasco «Euskaldunak» con glosario romance*. Zarauz: Editorial Icharopena, XVII.

jartzea da kontua eta horretarako ez dago asmatu beharrik, «eredua» jarraitzea baita hobereena: jorratu gabe dauden esparruak jorratu eta jorratzen hasitakoak sendotu. Horra hor erdarek «zutena» «edukitzeko» bidea. Baina, «eredu-jarraipenik» egon badagoen arren, ez da parean jartzeko behar bestekoa. Horregatik, Euskal Herriko herritarrek hitz egiten dituzten hizkuntzen artean alde nabarmena dago eta, ondorioz, idazlearen lanabesean: lanabesa bera du arazo euskaldunak, lanabesera bertara arreta bilduta jarraitzen du euskal idazleak mende luzetan.

Ez da bakarrik hizkuntzak ez daudela parean, bada, baita ere, hiztun elebiak edo eleanitzak hizkuntzen erabilera diglosikoa egiten duela eta, oro har, hitz egiten diren hizkuntzen arteko banaketa soziala ez dela orekatua: hizkuntzen arteko status desberdinak hiztunaren aukera linguistikoan eragiten du. Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntza erromanikoak hizkuntza landuaren statusa finkatu eta sendotu ahala, euskarak kontrako bidea egiten du: distantziak handituz doaz.

Idazleak norbaitentzat idazten du. Hizkuntza erromanikoa darabilen Euskal Herriko idazleari hartzaila potentzial ikasia haziz doakion bitartean, euskaraz idazten duenari gutxitzen doakio.

Gauzak honela, hizkuntza erromanikoetan bideratutako berbaldiek eta euskarazkoek eratzen dituzten sistemen osagai diren faktoreetan aldeak nabarmenduz doaz: ekoizleen profilean, kontsumitzailearenean, produktuarenean, merkatu eta instituzioarenean, errepertorioarenean.

## 1.2. Literatur genero tradizionalaren barrutia

Hizkuntza hiztun-komunitate baten komunikazio bitartekoa izanik, hiztunak, eguneroko bizitzak sorrarazitako komunikazio premiak asetzera mugatu gabe, tresna honen erabilera artistikoa ere egin du. Horrela, hitza sorkarierarako lanabes bihurtu eta, beste behar batzuk ase ditu: oroitu, mundua ulertu, gozatu...: behar primarioak asetzeak eragindako eskakizunetatik kanpo zeuden eginkizunetarako ere erabili du. Eraketa-mailaren bat duen gizarte ooren jarduera izan da hitzezko berbaldiak sortzea eta kontsumitzea.

Historikoki euskal idazketa urria izan da. Are urriagoa da, idazketa urri horretan literatur genero tradizionalak betetako lekua, egun dokumentatu daitekeenaren arabera behintzat. Dena den, transmisioan galerak egon direla ere gauza jakina da: hala erakusten du Oihenartek bere «Arte poetiko»an aipatzen dituen eskuizkribuak galduak izateak eta abarrek. Lazarragaren eskuizkribua 2004an aurkitu izanak berak galeren susmoa areagotu besterik ez du egiten.

2004an ez ezik, aurretik ere, zorte ona izan du lagun euskal testuak: *Linguae Vasconum Primitia*etik (1545) edo *Refranes y Sentencias*etik (1596) gelditutako ale bakarrak eskuratzeak badu zorrik zortearekin.

Argitalpenen igorpenean ere, egon da galerarik. Oihenartek egindako aipamen soilean gelditzen da *Linguae Vasconum Primitia*eren bigarren argitalpenaz ezagutzen den guztia. Lehen argitalpenaren beraren arrastorik ere ez zen izan luzaroan: Oihenartek 1665ean helarazitako berrien ondotik, ez dago besterik, harik eta gordetako ale bakarra Francisque Michel-ek aurkitu eta, 1847an berrargitaratzen den arte.

Argitaratutako ale-kopuruan ere bada urritasunik: Oihenartek lagun artean banatzeko edizio bitxi samar bat besterik ez zuen egin bere *Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les poesies Basques du mesme Auteur* (1657) obraz.

Eskuizkribuak, jakina, ez ziren argitaratu.

Baldintza hauetan nekez eskura zezaketen bizitza literario sendorik euskal idazlanok. Argitaratuen artean, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* izan daiteke babesik handiena lortu zuena; izan ere, testuaren ibilbidearen gorabeherek zabalkunde mailan eten luze samarra izan zuela erakutsi arren, galduta igaro zuen aldi honetan ere bizirik iraun zezakeen: egileak hitzaurrean zioenez, bertso hauek kantatzeko paratu zituen eta ahozkotatsunean bizi izan zitezkeen<sup>15</sup>.

<sup>15</sup> «Efectivamente, un eco de sus versos –o de los de la fuente popular común– ha llegado hasta nuestros días en unas fórmulas rimadas conservadas por tradición oral en Navarra (Olazagutia, Aezcoa, Salazar)». MICHELENA, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Madrid: Ediciones Minotauro, 47.

Zalantzarik gabe, literatur genero tradizionalen barnean euskal letretan landu zena egun ezagutzen den ondarearen gainetik egon zen. Edozein kasutan, produkzioaren neurria epaitzerakoan gogoan hartu beharko litzateke, nola hiztun-komunitatearen neurria, hala euskarak Euskal Herriko gizartean egindako ibilbidea.

Literatura gizarte jakin batean sortzen da, koordenada soziokultural jakin batzuetan. Gizartea, hizkuntza, literatura... estratifikaturik daude. Literatura ere estratifikaturik dago. Hasteko, idazle izateko idazten jakin behar delako eta irakurle izateko, berriz, irakurtzen. Bistakoa da, literatura-irakurle izateak zenbait baldintza eskatzen dituela. Bakarra ez izanda ere, baldintzetariko bat, irakurtzen jakitea da. Xehetasunak alboratuz, XVII. mende arte ez bada eratzen irakurlegoa, eta oraindik 1830-1850 urteetan liburuetara jotzeko gaitasuna Mendebaldeko bizilagunen %15era mugatzen bada, «gehienak» publiko-irakurle izateko gaitasunetik urruti zeuden<sup>16</sup>.

Gauzak honela, agerikoa da, euskaldunak ez ezik, Mendebaldeko bizilagunik gehienak ere, beren behar literarioak ahozkitasunean asetzen jarraitzen zutela XIX. mendean bertan: analfabetoa izateak berak jartzen zuen lehen hesia. Liburua luxuzko produktua izana zen eta oraindik ere ez dago edonoren esku. Gainera, entzulea gabe, irakurlea galdatzen du, kultura-maila bat...

Agerikoa da, halaber, Mendebaldeko hizkuntzetako hiztunek behar literarioak asetzea jomuga zuten testuak sortu zituztela: literatura nazional desberdinetako historietara jotzea aski da horren berri izateko. Historia horiek dena delako hizkuntzan egindako dokumentu literarioak bikainenak jasotzen dituzte, nahiz eta, argitaratu zirenean, dokumentu horiek ez izan hartailerik gehien eskuratu zuten berbaldi literarioak. Bestela esanda, ez euskaldunen artean bakarrik, baita espainolen edo frantsesen artean ere, gehiagok ase dituzte beren behar literarioak ahozkitasunean irakurketa bide baino alfabetatuen kopuruak nabarmen gora egin arte, literaturaren historia nazional horiek halakorik ez islatu arren, euskarri dituzten irizpide eta oinarri teorikoak direla eta.

---

<sup>16</sup> Xehetasun gehiagotarako, LLOVET, J. [et al.], 2005, *Teoría literaria y literatura comparada*. Barcelona: Editorial Ariel, 34-36.

Euskaldunak batik bat ahozkotasunean eta, aurrerago, baita jendaurrean ahots goraz egindako irakurketaren bidez ere, ase ditu bere behar literarioak. Alderdi honetan, ez dago alde handirik gaztelar edo frantses barrutiek: hiztunik gehienak ahozkotasunean aseko zituzten beren behar literarioak edo ahotsa iraganbide zuen testua bitarteko, eskolatzea orokortu arte.

XIX. mendean oraindik igor bide horiek jarraitzen dute izaten euskal hiztun-komunitatearen behar literarioak asetzeko euskarririk emankorrenak. Dena den, mende honetan modu nabarmenean gehitzen da euskarazko testu literarioa.

Faktore desberdinek erraz zezaketen euskaraz egindako idazketaren gehikuntza. Europako Mendebaldean bada aldaketarik:

Las conquistas de Napoleón en toda Europa reforzaron la expansión de las ideas revolucionarias e hicieron aflorar los sentimientos nacionalistas en Alemania e Italia, pero también produjeron efectos en España, Polonia, Bélgica, Rusia y Portugal. Esos sentimientos se manifestaban en una actitud de resistencia ante el dominio extranjero, es decir, ante el imperialismo francés. Como consecuencia, cobraron un nuevo valor las costumbres nativas, las instituciones locales, la cultura y la lengua tradicionales.<sup>17</sup>

Sentimendu nazionalisten agerrera, Hego Euskal Herriko lurraldeek ordu arte izandako ordenamendu juridiko-administratiboa Espainiako Gobernuak auzitan jarri izanak, erromantizismoak hizkuntza baztertuekiko erakutsitako interesak... eragin zezaketen. Baina, faktore horiekin batera eta, behar bada, horien aurretik, ikasketen eremua jende gehiagok eskuragarri izateak lagundu zuen. Aurreko mendeetako literatur produkzio idatziarekin alderatuz gero, gehikuntza ikaragarria da: Iztueta, Iparagirre, Etxahun, Eusebio Maria Azkue, Elizanburu, Bilintx, Hiribarren, Jean Duvoisin, V. Iraola, Claudio Otaegi, Serafin Baroja, Ramon eta Jose Artola, Felipe Arrese Beitia, Antonio Arzak, Martzelino Soroa, Toribio Alzaga... Bada besterik ere Lore-joko eta euskal festetako lehiaketa lite-

<sup>17</sup> ROMERO, D., 2006, «Introducción», in ROMERO LOPEZ, D. (ed.), *Naciones literarias*, 11.



rarioetara aurkeztutakoen artean. Hazkundera deigarria da. Literatur genero tradizionalak barneratzen dituzten testu-tipoen hazkuntza honetan, modu nabarmenean, poesiak prosari irabazten dio. Barne-sentimenduak azaltzeko, satirizatzeko, kronika egiteko... bertsoa bildutako adierazpena hobesten da. Bertsoaren ugaltze-mailatik urrun gelditzen da lantzen den prosa narratibo urria edo antzerkiaren alorrean egindako komedia, sainete, zarzuela edo opera-libreto bakanak. Oihenartek aipatua zuen euskaldunaren bertso zaletasuna. Dirudienez, zaletasun horrek XIX. mendean ere irauten du. Hala erakusten du orduko produkzioak, Carmelo Echegaray ohartu zen bezala:

A esa abundancia de verso, no acompañó igual abundancia de prosa. Por el contrario, la prosa, salvo contadas excepciones continuó reducida á los libros piadosos, y cuando en un concurso cualquiera se dejaba en libertad de presentar sobre un tema trabajos escritos en prosa ó verso, el verso era siempre el preferido.<sup>18</sup>

Bertso soltearen ageriko ugaltzetatik dator batik bat hazkundera, nahiz eta, horren ondoan, oso azpimarragarria izan prosa narratiboaren edo antzerki generoen lantzeari irekitako tartea. Prosa narratiboaren alorrean emandako urratsak, behingoz, jarraipena lortuko dute etorkizunean. Baita antzerki-generoek ere. Alderdi honetatik XIX. mendeko literatura egileek egindako ahalegina oso nabarmena da: inguruko literaturetan lantzen diren generoak euskaraz ere landuta ikusi nahi dituzte. Hori da asmoa, prosa narratiboaz baliatu ziren testuak, gehienetan «helbururik gabeko helburua» dutenak ez izanagatik.

Ez da argitaratzen poesia libururik, batasun baten azpian mamitutako poema-multzorik: bertso solteek aldizkaria, bertso-papera... dute argitalpen-leku. Lantze-mailan aldeak dituzten poesion artean, bada kidegintza: bertso solteak izanik, poesia liburuaren eskakizun nagusietako bat saihesten dute, ez baitago poesiak egituratu beharrik, ordenatu beharrik, multzoa harremanetan jarri beharrik. Ondutako bertso guztiek publiko bera gogoan ez izanda ere, poesia egiteko modu erraza da.

<sup>18</sup> ECHEGARAY, C. DE, 1901, *Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel*. Tolosa: Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López, 38.

Prosara biltzen den berbaldia, bertsoa biltzen dena baino didaktikoagoa da. Apenas dago prosa narratiboko erakuskaririk entretenimendu soila xede duenik. Bertsoan, berriz, arrunt samarra da, nahiz eta izan baden helburu didaktikodunik ere.

Eskolatzea gizarte-geruza zabalagoetara hedatzen doan neurrian, gero eta gehiago dira letrarekin harremana arrotz ez dutenak. Ondorioz, lehen ahoz-kotasun hutsean bere behar literarioak asetzen zituenak, orain irakurketa bide ere ase ditzake. Euskal hiztun-komunitateak beste hizkuntza batean eskolatzen jarraitzen du, baina eskolan eskuratutako trebetasunak, euskara ordezkatu gabe, ama-hizkuntzan bertan ere balia ditzake.

«Eguneratu-nahiari» eusten dio euskaldunak XIX. mendean (ondoko hizkuntzetan lantzen diren testu-tipoak euskaraz ere jorratu, kultur aldizkariak sortu eta idazle-irakurleen esku jarri...). Inguruko hizkuntzek daukate-na eduki nahi horretan militantzia linguistikoaren eragiletasunak nabaria izaten jarraitzen du.

Militantzia linguistikoaren eragiletasuna ezin heda daiteke idazketaren barruti osora, ezta idazle guztietara ere. Esan nahi dena argitzeko, Bilintxengana jo daiteke, adibidez. Bilintx, seguru aski, bertsoak erakartzen du. Bilintxek bertsoak paratzen ditu gogoko duelako eta ez hizkuntza baten iraupenera ekarriren bat egiteagatik. Bertsoa gogoko izanik, bertsoak idatzi zituen idatz zitzakeen hizkuntza bakarrean, bere mundu afektibo eta bizipenetakoa zen hizkuntzan, hain zuzen ere. Militantziak, batik bat, prosa harrapatzen du, ez horrenbeste, bertsoa.

Euskararen lantze-esparruak hizkuntza ofizialetakotara hurbiltzen joatea (jada lantzen ziren testu-tipoak berrituz joan, esparru berriak irabazi...) are-agotuz doa denboran aurrera egin eta gizarte-baldintzak aldatu ahala. Literatur genero tradizionalen barnean, XX. mendearen hogeita hamar urteen inguruan poesia berrituko da..., berrogeita hamargarren urteetako berrikuntzek, jada eleberria ere harrapatuko dute..., harik eta XXI. mendearen atarian «egunear» bizi izateak nobedade izateari uzten dion arte.

Azken batez, euskal adierazpen idatziaren garapenak –literarioak eta ez literarioak– hainbat faktore kontra izan ditu: dela estatuaren babesik ez

izana, estaturen batek Euskal Herrian hitz egiten ziren gainontzeko hizkuntzak babesten zituenean, dela ahaide ez zituen hizkuntzez inguratua egotea, inguratzen zuten hizkuntzok familia berekoak zirenean, familia bereko izateak arazo linguistikoei aurre egiteko ematen dituen abantailekin, dela hiztun-komunitate txiki baten hizkuntza izatea, hiztun-komunitatearen neurriarekin proportzioa gorde ohi duenean literaturaren eta, oro har, letren produkzioak...

Faktore guzti horiek aurka izanda ere, egun hizkuntzak bizirik jarraitzen badu, ondorioztatu behar da, izan direla hizkuntza ordezkatu beharrik somatu ez duten euskal hiztunak. Ordezkatu beharrik somatu ez badute, unean uneko beren beharrak –behar batzuk bai behintzat– asetzeko tresna nahikotzat eta egokitzen zutelako izango da. Bestalde, historikoki, tresna «eguneratzeaz», «egokitzeaz», «atzemandako hutsuneak betetzeaz», arduratu denik egon da, lehentxeago ala beranduxeago, hobeto ala okerrago...

Euskal adierazpen literario idatziaren eta, oro har, euskal letren garapena euskarak Euskal Herriko gizartean egindako ibilbideari loturik doa. Izan ote zitekeen beste modu batean hizkuntza izanik literatura, letrak, lantzeko lanabesa? Literatur genero tradizionalak historikoki euskara idatzian gutxi landu izanaren gakoa, «goi-mailako» literatura gutxi landu izanaren gakoa, jende ikasi elebiak edo eleanitzak egindako «hautu» linguistikoan dago. Eta letrak, orokorrean, gutxi landu izanaren gakoa, jakina.

## 2. Historia baterako aukera-irizpideak

Desiré Nisard-ek 1844an historia literarioa eta literatur historia berezi zituen. Nisard-entzat historia literarioa nazioarekin edo hizkuntzarekin hasten da eta hizkuntzaren heriotzarekin amaitzen. Beraz, idatzitako guztia besarkatuko luke. Aldiz, literaturaren historiak honako murrizketa egingo luke:

il y a une littérature le jour où il y a un art; avec l'art cesse la littérature<sup>19</sup>.

<sup>19</sup> Taccak aipatua. Tacca, O., 1968, *La historia literaria*. Madrid: Editorial Gredos, 46.

Gustave Lansonek ere, XX. mendearen hasieran (1903), ildo horri eusten dio. Historia literarioa ulertzen du «como el cuadro de la vida literaria en la nación, la historia de la cultura y de la actividad de la multitud oscura que leía tanto como la de los individuos ilustres que escribían»<sup>20</sup>, literatura-ren historiak, berriz, maisu-idazlanak bakarrik aztertuko lituzke.

Izendapenak izendapen, modu batera ala bestera izendatuz, aukera bat euskal letren historia egitea litzateke, nahiz guztiena, nahiz batzuen. Euskal letren historia honek euskarak idazketaren barrutian egindako ibilbide osoa jasoko luke. Letra guztiak gabe, batzuk jasoko balitu, aukera-irizpideen berri emanaz hasi beharko luke, noski. Edozein literaturaren historiak, nahitaez, literaturari buruzko ikuspegi bat eskatzen du: berariaz esanda ala esan gabe, literaturari buruzko ikuspegi bat dago literaturaren historia ororen oinarrian. Euskal literaturaren historia izenburupean argitaratutako ikaskuntza bat euskaraz jorratutako letra guztietaz arduratzen bada, bistakoa da literatura berbaldi idatzi oroekin identifikatzen duela. Berbaldi idatzi oro behatu gabe, batzuetara biltzen badu arreta, hautua zein irizpidek gobernatzen duen adierazi beharko du.

Euskal letren historia egiteak badu interesik, zalantzarik gabe: euskara idatziaren ibilbidea jasoko luke. Baina, ondare horrek badu interes literario-rik bere osotasunean? Galderari erantzuna literaturari buruzko ulerkuntzan legoke, noski. Nire ustez, adierazpen idatzi ororen historiak ez luke azalduko euskaraz garatutako bizitza literarioa, ez modu oso batean behintzat. Literaturaren historiaren eginkizuna historian barrena berbaldi literarioek izandako bizitzaren berri ematean jartzen den neurrian, letren historiak ez luke ahalmenik horretarako. Bestela esanda, letren historia horrek –guztiak nahiz batzuk bakarrik barneratzen dituela ere– ez du gaitasunik literatura moduan jaso diren berbaldiekin izandako elkarrizketen berri emateko.

Poesia izendapenaren azpian lehenik, literatura izendapenarenean gero, «helbururik gabeko helburuarekin» egindako hitzezko gertaerak bildu dira. Berbaldi-modu hau litzateke literaturaren historiarako osagaia eratuko lukeena.

---

<sup>20</sup> Romero Tobar-ek aipatua. ROMERO TOBAR, L., 2004, «La historia literaria, toda problemas», in ROMERO TOBAR, L. (ed.), *Historia literaria / Historia de la literatura*. Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza, 69.

Nola euskaraz, hala Mendebaldeko beste hizkuntzetan garatutako bizitza literarioak euskarri desberdinak izan ditu igor bide eta, komunikazioaren bestaldean, irakurlea zein entzulea hartzaile. Ahozko eta idatzizko praktika artistikoei osatzen dute literatura moduan jasotako altxorra. Ikuspuntu kontua da eta ez dauka zertan izan euskal adierazpen literario idatzia urria izatearen ondorio. Euskal adierazpen literario idatzi urriak gizarte mailako hizkuntza erabilera baino ez du islatzen: ikasiak izateagatik «goi-mailako» literatura egitea edo jasotzea zegoien gizarte-geruzakoen hautu linguistikoa adierazten du: modu batera ala bestera euskara ez zuten atzeman tresna egokitzat (hizkuntzaren statusagatik, hizkuntzaz zeukaten ezaguera-mailagatik...) beren zeregin literarioetarako.

Bestalde, kultura ez du monopolizatzen alfabetatuak, ikasiak; alfabetatu gabea ere, bere kulturaren jabe da eta kultura honen barnean landu da hitza asmo estetikoarekin: ahozko produkzio artistikoak hizkuntzen mugak gainditzen ditu. Idazketaren barrutian bertan ere bada mailakatzerik: «literatura de cordel», «littérature de colportage» artista berritzaileen sorkuntzekin batera bizi izan da.

Lee Patterson-ekin batera esaten bada, «una pieza escrita es literatura no porque posea ciertas características de las que otros carecen, sino porque sus lectores la valoran –por una serie de razones– como literatura»<sup>21</sup>, eta «literatura de cordel» nola artista berritzailearen idazlana literatura moduan jaso badira, batak zein besteak osatu beharko luke literaturaren historia. Azken batez, ikuspuntu pragmatiko batetik, literariotasuna ez dago testuezaugarri batzuen menpe:

Un comunicado adquiere la condición de literario como resultado de las acciones y los procesos de evaluación que llevan a cabo los individuos inmersos en un sistema concreto.<sup>22</sup>

---

<sup>21</sup> PATTERSON, L., 2005, «Historia literaria», in BELTRÁN ALMERIA, L.; ESCRIG, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco/Libros, 57.

<sup>22</sup> IGLESIAS SANTOS, M., 1994, «El sistema literario: teoría empírica y teoría de los polisistemas», in Villanueva, D. (comp.), *Avances en teoría de la literatura (Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría empírica y Teoría de los Polisistemas)*, 318.

Birmingham-eko Unibertsitatean XX. mendearen berrogei eta hamar urteetan kultura-ikaskuntzak hasten direnean (*cultural studies*) egiaztapen bat dute abiapuntu: literatura-ikaskuntza ofizialek «goi-mailako» literatura bakarrik hartzen zutela aintzakotzat eta nazionalitate desberdinetako etor-kin, leinu, gizarte-klase eta abarren bizitza eta kultura errealtatea baztertu egiten zutela. Egia esan, «goi-mailako» literaturari soilik jaramon eginaz, «gutxiengoen» literaturara murrizten da literatura-ikaskuntza, «gehien-goak» ere literatura-klaseren baten sortzaile eta kontsumitzaile izan direnean. Gizarte-geruza bakarra hartzen da gogoan eta geruza horretan erabili d(ir)en hizkuntza(k), hiztun-komunitate desberdinez osatzen denean nazioa.

Hizkuntzak ere estratifikaturik daude. Estratifikazioa ez da bakarrik hizkuntza bakoitzari barneko zaion ezaugarria, bada, baita ere, beste hizkuntzekiko harremanean. Beraz, goi-mailako literatura goi-mailako statusa duen hizkuntza batean egindakoa izango da azkenean. Ezin uka literatura-ikaskuntza ofizialak ikuspegi klasista batetik egin direla. Ikuspegi klasista horretan goi-mailako klaseak landutako literaturak ezartzen du kanona eta kanon horren barnean dauden idazlanen bikaintasuna du aztergai ikerlariak.

Alastair Fowler-ek dioen bezala:

La calidad estética también se ha asociado a un falso refinamiento elitista, como si la literatura popular no tuviera también sus propias características estéticas, sus aspiraciones elitistas y su doble moral.<sup>23</sup>

Ikuspegi pragmatiko batetik bizitza literarioaren historia egitean, hiztun-komunitate osoa atzematen da eta ez horren parte bat bakarrik: gizarte-geruza desberdinetan garatu den jarduera literarioa aztertzen da.

Une jakin batean literaturaz ulertzen dena kultura edo gizarte bakoitzetik eraikitzen dela onartzen bada, literariotzat jotzen direla gizarteak halakotzat hartzen dituen gertaerak eta harremanak ontzat ematen bada, literaturaren historiak egoera historiko bakoitzean literatura moduan jaso denaren berri eman beharko luke eta, gainera, sistemaren barnean eragiten duten balio-

<sup>23</sup> FOWLER, A., 2005, «Las dos historias», in BELTRÁN ALMERIA, L.; ESCRIG, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*, 267.

epaien azterketak erantsi. Horra, historiak aztergai lukeen corpora bere osotasunean.

Gisa honetako historia bat planteatzeak arazoak izan baditu. Horietako bat ahozko tradizioaren periodizazioa, baina, arazoa saihesteko modua ezin izan daiteke literaturaren historiatik at uztea.

Esate baterako, euskal literaturaren historia batetik kanpo egon daiteke «Berterretxen Khantoria»? «Berterretxen Khantoria»k, gertaerak izan eta gutxira ondutakoa izan behar du: gertaera oroitzapenean gordetzen zen garaikoa, alegia, eta, honenbestez, XV. mendekoa. XIX. mendean jasotakoa baldin bada, izan zuen bizitarik mende luzetan, etenik gabeko bizitza gainera, bestela galdua baitzen. Hau da, belaunaldiz belaunaldi egon zen euskaldunik bere orain alditik lehen aldiko berbaldi horrekin elkarrizketatzerik izan zuenik eta ekintza horretan zerbait esan zionik. Zerbait esateko ahalmena baldintza zehatz bakarrera biltzen da: «si el sujeto presente descubre la respuesta implícita contenida en el discurso pasado, y la percibe como la respuesta a una cuestión que a él le compete plantear ahora»<sup>24</sup>. Beraz, oraindik XIX. mendean zerbait esateko ahalmena gordetzen zuen: euskal literatur sisteman parte hartzen zutenek berbaldi horri balioa ematen zioten seinale.

Halaber, ez da beti ariketa erraza literatura moduan jaso dena mugatzea: hartzailerearen hurbilpen-modua zehazteak ere badu zailtasunik.

Gauza jakina da, historia sakratuak edo santuen bizitzek eta, oro har, ereduak bizitzek, «vidas ejemplares»-ek, hartzailera erakartzeko ahalmena izan dutela. Horren lekuko da Lardizabalen *Testamentu zarreko eta berriko kondairak* (1855) edo Brabanteko Jenobebaren bizitzak –edizioren batean Santa Jenobeba– XIX. mendearen azken herenean eta XX. mendearen lehen hamarkadetan lortutako arrakasta. Orain dela berrogei eta hamar urteko Gipuzkoako herri-eskoletan behintzat «vidas ejemplares»-etako fasziku- loak zeuden eta irakurri egiten ziren. Nola hartu ziren testu horiek? Dotrina ikastea edo ereduak bizitza nola eraman ikastea jomuga soil izanaz? Testu

<sup>24</sup> JAUSS, H. R., 1989, «La Ifigenia de Goethe y la de Racine. Con un epílogo sobre el carácter parcial de la estética de la recepción», in WARNING, R. (ed.), *Estética de la recepción*. Madrid: Visor, 241.

horietan, guztietan, ohikoak ez diren gertaerak kontatzen dira: harrigarriak direnak, ez ustekoak direnak, egunerokotasunarekin hausten dutenak... Ez ote zegoen alderdi hauetan testu horietara hurbiltzeko motibo garrantzitsua? Istorioekin gozatzea ez ote zegoen norbere portaera arautzeko eskola legez hartzearen aurretik? Berez, gerta daiteke, deskodeketa-modu bera ez egin izana hartzaile orok: hartzaile orok irakurketaren ekintzan ez itxi izana testua errejimen<sup>25</sup> berdinetik. Alegia, testuaren hartzaile guztiek ez jarri izana mekanismo berdinak abian irakurketaren ekintzan.

Historia sakratuan, ereduzko bizitzetan, exenpluetan... istorioak kontatzen dira. Sherezaderen garaiaz gero, ezaguna da gizakiok istorioak kontatzeak eta entzuteak erakartzen gaituela. Testu horiek irakurketa literarioa egiteko aukera ematen dute, irakurketaren ekintza erregimen literariotik egitekoa, hain zuzen ere.

Liburu erlijiosoa exenpluz baliatu da: Axularren *Gero* (1643) lekuko. Zalantzarik gabe, asmo erlijiosoak bultzaturik hartu zuen luma Axularrek eta, seguru aski, kristau fedea sendotzeko xedearekin jaso zuen orduko hartzaileak. Nolanahi ere, aitortu beharra dago, Axularrek «era atseginean edo» eman zuela dotrina, exenpluen laguntzari esker.

Behar erlijiosoak asetzeko egindako liburua dela ezin jar daiteke auzitan, exenplu ugariarekin ongarriztatuz mamitua da, ordea. Dotrina argitzeko erabil zitzakeen egileak, baina hartzailearen ikuspuntutik garbi dago arindu egiten diola irakurketa, dotrina lehorra samurtuz. Zergatik baztertu erabat, XVII. mendeko irakurleari edo ahots goraz entzuten zuenari atsegin zitzaizkiola exenplu horiek eta gozatu egiten zuela beraiekin, nahiz eta gaurko irakurlearentzat ez izan gozamen-iturri? Zergatik erregimen erlijiosotik eta erlijiosotik bakarrik irakurri zela eta irakur zitekeela auzitan jartzerik ere ez izan?

Gerta daiteke egun testu literario legez irakurtzen ez dugun testurik, beste garairen batean testu literario moduan jaso izana. Hartzailea bere esperientziatik hurbiltzen da testura:

---

<sup>25</sup> Irakurketaren bidez testua gauzatzean, irakurketa horrek hartzen duen norabidearen arabera ixten da testua. Testuaren ixte-prozesuari esaten dio erregimena Marghescouk. MARGHESCOU, M., 1979, *El concepto de literariedad*. Madrid: Taurus Ediciones.



En realidad, cada receptor de una obra la recibe a su manera, hace una elección de los elementos que encuentra en ella según sus preferencias más o menos conscientes; reconstruye el texto prestándole elementos de su experiencia. El texto, desde luego, es único e invariable; pero cada uno lo experimenta a su manera.<sup>26</sup>

Egungo irakurlearen esperientziei zeharo arrotz egingo zaizkio Lardizabalen *Testamentu zarreko eta berriko kondaira* edo Gregorio Arruek itzuli zuen *Brabanteko Jenobeba* edo ereduzko bizitzak; izan ere, denboraren harian mundua aldatzen da: hartzailea, honen interesgune, gustu, kultura, esperientzia eta abarrak aldatzen dira.

Bizitza literarioa historiaren menpe dago. Berbaldi literarioa sortu zenean bezala gordetzen bada ere, hartzailearen erantzuna aldakorra da: hartzaileak bere garaitik, bere hezkuntzatik, bere mundu-ikuskeratik... jasotzen du.

Irakurketaren (edo entzutearen) ekintzan hartzen du bizitza «testuak». «Testuak» mugagabetasun-maila bat du. Mugagabetasun hori normalizatzeko bi aukera ditu hartzaileak: edo testuaren gain proiektatu bere alde aurreko ikuskera edo alde aurreko ikuskera hori berrikusi, berraztertu<sup>27</sup>. Lardizabalen *Kondaira* gaurko euskaldunari hain arrotza egiten zaio, ez dio la uzten ez eragiketa bat, ez bestea egiten. Gaurko hartzailearen esperientziak beste batzuk dira eta, ondorioz, ezin normalizatu *Kondairak* kontatutakoari darion mugagabetasuna.

Azkenik, literatura «periferikoa» berreskuratzeak ezin ekar dezake literatura «kanonizatua» baztertzea, literatura «kanonizatua» literaturaren mekanismoen osagai garrantzizko delako. Literaturaren historia bat «guxiengoan» literaturaren berri ematera mugatuz gero, gizarte jakin bateko bizitza literarioa «batzuen» bizitza literarioa murrizten dela esan baldin bada, berdin gertatuko litzateke «gehiengoan» literaturaren berri soilik emango lukeen historiarekin. Idazlanaren forma lantzean arreta berezia jarri

<sup>26</sup> MEREGALLI, F., 1989, *La literatura desde el punto de vista del receptor*. Amsterdam: Editions Rodopi, 12.

<sup>27</sup> ISER, W., 1989, «La estructura apelativa de los textos», in WARNING, R. (ed.), *Estética de la Recepción*, 133-148.

duen idazlearen idazlanak ez du lortuko euskarri sendorik hartzailegoan. Oihenartek lagun artean banatzeko edizioa egin izanagatik eta, gainera, XVII. mendean isolatuta gelditu zen idazlana, –gerora inolako eraginik izan gabea–, Oihenartek irabazia du leku bat euskal literaturaren historian: euskal poesia berritzeko egin zuen ahalegina, jarraitzaile eta hartzaile askorik gabea izan arren, ezin eror daiteke euskal literaturaren historiatik. Edo zer esan, adibidez, Ramon Saizarbitoriaren *Ene Jesus* (1976) eta Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea, Ixabel* (1994) direla eta? *Ene Jesus* urrun da jendetzen literaturatik, baina, «experimento irrepitable»<sup>28</sup> izate soilak, besterik gabe ere, leku bat bermatzen dio.

Laburbilduz, txosten honetan planteatzen den euskal literaturaren historiari literario legez jaso diren euskarazko berbaldien berri emango luke: ibilbide horretan arrazoi desberdinengatik –ebaluazio sozialarengatik, estetikoarengatik...– esanguratsu bihurtu ziren edo diren praktika literarioak hautatuko litzuke historia horren osagai izan daitezen. Horrenbestez, zeinahi euskarritan eginak izanik, literatura legez jaso diren berbaldiek eta ez letren barrutiko berbaldiek soilik osatuko lukete historiaren erresuma. Aldi bakoitzean literatura moduan hartu den corpusak eraturako sistemaren azterketak argituko luke denbora aldi horretako bizitza literarioa.

Honela bada, euskal literaturaren historia honek, euskal komunitate linguistikoak literatura moduan jaso dituen berbaldiak aztergai eraikiz, sistema horrek egindako ibilbidea azaltzea luke xede. Planteamendu bat baino ez da, letrekiko begirunean hazi eta hezitakoarentzat gordin samarra izan daitekeena, Mendebaldeko kulturaren argi dagoelako letra izan dela kultura landuaren igor bidea eta planteamenduak eskatzen duelako literario legez jaso ez diren testuak baztertzearekin batera, herri-literaturakoei leku egitea. Hautatutako ikuspuntuaren ondorioa besterik ez da eta inondik ere ez lan-egia errazteko bidezidor. Izan ere, gisa honetako historia egiteak eragozpenik aurkezten du. Jadanik aipatu direnei –ahozko tradizioaren periodizazioa, literatura moduan jaso den corpora zehaztea–, besterik ere erants dakieke,

---

<sup>28</sup> LASAGABASTER, J. M., 2002, «La escritura como lugar de transgresión. (A propósito de *Ene Jesus*, de R. Saizarbitoria)», in TOLEDO, A. (ed.), *Jesús María Lasagabaster. Las literaturas de los vascos*. San Sebastián: Universidad de Deusto, 200.

aldi bakoitzak eraturako sistemaren azterketak eskatutako datu zenbaiten eskura gaitasuna eta beste batzuen eskura ezintasuna, kasu. Baina, euskarak Euskal Herriko gizartean egindako ibilbidea islatuz, euskal bizitza literarioaren berri emateko gaitasuna izango luke.

## Aipatutako bibliografia

AGIRRE, D., 1976, *Kresala* [1906]. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.

———, 1987, *Garoa* [1912]. Bilbao: Labayru Ikastegia.

ALTUNA, F. M., 1979, *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*, Bilbao: Mensajero.

ECHEGARAY, C. DE, 1901, *Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel*. Tolosa: Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López.

EIZAGIRRE'TAR, J., 1948, *Ekaitzpean. Ipuinberri*. Buenos Aires: Editorial Ekin.

ETXEPARE, B., 1995, *Linguae Vasconum Primitiae* [1545]. Bilbao: Euskaltzaindia.

EVEN-ZOHAR, I., 1994, «La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa», in Villanueva, D. (comp.), *Avances en teoría de la literatura (Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría empírica y Teoría de los Polisistemas)*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela, 357-377.

FOWLER, A., 2005, «Las dos historias», in Beltrán Almeria, L.; Escrig, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco/Libros, 253-272.

GABILONDO, J., 2006, *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

IGLESIAS SANTOS, M., 1994, «El sistema literario: teoría empírica y teoría de los polisistemas», in Villanueva, D. (comp.), *Avances en teoría de la literatura (Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría empírica y Teoría de los Polisistemas)*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela.

IRAZUSTA'TAR, J. A., 1950, *Bizia garratza da...* Buenos Aires: Editorial Ekin.

ISER, W., 1989, «La estructura apelativa de los textos», in Warning, R. (ed.), *Estética de la Recepción*. Madrid: Visor, 133-148.

JAUSS, H. R., 1989, «La Ifigenia de Goethe y la de Racine. Con un epílogo sobre el carácter parcial de la estética de la recepción», in Warning, R. (ed.), *Estética de la recepción*. Madrid: Visor, 217-250.

LABAYEN, A. M., 1951, «Introducción», in Ormaetxea, N. («Orixe»), *Compendio del poema vasco «Euskaldunak» con glosario romance*. Zarauz: Editorial Icharopena, VII-XXXIII.

LAMBERT, J., 2006, «En busca de los mapas literarios del mundo», in Romero Lopez, D. (ed.), *Naciones literarias*. Barcelona: Anthropos Editorial, 113-128.

LASAGABASTER, J. M., 2002, «La escritura como lugar de transgresión. (A propósito de *Ene Jesus*, de R. Saizarbitoria)», in Toledo, A. (ed.), *Jesús María Lasagabaster. Las literaturas de los vascos*. San Sebastián: Universidad de Deusto, 189-201.

LEIÇARRAGA, I., 1990, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, Kalendrereta eta ABC, edo Chistrinoen Instruccionea* [1571]. Bilbao: Euskaltzaindia.

LLOVET, J. [et al.], 2005, *Teoría literaria y literatura comparada*. Barcelona: Editorial Ariel.

MARGHESCOU, M., 1979, *El concepto de literariedad*. Madrid: Taurus Ediciones.

MEREGALLI, F., 1989, *La literatura desde el punto de vista del receptor*. Amsterdam: Editions Rodopi.

MICHELENA, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Madrid: Ediciones Minotauro.

OIHENART, A., 2003, Altuna, P. ; Mujika, J. A. (Ed.): *Amaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Proverbes et poesies basques. Proverbios y poesías vascas* [1657]. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

PATTERSON, L., 2005, «Historia literaria», in Beltrán Almería, L.; Escrig, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco/Libros, 47-66.

ROMERO, D., 2006, «Introducción», in Romero Lopez, D. (ed.), *Naciones literarias*. Barcelona: Anthropos Editorial.

ROMERO TOBAR, L., 2004, «La historia literaria, toda problemas», in Romero Tobar, L. (ed.), *Historia literaria / Historia de la literatura*. Zaragoza: Pressas Universitarias de Zaragoza, 51-73.

SARASOLA, I., 1969, «Hitz-aurre», in Saizarbitoria, R., *Egunero hasten delako*. Donostia: Lur editoriala, 3-10.

TACCA, O., 1968, *La historia literaria*. Madrid: Editorial Gredos.

VALDÉS SAN MARTÍN, M. J., 2005, «Historia de las culturas literarias: alternativa a la historia literaria», in Beltrán Almería, L.; Escrig, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco/ Libros, 123-220.

# Euskal literaturaren historia. Eredu berrituaren aurkezpen historiografikoa

CASENAVE, Jon

Euskaltzain urgazlea eta Literatura Ikerketa batzordekidea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskal Literaturaren Historiari buruzko lehen saio orokorrak bigarren gerlatik landa idatziak izan dira. Historialari gehienek (adb. K. Michelena, 1960, *Historia de la literatura vasca*) «Historia literarioa» hartu zuten eredu metodologikotzat eta Europa guzian ordurako nagusitua zen ohizko «patroi» nazionala erakarri zuten euskal eremura.

Estrukturalisten garaian, historia literarioa gogorki kritikatu izan zen. 70-eko eta 80-eko hamarkadetan izan ziren berriztapen teorikoak eta metodologikoak (giza zientziak, testugintza, etb.) euskal literaturari egokitu ziren (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, 1977).

Ordutik hona, saileko ikerleek euskal literaturaren historia berri dute kontutan hartuz azken hogeitahamar urte hauetan agertu diren obra nagusiak (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etb.) baita ere agerian emanez euskarazko sorkuntza literario mailan obra horiek eragin duten aldaketa paragabea.

Badirudi, berrogei bat urtez garatutako eredu historiografikoak «consensus» bat sortu duela unibertsitatean, eskolaren munduan, baita ere, oro har, gizarte mailan, nahiz zenbat idazlek eta kanpoan bizi diren ikerle batzuek modelo finkatu berria eztabaidatzen duten.

**Hitz-gakoak:** euskal literatura, euskal literaturaren historia, literaturaren historiografia.

Los primeros ensayos generales sobre la literatura vasca han sido posteriores a la segunda guerra mundial. La mayoría de los historiadores (por ejemplo K. Michelena, *Historia de la literatura vasca*) tomaron como modelo metodológico la «historia literaria» y atrajeron al ámbito vasco el «patrón nacional» que se había impuesto en toda Europa.

En la época de los estructuralistas la historia literaria fue criticada con dureza. Las novedades teóricas y metodológicas que tuvieron lugar en las décadas de los 70 y 80 (ciencias sociales, elaboración de textos, etc.) fueron amoldándose a la literatura vasca (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, 1977).

Desde esta época hasta hoy en día, la historia de la literatura vasca ha sido renovada, teniendo en cuenta las obras que se han escrito los últimos treinta años (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etc.) y como no constatando el gran cambio que han supuesto dichas obras en la creación literaria en euskera.

Podríamos decir que el modelo historiográfico desarrollado ha creado un «consensus» en el ámbito escolar, universitario y en las sociedad en general; aunque es verdad también que algunos escritores e investigadores que viven fuera de Euskal Herria ponen en tela de juicio el modelo que se acaba de imponer.

**Palabras clave:** literatura vasca, historia de la literatura vasca, historiografía de la literatura.

Les premiers essais généraux sur la littérature basque ont été postérieurs à la seconde guerre mondiale. La plupart des historiens (par exemple K. Michelena, *Historia de la literatura vasca*) ont pris comme modèle méthodologique «l'histoire littéraire» et ont amené au domaine basque le «modèle national» qui s'était imposé dans toute l'Europe.

A l'époque des structuralistes l'histoire littéraire fut durement critiquée. Les nouveautés théoriques et méthodologiques que connurent les décennies 70 et 80 (sciences sociales, élaboration de textes, etc.) furent adaptées à la littérature basque (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, 1977).

Depuis cette époque jusqu'à aujourd'hui, l'histoire de la littérature basque a été rénovée, en prenant en compte les oeuvres écrites ces trente dernières années (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etc.) et bien entendu en observant le grand changement que ces oeuvres ont apporté dans la création littéraire en langue basque.

Nous pourrions dire que le modèle historiographique utilisé a créé un «consensus» dans les domaines scolaire, universitaire et dans la société en général, bien qu'il soit aussi vrai que certains écrivains et chercheurs vivant hors du Pays Basque remettent en question le modèle que l'on vient d'imposer.

**Mots-clés:** littérature basque, histoire de la littérature basque, historiographie de la littérature.

The first general essays on the History of Basque Literature were written after the 2nd World War. Most historians (e.g. K. Michelena, 1960, *Historia de la literatura vasca*) took «Literary history» as the methodological model, and they transferred the usual national «pattern», which was predominant throughout Europe by that time, to the Basque sphere.

At the time of the structuralists, literary history was severely criticised. The new theoretical and methodological developments (social sciences, text production, etc.) in the 1970s and 1980s were adapted to Basque literature (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, 1977).

Since then, researchers in the field have revised the history of Basque literature by taking into consideration the main works that have appeared over the last thirty years (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etc.) and also by drawing attention to the tremendous change these works have brought to bear on the level of Basque literary creation.

The historiographical model developed over forty years appears to have created a «consensus» in the university, in the world of the school, and on the level of society as a whole, even though some writers and researchers living abroad challenge the new fixed model.

**Keywords:** basque literature, history of basque literature, historiography of literature.



## Sartzea

Denok erabiltzen dugu Euskal literaturaren historia. Molde konziente batez –edo partez, inkonzienteki– euskal literaturaren historiaz, urteetan zehar eraikia izan den «kondaketa nagusi» bat erabiltzen dugu gure lanean. Erabiltzen dugun ber, indartzen dugu eta lege bihurtzen.

Egungo eredu hori, bigarren gerlatik landa astiro eraikia izan da. Erran daiteke Koldo Mitxelenak finkatu zuela 60-eko hamarkadaren hastapean. Denbora joan arau, aldaketak eta egokipenak izan dira, bainan oro har, Mitxelenak eman zion egitura bertsua atxikia du. Eta alde hortarik, inguruko kulturetan egiten denarekin bat egin dugu, mende erdi batez. .

Azken hogeit urte hauetan, «Euskal Literaturaren Historia» multxo polli-ta argitaratu da. Sekulan baino materiala gehiago badugu eta, lehengoa baino aise hobea da. Bainan, historien kopurua handiturik ere, denak eredu beretik ari dira. Badirudi denentzat onargarria den eredu bat finkatua izan dela, hein batean «kontzientzuala» dena.

Preseski, 1983-an argitaratu zuen artikulu batean<sup>1</sup>, Txuma Lasagabasterrek azpimarratu zituen egokitze prozesu horren gabeziak. Artikulu hori, garrantzi handikoa izan da azken urte hauetako euskal literaturaren historian, idazlan programatikoa zelakoan. Hain zuzen diagnostiko zehatzarekin batean historiografia mailako ikerketa egitarau bat proposatu zuen. Orditik hona, ikerketa programa hori ez da arras bete, bainan ahulezia handienak konponduak izan dira.

Irakasle bezala, ni guziz ortodoxoa naiz eta azken urte hauetan hedatu den «doxa» hura den bezala eta artoski irakasten dut ene klasean. Egia erran, egiteko molde hori ezin bestekoa iduri zait, euskal literaturaren historia «kondaketa nagusi» bezala osatzekoa da oraindik eta, kondalari profesional bezala, irakasleok badugu erresponzabilitate handi bat.

Halarik ere, euskal literaturaren saileko ikerle bezala, Txuma Lasagabasterrek ongi erakutsi zuen badugula beste eginbide bat guziz premiazkoa:

---

<sup>1</sup> LASAGABASTER, Tx., 1983, «La historiografía literaria vasca –Aproximación crítico bibliográfica–», *Las literaturas de los vascos*, Deustoko Unibertsitatea.

denok inplizitoki onartzen dugun ikusmoldea aztertzea. Hori izan da ene helburua. Ez dizuet ikuspegi berririk ekartzen. Iraskale bezala erabiltzen ditudan datuak hartu ditut eta horietan ageri den «eredu historiografiko konzentzuala» zehaztu nahi izan dut, sintesia baten moduan.

## 1. Euskal literaturaren eredu historikoa 80-eko hamarkadaren atarian

### Literaturaren historia: oinarriak eta aukerak Europa mailan.

Euskal eredu historiografikoa nola finkatu den bigarren gerlatik landa ikusi baino lehen, Europa mailako egoera aipatuko dut.

Europa mailan, XIX-garren mendetik hona nagusitu den «ereduan», literaturaren historia ez bada beti<sup>2</sup>, gehienetan bederen, izan da literatura berezi baten historia<sup>3</sup>, beraz, hizkuntza batean idatzia izan dena (gehienetan nazionala) eta eremu konkretu batean (gehienetan, nazio batena, nazio egina ala egiteko bidean zena).

Nazio «literario» bakoitzak bere obren korpua finkatu du eta «kanon»-a, baita ere bere idazleen «panteon»-a egituratu ditu. Eredu horren gizartera-tze prozesu batzuk antolatu ditu, transmisio bide nagusia eskolaren sistema izan delarik.

«Eredu nazional»aren araberako historia mota horren helburuak eta metodoak, XIX-mendean garatu zirenak, Sartre<sup>4</sup>, Barthes<sup>5</sup>, Jauss<sup>6</sup>, bezalako

---

<sup>2</sup> Salbuespen batzuk:

– CURTIUS, Ernst-Robert, 1956 (frantses itzulpena), *La littérature européenne et le Moyen-âge latin*, PUF.

– BACKÈS, Jean-Louis, 1996, *La littérature européenne*, Belin.

<sup>3</sup> LANSON, Gustave, 1894, *Histoire de la littérature française*.

<sup>4</sup> SARTRE, Jean-Paul, 1947, *Qu'est-ce que la littérature?*, Gallimard.

<sup>5</sup> BARTHES, Roland, 1960, «Histoire ou littérature?» in *Annales*.

<sup>6</sup> JAUSS, Hans-Robert, 1978 (frantses itzulpena), «Histoire de la littérature», in *Pour une esthétique de la réception*, Gallimard.

autoreek eztabaidatu dituzte XX-garren mendeko bigarren partean. Halarik ere, arazoez gain, «eredu nazionala» da gehienik irakatsia izan den –eta oraindik irakasten den– modeloa edo patroia Europako erresumetan.

### **Lehen paradigma aldaketa, 60-eko hamarkadan:**

Gure kasua aipa dezagun orain eta ikus dezagun zertan zen egoera historiografikoa 80-eko hamarkadaren atarian. 60-etik aurrera, guti gora behera, euskal kulturaren inguruko kulturetan bezala, literatura iharduera estetiko autonomoa bezala definitua izan da. Ikuspegi hori astiro nagusitu da, XX-garren mendeko 60-eko hamarkadatik hona. Koldo Mitxelena eta haren il-dotik etorri zirenek literaturaren historian ere sarrarazi zuten ikuspegi hori. Geroztik, definizio konzentzuala ematen diogu literaturari: ez ditugu gehiago euskara idatziaren historia eta euskal literaturaren historia nahastikutzen.

### **Koldo Mitxelena, *Historia de la literatura vasca* (1960):**

Tx. Lasagabasterrek idatzi zuen Koldo Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* (1960) izan zela euskal eremuan egin izan zen lehen lan zehatza, arau historiografikoak zorrozki bete zituelako. Zoin dira, laburzki bilduak, liburu horren ekartpen handienak?

- Europako erresumetan erabiltzen ziren ezaugarri nazionalak gurean falta edo eztabaidagarri ziren: erresuma finko bat bere mugekin, historia eta hizkuntza nazionalak, etb. Beraz, «**ardatz linguistikoa**» hartu zuen oinarri gisa eta euskal eremu historiko bat osatu zuen hizkuntzaren eta literaturaren ikuspuntutik.
- Euskal literaturaren korpua **euskarazko testuekin** bakarrik antolatu zuen Mitxelena, bera baino lehen ari izan ziren historia egileen tradizioarekin<sup>7</sup> hautsiz.
- Hizkuntza literarioaren aldetik, euskalki literarioek eragiten duten banaketa baino gorago ezarri zuen obra nagusiek beren artean egiten duten batasun linguistikoa. Ikuspegi hortan, 68-tik gora finkatu zuen

---

<sup>7</sup> Adibide gisa, LHANDÉ, Pierre, *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925) liburuan egiten den aurkezpena aipa daiteke.

eredu linguistiko bateratua lantzen zuen, hizkuntza literarioaren eremuan.

- Historia literarioaren metodologia euskal adibideari egokitu zuen eta kriterio literarioa edo estetikoa erabili zuen kanon baten eraikitzeko.
- Beretik segitzeko, erran behar da «kanon bildu» edo «hertsi» bat osatu zuela Mitxelena, idazle nagusi gutti atxikitzen baitu bere panteonean.
- Bukatzeko, literaturak gizartearekilaran dituen harremanak behar bezala hartu zituen kondutan K. Mitxelena, batez ere sorkuntzaren prozesuan.

### **Euskal literaturaren historia eta giza zientzien ekarpena:**

Ondoko hamarkadan, «historia» batzuk argitaratu ziren. Horietan, bi liburu aipatu behar dira erreberitze metodologiko interesgarria ekarri baitzuten, orduko giza zientzietan oinarrituz.

- *Euskal literaturaren historia* (1971), Ibon Sarasola
- *Euskal Idazleak gaur* (1977), Joan Mari Torrealdeai

Biek kanpoan erabiltzen ziren metodo soziologikoak erakarri zituztena euskal eremura. I. Sarasolak, L. Goldmann-en azterbideak bereganatu zituen. Gizartean dauden egiturak eta literatura mailako produkzio sistemak nahi izan zituen kurutzatu testuen egiturekin. Horrela eginez, gizarte aldaketa nagusi batzuen gainean bermatu zen, euskal literaturaren periodizazioa era bat arramoldatzeko. Bi data nagusi edo hausdura aurreratu zituen: 1901-ean eta 1964-ean finkatu zituen.

Zenbait urte geroago argitaratu zuen liburuan<sup>8</sup>, Ibon Sarasolak literatura aztertu zuen soziologiaren metodologia kantitatiboak erabiliz. Robert Escarpit-ek paratu zituen urrasbideak<sup>9</sup> segitu zituen euskal liburugintza eta euskal idazlegoaren estruktura ikertzeko.

<sup>8</sup> SARASOLA, Ibon, 1975, *Euskal literatura numerotan*, Lur.

<sup>9</sup> ESCARPIT, Robert, 1958, *Sociologie de la littérature*, PUF. Askoren artean, (Robert Escarpit-en zuzendaritzapean), 1970, *Le littéraire et le social*, Flammarion.

Joan-Mari Torrealdai ere, Robert Escarpit-ek finkatu oinarri soziologikoetatik abiatu zen ondoko urteetan eta eragin handiko inkesta argitaratu zuen 1977-an: *Euskal idazleak gaur (Historia social de la lengua y literatura vascas)*<sup>10</sup>. Liburugintzaren bilakaeraren historia eta haren gizarteratze prozesuak ikertu zituen estadistiken laguntzarekin. Bestalde, bilakaera historiko eta soziologiko ber bera bilatu zuen euskal idazlegoaren baitan.

Beraz, 60-eko hamarkadaren hastapenean Mitxelenarekin abiatu zen prozesuak ondorio argi batzuk bideratu zituen. 80-eko hamarkadaren atarian finkaturik zegoen eredu historiografikoaren arabera, euskal literaturaren historian ondoko oinarriak kondutan hartuak izan dira:

- Euskaraz idatzitako testuak dira euskal literaturan sartzen direnak.
- Europa mailako «Literaturaren definizio modernista» aplikatzen zaio euskal literaturari.
- Europa mailan, literaturaren historia egiterakoan erabiltzen diren bi metodologia nagusiak erakarriak izan dira euskal eremura: historikoa eta soziologikoa.

## 2. Eguneratze bat 80-eko hamarkadatik hona:

Zer gertatu da 80-etik hona? Neurri handiko eguneratze teoriko eta metodologiko bat.

### «Bihurgune teorikoa» euskal ikasketetan:

Literaturaren kritika mailan, atzerrian erabiliak ziren metodologiak euskal literaturaren azterketari egokituak izan dira 80-eko hamarkadatik 2000-etara: semiotika, harreraren estetika eta irakurleari buruzko teoriak, literaturaren soziologia, etb.

Hor dira, bihurgune teoriko horren lekuko urte horietan aurkeztuak izan diren tesia nagusiak. Urte horietan egin diren ikerlan gehienak azterketa

---

<sup>10</sup> TORREALDAI, Joan-Mari, 1977 *Euskal idazleak gaur, (Historia social de la lengua y literatura vascas)*, Jakin.

monografikoak izan dira. Aintzineko bi hamarkadetan Mitxelena, Sarasola edo Torrealдай bezalako historia egileek finkatu zuten «kanon bilduan» zeuden idazle konsakratuak bilakatu dira aztergai: Mogel, D. Agirre, Lizardi, Orixe, Lauaxeta, Aresti, baita ere bakar batzuk garaikideen artean, hala nola B. Atxaga. Literaturaren kritikan bezala, «literaturaren historia» sailean ere, kanpoko erresumetan lantzen ziren problematika berriak erakarriak izan dira euskal eremura baita ere, denbora berean, kanpoko tresna eta oinarri metodologikoak.

### **Tx. Lasagabasterren azterketa kritikoa:**

«Euskal literaturaren historia» sailean, Tx. Lasagabasterrek du lehen aldikotz aztertu literaturari buruzko euskal produkzio historikoa historiografiaren ikuspegitik. Ikuspegi historikoaz gain, euskal literaturaren historiaren hobetzeko eta eguneratzeko egin behar zen ikerketa programa finkatu zuen:

- lehen proposamena metodologikoa zen: harek zion XX-garren mendeko azken partean eremu kultural garatuetan pentsatuak eta erabiliak izan ziren azterketa bide berriak erakarri behar zirela euskal eremura. Beraz, giza zientzietatik (soziologia, psikanalisia, mentalitateen historia, etb.) eta testugintzatik (hizkuntzalaritza, semiotika, pragmatika, etb.) etorri ekarpenak erabili behar ziren euskal literaturaren historian. Hots, eguneratze metodologikoa eta zientifikoa eskatzen zuen euskal kritikarentzat. Hori da preseski, hamarkada hartan gertatu dena.
- Bigarren proposamena: hizkuntzaren historia eta literaturaren historiaren arteko lotura egin behar zela. Iduritzen zitzaion, euskal kontestu soziolinguistikoa kontutan hartu behar zela euskal literaturaren ikeretzeko, batez ere hemengo egoera diglosikoak sorkuntza mailan zuen eragina. Pundu horrek eskatzen zuen gogoeta ez da geroztik asko aurreratu, Jon Kortazar-en liburu bat<sup>11</sup> kentzen bada.
- Hirugarren proposamena: hiruetarik zailena zen betetzeko. Euskal eremu kulturean aspaldidanik bizi dugun egoera konplexua aipatzen zuen. Tradizio kultural hirukoitza aurkitzen da azken mende hauetan

<sup>11</sup> KORTAZAR, Jon, 2002, *Diglosia eta euskal literatura*, Utriusque Vasconiae.

Euskal Herrian, hiruzpalau hizkuntzen bizigunea delako. Eta, Tx. Lasagabasterrek zion, gisa batez edo bestez ainzitasun hori behar litzatekeela kontutan hartu. Bainan, berak aitortzen zuen xede guziz helgaitza zela eta, mementoko, ezin bestean, euskarazko sorkuntza baikik aztertzen dela euskal literatura gisa.

Bukatzeko eta laburbiltzeko, erran daiteke Tx. Lasagabasterrek «euskal literaturaren historia berritu» bat eskatzen zuela.

### «Historiak» ugaritu:

XX-garren mendeko azken laurdenean, Euskal literaturaren historiak ugaritu dira. Hamabost bat orotara. Historia orokorrak izan dira:

- *Historia de la literatura euskerika*, Luis-Mari Mujika, 1979.
- *Literatura vasca*, Jon Juaristi, 1987.
- *Précis de littérature basque*, Jean-Baptiste Orpustan, 1996.
- *Euskal kultura gaur*, (Liburuaren mundua), Joan-Mari Torrealдай, 1997.
- *Historia de la literatura vasca*, Askoren artean, Patri Urkizu zuzendaritzapean, 2000.
- *Iraupena eta lekukotasuna*, (Euskal literatura idatzia 1900 arte), Patxi Salaberri Muñoa, 2002.
- *Historia de la literatura vasca*, Iñaki Aldekoa, 2004.
- *Euskal literaturaren historia*, Iñaki Aldekoa, 2008.

Edo, bestela, literaturaren eremu batena baita ere garai mugatu batena:

- *Euskal teatroaren historia*, Patri Urkizu, 1978.
- *Ahozko literatura*, Juan-Mari Lekuona, 1982.
- *Gerraondoko poesiaren historia*, Josu Landa, 1983.
- *Euskal eleberraren kondaira*, Gotzon Garate, 1983-1985.
- *Literatura vasca. Siglo XX*, Jon Kortazar, 1990.
- *Euskal haur eta gazte literatura*, Xabier Etxaniz, 1997.
- *Euskal eleberraren historia*, Mari-Jo Olaziregi, 2002.
- *XX. Mendeko euskal literatura*, Jon Kortazar, 2003.

Nahiz ez diren bat heldu edukien aldetik baita ere iritzi kritikoei begira, halere ageri da liburu horiek erabiltzean autore guziek barneratu dituztela Mitxelenaz geroz onesten diren oinarri historiografikoak. Beraz, oinarri horiek kondutan hartzen badira, erran daiteke eredu historiografiko bakar bat badela egungo egunean. 80-eko hamarkadatik hona «Euskal literaturaren historia» berritu bat garatu dela

### 3. Euskal literaturaren historia berritua

Saia gaitezen euskal literaturaren historia berritu horren definitzen hurbilgotik:

#### **Alde metodologikoa aipa dezagun lehenik:**

Oro har, 90-etik hona agertu diren historiek Tx. Lasagabasterrek eskatzen zituen oinarritzko aukerak bete dituzte. Eguneratze teorikoa eta metodologikoz gain, beste ekarpen amankomun bat badute: alde didaktikoa. Oraiko liburu gehienak, transmiziorako pentsatuak dira, irakasle batzuek ikasleentzat eginak, polemikatik kanpo eginak.

Erran daiteke Euskal literaturaren historiak bere legitimitatea baduela, irakasten den ber. Iduri ez duelarik, bihurgune nagusi bat izan da hori: 1980-hamarkada baino lehen publikatu duten historia egileek ez zuten – ezin bestean– publiko finkorik buruan. «Hartzaile ezagun» horren falta nabari da liburu gehienetan. Alderantziz, gaurko egunean –erran nahi baita euskara eskolaren sisteman sartuz geroz– kritikariek eta historia egileek badakite norentzat ari diren lanean, euskal literaturaren historia lantzen dutelarik: unibertsitateko ikasleentzat, irakasle, kazetari eta beste bilakatu direnentzat eta haien bitartez, lizeoko ikasleentzat. Eta bistan da, publiko zabalago batentzat ere.

Beraz, nahi ala ez, historialariak harreman instituzionalizatu batean ari dira gaurko egunean. Harreman konplexua da dudarik gabe. Lehen baino eragin handiagoa du gaurko «Historia» batek bigarren mailako irakasleen bitartez. Denbora berean, «instituzioek» (Eskolak eta Unibertsitateak) hein batean bideratzen dute historia egile baten lana jartzen dizkioten eskaeren



bidez. Dударik gabe, instituzio horiek nahi lukete «eredu finkatu, iraunkor eta normalizatu» bat. Beste gisa batez adierazteko, tradizio baten eskaera – gurea guziz motza izanik ere– egiten diote egungo euskal literaturaren historiari.

Legitimitate kulturala jokoan dago kanpoari begira bainan, barneko eremuan ere eta euskaldun gazteriari buruz, era berezi batez. Alde hortarik, ez da ahantzi behar, Literaturaren historia dela Euskal Historiaren sail bakarra garai eta eskualde ezberdinetako Euskaldun guziak bateratzen dituen, euskal literatura euskaraz idatzia delako –egungo definizioaren arabera–.

#### «Patroi» berriaren oinarri kontzentzualak:

Orai ikus dezagun zein daitezkeen gaurko patrioiaren oinarri kontzentzualak:

- Literaturaren «definizio gaurkotua» zabaldu da gure artean: «sail eta iharduera autonomo» gisa definitua da, XIX-garren mende ondarrean eta XX-garren mende hastapenean zabaldu den Modernitatearen arabera.
- Autoreak, «kanon bildu» baten alde agertzen dira, salbu idazle garaikideentzat (azken hogeiturokoak).
- «Kanon bildu»-aren problematikan, K. Mitxelenaz geroz indartu den tradizio kritikoa hartzen dute beren gain, Domingo Agirrereren obratik Jon Mirande-renaraino, autore nagusi onartuen gainean bermatuz.
- Garaikideentzat, itsura arizan orde, guziz idekirik uzten da autore eta obren zerrenda.
- Toki nasaia, nasaiena orrialde kopuruaren aldetik, eskaintzen zaio sorkuntza garaikideari.
- Eleberria da egungo genero nagusia.
- Euskal literaturaren historia «objeto» konplexu gisa hartua da, sistema bezala. Giza zientzietatik (soziologiatik adibidez) heldu diren konzeptuen bitartez aztertzen dituzte eremu literarioan diren harreman eta lokarri sozialak.

### **Aldaketa nagusi bat eremuan: Paradigma aldaketa:**

Patroi horren oinarrien artean, ondoko bi hauek dira azken mende laurdenen agertu eta indartu direnak: garaikidetasunari emana izan zaion lehentasuna eta narratibaren nagusigoa. Ez ditut puntu horiek gehiago aipatuko, begien bistakoak baitira denentzat. Bainan, azpimarratu behar da, aldaketa nagusi bat, paradigma aldaketa bat bultzatu dutela eredu historiografikoaren baitan.

Ondorioz, 80-eko hamarkadaren atarian finkaturik zegoen modelo historiografikoa (Mitzelena, Sarasola, Torrealdei, etb) gainditua izan da. Horrengatik, erran daiteke eredu «berritua» izan dela.

### **Garaikidetasunari lehentasuna:**

Garaikidetasunaren lehentasun horren neurtzeko, har daiteke adibidez I. Aldekoaren liburua. Euskal literaturaren historia orokorra aurkezten du, hots bost mende. Azken berrogeitahamar urteek, bigarren gerlatik landa Aresti, Mirande eta Txillardegirekin hasten diren garai moderno eta garaikideek, liburuaren erdia hartzen dute nonbait han. Eta, beti liburu berean, XX-garren mendeko azken hogeitahamar urteek 9 sartze ezberdin badituzte, liburu osoak 21 bat sartze dituelarik. Abantxu sartzen erdia azken mende laurdenarentzat da, beraz.

### **Narratiba nagusi.**

Beste seinale bat: narratibari ematen zaion ardura berezia. Narratiba, «genero nagusi» bilakatua da bigarren gerlatik hona euskal literaturan, inguruko kulturetan bezala, gurea berantarekin halakatu bada ere. Euskal literaturaren munduan aurkitzen diren partaide guziek (idazleek, irakurleek, argitaratzaileek, kazetetako eta unibertsitateko kritikariek) hogoi bat urtez obratua dute mugimendu «normalizatzaile» hori. Denbora berean, ordu arte narratibaren hein bertsuan aurkitzen ziren generoak –poesia eta saiakera– zokoratuak izan dira. Aldaketa hori onarturik, Euskal literaturaren historiek ere narratibari ematen diote lehentasuna.

#### 4. Zein ote dira eredu berrituaren ahuleziak historiografiaren ikuspegitik?

Beraz, luzatu gabe azken pundura pasatuko naiz. Orai, eredu berrituak ekar lezazkeen arazo historiografikoak aipatuko ditut. Molde eskematikoan emanak dira, eztabaidaren abiapuntu gisa.

##### Periodizazio eredu iraunkor bat ba ote dugu?

Orain arteko euskal literaturaren historiak konparatzen badira aladaketa nabaria aurkitzen da periodizazio mailan. Ondoko adibideek adierazten duten bezala, lehengo garaiez ez da batasunik periodizazio mailan:

##### **K. Mitxelena (1960):**

1. Ahozko literatura.
2. Hastapenak. XVI. Mendea.
3. XVII. Mendea.
4. 1700 –1850.
5. 1850 – 1960.

##### **J-B. Orpustan (1996):**

1. 1545 aintzin.
2. 1545 – 1670.
3. 1670 – 1815.
4. 1816 – 1907.
5. 1908 – 1950.

##### **I. Sarasola (1970)**

1. 1545 – 1901.
2. 1901 – 1964.
3. 1964 – 1971.

##### **I. Aldekoa (2004):**

1. XVI. Aitzin: kap. 1.
2. XVI – XVII: kap. 2, 3.
3. 1700 – 1833.: kap 4, 5.
4. 1834 – 1936: kap. 5, 6, 7, 8.
5. 1937 – 1950: kap. 9.
6. 1950 – 1975: kap. 10, 11, 12.
7. 1975 – 2000: kap. 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20.

Historia egileek oinarri historiografiko berdinak erabilirik ere, badirudi eredu iraunkorrik ez dela oraindik finkatu ahal izan garai zaharrei buruz. Zailtasun horren adibide bat ematekotan, aipa daiteke Iparralde eta Hegoaldearen arteko ezberdintasuna XIX.mendearen tratamenduan. Hegoal-

deko historialarientzat, Karlistadek XIX. Mendearen banaketa diakronikoa bideratzen dute edo, bederen, eragin handiko mozturak bezala emanak dira.

XIX. Mendea, Iparraldetik (J.B. Orpustan, 1996 adibidez) ikusten bada, garbi dago Frantziako Historian gertatu hausdura handiek (1789-ko Iraultza; Napoleon Lehenaren Inperioa –1802/1815–; 1848-ko Iraultza; Napoleon Hirugarrenaren garaia edo «Bigarren Inperioa» –1852/1870–; 1870-ko gerlaren galtzea eta Hirugarren Errepublika, etb.), banaketa eragiten dutela.

Eta aurki daiteke horrelako ezberdintasun asko gaineko bi ikuspegien artean, bai eta ere Iparraldeko edo Hegoaldeko ikuspegien baitan, hala nola bigarrenean Ibon Sarasolak proposatzen duen banaketa diakronikoa, 1901 eta 1964 bi urte mugen inguruan.

Zertarik ateratu behar dira urte muga horiek? Euskal Herriaren Historiaren alorretik? Inguruko Erresumen Historiaren alorretatik? Inguruko Erresumetako et Euskal Literaturaren baitako alorretatik?

### **Horrelako desoreka diakronikoa ezin bestezkoa dea?**

Bestalde, periodizazio gai horri jarraituz, erran daiteke garai literarioen arteko desoreka diakronikoa handitu dela lehengo historiak eta oraikoen artean. Badirudi, azken 30 urtetan, literaturaren eremuan gertatu aldaketa nagusiak, haiek ekarritako ondorioak eta haietatik sortutako bilakaera hartu dituztela kondutan historia egileek, besterik gabe. Hots, bilakaera horren lekuko gisa, begien bistan zutena aztertu dutela objektiboki. Bainan, denbora berean, historia egileek aukera historiografiko bat egin dute nagusiki. Gaur egun idazten ari den literatura kondutan hartzea erabaki dute. Gainera, literaturaren definizio «modernista» aukeratu dutelako, desoreka diakronikoaren indartzera behartuak izan dira. Bi aukera horiengatik, azken 30 urteen tokia handitu da ezin bestez.

Beste tradizio historiografikoetan, ez da garaikideen azken punta literaturaren historia orokorrean sarrarazten Gehienetan, bestalde lantzen da, molde berezi batez<sup>12</sup>, nahiz joera hori aldatzen ari den astiro. Bortxaz, urte

<sup>12</sup> Ikus: VIART, Dominique, VERCIER, Bruno, 2005, *La littérature française au présent*, Bordas.

batzuen gibelatzapena hartuz, idazle garaikideen multzo nasaiaren baitan bahetze edo irazte lana berenaz egiten da eta, «konsakratu berriak» tantaka baizik ez dira sartzen korpusetan eta kanonean.

### **Nola antola korpusaren baitako desoreka?**

Horrela eginez, lehengo garaiek tratamendu joriagoa badute. Hortaz ohartzeko, aski da *Précis d'Histoire littéraire basque* (1996) liburua hartzea. Azterketa XX-garren mende erdian (1950) gelditzen da. Garbi dago gaur egun guretzat «literario» ez diren sailek badutela liburu hortan toki nasaia eta ñabardura askorekin zehaztuak direla: «La poésie de circonstance, la poésie religieuse et la poésie didactique», «Aux marges du littéraire: dévots, apologistes et grammairiens», «Deux prosateurs issus du journalisme», etb. Hots, besteetan agertzen ez diren kategoria batzu.

Aipatzen ditugun historia berrietan (Aldekoa, Kortazar, Olaziregi) aldiz, lehengo garaiak gehiago «bilduak» dira. Bainan, bigarren gerlatik landa (Aresti/Mirande, etb.) eta, are gehiago 1975-etik goiti, garaiak nasaitzen eta laburtzen dira eta badirudi gero eta lasterrago iragaiten direla. Gisa berean, obra eta autoreen sailkapena gero eta zehatzagoa bilakatzen da gure garaitik hurbiltzean, kategoriak ugaritzen dira, ñabardurak ere bai. Kategorien izenburuak guziz zehaztuak dira:

- M.J. Olaziregi: «Euskal eleberri modernoa», «Modernitate osteko euskal eleberrigintzaren aurpegi anitzak (1975-2000).
- I. Aldekoa: «Modernotasuna euskal eleberrigintzan: Txillardegi eta Ramon Saizarbitoria»; «Trantsizioko euskal literatura (1975-2000).
- I. Aldekoa / J. Kortazar: askotan, sailkapena kronologiaren arabera egiten da. «Laurogei eta laurogeita hamarreko urteetako poesia»; «80ko hamarkadako literatura: poemagintza».

### **Zer pentsa kanonaren iraunkortasunaz?**

Gorago aipatu diren aukerek ondorioak badituzte ere kanon-aren baitan eta haren iraunkortasunari begira. Komuzki, beste tradizioetan, kanonaren baitako edukia eta oreka bi molde ezberdinez aldatzen da:

- *Kanpotik*: idazle garaikide zenbait sarrarazten dira bainan, astiro, bahe metodologiko batzuen bitartez eta tradizio historiko ezberdinen eritimoaren arabera<sup>13</sup>.
- *Barnetik*: ikerketaren bitartez, tesia edo saiakera baten kariatetan, autore bat, mugimendu bat edo garai bat berriz miatzen da eta, aurkikuntza berrien arabera, ordu arteko «baloreak» gora edo behera mugitzen dira.

Euskal literaturaren historian, azken 30 urte hauetan egin diren aukera historiografikoengatik, garbiki ikusten da 1950-eko aurreko kanon-a abantxu hunkitu gabe berresten dela liburuz liburu. Salbuespen guti izan da (Oihenart, Jean Etxepare) eta oro har, eztabaida guti (Bernat Etxepare).

#### – Zein da gurean garai aldaketen eragilea?

Inguruko kultura garatuetan, «Modernitateaz» geroz, hausduraren konzeptoa erabilia da garaien arteko banatzaile eta aldaketen eragile bezala. Frantses literaturan adibidez, Mugimenduak (Dada, Surrealismoa, etb.) eta idazle eskola edo taldeak (Sartre/Camus, «Nouveau Roman», etb.) garai literarioen ezaugarri nagusitzat hartzen dira. Mugimenduak elgarri oposatzen dira (Erromantismoa / Simbolismoa, etb.) eta garai batetik bestera iragaiten da hausdura estetiko batzuk direla medio.

Ibon Sarasolak hausduraren konzeptoa erakarri zuen euskal alorrera eta bere *Euskal literaturaren historia*-n (1971) erabili zuen: «Euskal literaturaren bi fetxa nagusiak, 1901 eta 1964, alde edo molde gertakizun politiko biri lotzen zaizkie, 1901-eko kasuan, Euzko Alderdi Abertzaleari<sup>14</sup>, 1964-ekoan euskaldungoari buruz sortzen hasten diren idea berriei.» Geroztik, Ibon Sarasolak egin zuen bezala, «Hausduraren kontzeptoa» Historiari loturik agertzen da komuzki, hala nola «1975» urte mugarekin. Gisa berean, aurreko garaientzat ere erabiltzen da, hala nola 1957-ean Txillardegik argitaratu zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriarentzat. Obra berritzaile hori askotan emana da euskal eremuan gertatu hausdura estetikoetatik baten ezaugarritzat.

<sup>13</sup> Adibide gisa, frantses tradizio historiografikoa aipa daiteke kontserbadoreen artean.

<sup>14</sup> Hitz honi lotua oin ohar batean ondoko xehetasunak agertzen dira: «Euzko Alderdi Abertzalea 1895-ean fundatu zen. Euzkadi» aldizkariaren lehen numeroa, 1901-ean agertu zen.»)

### Nola konpondu generoen tratamendu murriztailea?

Generoen tratamenduan ere desoreka agertu da narratibaren faboretan. Horrela eginez, gorago erran bezala, aldaketa kantitatibo bat sarrarazten da azterketaren oinarrietan. Bainan, denbora berean, aldaketa kalitatibo batzuk ez dira kondutan hartuak. Adibidez, 30 urtez iparraldean garatutako «antzerki berria»-k (D. Landart, Irigoyen anaiak, A. Luku, P. Hirigaray, etb.) ez du oraindik literaturaren historian ardietsi gizartean ukan duen araberako tokia. Gauza bera erran daiteke poesiaz, non ez den aipatzen genero horren aztertzeke gina den liburu bat<sup>15</sup>.

Generoen tratamenduak korpusaren baitako oreka alda lezake ez bada narratibaren garrantzia, gisa batez edo bestez, neurri batean kontrolatzen. Poesiaren tokia azterketa kritikoa baita ere «kanon» berrian murriztuz joan da, urteak joan arau. Euskal literaturaren historian garrantzi kantitatiboa eta kalitatiboa orekatu behar litazke molde berezi batez.

### Aurkako kondaketak beharrezkoak ote dira?

Badirudi, nahi ala ez, «tradizio moduko kondaketa hastapen»... bat finkatzen ari dela, euskal literaturaren historian, «eskola sistema»-ren laguntzarekin. Eta, itxura guzien arabera, «kondaketa» hori konzentzuala bilakatzen ari da.

Beraz, «kontra ereduak» edo «aurkako kondaketak» deitu konzeptuen gogoetatzeko garaia etorria ote da? Frantses literaturan adibidez ez da «aurkako eredu» tradizioz, eredu ortodoxoa guziz sendoa baita eta ongi hedatua instituzio indartsu batzuen bidez. Halarik ere, horietatik bat bada indartzen ari dena Karaietako eremuan, Kreolar Letrak irudikatzen duten Edouard Glissant<sup>16</sup>, Patrick Chamoiseau<sup>17</sup> eta Raphaël Confiant<sup>18</sup> bezalako idazleei esker.

<sup>15</sup> LANDA, Josu, 1983, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK, KORTAZAR, Jon, 1997, *Luma eta lurra*, Labayru.

<sup>16</sup> GLISSANT, Edouard, 1981, *Le Discours antillais*, Gallimard; 1990, *Poétique de la relation*, Gallimard.

<sup>17</sup> CHAMOISEAU, Patrick, 1997, *Ecrire en Pays dominé*, Gallimard.

<sup>18</sup> CONFiant, Raphaël, CHAMOISEAU, Patrick, 1999, *Lettres Créoles*, Gallimard.

Estatu Batuetan, Indian eta munduko anitz eskualdetan, «Post-Colonial Studies» mugimenduaren eraginez –besteak beste–, «Aurkako kondaketak» idazten ari dira, tokiko literaturen ikuspegitik.

Euskal eremuan mementoan ez da horrelarik garatu, Joseba Gabilondoren proposamena<sup>19</sup> salbuespen bakarretatik delarik. Haren ustez, Europarrek denetara hedatu zuten «eredu nazional» –alegia– unibertsal hura hats hantua da eta desagertzeri doa. Denetan krisian da «modelo» hori. Euskal herrian ere, osoki eraiki baino lehen, krisian sartua da J. Gabilondok dionez. Hortaz batere konturatu gabe, garai berri batean sartuak omen gara «Europako» Euskal Herrian. Mimatua nahi dugun «eredu nazionalak» trabatzen gaitu aldaketa horietaz ohartzeko. Erdigunetik kanpo dauden Euskaldunek, diasporakoek –Joseba Gabilondo Estatu batuetan bizi da, adibidez– eta, hemen berean, gure arteko gutiengoek –harek emazteak eta homosexualak izendatzen ditu– eredu nazionalaren gainetik pasatzen dira.

## Konklusioa

Lehen datu bilketa bat baizik ez da gaineko lana. Garbi dago Txuma Lasagabaterrek finkatu zuen programa ez dugula bete. Halere, Euskal literaturaren historiaz eredu «erabilgarri» bat badugu esku artean, Iparraldean eta Hegoaldean erabiltzen eta irakasten dena baita ere kanpora hedatzen dena. Haren alde onak eta haren gabeziak ikusten ditugu. Beraz, bi egun hauetan antolatutako diren ausnarketa kritikoei esker, pentsa daiteke gaur egungo «euskal literaturaren historiak» eskaintzen digun eredia hobetzen ahalko dugula.

## Bibliografia

### Erreferentzia orokorrak

BACKÈS, J.L., 1996, *La littérature européenne*, Belin .

---

<sup>19</sup> GABILONDO, Joseba, 2004, *Nazioaren Hondarrak*, Euskal Herriko Unibertsitatea.



BARTHES, R., 1960, «Histoire ou littérature?» in *Annales*.

CHAMOISEAU, P., 1997, *Ecrire en Pays dominé*, Gallimard.

CHAMOISEAU, P., CONFIANT, R., 1999, *Lettres Créoles*, Gallimard.

CURTIUS, E.R., 1956, (frantses itzulpena), *La littérature européenne et le Moyen-âge latin*, PUF,

ESCARPIT, R., 1958, *Sociologie de la littérature*, PUF, 1958. Askoren artean, (Robert Escarpit-en zuzendaritzapean), 1970, *Le littéraire et le social*, Flammarion.

GLISSANT, E., 1981, *Le Discours antillais*, Gallimard; 1990, *Poétique de la relation* Gallimard.

JAUSS, H.R., 1978 (frantses itzulpena), «Histoire de la littérature», in *Pour une esthétique de la réception*, Gallimard,

LANSON, G., 1894, *Histoire de la littérature française*.

SARTRE, J.P., 1947, *Qu'est-ce que la littérature?*, Gallimard.

VERCIER, B., VIART, D., 2005, *La littérature française au présent*, Bordas.

### **Euskal literaturaren historia**

ALDEKOA, I., 2004, *Historia de la literatura vasca*, Erein.

———, 2008, *Euskal literaturaren historia*, Erein.

ETXANIZ, X., 1997, *Euskal haur eta gazte literatura*, Pamiela.

ETXANIZ, X., LOPEZ GASENI, M., 2005, *90eko hamarkadako haur eta gazte literatura*, Utriusque Vasconiae.

GABILONDO, J., 2004, *Nazioaren Hondarrak*, Euskal Herriko Unibertsitatea.

GARATE, G., 1983-1985, *Euskal eleberraren kondaira*, Gotzon Garate, Mensajero.

JUARISTI, J., 1987, *Literatura vasca*, Taurus.

KORTAZAR, J., 1990, *Literatura vasca. Siglo XX*, Mensajero.

———, 1997, *Luma eta lurra*, Labayru.

———, 2002, *Diglosia eta euskal literatura*, Utriusque Vasconiae.

- , 2003, *XX. Mendeko euskal literatura*, Prades.
- LANDA, J., 1983, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK.
- LASAGABASTER, Tx., 1983, *Las literaturas de los vascos*, Deustoko Unibertsitatea.
- LEKUONA, J-M., 1982, *Ahozko literatura*, Erein.
- LHANDE, P., 1925, *Le Pays basque à vol d'oiseau*, Beauchesne.
- LOPEZ GASENI, M.,
- MITXELENA, K., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro.
- MUJICA, L.M., 1979, *Historia de la literatura euskerika*, Kriseilu.
- OLAZIREGI, M.J., 2002, *Euskal eleberraren historia*, Labayru.
- ORPUSTAN, J-B., 1996, *Précis de littérature basque*, Izpegi.
- SALABERRI MUÑOZA, P., 2000, *Iraupena eta lekukotasuna*, Elkar.
- SARASOLA, I., 1971, *Euskal literaturaren historia*, Lur.
- , 1975, *Euskal literatura numerotan*, Lur.
- TORREALDAI, J.M., 1977, *Euskal idazleak gaur*, Jakin.
- , 1997, *Euskal kultura gaur*, Jakin.
- URKIZU, P., 1975, *Euskal teatroaren historia*, Kriselu.
- , (zuzendari: askoren artean), 2000, *Historia de la literatura vasca*, Uned.



# Euskal literaturaren historia; begirada berriaz

ETXANIZ, Xabier

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskal literaturaren historian azterketa ezberdinak egon dira. Orain, berriz, polisistema-ren teoria kontuan izanik, historiografia berri bat egin behar dugu. Ikuspegi zabalago batekin, irizpide literarioetan oinarrituta, literatura-sistema eta sistemen arteko harremanak kontuan izanik eginiko historiografia.

Atzera begiratze horrek, baina, ez dugu etorkizunei begira ditugun erronkak bazterrarazi behar.

**Hitz-gakoak:** Literaturaren historia, azterketa orokorra, eredu sistemikoa.

En la historia de la literatura vasca ha habido diferentes análisis. Ahora, de nuevo, y teniendo en cuenta la teoría de los polisistemas, debemos hacer una nueva historiografía. Con una perspectiva más amplia, basada en criterios literarios, una historiografía que tenga en cuenta el sistema literario y las relaciones entre estos sistemas.

Esta mirada retrospectiva, pero, no ha de suponer dejar a un lado los retos del futuro.

**Palabras clave:** Historia de la literatura, análisis general, modelo sistemático.

L'histoire de la littérature basque a connu différentes analyses. Nous devons maintenant, en prenant en compte la théorie des polysystèmes, réaliser une nouvelle historiographie, dans une perspective plus large basée sur des critères littéraires, une historiographie qui prenne en compte le système littéraire et les relations entre ces systèmes.

Ce regard rétrospectif ne doit pas laisser de côté les défis du futur.

**Mots-clés :** Histoire de la littérature, analyse générale, modèle systématique.

There have been different analyses in the history of Basque literature. Now, bearing in mind the polysystem theory, a new historiography needs to be produced, a historiography made with a broader perspective, based on literary criteria, and produced bearing in mind the relationships between the literature system and systems.

But this retrospective stance does not mean that we should abandon the future challenges facing us.

**Keywords:** History of literature, general analysis, systemic model.

Literaturaren historia pertsona edo talde batek une zehatz batetik eginitako azterketa diakronikoa dugu. Azterketa horretan literatura lana dugu ardatz nagusia, baina literatura gertakari soziala da, gizarte batean eta historia une zehatz batean jazotako gertakaria. Are gehiago Itamar Even-Zohar irakasleak proposaturiko polisitemaren teoria kontuan izanik; bertan adierazten den bezala literatura elementu ugariren konbinaketa da. Literatura egoteko idazleaz gain, irakurlea, merkatua, testuingurua, kodea, mezua eta kanala (eta beraien arteko erlazioak) izan beharko genituzke kontuan.

Euskarazko literaturaren kasuan hizkuntzaren egoerak zerikusi handia izan du gure literatura garatzeko orduan eta hori euskarazko lehen idazkian bertan ageri zaigu Bernat Etxepareren hitzetan:

*Berce gendec vste çuten  
Ecin scriba çayteyen  
Oray dute phorogatu  
Enganatu cirela.*

1545ean idatzitako testuak euskal idazlanetan XX. mendeko azken hondarretaraino, gehiagotan edo gutxiagotan, ageri zaigun kezka azaltzen digu: euskara bizirauteko nahia, beharra. Hona hemen, horren adibide gisa, XX. mendean idatzitako hainbat libururen hitzaurretatik ateratako pasarte esanguratsuak:

«Dana-dala, gure Ama Euzkereari opari txiki au egingura ixan sautsot, orren biarra, !biar andija gero!, daukolako.

Euzkeraz ikasten dabillan mutil zintzo batek, Jauregibeitia'tar Ander'ak, egin dauz idazti onetan ikusiko dozuzan idantzekijak, idantzeki politak. Onak be zeozer opaldu gura ixan dautso gure Euzkera matagarijari». (Joseba Altuna, O. Wilderen *Ipuiak* liburuarren hitzaurrean, 1927)

«Eta dena izanen da gure Eskuararen onetan, haren maitarazteko eta hedarazteko, Jainko maiteak hala nahi duelarik». (Mayi Ariztia, *Amattoren uzta* liburuarren hitzaurrean, 1943)

«Jaungoikoa'ri bearrik orixe ba-dugu: euskeraren alde aritzeko etengabeko borondatea. Beraz, Jaunogiko on-onak eta zuk, irakurle maite orrek, asketsiko (absolver) al dizkidazute liburu ontako utsegi

ta aizki esanak». (Jon Etxaide, *Purra! Purra!* liburuaren hitzaurrean, 1953)

«Ta inguru au izando al da bide bat sorkaldeko euskaldunak gure euskalkia ta zikolojia obeto ezagutu deien» (Juan San Martin, *Zirikadak* liburuaren hitzaurrean, 1960)

Kezka horrek mende bukaerako liburuetan ere presentzia du:

«Eta inguru honetan oraindik bizirik irauten duen kulturarekin, ohiturarekin, euskararekin moldatzen lagundu nahi diogu...». (Imanol Urbiet, *Haur kantarien birlorak* liburuaren 2. argitalpeneko hitzaurrean, 1990)

Euskararen egoerak, eremu urriko hizkuntza, populazio gutxikoa eta inguruko hizkuntzetatik nahiko berezia izateak izugarrizko pisua izan du gure literaturaren garapenean. Arestian ikusitako oharretan ageri den bezala urtetan euskal sortzaileek euskara bera izan dute kezka eta idazlanak plazaratzearen arrazoi nagusia. Euskaraz egin daitekeela, euskaraz egin behar dela, euskaragatik, euskararen ohorean idatzi izan dira testu asko eta asko eta horrek desorekatzen du erabat literatur egoeraren panorama, izan ere sarritan beste hizkuntzetan edo beste literaturetan egiten zirenen antzeko lanak plazaratu izan dira, tradizioa, irakurlea, merkatua... kontuan izan barik.

Literaturaren historia batek idazlanak izan behar ditu kontuan, baina horiekin batera, Even-Zoharrek dioen bezala, literatur komunikazioan parte hartzen duten gainerako elementuak ere kontuan izan behar ditugu (irakurleak, azterketak, tradizioa... bai eta gertakari politiko eta sozialak). Jakina, historia guztiek begirada bati erantzuten diote, Antoniok Venturak (2001: 7) dioen bezala, historiagilearen begirada du historia batek. Eta historiagile horrek interpretatu beharko ditu garai bateko egoera eta arauak idazlan batzuk literariotzat hartzeko orduan ala ez, urte eta garai ezberdinetan kontzepzio oso diferenteak izan baitira literaturaren inguruan. Horregatik guztiagatik Maldonadok bi arazo nagusi ikusten ditu historiografian: batetik zehaztea zer den literatura eta nola erlazionatzen diren literatura eta historia, eta bestetik nola sailkatu, aukeratu, baloratu literatura arloko datuak (Maldonado, 2006: 11).

## Euskal historiagileen begirada

Euskal literaturaz eginiko aurreneko historietako bat dugu Mitxelena 1960an plazaraturikoa (1988an Erein berrargitaratua); bertan honako hau dio ikerlari ezagunak:

«A pesar de la reincidencia, estoy muy lejos de ser un especialista en historia literaria (...) como lingüista he solido atender preferentemente en los textos a aspectos que tienen muy poco que ver con su valor literario». (Mitxelena, 1988: 7)

Baina hori esan bezain pronto bere irizpidea eta bere jarrera azaltzen du; hots, zein den bere begirada:

«no he tenido el menor propósito de ser exhaustivo (...). Me doy perfecta cuenta de que con ello me hago culpable de inevitables omisiones y pretericiones que lamento de todo corazón. No tengo ninguna confianza en la seguridad de mi juicio y no pretendo imponer a nadie mis opiniones (...). No me he preocupado de no herir susceptibilidades porque estimo indispensable que quienes sientas inquietud por estos problemas sepan hasta qué punto ha sido mediocre nuestro pasado». (op. cit.: 8)

Argi eta garbi mintzo da Mitxelena bere buruaz eta euskal letrei buruz. Eta hitzurre amaieran eskatu bezala laster hasi ziren literaturaren inguruko bestelako ikerketa batzuk plazaratzen. Lehena urtebete beranduago, aita Villasantek idatzitako *Historia de la literatura vasca*. Bertan euskal idazlearen bakardadeaz hitz egiten da: «Es ya un mal crónico entre nosotros que el escritor vasco crezca y madure su obra en un clima de aislamiento y soledad de espíritu, lo cual por fuerza tiene que influir desfavorablemente en el desarrollo de la literatura vasca.» (Villasante, 1979: 18), baina baita euskal literaturaren izaeraz. Vinsonen (1925) euskal literatura bat ukatzen zuen bitartean, Villasantek liburukote horrekin kontrakoa erakutsi nahi du («nuestro libro lo evidencia suficientemente» op. cit.: 19) nahiz eta bera ere oso kontzientea izan azterturiko testuek nolako maila literarioa izan dezaketen: «Lo que podría discutirse en todo caso son sus verdaderas dimensiones y alcance, o sea, el valor e índole de esa literatura. (...). La literatura culta o libresca es más bien tardía, escasa y de no muy alta calidad.» (op. cit.: 19).



Mitxelenaren historiaren parean Villasantek euskaraz idatzitako idazlan guztien bilketa egiten du:

«Al decir que escribimos la historia de la literatura vasca es preciso advertir ante todo que no entendemos esa palabra <literatura> en su sentido restringido de <bella literatura>, de producciones desinteresadas con vistas a expresar la belleza literaria o estética (...) Nosotros queremos tomar el vocablo en su sentido amplio de todo libro o publicación escrito en lengua vasca». (op. cit.: 20).

Eta horren ondorioz agertzen dira, historiagileak berak aitortu bezala (op. cit.: 21), hainbat linguista; Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Dodgdon,... literaturaren kontzepzio zabal horren lekuko.

1980ko hamarkadatik aurrera historiagileen ikuspegia aldatu egiten da, nork berea izango du baina bada gero eta handiagoa den kezka literatura lana eta idazki hutsak bereizteko. Lasagabasterrek (1983) kritika nahiko zorrotza egin zuen euskal literaturaren historiografia batik bat literaturatik kanpoko kontuetan, historia biografikoa, soziologikoa edo filologikoan aritzen zela eta horien ordeaz azterketa literarioa falta zela.

Eta aldaketa hori, literaturaren historiografia egiteko ikuspegi berria ageri du Jon Juaristik *Literatura vasca* (1987) idazlanean; hispaniar literaturaren ikuspegi historiko kritiko zabal baten barruan, bere lanak balio literarioa duten euskal lanak jasotzen ditu: «Aun cuando los criterios utilizados pueden resultar muy discutibles, he intentado en todo momento discernir entre los verdaderos literatos y los simples escritores» (Juaristi, 1987: 10).

Antzeko iritzia adierazten du Jon Kortazarrek *Literatura vasca. Siglo XX* (1990) lanean honako hau dioenean:

«Hablarse de literatura, en el contexto de la lengua vasca, debe hacerse con una cierta prudencia, porque lleva consigo consecuencias ineludibles. En primer lugar, su objeto *no consiste ya* en todos los libros publicados en euskara, sino en aquellos, que en una perspectiva de tradición, hayan sido *considerados como de cierta calidad estética*, siempre relativa. En segundo lugar, reclama una posición con respecto al valor de la literatura vasca». (Kortazar, 1990: 7-8) (azpimarrak nireak)

Argi dago, Kortazarrek aurreko historietatik bereizketa marra bat markatzen duela (dagoeneko ez dira liburu guztiak sartzen) eta irizpide literarioak erabiltzen dituela historia egiteko orduan (nolabaiteko kalitate estetikoak izan beharra). Harrera estetikak literatura interpretatzeko, aztertzeko, modu berria ekarri zuen eta horren ondorioz hartzaileak eta ikertzaileak bere irizpide literarioa nagusitzen du. Alde horretatik, esan dezakegu, asmo literario horiek izan direla ondorengo urtetan egin diren historia liburu-erakundearen irizpide nagusiak.

### Historia historiagileen begiradan

Modu batean edo bestean ulertuta zer den literatura historiagileak nolabaiteko periodizazioa egin ohi du, horretarako gertakari historikoak, literatura korranteak, inguruko literaturak eta abar kontuan izango dituelarik.

Hona hemen euskal literaturaren hegoaldeko historiagile batzuen periodizazioa eskema labur batean:

Mitxelena	Villasante	Juaristi	Aldekoa*
Hasiera, XVI. Mendea	XVI. mendea	Hasiera- Dechepare	XVI. mendea
XVII. Mendea	XVII. Mendea	XVI-XVIII. mendeak	XVI-XVII. mendeak
1700 - 1850	XVIII. Mendea	1800-1890	XVIII. mendeak
1850etik gaur egunera	XIX. Mendea	1890-1936	1790-1890
	XX. Mendea	1936-1975	1890-1930
		1975-1980	1930-1936
			1936-1970
			1970-1975
			1975-2000

\* Gutxi gora-beherako periodizazioa.

Azterketak ikustearekin batera argi eta garbi nabaritzen da zehaztasun handiagoa eskaintzeko asmoa Mitxelenaren lau denboraldietatik Alde-

koaren banaketa askoz zehatzagora eta, gainera, generokora. Baina, zehatzago edo orokorrago, nahiko garbi dago (Villasanteren medekako zatiketa izan ezik) XX. mendera arteko banaketa nahiko antzekoa dela, eta honek badu zerikusia hegoaldeko gertakari erlijiosoekin (erreforma eta erreformaren kontrako mugimendua) eta politikoekin (foruen galera eta nazionalismoaren sorrera).

2004an, Iñaki Aldekoak idatzitako euskal literaturaren historiari eginiko hitzaurrean, Lasagabasterrek kritika nahiko zorrotza egin zien aurretik eginiko hainbat historia lani:

«La historiografía literaria vasca, aun no siendo demasiado abundante, ha sido hecha desde perspectivas metodológicas muy diferentes, dejándose marcar por las modas o las corrientes que prevalecían en cada momento de la historiografía literaria general: la visión más bien positivista, en que la historia quedaba reducida a un catálogo más o menos exhaustivo de autores y de obras expuestos cronológicamente, pero sin la menor voluntad de aproximarse al sistema literario y menos aún a su contextualización en el interior de la vida cultural y social. Y cuando la contextualización cobró actualidad en las <historias sociales> de la literatura, también la historia de la literatura vasca pagó su tributo a la moda del momento, pagando el tributo de una interpretación demasiado mecánica, por no decir mecanicista, de la relación entre el hecho literario u la vida social; o, como es también el caso, introducir los datos históricos y sociales como prólogo al tratamiento propiamente literario de cada tema». (Lasagabaster, 2004:7)

Egia da Lasagabasterrek dioena, baina era berean egia da ere kritika hori gaur egungo literatura teorietatik egina dela. Izan ere, oraindik ere zehaztu edo argitu gabeko bi kontu daude, Maldonadok –arestian ere aipatu izan dugun bezala– komentatzen dituen historiografiako arazo nagusiak: zehaztea zer den literatura eta nola eraiki literatura kanonikoa.

## Begirada berriaren bila

Literatura kritika berriaren ikuspuntutik hainbat teoria eta iritzi eman dira historiografiaren nondik norakoa zehazteko orduan. Duela hamarkada

batzuk René Wellekek literatura periodoaren definiziorako urratsak eman zituen. Kritiko honen ustez periodoa honakoa hau da: «una sección de tiempo dominada por un sistema de normas, pautas y convenciones literarias cuya introducción, difusión, diversificación, integración y desaparición pueden perseguirse» (Wellek eta Warren, 1966: 318). Alegia, hainbat elementuren batasunaren ondorioz gertatzen dela eta ez gertakari edo elementu bakar baten emaitza moduan; are gehiago, ikerlariaren ustez literatura periodo bat ez da banaketa kronologiko hutsa, izan ere, periodo batean balore bat nagusitzen bada ere horrek ez du esan nahi bestelakoak azaltzen ez direnik. Horregatik guztiagatik Aguiar e Silvak honako hau dio:

«El concepto de período literario que estamos analizando implica todavía otra consecuencia muy importante: los períodos no se suceden de manera rígida y lineal, como bloques monolíticos yuxtapuestos, sino a través de zonas difusas de imbricación e interpenetración». (Aguiar e Silva, 1996: 249)

Alde horretatik modu kritikoan azertu behar dira orain arteko hainbat banaketa, edo, horrela ez bada, argi eta garbi izan behar dugu periodizazio bat, edo korrante berri bat, aro bat, ... aipatzen dugunean horrek zer esan nahi duen eta garaiak ez direla bloke itxiak.

Bestalde, aurretik ere ikusi bezala, Aguiar eta Silvak dioen bezala garai bateko azterketa literarioa egiterakoan denbora horren errealitatea ikuspegi ezberdinetatik ezagutu behar da:

«el análisis de un período literario exige el conocimiento de las condiciones históricas generales de la época respectiva y, sobre todo, el conocimiento de las distintas artes, en el mismo período –pintura, escultura, arquitectura, música, etc.–. En efecto, el estudio de las coincidencias y divergencias entre la literatura y las demás artes puede ser muy esclarecedor acerca de la gestación, la textura y el significado de un período literario». (*op. cit.*: 251).

Guk gehituko genuke horrez gain garaiko egoera soziolinguistikoa ere guztiz garrantzitsua dela euskararen kasuan, bederen. Eta ez hori bakarrik, garai bakoitzean izan den filosofia, literaturarekiko joera, jarrera, ... ere kon-tuan izan behar dela. Kontzeptuak aldatu egin baitira mendeetan zehar

(XVIII. mendera arte, esaterako, errealitatearen isla izan behar zen poesia; egun, aldiz, imitazioaren teorien kontrako joera dago); eta gaur literariotzat hartzen ez dena, beste garai batean literatura izango zen, eta alderantziz. Historiagileak, beraz, presente izan beharko ditu gogoeta hauek guztiak bere azterketa egiterakoan, edo behintzat bere azalpenak ematerakoan.

Baina horiez gain, idazlan honen hasieran aipatu bezala, literatura elementu ezberdinen arteko sorturiko sarea dugu, testua baino zabalago den sarea. Even-Zoharrek dioen bezala:

«Un *consumidor* puede consumir un *producto* producido por un *productor*, pero para que el producto pueda ser generado y después propiamente consumido debe existir un *repertorio* común, cuya utilización está delimitada, determinada o controlada por una *institución* y por un *mercado* que permita su transmisión. Por otro lado, ninguno de los factores enumerados puede ser descrito funcionando aisladamente». (Even-Zohar, 1999: 30-31)

Ikuspegi berri honek literaturaren ikerketa eraldatu du eta literaturaren historia egiterako orduan zer pentsa ugari sortarazten duela uste dut. Gure artean, esaterako, nola interpretatu tiraderan urtetan eta urtetan egon den borradorea? Zer esan behar dugu *Peru Abarka* obrari buruz? Zer gertatzen da helduentzat idatzi eta gero gazteen literaturara pasatuko diren *Ambost egun Urgain'en* edo *Abarrak* bezalako lanekin?

Literatura sistema zerbait dinamikoa da, aldakorra, mugimenduan dagoena; Zohar Shavitek (1999: 148-149) Even-Zohar aipatuz dioen bezala:

«El sistema literario no es estático, sino que es “un sistema múltiple, un sistema de varios sistemas que se entrecruzan y se solapan parcialmente al usar diferentes posibilidades al mismo tiempo, aunque funcione con un todo estructurado cuyos miembros son interdependientes”».

Eta hona hemen kontuan izateko beste ideia bat, sistema baten barruan sistema ezberdinak daudela. Eta, sistema horien artean harremanak sortzen direla.

Haur eta Gazte Literaturarena (HGL), esaterako, oso adibide garbia dugu. Sarritan sistema nagusiaren periferian ageri den sistema dugu eta ko-

rronte nagusiak edo obra kanonikoekiko erakarpena izan ohi duena. Horrela, sistemaren erdigunean dauden obren antzeko lanak argitaratzen dira haur eta gazteentzat (tematika aldetik, esaterako, gerra zibilaren inguruko lanekin gertatu den bezala), edo sistemaren erdigunean dauden idazleek argitaratu dituzte lanak haur eta gazteentzat (gure artean, esaterako, aipagarriak dira, beste askoren artean, K. Izagirre, H. Cano, J. Gabiria edo U. Elorriagaren kasuak).

Baina mugimenduak beste zentzuan ere gerta daitezke, bazterreko sistematik, HGLtik, sistema nagusiaren erdigunera, Shavitek aipatzen duen bezala, literatura arauak aldatzen laguntzeko, edo sortzaileak esperimenta dezan sorkuntza prozesuan.

«El texto ambivalente es capaz de introducir en el sistema nuevos modelos (que pueden haber existido como tales tan sólo en la periferia del sistema) y participa en el mecanismo de cambio de normas literarias». (Shavit, 1999: 155)

Horrela, aurreko lan batean aipatu bezala (Etxaniz, 2007), Atxagaren helduen literatura ulertzeko nahitaezkoa da haren HGL aztertzea; errealismora eginiko jauzia, sorkuntza-itzulpen jokabidea, narratzeko modua... esperimentatu baitzituen lehenago HGLn.

Historian ere, lehenago komentatu bezala, izan dira sistema batetik bestera sorturiko aldaketak. Euskal literaturan, adibidez, helduentzat idatziriko obra asko (*Abarrak*, *Amabost egun Urgain'en*, *Patxiko Txerren*, *Pernando Amezketarra* edo *Alos-torrea*, lan batzuk aipatzearren) HGLra pasatu dira. Eta izan da ere gazte literaturatik helduenera jauzi egin duen lanen bate edo beste (*Filipinetan bizi den idazlearen kontuak*, Iturraldereen lana, esaterako).

## **Euskal historiografiaren begiradaz**

Aurretik esandakoak kontuan izanik, euskal gizartearen egoera sozio-lingüistiko-politikoak ere eragina izan du literaturaren historia ikusteko orduan. Euskal Herrian euskara ez da botere hizkuntza izan; bai hegoaldean bai iparraldean erdara izan da goi mailako jendearen arteko hizkuntza. Jua-

ristik dioen bezala: «los estamentos privilegiados de la sociedad vasca –nobleza y clero– son a la vez bilingües y diglósicos. El castellano (o el francés) es su lengua de cultura; el vasco, su lengua de relación con los estamentos inferiores.» (Juaristi, 1987: 15). Eta horren ondorio garbia dugu euskaraz idatzitako liburuen izaera lehen lau mendetan. I. Sarasolak (1975) erakutsi bezala, 1545etik 1900 urtera bitartean euskaraz 588 liburu argitaratu ziren; horietatik 101 izan ziren euskaraz sortuak eta hauetatik 12 bakarrik ez ziren liburu erlijiosoak. Hau da, euskaraz idatzitako liburu ia guztiak erlijiosoak ziren (eta honetan badute zerikusi handia erreforma eta erreformaren kontrako mugimenduek, baina baita euskara hizkuntza idatzi gisa apaizek bakarrik erabili izanak).

Honek guztiak eragin zuzena izan du euskal literaturaren garapenean. Lambertek dioen bezala (1999: 58) instituzio politikoen eta tradizio linguistikoen arteko lotura oinarrizkoa da literaturaren kanonizazioan, eta gurean ez da horrelakorik gertatu. Ez dugu botererik ez idazlanik izan literatura bultzatzeko orduan. Eta Lambertek dioen moduan «Komunitatea, hizkuntza eta literaturaren arteko harremanek izaera dinamikoa dute beti» (op. cit.: 66), baina horretarako harremana eman behar da hiru elementu horien artean.

Egoera horren aldaketa sentimendu nazionalistaren sorrerarekin hasi zen ematen. Lore-jokoen bidez, eta gero Sabino Aranak bultzaturiko nazionalismoak ideologia bat baina baita hizkuntza bultzatu ziren. Testuinguru horretan hasten da euskal literatura erlijiotik bereizten eta euskara –eta berekin batera literatura– erabiltzen da jende multzo bati batasuna emateko, sentimendu bat sortarazteko. Izan ere kulturaren bidez botereak bere ideiak inposatu izan ohi ditu, eta kultura ere erabili izan da botereari aurre egiteko. Even-Zoharrek aipatu bezala (1999:72) kulturak batasuna eman diezaioke gizarte bati eta batasun horri esker biziraun dezake gizarte batek.

Euskal Herriak politikoki bizi dituen eta bizi izan dituen egoerek eragin zuzena izan dute euskal kulturaren garapenean eta hori orain arteko literatura historiagileek ikusi eta kontuan izan duten bezala, aztertu eta presente izan beharko dugu etorkizunean ere. XX. mendeko euskal kultura, eta euskal literatura, esaterako, ezin da ulertu gerra handiak eta Espainiako gerra

zibila kontuan izan gabe, eta gerra horiek gure herrian izan zuten ondorioak aintzat hartu gabe. Antzeko zerbait esan genezake euskara hizkuntzaren trataera ofizialari buruz, edo, beste maila batera pasatuz gure kulturak, literaturak, une bakoitzean izan duen garrantziari buruz, kontuan izan behar baitugu:

«Cuando uno se encuentra en la periferia cualquier cosa que haga, todo su repertorio, resulta por definición inferior al centro, pues los que ocupan en el centro siempre dominan mejor su repertorio, y por lo tanto se toman más fácilmente la libertad de ampliarlo o transformarlo». (Even-Zohar, 1999: 94)

Alegia zein den une bakoitzean gure sistemaren erdia eta periferia edo bazterra, non kokatzen garen. Eta alde honetatik oso garrantzitsua da euskal literatura sistema autonomotzat hartzea edo beste baten bazterrekotzat (eta badirudi batzuen ikuspegitik azken hau dela gure egoera).

## **Euskal historiagileen begira berriaz**

Literaturaren historiak lagundu egin behar du literatura ulertzen, ezagutzen. Hots, zer izan den, nola egin den, zein testuingurutan, zergatik, ... eta hori guztia gizarte zehatz batean.

Bestalde oso presente izan behar dugu historiagileak bere begirada duela eta bakoitzak duen formazioa, garaia, errealitatea... islatzen duela azterketan; are gehiago historiagileak argi eta garbi izan behar du «bere» historia egiten duela (adibidez, *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia* idatzi nuenean 1960ko hamarkadan kokatu nuen euskal HGLren hasiera, idazlaren helburu nagusia estetikoa orduan hasi zela argudiatuz; Minaberryren lan horien aurretik dozenaka obra idatzi izan dira euskaraz haurrentzat baina hau sinatzen duenaren arabera obra horiek ez ziren «literatura». Aita Villasantek, aldiz, bestelako irizpidea erabili zuen euskal literaturaren historia idatzi zuenean). Fenomeno hau antologietan gero eta arruntagoa dena («Antologia bat» jartzea «Antologia»ren ordez, esaterako) nik uste historietara ere pasatu beharko genuke.



Eta Minaberry aipatu dugunez, esan dezagun arestian aipaturiko egoera politiko, kultural edo soziologikoaren isla dela haren lana. 1960ko hamarkada hasieran idatzi zituen Marijan Minaberryk haurrentzako lan garrantzitsuak, baina idazlan horiek –*Xoria kantari* liburuko poemak, kasu- hiru hamarkada beranduago heldu ziren hegoaldeko irakurleengana Oskorri taldearen musikari esker neurri handi batean.

Historiagileak, bestalde, sortu diren korrante ezberdinen berri emateaz gain, testuingurua azaldu behar du, testuinguruaren eragina aipatu, aurrekarien berri adierazi... horrela, «baserri giroa (...) umorean eta ateraldi bitxietan oinarritzen den literatura horrek, ikuspegi literario batetik ez berrikuntzarik, ez aberastasunik dakar» (Etxaniz, 1997: 253) diogunean, esaterako, ikuspegi historiko batetik literatura mota horrek ez duela ekarpen berririk egiten diogu, eta ez, batzuek interpretatu izan duten bezala literatura mota horrek ez duela balio literarioik. Hots, historiagilearen komentarioa idazlanak historian zehar izan duen eraginari buruzkoa izan beharko litzateke azterketa diakronikoaren ondorioz.

Orain artekoak kontuan izanik argi dago literatura sistema dinamikoa dela eta gizarteko komunikazio elementuek parte hartzen dutela bertan, ez bakarrik idazlanek edo idazleek. Alde horretatik esan dezakegu beste garai batzuetan egin izan diren liburu edo egile zerrendez osaturiko historiak edo gertakari politikoaren ondorio zuzentzat harturiko azterketak iraganeko kontuak direla eta horrelakoen ordez literatura-sistema osatzen duten ekintza guztiak (sorkuntza, merkatua, harrera, produktua, ...) eta beraien artean ematen diren harremanak aztertu behar direla literaturaren historia egiterakoan.

Argi dago, beraz, eredu sistemikoaren aldeko apustua egiten dugula Polisistemen teoriaren arabera, eta Maldonadok (2006: 27) aipatzen duen bezala literaturaren historiak honako hauek izan behar dituela kontuan:

- Sistema bakoitzaren barneko harremanak (sortzaileak, merkatua, ...)
- Sistema batean eragina duten kanpoko harremanak (egoera sozio politikoa, linguistikoa,...)
- Sistema ezberdinen arteko harremanak (HGLk helduenean, generoen artekoa...)

- Literaturaren kontzeptuan izan daitezkeen ezberdintasuna
- Literatura interferentzia
- Idazle eta idazlanen eboluzioa
- Gustu estetikoaren aldaketak hartzaileen aldetik
- eta abar

Historiagile berriak, beraz, elementu horiek denak izan beharko ditu kontuan gertakariaren azalpena ematerakoan. Literatura gertakari soziala izateaz gain oso dinamikoa delako eta hobeto ulertzeko asmo horretan (historiaren zergatietako bat horixe izan beharko bailitzateke, historia ezagutu literatura hobeto ulertzeko) elementu ezberdinen azterketa egin beharko genuke. Historiagilearen begirada, beraz, handiagoa, zabalagoa eta, batez ere, orokorragoa izan behar da; are gehiago XXI. mende honen hasieran euskal literaturak bizi dituen erronken aurrean.

Iragana ezagutu behar dugu oraina ulertzeko eta etorkizunei begira jartzeko. Eta, alde horretatik, euskal literaturak azken hamarkadetan izan dituen aldaketak oso emankorrak eta aberatsak izanda ere bada kezkatzeko moduko zenbait kontu (are gehiago hainbatek euskal literatura oso egoera onean dagoela uste duenean). Egia da euskarazko literatura inoiz baino egoera hobean dagoela, baina badira, oraindik ere, argi gorriak gure literaturan. Idurre Alonso Amezuak idatzitako *Erdigune literarioak irakaskuntzan* lanak horietako batzuk aipatzen ditu. Non dago idazlan kanonikoen eta irakaskuntzaren arteko erlazioa? Zer irakurtzen dute literaturan hezten ari diren gazteek? Zergatik ez dira idazlan kanonikoak irakurtzen? Gazteak literaturan hezten ari al gara?

Ildo horretatik, nahiz eta kontu berbera ez izan, azken urteotan euskal literaturaren inguruan hainbat eta hainbat artikulu eta elkarrizketatan euskal irakurlearen gabezia aipatu izan da. Nork irakurtzen du plazerez? Zenbat irakurle ditugu euskaraz? Zer gertatzen da irakaskuntzako zirkuituetatik at geratzen diren idazlan literarioekin?

Alde horretatik oso esanguratsua da *Erlea* aldizkariaren apustua. Bi mila irakurle lortu nahi dituen aldizkaria da, hots, euskal literatura-sistema

mantentzeko behar dugun irakurle kopuru minimoa (aldizkariaren zuzendariaren hitzetan).

Eta, kezka hauen isla prentsara ere iritsi da. 2010eko urrian, Frankfurteko liburu azokaren harira, *Gara* egunkariak honako editorial hau idatzi zuen urriaren 8an:

«Premiazkoa da, ez bairik gabe, euskal literaturak munduan barrena bide egitea. Ez da erronka txikia, batez ere <literatura txikia> izaki, eta hartarako leiho zabala da Frankfurt (...) Baina literatura beste baldintzatzaile batzuen mendeko ere bada, hala nola merkatua-rena (...)

Euskal literatura munduan gero eta ezaguna izateko erronkak, nolnani ere, ez luke ahantzarazi behar Euskal Herrian bertan lan handia dagoela eginkizun, euskal literatura euskal herritar askorentzat ere ezezaguna baita».

Irakaskuntzan ari garenok, gazteekin ari garenok, jakin badakigu editorial horretan azaltzen den errealitatea noraino den egia, eta gaur egun euskal gazte askorentzat euskal literatura ezezaguna dela.

Historiak lagundu behar digu, beraz, iraganetik etorkizunerako bidea egiten. Horra hor, besteak beste, euskal literatura historiagileen erronka nagusia.

---

\* Lan hau GIC 10/100 eta TIT 495/10 ikerketa taldearen proiektuaren zatia da, UPV/EHUk eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua.

## Bibliografia

AGUIAR E SILVA, V. M., 1999, *Teoría de la literatura*, Madrid: Gredos. (9. Berrinpri.)

ALDEKOA, I., 2004, *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein.

ALONSO, I., 2010, *Erdigune literarioak irakaskuntzan*, Bilbo: EHU.

ETXANIZ, X., 1997, *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruñea: Pamiela

———, 2007, *Bela Kabelatik Ternuara. Atxagaren Haur eta Gazte Literatura*. Iruñea: Pamiela.

EVEN-ZOHAR, I., 1999, «Factores y dependencias en la cultura. Una revisión de la teoría de los polisistemas», in AA. AA *Teoría de los Polisistemas*, Madrid: Arco/Libros. 23-52.

———, 1999, «Planificación de la cultura y mercado», in AA. AA *Teoría de los Polisistemas*, Madrid: Arco/Libros. 71-96.

JUARISTI, J., 1987, *Literatura vasca*, Madrid: Taurus.

KORTAZAR, J., 1990, *Literatura vasca. Siglo XX*, Donostia: Etor.

LAMBERT, J., 1999, «Aproximaciones sistémicas y la literatura en las sociedades multilingües» in AA. AA *Teoría de los Polisistemas*, Madrid: Arco/Libros. 53-70.

LASAGABASTER, J. M., 1983, «La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica», *Mundakiz* 26, 34-52.

———, 2004, «<Otra> Historia de la literatura vasca», Aldekoa, I., *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein, 7-8 or.

MALDONADO, M., 2006, «La historiografía literaria. Una aproximación sistémica», *Revista de Filología Alemana* 14, 9-40.

MITXELANA, K., 1988, *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein. 2. Argital.

SARASOLA, I., 1975, *Euskal literatura numerotan*. Donostia: Kriselu.

SHAVIT, Z., 1999, «La posición ambivalente de los textos. El caso de la literatura para niños.» in AA. AA, *Teoría de los Polisistemas*, Madrid: Arco/Libros. 147-181

VENTURA, A., 2001, «Prólogo» in Galarrón, A., *Historia portátil de la literatura infantil*. Madrid: Anaya.

VILLASANTE, L., 1979, *Historia de la literatura vasca*. Arantzazu: Arantzazu argitaletxea. (2. Argitalpen zuzendu eta osatua).

WELLEK, R. eta AUSTIN WARREN, 1966, *Teoría literaria*, Madrid: Gredos. (4. Argital.)



# Genero periferikoen agerpena euskal literaturaren historietan

LÓPEZ GASENI, Jose Manuel  
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Lan honen bidez, genero periferikoek euskal literaturaren historietan duten agerpenean eta haren arrazoieta arakatu nahi izan dut. Horretarako, Polisistemen Teorian oinarrituko naiz, Even-Zohar, Toury eta Shavit adituena lanak abiapuntu harturik. Adibide gisa hartu ditudan euskal literaturaren historiagileak, berriz, honako hauek izan dira: Mitxelena, Villasante, Urkizu eta Aldekoa.

**Hitz-gakoak:** Literaturaren historia, literatura-sistema, kanonikotasuna, itzulitako literatura.

A través de este trabajo, he querido profundizar en la aparición de los géneros periféricos en las historias de la literatura vasca, así como en las razones de dicha aparición. Me basaré en la Teoría de los Polisistemas, tomando como punto de partida los trabajos de expertos tales como Even-Zohar, Toury y Shavit. Los historiadores de la literatura vasca que he tomado como ejemplos son: Mitxelena, Villasante, Urkizu y Aldekoa.

**Palabras clave:** Historia de la literatura, sistema literario, canonicidad, literatura traducida.

Par ce travail j'ai souhaité étudier de façon plus approfondie l'apparition des genres périphériques dans les histoires de la littérature basque, ainsi que les raisons de cette apparition. Je me baserai sur la Théorie des Polysystèmes, prenant comme point de départ les travaux des experts que sont Even-Zohar, Toury et Shavit. Les historiens de la littérature basque que j'ai pris comme exemples sont : Mitxelena, Villasante, Urkizu et Aldekoa.

**Mots-clés :** Histoire de la littérature, système littéraire, canonicité, littérature traduite.

In this paper the author has set out to examine the emergence of peripheral genres in the histories of Basque literature and the reasons behind it. So the author has taken as the basis the Polysystem Theory, taking the works of the experts Even-Zohar, Toury and Shavit as the starting point. The Basque literary historians cited as examples are: Mitxelena, Villasante, Urkizu and Aldekoa.

**Keywords:** History of literature, literature system, canonicity, translated literature.

## 1. Sarrera

Lan honetan aztertuko dut genero periferikoek hainbat literatura-sistemako kanonikotasunean nolako eragina izan duten eta, ondorioz, nolako isla izan duten literatura-sistema horien historietan, oso bereziki euskal literaturaren historietan.

Horretarako, dagoeneko aurreratu dudanez, ikuspuntu polisistemikoa erabiliko dut, zehazkiago Itamar Even-Zohar (1990, 1999) irakasleak proposatu eta Gideon Toury (1980, 2004) eta Zohar Shavit (1986) irakasleek garatutakoa, itzulpen-estudioetan eta haur literaturan, hurrenez hurren.

Even-Zohar-en teoriaren arabera, literatura-polisistema batean erreperitorio eta obra batzuek erdigunea hartzen duten bitartean, beste erreperitorio eta obra batzuk posizio periferikoetan kokatzen dira, erdigune horretatik distantzia desberdinetara. Erdigunean egoteak kanoniko izatea esan nahi du, eta periferian egoteak, berriz, ez-kanoniko izatea. Hala ere, literatura-polisistemek izaera dinamikoa dute, eta posizio zentralak irabazteko borrokan gerta daiteke garai batean periferikoa izandako erreperitorio edo obraren bat erdiguneko edo zentral bihurtzea eta, horrenbestez, kanonikotasunera iristea. Edonola ere, sistema bat osatzen dutenez gero, erreperitorio zentralen izaera ezin da ulertu periferikoak kontuan hartu gabe, eta alderantziz. Even-Zohar-en hitzetan:

If one accepts the polysystem hypothesis, then one must also accept that the historical study of literary polysystems cannot confine itself to the so-called «masterpieces», even if some would consider them the only *raison d'être* of literary studies in the first place. This kind of elitism cannot be compatible with literary historiography just as general history can no longer be the life stories of kings and generals. In other words, as scholars committed to the discovery of the mechanisms of literature, there seems to be no way for us to avoid recognizing that any prevalent value judgments of any period are themselves an integral part of these mechanisms. No field of study, whether mildly or more rigorously «scientific», can select its objects according to norms of taste. (Even-Zohar, 1990: 13)

Literaturaren historiak ari garela, beraz, literatura jakin baten historia garai bakoitzean kanonizatutako produktuen historia bada, zenbaitetan



masa-literaturako edo itzulitako obra batzuek kanonikotasun-posizioa irabazi dutelako kontzientzia hartu behar dugu, horren arrazoi sistemikoa azaltzen saiatzearekin batera. Even-Zohar-en arabera, hori gertatzeko hiru baldintza gertatu behar dira: lehena, polisistema bat oraindik behar bezala ezarrita ez egotea, hau da, gaztea izatea; bigarrena, literatura jakin bat inguratzen duten literaturekiko periferikoa edo ahula izatea; eta, hirugarrena, literatura batean inflexio-puntuak, krisiak edo hutsuneak gertatu izana (Even-Zohar, 1990: 47).

Lehen kasuan, itzulitako literaturak sistema gazte baten beharrak betetzen ditu, batez ere literatura-hizkera bat sortzeko. Jatorrizko literatura urria izan ohi denez, beste sistema batzuetatik itzulitako literaturak betetzen du zeregin hori. Bigarren kasuan ere antzeko zerbait gertatzen da: literaturaren ahuleziaren ondorioz, errepertorio edo ereduazko baliabide gutxiren jabe izaten da, eta itzulitako literaturak eskaintzen dizkio errepertorio horiek. Hirugarrenean, polisistema indartsuenek ere krisi garaiak izaten dituzte indarrean dauden errepertorioek onargarriak izateari uzten diotenean; kasu horietan ere itzulitako literaturak ekarri ohi ditu errepertorio berriak (horri buruz gehien aipatzen den adibidea da Frantzian Poe-ren poemek ekarri zuten berritasun emankorra Baudelaire-ren itzulpenaren bidez; baina askoz gehiago daude: Arno Schmidt-ek Joyce itzuli zuen alemanera, Borges-ek Cummings eta Faulkner itzuli zituen gaztelaniara, Nabokov-ek Lewis Carroll itzuli zuen errusierara...). Horrelako obrak ez lirateke zentralak izango polisistema ahula eta/edo gaztea izan ezean.

Even-Zohar-en azterketa ereduak edozein polistema aztertzeko balio badu ere, bereziki emankorra da polisistema elebidunak eta eleaniztunak aztertzeko, normalean sistema indartsu bat eta sistema ahulago bat(zuk) kontaktuan daudenean, hain zuzen ere. Hala diosku egile israeldarrak:

The polysystem hypothesis, however, is designed precisely to deal with such cases [gizarte elebidunetako literaturak] as well as with the less conspicuous ones. Thus, not only does it make possible the integration into semiotic research of objects (properties, phenomena) previously unnoticed or bluntly rejected: rather, such an integration now becomes a precondition, a *sine qua non*, for an adequate understanding of any semiotic field. This means that standard language

cannot be accounted for without putting it into the context of the non-standard varieties; literature for children would not be considered a phenomenon sui generis, but related to literature for adults; translated literature would not be disconnected from original literature; mass literature production (thrillers, sentimental novels, etc.) would not simply be dismissed as «non-literature» in order to evade the recognition of its mutual dependence with «individual» literature. (Even-Zohar, 1990: 13)

Eta, hain zuzen ere, horrelakoa da gure polisistema: euskal sistemaren ondoan gaztelaniazko edo frantseseko sistemak ditugu, tokian-tokian. Eta bereziki euskal literatura-sistemak erdigunearen eta periferiaren arteko tirabira ugari izateko baldintzetako batzuk betetzen ditu, arestian aipatuak: inguratzen duten sistemekin konparatuz gero, sistema gaztea eta ahula da.

## 2. Itzulitako testuak euskal literaturan

Ikusi dugun legez, itzulitako literaturak sistemaren periferian egoteko joera du, hau da, «those norms and texts which are rejected by these circles [kultura bateko talde nagusiak<sup>1</sup>] as illegitimate and whose products are often forgotten in the long run by the community (unless they change their status)» (Even-Zohar, 1990: 15). Normalean, itzulitako literaturarik ez da agertzen sistema indartsuenetako literatura-historiografietan.

Gure literaturaren historian, ordea, oso ohikoa da itzulpenak behin eta berriz agertzea gainontzeko testu literarioen ondoan, nahiz eta itzulpen horiek, askotan, literatura-testuen itzulpenak ez izan. Itzultzaileak ere idazleen pare agertu ohi dira eta halakotzat hartuak izan dira.

Tradizio horrek garbi adierazten du euskaratutako idazlan batzuek erdiguneko posizioak bete dituztela euskal literatura-sisteman, hau da, testu

---

<sup>1</sup> Kultura bateko talde nagusiei «instituzioa» deitzen die Even-Zohar-ek: «The 'institution' consist of the aggregate of factors involved with the maintenance of literature as a socio-cultural activity. It is the institution which governs the norms prevailing in this activity, sanctioning some and rejecting others» (Even-Zohar, 1990: 37).

kanonikoak izan direla, kanonikotasun horren arrazoiak, «beren estatusa aldatu» izana, garbiegi azaldua izan ez den arren.

### 2.1. Euskaratutako erlijio-testuak

Adibide batzuk aipatzearen, euskal literaturaren historietako hasierako izen nagusi bat Joanes Leizarraga izaten da, nahiz eta «Apenas hay una página en la extensa obra de Leizarraga que no sea traducción» (Michelena, 1988: 52). Testamentu Berriaren itzultzaileari aitortzen zaizkion merituen artean daude prosazko lehen euskal liburua izatea, literatura-hizkera bat sortu izana eta abar. Gainera, Leizarraga bera oso ondo ikusia zegoen garaiko *instituzioaren* zirkuluetan, Patri Urkizuk adierazten duen legez (Urquizu, 2000: 147).

Hortik aurrera, asko dira euskal literaturaren historietan aipatzen diren itzulpenak. Sarrien aipatzen direnak «Kempis» delakoaren itzulpenak dira, hau da, Thomas de Kempis fraide alemanak XV. mendean idatzitako *Kristoren imitazioa* haren itzulpenak: XVII. mendean, Silvain Pouvreau izan zen lehenengo itzulpenaren egilea, eta Aranbillagak beste bat argitaratu zuen; XVIII. mendean, berriz, Chourio eta Maizter, eta XIX. ean Duvoisin izan ziren beste itzultzaile batzuk.

Beste erlijio-testu askoren itzulpenak ere agertu izan dira euskal literaturaren historietan, berezko literatura-testuak izan gabe, gainera. Zein izan dira halako testuei kanonikotasun maila emateko arrazoiak? Normalean, Leizarragaren kasuan bezala, hizkuntza-eredu gisa agertu izana euskalkiren edo hizkuntza-aldaeraren batean eta, horrekin batera, irakurleen artean nolabaiteko arrakasta izana, *instituzioan* eliza nagusi zen garaietan.

### 2.2. Euskaratutako literatura didaktikoaren agerpena

Erljio-testu itzuliekin gertatu bezala, euskaratutako literatura didaktikoak agerpen zabala izan du gure literaturaren historietan.

Ilustrazioaren eraginez, fabula klasiko eta neoklasikoen erreperitorio batzuk euskaratu ziren, irakurleei (umeak, normalean) era askotako irakaspe-

nak transmititzeko xedearekin. Literatura didaktiko hori, gaur egun behar-bada haur literatura deituko geniokeena, erdiguneko posizioan kokatu zen euskal literaturaren sisteman, harrigarria badirudi ere. Mogeldarrak, Juan Mateo Zabala, Iturriaga, Arxu, Goietxe eta beste, XIX. mendean zehar alegiak euskaratu zituzten itzultzaileak, euskal literaturaren historia guztietan agertzen dira.

Erlijio-testuak, esan gabe doa, euskaratzen jarraitu ziren XIX. eta XX. mendeetan zehar, baina periferikoak ziren jadanik.

### 2.3. Sasi-itzulpenak

Ikuspegi polisistemikotik, sasi-itzulpenak ez dira hartzen, beste azterbide batzuetan bezala, salbuespen edo bitxikeriatzat. Aitzitik, sistemaren joera jakin batzuen adierazgarri apartak izatera iritsi daitezke.

Sasi-itzulpenak itzulpentzat aurkeztutako testuak dira, baina beste ezin hizkuntzetan pareko testurik ez dutenak.

Polisistemaren ikuspegitik, sasi-itzulpenak sistema jakin batean berritasunak sartzeko bidea dira. Izan ere, «itzulpenak» direnez gero, irakurleek tolerantzia handiagoz onartzen dituzte eta, edozein kasutan, berritasunak onartezinak izanez gero, ez dago nori leporaturik, egilea ezezaguna delako. Hori dela eta, sasi-itzulpena oso fenomeno zabaldua da mundu osoa zehar.

Gideon Toury-ren arabera, lau bultzagarri nagusi daude sasi-itzulpenetara jotzeko: a) egile jakin batek bere norabide literarioa errotik aldatzeko gogoia; b) sasi-itzulitako testua sorburu-sistemak izango lukeen nagusitasunaz janztea, hala irakurleriaren harrera manipulatu; c) testu baten gainean ezar litekeen zentsura edo gaitzespena saihestea; horra sistema batean berrikuntzak sartzeko bidea (normalean ez-kanonikoak: western delakoa, eleberri erromantikoak, pornografikoak, eta abar); d) kultura-planifikazioko estrategia gisa, batez ere erregimen totalitarioetan (Stalin-en garaiko SESBen, esaterako, metropoliko biztanleei erakusteko errepublika periferikoetako (sasi-)poetek zein ondo onartzen zuten «lider handia»). (Toury, 2004: 83-86).

Jakina denez, euskal literaturak sasi-itzulpenik ez, baina frantseserako us-tezko itzulpen baten sorburu-sistematizat aurkeztua izan zen. Jean Baptiste Daskonagerre-ren *Les Echos du pas de Roland* (1867) obraren historia ezagunaz ari naiz, bistan denez. Villasanteren esanetan, sasi-itzulpena arrakastatsua izan zen: «En 1867 aparecía en París una novela en francés que decía ser traducida del vasco, detalle que debió de influir no poco en su éxito, pero que en realidad no pasaba de ser un truco de librería» (Villasante, 1979: 168). Zerk eraman ote zuen Daskonagerre euskaratik itzulia izan zela esatera? Toury-k aipatzen dituen bultzagarrietatik bigarrena begitantzen zait sinengarriena, ohartxo bat eginda, noski: sorburu-sistemaren nagusitasuna ez, baizik eta balizko exotikotasuna baliatu nahi zuelakoan nago. Gainera, ematen du egileak, «membre du Conseil général des Basses-Pyrénées», bere burua euskal idazletzat agerrarazi nahi zuela Pariseko zirkuluetan.

Edonola ere, euskal literaturara iritsi den obra haren benetako itzulpena da: *Atheka gaitzeko oihartzunak* (1870). Obra horri buruz, Urkizuk eta Aldekoak frantsesetik egindako itzulpen bat dela aipatu besterik ez dute egiten. Mitxelenak lehen euskal eleberria dela dio, baina lehenago frantsesez agertu zela, itzulpena izan zela esan gabe: «La primera en fecha de las novelas debe ser *Atheka gaitzeko oihartzunak*, publicada a nombre de J.-B. Dasconaguerre. Pero este relato novelado, de larga y curiosa historia en sí mismo, de las aventuras del famoso contrabandista Anchordoquy, apodado Ganich, apareció primero en francés (*Les échos du pas de Roland*, 1867)» (Michelena, 1988: 157). Villasantek lehen euskal nobela dela dio, Lafitte aipatuz: «Lafitte saludó esta obra como la primera novela que se haya escrito en vasco» (Villasante, 1979: 169). Beraz, sasi-itzulpena lehen euskal nobela gisa pasatuko zen literaturaren historiara, iruzurra azaldu izan ez balitz. Garbi dagoena da obra horren bidez eleberriaren eredia sartu zela euskal literatura-sisteman.

Hala ere, azken galdera bat sortzen da. Zergatik Leizarragari aitortzen zaio euskal literaturaren historiako prosazko lehen testuaren egilea izatea, eta Dasconaguerreri, berriz, ukatzen zaio euskarazko lehen nobelaren egilea izatea? Ziur aski, Leizarragak XVI. mendeko sistema sortu berri ahulean betetzen zuen posizioa Daskonagerrek XIX.ean betetzen zuena baino zentralagoa zelako, kanonikoagoa.

## 2.4. Literatura-itzulpengintza XX. mendearen hondarrean

Mende bateko jauzi bat eginez, XX. mendearen amaieran literatura-itzulpengintzak izan zuen garrantziari buruzko gogoetatxo bat egin nahi nuke. Jakinaenez, itzulpengintzak oro har eta bereziki literatura-itzulpengintzak bultzada handi bat jaso zuen 80ko hamarkadatik aurrera Martuteneko Itzultzaile Eskolaren, EIZIE elkartearen eta EHUko Itzulpengintza Masterraren sorrerarekin. Urte horietan, orobat, munduko egile garrantzitsuen itzulpenak argitaratzen hasi ziren: Baudelaire, Melville, Böll, Yourcenar, Steinbeck, Faulkner, García Márquez...

Laurogeita hamarreko hamarkadan, berriz, literatura-itzulpengintzak jasotako bultzada erabakigarria izan zen, inoizko egitasmorik handienaren bitartez, Literatura Unibertsala izeneko bilduma, gaur arte 147 titulu argitaratu dituena. Hainbat itzultzaile trebatzeko eta euskal literatura mundu zabaleko idazlan ugari osatzeko balio izan zuen, zalantzarik gabe.

Garai horretako euskal literaturaren sistema, ordea, izugarri indartuta zegoen: genero guztietako obrak argitaratzen ziren, argitaletxe-sare interesgarria zegoen, idazlan esanguratsuak argitaratzen zituen idazle kanonizatu talde bat, instituzio gero eta sendoagoa, irakurleria gero eta zabalagoa... Hori dela eta, euskaratutako literatura, garrantzitsua izanda ere, ez zegoen inola ere sistemaren erdigunean, erabat periferikoa ere ez zen arren.

Hala era guztiz ere, badirudi literatura itzuliak nolabaiteko kanonikotasun maila erdietsi duela, obra jakin batzuen bidez baino gehiago, ereduzko errepertorio eta arauak sortzearen bidez. Arau horiek, gero, oso erabilgarri gerta dakizkioke idazleari. Hala adierazi zuen garaiko kanona itxuratzen duen idazleetako batek, Anjel Lertxundik:

Itzulpengintzan egin den ahalegina jotzen dut, batere zalantzarik gabe, azken urteotako euskal literaturan gertatu den albiste esanguratsuen. Itzulpengintza ari da hizkera literarioa eraikitzen, itzulpengintza ari da, zehaztasunaren bidetik, jokabide desberdinetarako bideak zabaltzen, zehaztasunean baizik ez baitaiteke oinarri aniztuna. (...) Inoiz esan dudanez, idazleok itzultzaile mentalak gara (euskara ez beste hizkuntzetan irakurtzen dugu batez ere); inork ez digu, ordea, pentsatzen genuen eta idazten dugunaren arteko lotura eta zehaztasuna

eskatzen, inork ez baitu ezagutzen burutik pasa zitzaiguna. Tranpa egin dezakegu; eragozpena saihestu; berez korapilotsu zena, lautu; laua denarekin, alfonbra ehundu; alfonbra gainean ibiliz, dotore plantak egin... Estrategia soziolinguistikoetarako zilegi gerta daitekeen euskara erraza (?) delakoaren atzean ezkutatzen den diskurtsuak luizi espresiboa eta itsumena ezarri nahi dizkigu literaturaren aldareko meza-emaile. (Lertxundi, 1993; in Torrealdai, 1997: 221).

Baita praktikan jarri ere, *Otto Pette* (1994) eleberritik aurrera arestian aipatutako idazmolde zehatzagoaren bidetik jo baitzuen. Kasu honetan, beraz, itzulitako literaturaren ereduak «lehen mailako erreperitorio» edo erreperitorio berritzaile gisa funtzionatuko luke, haren bidez erreperitorioa elementu berriez handitu eta berregituratu delako, eta horren ondorioz produktu berriak ezin dira hain erraz aurrekusi (Even-Zohar, 1990: 21).

Guztiarekin ere, ez dirudi euskal literaturaren historietan itzulitako literaturaren eragin horren berri ematen denik.

### 3. Genero ez-kanoniko batzuen nagusitasuna

Itzulitako literatura albo batera utziz, normalean periferikoak diren beste genero batzuk ere iritsi daitezke erdigunekoak izatera, literatura-sistema oso ahulduta dagoen garaietan.

Euskal literaturak ahulezia nabarmena erakutsi zuen Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo urteetan, Franco generalaren diktaduraren pean, eta oso bereziki 1940 eta 1950eko hamarkadetan (Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*, 1957koa, kanon-aldaketarako inflexio-puntua izango zen).

Bada, garai hartako kultura-egoera idorrean kanonikotzat jotzen diren obrak beste egoera batean periferikoak izango ziren horietakoak ditugu. Alde batetik, Jon Etxaideren *Alos-torrea* (1950) eta *Joanak joan* (1954) eredu zaharkitua darabilten eleberri historiko-biografikoak ditugu; bestetik, Jose Antonio Loidiren *Amabost egun Urgain'en* (1955), euskal lehen polizia-eleberrizat jotakoa (berriz ere aitzindarien garrantzia euskal literaturan); denborak aurrera egin ahala, ordea, haur eta gazte literaturaren erreperitorio periferikora pasatu zen.

Aipatutako obra «kanonizatu» horien ondoan, Itxaropena argitaletxeko «Kulixka sorta» arrakastatsuak betetzen zuen erreperitorio periferikoen zerregina.

Horrelako beste kasu bat, XX. mende amaierakoa, Bernardo Atxagaren *Behin euskaldun baten memoriak* (1991) obrarena da. Gazteentzako eleberri gisa argitaratua izan zen arren, lan kanonikotzat hartu ohi da, Atxagaren obra (ia) guztiarekin batera. Aldekoak, esaterako, arreta kritiko zabala eskaintzen dio obra horri bere *Historia...-n* (Aldekoa, 2004: 259-260), eta Marijo Olaziregik beste hainbeste egiten du Patri Urkizuk zuzendutako lanean (Urquizu, 2000: 553-554) eta beste lan batzuetan ere bai. Oraingoan, haur eta gazte literatura bezalako genero periferiko batean ere salbuespen txoak egiten dira, dudarik gabe obraren berezko balioagatik, baina baita ere egileari eskaini ohi zaion espazio kritiko bereziagatik (nire ustez, haur eta gazte literaturako beste obra batzuek ere mereziko lukete euskal literaturaren historietan agertzea, baina ez da hala gertatzen).

#### 4. Ondorioak

Laburbilduz, lan honen bidez erakutsi nahi izan dut euskal literatura-sistemaren berezkitasunak direla medio haren historiografia batzuetan kanon klasikoaren eredutik eredu sistemikora pasatzen dela, horretarako irizpideak askotan gehiegi argitu gabe.

Beste tokiren batean esan dudan bezala (López Gaseni, 2002: 10-13), tradizio handiagoko beste literaturen historietan ez bezala, euskal literaturaren historietan zenbaitetan entziklopedismo gisako zerbait antzeman daiteke, bi zentzutan; alde batetik, literatura terminoa zentzu zabalenean hartuta, euskal testu guztien berri emateko joera; beste aldetik, literatura-testuak direnean ere, gero eta balioespen kritiko gehiago egiten diren arren, argitaratutako guzti-guztia jasotzeko joera. Akaso testuak jaso eta biltzeko lan eskerga egin zuten historia-egile haietako batzuen interes nagusia linguistikoa zelako.

Nik behintzat faltan botatzen ditut adibide gisa hona ekarri ditudanen antzeko azalpen sistemikoak, erakusteko nola eta zergatik zenbaitetan



ohikoak ez diren zenbait testuk erdiguneko posizioak erdietsi dituzten, hizkera literarioak sortzen edo hobetzen lagundu duten, errepertorio eta eredu berriak ekarri eta zaharkituta zeudenak berritu dituzten.

Izan ere, sistemen dinamikotasunaren eraginez, literatura itzulia, haur eta gazte literatura eta «generokotzat» jotako beste errepertorio batzuek, bazterrekoak izanda ere, mota bateko edo besteko eragina izaten dute beti erdigunea osatzen duten errepertorioen gainean, eta, horrenbestez, euskal literaturaren historiografietan aintzat hartuak izan beharko liratekeelakoan nago.

---

\* Lan hau GIC 10/100 eta TIT 495/10 ikerketa taldearen proiektuaren zatia da, UPV/EHUK eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua.

## Bibliografia

- AA.AA., 1999, *Teoría de los Polisistemas*, Madril: Arco/Libros.
- ALDEKOA, Iñaki, 2004, *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein.
- EVEN-ZOHAR, Itamar, 1990, «Polysystem Studies», *Poetics Today*, 11, 1.
- LÓPEZ GASENI, Jose Manuel, 2002, *Historia de la literatura vasca*, Madril: Acento.
- MICHELENA, Luis, 1988, *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein (2. ed.).
- SHAVIT, Zohar, 1986, *Poetics of Children's Literature*. Georgia: University Press of Georgia.
- TORREALDAI, Joan Mari, 1997, *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*. Lizarra: Jakin.
- TOURY, Gideon, 1980, *In Search of a Theory of Translation*. The Porter Institute of Poetics and Semiotics. Tel Aviv: Tel Aviv University.
- , 2004, *Los estudios descriptivos de traducción y más allá. Metodología de la investigación en estudios de traducción*. Madril: Cátedra.
- URQUIZU, Patricio, dir., 2000, *Historia de la literatura vasca*, Madril: UNED.
- VILLASANTE, Fr. Luis, 1979, *Historia de la literatura vasca*, Burgos: Ed. Aránzazu (2. ed.).

# Istorioen gizatasuna euskal literaturan: adibide bat

BARANDIARAN, Asier  
Nafarroako Unibertsitateko Irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Istorioek geure nortasuna moldatzen dute modu batez edo bestez eta literatura lanek balio batzuk transmititzen dizkigute, nahi eta nahi ez. Langintza horretan badago, kritika korrante berri baten arabera, erantzukizun etiko bat. Esate baterako, gatazka bezalako gaien aurrean, postmodernoan izan edo ez izan, jarrera etiko bat bilatzea eskatzerik bada. Lan honetan euskal gatazka Nafarroako euskal narraziogintzan nola izan den jorratua aztertzen saiatu naiz egile bakoitzaren lanetan diren estrategia eta baliabideei erreparatuz. Idazle nafarra izateak ondorio batzuk dakartza jokabide narratibo batzuetan eta haiek esplizitu egitea bilatzen du azterketa honek.

**Hitz-gakoak:** euskal gatazka, urrutiramendu, etika, erdigune, periferia, iraultza.

Las historias moldean nuestra personalidad de una manera o de otra. De igual manera los trabajos literarios nos transmiten unos valores. Según una corriente de crítica, en esa labor habría una responsabilidad ética. Por ejemplo, en temas como el conflicto, sea postmoderno ó no, sería de recibo exigir una actitud ética. En este trabajo me he esforzado en estudiar como ha sido tratado el conflicto vasco por los autores navarros de narrativa en euskera. Para ello he investigado las diferentes estrategias que han utilizado los diferentes autores. El ser navarro trae algunas consecuencias en algunas actitudes narrativas, y hacerlas estas explícitas es el objetivo de este trabajo.

**Palabras clave:** conflicto vasco, alejamiento, ética, centro, periferia, revolución.

Les histoires modèlent notre personnalité d'une façon ou d'une autre. De la même façon les travaux littéraires nous transmettent certaines valeurs. Selon un courant de la critique littéraire, il y aurait dans ce travail une responsabilité éthique. Par exemple, dans des domaines comme le conflit, qu'il soit postmoderne ou pas, il serait légitime d'exiger une attitude éthique. Dans ce travail je me suis attaché à étudier comment a été traité le conflit basque par les auteurs navarrais écrivant en basque. J'ai pour cela fait des recherches sur les diverses stratégies utilisées par les différents auteurs. Le fait d'être navarrais entraîne certaines conséquences dans la façon de raconter et l'objectif de ce travail est de les rendre explicites.

**Mots-clés:** conflit basque, éloignement, éthique, centre, périphérie, révolution.

Stories shape our personality in one way or another, and whether we like it or not, works of literature do transmit values to us. According to one current of criticism, this task entails an ethical responsibility. For instance, when dealing with a subject like conflict, whether post-modern or not, it would be acceptable to seek an ethical attitude. In this piece of work, the author has endeavoured to examine how the Basque conflict has been dealt with in Basque-language narrative writing of Navarre by looking at the strategies and resources present in the works of each author. Being a Navarrese writer has certain consequences with respect to certain approaches to narrative, and this analysis seeks to make them explicit.

**Keywords:** basque conflict, distancing, ethics, centre, periphery, revolution.

Ezaguna da gizakiak beharrezko duela ereduak ezagutzea, mirestea edota jarraitzea. Bizitza betea, aberasgarria eta zentzuzkoa bizi dutenen ereduak erakargarri zaigu. Oso gizakoia da joera hori. Izan ere, gizakiok espazioan eta denboran bizi gara, eta etengabe ari gara gure biografia eguneratzen, jorrazten eta aurrera eramaten. Gutako bakoitzak duen biografia da pertsona gisa errealizatzeko modua. Eta norbaiten edo norbaitzuen biografiaren berri emateko modua narrazioa izaten da, derrigorrez<sup>1</sup>. Gizakiaren bizitza oraindik burutu gabeko proiektua denez, gizakioi oso erakargarria egiten zaigu besteen biografiak, besteen istorioak (benetakoak zein fikziozkoak) ezagutzea, haien jokamoldeetatik ikasteko edota haiekin eskarmentua jasotzeko (Yepes, 1993, 86-88).

Balio narratiboaren eragina uste baino handiagoa da kasu askotan eta askorengan, eta gure baloreek eredutzat hartzen ditugun istorioetan dute beren sustraia<sup>2</sup>. Etikak testu filosofikoak sortzen ditu bere jardueran. Baina literaturaren bidez ere balore etikoak ailegatzen zaizkigu eta etikaz hausnartzten dugu gizakiok<sup>3</sup>. Narratzaileek, istoriogileek, beraz, aukera ederra dute (balidin eta irakurlerik badute) pertsonen eragiteko.

---

<sup>1</sup> Aspaldidanik hitz egiten da giza existentziaren egitura narratiboari buruz: «La vida del hombre segrega y recibe sentido en forma de historias, de relatos con los que la vida se expresa al tiempo que se hace aprehensible en un preciso sentido: como mía y como humana. Vivimos para contarla porque contamos historias para poder vivirlos», Marín Pedreño, 1997, 30.

<sup>2</sup> Balioak islatzen dira etengabe istorioetan: «[...] los valores literarios y estéticos influyen en distinto grado sobre la sensibilidad y sobre la percepción de lo real. No son tan «neutrales» como pretenden algunos creadores y críticos de arte», López de la Vieja, 2003, 29. Kritika anglosaxoian ere duela hogei bat urtetik honantz kontzientzia handiagoa dago literaturaren balio etikoaz: «[...] literature in general and narrative in particular, through their attention to the concrete particularities of human situations and their capacity to engage our emotions, provide an especially rich arena for the exploration of ethical issues», Phelan, 2005, 21. Errealitatearen ulermenerako beharrezkoa zaizkio gizakiari istorioak: «El hombre es el animal que le encuentra sentido al mundo con sus manos y con sus historias, pero ese encontrar no es un mero hallar, es un hallazgo mediado por la invención. [...] Las palabras y las historias compuestas con ellas también le aprenden al mundo sus secretos» Marín Pedreño, 1997, 21-22.

<sup>3</sup> «Long before this rise of systematic philosophical thought, however, people have been making up stories in order to convey what they think about how we ought to live. Inevitably, in telling stories, and in writing novels, plays, short stories, and poems, the authors and narrators raise moral questions and suggest possible ways of answering them. Thus ethics comes squarely within

Jakina, literatura-lanen bidez iritsi egiten zaigu idazlearen mundu-ikus-kerak; baita zinema, irrati edo telebistaren bidez ere, noski; baina arlo horiek jorratzea ez dagokigu orain. Idazleak asmatutako narrazioa bera mundua ikusteko modu bat da eta horrekin batera pertsonaien «begietatik» mundua ikusteko modu bat eskaintzen zaigu.

Euskaraz egin den literaturak ere horren berri eman digu; alegia, euskal idazleen mundu-ikuspenaren berri. Eta munduaren parte da, zalantzarik gabe, euskal mundutxo bera, bere gatazka eta bere gazi-geza guztiekin. Geza ei da daukagun arazo bat: ETA. Askoren ustez, «Euskal politikak azken mende erdian izan duen gertakari nagusia», oso-oso geurea, «euskal gizarte osoarena»<sup>4</sup>. Erakunde armatu edo terrorista horrek ez du berengana-tzen gatazkaren eremu osoa, baina giltzarria ei da eta gatazkaren eragile bat begitantzen zaigu. Euskal gatazka zer den antzemateko ere aurre-etzabaida bat beharko genuke. Kontua da euskal kulturaren giltzarria den elementu horren inguruan literatura-lanak ekoitzi direla azken hamarkadetan. Horiei ekin nahi diet nire azterketatxoan. Baina euskaraz argitaratu diren guztiei ez diet erreparatuko: Nafarroako egileek argitaratutakoak soilik hartuko ditut kontuan, lan honen hedapen mugatuak behartuta<sup>5</sup>. Betiere, historiografiari egin diezaioketun ekarpena izanen dut kontuan.

Kontu honi dagokionez, gogoratu behar da Euskal Herri osoko egileen lanak –egile nagusien zein ezagunen zein entzutetsuenen lanak– aztertuak izan direla dagoeneko beste lantxoetan<sup>6</sup>.

Nafarroako egileen lanak kontuan hartzeak bi arrazoi nagusi ditu:

- a) Euskal Herriko periferian dagoen Nafarroako egileei arreta berezia eskaintzea, arreta «zentralista» horren ikuspegia osatzeko.

---

the field of literature, as well as within the field of philosophy. Each approach to ethics has its own strengths and weaknesses», Singer, 2005, x.

<sup>4</sup> Zulaika, 2006, 105, 116.

<sup>5</sup> Ibon Egañak eta Edu Zelaiek egin eta koordinatutako *Maldetan sagarrak* (2006) lanak luze eta zabal jorratzen du gai hau. Hainbat idazleren ekarpenak ere biltzen dira bertan eta gaiari hainbat ikuspegitatik heltzen diote.

<sup>6</sup> Arestian aipatutako *Maldetan sagarrak* dugu adibide bat.

- b) Egile nafarren ekarpen bereziak eta oparoak alor honetan hobeto baloratzea, «erdigunearen» nagusitasunak itzala egiten baitie hainbat azterketa eta testu kritikotan.

Kontu giltzarri hau literaturan nola izan den jorrotua ikustea eta zer nolako eboluzioa (faseak, pausoak, joera nagusiak) izan den antzematea euskal literaturaren historiografiarako ekarpen interesgarria izan daiteke. Literaturara baloreen hezitzaile edo erakusle den neurrian, ezagutu egingen dugu zer nolako eraginak izan ditugun euskaraz irakurri dugunok kontu honi gagozkiolarik: hauxe da gure adibidea.

Jakina, eragin horri galga jartzen dio norberaren jarrera kritikoak (irakurtzen duenarekiko). Alegia, gure irakurketek ez gaituzte determinatzen: norberaren askatasuna eta jarrera kritikoa dira kanpo eraginekiko ezkutua, babesa... Baina ezkutu edo oskola hori ez daramagu beti (eta guztiok) aldean<sup>7</sup>. Horregatik deritzot bereziki premiazkoa kontu honen inguruan arreta eskaintzeari.

Bestalde, agian garaia da kritika mota honen ikuspegiari ere eusteko, euskal literatura aztertzen ari garelarik. Mundu anglosaxoian «Ethical turn» deitu izan zaio kritika mota honi, postmodernismoaren ostean berriro ere modan edo dagoena (Davis, Womakc, 2001). Kritika dekonstruktiboak, bere ekarpenak dituen arren, bazterrean utzi zuen kritika etikoa. Ikuspegi etikoa kategoria hutsa zen, ez balio bat (Newton, 1995, 37, 51). Gaur egungo kritika-korronte berriek, aldiz, hainbat ikuspegi partekatzen dituzte, tartean kritikaren arlo etikoa. Egileek beren balioak, beren onarpenak eta ikuspegiak helarazten dizkigute literatura lanak eta narrazioak direla bide (Schwarz, 2001, 4) eta hori guztia da, hain zuzen, sarritan irakurleoi erakargarri egiten zaiguna edota irakurtzera bultzatzen gaituena.

---

<sup>7</sup> Hala da: gaur egungo gizartea, akonfesionala sarri askotan, badirudi askatasun handiagoa dagoela norberaren norabideak eta jarrerak aukeratzeko, ez baitago «moral ofizialik» menperatzen gaituenik: «Yet this does not necessarily mean that people freely choose their identity independently of the subtle coercion of culture. Without making any explicit choice, many people accept the values of a subculture and do not even ask how may be [...] Instead, they accept the values for the group to which they belong, or aspire to belong», Singer, 2005, 5-6.

Narraziogintzari eskainiko diogu arreta lan honetan, gizatasunarekin harremana duen neurrian. Eta gizatasuna diogunean, etika esan nahi dugu, etika baita gizakiaren askatasuna jokoan jartzen duena, gizatasunean aurreratzeko betiere, gizaki hobeak izateko<sup>8</sup>. Esan gabe doa etika kontuan hartzen dugula literaturaren ikuspegi kritikoa bat eskaintzen digulako, ez inolako zentsurarik edo destainarik egiteko<sup>9</sup>.

### **Gatazkari begiratzeko moduak gure historia hurbilean: zinema eta narrazio gintza**

Nafarroaren eremua hartzen dut corpustzat lan honetan. Euskal Herriaren «erdigunean» baina, kontu honi heltzen lehenago hasiak dira batzuen batzuk. Esaterako, gai hau bete-betean agertzen eleberririk goiztiarrena Ramon Saizarbitoriaren eleberririk bat dugu: *100 metro* (1976)<sup>10</sup>.

Oro har, euskal literaturak berandu laga dio esparrua gai honi. Zinemak, garai beretsuan gaia lantzen hasi arren, askoz modu sakon eta eskuzabala-

<sup>8</sup> «La ética es el juego de la libertad personal con la naturaleza y esencia humanas y a través de ellas con la totalidad de lo real y de lo irreal. De ahí que negar la libertad conlleve negar implícitamente la ética. A su vez, desconocer la libertad personal conlleva no dotar de sentido suficiente a las acciones humanas. En la apertura que posibilita la libertad personal la naturaleza del hombre mejora o empeora [...] Para no perderse (a uno mismo): crecer en *humanidad*; en esto consiste precisamente la *ética*», Sellés, 2006, 256-257.

<sup>9</sup> «Pero lo moral no es una forma de censura, es más bien una forma de crítica. En la mirada crítica y en el compromiso con los agentes se encuentran –cuando así lo pretenden– la reflexión moral y la creación literaria y artística. Por eso mismo, y bajo determinadas condiciones, es posible hablar de un enfoque complementario de las disciplinas», López de la Vieja, 2003, 25. Onartu behar da, halere, ikuspegi etikoak zalantzatan jarria izan dela behin baino gehiagotan. Dekonstrukzioa izan da da, besteak beste, ikuspegi horri ez ikusiarrena egin diona: «The tete-à-tête seems unlikely at first glance: ethics apparently imposes a responsibility to the world and the word, whereas deconstruction –especially the brand perfected by Paul de Man– seems to abjure such responsibility», Zachary, 1995, 37.

<sup>10</sup> Eleberririk hori aspaldi izan da aztertua. Jon Kortazarrena izan zen lan goiztiarrenetako bat (1980, 142, 151). Hogeitaka urte geroago, Jon Kortazarek berak beste kapitulu bat idatzi zuen eleberririk hori zinemara nola eraman zuten aztertuz (2009, 29-40).

goan oratu dio sujetari. Hona zenbait adibide: *Estado de Excepción* (1976), *Comando Txikia* (1977), *Operación ogro* (1979) eta *Proceso de Burgos* (1979).

Jean-Claude Seguin-ek duela gutxi datazio bat proposatu du euskal zinemarendako:

1. Lehen aroa. 1896-1968. Aro historikoa, *Ama Lur* pelikula agertu arte.
2. Testigantza eta arreta. 1970-1975. Frankismoaren azken urteetako ikuspegia.
3. Gizabanakoa eta taldea. 1976-1981.
4. Gizarteratua eta bortizkeria bikoitza. Sozialismoaren aroa.
5. Gaitzestearen indarra. 1996-2004<sup>11</sup>.

Nafarroako euskal literaturak «erdigunekoak» baino beranduago jorratu zuen gai hau. Ekoizpenari dagokionez, zinema baino askoz oparotasun gutxiagoa dauka, zalantzarik gabe, nolabait ulergarriak diren arrazoiengatik. Baina, beranduago heldu arren ere, azkenaldion ekarpen aurrerakoiak eta mamitsuak egin dizkio euskal literaturari –zenbait zinemagile nafarrekin ere gertatu den bezala<sup>12</sup>–.

70eko hamarkadan jada zinemak hartua zuen protagonismo handia gizar-tean. Komunikabideek ere aurrerapauso handia eman zuten Estatu Espainolean, trantsizio politikoaren aitzindari eta askatasunaren xerkalari. Horregatik badago galdetzea gizar-tearen historia eta euskal literaturaren historia zenbateraino dauden lotuta. Agian lan honek emango digu hori galdetzen hasteko arrasto baliagarrik.

---

<sup>11</sup> Seguin, 2007, 421-436. Jon Kortazarrek (2009, 38) ere, bere lan batean aipatzen du eta bere euskarazko itzulpenaz baliatu naiz haren aipamena egiteko.

<sup>12</sup> Hor dugu, adibidez, Helena Taberna zinema-zuzendari nafarraren ekarpena, batez ere *Yoyes* (2000) filmarekin. Nafarroako euskal literaturan adibide bat emate aldera (askoren artean), *Bizia lo* eta *Antzararen bidea* narrazio-liburuak ditugu, Euskadi Literatura Saria irabazitakoak biak.



Edozein kasutan, eta argi gera dadin, hona hemen kontuan hartuko diren lanak:

Urtea	Izenburua	Egilea
1985	<i>110. street-eko geltokia</i>	Iñaki Zabaleta
1991	<i>Ur uherrak</i>	Aingeru Epaltza
1996	<i>Arian ari</i>	Patxi Zabaleta
1997	<i>Joan zaretenean</i>	Jokin Muñoz
2003	<i>Bizia lo</i>	Jokin Muñoz
2004	<i>Ezinezko maletak</i>	Juanjo Olasagarre
2005	<i>Lasto-sua</i>	Aingeru Epaltza
2007	<i>Antzararen bidea</i>	Jokin Muñoz
2008	«T». <i>Tragediaren poza</i>	Juanjo Olasagarre
(Gure gaiari zeharkako begirada botatzen dioten eleberriak)		
2001	<i>Euskal karma</i>	Jon Alonso
2008	<i>Mendeko borroka</i>	Fertxu Izquierdo

Bistan denez, egile nafarrak aukeratu ditut, Nafarroako euskal literatura hartuko baitut adibidetzat. Goiko zerrendan urtearen arabera daude ordenatua lanak. Hemendik aurrerako epigrafeak, berriz, egileen arabera daude banatuta, egilearen estiloak gehiago markatzen baitu aztertu nahi duguna (garaiak edo urteak baino). Esan gabe doa olerkigintza edota entsegugintza azterketa honetatik kanpora gelditu direla, fikzioa beste era batean agertzen delako beraietan eta aparteko tratamendua merezi dutelako.

## Herriaren tragediatik gizakiaren tragedia

100 metro kaleratu zenetik 9 urtera karrikaratu zuen eleberri bat egile nafar batek «gure gaia» nolabait ukitzen zuena. Iñaki Zabaleta Urkiola (Leizta, 1952) izan zen idazle hori eta bere eleberriak *110. street-eko geltokia* (1985) zuen izenburua. Bere eleberrian euskal gatazkan murgilduta aritutako pertsonaia bat da protagonista. Beraz, abiapuntu kronologikoa 1985

urtea izan zela esaten ahal dugu. Denbora tarte laburra da kontuan hartuko duguna, baina nahiko esanguratsua.

Zinemak eskaintzen digun testuingurua argigarria da. Izan ziren, bai, zenbait film ETAkideen izaera heroikoa iradokitzen zutenak. Baina laster, beste aurrerapauso bat eskaintzen hasi ziren beste film batzuk: gatazkaren zurrunbiloan dagoen aktibistaren tragedia existentziala. Horixe antzematen da *La muerte de Mikel* (1983) filmean. Estreinatuta zen urte berean Iñaki Zabaleta Ameriketako Estatu Batuetan ari zen bere eleberria idazten. 1985ean kaleratu zuen eleberri hura eta salmentetan arrakasta handia lortu zuen. Joseba Telleria (pertsonea nagusia) Iraultzaren hondakin bat da, naufragio bat: Euskal Herritik urruti, deserrotuta, baztertutako zonalde batean bere bizimodua ahal duen moduan aurrera atera nahian. Eta bakarrik. Bere biziaren «eskaintzak» bazterketa izan du sari: bai, Ameriketara ihesi joatean paperik gabeko migratzaile bilakatu da, eta hori da bere egoeraren kausa hurbila. Baina, ihesi dabil ETAkidea izan zelako, polizia bilatzen duelako. Euskal nortasuna (edo nortasun jakin bat, agian) defendatzeko matxinatu zen inoiz, eta orain<sup>13</sup>, atzerrian, bere euskal nortasun horrek ez dio deusetarako balio. Iraultzaren alde egindako lanak ez zaizkio erabilgarri: beste era bateko bazterketa bizi direnekin batera bizi behar du orain. Hemen frogatzen da eleberrien alderdi etiko bat, Henry Edmondsonen (2000, 6) gogorarazten diguna: alegia, literatura lanek sarritan erakusten digutela «ondo egindakoek» ez dutela beti beren saria jasotzen eta, aldiz, gaiztakeriak sarituak izan ohi direla maiz. Protagonistari erredentzioa poesia eta maitasunaren bitartez etorriko zaiola ematen du, baina badirudi patuak ez diola barkatu nahi aurreko bizimoduan izandako jarduerak: botere izugarriari (diktadurari) aurre egin eta errebolta egin nahi izatea. Prometeori gertatu zitzaion bezala, zigorra etorriko zaio gainera halabeharrez. Kontakizunean ez dago, inolaz ere, haren aurreko bizitzaren juzgu etikorik: ez baitakigu zertan aritu zen talde armatuaren barruan (atentaturik burutu ote zuen, ekintza odoltsuetan lagundu ote zuen...). Istorioan sartzen garenako beraren tragedia existentzialarekin topatzen gara. Baina badirudi iradokitzen zaigula Joseba Telleriaren lehengo jarduerak ez dakarrela gau-

---

<sup>13</sup> «Orain» dioadanean, istorioaren tempusan sartu garelako irudipena eman nahi dut.

za onik, beraren kontra altxatuko dela goiz edo berandu, mendekua bete nahian.

Narratzaileak gertutasuna du pertsonaia nagusiarekiko eta ematen du traizioa litzatekeela beraren aukera existentzialaren erro etikoa aztertzea edota epaitzea. Kontakizunaren hondarrean dentsitate emozionala igotzen da eta zailagoa egiten da egoera horretan arrazoitzea, edota juzgu etikoak egiten hastea: pertsonaia nagusiarekin bat egitea edo irakurtzeari uztea besterik ez dago. *La muerte de Mikel* filmean iradokitzen den bezala, hemen ere aditzera ematen da gatazkaren alde bortitzenak zein erraz ahazten dituen bere seme-alabak eta haietako bakoitzaren arazo existentzialak. Argi dago oraindik ez dela ailegatu sakoneko arazo ideologikoak aztertzeko garaia. Indarkeriaren ankerkeria eta hori justifikatzeko ideologia absolbituak ateratzen dira honelako istorioetatik, froga faltarengatik edota akaso gertutasunak juzgu orekatuak ematea galarazten duelako. Oraingoz, norbanakoaren patuari soilik eskaintzen zaio arreta.

### «Kontu trixtearen» erlatibizazioa, urrutiramendua eta kontraesanen salaketa

Aingeru Epaltza (Iruñea, 1960) dugu gatazkaren gaiari heltzen dion beste egile bat. *Ur uherrak* (1991) eleberriak terrorismoaren indarkeria agertzen du –nahiz eta konturik garrantzitsuena ez izan–. Nafarroan lekuturik dago istorioa, Baztan-Bidasoa zonaldeko herrixka zehaztugabe batean, hain zuzen (kontakizunean ez baita izena aipatzen). Gure gizartetxoko pertsonaien galeria daukagu bertan. Tartean pertsonaia exotikorik badira: adibidez, Billie pertsonaia beltza, emakumezkoa, blues abeslaria, euskaldun zaharra (nahiz eta AEBetan jaioa izan), eta Euskalduna den Vietnamgo gudari ohi baten alaba... Arrazoi askorengatik baztertua izateko txartel guztiak biltzen ditu. Edo horrela erakusten zaigu, behintzat, narrazioan. Baina, hau ere bitxia, bada beste pertsonaia marjinaturik: Jazinto bertsolari zaharra erreketekin ibilitakoa (eta, beraz, abertzaletasunaren kontrakoa). «Euskal» istorio batean pertsonaia deserosoa dugu, baina Nafarroako zenbait lekutan oso erreala. Gatazkaren mutur bietan daudenek badute, kurioski, adosta-

sunu puntu batean. Biek ala biek baztertzen dituzte bi pertsonaia hauek: Jazinto (erreketeegia euskalduna izateko eta euskaldunegia UPNzalea izateko) eta Billie (liberalegia, batzuentzat; kulturalki iraultzatik aparteegi dabilena, besteentzat).

Errealismo zikinaz mintzatu da egilea bera inoiz, bere eleberriko hainbat egoera aipatzean. Eta halaxe da. Aingeru Epaltzaren eleberrietan, narra-tzaileak tonu etsitua darabil eta –gatazka politikoen berbaldietan ongi sar-tzen ez diren– hainbat pertsonaia gatazkatsu eta «deseroso» erakusten diz-kigu. Modu horretara, «tasun» guztiak (abertzaletasun, espainoltasun, euskaltasun, aurrerakoitasun...) irrigarri gelditzen dira, beren kontraesanak agerian gelditzen direlako. Esate baterako, nahiz eta euskal giroen muinetan kultura- edota ideologia-bazterketak salatu egiten diren, euskaldunek eurek zenbait pertsona baztertu egiten dituzte –tartean Billie eta Jazinto–.

Bada gertaera esanguratsu bat Aingeru Epaltzaren ibilbide literarioan. *Garretatik erauzitakoak* (1989) narrazio bilduman iruindar hau ez zen ausar-tu «Akabailakoa» izeneko istorioa sartzera. Lagun batek arrazoi etikoak aipatu zizkion ez argitaratzeko: tartean, «borroka armatua modu bidegabean egurtzen» zuelako iritzia jakinarazi zion. Hala da: garai hartan bere irakur-leak izango zirenetariko askok ez zuten begi onez ikusiko istorio kritiko hori, eta ez zuen argitaratu<sup>14</sup>. Baina 2005ean argitaratu egin zuen *Lasto-sua* nar-razio-bilduman, «Atertzean» izenburuarekin. Elipsi askorekin kontatua dagoen arren, nafarrek izan behar ei duten jokaera esaneko eta subsidiarioa –Euskal Herriko erdigunean «egositako» proiektu iraultzailean betiere– sa-latu egiten du istorioak. Izan ere, kontakizun futurista horretako frankotira-tzaile nafar euskaldun batzuk, iraultza armatu bat egiten saiatu ostean, in-guraturik daude. Baskongadetako euskaldunek, gainera, haien kasa utzi dituzte nafarrak, matxinada bertan behera utzita. Horregatik, iraultzaren

<sup>14</sup> «80ko hamarkadaren bukaeran idatz zitekeen beharbada nafar euskaldunak gure Gobernuak zanpaturik sentitzen ginela (eta oraino ez zen UPN agintean!). Idatz zitekeen, beharbada, txalo gutiago joko baziren ere, Jaurlaritzak eta, oro har, mendebaldeko euskaldunek abandonaturik sentitzen ginela. Alabaina, iradokitzea gaita horien guztien kontrako konponbidea borroka arma-tua baldin bazen horrek desastrea baizik ez zekarrela, bada halakorik iradokitzea, 1989an, oso gustu txarreko kontua zen euskal literatura posible egiten duen jendaldean», Epaltza, 2006, 55.

aldeko apustua egin eta gero traizionatuta sentitu dira nafar horiek: desengainatuta edo sentitu dira.

Abertzaletasun tradizionalak, alde batetik, eta ezkerrekoak, bestetik, egin duten historiaren interpretazioak hankaz gora geratzen dira istorio deseroso hauekin. Horixe bilatzen du Aingeru Epaltzak, agian gizakiaren konplexutasunari zor zaion errespetuarengatik edota agian gizartearen azalpen sinplistei aurre egitearren.

## Hasierako ETA oinarritzeko tripodea

Urte gutxiren buruan eta 90eko hamarkadan hiru eleberri argitaratu zituen Patxi Zabaletak (Leitza, 1947): *Ukoreka* (1994), *Badena dena da* (1995) eta *Arian Ari* (1996). Bada nolabaiteko hari bat garai desberdinetan gertatutako istoriook lotzen dituen. Eta badago, baita ere, tarte zabala pertsonaiek egindako gogoeta filosofikoendako, zenbait kapitulu edota pasarte ia-ia saiakeratzat hartu ahal izateraino. Istorioon hariaren mutur bat XX. mendearen 20ko hamarkadan hasten da (nahiz eta sustraiak lehenagokoak izan, karlistadetakoak agian, edo zaharragoak), Beñat Mandiz pertsonaia nagusiarekin eta bere borroka existentzialekin: *Ukoreka* eleberriari buruz ari naiz. Baina azkeneko biak dira gure gaira gehiago hurreratzen direnak: *Badena dena da* eta *Arian ari*.

*Badena dena da* eleberria Nafarroan izan ziren Gerra Zibileko gertakizunetan kokatzen da, 1936 urtearen bueltan. Nahiz eta XX. mendeko gerra bati buruz ari garen Patxi Zabaletak ez du aukerarik galtzen XIX. mendeko gerrekin (eta ideologiek) lotura egiteko. Horretarako Nazario pertsonaiak baliatzen da, azken karlistadan ibilitakoa. Baina Beñat Mandiz protagonistak jasoko du lehengo estiluen lekukoa, berak deskubrituko baitu gerran zer dagoen jokoan, nortzuk diren jazarriak, nola burutzen den irabazleen indarkeria, nola batzuek erlijioa erabiltzen duten beren helburuak lortu eta fede onekoak engainatzeko edota erakartzeko.

Horren guztiaren kontu garbitze etiko halako bat dela ematen du istorioak. Baina, nola ez, gaur egungo (edo XX. mendearen bukaerako) indarke-

riak garai hartan dituela bere sustraiak iradokitzen zaigu, behin eta berriz. Hegel eta, batez ere, Marxen triada famatua gogorarazten zaigu: testia, antitesia eta sintesia. Sarraskiak eragiten dituzten indar guztiek izanen omen dituzte beren erantzuna, goiz edo berandu, eta hori Zabaletaren istorioetan iradokitzen da; izan ere hurrengo eleberrian, *Arian ari*-n, jada ETAn hasierako urteetara aldatzen da kontakizuna, aurreko eleberrien giro gatazka-tsua bizirik dirauela.

Azken eleberri hau da hasierako ETAkideen deskripzio idealista, altruista eta ausarta egiten duena. Hain da «jatorra» euren jokaera ezen Nafarroako zenbait kontrabandista euskaldun haien zintzotasunez konturatzen baitira. Tartean, kontrabandista gazte nafar bat dugu, Xanbil, gazte horiek adoktrinaturuta eta, beraietako batez maitemindu eta gero, ETAn ere sartuko dena. Oro har, ikuspegi epikoa nabari da, betiere hasierako aktibista haiek kontuan hartuta.

Arestian aipatutako hiru eleberrien arteko haria sendotzen du beste gertakari batek: Beñat Mandiz, aurreko eleberriko gaztea, *Arian ari*-n ere agertzen dela, jada zaharkitua, abokatu bihurtuta, baina ETAkide haiek lagundu nahian. Honek guztiak determinismo bati buruz hitz egiten digu, non gizakiok historiaren indarren gauzatzailak baino ez baikara, inongo errurik ez ditugunak. Gure herri txiki honetan izan diren ankerkeria orok izanen dute goiz edo berandu beren kontrako erantzun ezinbestekoa (antitesia), azkeneko tesi batera eramango ei gaituena. Harira datoz Aingeru Epaltzaren hitzok:

«Interpretazio horren ikuspeirik muturrekoenari jarraikiz, karlistadetatik hona gure garaia besarkatzen duen lerro zuzena dago, Gerla Zibila zubi dugula. Horren arabera, egungo etakidea 36ko gudariaren ondorengoa da, gudaria Don Carlosen txapelgorrien ondorengoa den gisa berean. Tesi horren bertsiorik berrituenak are mende gehiago eramaten gaitu gibelat. Horren sostengatzaileek egungo komandoetako ekintzaileen arbaso egiten dituzte 1521ean Noainen eta 1522an Amaiurren borrokatu zirenak»<sup>15</sup>

<sup>15</sup> Epaltza, 2006, 57

Izan ere, gure azterketaren corpusetik ilkitzen diren arren, Patxi Zabale-taren zenbait eleberri historikotan ere Nafarroan aurreko mendeetan izan-dako gertaera gatazkatsuen berri ematen zaigu, gaurko gatazken nolabaite-ko metaforatzat (agian gaurko gatazken haziak izan omen litezke) hartzen ahal ditugunak, betiere ikuspegi honen aburuz. Jakina, interpretazio horrek ez du apenas lekurik uzten gizakiaren askatasunari (bera historiaren indar-  
ren jarraile ezinbestekoa baita), eta beraz ez dago erantzukizunik. Azpimarratzerik dagoen gauza bakarra hauxe da: indar aurrerakoi, iraul-tzaile eta altruistei laguntzen dietenak izango dira kontrako indarren men-dekua edota zigorra jasango dutenak, modu tragikoan betiere. Haien isto-rioak kontuan hartzea guretzat katartikoa izan daiteke.

Patxi Zabaletaren trilogia hau –arestian aipatutako triadek zentzu osoa hartzen dute perspektiba honetatik–, hasierako ETako kide haien azalpena egitera eta, neurri batean, justifikatzera dator. Lan handia eskatu dio honek guztiak egileari, jakina, hainbat kontu filosofiko, etnografiko eta historiko agertu behar izan baitu. Egilearen beraren eboluzio ideologiko-politikoaren kumeak dira, 90ko hamarkadan hobeto ahokatzen direnak agian, gaur egungo bere eboluzio-egoerarekin baino.

## Hausturak erakusten

Euskal erdigunetik urrutitik datorkigu Jokin Muñoz (Castejón, 1963) nafa-rra bere istorioekin eta idazten hasi zenetik ez du higuinik izan euskal gatazka-ren inguruko narrazioak guri helarazteko. Narrazioen gatazkek erdigunetik urruti kokatzea ere gogoko du... behintzat erdigunetik datorkigun ikuspuntuarekin alderatzeko. *Hausturak* (1995) narrazio-liburuan, halaxe egiten du, 36ko gerraren aitzinean kokatutako bost istorioetan, hainbat haustura klaseri (kontzientziazkoa, ohiturazkoa, gizarte-taldeen artekoa, ideologikoa...) istorio bi-hurtuz, errealak, oso errealak izan zitezkeen fikziozko pertsonaien bidez.

*Joan zaretenean* (1997) eleberri psikologikoan, ostera, dezente hurbiltzen da gure gaur egungo (azken hamarkadetako) kontu ilunera. Ezker aber-tzaleko giroan hazi eta hezitakoa den Alvaro protagonista, jada gaztaroko mundutik aldendua eta porrot existentzian murgildua (bere bikoteak utzi

berri du), bere barne arazoa berbalizatzen hasi da, noiz eta ETAkide bat (gaztetako lagun bat) etxera babes bila datorkionean, poliziatik ihesi dabil eta. Gaztetan bizitakoa, bere inadaptazioa, ustez «koherenteak» izan ziren lagun bakaera... hori guztia aztertzen du, oso begirada errukior eta, era berean, zorrotzarekin. Bernardo Atxagak (*Gizona bere bakardadean*, 1991) eta Ramon Saizarbitoriak (*Hamaika pauso*, 1995) egin zuten antzera, gatazkara hurbiltzeko modu psikologikoa jorratzen du Jokin Muñozek; hori bai, bere estilo propioarekin. «Zergatik» galderari erantzuterakoan, ostera, arrazoi ideologikorik aurkitu beharrean, ezerezarekin topatzen da sarritan, edota inertzia soilarekin. Eduardo horren adibide bat da. Baina, Muñozen narrazioetan, behintzat, badira gehiago.

*Bizia lo* (2003) kontakizun-bildumarekin ere barne-begirada horri eusten dio eta handiagotu egiten da pertsonaiek pentsatzen dutenaren eta esatera ausartzen direnaren arteko aldea edo leizea. Eta esatera ausartzen ez diren horrek zerikusia du borroka armatuarekin, batez ere «Isiluneak» izenburudun narrazioan. «Xantilli» kontakizunean, berriz, bere seme (intelektualki) atzeratuaz ardura hartzeko adorerik ez duen sindikalista bat dugu; bestalde, Aitor izeneko pertsonaia (sindikalistaren semea eta Gabi gazte atzeratuaren anaia) ETAk hilko du: hau da, bere adineko gazte batzuek hilko dute, negozio zikinetan dabilelakoan. Paradoxak zer pentsatua eragiten dio irakurlari: mugaz bestaldean bizi den Aitor pertsonaiak pegatinak eta kamisetak ekartzen dizkie bai bere anaiari, bai bere lagun ohiei... garai hartako «sinbolo» eta «idoloekin» josta daitezten. Eta haietan goraitpatzen direnak (ETAkideak) izango dira bizia laster kenduko diotenak. «Azterketa» narrazioan aspaldiko aktibista garaiko loturengatik erlazionatuta dauden pertsonaia batzuk ageri dira beste egoera paradoxiko batean. Baina, hemen ere barneko pentsamenduak dira pertsonaiei ezinegona eragiten dietenak, batez ere azterketa zaintzen dagoenari, beste garai batean «Krogmagnon» goitizenez ezagutua.

*Antzararen bidea* (2007) eleberrian ere semea galdu berri duen ama bakarti bat izango da protagonista. Gure gertuko historian sarritan gertatu izan dira horrelakoak eta, beraz, sinesgarria egiten zaigu<sup>16</sup>. Semea aktibista

<sup>16</sup> «A veces ponen ante la vista experiencias que han sido olvidadas, formas de vida diferentes, situaciones con una fuerte carga moral o política» López de la Vieja, 2003, 15.



ezkutuko bat zen eta, Lisa amarekin (anaia-arrebarik gabe) bera bakarrik hezia. Lisari urrutikoa irudituko zaio bere semea; izan ere, ez du ondo ulertzen nola hil duen erretiratutako (eta aguretutako) zinegotzi ohi bat. Ez du ulertzen bere semea hil eta gero antolatu den hileta-omenaldi politikoa... Parafernalia sasi-epiko hori ez da haren benetako drama islatzen duena, ez eta euskal gizartearen drama irudikatzen duena ere. Eleberrian zehar eta Euskal Herriko mutur baterako bidaian, zenbait kontraesan azaleratuko dira, errukirik gabe: pertsonaia nagusienak eta euskal gizartetxoarenak. Eta mutur horrek beste gatazka gordin bat erakutsiko digu: ankerragoa, gordinagoa. 36ko Gerra Zibileko gatazka da hori, ezkertiarren aurkako jazarpen ahaztua ekarri ei zuena.

*Yoyes* filmarekin gertatu zen bezala –urte batzuk geroago bada ere–, salaketa argia da Jokin Muñozena. Baina ez da berbaldi edo diskurtso batez baliaturik egindako salaketa. Istorioetan agertzen diren detaile esanguratsuak, pertsonaien bakarriketak eta istorioen ikuspegi psikologikoa dira salaketa hori agertzeko baliabideak. Irakurleak, gutxieneko sentiberatasuna baldin badu, antzemango du berehala nola egileak aurpegiatzen dion indarkeria politikoari eta beren eragileei (datozen lekutik datozela) euren zentzugabekeria. Istorio hauen bidez zaplazteko etikoa ematen digu Jokin Muñozek, benetan zer gertatzen ari den guri helaraziz (aitortu ezineko beldurrak eta gutzi).

## Ezinezko bizi-proiektuak

Utopia bat desegiten zaigula jakiterakoan, etsipena nagusitu egiten da eta agian utopia horrekiko herra edota mesfidantza pizten dira. Zeharka begiratzeko diogu garai batean gure begiak argitzen zituenari.

Egile nafarren zeharkako begirada nagusitu da azken aldi honetan, gero eta modu sendoagoan, euskal gatazka oldartsuari begirada bat botatzerakoan. Gatazka bera iraultzaileen kontra matxinatzen da eta kontu zorrotzak eskatzen dizkie. Pertsonak, iraultzaileak egokitu behar dira Iraultzaren berbaldira, eta ez alderantziz. Horretara egokitzen ez den iraultzailea –nahiz eta Iraultzaren alde sakrifizioak eta bere bizitza eskaini– baztertua izango da. Halaxe begitantzen zaigu gertatu dela Juanjo Olasagarreren *Ezi-*

*nezko maletak*-en (2004). Eleberri honen drama sozialak *La muerte de Mikel* (1986) filmaren planteamendu bat gogorarazten digu. Gizartearen tolerantziarik eza salatzen da, baita ezker abertzalearena. Garai batean jarrera homosexualarekiko onarpenik eza aurpegiatzen die istorioak, orduko aktibistei edota militanteei, nahiz eta pertsonaia homosexuala ere (Bazter goitizenez, Carlos izenez) maitasun kontuetan fidela ez izan<sup>17</sup>.

Sasoi bateko militantziak elkaturiko lagun batzuk orain ez dira horren lagunak. Bakoitzak bere bidea jarraitu du eta Londresera ihes egindako kide baten heriotzak (hiletara joan beharra) elkartu egin ditu berriz ere. Fermin da hiruron artean gaztetako iraultza harekiko kritikoena, eta horregatik bere iraganari uko egin dio. Iraultza hura egin nahi zutenek pertsonetik (baita beren gertuekiko) zuten sentiberatasun eskasa izan zen (eleberrian halaxe kontatua, behintzat) detonante bat apurka-apurka mundu horrekiko loturak mozten joateko. Harakinek –beste kide bat, oraindik ezker abertzaleko militantea– bere bizi-proiektuaren porrota hausnartzen du barne-minez, kanporatzen ez duen arren. Bere semea down-sindromeduna da eta mundua (Euskal Herritik hasita) aldatu nahi izan zuen horrek ezin izan dio arazo horri aurre egin eta bere gaztetako bikotekideari ere traizioa egiten dio isilka eta ezkutura, hiriko (Iruñeko) amorante batekin elkartuz. Horrelako koherentziarik ezak agertuz desengainuaren gordina dastatzen du irakurleak. Baina zapore mikatz hori leuntzeko ez du, ez istorioak, ez narratzaileak, ez egileak bestelako bizitzaren helburu itxaropentsurik edo gozagarririk. Eleberri honek duen alderdi etiko azpimarragarriena hauxe da: historiak baztertutako aktibista ohiei ahotsa ematen diela, batzuen eta besteen berbaldi arranditsuen gainetik edo azpitik –pertsona zehatzengan gauzatuta– zer dagokeen adierazteko.

«T». *Tragediaren poza* (2008) dugu Juanjo Olasagarreren beste eleberri bat duela urte gutxi kaleratutakoa. Iraultza eta borroka armatuarekiko ja-

---

<sup>17</sup> «La película quería ser una acusación general a la intolerancia de la sociedad vasca y ahí podía estar una de sus lagunas: Uribe sembraba muchas dudas sobre la actuación de las fuerzas policiales, no entraba a valorar el nacionalismo vasco radical (salvo su actitud ante la homosexualidad) y presentaba como culpables de la intolerancia a todos los sectores de la sociedad vasca, salvo el protagonista, que era sólo una víctima, a pesar, por ejemplo, de la actitud de éste con respecto a su mujer», De Pablo, 1996, 96.

rrera muturrekoak dituzten pertsonaiak erakusten dira hemen ia-ia modu lizunean. Andres Barrutia unibertsitateko irakaslea, ETAn ibilitakoa den arren (edo agian horregatik), orain abertzaletasunaren kontrako arietea dugu, eta, tragediaren inguruko teoriak baliatuta (Nietzsche filosofoak itxuratuta), haren dekonstrukzioari ekin dio. Terese izeneko bere doktoregoko ikasleak, berriz, ez du abertzaletasuna bere ideologian erroturik, bere gurasoek (ETAkide ohiak izan arren, edo agian horregatik) ideologia horretatik «babestu» egin dutelako. Arinkerian bizi edo da, kanpo-itxura atsegina eman nahian eta arropari zein janzkerari garrantzia emanez. Hala eta guztiz ere Andres Barrutiaren inguruan ibiliko da eta, gure mundutxoan sarritan gertatu den moduan, hainbat eragile nahasten dira bere bizitzan. Hasteko bere mutil-laguna ezker abertzaleko militante gaztea da. Bestetik, bere gurasoen antzinako militantzia (eta idealekiko) interesa piztu zaio, bere irakasleak aurkezten dion ikuspegi tragikoarekikoa pizten zaion neurri bertsuan.

Barrutia pertsonaia bereziaren ahotik ezker abertzalearen berbaldiko «hahabeharraren» kritika egiten da, patua gaizki ulertuta dutelakoan. Baina ez du patua modu argian ukatzen, eta horretan erakusten da bere kontraesana. Baina bere helburua tragediaren fribolitate da, tragediaren ikuspegi dionisiakoa. Horregatik, Tereserekin batera, euskal tragedia bat burutu nahi du, bukaera tragikoa eta guzti. Gaiari heltzeko oso modu sortzaile eta originala den arren, ez du ibilbide luzerik ametitzen, helburua bera (alderdi teleologikoa) Nietzscheren ikuspegitik behintzat, ukatzen delako. Ez dago tuneletik ilkitzeko asmorik, eta horregatik ez da tuneleko irteeraren argia bilatzen: tunel barruko putzu lohietan txipli-txaplaka egotea nahiago izaten da... eta datorrela tren.

## Zeharkako begiradak zeharka agertuak

Nafarroan badira beste egile eta beste lan batzuk kontu omnipresente honi heldu diotenak, jakina. Baina zeharkako aipamenak direnez, edota bete-betean jorratu ez dutenez, aparteko multzo batean sartzen ahal ditugu.

Multzo honetan agian gehien nabarmentzen dena hauxe da: Jon Alonsoren *Euskal karma* (2001). Neurri batean, euskal gizartearen parodia egiten

da fikziozko (ia-ia zientzia fikziozko) istorio batean. Eta parodia egiten da, nola ez, ETA talde terroristarena: istorioan K.A.T. erakunde armatua aipatzen da (Kanonetik Askatzeko Txatarreroak).

Fertxu Izquierdo (Iruñea, 1975) idazlearen *Mendeko borroka* (2008) eleberrian, berriz, Erroman kokaturiko istorioa kontatzen zaigu. Akzioa (indarkeria barne), intriga eta egoeraren planteamendu korapilatsua dira eleberria erakargarri egiten ahal dutenak. Ustez ez du zerikusirik izango Euskal Herriko borroka edo gatazkarekin, baina Italia zein mundu osoko ezkerreko aktibisten aipamen epikoak –beren lanak begiramenez aipatzen dira– (Che Guevara, Paolo Pasolini, Victor Serge eta enparauen lanak, iraultza egiteko hainbat jardunbide eta «irakaspen» ematen dituztenak) gurean egin nahi izan den iraultza maoista gogorarazten digu.

Bestalde istorio hori 70eko hamarkada trumoisuan kokatuz gero, berehala etortzen zaigu gogora gurean hamarkada hura nola bizi izan zen, eta Erroman dauden istiluak, talde ideologikoen arteko liskar batzuetan odoltsuak hemengo egoeraren metaforizaziotzat hartzen ahal dira. Harrigarria da, Europako mugimendu ezkertiarak liluraturik agian, nola justifikatzen den hain erraz talde armatu ezkertiarren zenbait atentatu odoltsu: kontaktuzun honetan behintzat, atentatuaren biktima izango denetako bat, adibidez, lehenengoz eskuindar faxistatzat aurkezten da eta ondorenean bere heriotza aipatzen da, inolako kezka etikorik gabe, normaltasunez. Honetan, aldentze bat antzematen diogu Fertxu Izquierdori gainontzeko idazle nafar askorekiko: ezkerreko munduaren ikuspegi kritiko (autokritiko?) falta zaiola, alegia; ikuspegi nostalgiko liluratuari, ostera, sendo eusten dio, istorio edo berbaldi poetikoari tonu egokia emate aldera agian.

## Ondorioak

Askotarikoa da euskal idazle nafarrek gatazkari heltzeko modua. Beren narrazioak idatziak izan zireneko garaiek ere zerikusia edo eragina izaten dute istorioetan. Zenbat eta 80ko hamarkadatik gertuago egon (gatazkaren hamarkadarik odoltsuena) hainbat eta jarrera kritiko eskasagoa izanen dugu borroka armatuarekiko. Salbuespen bakarretakoa (Epaltzaren

«Akabailakoa» istorioa, 1989an argitaratzeko idatzia, gerora «Atertzean» izenburuarekin eta 2005ean karrikaratua) ez zen hamarkada honetan argitaratu.

Hasierako jarrera bat hauxe da: norbanakoaren edo norbanakoen destinoa arreta-puntu nagusi bilakatzen da. Ez da zalantzan jartzen ETAkoen jarduna, adibidez. Indar polizialen jarduera, ostera, oso leku txarrean gertatzen da beti. Jokaera hori 1996ra arte luzatuko da, *Arian ari* eleberriarekin, nahiz eta azken eleberri honetan hasierako ETAkide haien ikuspegi altruista eta eskuzabala ere eskaintzen zaigun.

Gatazkaren elementu garrantzitsua den borroka armatuari egiten zaion juzgua ez da berbaldiaren bidez azaleratzen. Autoreen arabera, batzuetan hasierako aktibismoari erreparatzen zaio (Patxi Zabaleta), eta testuinguru sozial eta politikoan justifikatzen da hasierako ETAkiden jarduera klandestinoa (laster atentatuak etorriko ziren). Noiz edo noiz, ETAkidea izandako pertsonaiak atzean utzi du bere jarduera armatua narrazioaren denbora hasi denerako (eta ez dago ebazpen etikorik horren inguruan, Iñaki Zabaletaren *110. street-eko geltokian* bezala).

Baina kritika ere etorriko da laster. *Ur uherrak* eleberriarekin gatazkaren alderdi «zikin» gehienak (errealismo zikina) iritsikoa da eta, horrekin batera, gatazkaren mutur bietan daudenen kontraesanak agerian uzten dira. *Joan zaretenean*-en ere kritika horiek istorio eta bakarrizketa psikologiko bihurtzen dira. *Ezinezko mailetak*-en utopia gizatasunik gabekoa ekartzen da akordura. *Bizia lo* narrazio liburuan gatazka jasaten dutenen barne mundua ageri zaigu, berbaldi politikoek deskribatzen diguten mundutik oso bestela bizi direnak, munstroaren hatzaparrak pairatu duten arren. Hori areagotu egiten da *Antzararen bidean*-en: kontraesanez beteriko gizarteak eta pertsonak ditugu bertan. «T». *Tragediaren poza*-n berriz, gatazkaren mutur batetik bestera joan den pertsonaia baten ikuspegia erakusten zaigu eta bere berbaldiarekin berarekin kritika egiten dio garai batean sinetsitako Euskal Iraultza delakoari.

Beraz, eta laburbilduta, hauexek izan daitezke jarrera etikoaren paradigmatik istoriotan aurkitzen ahal ditugunak (euren arteko konbinazio eta metaketa askotarikoa izan daiteke):

- **Urrutiramendua.** Istorioen edota egoeren kokapena fisikoki (geografikoki) euskal erdigunetik urruti daudelako (Nafarroako Erribera, adibidez edo Iruñeko zenbait zonalde, non euskal kulturarekiko kezka eskasa den). Urrutiramendua bitala ere izan daiteke, gatazkaz gogaituta bizi diren pertsonaia nagusi batzuen eskutik.
- **Epikarik eza.** *Ur uherrak* bezalako istorioetan gatazkaren indarkeria agertzean bere helburu narrasak eta bere ondorio bortitzak baino ez dira erakusten.
- **Ikuspegi epikoa.** Salbuespena den arren, noiz edo noiz «iraultzailearen aszetika» erakusten da, lilura edo pizte aldera. Mitifikazio halako bat, batez ere Patxi Zabaletaren *Arian ari*-n.
- **Giza-dramaren larria.** Balizko herri baten dramaren gainetik erakusten da. Drama hori indarkeriaren biktimek jasango dute, baina baita indarkeriazko ekintzetan ibili direnek ere.
- **Gaztaroko iraultzaile izateko lilura zimeldua.** Batez ere Epaltzaren *Rock'n'Roll*-en eta Jokin Muñozen *Joan zaretenean*-en. Gogoratzen den lilura hori, baina, ukapen bilakatu da, desengainua.
- **Gaurko gatazkaren metaforak.** Aurreko mendeetan edo Euskal Herritik urruti kokaturiko istorio gatazkatsuak, gaurko egungo euskal gatazkaren metaforatzat edo alegoriatzat hartzen ahal dira neurri batean. Egilearen arabera, gaurko indarkeriaren sorrera ere badirela iradokitzen da noiz edo noiz. Aztertu ditugun egile hauek horrelakoak idatzi dituzte, baina ez dira lan honen corpusa. Euskal Herritik kanpora lekutatuko eleberririk, bai kontuan hartu dugu: *Mendeko borroka*, Fertxu Izquierdorena.
- **Parodia.** Kontu honi larritasuna kentzeko eta kritika modu berezi batez egiteko modua da, oso noizbehinka erabilia.
- **Isilik daudenei ahotsa jartzea.** Gerra triste honetan protagonismorik izan nahi ez duten baina majo sufritu dutenengana hurreratzen gara horrela. Esaterako, bonba bat manipulatzeko hil diren ETAkideen gurasoen mundua. Zer pentsatzen duten. Zer ez duten aitortu nahi. Zertaz damutzen diren... Nola ikusten duten ezker abertzalearen diskurtsoa beren seme-alaba hilekiko. Edota ETArekin gogaitu eta abertzaletasuna ere gorrotatzera ailegatu diren aktibista ohien mundua eleberrira ekartzea.

Izanen dira, jakina, parametro gehiago edo hobeto deskribatzen duenik. Baina baliagarriak izan daitezkeelakoan nago; batez ere, ikusteko literaturaren historian jarrera horiek zer-nola erabiliak izan diren eta zer nolako eboluzioa egon den gai honen tratamenduan.

## Bibliografia

DAVIS, T. F., WOMACK, K. (editoreak), 2001, *Mapping the Ethical Turn. A reader in Ethics, Culture and Literary Theory*, Charlottesville, Virginia: University Press of Virginia.

DE PABLO, S., 1998, «El terrorismo a través del cine: un análisis de las relaciones entre cine, historia y sociedad en el País Vasco» in *Comunicación y Sociedad*. Facultad de Comunicación, Universidad de Navarra, XI, 2. zbkia., Abendua, 1998, 177-200.

———, 1996, *Cien años de cine en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

EDMONDSON, H. T., 2000, *The Moral of the Story. Literature and Public Ethics*. Oxford: Lexington Books.

EGAÑA, I.; ZELAIETA, E. (Koord.), 2006, *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.

EPALZA, A., «Gure kontu triste hori (Gatazka begietan)» in EGAÑA, I.; ZELAIETA, E. (Koord.), 2006, *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea, 53-64 orr. Kortazar, J., 1980, «Ehun metro» in *Jakin*. 13. zkia., urtarrila – martxoa, Donostia, 142-151 orr.

KORTAZAR, J., 2009, «100 metro. Munduaren bira» in Kortazar, J. (zuz.), 2009, *Egungo euskal nobela eta zinema*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 29-40 orr..

LÓPEZ DE LA VIEJA, M<sup>a</sup> T., 2003, *Ética y literatura*. Madrid: Tecnos.

MARÍN PADREÑO, H., 1997, *De dominio público. Ensayos de teoría social y del hombre*. Iruñea: Eunsa.

NEWTON, A. Z., 1995, *Narrative Ethics*, Cambridge, Massachusetts: Harvard University Press.

PHELAN, J., 2005, *Living to tell about it. A Rhetoric and Ethics of Character Narration*. New York: Cornell University Press.

SCHWARZ, D. R., «A Humanistic Ethics of Reading» in Davis, T. F., Womack, K. (editoreak), 2001, *Mapping the Ethical Turn. A reader in Ethics, Culture and Literary Theory*, Charlottesville, Virginia: University Press of Virginia, pp. 3-15.

SEGUIN, J., 2007, «ETA y el nacionalismo vasco en el cine» in HERRERA, J.; MARTÍNEZ-CARAZO, C. (ed.), 2007, *Hispanismo y cine*. Madrid: Vervuert Iberoamericana, 424-436 orr..

SELLÉS, J. F., 2006, *Antropología para inconformes. Una antropología abierta al futuro*. Madrid: Rialp.

SINGER, P.; SINGER, R. (ed.), 2005, *The Moral of the Story. An Anthology of Ethics Through Literature*. Malden (Massachusetts), Blackwell Publishing.

YEPES, R., 1993, *Fundamentos de antropología*. Iruñea: Eunsa,.

ZACHARY, A., 1995, *Narrative Ethics*. Cambridge (Massachusetts): Harvard University Press.

ZULAIKA, J., 2006, *ETAren hautsa*. Irun: Alberdania.





# Praktika literarioaren esparru sozialak eta XVIII. mendeko euskal literatura penintsularra: *Naissance de l'écrivain?*

BIJUESCA, K. Josu  
Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Alain Vialaren arabera lehen alor literario frantsesean erabakiorrak izan ziren praktika literarioaren esparru sozialak edo «institutions de la vie littéraire», alegia akademiak, mezenazgoa, zentsura eta idazle eskubideak. Artikulu honetan erakunde horietatik lehen hirurak XVIII. mendeko Euskal Herri penintsularrean zertan ziren arakatu da, beti ere euskal literaturaren ikuspegitik.

**Hitz-gakoak:** Alor literarioa, XVIII. mendeko euskal literatura penintsularra, akademia, mezenazgoa, zentsura, idazlea.

Segun Alain Viala, en el primer campo literario francés fueron decisivos los ámbitos sociales de la práctica literaria o «institutions de la vie littéraire», es decir, academias, mecenazgo, censura y derechos de autor. De todas estas, en este artículo se ha investigado el papel que jugaron las tres primeras en la Euskal Herria peninsular, siempre desde el punto de vista de la literatura vasca.

**Palabras clave:** Campo literario, literatura vasca peninsular del siglo XVIII, academia, mecenazgo, censura, escritor.

Selon Alain Viala, dans le premier champ littéraire français, les espaces sociaux de la pratique littéraire ou «institutions de la vie littéraire» furent décisifs : académies, mécénat, censure et droits d'auteur. Nous avons étudié dans cet article le rôle qu'ont joué les trois premiers dans le Pays Basque péninsulaire, du point de vue de la littérature basque.

**Mots-clés :** Champ littéraire, littérature basque péninsulaire du XVIII<sup>ème</sup> siècle, académie, mécénat, censure, écrivain.

According to Alain Viala, a decisive role was played in the field of French literature by the social spheres of literary practice or the «institutions de la vie littéraire», in other words, academies, patronage, censorship and copyright. This paper examines the nature of the first three in the Peninsular Basque Country in the 18th century, at all times from the perspective of Basque literature.

**Keywords:** Literary field, 18<sup>th</sup> century Peninsular Basque literature, academy, patronage, censorship, writer.

Jakina da XVIII. mendea aldi giltzarria dela mugaz honako euskal literaturan, literatura idatzian behintzat, emaitza mamitsuak agertzen hasi baitziren orduantxe, lehenago ez bezala, eta haiekin batera idazle sena izan zezaketen lehen idazleak ere.

Akzioaren teoria (*action theory*, *teoría de la acción*) delakoaren arabera, idazlea gizarte espazioaren alor berezitu batean, literaturaren alorrean hain zuzen ere, jokatzeko duen gizarte eragile berezia da. Literaturaren alorra, baina, beste edozein gizarte alor bezala, historian zehar noizbait sorturiko emaitza da gizarte eragileen borroken ondorioz. Jakina denez, akzioaren teoriaren sortzailea Bourdieu soziologoa da. Haren zenbait kontzeptu erabiliko dugu XVIII. mende amaierako euskal literatura penintsularraren ikuspegia osatzeko (Bourdieu 1995 eta Bourdieu 1997). Baina Bourdieu bera baino eredu hurbilagoak izango ditugu haren aplikazioak gure inguruko literatur tradizioetan: Vialarena Frantziarako; Guniarena eta Gutierrezena Espainiarako.

Alain Vialaren arabera Frantziako lehen alor literarioa XVII. mendean eratu zen, Frantziako literaturaren aro klasikoan hain zuzen ere. Aro horrek alor literarioa gorpuztuko duten ardatzak sortzen ikusiko du: lehenengo eta behin, praktika literarioaren esparru sozialak edo «institutions de la vie littéraire» (akademiak, idazle eskubideak, mezenasgoa, zentsura); eta horiekin batera, literatur hizkuntzaren, formen eta generoen kodifikazioak edo «institutions littéraires».

Ardatz bi horiek aztertuta, Vialaren ondorioa zera da: Frantziako literaturari dagokionez, XVII. mendea alor literario frantsesaren sorrera unea dela –nahiz eta XIX. mendera arte itxaron beharko den alorrak erabateko askatasuna lor zezan (Bourdieu 1995)– eta giro horrextan «idazlea» gizarte eragile gisa sortu zela. Hortik, hain zuzen ere, bere liburuaren titulua: *Naissance de l'écrivain. Sociologie de la littérature à l'âge classique* (Viala 1985: 9-10). Carlos Gutierrezek ere, Bourdieu eta Vialaren ereduak ikuspegi metodologiko gisa erabilia, 1600 urte inguruko Madrilan jarri du Espainiako lehen alor literarioaren sorrera (Gutierrez 2005: 50). Aipaturiko lanok bi delagun izango ditugu XVIII. mendeko euskal literaturaren egoeraz hausnartzeko. Horretarako Vialak aipaturiko bi ardatzetatik lehenari erre-

paratuko diogu bereziki eta ardatz horrek beregatzen dituen erakundeetatik honako hiruroi: akademia jardunari, mezenasgoari eta zentsurari, gure helburuetarako ikergune emankorrenak izango direlakoan.

## 1. Euskal akademiaren gabezia

Akademien sorrera eta hedapena ezinbestekotzat jotzen da alor literarioaren garapenean, horrexek eman baitzion alor literarioari alor intelektual orokorragotik bereizteko aukera. Praktika akademikoak zenbait abantaila ekarri zien idazleei: lehenengo eta behin, idazleak eta batez ere idazle gazteak edota berriki hirietara etorriak gizarteratzeko esparruak ziren; bigarrenik, informazio eta formazio guneak ziren berriketa akademikoek eguneratuta izateko aukera ematen zutenez gero; hirugarrenik, idazleei sostengua eskaintzeko tokiak ziren, bai jarduera literarioan (aholku, iritzi eta epaiak trukatzuz, elkarren lana laudatuz edo eztabaidetan murgilduz), bai eta sozialean ere, akademiataik asko handikiren batek hegapetuak izanik, eskupeko, babes edota ogibide onuragarrietarako aukerak ere ugaritu egiten baitziren; laugarrenik, akademia batean onartua izanak alde aurretiko kideen onspena erakusten zuen, haien pareko izatea beraz, eta horrekin batera jarduera literarioaren eremu berezitan konsagrazioa lortzea, horrela lehenagotik lorturiko ospea bermatuz edo etorkizun hurbilean ospe hori lortzeko aukera gehiago sortuz; azkenik, akademiak ofizializazioa lortu zutenez gero, idazlearen pertsonaia sozialak ere legitimazioa lortu zuen hizkuntzaren eta estetikaren arautzaile gisa, bizitza literarioaren onuragarri estatuak berariaz onetsitako nazio- (edo eskualde-) erakunde prestigiotsu bateko kide zen heinean (Viala 1985: 42-43).

Frantziako akademiaren aldean, Espainiakoek ez zuten, antza denez, haien estatu kutsua:

Creo, sin embargo, que este aliento estatal sólo se produjo claramente en Francia con la creación de la Académie Française en 1635. Las academias españolas tuvieron, más que otra cosa, un impulso de emulación cortesana en un contexto en el que la nobleza titulada también medía su prestigio por su cercanía a la práctica literaria o

por su mecenazgo (activo o pasivo) de esta. No existió, que yo sepa, ninguna academia auspiciada por Rey o Valido. (Gutierrez 2005: 45)

Hala ere, Gutierrezek berak erakutsi du monarkiaren gobernu zereginak bere gain hartzen zituzten handiki horiek, Lermak eta Olivaresek esate baterako, zenbateraino bilatzen zuten akademia eta idazleen lankidetzak gortekideen entretenimendurako edo propagandarako eta iritzi publiko jakin bat hedatzeko. XVII. mendean boterearen alorra oso hurbil zegoen, hortaz, akademiak berariazko erakundetzat zituen alor literariotik eta XVIII.ean sartuta, Frantziakoaren eredia gogoan zela, handik zetorren Borboi dinastiak ere Hizkuntzaren Erret Akademia sortu zuen, gogoan hartzen zuen hizkuntza bakarra gatzelania zela. Ez nolana, akademiak gobernuaren tresna egoki suertatu ziren kultura eta hizkuntza bateratzeko:

C'est au siècle suivant [XVIII.a] que les académies auront leur pleine expansion à travers le pays et y diffuseront les «Lumières»; mais dès temps de leur essor, «la province se cherche au miroir de Paris». Un mouvement d'unification culturelle et linguistique s'est développé ainsi. La monarchie centralisatrice a su le mettre à profit pour renforcer l'unification politique: les académies officielles dessinent nettement l'axe rhodanien et s'étendent dans les pays de langue d'oc; dans ces provinces traditionnellement turbulentes, le soutien gouvernemental aux sociétés lettrées était destiné à renforcer la diffusion de la langue française et, par là, la cohésion nationale. (Viala 1985: 23, eta ikus ere 46-47)

Max Weber-en estatuari buruzko teoria berridatziz, Bourdieuk uste du estatuaren asmoa ez dela soilik biolentzia fisikoaren monopolia eskuratzea, baizik eta biolentzia sinbolikoarena ere bai. Hizkuntza eta literatura ongi sinboliko gisa identifikaturik, kapital horien monopolia ere lortzen ahaleginduko da:

La unificación cultural y lingüística va unida a la imposición de la lengua y de la cultura dominantes como legítimas, y a la relegación de todas las demás a la indignidad (dialecto). El acceso de una lengua o de una cultura particular a la universalidad tiene el efecto de remitir a las otras a la particularidad; además, debido a que la universalización de las exigencias así instituidas no va pareja con el acceso a los

medios de cumplirlas, favorece a la vez la monopolización de lo universal por unos pocos y la desposesión de todos los demás así mutilados, en cierto modo, en su humanidad. (Bourdieu 1997: 107)

Jakina denez, erregimen zaharraren garaietan monarkia hispanikoaren inguruneko ekoizle kulturek behin eta berriro euskara hizkuntza barbaroa eta literaturarako gaitasunik gabekoa dela aldarrikatuko dute.

XIX. mendearen atarirako agerikoa zen inguruko hizkuntzei atxikitako literatur tradizioek akademien bitartez lorturiko onura, eta haien parean euskarak zuen desabantaila, euskaldunak eurak jotzen zirela gabezia horren errudun. Hori uste zuen Juan Antonio Mogelek behintzat Jose de Vargas-i 1802an Markinatik bidalitako gutunaren arabera:

En medio de la pasión con que se censura al vascongado, no hay en general gente más desidiosa en cultivar y perfeccionar su idioma, y así es que somos nosotros sus mayores antagonistas, exceptuados algunos pocos sujetos. Nuestra sociedad vascongada ha dormido en este ramo, y así no ha tenido el vascuence una academia ni buenos escritores que le hayan dado cultura particular. Habita como desconocido en los bosques y casas solitarias, y es más que cierto que nuestros rústicos montesinos le saben y hablan maravillosamente y sin las alteraciones que se notan en la gente que debía ser su depósito. Y se puede decir aquí: *Rusticus abnormis, sapiens crassaque Minerva*<sup>1</sup>. (Mogel 1854: 704)

Horazoren aipua *Peru Abarka* luzaro argitaragabearen atarian ageri dena bera da, gaztelaniazko itzulpen eta guzti: «El rústico excelente sabio, y la sabia Minerva muy estúpida» (Mogel 1990: 23). Aipatu berri dugun gutunaren garaikidea izanik, ez da harritzekoa kultura eliteen («la gente culta») kontrako salaketa berriro ere *Peru Abarka* honen sarreran agertzea: «¿En qué otro territorio del mundo se verá que ignoren la lengua patria los que debían exigir academias de ella, y que deban tomar lecciones de elocuencia natural y locuciones delicadas de un salvaje educado en los bosques?» (Mogel 1990: 27). Letratu euskaldunek euskara lantzeko akademiarik sortu ez

<sup>1</sup> Grafía gaurkotuaz aldatu da aipuko testua. Besterik esan ezean, trataera bera emango zaie gaztelaniazko aipu guztiei.

duenez gero, eta batez ere Bizkaian –Gipuzkoan ez bezala– euskara landu duen idazlerik ia ez dagoenez gero, hizkuntzaren erabilera eredugarria liburu bizietan bilatu beharra dago: «en Vizcaya nada se ha cultivado y son rarísimos los que se han dedicado a estudiarlo en los libros vivos, que son las bocas de los rústicos» (Mogel 1990: 48). Beste hizkuntza batzuen erabilera zuzen, garbi eta dotoreak idazleengan bilatu behar badira, eta hortaz horiek izan ohi badira hiztegiak osatzeko iturri nagusiak, euskarari dagokionez alderantzizko jarrera aldarrikatzen du Markinako erretoreak: herri xehearena izango litzateke hizkuntzaren erabilera eredugarria. Ohizko balioak iraulita –karnabalizazioa baliatuta, Bakhtinen hitzez esatearren–, Mogelek ordura arteko hizkuntz eredu prestigiodun eta prestigiogabeen arteko banaketa hankaz gora jarri eta ideia horren gainean oinarritu du lan erabat berri eta original hau.

Akademiarik ezean, izan ziren euskarazko testugintza sustatu zuten beste erakunde batzuk, nahiz eta haien artean euskara ez zen hizkuntza bakarra. Akademietatik hurbilen egon zitekeen erakundea Adiskideen Batzarra zen, akademia literario batenak baino egitasmo zabalago eta sakonagoak bazituen ere. Adiskideen Batzarra, ordea, ez zen Mogelek nahi zukeen Euskararen Akademia: 1802an *Poesia vascongada en varias fábulas* izeneko liburua bidali zien batzarkideei argitara zezaten, baina diruz urri zebiltzala eta, uko egin zien Mogelen eskarirari. Horren ordeztu «socio literato» izendatu zuten (Altzibar 1992: 152). Izendapenak nolabaiteko kapital sinbolikoa zuen, Adiskideen Batzarra ordurako erakunde prestigiotsua baitzen, baina Mogelek kapital ekonomiko hutsa behar zuen bere lana argitaratzeko. Mogelen eskariari uko eginik ere, ezin esan daiteke Batzarkideek ezer egin ez zutenik euskarazko literatura sortzearen alde.

Batzarraren 1765eko estatutuetan IX. artikulua landu daitezkeen ariketa literarioak iragarri zituen. Haien artean historia sakratua, elokuentzia eta gaztelaniazko poesia ageri dira, bai eta euskarazko testugintza ere: «otros se aplicarán a pulir y cultivar la lengua vascongada» (Areta 1976: 16; Lasagabaster 2002: 296). Batzarkideen gaztelaniazko emaitza literarioa oparoa izan zen, Ilustrazioak hobetsiriko generoetan nagusiki: antzerkia, alegigintza eta elokuentzia, helburu didaktikoak lortzeko egokienak zirelakoan, batez ere hasierako urteetan, nahiz eta gero zerbait ahuldu zen nekazaritza, industria



eta ekonomia bezalako egitasmo praktikoagoen mesedetan (Areta 1976: 365-367).

Baina euskarazko letretan lorturiko emaitzak ere gogoangarriak dira. Aipagarrienak ondorengoak izan litezke. Alde batetik Aizpitarteren hiztegi egitasmoa babestu zuten, amaitu gabe eta Larramendiren hiztegiaren menpekoegi gelditu bazen ere (Altuna 2002). Beste batetik, Xabier Altzibarrek bildu eta argitaratu zituen Batzarraren zaintzapeko ikasleen poesia eta elokuentzia ariketen emaitzak (Altzibar 1985). Azkenik, Batzarraren zuzendari Munibek sorturiko lanak daude, behar bada emaitzarik sendo eta iraunkorrenak: bilantzikoak eta *El borracho burlado* opera komikoa.

Bilantzikoen artean 1762ko Gabon egunean Azkoitian kantatzeko *Gabon sariak* daude, Luisa Miserikordiako batek sinatuak. Egungo kritikak ontzat ematen du Munibe estaltzen dela asmatu izen horren pean. *Gabon sariak* eta opera komikoa alderatzen jarrita, Adolfo Arejitak zuhurki iritzi dio hala jokatu zuela Munibek,

agian egilearen gogoan ere genero bata eta bestea guztiz bereziak zirelako. Opera komikoa zaldun baten kondizioari hobeto zihoakion gabon-kanta bat baino, literatura sorkuntza bezala. Publikoa ere ez zuten bat: antzerkia publiko jantziago eta goi mailakoago batentzat pentsatua zegoen: zaldunak edota haien seme eskolariak, elizgizonak. Gabon-kantak liturgiaren aldamenean edo gerizpean aspaldiko tradizioa zuen; nolana ere, herri zehea, edo eliztar zeheak ziren genero horren hartzailak. (Arejita 1999: 110)

Ezberdintasunen gainera, baina, genero bien arteko kidetasunak ere go-goan hartzekoak dira. Lehenengo eta behin, pertsonaia ugariren arteko elkarrizketa gisa egituraturiko genero lirikoa izanik, bilantzikoak bazuen antzekotasunik antzerkiarekin eta bilantziko-idazleek bazuten antzekotasun horren kontzientzia. Bigarrenik, bai bilantzikoetan eta bai opera komikoan Munibek horrenbeste maite zuen musika ezinbesteko osagaia zen. Eta azkenik –eta gure helburuetarako garrantzitsuenik– pertsonaia barragarriak ohizko zituzten bai bilantzikoek eta bai komediek XVII. mendean zehar eta gero ere, eta horien artean *vizcaino* delakoa bere hitz jario trakets estereotipatuarekin.

Literatur konbentzio horren aurrean Muniberen jarduera literarioak etena eta aurriritzien gainditzea dakar argi eta garbi. *Gabon sariak* sortan pertsonaien diskurtsoa zuzena, jatorra eta dotorea da. *El borracho burlado* operan euskara ia kantatzeko pasarteetara mugatuta dago baina hemen ere pertsonaien hizkuntza, gaztelaniaz nahiz euskarazkoa, akatsik gabekoa da, *vizcaino* haietatik ezin aldenduagoa.

Bai Muniberen bilantzikoek eta bai operak ere *vizcaino*-dun lanen oihartzunen bat edo beste ageri dute. Bilantzikoetako Sor Luisa Miserikordiakoa idazle asmatuak nahitaez dakar gogora Mexiko hirian 1685ko Asuntziorako bilantzikoak idatzi zituen Sor Juana Inés de la Cruz hura, zeinak Arantzazuko amari zuzentzen zitzaion *vizcaino* bat txertatu bait zuen beste pertsonaia barragarri batzuen artean. *El borracho burlado*, era berean, Munibek ahaztua omen zuen opera batean oinarritu zen, Poinset letragile eta Philidor musikagilearen *Sancho Panza dans son île* izenekoan (Urkizu 2000: 288). Ezina zatekeen ahaztea *Don Quijote* nobela ospetsuaren bigarren partean *vizcaino* bat zela Santxoren idazkari Barataria uhartean. Euskaldun horren hizkera zuzena bada ere, berez zetorren lehen parteko beste *vizcaino* harekiko lotura.

Gustu ona irizpide estetiko gorentzat zuen norbaitengan espero zitekeenez, Munibek uko egin dio eredu iraingarri eta gehiegikeriazale horri bere lanotan. Hausnarketa metaliterarioak ezinbestekoak badira akademia eta antzeko erakundeetako kideen artean, Munibe ez da salbuespena. Natura ederraren imitazioa arauen arautzat eta gustu onaren irizpide nagusitzat harturik, zera aholkatzen die entzuleei «Del buen gusto en la literatura» hitzaldi akademikoan: «Imitad, pues, a la *Bella Naturaleza*. Fijad vuestra atención en ella, ocultad con arte sus faltas, pulid sus imperfecciones, superadla sin desfigurarla y lograréis seguramente el agradar a todos, que es la prueba más evidente del buen gusto.» (Areta 1976: 403). Gustu onak eskatzen zuenari Munibek bere herriari eta hizkuntzari zion begirunea gehituko zitzaiokeen iraganeko estereotipoak baztertu eta euskararen erabilera zuzen, txukun eta dotorea hobestean. Ongi sinbolikoen ekoizpenean ez da urrats txikia.

Batzarkideen lorpenak gogoangarriak izanik ere, XVIII. mendeko euskal literaturaren emaitzarik oparoena beste erakunde batzuei atxikitakoa da,

Elizari batez ere. Baina Mogelek Elizan ere ez zukeen aurkituko amesturiko euskal akademiaren aztarnarik, alde batetik letra ederren ekoizpena zeharka baizik ez zegoelako haren helburuen artean hizkuntzaren bitarteko persuasioa beharrezkoa zen heinean kristauen arimaren salbaziorako, eta bestetik bitarteko hizkuntza hori euskara izan zedin berariazko kezkarik ez zuelako erakutsi historikoki. Erreformaren astinaldiak eta batez ere Trentoko kontzilioan hartutako erabakiek soilik bultzatuko zuten Erromako Eliza erlijioaren egiak euskaldunei euren hizkuntzan zuzentzen. Eta orduan ere, Euskal Herri penintsularrari gagozkiola, gaztelania idatzizko herri-hizkuntza bakarra zen, euskara dotrinaren itzulpenetara eta ahozko jardunetara txokoratuta zegoen bitartean (Intxausti 2004: 852).

Kalahorra eta Iruñeako elizbarrutietan euskarazko sermoigintza hedatua zen XVII. mendean zehar. Donostian, esate baterako, jesuitek Garizumako igandeetan predikatzen zuten euskaraz eta horrenbesteko arrakasta lortu zuten ezen San Telmoko dominikoek ere euskarazko sermoigintzari ekin zioten 1637tik aurrera (Otazu eta Diaz de Durana 2008: 533). Baina euskarazko sermoigintzaren hedapen hori bera, bere horretan aurrerapena izanik ere, hobebeharrezkoa zen batez ere hizkuntz zuzentusan eta dotoretasunari zegokionez. Larramendiren *Arte*-ko hitzaurreak egoera hori konpontzea duela helburuetariko bat aitortzen du:

se ignoran sus [euskararen] primores, frases, construcción varia y oportuna, o hay muy cortas noticias de esto. De donde nace que comúnmente no se predica con la elocuencia y eficacia de que es capaz la lengua, que son pocos los que se aplican a este ministerio, que otros se amedrentan con la dificultad, que no se explica como se debiera la Doctrina Cristiana, que no hay libros que sirvan para estos importantes ministerios, que nadie se atreve a traducirlos de otra lengua. Pero habiendo ya *Arte* con método y reglas fijas, y luego Diccionario [...] podrán fácilmente los predicadores, misioneros, señores curas y otros celosos del bien de las almas cumplir con sus obligaciones. (Larramendi 1729: z.g., «Prólogo»)

Hortaz, Larramendiren diagnostikoaren arabera hizkuntz trebakuntza zen egoerak behar zuena, baina ez Elizak ez beste erakundek eskaintzen zuen horrelakorik. Akademiek bideratzen zituzten kezketako batzuei erantzuna

ematera zetorren Larramendi eta haiek egiten zuten lana egitera, hutsune bat betetzera. Trentoko erabakien artean elizbarruti seminarioak sortzea ere bazen, baina gurera ez ziren berandu arte heldu: Iruñean jesuitek utzitako ikastetxean jarri zuten lehena eta Kalahorran XIX. mendera arte itxaron behar izan zen. Hutsune hori ordenetako erlijiosoen erakundeek bete zuten, batez ere bik, jesuitek eta frantziskotarrek. Itxura guztien arabera, horiek izan ziren sermoigintzaren gorakada nabarmena eragin zutenak, batez ere euren zereginen artean ziren misio-kanpainei esker. Misioetako jarduera iraunkorra beste ordenetako elizgizonentzat eta elizbarrutiko apaizentzat eredugarria gertatu zen. Eta misioetarako trebakuntzak euskarazko idazmenari Euskal Herri penintsularrean ordura arte inoiz ezagutu gabeko bultzada eman zion. Horixe izan zen euskal idazleen haztegia mugatik honako aldean. Idazleek, gainera, irakurleak behar dituzte. Misiolariek hala eskatuta, misio entzuleek irakurtzen ikasteari ekiten zioten liburu «onei» probetxua ateratzeko asmoz, Añibarrok *Eskuliburuaren* sarreran dioenez (Villasante 1974: 282). Ez da, beraz, harritzekoa euskal literaturaren alorrak erlijioaren alorri zor izan dion heteronomia, alor horretantxe sortu baitzen.

XVII. mendean zehar ohizkoa zen misioak jesuiten esku uztea (Otazu eta Diaz de Durana 2008: 533). Behar bada horrexegatik izan ziren jesuitak sermoigintzarako hizkuntza baliabideen gabeziak eta premiak larrien nozitu zituztenak, Larramendiren aipuak aditzera ematen duenez. Izan ere, jesuiten arteko prestakuntza intelektuala sendoa zen, baina irakaskuntzan gaztelania eta latina erabiltzen zituzten, eta horiexek dira hain zuzen «academia» izeneko ekitaldi literarioetan erabilitako hizkuntzak. Ekitaldi horiek Euskal Herriko ikastetxe guztietan antolatzen ziren gramatika eta humanitate ikasleen literatur trebetasunak landu eta jendaurrean erakusteko (Malaxechevarria 1926: 257-274). Ikastetxeotako gramatika eta humanitate irakasleen artean idazle jesuita euskaldun apagarrienen izenak ageri dira: Kardaberaz, Mendiburu, Basterretxea eta Meagher (Malaxechevarria 1926: 275-305). Lehenengo ikasle eta gero irakasle gisa landutako literatur trebetasun horiek euskaraz erabiltzen jakin zuten. Horien guztien aintzindari eta eredu Larramendi izan zen.

Asko eta ondo idatzi da Larramendik euskal kulturari egindako ekarpenaz, ez gara horretan luzatuko. Gaitasun intelektual gorenekoa izanik, La-

rramendik bere gain hartu zuen euskeraren gramatika deskribitza eta arau-tzea, ordura arte ezina zirudiena. Ondoren *Hiztegi hirukoitza* etorriko zen. Lan horiekin ordura arte apologistek teorian soilik aldarrikatu zutena frogatu ahal izan zuen: euskara gramatika arauetara makur zitekeela, *ars* baten eskazizunei erantzuteko gai zela, latina eta gaztelania bezala, eta ez zela beraz araugabeko hizkuntza basatia, barbaroa. Sermoigileei tresna erabilgarria eskaintzeko helburuarekin batera beste bat aitortu zuen zeharretara bezala: «El impulso que me hizo empeñar en estudio tan espinoso no fue sola la pasión de ennoblecer e ilustrar nuestra lengua, y por este lado acreditar a la patria [...]» (Larramendi 1729: z.g., «Prólogo»). Alegia, ez hori soilik, baina hori ere bai.

Horrekin batera euskaraz poesiari bazela erakutsi zuen Euskal Herria poetarik gabeko herria zela zioen topikoa gezurtatuz. *Artea*-ren «Apendiz de la poesia vascongada» izenburuko seigarren atalean «De la poesía que está en uso» azpiatala ageri da. Bertan XVII. mendeko idazle pare baten lantxatalak aipatzen eta aztertzen ditu: Ziburuko Etxeberriren *Noelak* eta *Manual debozioxekoa* eta Haranbururen *Debozino eskuarra*, denak argitaratuak eta beraz euskal poesiaren existentziaren lekuko errefutaezinak. Etxeberriren berri ematean diskurtso legitimatzailea darabil, poeta konsagratua dela adierazteko: «El doctísimo Juan de Echeberri, Doctor Teólogo, que tuvo Numen particular para componer en verso vascongado, como se reconoce [haren lan bietan]» (Larramendi 1729: 374).

Poesiari buruzko atalak deskriptiboa ez ezik prezeptiboa ere izateko asmoa duela bigarren azpiatalak, «De la poesia de que es capaz el vascuence» tituludunak, erakusten du. Gaztelaniazko bertsomoldeak euskaraz ere erabil daitezkeela frogatu nahi da. Horretarako euskarazko izen berariazkoak proposatzen ditu gaztelaniazko bertsomolde jakinen ordainean: «en vascuence tienen sus correspondientes propios sin rodeos y conforme al significado de esos nombres del romance y aun con alguna más propiedad» (Larramendi 1729: 382). Andoaingo jesuitak asmatu baliokidetzaren horietako batzuek aurkitu zuten harrerarik, Kardaberaz poemetan esate baterako (Altuna 2000: 25-26). Hiztegi hirukoitzean eskainiriko lexiko poetikoaren aztarnarik ere bada garaiko idazleen artean: Munibek *otsaldiak* (kantak) eta *egokikilde* (metafora) dakartza (Arejita 1999: 118). Gamizen

poemetan ere aurkitu dira *Arte* eta *Hiztegi* hirukoitzaren oihartzunak (Goikoetxea 1980: 206).

Larramendiren lan biok ezinbesteko erreferente bilakatu ziren garaiko euskal idazleen artean. Haiei esker euskal letrak lantzen zituztenek izan zuten nora jo irizpide bila. Inguruko herrialdeetan akademiei zegozkien zereginetatik ugari Larramendik bere bizkar gainean jarri zituen. Jesuitaren diskurtsoak ez du kontraesanik falta, edo behar bada heldutasunerako bilakabidea bizi izan zuela esatea zuzenagoa litzateke. Gazteagoa zela, oraindik Salamankako irakasle, diskurtso apologetikoaren eskakizun soiletan bete betean murgilduta eta euskarari egindako irainak erantzun beharraren erantzun beharraz, bere hizkuntza kutunak ingurukoei zertan egiten zien gehiago erakusten jarrita, akademien gaiari heldu zion. Beste hizkuntzek akademiak behar zituzten arauekin batera salbuespenak ere ugari zituztelako, akastunak zirelako beraz. Haien aldean euskara akasgabea zen, salbuespenik gabeko arauduna, perfektua beraz, akademiarik behar ez zuena: «Pues, [¿]qué mayor gusto para los vascongados que el ver que sin academias, sin asambleas y de primera mano sale el vascuence tan primoroso, tan arreglado, tan en solfa de declinaciones, conjunciones, sintaxis con sus ocho partes, prosodia con sus acentos, y esos especiales?» (Larramendi 1728: 8).

Eta hala ere, geroan onartu egin behar izan zuen hizkuntzarik perfektuenaren jabe izanik ere erabiltzaileek akatsak egiten zituztela. Izan ere, Larramendiren bizitzako egitekorik funtsezkoenatariko bat akademiek egiten zutena egitea izan zen: gramatika eta hiztegia osatzea; beste idazleei (euskaraz berak baino gehiago idazten zutenei ere) iritzi eta epaiak eskaintzea; berak zuen prestigioaren bitartez idazle horiek konsagratzea. Halaxe egin zuen Mendiburu eta Kardaberazekin. Berari zor zaio ere EuskalERRI kontinentalean argitaraturiko liburu zenbait mugaz hona aurkeztea, haien bertute elokutiboen epai kritiko eta guzti. Izan ere, epai horrek euskal letren kanonaren oinarriak ezarri zituen, bai eta Axularri kanon horren erdigune posizioa eskaini ere, geroak aitortu bezala, Sarako erretoreak bete betean asmatu zuelako *elocutio* nahiz *inventio* eremuen eskakizunetan Larramendiren ustez: «El vascuence [*Gerorena*] es elegante, propio, puro, abundantísimo; el asunto, tratado por principios, probado por la Sagrada Escritura, Padres de la Iglesia, ejemplos y semejanzas muy oportunas; los vicios, pin-

tados al natural; y convenientísimos sus remedios. Anda en manos de muchos, y debiera en las de todos los vascongados» (Larramendi 1745 1: XXXV). Axularren kanonizazio prozesua Añibarrok berretsi zuen haren lana bizkaieratzean eredu bihurtu zuenean, bai eta Ubillosek ere, hein batean behintzat, *Gerotiko* zenbait pasarte bereganatu zituelarik.

Iritzi kritiko horiek eskaini zituenerako helduagoa izanik eta eskarmen-tuak emandako ikuspegi errealistagoarekin, Hiztegi hirukoitzaren sarreran bere egitekoaren zailtasunak aitortu zituen Larramendik:

Para que la lengua castellana tenga un diccionario digno de sí misma y de su majestad y grandeza ha sido necesario que toda una Real Academia Española haya empleado sus luces y cuidados en esta empresa. Y para entender lo arduo y trabajoso del empeño no hay más que leer su Historia, especialmente el principio del tomo 6. [...] [¿]Y qué dirán a esto los que tienen o tendrán por fácil empeño el hacer un diccionario del vascuence? [...] Y si con socorro de otros diccionarios, que tienen abierto el camino, con tantos libros impresos, tantos manuscritos, tantas escuelas de leer y escribir en romance, sin prohibiciones de hablarle, no es pequeño triunfo disponer su diccionario entre tantos hábiles y eruditísimos hombres, [¿] qué será disponer un diccionario del vascuence por un solo, y ése destituido de aquellos socorros, alivios y conveniencias? (Larramendi 1745 1: LI-LIV)

Kosta ahala kosta, Andoaindarrak bere burua legitimatua ikusten zuen egiteko «akademiko» hori bere bizkar gainean hartzeko. Salamankan irakasle edo sermoilari ospetsu eta erregina alarguntsaren konfessore izanak baino legitimazio handiagoa ematen zion, bere ustez, Monarkia Hispanikoaren lurraldeetan eta atzerrian lorturiko onespentak, batez ere Frantziako jesuitek argitaratzen zuten *Mémoires de Trevoux* aldizkarian jaso zuen harrera onak, *Journal des Savants* ospetsuaren parekoa baitzen argitalpena (Larramendi 1973: 26-28; Tellechea 1985). Bere burua legitimatuta sentitzeko arrazoirik ez zuen falta, Espainian inor gutxik lortu zuena berak lortu bait zuen, alegia *Mémoires de Trevoux* prestigiotsuak Hiztegi Hirukoitzaren merituek azpimarratzen zituen kritika bat argitara zezala. 1741ko *Diario de los literatos de España* aldizkariaren zazpigarren liburukian aitortzen denez, ordura arte

Frantziako argitalpen entzutetsu horiek liburu espainiarren berri emateari uko egin zioten: «habiéndose remitido algunas memorias de los Libros de España, no quisieron los Padres de *Trevoux* publicar en su *Jornal* sino el título de algunos; porque su instituto era informar a la Europa de los adelantamientos en las Artes y Ciencias, y *no habiendo novedad considerable en los libros que se imprimen en España, no han querido hacer memoria de ellos*» (ikus Gunia 2008: 80).<sup>2</sup> Testuinguru horren argitan Larramendiren lorpena are aipagarriagoa begitantzen zaigu.

Andoaindarrak bere lan «akademikoaren» emaitzak gozatu ahal izan ziotuen. Sermoigintzan lorturiko hobekuntza nabarmenak poztu zuen guztia-  
ren gainetik. Jesuitakideen arteko giroak goibeltzen zuen soilik. Haien artean jarraitzaile zintzo baina urriak omen zeuzkan. Eta etsaiak ere bai: konpainiakideren batek salatu ere egin zuen Loiola inguruko baserritarrekin solasean jardutea komeni baino gogokoago zuelakoan (Larramendi 1973: 29). Berak hasitako lanaren fruituak ikusteko aukera pozgarria izan zuen, baina zeregin horren jarraitzaileak Jesusen Konpainiatik at ikusten zituen:

A lo menos están viendo que después acá se predica la palabra de Dios con fruto, limpieza y decencia, y es lo que no había antes. Ven que ya se habla, se escribe, se imprime en vascuence, y que de esto se me dan a mí las gracias por los instruidos vascongados, franceses y no franceses; y sólo entre jesuitas no encuentro uno de estos agradecidos. Y es el chiste, que predicán mejor con exceso los Misioneros de Zarauz y frailes de otras Ordenes y clérigos, que estos murmuradores jesuitas, que por lo común son haraganes, no saben escribir ni aun leer su vascuence, y piensan, y aun dicen entres sus semejantes dentro y fuera, que saben la lengua mejor que el que la inventó. No basta ciertamente una paciencia ordinaria para agoantarlos. (Larramendi 1973: 28-29)<sup>3</sup>

1767an jesuitak Monarkia Hispanikoaren lurraldeetatik iraitzi zituztenerako hila zen, baina ez beraren itzalpean ernetako idazle jesuita garrantzitsuenak, Kardaberaz eta Mendiburu, nahiz eta biak adinekoak ziren. Jesui-

<sup>2</sup> Guniak bilduriko aipu honetako letra etzana jatorrizko argitalpenari dagokio.

<sup>3</sup> Tellechea Idigoras editoreak jaso bezala aldatu da.



ten artean euskara lantzeko oraindik aukerarik izatekotan –eta badago arrazoirik pentsatzeko bazela, Larramendik nahi zituzkeen adina ez baziren ere– aukera bat batean irazpenak zapuztu zuen.

Dena den, Andoaingoaren ekimenak apaizen eta beste ordenetako fraideen artean bizirik iraun zuen. Horiek guztietatik gunerik indartsuena frantziskotarrek Zarauzko misiolarien ikastetxean sorturikoa izan zen. Hauek ere Euskal Herriko misio jardunetan buru belarri sartuta, giro egokia sortu zen euskarazko testugintzarako: «La necesidad de cumplir su deber de predicar al pueblo vascongado y de hacerlo a fondo y con gran extensión, les impulsó al estudio reflejo del mismo idioma, llegando algunos a destacar, ya sea como escritores, ya como tratadistas, gramáticos, etc.» (Villasante 1974: 282). Gorago esan bezala, Larramendik erabateko onespina eskaini zien frantziskotarrei haien sermoigintzan bertute elokutiboen gauzatzea antzematen baitzuen, *Corografía de Guipuzcoa* beranduegi argitaratuan zioenez:

Ya es tiempo de hacer la excepción que tengo ofrecida. No se puede dudar que, de pocos años a esta parte, se predica en vascuence menos mal que antes, y que hay predicadores que en sermones morales predicán absolutamente bien y con limpieza, y con gusto y fruto de los oyentes. Así por lo común los misioneros en sus sermones, y con especialidad los franciscanos misioneros de Zarauz que, a su mucha virtud y observancia, y al celo de las almas, han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vascuence claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el carácter y sintaxis de la lengua, y desmienten con su práctica las quejas mal fundadas de los vascongados holgazanes. (Larramendi 1982: 291).

Larramendiren eskutik frantziskotarrak laster jarri ziren konsagrazio bidean, alde batetik Andoaingo jesuitaren eta honen jarraitzaileen eredia baliatuta, eta beste batetik Larramendiren beraren onspina lortuta. Hala ere, hark jesuitakide zenbaitekin bezala, hauek ere liskarrak izan zituzten, lehenengo eta behin ordenarekin berarekin, seminario-ikastetxea bere baitan onartzeko komentu bat bera ere ez zegoelako prest Kantabriako Probinzian zeudenen artean, harik eta Mateo de Aranburuk Zarauzkoa, «el convento más miserable y famélico de la Provincia», eskuratu zien arte (Villasante 1974: 292).

Oraindik deigarriagoak dira Iruñea eta Kalahorrako apezpikuek jarritako oztopoak, euren kontrolpean ez zeudela iritzita, itxura guztien arabera. Apezpikuoien norbaitek jakinarazi zien «que los misioneros de Zarauz enseñaban a pecar por la demasiada claridad con que se explicaban en sus doctrinas» (Villasante 1974: 305). *Perspicuitas* edo argitasuna, mendebaldeko tradizioan bertute elokutio goren eta Larramendik Zarauzko praileei zien estimurako arrazoirik sendoena, kaltegarria zen nonbait euskaraz eginez gero. Balizko arrisku hori zegoen euren lurraldeetan gertaturikoaren berri urrunetik baino ez zuten apezpikuen iritziz, behar baino gutxiagotan bisitatzen zituztelako lurralde euskaldunok, Larramendik *Corografia* isilarazian salatu zuenez (Larramendi 1982: 124-125). Kalahorrakoak, Bizkaian zela bisitaldi urri horietako batean, Zarauzko misiolarien lana ikusi eta berehala utzi zituen bertan behera ordura arteko mesfidantzak (Villasante 1974: 305).

Euskarazko testugintzan frantziskotarrek lorturiko uzta Villasantek azaldu du (Villasante 1974 eta 1979). Eurei egokitu zitzaien XVIII. mendeko lorpenei iraupena ziurtatzea XIX.ean ere. Frantziskotarrek sermoigintzan egindako lan ikaragarriaren lekuko aparta da *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)* oraintsu argitaraturiko liburua (Etxebarria 2005). Esku artean dugun muga kronologikoak gainditzen baditu ere, bertan bilduriko sermoigile asko eta asko XVIII.ekoak eta XIX. mende hasierakoak dira. Eta haien artean sermoigintza hutsetik haragoko eremuetan barneraturiko idazle frantziskotarrak ere ageri dira: Ubillos, Añibarro eta Zabala, besteak beste. Gainera, katalogoan bildutakoak baino gehiago ere izango zirela pentsatzeko arrazoi sendorik bada: Bilboko komentua karlistadetan erretzean betiko desagertuak esate baterako, edota Bizente Sarria bezala Ameriketako misioetara bidalitako frantziskotarrenak (Etxebarria eta Apraiz 2009). Azken honen sermoien eskuizkribuak egun Kaliforniako Unibertsitatearen Berkeleyko bibliotekan eta Kaliforniako estatuak Sacramenton duen liburutegian gorde dira.

Akademien giroak konformismo politiko eta erlijiosorako joera zuela azpimarratu izan da. Zaletasun libertinoak zituztenek ere, isilpean garatzen zituzten euren kritikak, baina agerian botere politikoari erabateko errespetua erakusten zioten eta Elizarekiko liskarrak sahiesten zituzten. Izan ere,

akademiak idazleen eta boteredunen topaleku ziren, heteronomiarako gune aproposak hortaz, nahiz eta beste alde batzuetatik literaturaren autonomia-rako lehen urratsetarako aukera ere eskaini zuten (Viala 1985: 46-50). Akademiarik ezean, ulergarria da XVIII. mendean hasitako euskal literaturara, nagusiki eliz erakundeetatik bideraturikoa eta euskaldunen erlijio premiei begira sorturikoa izanik, kutsu kontserbadore eta elizazaleaz sortu izana. Euskal letrei hasiera eman zietenen kezka nagusia euskaldunen arima-osasuna zela ikusita, euskarak letren mundurako sarrera horien esku-tik egin bazuen, ezinbestean «euskaldun fededun» joera ideologikoak orduko euskal literaturan euskarri sendoenetariko bat izan behar zuen (Altu-na 2003: 135-157).

## 2. Mezenasgoaren ahultasuna

Idazleak babesteko era nagusi bi bereizi izan dira erregimen zaharrean: klientelismoa eta mezenasgoa. Klientelismoak zerbitzuaren logikari erantzuten dio: bezeroaren lanaren truke, jaunak ogibidea ematen dio bezeroari edo laguntza eskaintzen dio estatu-burokrazioako karguak edota Elizako benefizio eta sinekurak lortzeko. Mesenezgoan, ostera, jaunak artistari laguntza eskaintzen dio honek bere egitasmo artistikoa garatu dezan. Mezenasak eta artistak elkarren balio aitortzen dute («logique de la reconnaissance mutuelle»). Beti ez da erraza aukera bien artean bereiztea, ostera (Viala 1985: 52-54).

XVII. mendean, Frantziari dagokionez, estatu mezenasgoa eraikita, monarkiak zenbait idazle hautatu babesteari ekin zion (Viala 1985: 69-84). Mugaz honako Borboiek ere modu beretsuan jokatu zuten. Idazleen laguntza bilatzen zen propagandarako, helburu politikoetarako, iritzi publikoa gobernuaren alde bideratzeko, eta beti ere gatzelaniaz, hizkuntza monarkia-  
ren beraren iruditzat jotzen baitzen, bai eta zentralizazio eta kohesio tresna-tzat ere (Alvarez Barrientos 2007). Horrexegatik hain zuzen ere monarkia-  
ren gobernuak babesturiko idazleen artean nekez aurkituko da euskaraz idazten zuenik. Iraitziriko jesuiten artean gobernu pentsioak banatzen hasi zenean ere euskal idazlerik ez zen izan onuradunen artean, ez eta Terreros

bera ere. Kardaberazek eta Mendiburuk idazteari utzi zioten arren atzerriko urteetan, Aita Meagherrek gogoz ekin zion poesiari, baina honen idazkiak galdutzat jotzen dira (Astorgano 2009: 273-274). Itxura guztien arabera, euskal literaturarako ez zen estatu mesenazgorik izan. Gehienez ere, Aizpitarrek hiztegi bat egiteko laguntza izan zukeen, Campomanesek egitasmoa babestu baitzuen Muniberi idatziriko gutunean adierazi zuenez (Echenique 1985). Laster itzuliko gara Aizpitarteren hiztegiara.

Handikiak ere izan ohi ziren mezenas garai honetarako, monarkia bera baino lehenagotik. Izan ere, letren eremuan murgiltzea distintzio zeinutzat zuten, nahiz eta jarrera hori handiki euskaldunen artean berrituz jotzen zuten zaldunek eurek. Hala aitortzen da Adiskideen Batzarraren lana laudatuz idatziriko gutun batean (*Carta incompleta alabando los trabajos realizados por la R.S.B. al campo literario*):

[...] los aplausos que derraman a la Sociedad [...] también las naciones extranjeras, observando que la tierna juventud ha hallado en la Sociedad Bascongada las oportunidades más ventajosas para conseguir una educación culta civil y urbana, una instrucción verdadera, piadosa y libre de inveteradas preocupaciones, y lo que es principal, que la nobleza ilustre desembarazada de las ideas siniestras con que miraba en otro tiempo a las letras contemplando la aplicación a ellas como una profesión baja e indigna de la superioridad de su nacimiento, ahora se ocupa tan gustosamente en las especulaciones científicas y estudio de las facultades más selectas. (Ikus Altzibar 1985: 1132)

Adiskideen Batzarrak bultzaturiko egitasmu ugarien artean Aizpitarteren euskal hiztegia ageri zen baina ez dago horren argi euskal idazlerik babestu ote zuen. 1802an Mogelek alegia bilduma (*Ensayo de poesía vascongada*) aurkeztu zien argitara zezaten baina dirurik ez zutela erantzun zioten adizkideek, eta horren ordez «socio literato» izendatu zuten (Altzibar 1992: 152).

Adiskideen Batzarraren lehen zuzendariak, ordea, ez zuen beraren erakunde kutuna soilik babestu. Ubillosek Kantabriako probintzia frantziskotarraren ongile gisa ere aipatzen du. Munibe mezenastzat aitortu zuen Mogel gazteak ere Calatayuden ikasle zela Bartolome Pou irakasle jesuitaren *Institutionum historiae philosophicae lib[ri]*. XII (1763) filosofia testuli-

buruaren ale batzuei egindako eskaintza-sarreran, Peñafloidaren laguntzaz egingo zituzkeelako ikasketak jesuiten artean, Villasanteren ustez. Mezenasgokoa baino, klientelismo itxurakoa da Mogel eta Muniberen arteko harremana. Izan ere, 1764an Xemeingo Andra Mari elizako kapilautza baterako izendapena eskuratu zuen, hain zuzen ere Peñafloida patroiz zuen kapilautzakoa (Altzibar 1992: 122-123). Elkarrengandik urrundu ere egin ziren lasterrera, Muniberen semearen hileta elizkizunak ordaindu ez eta Peñafloidakoak patroiz zereginak behar bezala ez zituela bete iritzita agian, Mogelek bere kexua erakutsi zuenean heriotz-agirian. Dena den, Xemeingo erretoreak Munibetarren babespeko izateari ez zion utzi, ez eta Adiskideen Batzarraren laguntza lortzeko ahaleginak egiteari ere, ikusi berri dugunez. Xemeingo erretore izateagatik zegozkion benefizioak ez ziratekeen nahikoak liburuen argitalpenak bere patrikatik ordaintzeko, ez eta oparotasunean bizitzeko ere, txiro hil izanak erakusten duenez (Altzibar 1992: 146). Euskaraz idaztetik bizi ahal izateko garaia urrun zen, nahiz eta saldutako liburuen kopuruari dagokionez arrakasta ezagutu zuenik izan zen. Hala gertatu zitzaion Juan Antonio Mogeli berari, baina ez bere idazkintza trebetasunetik bizi ahal izateko neurrian. Mogelen kasuak zera erakusten du: alde batetik bere idazkeratik bizi daitekeen idazle ogibidea ez dela sortu oraindik; bestetik, mezenasgoaren ordezkari klientelismoa izan zela euskal letreren eremuan ezagutu zena, eta babesa mugatua izan zela, inondik eta inora ere idazteari soilik edo nagusiki ekiteko adinakoa.

Muniberen bezeroen artean Pablo P. Astarloa ere izan zen, honek ere haren patroitzapeko kapilautza batez gozatzen baitzuen. Astarloak laudoriozko poema bat eskaini zion Peñafloida edo *Achloratuba*-ri, euskaldunen «seme ta guraso» zelakoan, euskararen alde egindako lanagatik: «onec deuscu Eusquera / Auspastuba jaso» (Altzibar 1992: 213-215 eta 227-228).

Frantziskotarren artean bizi zen egoera ez dirudi apaiz laikoena baino oparagoa zenik. Añibarrok Zarauzko seminario-ikastetxean zituzten zor eta estutasunen berri utzi zigun. Bizkaira 1792an egindako bisitaldian misolariek burutzen zuten lan bikaina ikusi ondoren soilik agertu zen eskuabal Kalahorrako apezpikua (Villasante 1974: 293 eta 305). Gainera, argitalpen kostuek Mogeli emadako buruko min beretsuak Añibarrok eta frai Bartolomek ere ezagutu zituzten (Altzibar 1992: 155).

Monarkiaren gobernuak berariazkoztat zeukan hizkuntza bakarra sustatzen zuen bitartean –bai eta beste hizkuntzen erabilera eragotzi ere, zentsurari eskainitako atalean ikusiko dugunez–, foru erakundeen jarduna ez zen oso bestelakoa. Jesuitei dagokienez, Larramendik behintzat Hiztegi hirukoitza erraldoiaren kostua Gipuzkoako Biltzarrek euren gain hartu izana ikusteko atsegina izan zuen, eskaintzan aitortu bezala: «espero [...] que su [Gipuzkoaren] delicado gusto no echará menos aquellos elogios con que suelen las dedicatorias lisonjear a sus Mecenas; pues de las heroicas cualidades de V[uestra]. S[eñoría]. ya se sabe que es panegirista todo el orbe» (Larramendi 1745 1: z.g., Eskaintza). Foru erakundeek hiztegi hau hegabetu izana aipagarria da, are gehiago ikusirik ez zela bat ere ohizkoa halako lanak babestea, hain gutxi euskarazkoak.<sup>4</sup> Gai jurikikoak eta historiko-politikoak jorratzen zituztenak babestu edota sorrazazi ohi zituzten, gaztelaniaz idatziak hain zuzen, Fontecha y Salazarrena bezalakoak, foruak defenditzearen egindakoa monarkiaren jarrera gero eta zentralistagoaren aurrean, baina horiekin batera euskaldunek erregeari zioten leialtasuna gorapaitzen zutenak ere bai. Hala, esate baterako, Joaquín de Abendaño idatziriko *Oración fúnebre que consagró a la memoria de D. Carlos III, Rey de España, el M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya* (Azurmendi 1985: 384 eta 380 hurrenez hurren).

Artean monarkiaren beraren hizkuntzaren eta egitasmoen aldeko idazlaren sorrera bultzatzen zuen Madrileko gobernuak. Carlos III.ak idazleak hegabetu zituen bere politikaren aldeko iritzi publikoa sortu zezaten, jesuitak iraitzearen aldekoa esate baterako (Alvarez Barrientos 2007: 107-108). Jesuitak atzerrira bidali ondoren soilik etorri zen ziur asko monarkia hispanikoaren gobernuak euskararen alde zuzenduriko egitasmo bakarra, ares-tian aipaturiko Aizpitarteren hiztegia. Itxura guztien arabera, Campomanesek berariazko kezka edo jakinmina zuen Espainiako hizkuntza zaharretaz eta etimologiaz. 1773an Campomanesek Adiskideen Batzarreko zuzendari Muniberi gutun bat bidali zion hiztegia egiteko aholkuak eskainiz. Beraren babespeko ekimena legitimatzeko asmoz Larramendirena kritikatu eta auzitan jarri beharra zegoen, beste hiztegi baten zergatia ez baitzen bestela erraz azalduko. Horretarako Hiztegi hirukoitzari aurkitu zizkion gabeziak agerian

---

<sup>4</sup> Larramendiren hiztegia «Gipuzkoako Probintziaren bizkar inprimatua» izan zela eta, Mitxelena 1745. urteari «egiazko *annus mirabilis*» iritzio zion (Mitxelena 1988c: 364).

utzi zituen: «El Diccionario [trilingüe] del Regular Manuel de Larramendi ha sido de corto uso: así porque empieza con las palabras españolas, y sólo puede servir a los que desean aprender el vascuence, que son pocos; como porque introdujo muchas etimologías forzadas y violentas, guiado por el mero sonido teniendo otras raíces más ciertas» (Echenique 1985: 1094).

Campomanesen epaia ez zela erabat zuzena izan historiak erakutsi du, berak onartu baino gehiago erabili bait zuten euskal idazleek –Munibek berak besteak beste–. Aizpitarterena, ostera, erdizka<sup>5</sup> eta Larramendirenaren eraginpetik askatu ezinda gelditu zen, Mitxelena eta Altunak erakutsi bezala. Paradoxikoki, Aizpitarteren hiztegiaren eskuizkribua luzaro ahaztua egon ondoren Aita Arana jesuitak eskuratzea lortu zuen XIX. mende amaieran eta harrezkero Loiolako artxiboan zaindu da (Altuna 2002: 301). Paradoxikoki ere, Larramendiren hiztegi inprimatuaren ale mordoa, Campomanesek «de corto uso» irizitakoa, Loiolako sotoan gelditu zen izkutaturik jesuitak iraitzi zituztenean, nazio arteko adituak esku artean izateko irrikitan eta ondo ordaintzeko prest zeuden bitartean, Hervasen lekukotzaren arabera. Loiolako sotoan bertan behera utzitako ale horiek jesuitek euskaraz argitaraturiko beste liburu batzuekin batera saldu egin zituzten premonstratenseak Loiolara heldu zirenean ikastetxeak 1793an jasandako kalteen konponketa ordaintzeko (Astorgano 2009: 103).

Estatu mezenasgoa mugatua izanik ere, oraindik XIX. mendearen hasieran Mogelek Campomanesen ekimena ahaztu ez eta Vargas Ponceri gogora dakarkio: «Campomanes decía lo mismo que Vdm., que el idioma vacuence podía ser útil para la inteligencia de la historia y geografía de España, y deseaba su cultura y que se formase un buen diccionario» (Mogel 1854: 703). Mogelek berak kezka beretsuak zituela bere gaztelaniazko lanek erakusten dute, batez ere *La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma vascuence* izenekoak. Dena den, kezka kidetasun hori bezain garrantzitsua da Mogelen honako eskaria, Vargas Ponceri gutun berean zuzendua: «Después de acabada esta correspondencia, sería conducente que Vmd. se tomase la molestia de organizar el trabajo, mejorar el estilo, borrar todo lo que no le

<sup>5</sup> Hala zegoen Aizpitarre 1809an hil zenean. Mogel itxaropentsu ageri da 1800. urte inguruko *Cris-taubaren icasbidea* lanari egindako hitzaurrean Adiskideen Batzarrek hiztegi bat argitaratzeko asmoa duela eta, horrekin «confundir a estos enemigos de su País» lortuko duelakoan (Altzibar 1986: 30).

cuadre, y si lo contemplase de utilidad pública, hacer que algún impresor lo tome a su cuenta. Yo no busco ganancia alguna, sino la de servir a la patria» (Mogel 1854: 713). Vargas Ponceri zuzenduriko eskariaren onuradunak gai beretsuari buruz Mogelek idatziriko disertazio biak dira: *Disertación histórico-geográfica sobre los iberos y los sicanos que entraron en Italia [...]* eta *Disertación breve, particular y topográfica de la ciudad Urbe, o Roma*. Mogelen hitzak zuzen aditu baditugu, oraingoan gaztelaniaz idatzitako lan biontzat estatua- ren mezenasgoa lortu diezaziola eskatzen ari zaio Vargas Ponceri, jakinik seguru asko Vargas Ponce bera historia-akademiakoa dela eta Godoyren babespean eta aginduz etorria dela Gipuzkoara.

Vargas Ponce idazluma gobernuaren zerbitzura jarri ohi zuten idazle horien artekoa zen (Alvarez Barrientos 2007: 107). Godoy, oster, ez zen Campomanes. Carlos IV.aren lehen ministroak Vargas Ponce Gipuzkoara bidaltzeko arrazoia ez zen besterik Probintziako Erret Pribilegioen aldaerak lortzea baizik, Gipuzkoaren foralitatea errazago deusestatu ahal izateko. Bide batez, Martinez de Zaldiviaren *Libro Viejo de Guipuzcoa* hartu eta berarekin Madrilera eramanez Real Academia de la Historia erakundera (Estevez 1992: 424). Vargas Ponceren lanari esker Gipuzkoari buruzko dokumentuak Llorenterengana heldu ziren, zeinak *Noticias históricas* alderdikoian erabiliko bait zituen zentralismoaren aldeko bere tesi ezagunak indartzeko. Vargas Ponce 1804an Historia Akademiaren zuzendari izendatu zuten. Mogelek ordea ez zuen bere disertazioak argitaratzea lortu, ez bizi zela behintzat. Disertazio biak 1854an inprimitu ziren Garibairen memoriekin eta erretrauekin batera *Memorial histórico español* bildumaren zazpigarren liburukian.

### 3. Zentsuraren indarra

Zentsura instituzionalizazio bidean ageri da XVI. mendetik behintzat eta XVIII.era ezarrita dago. Zentsurak estatuaren eta erlijioaren botereen interbentzioa erakusten duen heinean, alor literarioak beste bi alor horiei zor dien heteronomia edo menpekotasuna agerian uzten du. Esandakoaz gain, zentsura mezenasgoaren eta idazle eskubideen ifrentzutzat ere jo liteke (Viala 1985: 115). XVIII. mendeko Euskal Herri penintsularrean ere estatu- eta Eliza-zentsuren eragina nabarmena izan zen. Elizaren zentsura Inki-



sizioaren bitartez bideratzen zen. Dena den, Borboien politika erregalista zela eta, Inkisizioaren ohizko zentsura zereginetako batzuk Monarkiaren Gobernuak –eta beronen tokian tokiko ordezkariak– bereganatu zituen: «la censura [previa] cae en el campo de actividades gubernativas, mientras que el Santo Oficio se encargaba de vigilar todo impreso y podía concentrarse en los libros extranjeros» (Gunia 2008: 51-52).

Monarkiaren zentsurak euskal letretan gogor jo zuela ezaguna da. Izan ere, Mitxelena «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak» gaiari buruzko hitzaldi batean Erregimen zaharreko foru erakundeek liburugintzan zuten eskumen gabezia azpimarratu zuen: «uste dut komeni dela horrelako gauzak aipatzen diren baino gehiagotan aipatzea. Aspaldi esan zuen Aita Donostiak gure artean gure juntek [...] ez zutela liburu eta izkribu kontuan inolazko eskurik, esku osoa korregidoreak zuela» (Mitxelena 1988a: 691). Mintzagai dugun garaiko lan pare batek zentsurarekin izandako arazoaren atari dira hitz horiek. Monarkiaren gobernuak eta haien ordezkariak XVII. mendera arteko euskal liburugintzan izandako eragina ez da erraz neurtzekoa. XVIII. mendetik aurrera, ostera, estatuaren interbentzioa ageri-agerikoa da eta zehazki dokumentatua. Inkisizioa jo izan da kulturaren kontrolerako galbae nagusizat baina berriki gobernuaren kontrol gaitasuna ere azpimarratu da: «una importante función de vigilancia ideológica quedaba reservada para el gobierno mediante la censura previa. Esta consistía en su facultad de conceder o rechazar la licencia de impresión de cualquier obra escrita y era competencia del Consejo de Castilla o de sus magistrados delegados, los Jueces de Imprentas» (Caro López 2003: 162). Zentsurak gorakada une bi izan zituen XVIII. mendean zehar: Esquilacheren kontrako matxinada sasoia eta Frantziako iraultzaren garaia (Caro López 2003: 168-169).

Euskal letrei dagokienez, estatuaren zentsura jesuiten patuari lotua dago baina era berean, eta behar bada bide batez, zentsura neurri horrek euskarazko liburugintza osoari eragin dio, edo behintzat Nafarroako Erresuman burututakoari.<sup>6</sup> Izan ere, Iruñea zen XVIII. mendean euskarazko argitalpe-

---

<sup>6</sup> Loiolako artxiboan gorde den zentsura-txostenaren kopia Aita Lopetegik argitaratu zuen (Lopetegui 1973: 20-24). Ondorengo aipuak hortixek aldatuak dira. Txosten horren pasarte labur bat *El libro negro del euskera* bilduman jaso da (Torrealdai 1998: 15).

nen gune nagusia. 1766an, Esquilacheren kontrako matxinadaren urte be-rean –zeinaren erruduntzat jesuitak jo baitzituen monarkiaren gobernuak– Kardaberazek San Inazioaren bizitzaz idatzitako lana argitaratu nahi zuelarik Iruñean, Nafarroako Kontseiluak Martin de Urriza dominikoari zentsuratu zezala eskatu zio. Urrizaren epaiak lanaren bertuteak laudatu zituen, bai edukiaren aldetik («un estímulo eficaz para que se muevan a desterrar de sí los vicios», «un modelo verdadero y una idea perfecta de la santidad más eminente»), bai hizkuntzarenetik («su estilo es a mi ver de los mejores que en el vascuence he visto»), eta hortaz argitaratzea gomendatu zuen: «este compendio es acreedor a la luz pública». Artean, baina, Nafarroako Kontseiluko Contrerasek Esquilache ordezkatu zuen Aradandako konde gober-nuburuari argitalpen egitasmoaren eta egitasmo beronen kontrako eraba-kiaren berri eman zion. Arandakoak, ostera, Nafarroako Kontseiluaren erabakia berretsi ez ezik, euskarazko argitalpen guztietara ere hedatu zuen:

Es muy conforme la reflexión de inconvenientes que en el día podría traer la impresión en vascuence de la Vida de San Ignacio, y el acuerdo tomado por ese superior tribunal para suspender la licen-cia de imprimir, que V. S. me avisa en carta de 25 del pasado en ausencia del Virrey./ A esto se agrega el reparo político de convenir hacer impresiones en otra lengua que la castellana, inteligible a toda la nación, y así por regla general se denegarán por ese Consejo, sin especial noticia mía; archivándose la obra original de la Vida de San Ignacio en vascuence, con el expediente de su impresión, y copia de esta orden, para que no se contravenga; haciendo entender esta pro-videncia a los impresores de ese Reino, para que no aleguen ignoran-cia, castigando severamente cualquier contravención. (Lopetegui 1973: 21-22)

Nafarroako Kontseiluak eragozpenik gabe onartu zuen Arandaren debe-kua («se halla el Consejo prevenido por carta de 1<sup>o</sup> del presente mes del Excelentísimo Señor Conde de Aranda, Presidente de Castilla, para que no se permitan impresiones en otra lengua que la castellana, inteligible a toda la nación, y que por punto general se nieguen semejantes licencias en este Consejo sin especial noticia suya»). Iruñeako sei inprimitzaileei gobernu-buruaren erabakiaren berri jaso izana sinarazi zitzairen, bai eta debekua hausteak erakarriko lituzkeen zigorrarena ere. Inprimitzaile horien artean

Antonio Castilla zen. Honek inprimitu zituen jesuiten libururik gehienak irazpena baino lehen. Horien artean Kardaberazen eta Mendibururen argitalpen ugari ziren. 1757 eta 1766 urte bitartean Castillak inprimituriko hogeita hiru lanetatik hamasei jesuitenak ziren, eta denak euskarazkoak bat izan ezik (Astorgano 2009: 27-28). Arandakoaren debekuak eta jesuiten irazpenak euskal literatura hasi berriari egindako kaltea hain da agerikoa ezen gehiago azpimarratu beharrik ere ez dagoen.<sup>7</sup>

Carlos III.aren erregealdiaren hasieratik bertatik jesuitak neurriak hartzen hasiak ziren errege berriak maite ez zituela susmatuta. Larramendi jakitun zen berak idatzitako zenbait lanek oztopoak zituztela: «Dejo otros escritos, que dispuestos para la prensa, están estancados por motivos políticos» (Larramendi 1973: 29). Horien artean bi izan dira Otazuk eta Diaz de Duranak bereziki arriskutsutzat jo dituztenak. *Corografía de Guipuzcoa* ospe-tsua jesuiten barne zentsura bera ere gainditu ez eta inprimitu gabe gelditu behar izan zuen 1882ra arte. Gainera, Larramendi hil eta gero ere jesuita buruek eginahalak egin zituzten isilpean gordetzeko *Conferencias curiosas políticas, legales y morales sobre los fueros de la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa* izeneko lan probokatzailerak (Otazu eta Diaz de Durana 2008: 567-575). Dena alperrik, ordea, ez baitzuten irazpena saihestu, ez eta Kardaberazena bezalako lan xumeen kontrako zentsura ere.

Euskarazko lanak argitaratzearen kontra Arandak ezarritako debekuak, gainera, luze jo omen zuen, jesuita ez zirengan ere eragina izateraino. Juan Antonio Moglek *Confesio eta Comunioco Sacramentuen gañean eracasteac* Iruñean argitaratu nahi izan zituenean, berriro ere Nafarroako Kontseiluaren ezetza jaso zuen (Azurmendi 2000: 511). Carlos IV.aren ministro zen Urquijo bilbotarrarengana laguntza eske zuzenduta, honek erregearen agindu bat lortu zuen Mogelen liburuak argitara zedin eta, bide batez, euskarazko liburuak argitaratzeko ere bai (Villasante 1979: 210-211; Altzibar 1992: 149). Azkenean 1800an Ezkerroren alarguntsak inprimitu zuen,

<sup>7</sup> XVIII. mendeko zentsura espainiarrari buruzko bibliografia oso zabala da. Eskuaratean erabili dudanean (Domergue 1996, Simon Diaz 2000, Reyes Gomez 2000, Caro Lopez 2003, Caro Lopez eta Bragado Lorenzo 2004, Cañas Murillo 2004) ez da Arandaren debekuaren berri jasotzen, harrigarria badirudi ere.

1766an Arandakoaren debekuaren berri jaso izana sinatu behar izan zuten arteko lehenak zerrendan, Castilloren aurretik (Lopetegui 1973: 23). Nafarroan berriro ere euskal liburuak argitaratzeko baimena lortu arren, Mogelen lanak aurrerantzean Tolosan eta Gasteizen inprimitu ziren. Dena den, argitaratu gabe gelditutakoak ez ziren gutxi izan, batzuk babes edota dirulaguntza lortu ezinda, gorago ikusi bezala, baina zentsuraren eraginez ere bai seguruenik. Horixe gertatu omen zitzaion *Peru Abarka* sailkagaitzari. Lana prest zeukan Xemeingo erretoreak 1802 urte inguruan baina ez zuen lortu legezko baimena argitara zedin (Villasante 1979: 212). Ez da harritzekoa baimen gabezia horri zentsuraren kutsua hartu izana auzia aztertu duten zenbait ikertzailek (ikus Altzibar 1992: 181).

Euskal literaturaren eremuan gertatzen ari zena ulertzeko, beraren inguruan eta hortik kanpo bizi izandako giroa ere gogoan izan beharra dago. XVIII. mendean eta batez ere bigarren erdian zentsura zentralismoaren tresnetariko bat bilakatu zen euskaldunen diskurtso identitarioaren aurrean, gatzelaniaz idatzitakoarenean ere. Joxe Azurmendik zuzenbidearen eta historiaren alorretan gertaruriko zenbait zentsura kasuren berri jaso du (Azurmendi 1985: 384). Adiskideen Batzarra bera ere ez zegoen estatu-zentsuraren eraginetik kanpo nazio identitateari buruzko gaiei zegokienean. Hiru probintzien «historia nazionala» idatzia zutela, argitaratzeko eskabidea Gaztelako Kontseiluari zuzendurik, honek Real Academia de la Historia erakundeari zentsura egitea eskatu zion, zeinak ez bait zion aurrepiderik eman inprimitze prozesuari (Ortiz de Urbina 1997). Gobernuaren zentsurak Batzarraren estatutuetan eurretan ere jo zuen, hiru probintzien arteko bateratze egitasmoari buruzko aipamen oro kendu arazi baitzuen gobernu auzietan muturra sartzea zelakoan (Ortiz de Urbina 2006). Izan ere, ohore eta ospe iturri zen Adiskideen Batzarra bezalako erakundeetako bazkideza, baina «Real Academia» tituluaren eta beronek zekarren dirulaguntzaren truke Monarkiak erakunde horien kontrol ideologikoa ziurtatzen zuen (Gunia 2008: 70).

Aipagarriak dira bestalde Batzarkideek Inkisizioarekin ere izandako arazoak. Arazook, ordea, kide batzuek jasandako salaketetan gauzatu ziren, argitalpen zentsuretan baino gehiago. Salaketetarako arrazoen artean liburu debekatuen jabetza zegoen. Voltaire eta Rousseauenak izateagatik

Egia eta Samaniego salatuak izan ziren (Areta 1976: 65-66). 1792an Inkisizioaren aurrean Frantziako Iraultzaren aldeko zenbait gazeta eta paper zebiltzala salatu zutenetariko bat Juan Antonio Mogel dugu. Elizgizon zorrotza, 1794an Inkisizioaren liburu ikuskatzaile izateko eskaria zuzendu zion inkisidore nagusiari, bai eta kargua lortu ere (Altzibar 1992: 142-143). Badago ordea Mogelek Rousseau testuetatik ezagutuko zukeela uste duenik, idazle honen lanak Inkisizio espainolaren indexean aurkitu arren (Apalategi 2005: 46). Inkisizioaren liburu ikuskatzaile selektiboa ote zen Mogel?

XVIII. mende hondarrean erlijioaren defentsari eta Frantziako Iraultzaren aldeko propagandaren zabalkundea eragozteari zegokionean estatuak eta Elizak bat egin zuten. Erakunde bion arteko akordioak, ordea, ez zuen Mogel babestu estatuaren zentsuratik, gorago agerian geratu denez, eta *Comunio ona* lanak azkenean inprimitzeko baimena lortu bazuen ere, *Peru Abarka* ausartagoak ez zuen oztopoa gainditu, apaizen hizkuntza gaitasuna hobetzeko onuragarria izango zela aldarrikatu arren sarreran idazleak (Mogel 1990: 35).

Elizaren agintepean zentsura ez ezik, autozentsura kasu aipagarriak ere bada; Juan Bautista Gamiz koadjutore edo anaia legoak bizi izandakoa esate baterako. Jesuiten arteko koadjutoreek ez zuten idazterik baimen berezia eskatu ezik. Hori dela eta Gamizek ezkutuan idazten zituen poesiak. Jesuitak iraitzean Gamizen poesiak biltzen zituen kartapazioa La Anunciada Iruñeako ikastetxean umezurtz eta izengabe gelditu zen handik Loiolara eramane zuten arte, baina luze itxaron behar izan zen haren jabea identifikatu eta azkenik inprimitu ere egin baino lehen. Azkenean Jon Goikoetxeak identifikatu, aztertu eta argitaratu zuen 1980 urtean (Goikoetxea 1980).

#### 4. Ondorio gisa: *Naissance de l'écrivain?*

Inguruko literatur tradizioen gorakada ekarri zuten baldintzen artean giro akademiko indartsua, mezenasgo oparoa eta zentsura eraginkor baina mugatua aipatu izan dira. Mendebaldeko euskal literaturaz den bezainbatean XVIII. mendean eta XIX.aren hasieran egoera ezin bestelakoagoa da. Akademiei dagokienez, ez estatuak, ez foru erakundeek eta ez apezpikuek ere

dute akademia edo antzeko erakunderik eratzen euskal letren berariazko garapenerako. Horren ordez ekimen pertsonalak ageri dira akademiaren zereginak edo zereginetako batzuek betetzen. Euskaraz idaztearen alde mezenasgoaren bitartez jarritako baliabide ekonomikoak urriak dira. Zentsurak, azkenik, gogor jo zuen, batez ere Arandako kondearen debekua eraginez.

Eta hala ere, lorpenak ez ziren nolana hikoak izan. Euskal literaturaren alorra Euskal Herri penintsularrean, alor berezitu gisa, alor literario espainolean jaio zen. Horretarako behin eta berriz gaztelaniaz idaztera bultzatzen zituen joera indartsu bitatik askatu behar izan zituzten euren buruak literaturaren alorreko eragileek: (a) gaztelaniaz –edota latinez– soilik idazteko *habitus*-etik eta (b) euskara hizkuntza barbarotzat eta idazteko ez gaitzat jotzen zuen ideia errotutik, biolentzia sinbolikotik alegia. Seguru asko ez zen kasualitatez gertatu biolentzia sinbolikoak eraginkor izateari utzi eta lasterrera azaltzea zentsura gero eta jokaera zentralistagoa garatzen ari zen estatuaren aldetik, hizkuntza eta kultura batasunerako (monopoliorako) helburua auzitan jartzen zuenez gero gaztelania ez beste edozein hizkuntzaren erabilerak.

Estatu boterearen eremutik nekez sortuko zen euskal literaturaren alorra. Erljioaren eremuan baldintza egokiagoak aurkitu ziren elizak bere helburuetarako behar bait zuen euskarazko diskurtso garatua, idatzizko erabileretatik hurbilagokoa. Eta hemen ere, apezkikuen babesa mugatua zen. Ordena batzuetako zenbait gizabanakok gaztelaniaz sermoiak egitea eta idaztea eskatzen zuen joera nagusitik bereiztean hasi zen euskal literaturaren alorra ere bereizgarri gertatzen. Horrexek berak azaltzen du Euskal Herri penintsularreko euskal literaturaren alorrak erlijioaren alorrekiko heteronomia.

#### 4.1. Biolentzia sinbolikotik iraultza sinbolikora

Euskal letren alorrean murgildutako eragile zenbaitek garai berriak bizi zituztela zeritzoten XVIII. mendean. Amaitzen ari zen euskararen idazmenerako ezintasuna eta euskaldunen hizkuntz-elegantziarako gaitasun gabezia ontzat jotzen zuen aroa.

Elegantzia hizkuntzen ezaugarri gorena zen garaian Errenazimenduko humanistek eskolastikoen kontra garatutako borrokaren ondoren, Gaztelako salatzaileen esanetan euskara garbitasunik (*puritas*) eta ulergarritasunik (*perspicuitas*) gabeko hizkuntza omen zen, elegantziarik gabekoa beraz.

XV. mendetik zetorren salaketa topiko honi beste bat gehitu zitzaion XVII. mende hasieratik behintzat: Euskal Herria poetarik gabeko lurraldea zela, hemen sekula ez zela poetarik sortu, ezina zela halakorik gertatzea (Bijuesca 2010). Aldi berean topiko (meta)literarioa zen ere Gaztelan poetek gainez egiten zutela (Gutierrez 2005: 60-62). Poetak edota idazleak ugari diren tokian akademia poetiko-literarioak sortzeko aukerak ere askoz handigoak izango dira, eta alderantziz poetarik ez dagoen horretan. 1600. urte inguruan Madrileko hiri-gortean literaturaren garapenerako gertatu ziren baldintza ezin hobeak ezagutu ez arren, mugaz honako Euskal Herrian poetarik egon zela badakigu, Lazarraga bera esate baterako, bere buruari «el poeta» zeritzona antonomasiar, baina gor-te inguruko giro literario emankorrean murgilduriko idazleek behin eta berriro ukatu zuten hori, *euskara* eta *poesia* (garaian literaturaren hitz baliokidea hein handi batean) elkarri lotu ezinezko kontzeptuak bailira.

Topiko honen oihartzunak XVIII. mendean ez ziren soilik biziak, ezpada euskaldunen artean ere hedatuak eta onartuak. Horren lekuko Juan Bautista Gamiz dugu. Iruñeako jesuiten ikastetxean diruzain zen koadjutore arabar honek oso epai zorrotzak merezi izan ditu egungo kritikaren aldetik: «Gamiz ez da poeta. Bertsogile gehienez ere, txaldan eta baldatxik aski duena gainera» (Goikoetxea 1980: 208). Edozein dela Gamizen ekoizpen poetikoaz dugun iritzia, ez dago ukatzerik lekuko aparta dugula XVIII. mendeko praktika literarioak ezagutzeko. Gaztelaniaz idatzi zuen poema humoretsu batean hala zuzentzen zaie iruindarrei: «Venid locos Irunchemes / ¿quién os mete en el Parnaso / ni montar el Pegaso / si sois unos cascabeles? // Nunca hubo en este clima / quien fuese alumno de Apolo / ni hay noticia de un solo / desde Pamplona a la China»<sup>8</sup> (Goikoetxea 1980: 72).

Joera berekoa dugu honako hau ere, non arabarra (eta euskalduna, hemen aitortu ez arren) izateagatik bertsogintzarako ezgai balitz bezala irudika-

<sup>8</sup> Gamizen ahapaldiak, gaztelaniaz nahiz euskarazkoak, grafia gaurkotuaz aldatu ditugu.

tzen zuen bere burua, ohizko kutsu humoretsuaz, *vizcaino* esteriotipatuei egotzitako barbarismo eta laburkeria salaketekin nahasita: «Mi Dueño y Señor Marqués / derrepente y en la mesa / no me mande a mí esta empresa / de coplas, aun de pies / porque de un pobre Alavés / no hay que esperar agudezas / sino es algunas simplezas / que enfaden sin divertir / y así no gusto decir / zaborreras subtilezas» (Goikoetxea 1980: 69).

Bat batean gaztelaniaz neurtitzak idazteari utzita, zenbait urteren ondoren berriro ere ekin zion poemagintzari, baina euskaraz oraingoan, –nahiz eta trebakuntzarik ez duen hizkuntza honetan–, bere borondateak halaxe jardutea eskatzen baitio: «Erderaz eztuzu nahi, / ene biotza; / euskeraz kopla egiten / eztut nik lotsa. / Ikusko deugu / ahal badaigu egin zerbait / nola behar degu. // Gaizki badoaz ere, / horra euskeraz / ifin naiz hau egiten / neure bildurraz. / Egizu farre, / gaizki mintzatzen badut / lotsarik bage» (Goikoetxea 1980: 199).

Aro berri baten hasiera bizi zela Adiskideen Batzarreko kide edo hurbi-leko batek ere aditzera eman zuen poetarik gabeko lurraldearen topikoa gogoratu eta gaingiditutzat jotzen zuen bitartean, Altzibarrek argitaraturiko *Carta incompleta alabando los trabajos realizados por la R. S. B. al campo literario* gutunaren pasarte batean:

¡Qué feliz mudanza la que estamos experimentando! Tiempos hubo en que el ingenio de los Vascongados estaba reputado por estéril, e infecundo como el país montuoso que habitan. Tiempos hubo en los que este pequeño rincón de España era considerado como si le desconociesen las musas, y su aspereza natural impenetrable a las benéficas influencias de Minerva. (Altzibar 1985: 1132, 6. oh.)

Aipuak aurrera egiten ez badu ere, ondorioa esan gabe doa: gutungilearen orainean Minerbaren eragin onuragarriak eta musak txoko honetan bertakotuak dira. Hori idatzi zuenak gaztelania zeukan gogoan, ziurrenik, euskaldunek gaztelaniazko sorreran egindako aurrerakada begibistakoa zitzaiola. Baina hori bere horretan aldaketa aipagarria («feliz mudanza») izanik ere, are aipagarriagoa zen Gamizek bere xumetasunean erakutsitakoa. Izan ere, Gamizi bere idazkeraren praktikan egindako hizkuntza aldaketaren ondorioak ageriko egiten zaizkio. Euskaldun izanik, lehen ere bazen gai euskaraz idazteko. Orain, oster, lehenago ez bezala, bere burua legitimatuta



sentitzen du euskarazko poesia idazteko. Eta horretan lagunduko zuen Iruñeako jesuiten La Anunciada ikastetxean bizi zen giroak, handixek bideratzen bait ziren jesuiten euskarazko argitalpen ugari, Mendiburu eta Kardaberazanak besteak beste.

Aldi honetan gertaturikoa Bourdieuk iraultza sinbolikoa deituko lukeena izan zela esatea ez da gehiegikeria. Izan ere Gamizen lekukotasunak perzeptzio kategorien aldaketa nabarmena adierazten du, euskaraz idaztea egingarri, zilegi eta egoki dela onartzen duen heinean, eta beraz ordura arte gaztelaniari atxikitako kapital sinbolikoaren monopolioa ere hautsi den heinean. Bourdieuren beraren hitzetan esateko:

Debido a que las estructuras de percepción y de valoración son en lo esencial fruto de la incorporación de las estructuras objetivas, la estructura de la distribución del capital simbólico tiende a presentar una estabilidad muy grande. Y las revoluciones simbólicas suponen una revolución más o menos radical de los instrumentos de conocimiento y de las categorías de percepción. (Bourdieu 1997: 175)

Kapital sinbolikoa duenak biolentzia sinbolikoa erabili ohi du. Ez zen besterik Euskal Herria poetarik gabeko herrialdea zela ontzat ematen zuen iritzia. Biolentzia sinboliko horrek eraginkor izateari utzi zion une berean zentsuraren biolentzia agertu zen. Horrexek berak adieraziko luke euskara idazmenerako erabiltzea zenbateraino zen iraultza sinbolikoa: «Las auténticas revoluciones simbólicas son sin duda aquellas que, más que al conformismo moral, ofenden al conformismo lógico, desencadenando la despiadada represión que suscita semejante atentado contra la integridad mental» (Bourdieu 1997: 93). Agian Arandaren dekuak bazuen zerikusirik euskarazko argitalpenak hartzen ari ziren indarrarekin. Gaztelaniaz soilik idaztera bultzatzen zuen «conformismo lógico» horren amaiera heldua zen.

#### 4.2. *Habitus* berri baten eraikuntza

*Euskararen liburu zuria*-n bilduriko «Euskararen bide luze bezain malkarrak» atalean Mitxelenak euskaraz idazteko ohituraz ondorengo hausnarke-ta eskaini zigun:

Hizkuntza lantzean daukagun atzerapenaren froga zuzena Iztueta da, bera baita XIX. mende aurreratuxean erlijioaz ez diren gaiez hitz lauz ari den lehen laikoa. Gehi diezaiozun honi, Joan Antonio Mogel eta fray Bartolomeren gisako idazleak gaztelania hutsez ari izan zirela, dakigun heinean, beren eskutitz, ohar eta eztabaidetan, halako ohitura oraintsu arte iristen delarik. Ez da ere ahaztu behar Luis Eleizalde, beste askoren antzera, ez zuela euskara erabili *Landibar*, bere nobela bakana, idatzi zuenean. Jendea politikaz bereganatu nahiak bultzatu zuen horretara dudarik gabe, ezin ukatuzko arrazoa, baina tartean bazegoen sendo tinkaturiko usadioaren zama. (Mitxelena 1988b: 1018)

Mitxelenaren hitzak abusiboki interpretatzea ez bada, zilegi bekit aipuko «usadioaren zama» eta «halako ohitura» esamolde horiek Bourdieuren *habitus* kontzepturekin identifikatzea. *Habitus* zera da: «el habitus, como el propio término indica, es un conocimiento adquirido y un haber que puede, en determinados casos, funcionar como un capital» (Bourdieu 1995: 268); «[l]os habitus son principios generadores de prácticas distintas y distintivas [...]»; pero también son esquemas clasificatorios, principios de clasificación, principios de visión y de división [...]» (Bourdieu 1997: 20).

Gaztelaniaz idazten jakitea zenbateraino balioetsi zen euskaldunen artean Monarkia Hispanikoaren administraziora (burokraziara, hezkuntzara, ejerzitorea, merkataritzara) bideraturiko euskaldun andanak erakutsi du, benetako kapital kulturaltzat jotzen baitzen trebetasun hori menderatzea. Trebetasun horren jabetza ohitura errotua ere bazen, arrazoi askoren artean eskolaren bitartez behin eta berriro birrekoizten zen aukera bakarra zelako, bai eta estatuarekiko harremanetarako onartzen zen hizkuntza bakarra ere. Hortaz, joera horretan murgildurik bizi izanda euskaraz ere idazteko ohitura berria garatzea lorpen neketsua bezain aipagarria izan zen. Mitxelenak gogora ekarri bezala, oraindik XVIII. mendean ugari dira euskararekin batera gaztelania ere erabiltzen duten idazleak zenbait genero eta diskurtso mota berezitarako. Izan ere, dotrinekin hasi eta apurka apurka soilik gaztelaniari eremu berriak hartuko dizkio euskarazko idazkerak, eta beti ere gaztelaniarekin lehian. Larramendik berak gaztelaniaz idatzi zuen gehiena baina hala ere haren jardueraren kutsu akademikoa ezinbesteko erreferentea gertatu zen *habitus* berria garatu eta hedatzeko.

Estatuak letren alorrerako berariaz jarritako baliabideek ordea, –alegia akademiak, mezenasgoak eta zentsurak– euskal literaturaren garapena erraztu ez ezik, sarritan galerazi ere egiten zutela ikusi dugu, bai eta gaztelaniaz idaztea lehenesten zuen ohiko *habitus* bera zaindu eta, ahal izanez gero, indartu.

### 4.3. Idazlea?

Egungo konbentzioari eutsirik, behin eta berriro *idazle* hitza erabili dut, «literaturaren arloan, hizkuntza helburu artistikoak lortzeko erabili ohi duena» (Jon Kortazarren arabera *Literatura Terminoen Hiztegian*), jakinik ordea erabili izan dudak bakoitzean anakronismoan erori naizela, Viala ez bezala *écrivain* erabili duenean, horixe baitzen XVII. mendean idazle frantsesek hobesten hasitako hitza. *Orotariko euskal hiztegiak* dioenez, *idazle* XX. mendeko hitza dugu eta orduan ere idazlea alor literario-kulturalean eta politikoan –bietan batera ia bereizketarik gabe– jokatzeko duen eragilea da, Bernardo Atxagaren belarrialdia iraultza sinboliko berri bat erditu zuen arte: alor literarioaren autonomia alegia (Apalategi 2000). *Idazle* hitza asmatu baino lehen *autor(e)* eta *poeta* dira historikoki erabilitakoak, *eskribatzaile* Iparraldekoarekin batera.

XVIII. mendeko gure idazleak, bizitza literarioaren erakundeen ahultasunak baldintzaturik, nahi ta ez beste tasun batzuek ornatuak (edo gabeturik) aurkitu ditugu. Eta hala ere, haien arteko askorengan idazle senaren aztarnak agerikoak dira. Hona hemen adibide banaka bat. Larramendik «escritor» eta «autor» dio bere buruaz (Larramendi 1973: 26). Zarauzko ikastetxean, frantziskotarren artean egin ohi zenez, «escritor titular» delakoa izan zuten. Bertako bezerroak dioenez, izendapen hori lortu zuten artean han bizi izandako idazle garrantzitsuenak ziren: Añibarro eta Juan Mateo Zabala (Villasante 1974: 308-309 eta 320-321). Mogelek «Marquiñaco Cura» tituluaz aipatzen du bere burua beraren argitalpenetan (Altzibar 1992: 164). Hala ere, idatzi zituen lanak argitaratzeko mezenasgoaren bilaketan nekaezina zela erakutsi zuen, idazle sena duen norbaiti dagokionez. Jakingarriak lirateke idazleotako bakoitzak eta euren garaikideek letren alorrean erabilitako estrategiak, lorturiko posizioak eta garaturiko ibilbideak alorraren ikuspegi oso eta zehatzagoa lortze aldera, baina hori beste egitasmo bat dateke.

## Lan aipatuak

ALTZIBAR, X., 1985, «Euskara Adiskideen Batzarrean», in *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. J. L. Melenaren ed. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2. liburukia, 1119-1135.

———, 1986, «Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)», *Euskera*, 33 (1986) 17-45.

———, 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

———, 2004, «Dotrina, erretorika eta erudizioa Mogelen erlijio liburuetan», *Lapurdum* IX (2004) 23-38.

ALTUNA, B., 2003, *Euskaldun fededun*. Euskaldun ona izateko modu baten historia. Irun: Alberdania.

ALTUNA, P., 2002, *Haizeak ez eramango!*. Elixabete Perez Gaztelu eta Esther Zulaika Ijurkoren ed. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

ALVAREZ BARRIENTOS, J., 2007, «Mecenazgo y escritura en los tiempos de Leandro Fernández de Moratín», *Cuadernos de Historia Moderna, Anejos*, 6 (2007) 99-117.

APALATEGI, U., 2000, *La naissance de l'écrivain basque. L'évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga*. Paris eta Montreal: L'Harmattan.

———, 2005, «Heziketa literarioaren kezka, Peñafloridatik Mogelera», *Lapurdum*, IX (2005) 39-47.

ARANA MARTIJA, J. A., 2002, «Frantziskotarrak eta euskera», *Euskera*, 47 (2002) 827-841.

AREJITA, A., 1999, «Peñafloridaren literatura eta hizkera ekarriaz», *Euskera*, 44 (1999) 107-128.

ARETA ARMENTIA, L. M., 1976, *Obra literaria de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*. Gasteiz: Institución «Sancho el Sabio».

ASTORGANO, A., 2009, *La literatura de los jesuitas vascos expulsados (1767-1815)*. Madril: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

AZURMENDI, J., 1985, «Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian», in *Euskal Herria. Historia eta Gizartea*, J. Intxaustiren ed., Oiartzun: Lan Kide Aurrezkoa, 1. liburukia, 357-386.

———, 2000, *Espainolak eta euskaldunak*. Donostia: Elkarlanean.

BIJUESCA, K. J., 2010, «Literatura eta mezenasgoa XVI eta XVII. mendeetako Euskal Herri Penintsularrean: Mikoletaren ‘Vuestra Merced’-en aitzakiaz», *Oihernart*, 25 (2010) 7-40.

BOURDIEU, P., 1995, *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*. Bartzelona: Anagrama.

———, 1997, *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Bartzelona: Anagrama.

CAÑAS MURILLO, J., 2004, «Inquisición y censura de libros en la España de Carlos III: la Real Cédula de junio de 1768», *Anuario de estudios filológicos*, 27 (2004) 5-11.

CARO LÓPEZ, C., 2003, «Los libros que nunca fueron. El control del Consejo de Castilla sobre la imprenta en el siglo XVIII», *Hispania: Revista Española de Historia*, 63, 213 (2003) 161-198.

CARO LÓPEZ, C. eta BRAGADO LORENZO, J., 2004, «La censura gubernativa en el siglo XVIII», *Hispania: Revista Española de Historia*, 64, 217 (2004) 571-600.

DOMERGUE, L., 1996, *La censure des livres en Espagne à la fin de l’Ancien Régime*. Madril: Casa de Velázquez.

ECHENIQUE, M. T., «Campomanes y el proyecto de un gran diccionario vasco», in *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. J. L. Melenaren ed. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2. liburukia, 1089-1096.

ESTÉVEZ, X., 1992, «El Libro Viejo de Guipuzcoa del bachiller Juan Martínez de Zaldívar» (erreseña), *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXXVII-2 (1992) 423-426.

ETXEBARRIA, N., 2005, *Frantziskotarren artxiboak. Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*. Bilbao: Labayru Ikastegia, Arantzazu E. F. eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

ETXEBARRIA, N. eta APRAIZ A., 2009, *Bizente Sarria (1767-1835). Sermoitegia*. Bilbao: Labayru Ikastegia, Etxebarriko Udala eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

EUSKALTZAINDIA, 2010a, *Orotariko Euskal Hiztegia*. <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>>

———, 2010b, *Literatur Terminoen Hiztegia*. <<http://www.euskaltzaindia.net/lth>>

GOIKOETXEA, J., 1980, *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Otero. XVIII. mendeko arabar euskal-erdal olerkaria*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia eta Euskaltzaindia.

GUNIA, I., 2008, *De la poesía a la literatura. El cambio de los conceptos en la formación del campo literario español del siglo XVIII y principios del XIX*. Madril eta Frankfurt am Main: Iberoamericana eta Vervuert.

GUTIERREZ, C. M., 2005, *La espada, el rayo y la pluma. Quevedo y los campos literario y de poder*. West Lafayette, Indiana: Purdue University Press.

INTXAUSTI, J., 2004, «Eliza katoliko erromatarra eta euskara», *Euskera*, XLIX (2004) 811-873.

LARRAMENDI, M., 1728, *De la antigüedad y universalidad del bascuense en España*. Salamanca: Eugenio Garcia de Honorato.

———, 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo.

———, 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuense y latín*. Donostia: Bartolomé Riesgo y Montero. (Ed. faksimila: 1982, Donostia: Txertoa).

———, 1973, *Autobiografía y otros escritos*. J. I. Tellechea Idigorasen ed. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

———, 1982, *Corografía: o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*. J. I. Tellechea Idigorasen ed. Donostia: Larrun.

LASAGABASTER, J. M., 2002, *Las literaturas de los vascos*. A. Toledoren ed. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

LOPETEGUI, L., 1973, «Introducción», in A. Cardaveraz, *Euskal lan guztiak*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1. liburukia, 5-47.

MALAXECHEVARRIA, J., 1926, *La Compañía de Jesús por la instrucción del pueblo vasco en los siglos XVII y XVIII: ensayo histórico*. Donostia: San Ignacio.

MITXELENA, K., 1988a, «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak», in L. Michelena, *Sobre historia de la lengua vasca*. J. A. Lakarraren ed. Donostia: ASJUren gehigarriak, 2. liburukia, 680-693.

———, 1988b, «Euskararen bide luze bezain malkarrak», in L. Michelena, *Sobre historia de la lengua vasca*. J. A. Lakarraren ed. Donostia: ASJUren gehigarriak, 2. liburukia, 1011-1023.

———, 1988c «Euskal-iztegitilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan», in L. Michelena, *Sobre historia de la lengua vasca*. J. A. Lakarraren ed. Donostia: ASJUren gehigarriak, 1. liburukia, 361-372.

MOGEL, J. A., 1854, «Cartas y disertaciones de Don Juan Antonio Moguel sobre la lengua vascongada», *Memorial histórico español*. Madril: Real Academia de la Historia, VII. liburukia, 661-753.

———, 1990, *Peru Abarka*. A. Arejitaren ed., Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.

ORTIZ DE URBINA, C., 1997, «La «Historia Nacional» de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País: identificación de dos manuscritos depositados en el Archivo del Territorio», *Sancho el Sabio*, 7 (1997) 341-346.

———, 2006, «La Patria común Bascongada: una quimera soñada por los Amigos del País», *Sancho el Sabio*, 25 (2006) 25-50.

OTAZU, A. eta DÍAZ DE DURANA, J. R., 2008, *El espíritu emprendedor de los vascos*. Madril: Silex.

REYES GÓMEZ, F., 2000, *El libro en España y América: legislación y censura (siglos XV-XVIII)*. Madril: Arco.

SIMÓN DIAZ, J., 2000, *El libro español antiguo: análisis de su estructura*. Madril: Ollero y Ramos.

TELLECHEA IDIGORAS, J. I., 1985, «Larramendi en las *Mémoires de Trevoux* (1748)», in *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. J. L. Melenaren ed. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2. liburukia, 1075-1088.

TORREALDAI, J. M., 1998, *El libro negro del euskera*. Donostia: Ttartalo.

URKIZU, P., 2000, *Historia de la literatura vasca*. Madril: UNED.

VIALA, A., 1985, *Naissance de l'écrivain: sociologie de la littérature à l'âge classique*. Paris: Editions de Minuit.

VILLASANTE, L., 1974, «El colegio de misioneros de Zarauz (1740-1840)», *Scriptorium Victoriense*, 21 (1974) 281-330.

———, 1979, *Historia de la literatura vasca*. Oñati: Editorial Franciscana Aranzazu.

# Bertso-paperen eta baladen sailkapenez gogoetak & oharrak edizio baterako

URKIZU, Patri

UNEDeko irakaslea eta euskaltzain urgazlea

Jasotze data: 2011-03-11

Onarpen data: 2011-06-24



Lan honetan euskal literaturaren historia osatzerakoan bertso-paperek eta baladek duten lekuaz egiten da gogoeta. Horretarako, lehenik, bertso-paperek eta baladak sailkatzeko egin diren saioen berri eman da, horietan erabilitako irizpideak aztertuz; eta ondoren, euskal literaturaren bilakaeran bertso-paperek eta baladak kokatzeko proposamen eta sailkapena egin da.

**Hitz-gakoak:** literaturaren historia, periodizazioa, ahozko tradizioa, bertso-paperek, balada.

En este trabajo se reflexiona sobre el papel que les corresponde a los versos escritos y a las baladas, a la hora de conformar la historia de la literatura vasca. Para ello, en primer lugar se da noticia de los intentos por clasificar los citados versos escritos y baladas, y los criterios utilizados con ese fin. Seguidamente se hace una propuesta para clasificar y situar los citados versos y baladas, en el desarrollo de la literatura vasca.

**Palabras clave:** historia de la literatura, periodización, tradición oral, versos escritos, balada.

Ce travail est une réflexion sur la place qu'occupent les vers écrits et les ballades dans l'histoire de la littérature basque. On étudie d'abord les tentatives de classement de ces vers écrits et de ces ballades ainsi que les critères qui ont été utilisés pour cela. Il s'agit ensuite d'une proposition pour classer et situer ces vers et ballades dans la littérature basque.

**Mots-clés :** histoire de la littérature, périodisation, tradition orale, vers écrits, ballade.

This paper reflects on the place occupied by popular written verses and ballads in the history of Basque literature. Firstly, it reports on the attempts to classify written verses and ballads by analysing the criteria used for this purpose; and secondly, it puts forward a proposal to classify written verses and ballads and situate them within the evolution of Basque literature.

**Keywords:** the history of literature, periodisation, oral tradition, popular written verses, ballad.

La narración en verso, especialmente si es de origen popular, más que fuente de poesía suele ser, de ordinario, vertedero de humorismo. Si, trascendiendo este carácter y subiendo por lo mismo su interés, canta sucesos trágicos, la varita clasificadora del folklorista la hace saltar de su puesto incluyéndola en el número de endechas y elegías. Cuando, sin remontar tan alto, la narración es de sucesos imaginarios que borda la fantasía, la creación del poeta pide otro grupo en que alistarse y pasa al de los romances.

Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue, *Cancionero Popular Vasco*, T. II, Bilbao 1918, Reed. 1968, 728.

[...] Es indudable que las baladas vascas podían, o podrán en el futuro, publicarse de otra forma; **con otros títulos y otra ordenación**; añadiendo y suprimiendo temas o versiones; con estudios pormenorizados, narratológicos, históricos, etnográficos o lo que se desee en cada tema; con índices, gráficos y mapas, etc., etc.. Pero esto sería otra obra, no necesariamente mejor ni más útil, y no la de Zavala. Con *Euskal erromantzeak* disponemos de la compilación más copiosa de baladas del País Vasco nunca publicada. Varias decenas de excelentes textos, con sus melodías, se incorporan definitivamente al patrimonio cultural euskérico, y se ha evitado que colecciones casi míticas como las de Augustin Chaho y Aitzol siguieran permaneciendo ocultas o se perdieran para siempre. Los textos, editados con rigor, puntuados de forma coherente, y **ordenados por temas** facilitarán la lectura y ahorrarán la consulta simultánea y enojosa de libros, artículos de revista y otras fuentes, a quien desee conocer todos los testimonios conocidos de una balada concreta.

Jesús Antonio Cid, «Romancero hispánico y balada vasca», *Antonio Zavalaren ohoretan*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao, 2000, 100.

Zein izan daitezke irizpide nagusiak **EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA** bat moldatzerakoan? Zein epetan edo kultura mugimendutan berezitu behar da? Nolako aldizkatze edo periodizazioak egin behar dira? Ipar eta Hego Euskal Herrien berezitasunak nola isla daitezke? Sailkapen kronologikoa edota jeneroka egin behar da? Zein iritziren arabera? Non eta nola kokatu behar ditugu kanta zaharrak, baladak edota bertso-paperak? Galdera hauek gure Euskaltzaindiako Literatur Batzordeko, (LIB)-eko bil-

kuretan eztabaida eta sesio luzeak sorrarazi dizkigu eta ene oraingo solasa ildo hortatik doa. Ea zerbaitetarako balio duen.

Ez da benetan erraza poesiaren edo bertsoen antologia bat egiterakoan aurkitzea irakurle guztien edo are gutxiago adituen gogoia erabat asebeteko duen soluzio magikoa. Beraz, prestatzen ari den ANTOLOGIARako agian eztabaidagarri eta irizpide zenbait finkatzeko baliagarri izan daitezkeelako hasi naiz gogoeta hauek prestatzen.

1. Esan behar dut, dena den, Antonio Zavalaren hondarea konpontzen eta digitalizatzen ari direnez Donostiako KM kulturunean, hemengo nire gogoetak baldintzatuak daudela eta ezin daitezkeela izan ez exaustiboak, ez betirakoak, partzialak eta bapatekoak baizik. Lehenik, beraz, katalogatu behar harko lirateke bertso-paper guztiak, zuzen zuzen, katalogo honetan zehaztuz ahal balitz: egilea, bilduma<sup>1</sup>, inprimategia<sup>2</sup> urtea eta gaia. Eta faksimileak argitara eman.

---

<sup>1</sup> **BILDUMAK:** 1. Arantzazukoa; 2. Loiolakoa; 3. Frantziako Liburutegi Nazionalekoa; 4. Baionako Euskal Erakustegikoa; 5. Anton Abbadia; 6. Louis Lucien Bonaparte; 7. Agosti Chaho & George Lacombe; 8. Jose Manterola; 9. Santisteban aitasemeak; 10. Gregorio Mujika; 11. Julio de Urquijo; 12. Aitzol; 13. Ambrosio Zatarain; 14. Apalategi, 15. Manuel Lekuona; 16. Antonio Zavala...

<sup>2</sup> **INPRENTAK:** GIPUZKOA: **Azpeitia:** Pablo Martinez (...1864...); **Beasain:** Zunzunegi; **Bergara:** Francisco M<sup>a</sup> Machain (...1865...), Jose Undiano (...1850), Manuel Imaz (...1861), Juan Lopez; **Deba;** **Donostia:** Ignazio Ramon Baroja (...1829...), Pio Baroja (...1846...), Joakin Muñoz Baroja, Pozo y Cia (...1862), Biktorianoa Iraola (...1903), Juan Oses y Jernet (...1875), A. Sanz, B. Ramon Sermet, La Voz de Guipúzcoa..., R. Altuna; **Eibar:** Saturnino de Diego (1915), Fernández y Diego, Pedro Orue (1895...); **Errenderia:** Makazaga (1890...), Viuda Valverde (1923...); **Hondarribia:** Pozo; **Irun:** J. Diaz, R. Fernández, R. Ferrer, B. Valverde; **Tolosa:** Pedro Gurrutxaga (...1863), Juan Ignazio Mendizabal (1826-1840), Mendizabalen alarguna (1840-1877), Eusebio Lopez (1877-1900), Lopez Mendizabal (1900-1936), Andres Gorosabel (...1854...), Modesto, Dionisio ta Jose Gorosabel (...1866), La Lama (...1860...); F. Muguerza (...1891), La Editorial Guipuzcoana; **Oñate:** M. Raldua; **Villafraanca:** Marqués y SA; **Zarautz:** Elustondo; **Beste zenbait:** Franco & Cia (...1859), J. Iturbe; Necazariyen moldiz-  
tegia...

BIZKAIA: **Bermeo:** Gaubeka; **Bilbao:** Antonio de Eguzquiza (...1789); Simon de Larumbe (...1794); J. Basozabal (...1826); Jose Antonio Jauregui (...1829); Eusebio Larumbe (...1831); A. Depont (...1860); Echenagusia; Tipografía Vizcaina Delmas alarguna (...1883); A. Emperaire; Corazón de Jesús; **Durango:** Florentino de Elosu (...1867), Elizalde, Ondaro; **Gernika:**

2. Errazena ohi izan da egilea ezaguna denean eta honen biografia eta kronologia ezagunak direnean, sailkapen kronologikoa egitea. *Gaztaroa*-tik hasi eta (Oihenarten kasuan bezalaxe) Zahartzaroko poemekin edo azkene-koekin bukatzeko. Baina ez da horrelakorik gertatzen ahozko kanta edota balada tradizionalen kasuan, bertso-paperak edo baladak ditugunean aztergai, egilea eta data falta baitzaizkigu askotan.

Bere etorkian baladak beti izan arren poeta zehatz baten emaitza eta sorkuntza honen gizartearen harrerak soilik bilakatzen ditu tradiziozko baladetan, diosku Cidek aipatu lanean. Hauek aldaeretan bizi dira gehienetan, ahoz aho dabilzala aldakor baitira. Hau, ordea, ez da erabat gertatzen erromantze narratiboekin edo balada arruntak bezala deitu izan direnekin. Gainera batzuetan, garbi dago kanta zaharra baino lehenagokoak direla bertso-paper gisa moldaturiko *bertso berriak*. Zeini eman lehentasuna, beraz?

Julio Caro Barojak dioenez<sup>3</sup>, Literatura historialari batek sailkapenean nagusitzat hartzen ditu orokorrean jeneroak eta formak, Ohitura historialariak, ordea, edo Antropologoarentzat gaiak dira lehenik kontutan hartzekoak, zer edo zer ikusia honekin izaten ohi duten arren formek.

---

Angel de Goitia y Hormaechea (...1820), A Egurrola; **Portugalete**: Mariano P. Escartin (...1893)...

ARABA: **Gasteiz-Vitoria**: Juan Pujol (c. 1860), Montepío Diocesano, Manuel Vita (1861)...

NAFARROA: **Iruñea**: Ramon Goñi y Alonso (...1863), Bengarai, J. Lorda (...1880)...

IPAR EUSKAL HERRIA: **Baiona**: Imprimerie Franco-Basque (...1900), Imprimerie Foré et. La-serre (...1853), Imprimerie E. Lasserre (...1855), Imprimerie P. Cazals (...1873), Lamaignère alarguna (1821-1909), C. Lousteau (1876), A. Foltzer (1920...); Lespès soeurs; **Donapaleu**: Clèdes.

**Miarritze**: Ch. Bauxon;

EUSKAL HERRITIK AT: **Burgos**: (1695); **Eskiule** (1916), **Pabe**:Toneten Alargunsa (1821), Imp. Nouvelle (1876); **Orthez**: J. Goude-Dumesnil (1873); **Akize**: Imp. Nouvelle (1882); **Foix**: Imp. Gadrat aîné (1889); **Tours**; **Buenos Aires**: Lito. La Nueva Centra. Piedad 1.041; **London**: Oop, Flan. Flin (1892); **Oxford** (1907)...

**L(eku) G(abe)**: J. Iturbe, Necazariyen moldiztegia, Jesus Otaño...

<sup>3</sup> CARO BAROJA, Julio, *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid 1969, 73.

3. Francisque Michelek jakintsuak *Le Pays Basque...*<sup>4</sup> plazaratu zuenean, euskal literaturari eskaintzen dizkio XI-XVI kapituluak eta hauetarik lehena, *Poésies Populaires des Basques* izendatzen du honela sailkatzen dituelarik euskal kantak eta poemak:

1. Chanson politiques
2. Légendes poétiques
3. Chants funèbres
4. Romances
5. Chants de Montevideo
6. Chansons Morales
7. Satires, eta
8. Chansons diverses.

Charles August Friedrich Mähnen hizkuntzalari alemanak urte berean Berlinen beste liburu bat plazaratu zuen euskarari buruz *Denkmaeler der Baskischen Sprache...* deitu zuena (Berlin 1857). Bertan euskal antologia bat ematen digu eta XX kanta<sup>5</sup>. Hauek nahas-mahas emanak dira, mota orotarikoak dira, apokrifikoak, politikoak, amodiozkoak, elizakoak, alegiak, baina baita berak izendatzen dituen bezala *Chanson Érotique* eta *Chanson Bachique* delakoak. Ez da ageri, beraz, orden berezirik ez eta sailkapenean Michelekiko berdintasun handirik.

Julien Vinson-ek bere aldetik *Le folklore du Pays Basque*<sup>6</sup> liburu txit interesgarrian beste honako sailkapena ematen digu:

1. Chansons politiques
2. Chansons d'amour
3. Chansons satyriques et humoristiques

<sup>4</sup> MICHEL, Francisque, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*. Fermin Didot, Paris, 1857.

<sup>5</sup> URKIZU, Patri, «C.A.F. Mähnen Kanta eta Bertso Bilduma. Berlin 1857». EGAN, Donostia 1986, 13-84.

<sup>6</sup> VINSON, Julien, *Le folklore du Pays Basque. Les littératures populaires de toutes les nations. Traditions, légendes, contes, chansons, proverbes, devinettes, superstitions*. Tome XV. G.P. Maisonneuve & Larose, Paris, 1883.

4. Berceuses
5. Cantinèles et formulettes, eta
6. Chants de quête.

Resurrekzion Maria Azkue eta Aita Donostiak, gure kanta biltzaile handienek ere beren sailkatzeak proposatzen dituzte. Azkuek bere Kantutegitik 267 hautatzen ditu eta hamaika sail bereizten ditu bere ERRI-OLERKIAK atalean<sup>7</sup>, honakoak direnak:

1. Aldartezkoak (39)
2. Dantzarakoak (42)
3. Edaleenak (27)
4. Elizarakoak (18)
5. Eskelarienak (17)
6. Ezteietakoak (20)
7. Gertaridunak (12)
8. Iletak (23)
9. Ipuinak (28)
10. Oneritxizkoak (31), eta
11. Seaska-ondokoak (10).

Bere aldetik, Aita Donostiaren kantutegia argitaratu zutenek<sup>8</sup> beste honako sailkapena utzi ziguten euskara eta gaztelania nahasiz:

1. Aldrebeskeriak (4)
2. Amorosa (177)
3. Artaxuriketak (32)
4. Báquica (46)
5. Carlista (3)
6. Contrabando (1)
7. Cortesía (1)
8. Cuestación-ronda (19)

---

<sup>7</sup> AZKUE, Resurrección María de, *Euskalerrriaren Yakintza (Literatura popular del País Vasco)*. Espasa-Calpe, Madrid, 1947, 13.

<sup>8</sup> DONOSTIA, P., *Cancionero Vasco*. Vols VI-IX. Ed. P. Jorge Riezu, colaboradores Juan Mari Beltrán y Claudio Zudaire. Eusko Ikaskuntza, Donostia 1994.

9. Cuna (80)
10. Danza (462)
11. Elegía (1)
12. Epitalamio (6)
13. Festiva-satírica (61)
14. Guerra-milicia (14)
15. Humorística (18)
16. Infantil (51)
17. Moral (10)
18. Mutil-zaharra (7)
19. Narrativa (67)
20. Navidad (67)
21. Pelota (8)
22. Religiosa (192)
23. Trabajo (7)

Ikus dezakegunez nahaste-borraste handi-xamarra ageri zaigu gaien ordenatze honetan. Bestalde 1967an Pierre Lafittek<sup>9</sup> plazaratu *Kantu Kanta Khantore* liburuttoan honela sailkatzen dira:

1. Herria, etchea, lurra.
2. Kantu hunkigarriak
3. Jendetasunezko kantuak
4. Amodiozko kantuak
5. Ixtorio-mixterio
6. Alegiak
7. Itsas-kantuak
8. Irri eta zirika
9. Ostatu kantuak
10. Haur-kantu eta sehaska-kantuak, eta
11. Orotarik: pilota-kantu, soldado-kantu, arto-xuritzeko...

---

<sup>9</sup> LAFITTE, Pierre & DASSANCE, Louis, *Kantu, kanta, khantore*. Baiona, Cordelier, 1967, 263. (Aurrerantzean KKK)

Hamaika sail dira, bada, Azkuek eta Lafittek berexi zituztenak sailkatze berdina ez izanik ere. Aipatu dugun lanean Caro Barojak<sup>10</sup> gaztelaniazko erromantzeak direla eta honako 25 mota ezberdin bereizten ditu:

1. Antiguos.
2. Caballerescos.
3. Novelescos; de encantos y prodigios.
4. Novelescos; de amores y aventuras.
5. Novelescos; biográficos y de «ventura» propicia.
6. De cautivos y renegados.
7. De mujeres valientes.
8. De hombres bravos y arriscados.
9. De contrabandistas y guapos.
10. De bandoleros.
11. Históricos.
12. Religiosos; hagiográficos.
13. Religiosos; castigos de Dios.
14. Religiosos; milagros e intervenciones de la Virgen María.
15. Religiosos; expositivos, didácticos.
16. Religiosos; ascéticos.
17. Casos raros y prodigios.
18. Crímenes.
19. Controversias.
20. Satíricos; sobre las mujeres.
21. Satíricos; sobre personas de distinta condición.
22. Narraciones fantásticas; cuentos conocidos en el folklore europeo.
23. Cuentos localizados.
24. Para representar; diálogos y monólogos.
25. Chascos.

Joseba Lakarra eta bestek<sup>11</sup> beren liburuaren bostgarren kapituluan Baladen sailkapena dute gaitzat eta aipatu ondoren Di Stefano, Michèlle Débax,

---

<sup>10</sup> CARO BAROJA, Julio, *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid 1969, 73-74.

<sup>11</sup> LAKARRA, Joseba; BIGURI, Koldo; URGELL, Blanka («Maria Goyri» Mintegia, *Euskal baladak. Antologia eta azterketa*. Hordago, Donostia, 1983.



Matthew Hodgart edota Menéndez Pidal artxiboaren argitaratzaileak bi irizpide jasotzen dituzte aipatu edizioan: 1. Hedadura, hots, euskal tradizioan soilik ala beste tradizioetan ere gertatzen diren, eta 2. Gaiak. Eta hauek aurkibidearen arabera honela dituzte sailkatuak:

1. Epikazkoak
2. Maitasuna eta bere ondoriozkoak
  - 2.1. Andere adulteriogileak
  - 2.2. Bahiketak eta sedukzioak
  - 2.3. Maitasun kontrariatuak
  - 2.4. Heriotzaz beste aldeko maitasuna
  - 2.5. Maitasun zintzoa
  - 2.6. Amaginarreba gaiztoa.
3. Bentura ez amodiozkoak
4. Kristau kondairak.

Urte batzuk geroxeago Jon Juaristik bere *Flor de baladas vascas*<sup>12</sup> argitaratu zuen honako sailkapena burutuz:

1. Balada zaharrak
2. Euskal Herriko Baladak
3. Europa guztiko baladak
4. Haur baladak, eta
5. Balada arruntak.

Orotara 26 balada aurkezten ditu, komentatzen eta itzulpena ematen.

Bi urte geroxeago neuk Iparraldeko kanta eta bertso zenbait plazaratu nituenean<sup>13</sup> bostehun kanta honako hogeitai sailetan banatu nituen, amodiozkoak era berean beste hogeitai sailetan banatzen nituelarik:

1. Jendetasunezkoak (1-5).
2. Euskal Herriaren Alde (6-17).
3. Politika (18-30).

<sup>12</sup> JUARISTI, Jon, *Flor de baladas vascas*. Colección Visor de Poesía. Madrid 1989.

<sup>13</sup> URKIZU, Patri, *Lapuri, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak*. Etor, Donostia 1991.

4. Elizarakoak (31-50).
5. Filosofia (51-58).
6. Alegiak (59-65).
7. Haur eta seaskakoak (66-92).
8. Ostatukoak (93-123).
9. Irri eta ziri (124-182).
10. Ihauteri eta astolasterretakoak (183-188).
11. Xikitoak (189-225).
12. Eskekoak(226-233).
13. Partida eta Amerikakoak (234-251).
14. Ofizioak (252-267).
15. Pilotarienak (268-273).
16. Dantzarienak (274-282).
17. Itsasokoak (283-288).
18. Hiltze, presondegia eta beste istorio (289-312).
19. Gerrakoak (313-336).
20. Amodiozkoak (337-500).

Eta amodiozkoak, esan bezala, beste hogei azpisailetan: leihopeko sere-natak, goizalbakoak, iturrikoak, despedidakoak...

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria eta Jaione Ibarra osatu taldeak *Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia*<sup>14</sup> plazaratzerakoan honako hiru sailetan banatzen dituzte, gaztelaniazko itzulpena, doinu eta guzti:

1. Balada tradizionalak (1-9)
2. Balada erlijiosoak (10-17)
3. Bertso narratiboak (18-24).

Eta azkenik Antonio Zavalak 1998an hainbeste itxaroten genuen *Euskal erromantzeak*<sup>15</sup> plazaratu zituenean, honela banandu zituen:

1. Istorikoak / Romances históricos. (1-22)

---

<sup>14</sup> AREJITA, Adolfo; ETXEBARRIA, Igone; IBARRA, Jaione; *Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia*. Labayru Ikastegia. Bilbao Bizkaia Kutxa 1995.

<sup>15</sup> ZAVALA, Antonio, *Euskal erromantzeak. Romancero Vasco*. Auspoa. Sendoa, Oiartzun 1998.

2. Izen ona / El honor. (23-29)
3. Itzulera / El retorno (30-37)
4. Amodioa / El amor (38-54)
5. Ipuiak / Cuentos y leyendas (55-60)
6. Beranduko erromantzeak / Romances tardíos ( 61-64)
7. Erlijiozkoak / Religiosos
  - 7.1. Eguberria / Navidad (65-69)
  - 7.2. Jesukristoren Pasioa / Pasión de Jesucristo (70-79)
  - 7.3. Kristau fedea / Fe cristiana (80-86)
  - 7.4. Ama Birjiñaren santutegiak / Santuarios de la Virgen (87-91)
  - 7.5. Santuak / Santoral (92-97)
8. Erromantze puskek / Fragmentos (98-113)
9. Erdi Aroko kantak / Cantares de la Edad Media (114-127)

Baditu Zavalak bertso liburu mordoxka Auspoa Bilduman argitaratuak eta Egile baten inguruan ez zuenean liburu bat paratzen, saiatzen zen gai berezien inguruan prestatzen, hala nola:

#### Amodioa

- *Amodiozko penak bertso berrietan* (Auspoa 128, 1976)
- *Ezkonduraren bearreko bertsoak* (Auspoa 187, 1986)
- *Neska-mutillaren arteko bertsoak* (Auspoa 186, 1985)
- *Ezkontza galdutako bertsoak* (Auspoa 257, 1999)

#### Arrantzaleen bizitza

- *Arrantzaleen bizitza* (Auspoa 133, 1978)

#### Emigrazioa

- *Ameriketako bertsoak* (Auspoa 176, 1984)

#### Erlijioa

- *Mixioetako bertsoak* (2 T.) (Auspoa 164, 165, 1983)
- *Kristaubidea bertsoetan* (2 T.) (Auspoa 174, 175, 1984)
- *eskeko bertsoak (1814-2000)*. (Auspoa 310, 2008)

### Gerra

- Afrikako gerra. 1859-1860 ( Auspoa 129, 1977)
- Frantsesteko bertsoak (2 T.) (Auspoa 212, 213, 1991)
- Frantziako iraultza eta Konbentzioko gerra bertsoetan (Etor 202, 1989)
- Karlisten leenengo gerrateko bertsoak (Auspoa sail nagusia 4, 1992)
- Karlisten bigarren gerrateko bertsoak (Auspoa sail nagusia, 1997)
- Kuba-ko gerra (Auspoa 161, 1983)
- Soldaduzkako bertsoak (Auspoa 139, 1979)

### Jan-edanak

- Jan-edanaren bertsoak (2 T.), (Auspoa 154, 155, 1982)

### Jokoak

- Euskal jokoak bertsoetan (2 T.) (Auspoa 180, 183, 1984, 1985)
- Estropadak bertsoetan (Auspoa 281, 2003)

### Laborarien bizitza

- Nekazariak bai miseriak (Auspoa 140, 1979)
- Noe'ren ontzia (Auspoa 136, 1979)
- Baso-mutillak (Auspoa 134, 1979)

...

Zortzi sail atera zaizkigu baina garbi dago egile ezaguna duten bertsoek askoz ere gai gehiago ukitzen dutela eta hainbat eta hainbat azpisail molda daitezkeela.

Halaber, Zavalak badu artikulu bat beste askoren artean txit interesgarria «Bertso-paperak» deitua, zeinaren hasieran aipatzen duen Iztuetak idatzitako *Guipuzcoaco Provintziaren condaira edo historia...* (1847), non dioen besteak beste, *orai zernai gauzaren berriak paper moldizkidatuetan zabaltzen diraden bezela*<sup>16</sup>. *Zernai gauzaren berriak* ematen bazuten garbi dago gaiak ez zirela bi soilik, erlijioa eta gerra adibidez, beste anitz ere tratatzen zituztela baizik.

---

<sup>16</sup> ZAVALA, Antonio, «Bertso-paperak», *Auspoaren auspoa I (Itzaldiak / conferencias)*, Auspoa 238, Donostia 1996, 325-350.

Zavalak berezi egiten ditu bertso-paperak eta erromantzeak, zeren dioen arabera, *oker ez banago, paperetan inprentatu eta zabaldutako erromantzerik ez dago. Izatekotan ere, bat edo bi geienez.*

Pundu honetan ez nator bat Zavalarekin, batipat kontutan hartzen badi-tugu Iparraldeko bertso-paperak eta ondoren aurkeztuko ditugun balada edo erromantze arruntak.

4. Garbi dago sailkapen kontuetan bakoitzak bere kopetekoak dituela gogoko.

Adibidez, Lakarrak & besteek hedadura aipatzen dutelarik Balada Propioak eta Amankomunak bereizten dituzte. Lehenean 12 eta bigarreanean 28 ematen dituzte. Honela, hain zuzen:

I.1. Balada zaharrak (I.1. Beotibar; II. Sandailia; III. Aramaioko Kanta; IV. Arrasateko erreketak).

Balada zaharren zatiak (V. Akondiako gudua; VI. Urrexolako gudua; VII. Olaso; VIII. Salinasgo kontea; IX. Juan de Lazkano; X. Ioanikoteren kanta; XI. Txanfarronen kanta; XII. Britainako kantorea).

I.2. Eresiak (E.1. Milia Lasturkoren eresiak; E.II. Martin Bañez Artazu-biagakoren eresia; E.III. Diego Lopez Harokoaren eresia)

Hauei erantsi beharko litzaizkieke bai Antonio Zavalak (*Euskal erroman-tzeak*, 1998) aipatu Fernando V-ren kanta (1475), Domenjon Gonzalez Andia-ren kanta (c. 1482) eta Naparroako Kondestablearen kanta (1493), bai eta Julen Arriolabengoak<sup>17</sup> aurkiturik kantak Ibarguen-Cachopin-en kronikan, besteak beste: Butroeko andrearen eresia; Salinasko kontea eta Errodrigo Zaratekoa.

Orotara hogueiren bat erliki edo kanta zati edo balada zati lirateke, zeren Beotibarko kanta aurkeztean Garibayk horrelaxe dio, *cuyo comienzo es d'esta*

<sup>17</sup> ARRIOLABENGOA, Julen, *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan. Testu zaharren ediziorako kontribuzioa*. Euskaltzaindia BBK, Bilbao, 2008.

*forma*. Bestalde beharko litzateke lehenik ikusi ea kanta guzti hauek edo zatiok balada diren<sup>18</sup>.

Balada delako hauen tituluak ere aztertu beharko genituzke. Batzuetan izen propio bat besterik ez da erabiltzen (Beotibar...), bestetan *Kanta* hitza erabiltzen da (I.1.III; I.1.X; I.1.XI), orain *Gudua* (I.1.VI; I.1.VI), gero *Eresia* (E.1.; E.II; E.III), eta batean *Kantorea* (I.1.XII) ere bai.

Gure uste apalez batu egin beharko litzateke izendatzeko sistema, eta ez onar adibidez *Kantorea* hitza hegoaldeko erromantze batentzat, zeren ongi badago *Bereterretxen khantorea*-ren kasuan, zubererazko hitza baita, ez dut uste egoki denik izendatzea *Bretainako Kantorea*.

Halaber testu irakurketa zuzenaren alde, esan behar dugu adibidez, Arrasateko erreketaren kanten artean badela irakurketa txar bat edizio batetik besteetara iragan dena: *Guipuz hondo ederric* (Lakarra, et. al., 1983, 23), Juaristi (1989, 22) berdin, Arriolabengoa (2008, 91), edota internet-en [www.klasikoak.armiarma.com](http://www.klasikoak.armiarma.com), azpimarratu arren koordinatu nuen euskal literaturaren historian<sup>19</sup>, Mitxelenak egin zuela irakurketa zuzena, alegia, *Guipuz sendo ederric*, orijinalaren fotografiak ongi behatuz.

5. Lakarra et al., «Tradizio moderno textuak» ikertzean bitan banatzen dituzte:

- II.1. Balada tradizionalak (XIII-L), eta
- II.2. Balada arruntak (A1- A14).

Balada Tradizionalak aztertzean hastean hauen artean kokatzen duten *Ahetzeko anderea-z* ari direlarik, honakoa diote oinoharrean: *Santa Klararen kristau kondairarekin antza izan arren balada gisa ez du kiderik, dakigunez, beste inongo tradiziotan (ikus bere sarrera)*<sup>20</sup>. Garbi utzi genuen gure lantxo

<sup>18</sup> Ene ustez adibidez XIV. mendean bizi izan ziren Pedro IV de Aragón (1319-1387) eta Juan I de Castilla (1358-1390) gaitzat duen kanta ez litzateke kanta lizun bat baizik, inolako ixtoriorik gabea. (Ik. Patricio Urquizu, *Poesía Vasca. Antología bilingüe*. UNED, Aula abierta, Madrid 2009, 114-115).

<sup>19</sup> URQUIZU, Patricio et al., *Historia de la literatura vasca*. UNED, Madrid, 2000, 115.

<sup>20</sup> LAKARRA, Joseba et al., *Aip. Lib*, 99.

batean<sup>21</sup> paralelismorik ez zaiola falta europear tradizioan, hala nola kanta frantses, italiano eta okzitanoetan, gaia frantsesez *La Maumariée vengée par ses frères*, deitu izan delarik<sup>22</sup>. Bestalde ez dago dudarik *Urrutiako anderea* gai berari buruzko beste kanta bat dela, edo Orpustanen hitzetan beste bertsio bat.

*Sortu nintzan Etxauxian* kantaren testu transkripzioa egitean Zavalak < ü > ak ez markatzeaz gain, < h > -ak ere ahanzten ditu, garbi seinatuak daudenak Chahoren kantutegian: *lekhü* (2.2.), *phenax* (2.4., 8.3.), *khanbera* (4.2.), *bilho* (4.4.), *althe* (7.3.), *muthila* (10.1.), *sarthü* (11.3.)...

**Frantziako anderea** deitu baladaz edo gaztelaniaz la «suegra perversa» denaz hona zer dioen Cid-ek:

Este motivo no tenía correspondencia en los dos textos navarros que se conocían hasta ahora, pero la versión de Gartzain (Irurita, Baztán) facilitada a Aitzol por Bitori Etxebarria en 1934, y publicada por primera vez por Antonio Zavala, muestra que también en el modelo altonavarro existe ese intento frustrado de la esposa de salvar su vida apelando a la codicia del asesino:

– Gaizueu bat urre badut aitetxik emana,  
bizik uzten banauena eman datzuet dena.

Baina garbi dago Aitzoli Bitori Etxeberriak bidalitako bertsoa, Gartzaingo Inazia Indaren ahotik jaso ez dela Zavalak ematen duen bezala eta honi Cidek kopiatzen dion legez, hots:

Yendiak eldu dire andik-emendik,  
Nere arreba Yuana ezta ageri iñundik.  
– Gaizueu bat urre badut aitetxik emana,  
Bizik uzten banauena eman daizuet dena.

<sup>21</sup> URKIZU, Patri, «Viejas baladas vascas del cancionero de Chaho», *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. XI, UNED, Madrid 2005, 30-109. Interneten [www.uned.es](http://www.uned.es) –en aurki daiteke.

<sup>22</sup> DONCIEUX, George, *Le Romancéro populaire de la France. Choix de chansons populaires françaises. Textes critiques*. Paris, Émile Bouillon, 1904.

Baizik eta fotokopiak dioenarenaz<sup>23</sup>:

Yendiak eldu dire andi emendik  
nere afeba Yuana ezte ageri ifondik:  
gaizueuet uré baut aitetxi emana  
bizik uzten banauena eman daizuet denak.

Zein hobekuntzarik gabe transkribitu beharko litzateke modu honetan:

Jendiak eldu dire andi emendik  
Nere arreba Juana ezte ageri ifondik:  
– Gaizue<sup>24</sup> bet urre baut aitetxi emana  
Bizik uzten banauena eman daizuet denak.

Eta ez dira aldaketa horiek bakarrik egiten dituenak bere irakurketan Zavalak. Ondorioz hondar aletxo tipia pilota bilaka daiteke eta azkenean bola handia, eta iristen dena irakurle arruntarengana orijinaletik nahiko urrun egon.

6. Balada arrunten artean bada bat, Lakarrak et al. arabera A.X. dena, nik txikitan amaren ahotik hainbestetan entzun nuena: *Markesaren Alaba* kanta. Arejita eta bestek *bertso narratiboak* barnean ematen dute berau Fruizko eta Aulestiko aldaeretan. Aldaerok honela ematen dute lehen bertsoa:

A.X. (1960)

Zeruak eta lurrak /	egin zituana /
memoria argitzera /	atoz neregana /
esperantza badaukat /	zedorrek emana /
kunplituko dedala /	desioa dedana. [Lakarra & al., 229]

<sup>23</sup> KM Kulturunea, 091 AIT-93, 003.

<sup>24</sup> *Orotariko Hiztegia*: **gaitzeru** (G-goi-to-bet-nav, AN-ulz, L, BN; Ht VocGr 334 (*gaize-*), Lar, Añ (G, AN), HeH Voc, Dv, H), **gaitzuru** (AN-gip-egüés, BN, S, R; Aq 14 (R), Arch ms. (ap. DRA), HeH Voc, Gèze, Ith 44, H, StJayme (BN, ap. DRA)), **gaitziru** (B, S; SP), **graitzu** (Sal; ZMoso 66), **gaitzui** (S), **gaizuru**, **gaiziru**. Ref.: A (*gaitzeru*, *gaitzuru*, *gaitziru*, *graitzu*); A Apend (*graitzu*); Lh (*gaitzirü*, *gaitzuru*); Giese MolinS 623; Iz R 403, Ulz (*gaitzéru*); Lrq (*gaitzuru*); Izeta BHizt (*gaitziru*); Gte Erd 195. ♣Cuartal (medida de capacidad para grano y frutos secos); celemin (en textos bíblicos).



Fruiz (1982)

Zeruak eta lurrak	egin zituena
memorie argitzen	nator neu zeugana.
Esperantza badeukat	berorrek emana
kunpliduko dedala	deseo dedana. [Arejita & al., 114]

Aulesti (1984)

Zeruak eta lurrak	egin zituanak
Memoria argitzen	atoz niregana.
Esperantza badaukat	zerorrek emana,
Kunplituko dedala	desio dedana. [Arejita & al., 117]

Bertso-papera (c.1860)

Ceruac eta lurrac /	eguin zituana /
memoriya arguitzen /	atoz ni regana. / [sic]
esperanza badaucat /	cedorrec emana /
cumplituco dedala /	desio dedana. [Donostiyan, Pozo-ren moldizkiran]

A.X.-ak Euskaltzaindiak, *Euskal-kantak* (Bilbao 1960) dauka iturri gisara. Fruizekoa 1982an eginiko biltze-lanean Katalina Sagastiren ahotik hartua da, eta Aulestikoa 1984an Maria Juana Uriguen-engandik jaso. Eta Pozo-ren moldiztegiak Donostian 1860.urte inguruan funtzionatzen bazegoen garbi dago Sebero Iturrino mutrikuarrak ipinitako BERSO BERRIAC AMORIYO FIÑARENAC<sup>25</sup> hedadura aski handia izan zutela eta ez bakarrik Gipuzkoan, zeren Gernikako Imp. Artística de Goitia y Hormaecha-k aldaera oso txikiz honelako titulua ipini zion: *Marquesaren Alabaren Bertso Berriac*.

Edizio bat egiterakoan ene ustez lehenetsi beharko litzatekeela bertso-papera, oinoharretan, noski, aipatuz nola bilakatu diren *Mendebaldeko Euskal Baladak* bezala, egun interneten musika talde ezberdinen bertso ezberdinak entzun daitezkeela eta antzerki ere bilakatu izan dela<sup>26</sup>...

Zavalak garbi uzten du gainera zein izan daitekeen bertso-paperean iturria, alegia, gaztelaniazko literaturan ospetsua den *Los amantes de*

<sup>25</sup> KM kulturunea, C-563 F-34.

<sup>26</sup> ETXAIDE, Jon, «Markesaren alaba». EGAN, Donostia 1958, 265-299.

*Teruel*<sup>27</sup> leienda, zeini buruz idatzi dituzten Pérez de Montalban, Tirso de Molina, Hartzenbusch eta Tomás Bretonek besteen artean poemak, antzerkiak eta opera. Bestalde ezaguna da ere gaiak baduela XIV. mendeko etorki ospetsua, hots, Boccaccioren *Il Decamerone*-ko *Gerolamo eta Salvestraren ixtorioa*. Baina kasu honetan alderantzizkoak ziren aberastasunak. Gerolamo zen aberatsa eta Salvestra, sastre pobre baten alaba.

7. Eta Lakarrak & al., ematen dutenean antologiaren amaieran FI, FII bezala *Balada apokrifoa*k bezala *Altabizkarko kantua* eta *Leloren kanta*, ongi dagoela esan behar dugu sail hori berezitzea, eta sail horretan beharko lukeela adibidez joan *Romances históricos* bezala lehen sailean Zavalak aipatzen duen *Gainkoak deizula egun on*, (1998:83-88) zeina *Urthubiako alaba*-ren kanta apokrifoa den, halaberetsu gertatzen dena *Domingoren eresia*-rekin<sup>28</sup>. Biok erabat noblekoak. Hala nola Chaho eta Hiribarren artean moldatu zuten *Annibalen kantua*<sup>29</sup>. Edota Klaudio Otaegik asmatu *Beotibarko kanta*<sup>30</sup>, hainbestetan Lurdes Iriondok kantatua, zeinetaz Cid-ek esaten digun:

El hecho de que tales baladas populares resultasen falsas, no resta nada a la influencia efectiva que tuvieron en muchos casos para dignificar las lenguas y culturas de varias de las naciones sin Estado<sup>31</sup>.

8. Irizpide modernoz eginikoa da *Euskal Baladak* (1983), noski, baladen geografia ikertuz, dialektoak aztertuz eta mapak eginez. Halere hitzaurrean kontraesanik bada, zeren lehenik badiote *erlijiozko gaiak hain dira ugari non banaka batzuz baizik ez ditugu sartu* (8. or.) geroxeago diote *gaien zerrenda exhaustiboa egitea izan da gure asmoa*, (9. or.). Asmoa asmo gelditu zitzaizela esan behar, hain garrantzizkoak ohi diren doinuak, esate baterako, beste

<sup>27</sup> ZAVALA, Antonio, «Terueleko maitaleak eta Markesaren Alabaren bertsoak», *Auspoaren auspoa IV (Itzaldia / conferencias)*. Auspoa, Donostia 2006, 275-279.

<sup>28</sup> URKIZU, Patri, «Apokrifoen eta kritikarien saltsa-maltsez», *Balada zaharrez*. Erein, Donostia 2005, 17-39.

<sup>29</sup> URKIZU, Patri, *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak 1811-1858*. Euskaltzaindia. BBK, Bilbao, 1992, 63-64.

<sup>30</sup> URKIZU, Patri & AZURMENDI, Xabier, «Beotibar'ko kanta», *Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890)*, Donostia, Etor, 1991, 99.

<sup>31</sup> CID, Jesús Antonio, Aip. art., 74.

zenbait antologiatan ageri direnak falta baitzaizkie. Bestalde, zenbait ortografia erratez eta akatsez gain aurkibidea ez da oso argia, eta forma aldetik baladen aurkezpenak badu hobetzekorik.

Neurtitzak aurkezterakoan Hegoaldeko ohitura eta jaidurari jarraiki izan diote, adibidez, hiru bertsolerroz zegoena etorkizko antologian lau bertsolerrotan eman dute, hala nola, *Haltzak ez dü bihotzik...*<sup>32</sup>; edota *Goizian goizik jeiki nüündüzün espusa nintzan goizian ...*<sup>33</sup> laukoa zortzikotan. Nire aldetik Iparraldeko ohitura gogokoago dut.

9. Halaber A.XIV. PULUNPA tituluz ageri zaiguna eta Michelen liburutik hartua (348-352), laukoa zortzikotan ematen da, baina 15. bertsoa seikoan ageri da. Bertsolerro batek ihesi egin zion Micheli eta hau kopiatu dutenei, baina Goitiñori esker, alegia, 1894eko uztailaren 28an plazaratu *California-ko Eskual Herria Berriketariari* esker badakigu zein den falta zen bertsolerro hori: *Eskual herriaz oroitzean nigarretan urturik*. Horrela bada Léopoldina-Rosaren hondoratzeaz Jean Etcheto «Katxo»-k 1842an egindako kanta osaturik dauka. Honek ematen digu pentsatzera Goitiñok ziuraski bere aldizkarirako erabili ohi zuena galdu edota iritsi ez zaigun bertso-paper moldiztegitua izanen zela. Beraz, nire ustez hobeto litzateke eman beharrean

*Frantziatik jin ginen  
zer nahi den gostarik,  
ginituien erresursa  
guzia xahaturik:  
Montebideon gira orai  
xagrinez aberasturik.*

(Lakarra et al., 244)

Goytiñoren arabera ematea:

*Frantziatik jin ginen zer nahi den gostarik,  
Ginituien erresursa guzia xahaturik:*

<sup>32</sup> KKK 142.

<sup>33</sup> SALLABERRY, Jean D-J., *Chants populaires du Pays Basque*, Veuve Lamoignon, Bayonne 1870,190.

Monte-Bideon gira orai xangrinez aberasturik,  
Eskual herriaz oroitzean nigarretan urturik<sup>34</sup>.

10. *Urkamendiko baladak* sailari dagokionez eta Xabier Kaltzakortak<sup>35</sup> bereziki bilduma exhaustiborik egin ez arren aski artikulu interesgarria gaiaz egiten duena osatuz nire bilduma oraindik argitaragabea burutu dut berrogei kanta asko oraindik ezagunabe edo gutxi ezagunak direnekin<sup>36</sup>. Eta berrogei kanta hauetarik hamarren batek bakarrik ez dute egile ezaguna. Hauei buruz Orixek honakoa zioen «Los reos poetas» artikuluan<sup>37</sup>:

*En nuestra siempre desdeñada y no bien conocida literatura popular se cultivó hasta nuestros días un género de poesía, cuyas muestras se echan de menos en nuestros cancioneros. Hemos alcanzado la tradición, que en nosotros se interrumpe y desaparece definitivamente, de que los más insig- nes criminales, los destinados al cadalso, cantaran el arrepentimiento de sus crímenes en verso, construído por ellos mismos.*

Jenero berezitzat jotzen du, beraz, Orixek hiltzaileek berek moldatu omen bertsoak kantatzen zituztenak; baina honi buruz beste erara pentsatzen du Julio Caro Barojak, honakoa baitio:

*Desde un punto de vista literario o ideológico no cabe duda de que la Literatura popular sobre crímenes no está escrita, en su mayor parte, por criminales y lo que refleja no son tanto hechos reales debidos a aquellos como conceptos válidos en una sociedad popular, o admitidos por una parte considerable de aquella. Los cantos sardos, corsos o sicilianos recogidos por Bouillier, Tommaseo y, sobre todo, Pitré, son producto de una sociedad entera, no de unos criminales dedicados a la versificación, salvo en casos contados<sup>38</sup>.*

Hitz hauek ere zenbait gogoeta merezi dute. Badakigu Heriotza eta Literaturak, harreman zuzenak izan dituztela mendeetan zehar. Joseph Le

<sup>34</sup> California-ko Eskual Herria berriketaria, San Francisco. 1894-VII-24.

<sup>35</sup> KALTZAKORTA, Xabier, «Bertsojarrietatik ahozkoa (Urkabe-bertsoak euskaraz. Estudiante gaztearenak eta beste)». Internet.www.mendebalde.com...

<sup>36</sup> URKIZU, Patri, *Urkamendiko baladak*. Donostia 2010. Argitaragabea.

<sup>37</sup> ORMAETXEA, Nicolás, «Los reos poetas», EUZKADI, 1927, nº 4551.

<sup>38</sup> CARO BAROJA, Julio, *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid 1969, 148.

Floch-ek<sup>39</sup> dioskunez, mendebaldeko hirietako kaleetan zehar kantari ibiltzen ohi ziren bertso saltzaileak juglarren ondorengotzat har ditzakegu. Eta kantatzearekin batera saltzen zituzten bertso-papera era orotarikoak zitezkeen: gerra kantak, amodiozkoak, kantikak, noelak, santuen bizitzak, irri eta ziri egitekoak, urkamendi eta gilotinako ixtorioak kontatzen zituztenak...

Azken hauetan arreta pixkat paratuz ohartuko gara jada XI. mendean *Codex Calixtinus*-ean aipatzen zaigula *Urkatuaren Miraria*, zein XIII. mendean Alfonso X. jakitunak bere *Cantigas a Nuestra Señora* liburu ospetsuan jadanik jasotzen duen. XV. mendeko bukaeran moldatu zituela François Villon poetak bere *épitaphe* edo *ballade des pendus* ospetsua eta XVI. mende bukaeran, 1587an hain zuzen, Maria Stuart hil zutenean, historialariak dienez Parise beterik zegoela gertakizun triste hari buruzko bertso-paperez, *pasquils [complaints], placards, tombeaux et discours sur cette morte violent voloient...*

Aidean zebiltzan bertso-papera, eta hori dela eta frantsesek izen hori emango diete, hain zuzen: *feuilles volantes*...Espainian hedatu ohi zen deitura, *pliegos de cordel* izan zen, edota *romances de ciego*, eta jada XVI. mendeaz geroztik hilketak eta gertaera odoltsuak kontatzen zituztenak ere ez ziren gutxi<sup>40</sup>.

XVIII. mendean Louis-Sébastien Mercier-ek Pariseko ikuskari ospetsu batean kale kantariei buruzko honako irudia utziko digu:

*Un parricide, un empoisonneur, un assassin, le lendemain, que dis-je, dès le jour même de leur supplice, enfantent des complaints qui ont chantées dans tous les carrefours et composées par les chanteurs du Pont-Neuf.*<sup>41</sup>

<sup>39</sup> LE FLOCH, Joseph, «Chanteurs de rue et complaints judiciaires. Quelques remarques à propos des complaints françaises», *Histoire et justice, Panoram de la recherche. Le Temps de l'Histoire*, nov. 2001, 155-168.

<sup>40</sup> Anónimo: «Coplas hechas sobre un caso acontecido en Yerez de la Frontera de un hombre que mató a 22 personas.», s. XVI. Ik: Carolina LECOQ, 1988, «Los pliegos de cordel» en *las bibliotecas de Paris*. Madrid: Printing Books, s.a., 72.

<sup>41</sup> *Tableau de Paris*, 1788. (Paris: Horizons de France, 1947, 156.)

Alegia, aita hiltzaile, pozointzale eta bestek, hitz batean asesinoek beren zigor egunetik bertatik izaten ohi zituztela plaza, merkatu eta bide gurutzetan beren bitzita tragikoak kontatzen zituzten kantak.

Euskal Herrian ere ez ziren ezezagunak honelako kantak, horixe baitio Francisque Michelek bederen, *comme ailleurs, les complaints composées dans le Pays Basque à l'occasion de crimes célèbres et du supplice de leurs auteurs sont en grand nombre*<sup>42</sup>, hots, ugariak zirela ere gurean hilketen ondoren urkamendiko edo gilotinako zigorraren okasiorako moldatzen ohi ziren bertsoak eta kantak. Hauxe dio 1857an Michelek, baina tamalez oso gutxi iritsi zaizkigu arruntak ziren bertso haietarik. Hamar bakarrik dira data horren aitzonekoak.

Kantu hauek antzerki ohikoen arabera, hitzaurre moduan moldatu bertso-formula batzuekin hasten dira (Pastoraletan *Lehen Pheredikiek* bete ohi duten funtzio berdinez). Gero kontakizuna edo ixtorioa dator, krimena edo hilketak, –maiz gertatzen zen bezala bat baino gehiago zirenean–, alegia, ekintza. Eta azken hitzarekin (edo *Azken Pheredikia*), bukatzen dira, non ekintza odoltsuari darraion zigor esenplu emailea ageriko den, azpimarratuz ixtorioari dagokion ikaskizuna.

Michel Leclerc, Pont-Neuf-eko kantaria izan zen Parisen XVIII. mendean konplaintegileen artean ospetsuenetakoa. Honen kanta zenbait aipatzearen hor daude, 1757ko *Damiens-en kondemnazioea*, Louis XV.ari aitzo kolpe batez hiltzen saiatzeagatik, eta 1777ko *Desrués-en etsekuzioea* Grèveko Plazan. Egun honetan prezizki, hiru kanta berri agertu ziren Lenoir polizia buruaren baimenarekin Valleyre moldiztegian inprimaturik.

Jean Baptiste Orpustan<sup>43</sup> ikerlearen arabera, Borthegaray urkamendira doaneko kanta, Lambert apaiza, *vulgo Belça*, hiltzeagatik 1723. urte ingurukoa litzateke, eta beraz, iritsi zaigun tradizio honen lehenetarikotzat jo dezakegu, Berdabioren ixtorioa hamazazpi urte geroagokoa baita, hots,

<sup>42</sup> MICHEL, Francisque, *Le Pays Basque...* Paris: F. Didot, 1857, 423.

<sup>43</sup> ORPUSTAN, Jean Baptiste, «La chanson de Borthagaray» «Urzaiz», *La vallée d'Ossés en Basse-Navarre. Orzaizeko Ibarra. Bidarray, Ossés, Saint-Martin-d'Arrossa*. Baigorri: Ed. Izpegi, 2002, 265-273.

1740aren ingurukoa. Berriki Patziku Perurenak ixtorioaren inguruko xehe-tasun guztiak liburu eder batean<sup>44</sup> bildu dizkigu.

Frantzia Iraultza garaian zertxobait gutxiagotu ziren arren krimen ta zorigaitzen gainean moldatu kantak, XIX. mendean berriro ugaritu egin ziren. Pariseko Liburutegi Nazionalean milaka *complainte* aurki daitezke frantsesez. Hauen artean, gutxi batzuk euskaraz, oso gutxi gure gogorako, baina ez horregatik zokoratu edo baztertu beharrak, esan nahi digunak oroi-tzen baditugu Michelen hitzak anitz galdu direla bidean.

Kanta hauek topikoz eta formulez josiak daude, eta Frédéric Chauvaud-ek<sup>45</sup> azpimarratzen digunez, botereak bere ideologia propioa hedatzeko eta zabaltzeko erabiltzen zituen. Gizartearen natura orokorra baieztatzeko, moralaren garrantzia indartzeko eta betidaniko Ongiaren eta Gaizkiaren arteko borrokaz aritzeko. Noski, Boterearen eta Justiziaren ekintza eredugarriak argi eta garbi uzteko, eta honetarako heriotza zigorra, gilotina ohi zen erabiliko Frantzia XVIII. mende bukaeraz geroztik –heriotze zigorra goxatzearen, antza– eta Espainian urkamendia edota garrote *vil* delakoa.

Jean Michel Moreau eta Ernest Schnaiter-ek honela pintatzen digute XIX. mendeko konplainten kantaria. Ohol batera igoa, drama odoltsuaren ixtoria kontatzen diolarik inguratzen zitzaion jendetzari. Oihal handi bat dauka aurrez-aurre lau edo sei karratutan banatua, non hilketaren une ezberdinak ageri diren. Bertan hiltzaileak bere aizto beldurgarri zoro moduan ari da gizakiak hiltzen, eta biktinek begitarte izutua erakusten dute.

François du Sorbier<sup>46</sup> irakasleak Ingalaterrako biografia kriminala aurkezte-rakoan, hauen zabalkundea, bilakaera eta irakurlegoa ikertzen digu literatura ondorio hauetara iritsiz, alegia, kritikagintzan literatura klasikoa eta herrikoia-ren artean ezarri ohi diren mugak faltsuak direla eta hautsi beharrezko, berei-zketa hau azterketa sakon batek ezabatu egiten baitigu. Gaizkileak produkzio

<sup>44</sup> PERURENA, Patziku, *Goizuetan bada gizon bat... Trabukoren kantako misterioak*. Alberdania, Irun 2010.

<sup>45</sup> LE FLOCH, Joseph, aip. art., 101.

<sup>46</sup> SORBIER, Françoise du, «La biographie criminelle anglaise», *Dix-huitième siècle. Littératures populaires*. Paris: PU., 1986, 167.

idatzian XVIII. mendean, eta geroago ere bai, leku garrantzitsu eta nabarmena hartzen duela egunkarietako ixtorioetan, aitorpenetan, Justiziaren epai-erabakietan, hiltzaileen ixtorio- bildumetan, eta bestetan. Nork ez du ezagutzen, adibidez, Defoeren eleberrietariko baten heroina den *Moll Flanders* andrea?

Jean-Pierre Seguin-ek<sup>47</sup> bere aldetik dioskunez, kanta hauetan hainbeste aipatzen da Antzinatea eta erlijioa eta hain da handia exenplu emaitaren gogoia koplariaren baitan, ezen hilketaren ixtorioa kontatzeari aski leku gutxi uzten dion, eta halaber honelako kantak lekuko aparta direla herri mentalitateak aztertzeke eta ezagutzeko.

Eta Daniel Giraudon-ek<sup>48</sup> Bretañan hiltzaileen inguruan sorturiko baladak, –berrogeita hamarren bat–, aztertzerakoan honako ondorioetara iristen da. Alegia, ikus dezakegula nola bertso-paper horiek erantzun ahal izan dioten frantsesez gutxi alfabetizatua den entzule eta hartzaileari, baina bere txokotik eta bakardadetik atera eta kanpoan zer gertatzen den ere jakin nahi duenari.

XIX. mendean erruz eta modu nabarmenez zabaltzen ari den prentsa, egunkari eta astekarietan elikatzen dela koplakaria. Egunerokotasunean aurkitzen dituela albisteak, batez ere krimenen ingurukoak, bai baitaki bere entzuleak oso gogoko dituela gai tragikoak. Eta azkenik mezuak ez direla bature iraultzaileak, kontserbadoreak baizik, aginte zibil eta erlijiosoak inposatuak noski. Areago oraindik, gertaera tragikoak tratatzeko modu berezi horren bitartez bi sotesan saldu bertso-paperekin saiatu izan dela eta ahalegindu bere neurri apalean garaiko bortizkeria eta hilketen kontrako borrokan.

Euskal urkamendiko baladegileen artean bada bat bereziki gaian espezializatu zena, Jean Etchepare donapaleutarra. Honek bederen hamahiru euskaraz eta hamabi frantsesez idatzi zituen 1873etik 1889ko epean. Konplain-tegilea dugu, alegia, tragedien berri ematen duena, inondazioneak,

---

<sup>47</sup> SEGUIN, Jean-Pierre, «Canards»: une succession ouverte», *La Bibliothèque bleue & les littératures de colportage*. Ed. Thierry Delcourt & Elisabeth Parinet, Paris: École de chartes, 2000, 185-193.

<sup>48</sup> GIRAUDON, Daniel, «Complaintes criminelles sur feuilles volantes au XIXe siècle en Basse-Bretagne», *Violence et société en Bretagne et dans les pays celtiques*. Ed. Jean-Yves Carluier, Brest: Centre de Recherche Bretonne et Celtique, 2000, 169-198.



itsasuntzien ondoratzeak, baina batez ere kriminalen koplaria dugu Etchepare. Hitz lauz eta modu xume batez ematen dizkigun asasinamenduen **explikazioniak** direla eta, esan dezakegu frantsesez deitu **canard**, euskal ixtorio beltzen kontakizunetarako bidean saiotxo bat direla eta aitzindari dugula gure literaturaren esparruan. Eta kontutan hartzen badugu non inprimatu ziren bertso-paperoak (Baiona, Orthez, Akize, Pabe, Foix...) eta euskaraz ez ezik frantsesez ere idazten eta moldiztegiarazten zituela gaiztaginen kontrako eta onbidearen aldeko konplaintok, bere mezua ez zen mugatu Ipar Euskal Herrira soilik, Pirineoko beste herrialdeetan ere barreiatu bide zen<sup>49</sup>.

11. Beste kasu batean, esate baterako, Beholako guardaren hilketa kontatzen den baladan, badakigu Jean Moulier «Oxobi»rena dela eta 1922an jada *Euskaldun Kantariak* liburuxkan moldiztegiatua. Kasu honetan, ordea, interesgarria da nola herri memorioak aldatzen dituen kantak eta hitzak. Ikustea nola konprenitzen ez dituenean zenbait hitz bere kasara asmatzen dituen. Adibidez, mila bederatzirehun eta hogeitabiko edizioan kantak honela diosku:

Gauak ardura Otsailean hotz,  
aurten hegoa maiz hari:  
Adanak lore, mertchikak ere  
aitzinka primaderari ...<sup>50</sup>

Ohiko diren naturari eskaini lirika bertsoak, –Manuel Lekuonak dekoraziozko poesia deitzen zuena–, tartekatzerakoan trajerian, ordea, kantariak ez bide ditu konprenitu, edo ahantzi egin ditu, kasu honetan Pierrot Bordak, eta beste honakoak asmatu dizkigu:

Gauak ardura hotz,  
aurten negua maiz ari,  
Mertxikak lore andanak ere  
aitzinka primaderari.

<sup>49</sup> URKIZU, Patri, «Jean Etchepare. Konplaintak (1873-1889)». *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. UNED, Madrid, 2010, XV, 171-229. [www.e-spacio.uned.es...](http://www.e-spacio.uned.es...)

<sup>50</sup> URKIZU, Patri (Ed.), *Senpereko Kantu Xaharrak. Oxtikenekoak* Kultur Elkartea. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2001, 15.

Non ikusten dugun *hegoa* hitzak *negua* eman duela eta *adanak* (edo aranak) *andanak* bilakatu dela zentzua aldatuz. Gure ustez garbi dago ematekotan testu bat, lehena beharko genukeela inprimatu, hots, 1922koa eta ez 2000ko ediziokoa.

12. Cid irakasleak aipatu artikuluan<sup>51</sup> honakoa dio:

*En el estudio global sobre la tradición vasca habrá que tenerse en cuenta, al menos como hipótesis, la existencia, en los siglos XVIII y XIX, de una especie de moderna «juglaría» (tan distante del bertsolarismo como de la poesía culta o semiculta que por entonces se cultivaba), que actúa en la parte francesa del país y no tiene correspondencia en las provincias meridionales.*

Jean Etcheparek eta bere emazteak plazetan kantaturiko eta saldutako bertso-paperei «moderna *juglaría*» dei ote diezaiekegu? Baliteke, baina hain urrun ote daude hauen kantak bertsolaritzatik, edota zenbait bertsolari ospetsuk moldiztegirarazten zituzten kantetik?

Bestalde oinohar batean esaten digu geroxeago: *Según Juaristi, es posible que algunas baladas francesas pasaran al vasco a través de versiones gasconas o bearnesas. La hipótesis es ciertamente plausible y lógica, pero no conocemos ningún caso concreto en que ello pueda probarse*<sup>52</sup>.

Geuk ere ez, zeren ikusi eta aztertu ditugun adibideetan<sup>53</sup> beti bazen etorkian edo paraleloki bertsio frantsesa, baina ez biarnesa.

Honen ondoren baladen konparazioak direla eta Cid-ek hauxe dio:

*En contraste con esta abundancia de conexiones, a la vez temáticas y genéticas, de la balada vasca con la francesa y catalana, no deja de ser sorprendente el que no exista – como ya indicábamos – ni un solo tema baladístico vasco que dependa del Romancero castellano. Incluso cuando existe coincidencia «argumental» en los temas vasco y castellano, se trata de tipos de balada por completo distintos, y es descartable cualquier relación genética entre una y otra balada*<sup>54</sup>.

<sup>51</sup> Aip. Art., 88.

<sup>52</sup> Aip. Art. 89.

<sup>53</sup> URKIZU, Patri, «Itzulpen eta moldatze moduez», *Balada zaharrez*, 2005, 39-64).

<sup>54</sup> Aip. Art., 90.

12. Ez nago ni hemen dioenaz hain seguru, eta adibide bat emango dut kontrajarriz. Hots, **Laxaro Perurenarena**. Bertsoegile honen berri Patziku Perurenak ematen digu, Antonia eta soldatu haurjaleak deritzan gaiari buruzko bertsoen paratzaile bezala. Extremaduran gertaturikoa 1848an<sup>55</sup>, eta Laxarok moldatu zuena bere kasa<sup>56</sup>. Data ez dakigu zehazki, baina bigarren bertsoerloan, *Oain dela eunda larogei urte Extremaduran pasea*, dio, eta gure kalkuluak onak badira *eunda* delako hitza soberan da eta 1928. urtean geundeke.

Aiarreko Laxaro Perurenaren kasuan honaxekoa dio Patziku Perurenak<sup>57</sup>: *Gertakari izugarri honi buruzko kronika edo nobela gisakoren bat izan behar du espainolez argitaratua, baina ez dut zuztarrenik inon bilatu; saiatu ere ez asko, egia esan.*

Iturriarekin topo egin baikenuen, guri, ordea, interesgarria iruditu zaigu konparatzea bertsoen bat edo beste ikusteko bertsolariaren antzea. Hona adibidetxoa:

[...] *Serían como las ocho, llaman los cuatro a la puerta,  
Abre la Antonia y entraron con muchísima cautela,  
Diciendo no hacer ruido porque alguien no nos sienta.  
Se meten en la cocina, empiezan a partir leña,  
Ponen la sarten al fuego y con aceite la llenan.  
Llama Francisco a la Antonia que estaba dando teta  
A su desgraciada hija, y al instante se presenta.  
¿Qué es lo que quieres, Francisco? Qué he de querer, considera,  
Quiero que estés con nosotros y disfrutes de la fiesta;  
Y tomándole la niña, al momento la degüella,  
Sin que la infeliz madre el libertarla pudiera*<sup>58</sup>.

<sup>55</sup> HORROROSO ATENTADO *que han cometido cuatro desalmados en una aldea de la provincia de Estramadura con una tierna niña de diez meses, á 16 de enero de este presente año de 1848.* Imprenta de Cristobal Miro, calle de Arrepentidas, núm. 5 tienda. Madrid, Autor: Duart. (SEGURA, Isabel, *Romances horrorosos. Selección de romances de ciego que dan cuenta de crímenes verídicos, atrocidades y otras miserias humanas.* Alta Fulla, Barcelona 1984, 49-52.)

<sup>56</sup> ZUBIRI, J.J. & PERURENA, P., *Goizueta eta Aranoko hizkerak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1998, 212.

<sup>57</sup> ZUBIRI, J.J. & PERURENA, P., *Goizueta eta Aranoko hizkerak*. Nafarroako gobernua, Iruñea 1998, 211.

<sup>58</sup> Op. cit., 50-51.

Eta euskaraz hona moldaketa:

*Andreagana lau lagun joanda, atean zaizkio jarri,  
Esanez: «Ola Antoniatxo! Atoz beraño zerorri.  
Notizi onik etzakartela, abudo zion igarri.  
«Jose Frantzisko il zala baña. Ara bizirik etorri!»  
Atea ireki zuan andreak; ta lau lagun ziran sartu.  
Ta bularrean zeukan aurra bereala zion kendu.  
Lepoa moztu, tajadak egin, gero prijitzzen paratu  
Afari on bat guztientzako biar zutela plantatu.*

Garbi dago Duartekek idatzi gaztelaniazko lau orridaldeko plegua euskaraz hamaika bertsoan emateko bere labur beharra eta lakonismoa erabili behar izan dituela Aiarreko Laxarok.

13. Eta hona zer dioen Antonio Zavalak<sup>59</sup> Eibarko hilketaz Patxi Erauskinen moldatu bertso paperaz:

*Eibar'ko eriotza onetzaz zerbait geiago ikastearren, garai artako periodikoak zer zioten irakurtzea on litzakela iduritu zitzaigun. Donosti'ko La Voz de Guipúzcoa eskatu ta aztertu genduan. Onek diona urrengotan arkituko du irakurleak. Bertsolariak dionarekin, oso batera dator. Dударик gabe, Erauskin'ek periodikoren batetik, eta bearbada onetxetatik, artuko zituana bere esatekoak. Egiten duana auxe da: periodikoak erderaz eta itz-lauz esaten duana, berak euskeraz eta bertsoan jarri.*

*Ori ikusita zera batez oartu giñan. Garai hatean, antziñako denboretan alegia, bertsolariak berak ikusita edo besteren bati entzunda ikasten zuan gertaeraren berri, eta besterik gabe bertsoak jarri.*

*Baiñan gero, periodikoak ugaldu ziranean, auetatik asi zan esatekoak ateratzen, gai askotarako beintzat. Alegia, periodikoa jarri zan gertaera eta bertsolariaren tarteetan. Inor oartu gabe egin bazan ere, aldaketa aundia izan zan ori bertsolaritzarako. Geroztik, berriz, bitarteko berriak sortu dira, irratia eta telebisioa batik-bat.*

Beraz, garai batean ahoz-ahoko tradizioaren lekuko zuzenak baziren koplariak, denboraren poderioz eta kazetaritzaren eraginez, batez ere XIX.

<sup>59</sup> ZAVALA, Antonio, *Patxi Erauskin bertsolaria (1874-1945)*, II. Auspoa 131, Donostia 1978, 15.

mendean eta XX. mendeko lehen partean hauetarik hartzen zituztela gaiak beren bertso-paperak burutu, moldatu eta gauzatzeko. Eta Iparraldean frantsetik zen bezala, Hegoaldean gaztelaniatik hartzen zutelakoan nago, besterik gabe.

Galdera xume bat datorkit burura? Zein da lehenago garaiotan bertso-papera ala kanta? Zavalak dioskunez:

*Erri-literatura geienetan berdin getatu da. Aozkoak izan ziran asiera batean, eta paperera gero pasa. Batzuek lenago, besteak geroago eman zuten pauso ori. [...] Berdin esan genezake beste poesia-mota askorengatik ere. Adibidez, koplak zaarrak, errondakoak, trikiti-dantzarakoak, aurrak, seaskakoak eta beste asko eta asko. Auek oso gutxitan atera izan dira bertso-paperetan. Azkue'ren kantutegia artu besterik ez dago<sup>60</sup>.*

Baina ikus dezagun itsasoko tragediari buruzko kanta bat. Azkuek<sup>61</sup> gure itsasuntzi honen tragediari buruz moldatu zen kanta baten bertso pare bat jaso zuen Ziburun, *Bordeletik joan ginen...* bertsoleerroaz hasten dena, baina guk hamasei bertso-tako bertso-papera, SAINT-PAULGO GIZAJALEAK deitu duguna<sup>62</sup> eta honen hitzaurrea prosaz aurkitu dugu. Historia triste hau ere bere aldetik jaso zuen *Journal des Instituteurs* delakoak<sup>63</sup>, Dupré jaunak Ministroari zuzendu gutun batekin, non konparatzen duen Méduse-ren hondoratzearekin, eta non Bernier, bigarren kapitainaren txostena ere ematen den.

Halaberetsu **Jean Etchepare** donapaleutar koplariak<sup>64</sup> krimenei buruzko baladez aparte bi kantu ezberdin moldatu zituen naturak eragin zorigaitzen gainean, hau da, bat 1873an gertatu **VILLE DU HAVRE**-ren hondoratzea

<sup>60</sup> ZAVALA, Antonio, «Bertso-paperak», *Auspoaren auspoa I (Itzaldia / conferencias)*. Auspoa 238, Oartzun 1996, 323-350.

<sup>61</sup> AZKUE, Resurrección M. de, *Cancionero popular Vasco*. Bilbao, 1923, nº 621, T. II, 748.

<sup>62</sup> Kantu Berria, 1868. *Un horrible repas*. Bayonne, Imprimerie, E. Lasserre, Rue Orbe 20. BNP, Z Basque nº 905.

<sup>63</sup> *Journal des instituteurs des écoles normales primaires, des classes d'adultes et des salles d'asile. Recueil hebdomadaire*, Paris, nº 15, 12 avril 1868, 198-199.

<sup>64</sup> URKIZU, Patri, *Jean Etchepare koplariaren konplamtak, 1873-1890*. Ik. 49. oharra.

kontatzen diguna<sup>65</sup>, lainoek eta ekaitzak eragina, non 226 *pasajers ithorik* bukatu zituzten beren egunak, eta bestea 1875eko *inondazioneak*, uholde izugarriak aipatzen dituena.

Aita Donostiak<sup>66</sup> Saran kanta honen bi bertasio jaso zituen (n<sup>o</sup> 1007, n<sup>o</sup> 1008), baina Etcheparek moldatu eta senar-emazteek kantatzen zuten hamabi bertso 1876ko bertsiotik 1913ra soilik bi bertso kanta iritsi ziren, bi bertsiotan. Bata, Maria Agerre Lehetchipikoaren ahotik jaso ahal izan zuena 1912ko urriaren 30ean eta bestea, bertako neskamearenetik 1913ko urtarrilaren 15ean. Hona hemen denboraren poderioz sorturiko aldaketak:

Jean Etchepare (1876)

1. Untzi bat galdu zauku itsaso handian,  
Berrehun bat pasajers juan da barnian,  
Heiagora, marraska bazen han ordian,  
Jaunari gomendatuz azken orenian.

[...]

6. Untziko kapitaina oihuka hasi zen,  
Jenden kontserbatzeko baxetak non ziren?  
Hiruretarik biga hautsiak baitziren,  
Ororen salbatzeko bat baizikan etzen.

Marie Agerre (1912)

1. Untzi bat galdu zauku itsaso handian,  
Berrehun bat *pasajer baziren* barnian,  
*Heien gora marraskak han ziren orduian*,  
Jaunari *komendatuz* azken orenian.
2. Untziko kapitaina oihuka ari zen,  
*Jende hoikien salbatzeko baxerak* non ziren?  
*Hiruetarik bia* galduak baitziren,  
*Jende hoikien salbatzeko bat baizik han* etzen.

<sup>65</sup> 1876. M Fiche BNF, YO-2. COMPLAINTÉ sur l'épouvantable naufrage de la «Ville du Havre», *Le navire français percé par le navire anglais... 226 passagers ithoric...*

<sup>66</sup> DONOSTIA, P., *Cancionero Vasco*, T. VIII, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994, 1391-1393.

Lakarra et al.-ek (T.I, 112) balada dantzatuei buruz diote: *Ez dugu ordea honelako daturik Euskal Herriari dagokionez. Gure ustez Mur de Iharasarri gaitzat duena litzateke hauetariko bat, adibidez*<sup>67</sup>.

Halaber Kalzakortak *Dantza-kopla zaharrak* liburuan<sup>68</sup> xorta ederra bildu digu, baina zuzenketatxo bat egin nahi nioke, *pro domo*. Konprenituko du ongi nire sorterriko idazleak defenditzea. Iristen denean XXII. KOPLA ASMATUAK EDO AUTOREDUN KOPLAK kapitulura, honela hasten da:

*Kopla asmatuak biltzen dituzten hiru sail ekarriko ditut oraingo atal honetara. Lehen saileko aleak Iruzubi delako batek asmatuak dira. Markinako Iruzubieta auzokoa izan behar zuen ezizen hori erabili zuenak.*

*Iruzubi* hori ez da markinarra, noski, lezoarra baizik. Hots, Daniel Garbizu da (Lezo 1897 – Herrera 1984), «Zubigar» poeta eta «Tege» Tomas Garbizu musikariaren anaia, alegia, eta hiru anaien euskal lan zenbait bildu genituen Patxi Intxaurrendieta eta neuk<sup>69</sup>. Argibide honen ondoren trikiti bertso baten transkripzioak konpara ditzagun:

- a) Arpegian naikoa  
badabilki autsa,  
*ezpal goriak eta*  
*lepua beltz beltza.* ( Kalzakorta: 2007-304)
- b) Arpegian, naikoa  
badabilki antza,  
*ezpain gorriyak eta*  
*lepua beltz beltza.* (Urkizu et alt.: 1991-395)

Garbi dago moldiztegiko akatsak eta grafiak zuzenduz bien arteko batuketara litzatekeela trikiti zuzena:

<sup>67</sup> URKIZU, Patri, *Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak*, I, Etor, Donostia 1991, 415-416.

<sup>68</sup> KALZAKORTA ELORZA, Jabier, *Dantza-kopla zaharrak*. Laratz- Ahozko literatura bilduma 6. La-bayru, BBK, Bilbao 2007.

<sup>69</sup> URKIZU, Patri & INTXAURRENDIETA, Patxi, *Garbizu anaiak. «Zubigar», «Iruzubi», «Tege», 1921-1936*. Lezoko Udala 1991.

- c) Arpegian naikoa  
badabilki autsa,  
ezpain gorriyak eta  
lepua beltz beltza.

14. Ondorioak. Hautatzekotan bertso bat hau zein irizpideren arabera hautatu eta nola transkribitu?

Eman dezagun ANTOLOGIA bost (edo sei) tomotan banatzen dela:

- I ERDI AROA ETA ERRENAZIMENDUA
- II XVII ETA XVIII MENDEAK
- III XIX MENDEA
- IV XX MENDEA: 1901-1950
- V XX MENDEA: 1951-2000
- (VI XXI MENDEA: 2001-2010)

Ene ustez bertso-paperen eta baladen kasuan bi ixtori ezberdin bailirate-ke moldiztegitratze irizpideak ere hala beharko luteke. Eta noski POESIA jeneroaren azpisail gisara ezarriko nituzke.

Bertso-paperen kasuan:

- a) Egile beraren eta poema beraren bertso-paper ezberdinak ageri badi-ra, bat hautatu beharko litzateke ANTOLOGIArako: Zaharrena. Eta oinoharretan agertu diren beste bertso-paperak eta aldaerak jaso, ho-nek emango bailiguke kantaren edo bertsoen hedadura.
- b) Egile ezaguna balitz honen biografia ttipi bat moldatu bil daitezkeen datuekin, sarrera gisara.
- d) Ahalik ohar guttienak, guztiz beharrezko direnak edo bederen soilik argigarri gerta daitezkeenak bai kontestua bai hizkuntza konpreni-tzeko. Alegia, esanahia.

Baladen kasuan:

- a) Gaika aurkeztu.
- b) Pan-Hispanikoen eta Pan-Europeoen balada korrespondentziak eta IGRH-eko zenbakia eman.



- c) Oharrak gaia Europako baladen tradizioan aurkeztuz, aldaerak adieraziz eta konparazioak eginez.
- d) Musika doinuak eman.

Eta ohar xumeok eztabaidarako balioko digutelakoan besterik ez oraingoz.

## Bibliografia

AREJITA, A. et al., 1995, *Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia*. Labayru Ikastegia. Bilbao Bizkaia Kutxa.

ARRIOLABENGOA, J., 2008, *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan. Testu zaharren ediziorako kontribuzioa*. Euskaltzaindia BBK, Bilbao.

AZKUE, R.M., 1923, *Cancionero popular Vasco*. Bilbao.

———, 1947, *Euskalerraren Yakintza (Literatura popular del País Vasco)*. Espasa-Calpe, Madrid.

CARO BAROJA, J., 1969, *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid

*California-ko Eskual Herria berriketaria*, San Francisco. 1894-VII-24.

CID, J.A., 2000, «Romancero hispánico y balada vasca», *Antonio Zavalaren ohoretan*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao, 69-101.

DONCIEUX, G., 1904, *Le Romancéro populaire de la France. Choix de chansons populaires françaises. Textes critiques*. Paris, Émile Bouillon.

DONOSTIA, P., 1994, *Cancionero Vasco*, Vs. VI-IX, Ed. P. Jorge Riezu, colaboradores Juan Mari Beltrán y Claudio Zudaire. Eusko Ikaskuntza, Donostia Eusko Ikaskuntza, Donostia.

GIRAUDON, D., 2000, «Complaintes criminelles sur feuilles volantes au XIXe siècle en Basse-Bretagne», *Violence et société en Bretagne et dans les pays celtiques*. Ed. Jean-Yves Carlier, Brest: Centre de Recherche Bretonne et Celtique, 169-198.

JUARISTI, J., 1989, *Flor de baladas vascas*. Colección Visor de Poesía. Madrid.

KALZAKORTA, J., 2007, *Dantza-kopla zaharrak*. Laratz- Ahozko literatura bilduma 6. Labayru, BBK, Bilbao.

KALTZAKORTA, X., «Bertsojarrietatik ahozkoa (Urkabe-bertsoak euskaraz. Estudiante gaztearenak eta beste». Internet.www.mendebalde.com...

KANTU BERRIA, 1868. *Un horrible repas*. Bayonne, Imprimerie, E. Lasserre.

LAFITTE, P. & DASSANCE, L., 1967, *Kantu, kanta, khantore*. Baiona, Cordelier.

LAKARRA, J., et al., 1983, *Euskal baladak. Antologia eta azterketa*. Hordago, Donostia.

LECOQ, C., 1988, «*Los pliegos de cordel*» en *las bibliotecas de Paris*. Madrid: Printing Books, s.a..

LE FLOCH, J., 2001, «Chanteurs de rue et complaints judiciaires. Quelques remarques à propos des complaints françaises», *Histoire et justice, Panorama de la recherche. Le Temps de l'Histoire*, nov. 155-168.

MICHEL, F., 1857, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Fermin Didot, Paris.

ORMAETXEA, N., 1927, «Los reos poetas», EUZKADI, nº 4551.

ORPUSTAN, J.B., 2002, «La chanson de Borthagaray » «Urzaiz», *La vallée d'Ossés en Basse-Navarre. Orzaizeko Ibarra. Bidarray, Ossés, Saint-Martin-d'Arrossa*. Baigorri: Ed. Izpegi, 265-273.

PERURENA, P., 2010, *Goizuetan bada gizon bat... Trabukoren kantako misterioak*. Alberdania, Irun .

SALLABERRY, J.D.J, 1870, *Chants populaires du Pays Basque*, Veuve Lamaignère, Bayonne.

SEGUIN, J.P., 2000, ««Canards»: une succession ouverte», *La Bibliothèque bleue & les littératures de colportage*. Ed. Thierry Delcourt & Elisabeth Parinet, Paris: École de Chartes, 185-193.

SEGURA, I., 1984, *Romances horrorosos. Selección de romances de ciego que dan cuenta de crímenes verídicos, atrocidades y otras miserias humanas*. Alta Fulla, Barcelona.

SORBIER F. du, 1986, «La biographie criminelle anglaise», *Dix-huitième siècle. Littératures populaires*. Paris: PU. 155-169.

URKIZU, P., 1986, «C.A.F. Mähnen-en Kanta eta Bertso Bilduma. Berlin 1857». EGAN, Donostia, 13-84.

———, 1991, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak*. Etor, Donostia.

——— et al., 2000, *Historia de la literatura vasca*. UNED, Madrid.

———, 2001, (Ed.), *Senpereko Kantu Xaharrak. Oxtikenekoak* Kultur Elkartea. Eusko Ikaskuntza, Donostia.

———, 2005, «Viejas baladas vascas del cancionero de Chaho», *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. XI, UNED, Madrid, 30-109. Interneten [www.uned.es](http://www.uned.es) –en aurki daiteke.

———, 2005, *Balada zaharrez*. Erein, Donostia 2005.

———, 2009, *Poesía Vasca. Antología bilingüe*. UNED, Aula abierta, Madrid.

———, 2010, *Jean Etchepare koplariaren konplaintak, 1873-1890*. *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. XV, UNED, Madrid, 171-229. Interneten [www.uned.es](http://www.uned.es) –en aurki daiteke.

URKIZU, P. & INTXAURRANDIETA, P., 1991, *Garbizu anaiak*. «Zubigar», «Iruzubi», «Tege», 1921-1936. Lezoko Udala.

VINSON, J., 1883, *Le flok-lore du Pays Basque. Les littératures populaires de toutes les nations. Traditions, légendes, contes, chansons, proverbes, devinettes, superstitions*. Tome XV. G.P. Maisonneuve & Larose, Paris.

ZAVALA, A., 1978, *Patxi Erauzkin bertsolaria (1874-1945)*. Auspoa, 131. Donostia.

———, 1996, «Bertso-paperak», *Auspoaren auspoa I (Itzaldiak / conferencias)*. Auspoa 238, Oiartzun, 323-350.

———, 1998, *Euskal erromantzeak. Romancero Vasco*. Auspoa. Sendoa, Oiartzun.

———, 2006, «Terueleko maitaleak eta Markesaren Alabaren bertsoak», *Auspoaren auspoa IV (Itzaldiak / conferencias)*. Auspoa, Donostia 275-279.



# Literatura herrikoa, herri-literatura, herri-idazleak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta

RETOLAZA, Iratxe

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta Euskaltzaindiko

Literatura Ikerketa batzorde-idazkaria

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskal Literaturaren historiografian «herri-literatura» kontzeptuarekin loturiko hainbat irizpide eta ideia nola garatu diren aztertu da artikulu honetan. Herri-literaturak edota herrikoitasunaren inguruko kontzeptuek Euskal Literaturaren Historian izan duten funtzioa aztertzeak Euskal Literatura kontzeptuaren eraikuntza ezagutzeko aukera emango digu, eta bide batez, kontzeptu horren eraikuntza eta bilakaeraren prozesuan gertaturiko hainbat tentsio azaleratuko ditu.

**Hitz-gakoak:** Historiografia, instituzio literario, herri-literatura, ahozkotasan.

En este artículo se estudia cómo se han desarrollado en la historiografía de la literatura vasca, criterios e ideas relacionados con la literatura popular. El analizar la función que la literatura popular vasca o los conceptos en torno a lo popular han tenido en la historia de literatura popular, nos dará la oportunidad de conocer cómo se creó el concepto de literatura vasca; y de paso, aflorará varias tensiones que se dieron en la creación y desarrollo de dicho concepto.

**Palabras clave:** Historiografía, institución literaria, literatura-popular, oralidad.

On étudie dans cet article comment ont été employés dans l'historiographie de la littérature basque les critères et les idées ayant trait à la littérature populaire. L'analyse de la fonction que la littérature populaire ou les concepts liés au populaire ont eue dans l'histoire de la littérature populaire e basque nous donnera l'occasion de découvrir comment a été créé le concept de littérature basque ; on verra également les diverses tensions qui ont vu le jour lors de la création et du développement de ce concept.

**Mots-clés :** Historiographie, institution littéraire, littérature populaire, oralité.

This paper examines how certain criteria and ideas linked to the concept of «popular literature» have developed in the historiography of Basque literature. Examining the role that has been played in the History of Basque Literature by popular literature or concepts surrounding popularness will provide an opportunity to get to know how the concept has been constructed, and will expose certain tensions that have taken place in the construction and evolution process of this concept.

**Keywords:** Historiography, literary institution, popular literature, orality.

## 1. Sarrera. Euskal Literaturaren historiografia eta herri-literaturaren kontzeptuen bidegurutzean

Literaturaren Historia orok literaturaren ikuspegi bat biltzen eta garatzen du. Zentzu horretan, Literaturaren Historia batek literatura zehatz baten ibilbideak eta norabideak kontatzearekin batera, hainbat literatura kontzeptu eta irizpide literarioen inguruko ikuspegiak hedatu egiten ditu. Bestalde, Literaturaren Historiak literatura esparru bat instituzionalizatzeko funtzioa ere betetzen du, eta hartara, Literaturaren Historia horietan gailenduriko irizpide eta balore literarioak aztertuz, instituzionalizaturiko eremu horietan gailenduriko irizpideen berri izango dugu.

Hurrengo gogoeta hauetan, Euskal Literaturaren historiografian «herri-literatura» kontzeptuarekin loturiko hainbat irizpide eta ideia aztertuko dira, Euskal Literaturaren Historia zenbaitetan herrikoitasunaren edo *popular* izaeraren ikuspegia nola joratu den azalarazteko asmoz. Izan ere, herri-literatura edo literatura popularrarekin loturiko kontzeptu horiek guztiek literaturaren kontaketa nola baldintzatu duten ekarri nahi dugu eztabaidara. Euskal Literaturaren historiografiaren eta herri-literaturaren kontzeptuen arteko bidegurutzean sortu dira hurrengo gogoeta hauek, aztergai eta eztabaidagai honen inguruko lehen hurbilpenak izan nahi dutenak<sup>1</sup>.

Herri-literaturaren inguruko azterketa eta hausnarketa hauek, bestalde, Euskal Literatura kontzeptuaren eraikuntza ezagutzeko aukera emango digute, eta bide batez, kontzeptu horren eraikuntza eta bilakaeraren prozesuan gertaturiko hainbat tentsioren berri emango digute.

Herri-literaturak edota herrikoitasunaren inguruko kontzeptuek Euskal Literaturaren Historian izan duten eta izan dezaketen funtzioaz hitz egin aurretik, komenigarria iruditu zaigu Literaturaren Historiaren inguruko zehaztapen orokor hauek gogora ekartzea:

---

<sup>1</sup> Artikulu honetan herrikoia eta herri-literatura kontzeptuez garatu diren hausnarketak, Euskal Literaturaren Historiografiaren alorretik egingo dira, eta hartara, ez dira kontuan hartuko beste zenbait ikerketa-alor eta ezagutza-alorretan erabili diren ikuspegiak.



a) Batetik, Literaturaren Historia hizpide izatean, gogoan izan behar dugu **izaera diskurtsiboa eta narratiboa** duen diziplina batez dihardugula. Diskurtso historiografikoak kontagai duen literatura esparruaren existentzia eraikitzen edo berreraikitzen du, eta baita esparru horren kontzeptua ere. Modu horretara, praktika diskurtsibo horrek kontagai duen objektua bera eraiki eta sortzen du, eta ondorioz, kontagai den literaturaren existentzia baieztatzen du. Ondorioz, Literaturaren Historia guztiak kalifikatzaile baten inguruan antolatzen dira, delako literatura hori mugatzen eta zedarritzen duen kalifikatzailea, izan ere. Aipagai dugun kasuan, «euskal» dugu kalifikatzaile eta mugatzaile hori, esparru bat identifikatzeko eta eratzeko gaitasuna duena. Hortaz, historia-egileak literatura esparru bat narrazio historiko bihurtzea erabakitzen duenean, honako uste honi lotzen zaio: literatura esparru konkretu horrek bizitza eta autonomia propioa duelako usteari. Literatura horren existentzia eta autonomia baieztatzearekin batera, historia-egileak deskribatzen, kokatzen eta iruzkintzen duen literatura hori eraikitzen, asmatzen eta ezaugarritzen ari da. Dena den, Literaturaren Historia oro historikoki irudikatu nahi dituen literaturaren ikuspegiekin elkarriketan eraten da. Edozein eraikuntza historikoren modura, Literaturaren Historia eredu baten proposamena eta interpretazioa da, errealitatez josten dena. Baina, errealitatearen errepresentazioa bera, Literaturaren Historia, errealitate horren (ber)eraikuntza bat da. Jenaro Talensek gogorarazi bezala, Literaturaren Historia iraganaren errepresentazioa izan arren, orainaren eraikuntza ere bada, eta orainari begira egina da:

«En otras palabras, no se instituye para recuperar un pasado, sino para ayudar a constituir y justificar un presente. La elección del corpus sobre el que operar; el establecimiento de los criterios que hiciesen coherente la inclusión/exclusión de obras y autores, así como la periodización y taxonomización del material no respondería, en consecuencia, a la existencia de una verdad exterior comprobable, sino a la voluntad de construir un referente a la medida, capaz de justificar la manera de vivir y de pensar el mundo por parte de la sociedad actual, a la que arrojaría con el argumento de su autoridad». (Talens 1994, 137)

Literaturaren inguruko diskurtso historiko gehienek joera horri lotu zaizkio, eta ondorioz, herri-literatura edo herrikoitasun kontzeptuak garatzean

ez dira kontuan izan historikoki herri literaturak izan dituen bilakaerak eta funtzioak, edo herrikoitasun kontzeptuek historikoki bildu dituzten ikuspegi anitzak. Egungo eta oraingo begirada literariotik garatu izan da esparru horren kokapen historikoa, eta kasurik gehienetan, aipatuko den moduan, literatura idatziaren eta literatura kultuaren galbahetik iragazi dira diskurtso historiko horiek guztiak.

Beraz, Literaturaren Historia guztiek historikoki kokatu eta kontatu nahi duten Literatura esparru horren inguruko (aurre)kontzeptu zenbait hartzen dituzte abiapuntutzat<sup>2</sup>. Txosten honetan, bada, Literaturaren Historia horietan literatura herrikoia edo popularraren inguruan bilduriko (aurre)kontzeptu eta (aurre)iritziak aztertzeke lehen hurbilketa egingo da.

b) Bestetik, Literaturaren Historia hizpide izatean, gogoan izan behar dugu **izaera ideologikoa, kanonizatzailea eta instituzionalizatzailea** duen diziplina batez dihardugula. Talensek adierazi bezala, autoritate diskurtso ere bada Literaturaren Historia<sup>3</sup>. Proiektu historiografiko guztiek elkarrizketa bat abiatzen dute, kontzepzio literario zenbait gainditzeko eta beste zenbait kontzepzio baieztatzeko. Historia-egileak ere posizio diskurtsibo konkretu bat hartzen du. Ondorioz, Literaturaren Historia ideologikoki eraikitzen den diskurtsoa da, eta halaber, ideologikoki erabili egiten dena, Literaturaren Historia baita kanonak sortzeko eta instituzioak legitimatzeko diskurtsorik eraginkorrena, Mendebaldeko Kulturaren irizpideei kasu eginez gero. Hona hemen ikuspegi hau biltzen duten Leonardo Romeroren hitzak:

«Con todo, y a pesar de que las antologías pueden sugerir ciertas perspectivas históricas cuando ordenan sus materiales y, desde luego, cuando propenden a formular discursos histórico-descriptivos en sus páginas introductorias, no es rasgo específico suyo la función narra-

<sup>2</sup> Hausnarketagai dugun esparru honetan, Euskal Literaturaren Historiografian, une oro auzitan daude literario eta euskal kontzeptuak berak. Honako hausnarketa hauetan, lehen kontzeptu horren inguruko zirrikituak aztertuko dira, baina, ez da azterketa honetan euskal kontzeptuak sor ditzakeen auzien eta zirrikituen inguruko hausnarketarik egingo. Gai horren inguruko hausnarketarako jo lan hauetara: Gabilondo, 2006; Olaziregi 2008-2009.

<sup>3</sup> Gogoan izan baieztape hau: «a la que arroparía con el argumento de su autoridad» (Talens 1994, 137).

tiva que las *Historias* (...) exhiben como una de sus marcas más singulares. Las *Historias de la literatura* (...) responden a un argumento de exposición diacrónica, con un antes y un después, en el que el lector persigue los avatares de un protagonista –una literatura nacional, un género, un tema–, expuestos por un narrador que, a su vez, enuncia desde su *punto de vista* particular». (Romero 1998, 53)

En el complejo proceso de intersección de códigos culturales y sistemas de valores que conlleva toda *Historia literaria* siempre termina por imponerse un canon de textos y autores, por muy matizadas que sean las valoraciones de los hechos de continuidad y los hechos de ruptura. Ciertamente que las *Historias* no constituyen (...) la única instancia productora de repertorios canonizados (...). Con todo, el hecho de que las *Historias* apelen unas a otras en su recursividad interna es un rasgo que no resulta irrelevante a la hora de caracterizarlas como instancias generadoras de estimaciones y desestimaciones de los modelos dignos de imitación, es decir, como fábricas de canonización. (Romero 1998, 58)

Hau da, Literaturaren Historiak identitatea sortzeko eta herri-memoriarako moldeak eta tradizio-bideak eratzeko diskurtsoak izan ez ezik, literatur sistemaren finkatze, zilegiztatze eta erakundetzean ere badute eraginik. Horregatik, sistema literarioaren finkatze- eta eratze-prozesuan erabateko eragina duten diskurtso hauetan herrikoitasunaren esparrua nola eraiki den aztertzea garrantzitsua da oso, neurri batean diskurtso historiko horietan erabakiko baita herrikoitasunaren esparru horrek beteko duen lekua.

## 2. *Corpusaren definizioa eta hautaketa*

Literaturaren Historiek hari narratibo edo kate narratibo batean biltzen dituzte gertakari literarioak, eta katebegiak ere irudikatzen dituzte. Modu horretan, literaturaren historialariek gertakari literario horiek kateatzearekin batera, hutsuneak edo isiluneak ere kate diskurtsiboan bildu behar dituzte, hari edo kate narratibo horretan zentzua emanaz. Ondorioz, Literaturaren Historia egiterakoan lehen urratsa, ezinbestez, kateatu behar diren gertakari literario horien nolakotasuna mugatzean datza.

Historia Literario hedatuenean bidetik, Euskal Literaturaren Historia gehienek ere literatura idatziaren historia osatu dute. Edo zehatz esanda, literatura inprimatua eta liburuaren kultura irudikatzen duen historia osatu dute, liburuaren argitalpena izan ohi direlako gertakari literario kateatu horiek. Literatura inprimatua edo liburuaren kultura ardatz duen ikuspegi hau nagusi dela jakin arren, interesgarria eta beharrezkoa iruditu zaigu literatur ikuspegi horretatik sorturiko diskurtso historiografikoek herri-literaturaren inguruko kontzeptuak, sorkuntzak eta kultur jarduerak nola erabili dituzten aztertzea.

Josu Amezagak adierazi bezala, kultura popularrek ez dute esparru egituratu sendo bat osatzen: «Kultura popularrak, ordea, ez dira ondo bereizturiko eta irmoki egituraturiko sistemak; kontraesanek josiak daude, eta sarritan ez dira hain begibistakoak» (Amezaga, 1995, 152). Desegituratze hori ere nabaria da herri-literaturaren kasuan, eta historiografiak esparru hori ez egituratu izanak, eta hari narratibo batean kokatu ez izanak, gainera, desegituratze hori indartzen du.

Edonola ere, liburuaren kulturaren ikuspegitik eginiko Literatura Historia guztiek ez dituzte arazo berak, batik bat corpusaren hautaketa zehazterakoan. Hainbat eta hainbat literaturatako historia-egileren galdera eta kezketan biltzen dira oraindik ere Óscar Taccak (1968, 32) aspaldi formulaturiko bi galdera edo kezka hauek:

#### LEHEN GALDERA

«¿Cómo hacer la historia de algo que por naturaleza pretende escapar a la Historia, que aspira a trascenderla, de algo que es histórico en la medida en que no encuentra su más plena realización, de algo –en el mejor de los casos– es sólo parcialmente histórico?»

#### BIGARREN GALDERA

«¿Cómo encarar, ordenar, clasificar la vasta producción literaria?»

Euskal Literaturaren esparruan, aldiz, corpusaren hautaketaz hitz egiterakoan bi galdera hauek ez dira kezka nagusia, edo oinarri nagusia.

**Lehenik**, Euskal Literaturaren Historia gehienek kezka konkretu bati erantzun diote, Mendebaldeko Literaturaren Historian prestigiozko es-

pazio bat eskuratzeari. Kezka horren eraginez, Euskal Literaturaren Historia gehienetan mendebaldeko kronologia literario horretara hurbiltzeko eta atxikitzeko nahia nabaria da, eta gutxitan ageri da kronologia propio eta autonomoa garatzeko asmorik, edota Historiari bizkarra emateko asmorik. Antón Figueruak (1988) argi adierazi du egoera diglosikoan dauden literaturek zein arazo dituzten erreferentzialtasunaz aritzeko orduan. Aztergai dugun arloari begira, eragin ikaragarria du kezka nagusi horrek. Izan ere, Mendebaldeko Literaturaren Historia ofizialak ez ditu kontuan hartu herri-literaturaren ekarpenak, eta zail gertatzen da kronologia literario ofizial horretara biltzea herri-literaturako jarduera zenbait.

**Bigarrenik**, Euskal Literaturaren Historiak ez du dokumentu pilarekin arazorik, batik bat ahozko jarduerak eta jarduera herrikoiak kontuan hartzen ez badira. Are gehiago, dokumentu kopurua eskasa duela du arazo, zenbait garai eta alditan behintzat.

Ondorioz, bi kezka eta galdera hauetan irudikatu bezala, Euskal Literaturaren Historiak baldintza eta aurrekontzeptu konkretu batzuei erantzun die, eta horiek eragin dute herri-literaturaren inguruko irizpide zenbait garatzea eta sortzea.

## 2.1. Ahozkotasuna eta herri-literatura

Aipatu den bezala, Euskal Literaturaren Historiografiak eremu berezietan garatu ditu literatura idatzia eta ahozko literatura. Jakina, historia-egile ezagunek aztertu dute ahozko literaturaren ekarpena. Besteak beste, hor dira, Manuel Lekuona (1964) eta Juan Mari Lekuonaren (1982) ekarpenak, edota bertsolaritzaren historiaz idatziriko ekarpenak (Egaña 1997).

Edonola ere, Euskal Literaturaren Historia orokorrak idatzi dituzten historia-egileek literatura idatziaren kronologia eta ibilbide diakronikoa izan dute abiapuntutzat. Are gehiago, Koldo Mitxelena (1960) abiatutako Historia eredu gailendu zenetik, esparru hauen arteko bereizketa nagusitu egin da.

Bereizketa horretan, gainera, tradiziozko ahozko literaturak eta ez-tradiziozko ahozko literaturak tratamendu ezberdina izan du<sup>4</sup>. Alegia, historia-egileek behar gehiago izan dute ez-tradiziozko ahozko literaturaren inguruko azalpenak emateko. Badirudi ahoz aho transmititu diren genero literarioak historiaren ibilbidean kokatzeko premiarik ere ez dutela sentitu, eta halaxe transmititu ez direnak, aldiz, historiaren ikuspegira hurbiltzeko interes handiagoa izan dutela. Beharbada horren ondorio da historia-egileek bertsolaritzaren inguruan iritzia emateko premia hastapenetatik sentitu izana. Esaterako, Mitxelenak (1988 [1960], 24) argi adierazi zuen bertsolaritzak ez duela helburu estetikorik. Jon Juaristiren (1988) iritzia gogorragoa izan zen:

Pero ¿puede el bertsolarismo ser considerado como parte de la literatura oral? O, dicho de otro modo, ¿tiene el bertsolarismo carácter literario? En cualquier caso, la respuesta sería dudosa. Es innegable que se trata de algo distinto de la transmisión de técnicas, fórmulas y procedimientos métricos y retóricos tradicionales. Al contrario de lo que sucede en la literatura tradicional, el sujeto del bertsolarismo es siempre un especialista, un miembro de un grupo semiprofesional que ha adquirido destreza en el curso de un proceso más o menos largo de aprendizaje, generalmente junto a un bertsolari experimentado. Por otra parte, las improvisaciones de los bertsolaris se agotan en el acto mismo de la repentización (y ello, a pesar de que eventualmente puedan ser recogidas por escrito o en grabaciones o en discos). No constituyen, por tanto, realizaciones o versiones puntuales de un poema tradicional, sino ejemplares únicos, no transmitibles (o al menos destinados a la transmisión) por tradición oral.

En rigor, una competición entre *bertsolaris* se asemeja a un encuentro deportivo más que a un recital poético. (...) El carácter literario del *bertsolarismo* depende casi exclusivamente de la mayor o menor cultura literaria de cada improvisador (y ésta, por lo general, no suele ser demasiado rica). Lo que ha venido a complicar la cuestión es la existencia de una literatura —en sentido estricto— vinculada

---

<sup>4</sup> Manu Lopez Gaseniri zor diogu tradiziozko eta ez-tradiziozko generoen azterketari erreparatzeko aholkua.

al *bertsolarismo*. (...) En realidad, podríamos concluir, el *bertsolarismo* no es propiamente literatura, lo que no quiere decir que su influencia en la literatura no haya sido importante. La poesía vasca de los dos últimos siglos debe mucho a los *bertsolaris* y no podría entenderse su evolución en los últimos tiempos si prescindiéramos de la historia del fenómeno bertsolarístico. (Juaristi 1987, 25-26)

Hurrengo proposamen historikoetan ez da horrelako iritzi sendorik adierazi bertsolaritzaren literariotasuna ukatuz, baina, egia da, corpus hautaketatik kanpo utzi dela bertsolaritzaren kultur jarduera oro, XX. mendeko literaturaren ikuspegi diakronikoa aurkeztean. Hala ere, egon badago joera nagusi hori segitu ez duen Euskal Literaturaren Historiarik, Patri Urkizuk (2000) koordinaturikoa. Proposamen historiografiko horretan XX. mendeko bertsolaritzari eskainitako atal bat eskaini da, Joxerra Gartzia idatzirikoa. Dena den, aipagarria da proposamen historiografiko horretan bertsolaritza bakar-bakarrik XX. mendeari eskainitako atalean aipatzen dela, eta gainerako mendeei eskainitako diskurtso historikoan, aldiz, ahozko literaturaren ekarpenak atal berezitu batean aurkeztu dira: «Literatura de tradición oral» (Urkizu, 2000, 25). Zentzu horretan, Urkizuren proposamen horrek Euskal Literaturaren Historiografian jarraitu den joera nagusia segitu du. Alegia, ahozko literaturaren ekarpenak lehen atal batean kokatu dira, literatura idatziaren aurreko garai batean. Historia guztietan ahozko literatura XVI. mendearen aurreko jarduera literariotzat aurkeztu da, Bernat Etxepareren *Linguae Primitiae Vasconum* liburua inprimatu aurrekoa<sup>5</sup>. Joera orokor horretan argi geratzen da ahozko literatura hutsuneak betetzeko funtzioa duenean aipatu dela, hau da, katebegi bat osatu behar denean. Literatura idatzirik eta libururik ez den garaian aitortu egin zaio ahozko kultura horri literariotasunik, baina, literatura idatzia eta liburuaren kultura agertzen den unetik, ukatu egin zaio literariotasun hori, eta ikuspegi historikotik at geratu da edozein ahozko ekarpen. Gainera, ahozko literatura aurkezten duten lehen atal horiek ez dira Historiaren hari narratibo nagusiaren parte, ez dira logika narratibo orokorrean kokatu ohi. Nolabait, aurrehistoriako giroa deskribatuko bailuten aurkeztu dira.

<sup>5</sup> Patri Urkizuren (2000, 8) *Historia de la Literatura Vasca* da salbuespena, XIV. eta XV. mendean aurkeztu baititu obra orokor zenbaitetan bilduriko testu idatziak.

Bestalde, herri-literatura aztertzen denean, gutxitan garatzen da ikuspegi diakronikorik, gutxitan ahalegindu da historia-egilea jarduera herriko horien garapen historikoa azaltzen. Eta gainera, gutxitan azertu da garaiko herri-literatura (ez bakarrik Euskal Literaturaren Historiako historialarien ikuspuntutik, baita herri-literaturako adituen ikuspuntutik). Badirudi halako logika orokor bat zabaldu dela euskal literaturaren ikerketara, literatura jasoak aro modernoa eta garaikoa dela, eta ikuspuntu horretatik azertua behar duela izan, eta herri-literatura, aldiz, iraganeko tradizioari lotua dela (bertsolaritzaren salbuespenarekin, jakina).

Historia gehienek logika narratibo horrek ahozko literatura eta herri-literatura berdindu egin ditu, ahozko literatura oro herri-literaturaren adierazpidetzat kontsideratuz, eta alderantziz, herri-literaturaren adierazpide oro ahozko literaturatzat kontsideratuz. Baina, ahozko literatura=herri-literatura berdintzea ikuspegi literarioan eginiko murrizketa baino ez da, ahozko literaturaren jarduerak eta herri-literaturaren jarduerak sinpletu egiten dituenak. Ikuspegi horren arabera, literatura egiteko erabili den euskarriak (ahozkotasunak) definituko luke jarduera literarioaren herrikoitasuna.

## 2.2. Klase soziala eta herri-literatura

Ahozko literatura eta herri-literatura berdintzearen ondorioz, ahozko literatura herri xehearen adierazpide literariotzat hartu izan da. Hona hemen Jon Juaristik eginiko adierazpenak:

Ahora bien, que los estamentos inferiores de la sociedad vasca fueran mantenidos en el analfabetismo no quiere decir que carecieran de una literatura propia. Por el contrario, poseían una tradición oral, si no tan rica como la de sus vecinos de lengua románica, no por ello menos interesante. (Juaristi 1987, 15)

Baieztape horretan bi ideia bildu dira: batetik, ahozko literatura herri xehearen adierazpidea izan zela; eta bestetik, ahozko euskal literatura horrek ez zuela izan auzokoen adinako kalitaterik. Kontuan hartu behar da Juaristik ahozko gainerako adierazpideak literaturatzat dituela, eta hala ere, ez diola literariotasun hori aitortu bertsolaritzari. Hala ere, joera nagusiaren bidetik,



ahozko adierazpideen inguruko iritziak lehen atal batean bildu ditu, «La literatura folklórica» (Juaristi 1987, 13) izeneko atalean. Bertsolaritzaren literarioritasun hori ukatuz, nolabait, justifikaturik uzten du hurrengo mendeetan ahozko adierazpideei arreta eskaini ez izana. Gainera, Juaristiren adierazpenetan literaturaren eta bertsolaritzaren arteko hartu-emanan onartzen bada ere, ez du Historiaren ibilbidean zehar bi eremu hauen arteko hartu-eman irudikatu eta kontatuko. Beste Historia zenbaitetan, aldiz, argiagoa da literatura idatziaren eta ahozko tradizio horren arteko elkarrizketa. Esate baterako, Orixeren (1927) eta Mujikaren (1979) Historietan. Orixeren Historia laburrean ahozko literaturaren ezaugarriak eta baliabideak biltzen dituen literatura idatzia baloratzen da (Orixe 2002 [1927], 66). Mujikaren proposamena anbiziotsuagoa da, proposamen historiografikoan genero lirikoaren bilakaera baitu kontagai, eta bide horretatik, hari narratibo bakarrean biltzen ditu ahozko tradizio lirikoa eta idatzizko adierazpide liriko modernoagoak. Mujikaren ustez, ahozko literaturak eta bertsolaritzak berebiziko garrantzia dute: «una de las manifestaciones más genuinas de nuestro pueblo» (Mujika 1979, 12). Ezaugarri horri kasu eginez gero, Mujikaren proposamen historiografikoa originala da Euskal Literaturaren Historiografian ahozko literaturaren eta literatura idatziaren arteko oreka bat bilatu nahi duelako, eta bi esparruetarako baliagarri diren kontzeptu eta irizpideak osatu nahi dituelako. Kasu honetan, dena den, oreka hori ikuspegi literario baten ondorio izango da, eta ez bi sorkuntza-eremu horien logiken ezberdintasun eta berdintasunak irudikatzeke asmoa. Ondorengo adierazpen hauetan biltzen da Mujikaren ikuspegia:

Hemos de anotar que la poesía vasca, en general, tiene dos peligros: uno el de los que siguen caminos excesivamente fáciles y popularistas, para quienes no existen grandes pretensiones de estética (piénsese, por ejemplo, en tanto bertsolari de improvisación estética pobre y vulgar), y otro el del cultismo frío, falto de espontaneidad (Oihenarte, Larramendi, algunos momentos de Lauaxeta, etc.). La mejor síntesis de ambos elementos se efectúa en Detxepare (populismo intuitivo) y en parte de la producción última de Lizardi (cultismo intuitivo). (Mujika 1979, 141)

Azken batean, ahozko eta idatziaren arteko oreka hori, herrikoia eta kultuaren arteko oreka hori ikuspegi literario baten gauzatzea da, ez da literaturaren ikuskera eta jarduera guztiak azaltzeko asmoa.

Ahazkotasunaren eta idatziaren arteko hartu-eman hori irudikatzeko ahaleginik ere egin da, hainbat artikulutan. Adibidez, Asier Barandiaranek (2009) olerkariak bertsolarien diskurtso-moldean izan zuten eragina aztertu zuen. Edo Joseba Gabilondok (2009) ahazkotasun eta idatziaren arteko continuum historiko hori irudikatzeko ahalegina egin zuen. Joseba Gabilondok euskal poesiaren ibilbide historikoari erreparatu zion, betiere mugako eremu batean ibili den genero literariotzat hartuz, ahazkotasun eta idatziaren arteko eremuan. Bada artikulua horretan continuum-aren bi muturrak harremanetan jartzeko asmorik, eta eskertzekoa da lehen ahalegin hori. Bada, hala ere, artikulua horretan garatu beharreko alderdi bat: aldi historikoetariko bakoitzean ahazkotasunak, idatziak eta herrikoitasunak izan duten funtzio eta erabilera sozialean sakontzeko beharra nabaria da.

Bestalde, Orpustan (1996) ez dator bat Juaristiren lehen baieztapen harekin, ez baitu kontsideratzen ahazko literatura klase xehearen adierazpide, atalaren izenburutik ohartarazi bezala: «2. Chants basques à la fin du Moyen Age: une littérature aristocratique» (Orpustan 2005 [1996], 15). Orpustanen baieztapen eta egituratze horrek Juaristiren ikuspegia auzitan jartzen du, eta baita hainbat historia-egilerena ere. Orpustanen iritziz ez dago zertan berdindu ahazko literatura herri xehearekin eta literatura idatzia klase sozial altuenekin, eta kultuenekin. Baina, berdintze hori hausten badu, ez da herri-literatura historiagai bihurtzeko, baizik eta ahazko literatura literatura kultuaren eremura hurbiltzeko, eta hartara, Historia osoan zehar logika narratibo berari lotzeko, literatura kultuaren ibilbide historikoa kontagai duena.

Ikuspegi horren arabera, sortzailearen klase sozialak definituko luke jarduera literarioaren herrikoitasuna.

### 2.3. Estetikak eta herri-literatura

Beste batzuetan herri-literatura edo herrikoitasuna definitzeko, aldiz, estetikaren ikuspuntua erabili da, eta ez zaio hainbeste garrantzirik eman sortzailearen klase sozialari edo testuaren erabilera sozialari. Kasu hauetan adierazpidea izan da herrikoitasun hori definitzeko modua.

Patxi Altuna, Bernart Etxepare «herri-poeta» izendatu zuenean, ikuspegi horri lotu zitzaion (Altuna, 1981). Alegia, poemak osatzerakoan Etxeparek erabilitako hizkuntza baliabideak, erritmo baliabideak eta egiturak hartu zituen oinarri poetaren herrikoitasuna aldarrikatzeko. Aurelia Arkotxak ([www.basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com)) Patxi Altunak garaturiko diskurtso horri erantzun dio. Arkotxak ohartarzi bezala, Altunak Etxepareren interpretazio hori egiten duenean, ez du kontuan hartu garaiko testuinguru kulturala.

Gabriel Arestiren poesia ere herrikoitasun horrekin lotu izan da, baina, betiere herrikoitasun hori erabilera sozial baten ikuspuntutik irakurri da. Alegia, Arestiren poesiaren estetika aipatzean azpimarratu eta laudatu izan da herri-literaturaren eragina izan duela, eta herri-literaturako hainbat adierazpide egin dituela bere. Baina, adierazpide herriko horiek guztiek helburu nagusi liburuaren kultura garatzeko balio izan dutela azpimarratzen da, besteak beste, euskara batuaren eredia garatzeko balio izan dutelako, eta euskal irakurlearen komunitatea sendotzeko balioa izan dutelako.

#### 2.4. Bitartekaritza eta herri-literatura

Ahozko literatura hori herri xehearen adierazpide izanda, edo klase sozial altuenaren adierazpide izanda (muturrak mutur), argi dago adierazpide literario horiek guztiak bildu eta kontatu dituztenak literatura idatziaren edo literatura kultuaren ikuspegitik jaso eta bildu dituztela, eta hartara, ikuspegi horretatik ere interpretatuak izan direla. Horixe da Euskal Literaturaren Historia gehientsuenetan topatzen den egoera. Ahozko literatura edota herri-literatura aipagai denean literatura idatziaren garapena ulertzeko eta azaltzeko izan ohi da, idatziaren logikara eta begiradara bildua, eta ez ahozko literaturaren edota herri-literaturaren logikatik kontatua eta interpretatua. Zailtasun horrekin egiten du topo historia-egileak garai bateko ahozko literaturaren edo herri-literaturaren kontaketa egiteko, heldu zaizkigun lekukotza guztiak bitartekariak jasotakoak direla, eta galbahe hori iragazi dutela bilketa egitean ere.

Garai historiko zenbaitez hitz egiterakoan ezinezkoa da bitartekaririk gabeko herri-literaturako testuak biltzea, kultura jasoaren dokumentuetan jaso direlako, eta are gehiago, dokumentu haiei esker heldu zaizkigulako. Ugariak dira halaxe bildurikoak: esaterako, errefrauak, Garibairen kroniketan bilduriko kantak, XIX. mendeko kantu-bildumak, eta abar. Jada Bakhtinek aipatu zuen errealtate hori (Zubieta, 2000, 29), oso zaila zela herri-literaturako testuak eta adierazpideak bitartekaririk gabe jasotzea eta biltzea, eta hartara, betiere zeharka bildutako kulturaz ari garela.

Nazio modernoan eraikuntza-prozesuek gizarte aldaketa zenbait erantzun zioten: besteak beste, industrializazio-prozesuek, modernitateak eta iraultza burgesak sorturiko mundu ikuskera berriari. Pentsamolde berri horrek ere herri-literaturaren inguruko diskurtso berri bat sortu zuen. Izan ere, elite letratuak herri-literatura erabiliko baitu nazio identitatea eratzeke. Erromantizismoak herri-literaturaren erabilera hori sustatu zuen, herri-literatura eta literatura nazionalaren arteko zubiak eraikiz.

Egoera horren jakitun izanda, bi aukera daude: bitartekaritza horren interpretazioa Literaturaren Historian bertan adieraztea, edo bitartekaritzan hori ezkutatzea eta isilaraztea. Euskal Literaturaren Historian sarritan isiltzen da bitartekaritza-lan hori.

Ziur asko, herri-literaturako jarduerak garai historiko batean nola gartu diren aztertzeko badira dokumentu historikoak, ale literarioak bildu ez, baina, jarduera literario zenbaiten deskribapena egiten dutenak, jakina, bitartekari baten begiradatik, baina, dokumentu horiek balia genitzake garaiko jarduera literario herrikoien egoeraren isla jasotzeko. Adibidez, jakin badakigu XVI. mendean eresiak egiten zituzten emakumeen jarduna ohikoa zela, eliza katolikoaren debekuetan adierazten delako. Debeku horietan deskribatu egiten da nolakoa zen emakume hauen jarduera hori, eta zeharka eman den informazioa bada ere, jarduera literario haren zantzuak topatzen dira.

Ondorioz, zaila da herri-literaturaren diskurtsoak berritzea, garai batzuen inguruko artxibo-lana, dokumentazio-lana eta bilketak egin gabe daudelako, baita garaiko giro sozial eta kulturala irudikatzeke ere.

## 2.5. Dokumentuak eta herri-literatura

Luis Beltrán-ek (2005) eta José Antonio Escrig-ek (2005) *Teorías de la historia literaria* artikuluko bildumaren sarreran, bi historia mota bereizten dituzte. Bata, dokumentuetan oinarrituriko Literaturaren Historia, eta bestea, monumentuetan oinarrituriko Literaturaren Historia:

«Hay un esquema que se repite en diferentes escenarios del debate de la historia literaria, especialmente en los europeos. Es aquél en el que conviven, de forma desigual, dos maneras de entender la historia. La primera es empírica, se ha hecho oficial en las academias y ha sabido proporcionarse un método científico. Puede identificarse con el historicismo culturalista y ha concentrado sus esfuerzos en redactar una historia literaria de las naciones con herramientas filológicas. La segunda es filosófica, y se propone reconciliar los objetivos de la historia y de la estética proporcionando una historia monumental de la literatura». (Escrig 2005, 43)

Euskal Literaturaren Historiografiak dokumentuan oinarrituriko Historia osatzearen alde egin izan du gehien-gehienetan, nahiz eta dokumentu izatera hori ez den modu berean kontuan izan garai historikoaren arabera.

Luis Villasantek (1961), esate baterako, ez zion literaturaren kontzeptzio estetikoari erreparatu Euskal Literaturaren Historia osatzean:

Al decir que escribimos la historia de la literatura vasca es preciso advertir ante todo que no entendemos esta palabra «literatura» en su sentido restringido de «bella literatura», de producciones desinteresadas con vistas a expresar la belleza literaria o estética (...). Nosotros queremos tomar el vocablo en su sentido amplio de todo libro o publicación escrito en lengua vasca, sin que esto quiera decir tampoco que nuestra intención sea citar o numerar cuanto se ha publicado en dicha lengua. (Villasante 1961, 20)

Villasantek berak adierazi bezala, literatura kultua du kontagai, «literatura culta, libresca» (Villasante, 1961, 20). Ondorioz, corpusaren definizioa egin den unetik beretik, herri-literatura eta ahozko literatura Historiaren eremu horretatik kanpo geratu dira.

Bestalde, Koldo Mitxelenak (1960) bi hari narratibo bereizi zituen *Historia de la literatura vasca*-n: batetik, XIX. mende erdira arteko testigantza idatzi guztiak bildu zituen, zehaztasun osoz<sup>6</sup>; bestetik, XIX. mende erditik aurrerako dokumentu idatzietan beste hautu bat egin zuen, kalitate literarioaren araberrako hautua<sup>7</sup>. Koldo Mitxelenak eginiko bereizketa horretatik aurrera, historia-egile gehienek ere hari narratibo ezberdinetan eta irizpide literario ezberdinen arabera aztertu izan dituzte aldi historiko bi horiek.

Bi hari narratibo horietan ere dokumentu-izaeraren inguruko ikuspegi bat biltzen da: alegia, XIX. mende erdira arteko testigantza horietan kalitate estetiko baloratzen ez bada, jakina, baloratzen dena dokumentu historikoa da, garai bateko egoera historikoa islatzen duen dokumentu izatea. Ikuspegi dokumental horri lotzen zaizkio herri-literaturaren inguruan egin diren irakurketa asko eta asko. Egia da herri-literaturako kantu asko historiagileen bildumatan heldu zaizkigula, Garibairen eskutik, kasu. Edonola ere, kantu eta testu zahar askoren kasuan ez da egon ahaleginik testu horien irakurketa estetikorik proposatzeko, edo testu horien komunikazio literarioaz aritzeko. Gehientsuenetan jaso dugun lorratz horri segitzen zaio, eta testu zahar horiek ustez irudikatzen duten gertaera historiko horrekin harremanetan aurkezten zaizkigu. Testu zaharren dokumentu-izaera hau argi ikusten da kantu eta testu zaharrak non sailkatu erabaki behar denean. Askotan aipaturiko adibidea ekarriko dugu hona: non kokatu behar dugu *Bereterretxeren kanhoria*? Testu hori jaso eta bildu zen garaiazen ikuspegitik azaldu behar al da testua? Edo kontagai duen gertaera historikoaren garaian

---

<sup>6</sup> «De una manera deliberada he tratado de que mis indicaciones sean completas para los períodos más antiguos. Como antiguo en nuestro caso no quiere decir gran cosa, esto vale para los textos del siglo XVI y los fragmentos anteriores e incluso, aunque en grado menor para los del XVII. Puesto que no hay razón para que una obra no sirva a la vez a intereses distintos con tal de que no sean contradictorios, he querido que aquellos que se interesen por la historia de la lengua en sus fases conocidas más antiguas puedan saber sin trabajo cuáles son los documentos de que se dispone y dónde pueden ser consultados». (1988 [1960], 7).

<sup>7</sup> Hala ere, ez du zehazten edo adierazten zertan datzan kalitate literario hori, baina, argi adierazten du mendebaldeko kulturako neurriak egingo dituela bere: «de medir las proporciones de nuestra literatura con medidas de curso internacional, las mismas poco más o menos que se emplean para justipreciar las literaturas de los pueblos occidentales» (Mitxelena 1988 [1960], 8).

kokatu behar dugu? Kasurik gehienetan irudikatzen duen gertaera historiko horri ematen zaio lehentasuna, eta irudikaturiko gertaeraren denbora identifikatzerik bada, aldi horretara eramaten da testu zaharra, eta Literaturaren Historiatan aldi horren logikan kokatzen da. Alegia, dokumentu historiko huts modura erabiltzen da testua, ia-ia Garibaik berak eginiko erabilera historikoaren parean.

Ikuspegi honen arabera, historiako katebegi galdu bat irudikatzeko gaitasunaz litzateke herri-literatura baloratzeko irizpide bakar. Izan ere, kantu zaharrak historian kokatzen diren Euskal Literaturaren Historia hauetan, adibidez, *Ez dok amairu*-ren ekarpena ez da kontuan hartzen, nahiz eta argi dagoen 60eko hamarkadan kantagintza berriaren eta liburuaren kulturaren arteko harremana estu-estua izan zela. Garaia girotzeko aipatzen da *Ez dok amairu*-ren ekarpena, baina ez kantuen irakurketa literarioa proposatzeko, edo sorturiko imaginarioa aztertzeko.

## 2.6. Euskararen batasuna eta herri-literatura

Euskal Literaturaren Historia guztietan oso presente dago euskararen batasunaren aldeko diskurtsoa, eta kasu askotan, euskararen batasuna bera irizpide literario izatera heltzen da. Alegia, testuan erabilitako hizkuntza-eredua bihurtzen da sarritan irizpide literario. Jakina, 60eko hamarkadan Mitxelena (1960) eta Villasantek (1961) idatziriko Historia haietan batasunaren irizpidea mugarri da, besteak beste orduantxe zegoelako auzi hura jokoan. Ibon Sarasolak (Sarasola 1976) Euskal Literaturaren Historia soziala gazteleraz eman zuenean, hitzaurrean bildu zituen batasunaren inguruko iritziak:

La unificación del idioma escrito, paso imprescindible en la conversión del euskera en lengua de cultura es una de las cuestiones que más polémicas ha levantado en los ambientes vascos en los últimos años. Ha sido precisamente la nueva generación de escritores la primera en hacer ver la urgencia de una solución concreta y operante a este problema sobre el que las generaciones anteriores no se encontraban en la práctica realmente sensibilizadas. Los primeros pasos en este sentido datan de agosto de 1964, cuando un grupo de escritores jóvenes establecieron en Bayona los criterios para la unificación de

la ortografía, la declinación y las formas más elementales del verbo auxiliar. El Congreso que la Academia de la Lengua Vasca celebró en Aránzazu en septiembre de 1968 aprobó, con correcciones mínimas, las propuestas de la reunión de Bayona. A partir de entonces, la Academia, bajo la dirección de L. Villasante, continúa trabajando seriamente y a buen ritmo en la labor de completar la tarea entonces comenzada. Los datos que presento a continuación, que se refieren al período 1972-1973 y que tomo, como los anteriores, de *Euskal Literatura numerotan*, pueden dar una idea de la acogida que dicha propuesta ha merecido por parte de los escritores vascos.

Respecto a la producción editorial, de los 101 libros publicados en dicho bienio, 71 fueron escritos según las recomendaciones de la Academia. Ello supone el 70,3% del total. Estas cifras que indican un estado de opinión netamente favorable a las directrices unificadoras de la Academia cobran su verdadera significación al comprobar que la oposición a dichas directrices se concentra en la producción de libros populares, como la que recoge la producción bertsoarística y la de libros religiosos, ambas con un 0% de aceptación. En cambio, el 94,6% de la producción ensayística está escrita en «euskera batua», es decir en euskera unificado. Respecto a la producción literaria, la poética acepta en su totalidad la unificación. En cuanto a la narrativa las cifras muestran que se halla dividida en dos sectores inconexos entre sí: por un lado la narrativa moderna, que supone dos tercios de la producción total, debida a los escritores más jóvenes (con una edad media de 33,3 años), y otra, de estilo absolutamente tradicional, producida por escritores cuya edad media es de 59 años, y contraria en bloque a las propuestas de Aránzazu (...).

La misma alta correlación podemos deducir en lo que se refiere a nivel de estudios: todos los escritores de formación universitaria aceptan sin excepción el modelo de idioma escrito unificado. El porcentaje de aceptación baja significativamente cuando se consideran los escritores de formación clerical: sólo el 36,8% de ellos escriben en euskera unificado. Por lo que respecta a los escritores con estudios medios o a los autodidactas, el porcentaje asciende al 62,5%. (Sarasola 1982 [1976], 23-25)

Batasun eredu horren finkatzea azaltzeko lau irizpide erabiltzen ditu Sarasolak: editoriala, argitalpen kopuruari begiratzen diona; autorea, eredu-



ri lotzen zaizkion autore kopuruari begiratzen diona; belaunaldia, idazleen adinari begiratzen diona; eta kulturala, eredu bere egin duten idazleen ikasketa eta prestakuntzari begiratzen diona. Irizpide hauen erabilerak honako ikuskera hau garatzen du: eredu batua erabiltzen duten idazleak belaunaldi berrikoak eta ikasiak direla. Aurreraxeago honako hau dio Sarasolak eredu batua bere egin ez duten sortzaileen inguruan:

Sólo se oponen a la unificación aquellos que en el fondo no han superado una concepción del euskera según la cual dicho idioma no es sino una manifestación más (la más importante quizá, pero una más) del rico folklore vasco. Con su labor se niegan a que el euskera se convierta en idioma de cultura, y ésta es ya la única posibilidad de que nuestra lengua pueda sobrevivir en el contexto sociológico en el que actualmente se inserta, que la obliga inexorablemente a competir con lenguas de cultura. De todas formas este requisito no es suficiente, pues queda el decisivo problema de la oficialidad, pero sí es una condición necesaria. (Sarasola 1982 [1976], 25-26)

Sarasolaren ustez, euskara batuaren kontrakoek ez dute nahi euskara kultur hizkuntza bilakatzerik. Baietzapen horren atzean herri-literaturaren inguruko ikuskerarik ere biltzen da. Izan ere, Sarasolak kultur maila aitortzen dio euskara batuan sorturiko diskurtso literarioari, baina, zalantzan jartzen du eredu batu horretatik kanpo sorturiko testuen kultur maila (eta bide batez, literariotasuna). Jakina, Sarasolak garaiko ikuskera hedatuena baino ez zuen bere egin, gerora gailenduko den ikuskera. Garai hartako Euskal Literaturaren Historia guztietan historialariek euskara batuaren inguruko posizio-hartze bat egin zuten, halabeharrez, osatzen eta eraikitzen ari zen eredu zelako, eta neurri horretan, Euskal Literaturaren Historia horiek ere euskara batuaren eredu hori zabaltzen eta zilegiztatzeko lagundu zuten.

Bide horretatik, 80eko hamarkadatik aurrera idatziriko Euskal Literaturaren Historia guztietan, literaturaren corpusa hautatzeko irizpide nagusi bat izan da euskara batua, jakina, 60eko hamarkadatik aurrerako literaturgintzako corpusa hautatzerakoan erabili dena. Eredu batuaren gailentze horrek, herri-literaturaren inguruko ikuskerarik ere sortu du, XX. mendearen azken hereneko sorkuntzaz aritzean sarritan herri-literaturaren esparrura hurbilarazten baitira euskara batuan ez dauden testuak, eta

hizkuntza-eredua bera herrikoitasun hori definitzeko irizpide bihurtzen da, euskara batua=kultur hizkuntza=literatura jaso berdintzea osatuz.

Hala ere, euskara batuaren finkatzea aipatzean, ezin aipatu gabe utzi ereduaren finkatzean herrikoitasun kontzeptuak eta ahozko hizkerak izan duten garrantzia. Ikusi besterik ez dago Gabriel Arestiren poesiaz osatu diren hainbat eta hainbat balorazio estetiko.

### 2.7. **Instituzioak eta herri-literatura**

Hasieran aipatu dugun moduan, Literaturaren Historiaren funtzioetariko bat instituzio literarioak sendotzea eta eratzea da. Euskal Literaturaren kasuan argi dago bi instituzio bereiz daitezkeela: bata, herri-literaturaz arduratzen den sarea; eta bestea, literatura jasoaz arduratzen den sarea. Horren erakusle da Euskaltzaindiako batzordeen banaketa bera, Herri-literatura eta Literatura Ikerketa batzordea bereizten dituen (bien arteko zubi gutxi egon dira, Juan Mari Lekuona dugu, esaterako, zubi horietariko bat).

Sortzaileak elkartzeko eta antolatzeko unean ere esparru eta elkarte ezberdinak sortu dira. Adibidez, Bertsozale elkartearen jardunak ez du kasik Euskal Idazleen Elkartearen jarduerarekin harremanik, ez dago kasik elkarlanik.

Euskal Literaturaren Historiara herri-literaturaren inguruko hausnarketa eta irakurketa berriak ekartzea bi instituzio berezitu horien arteko ikerketa-lerro bat garatzea ekarriko luke, bi mutur horien artean dagoen continuum literario osoa kontuan hartuko lukeena, eta gaur egungo bereizketa honen arabera ikusezin dena. Continuum literario hori irudikatu ahal izateak literatur ekoizpenaren panorama konplexuagoa bilduko luke. Esate baterako, poesia errezitaldiek ez dute lekurik ez herri-literaturako ikerketa-lerroetan, ez eta liburuaren kulturaren.

## 3. **Corpusaren antolaketa eta egituraketa**

Edozein periodizazio edo egituraketak Historiaren, literariotasunaren eta espazio geografikoaren inguruko ikuspegi konkretu bat garatzen du. Aipatu

dugun bezala, Euskal Literaturaren Historia gehienek dokumentuetan oinarrituriko Historia Literarioak dira, eta ondorioz, batasunerako eta integraziorako joera indartsua dute, datu dokumental guztiak batasun eta osotasun batean bildu nahi direlako. Batze hauek banaketa hierarkikoak eragiten dituzte, eta banaketa hierarkiko horiek Historiaren egituraketan egiten dira esplizitu, lehen-lehenik.

Euskal Literaturaren Historiei erreparatuz gero, modu orokor batean, honela sailka genitzake corpusa egituratzeko hartu diren bideak:

- a) Autoritatearen araberako sailkapenak: Orixek (1927).
- b) Mendearen araberako sailkapenak: Villasante (1961), Onaindia (1972-1990), Mujika (1979), Orpustan (1995) eta Urkizu (2000).
- c) Mugimendu politiko, sozial eta kulturalen araberako sailkapenak: Sarasola (1971), Juaristi (1987), Kortazar (1990) eta Aldekoa (2004).

Euskal Literaturaren Historiak egituratzerakoan hiru irizpide hauek gurutzatuz egin dira: autoritateari dagokiona, ikuspegi geopolitikoari dagokiona eta genero literarioari dagokiona. Hala ere, lehen Historietan azpisailkapenean erabilitako irizpide zirenak (ikuspegi geopolitiko eta genero literario) garrantzia hartu dute azken Historietan, eta genero literarioaren irizpidea gailendu da. Aldaketa horrek, Euskal Literaturaren eremuan ere autorekritika batetik genero literarioen kritikara igaro garela iradokitzen du.

Ikuspegi eta begirada berri horrek ekar dezakeen beste aldaketarik, batik batik herri-literaturaren eremuan. Izan ere, herri-literaturan autoritateak ez du zertan garrantzirik izan, eta horregatik, autoritatearen araberako edozein sailkapenek, ia ezinbestez herri-literaturako sorkuntza asko eta asko bigarren mailara igarotzea ekarri zuen (edo ahanzturara). Autoritatearen araberako irizpideak garrantzia galtzea eta genero literarioarenak garrantzia hartzea onuragarria izan zitekeen herri-literaturako generoak ikusgarri egiteko. Baina, ez da horrela izan, eta sailkapenerako irizpideak berritu eta egokitu badira ere, berritze eta egokitze horrek ez du corpusaren hautaketan berritze eta egokitzerik ekarri<sup>8</sup>.

<sup>8</sup> Are gehiago, azken aldian idatzi diren Euskal Literaturaren Historietan ez da corpusaren inguruko hausnarketarik edo erabakirik aipatu, nolabait, corpusaren hautaketa kanon konpartitu

#### 4. Ondorio zenbait

Euskal Literaturaren Historiografian garatu eta hedatu diren herrikoitasunaren kontzeptuetan arakatu ondoren, honako ondorio hauek dira azpimarragarri:

- a) Herri-literaturako edo literatura popularreko jarduerak Euskal Literaturaren Historian txertatu ahal izateko, lehen-lehenik corpusaren hautaketa definitzeko erabili diren irizpideak berrikusi behar dira, *literario* kontzeptuaren mugak zabalduz.
- b) Herri-literaturako jarduerak Euskal Literaturaren Historian kokatzeko beharrezkoa da dokumentu-izaeratik at jarduera literario horiek azalduko eta baloratuko dituen logika literario eraginkor bat osatzea.
- c) Herri-literaturaren ekarpenak Literaturaren Historiaren katera biltzeak, literatura jasoaren logika birpentsatzera garamatza, eta neurri horretan, herri-literatura eta literatura jasoaren artean dagoen continuum literarioaz aritzeko logika berria sortzera gonbidatzen.
- d) Herri-literaturaren ekarpenak Literaturaren Historiaren katera biltzeak, gaur egun bi ikerketa-eremu berezitu eta bi instituzio berezitu diren arteko zubia egiten lagunduko luke.

Artikulu hau herrikoitasun kontzeptua euskal literaturaren Historiografian nola garatu den aztertzeko lehen hurbilketa baino ez da, etorkizuneko ikerketa-lan garatu batek kontuan hartu beharko litzuzkeen korapilo zenbait aurkeztu besterik egin ez dituen, eta hurbilpen horren premia azalarazi nahi izan duena. Etorkizunerako, bada, aurkeztu diren kontzeptu hauetariko zenbait xeheago aztertzeko zeregina.

---

\* Lan hau GIC 10/100 eta TIT 495/10 ikerketa taldearen proiektuaren zatia da, UPV/EHUK eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua.

---

baten parte bailitzan, eztabaidagai ez litzatekeena. Aldiz, Historia horietan bertan auzitan jarri dira corpus konpartitu eta kanonizaturiko horren gaineko irakurketa eta balorazio estetikoak, edo ikuspegi historiko eta sozialak.

## Bibliografia

ALTUNA, P., 1981, «Etxepare herri poeta», in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

AMEZAGA, J., 1995, *Herri kultura: euskal Kultura eta kultura popularrak*, Bilbo: EHU.

BARANDIARAN, A., 2009, «XX. mende hasierako bertsolariaren argudiaketa eta orduko idazleen eragina euren bertsoegintzan», *Oihenart*, 24 (2009) 71-86.

BELTRÁN ALMERÍA, L. (bil.); Escrig, J. A. (bil.), 2005, *Teorías de la historia literaria*. Madril: Arcos.

EGAÑA, A. eta SARASUA, J., 1997, *Zozoak beleari*. Irun: Alberdania.

FIGUEROA, A., 1988, *Diglosia e texto*. Vigo: Xerais.

GABILONDO, J., 2006, *Nazioaren hondarrak: euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, Bilbo: EHU.

———, 2009, «Euskal poesiaren historia postmoderno baterantz: ahozkotatunaz eta performantzeaz (Gerra karlistetako bertso paperetatik rock erradikalera eta K. Uriberen poesiara)», *Egan*, 3-4 (2009) 5-52.

LEKUONA, J.M., 1982, *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein.

———, 1964, *Literatura oral vasca*. Tolosa: Auñamendi.

OLAZIREGI, M.J., 2008-2009, «Literatura vasca y identidad nacional», *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, 14 (2008-2009) 355-369.

ROMERO TOBAR, A., 1998, «Las Historias de la literatura y la fabricación del canon», in *Canon literari: ordre i subversió*. Lleida: Institut d'Estudis Llerdencs.

TACCA, O., 1968, *La historia literaria*. Madril: Gredos.

SARASOLA, I., 197, *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Lur.

TALENS, J., 1994, *Escritura contra simulacro. El lugar de la literatura en la era electrónica*. Valentzia: Episteme, Colec. Eutopías 56.

ZUBIETA, A.M., 2000, *Cultura popular y cultura de masas. Conceptos, recorridos y polémicas*. Buenos Aires: Paidós.

# Eztabaida-saioen laburpena

Atal honetara bildu dira eztabaida-saioetan egin ziren ekarpen eta galde-  
ra interesgarrienak. Hortaz, ez dira eztabaida-saio osoak bildu, baizik eta  
horietan mahai-gaineratu ziren gogoeta esanguratsuenak.

**Sarrera-hitzak:** «Euskal literaturaren historia eta historiografia», Txuma  
Lasagabaster.

Peillenek honako hau galdetu dio Lasagabasterri: «zer dira euskal litera-  
turaren kanonak?».

Jesus Mari Lasagabasterren ustez irakurle bakoitzak badu bere kanona.  
Literatura bakoitzak badu normalean kanona mugatzen duen arau edo kon-  
tzeptu zenbait. Edonola ere, kanona kontzeptua berez da mugikorra.

Iñaki Aldekoa ere bat dator iritzi horrekin. Kanona mugikorra eta al-  
dakorra da, eta are gehiago, Aldekoaren ustez, kanonaren inguruko auzia  
Unibertsitateko hausnarketagai bilakatu da kanonaren kontzeptua bera  
auzitan jarri denean. Egia da erreferentzia bat behar dela, eta kanonak bete-  
tzen du erreferentzia-guneak sortzeko funtzio eta premia hori.

Karlos Otegik dio bi mutur aurkeztu direla: batetik, irakurle bakoitzak  
baduela kanon bat; eta bestetik, oso zehazgabea eta mugikorra dela. Horren  
haritik, honako galdera hau egin zuen: «ez al dago tartean beste elementu  
bat bi mutur horiek batzen dituen? Ez al da posible komunitate batean eta  
garai batean kanon konpartitu bat, estabilizatu bat?». Aldekoak dio hezkun-  
tzak jasotzen duela kanon konpartitu eta kolektibo hori.

Jesus Mari Lasagabasterrek ere kanona kolektiboa dela uste du, jakina.  
Literatura instituzio sozial eta historikoa denez, komunitate bakoitzak uz-  
tarturik ikusten du bere burua kanon bati, eta zentzu horretan, kanonak  
badu garrantzia kolektibo hori, talde identitatea sortzeko gaitasuna.

Iñaki Aldekoak dio komunitate barruko adostasunak direla kanonak.

Mari Jose Olaziregik adierazi du, jakina denez, kanonak botere gune ba-  
tek eraikitzen dituela, instituzio literarioak, besteak beste. Kanona etengabe  
egiten, berregiten eta deusezten da, baina, instituzioaren dinamika oso mo-  
tela da, eta moteltasun horrek iraunarazten du kanona. Eskolak, sariek,  
gune ofizialek... eragin zuzena dute moteltasun horretan.

Karlos Otegik beste galdera bat egin du: «kanonaren zehazgabetasun hori historia galarazteraino heltzen da? Kanona etengabe mugitzen eta aldatzen ari denez, posible al da historia? Horraino heltzen al da kanonaren zehazgabetasunaren eragina, bihurritasuna edo gaiztakeria? Ba al dago ekilibriorik?». Lasagabasterrek adierazi du ekilibrioa edo oreka egon badagoela, baina, gakoa honako galdera honetan datzala: «nork erabakitzen du ekilibrio hori?».

**1. Txostena:** «Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukeririzpideak», Ana Toledo.

Mari Jose Olaziregik honako galdera hauek mahai-gaineratu ditu, txosten honen harira: «zergatik erabili sistema kontzeptua literaturaren historia egiteko, baldin eta kontzeptu hori auzitan egon daitekeen literatura konparatutik, ikuspuntu postkolonial batetik –nazioaren ikuspuntutik–, eta baita ikasketa kulturalen ikuspuntutik ere? Baliagarria al da sistema kontzeptua historiografia egiteko?».

Ana Toledok adierazi du txosten honetan aurkeztu nahi izan duela zein irizpide hartzen dituen kontuan euskal literaturaren historia mugatzeko: batetik, euskaraz eginiko literatura, eta bestetik, berbaldi literario moduan jasotako testuak.

Lehen irizpidearen inguruko eztabaida abiatu da. Hainbat parte-hartzailek galdera bera mahai-gaineratu dute: «euskarazko testuak izan behar al dute bakarrik? Eta hala bada, nola kontatu behar da euskarazko testuek gainerako hizkuntzako testuekin duten harremana?». Kezka hori sortu da eztabaida-saioan zehar, behin baino gehiagotan. Alegia, honako galdera hau mahai-gaineratu da behin eta berriro, kezka gune nagusi bat dela azaleratuz: «nolako begirada konparatua erabili behar da euskal literaturaren historia egiteko?».

Bigarren irizpidearen inguruko eztabaida abiatu da. Jon Casenavek honako galdera hau egin zuen: «berbaldi literario hori zerk definitzen du, egilearen asmoak edo gaur egungo interpretazioak?». Jakina, berbaldi literarioa zeri deitu izan zaion historian zehar eraldatu izan da, baina, kasu askotan, ez dago jakiterik aldi historiko konkretu batean zein testu jaso diren litera-



rio modura, eta are gehiago, gerta liteke testu batzuk komunitatearen parte batek literariotzat hartu izana, eta beste parte batek ez. Izan ere, literaturaren kontzeptua aldakorra da, eta gainera, aldi berean kontzeptu ezberdin zenbait egon daitezke bizirik.

Iñaki Aldekoak adierazi du, asmoak asmo, egon badaudela garai batean indarrean dauden konbentzio literarioak. Esaterako, *Ardi galduek* idatzi zenean, bere asmoa ez zen literarioa, baina, konbentzio literarioak erabili ziren testua garatzeko, eta hartara, konbentzio literario horien arabera balora dezakegu. Xabier Etxanizek beste adibide bat ekarri zuen gogora, Kirikiñoren *Abarrak*. Garai hartan, argitaratu zenean, *Abarrak* literatura esparruaren erdigunean zegoen, eta egun, aldiz, Haur eta Gazte Literatura esparruko lan literariotzat hartzen da. Izan ere, sisteman mugimenduak daude, eta erdigunean zegoen obra periferiko bihur daiteke (edo kontrara). Etxanizek gogora ekarri zuen, historia egiteko arazo handienetarikoa hauxe dugula, ez dagoela jasorik obra askoren garaiko harreraren inguruko informaziorik.

Jean Haritschelharrek beste adibide bat ekarri zuen gogora: *Biblia*. Haritschelharren ustez, lan hori ez da historia literarioan kokatu ohi itzulpena delako, eta jatorrizkoak behar dira historiaren katera ekarri behar. Haritschelhar bat dator corpus literarioa euskarazko testuetara mugatzearekin, eta baita jatorrizko testuak bakarrik jasotzearekin ere.

Argi dago, literaturaren historia osatzerakoan hartu behar den lehen erabakia horixe dela, zein corpus literario kateatuko den historiaren harira. Euskal literaturaren kasuan lehen urrats horrek ere arazo eta buruhauste ugari ekartzen ditu.

## 2. Txostena: «Eredu historiografiko finkatu berriaz zenbait gogoeta», Jon Casenave.

Jon Casenaveren ustez, literaturaren historiak helburu pedagogikoa du, irakaskuntza du helburu. Iñaki Aldekoarentzat, aldiz, historia-egileak bere burua garaiko pentsamenduan kokatzeko egiten du historia, eta zentzu horretan, Aldekoaren ustez, modernitatearen narrazioa da historiaren funtsa. Euskal literaturaren historian, gogorarazi duenez, Mitxelena eskutik etorri zen modernitatearen narrazio hori. Aldekoaren ustez, historia-egile

bakoitzak bere mundutik egiten du historia, bere mundua azaltzeko asmoz, ez helburu pedagogiko hutsez.

Jon Kortazarrek adierazi du eremu literarioa ulertzeko bi modu daudela: bata, eredu estua, Pierre Bourdieu-ren bidetik, instituzionalizazioa eta profesionalizazioa hartzen dituena oinarri; bestea, eredu zabala, non egituratze zabalagoa hartzen den kontuan. 60eko hamarkadan, esaterako, egon zen beste sistema literario bat, profesionaltasunaren kontzeptuari edo instituzionalizazioari loturik ez zegoena.

Mari Jose Olaziregiren ustez, literatura konparatu garaikidea giltzarri suertatzen da hizkuntzak, euskarak, gure historiografia egiteko orduan izan duen garrantzia ulertzeko garaian. Kontu egin Claudio Guillen bezalako konparatistek, sistema kontzeptua ikerketa hispaniarretan aplikatu zuenak, hizkuntzen arabera antolatutako literatur produkzioa lehenesten dutela konparaketa egiteko garaian, eta ez, muga politiko edo administratiboek definitzen duten literatura-esparrua. Euskal historiografian bide hortatik jarraitu dugu eta ez da kasualitatea Koldo Mitxelena izatea historiografia garaikidean eragin erabatekoa izan duena. Ikuspuntu konparatzailea erabili baitzuen hark bere lanean.

Mari Jose Olaziregiren iritziz, ez du modernitate kontzeptuak generoen arteko desoreka hori esplikatzen, narratibaren gailentasunari dagokionez behintzat. Modernitatearekin lotuta datozen beste generoak, hala nola, saiakerak, gurean ez baitu literatur generoen arteko oreka/desoreka hainbeste baldintzatu. Bestalde, garrantzizkoa iruditzen zaio Olaziregiri euskal literatura-kritikaren beraren bilakaerak euskal literaturaren historiografia ulertzeko moduetan izan duen eraginaz ohartarazteari. Zentzu horretan, formalismoaren ekarpenak edo narratologiaren garapenak, hau da, narratiba-testuen kritikara bideratutako eredu estrukturalistak, eleberriari eman zaion zentralitatean eragin zuzena izan zuten. Euskal Filologia ikasketak 1977 inguruan hasten dira eta garai beretsukoak ditugu eredu estrukturalista aplikatuz egindako lehenengo ikerlanak, besteak beste, Txuma Lasagabasterri zor dizkiogunak.

Jon Casenavek ohartarazi du, kritika literarioaren bilakaera horrek, edo nola ere, ez duela 60ko hamarkadan garatu zen eredu historiografikoa auzi-

tan jarri, eta XXI. mende hasieran idatzitako euskal literaturaren historia guztiek Koldo Mitxelenaren historia dutela eredu.

Jean Haritschelharrek Koldo Mitxelenak Ipar eta Hego Euskal Herriaren literatur ibilbidea osatzeko hartu zuen erabakiaz jardun zuen. Garai historiko batzuetan bi eremu horien artean haustura egon dela kontuan hartu behar da, eta historia literarioak horri erantzun behar dio. Baina, halaber, haustura hori gainditu zuten ekimenak hartu behar dira kontuan: esaterako, RIEV, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza.

Jean Haritschelharrek jakinarazi du, bestalde, Koldo Mitxelenaren historiaren lehen izenburua, *Historia crítica de la literatura vasca* zela, baina, «crítica» hitz hori kendu egin zioten argitalpenean. Haritschelharren ustez, izenburu horrek adierazten du Mitxelena historia ofizialean haustura ekarriko zuela bazekiela. Karlos Otegiren iritziz, ordea, «crítica» hitz horrek egileen gaineko ikuspegi kritikoa garatu zuela adierazi nahi zuen.

Bestalde, Karlos Otegi zenbait galdera egin dizkio Jon Casenaveri: «zein da eredu historiografiko hori gainditzeko bidea? Zer da kontaketa berri hori egitea? Eredu nazionala gainditzea? Ikuspegi modernista gainditzea? Periodizazioa gainditzea?».

Jon Casenavek adierazi du Mitxelenak eginiko literaturaren historiak eredu historiografiko bat erabili zuela, baina, aurretik hainbat eredu historiografiko ere egon zirela: adibidez, Francisque Michelena edo Lhandarena. Beraz, beste hainbat eredu historiografiko ere erabili izan dira, gerora kontuan hartu ez direnak.

Jon Casenavek dio ez duela orain arteko eredia indargabetzeko asmorik, ez du kentzeko asmorik. Ohartarazi nahi izan du bazterretik zenbait gai, genero, eta kontzeptu ekarriz, historiografiaren eredia osa daiteke. Casenaveren ustez, antzerkiaren inguruko gizarte-ikuspuntua zenbait garatuz, esaterako literatur gertakariari begiratzeko modua bat eraikitzen da, eta jardun kultural batzuei dimentsio berria emateak ere literaturaren historiara bilduko diren kontzeptu eta ideiak baldintzatuko ditu.

Iratxe Retolazak adierazi du eredu historiografikoa beharbada ez, baina, genero literario zenbaiti garrantzia emanez, euskal literaturaren ibilbide

osoaren inguruko irudia aldatuko litzatekeela. Esaterako, kazetaritza kontuan hartuz gero, eta Jean Etxepareren ekarpenak ibilbide diakronikora txertatuz gero, errealismoaren inguruko diskurtsoa zeharo aldatuko litzateke euskal literaturaren historian.

Casenavek dio gizarte-arazoak tratatzeko moduak daudela auzitan, eta hizkuntzaren produkzioa ukitzen duten arazoak tratatzeko erak daudela auzitan.

Bestalde, Ibai Atutxak erdigune eta periferien arteko harremanez jardun du: «Bazterretik zentrorra ekarpenak hurbildu behar direla esan da, baina, koska hortxe datza: zein da bazterra eta zein da zentroa?». Gaur dugun zentroak Espainiar estatuan integraturik dagoen Euskal Autonomia Erkidegoari erantzuten dio, eta literaturaren historiek ere zentro horri erantzuten diote. Ikuspuntu horrek zentro batu baten eraikuntza baino gehiago dependentzia harremana ere sor dezake. Galdera honako hau da: «zein gatazken bidez sortu dira zentroak? Zein gatazken bidez sortu dira bazterrak?». Horrek dakartzan arazoak subjektu eraikuntzaren arazoak dira: zer da euskaldun izatea. Ipar eta Euskal Herriaren artean batasuna nola bilatu da gakoa auzi honetan. Roberto Espositok *Communitas* liburuan komunitateaz hitz egiterakoan honela dio: modernitatean komunitatea propietate bat konpartitzen duten talde modura irudikatu da. Zentzu horretan, euskara dugulako gara euskaldunak. Espositok ikuspuntu horrekin hautsi egiten du, eta elkarrekiko zor modura irudikatzen du komunitatea (hizkuntza bera ere zor bezala uler daiteke horrela). Eta, komunitatearen garapena zor modura planteatuz gero, Ipar Euskal Herri eta Hego Euskal Herri literaturaren arteko batasuna zor modura uler daiteke.

Karlos Otegik adierazi du komeni dela bereiztea kanpo-kolonialismoa eta barne-kolonialismoa. Zentzu horretan, kanpo-kolonialismorik ez dago euskal literaturan.

### 3. Txostena: «Periodizazioa. Generotik mugimendu literarioa», Xabier Etxaniz.

Iñaki Aldekoak adierazi du bereizi behar direla instituzio literarioa eta merkatua, eta kanona berez instituzio literarioak ezartzen du, edo beharko

luke. Aldekoak ohartarazi du gaur egun salmenta-kopuruak baldintzatzen duela kanonaren diskurtso zenbait, eta nahasi egin direla instituzio literarioaren diskurtsoa eta merkatuaren diskurtsoa, baina, bereiztea komeni dela.

Mari Jose Olaziregik gogorarazi du Haur eta Gazte Literatura euskal produkzioaren %25a dela, eta sektore horretan merkatuak eta eskolak garrantzia handia dutela. Xabier Etxanizen ustez, helduen literaturan ere bai.

Baina, bestalde, Olaziregik uste du instituzio literarioek (unibertsitateak, eskolak...) oraindik ere botere handia dutela, eta idazle kanoniko askok iraun egiten dute instituzio horiei esker, ez merkatu ikuspegiari esker. Zentzu horretan, badira hezkuntza formalean asko irakurtarazten diren testuak instituzioak etengabe babestu dituelako. Olaziregiren ustez, literaturaren Historiografiak ez du zertan helburu didaktikoa lehenetsi behar. Historiografiak analisi bat egiten du eta denboran zehar iraun duten testuak seinalatzeko ditu, ustez ekarpen literarioa egin duten testuak. Horrek ez du esan nahi testu horiek hezkuntzarako egokiak izan daitezkeenik, hau da, eskolaren eskakizunetarako egokiak direnik, batez ere, irakaskuntza maila desberdinetan irakurleek gaitasun linguistiko eta literario mugatuak dituztela kontuan hartuz.

Manu Lopez Gaseni bat dator Iñaki Aldekoaren iritziarekin. Euskal literatura sistemak ez du oso ondo bereizten kanonikoa eta periferikoa merkatu arazoengatik, asko saltzen dena ere irakurtzen delako eskolan. Askotan kanonikotzat hartzen dira berez bazterreko beharko luketen testuak edo generoak. Denbora-pasarako beharko luketenak, premiazko eta derrigorrezko bihurtzen dira.

Iñaki Aldekoak jakinarazi du eskolek sarritan argialetxetara jotzen dutela irakurgai gomendagarri eske, eta ez instituzio literarioetara.

Jon Casenavek honako galdera hau egin du: «nola definitu dezakegu instituzio bat, ez dena gai historietan aipatzen ditugun idazle kontsokratuen testuak plazaratzeko?». Esaterako, Lizardiren poesiaren sakelako bildumarik ez da. Alegia, ez dira klasikoak berrargitaratzen. Ez da posible klasikotze prozesu bat garatzea eta finkatzea, testu klasikoak eskuragarri ez badira.

Mari Jose Olaziregik uste du bi kontzeptu nahasten ari direla: klasikotasuna eta irakurgarritasuna. Hezkuntzaren garai batean ezin dira testu klasiko zenbait irakurri. «Klasiko» bilakatu diren testuak, denboran iraun dutenak, ekarpen eta balio literario jakin bati esker iraun dutela sinesten dugu, Italo Calvino eta besteren ironiak gora-behera. Klasiko horietako asko aurkituko dituzu mendebaldeko kanonari buruzko Bloomen liburu ezagunean. Baina bistakoa da *Ulysses* (1922) kanonikoa izanda ere, ez dela irakurgarria gaitasun literarioak gabeko pertsona batentzat.

Ibon Egañak adierazi du bi eztabaida nahasten ari direla: bata, irakurzaletasuna bultzatzearen ingurukoa, afizioz irakurzaletasuna bultzatzea helburu izanik, edozer dela irakurtzen dena; eta bestea, heziketa literarioaren ingurukoa, literatura irakaskuntzari dagokiona, eta testuen interpretazio literarioaren sakontzea dakarrena. Historiografiaren helburua heziketa literarioari loturik dago, eta irakurzaletasuna bultzatzeak ez du zertan bat etorri heziketa literarioarekin.

Karlos Otegiren arabera biak nahasturik daude, eta lehena da elikagaia. Arazoa da irakurle askok ez dutela batetik besterako jauzia egiten, eta hartara, ez da heziketa literario hori garatzen.

Jon Casenavek jakinarazi du literatura frantsesean literaturaren zaletasuna ere sortzen dela klasikoaren bidez, klasikoak egokituz.

#### 4. **Txostena:** «Genero ez-kanonikoen ekarpena euskal literaturaren historian», Manu López Gaseni.

Ana Toledok *Atheka gaitzeko oihartzunak* literatur lanaren adibideaz jardun du. Toledoren ustez, Dasconaguerrek ez zuen auzi bati egin behar izan zion aurre Leizarragak: hizkuntza ereduari. Dasconaguerrek eskura zuen mende batzuetako tradizioa, prosarena. Manu Lopezek adierazi du Leizarragaren eredu batuak ez zuela garai hartan arrakastarik izan, gerora izan dela kontuan hartua. Eta hartara, ez du uste ezaugarri hori erabakigarri gertatu behar zenik Leizarragaren itzulpena euskal literaturaren historian kokatzeko, eta Dasconaguerrera ez. Toledo ez dator bat Leizarragaren zabal-kundeari dagokion horretan. Toledoren ustez, beharbada garai hartan arrakastarik izango zuen, baina, ez da haren oihartzunik jaso, Kontraerre-

formak isilarazi zuelako. Karlos Otegiren ustez generoak berak badu garrantzia.

Xabier Etxanizek uste du kontuan hartu behar dela itzulpenak nolako ekarria egin dion literaturari. Euskal sortzaileen zorra handia da, eta Haur eta Gazte Literaturaren kasuan, esaterako, funtsezkoa, besteak beste, trebatzeko.

Manu Lopezek adierazi du itzulpengintza literarioaren zeregina eta funtzioa ezinbestekoa izan dela hizkuntza guztietan, gaiak jasotzeko eta egiturak bere egiteko, eta baita hizkera literarioa garatzeko ere. Izan ere, hizkera literario berria sortzeko meritua aitortu behar zaio itzulpengintza literarioari, Lopezen ustez.

Karlos Otegiren ustez, itzultzaileek ez dute unibertso literarioa sortzen, eta hartara, ez lukete historia literarioan lekurik izan beharko. Manu Lopez ez dator bat, itzulpengintza literarioak errepertorioa sortzen duela uste baitu, eta errepertorio horrek ahalbidetzen du lan literarioak garatea.

Asier Barandiaranek honako galdera hau mahai-gaineratu du: «genero periferikoak aipatu dira, baina ez duzu uste egile periferikoak ere badaudela? Zer egin egile periferikoen lanekin?».

##### 5. **Txostena:** «Istorioen gizatasuna euskal literaturan: adibide bat», Asier Barandiaran.

Josu Bijuescak jakinarazi du ez zekiela Asier Barandiaranek aurkezturiko idazle horietariko zenbait nafarrak zirenik ere. Erdigunekoak zirelakoan jaso zituela, ez zuela haien periferikotasun horren berri.

Ibon Egañak adierazi du idazle nafar horietariko zenbaitek kokapen periferiko hori kokapen politiko modura hartu dutela. Esaterako, Aingeru Epaltza. Idazle nafar hauetariko batzuk periferikotasun horretaz kontziente dira, eta besteak beste, kokapen periferiko horrek erdiguneko diskurtsoaren inguruko ikuspegi diferentek garatea ahalbidetu du. Ez da bakarrik gatazkaren gaiari dagokion jarrera, nazioaren inguruko ikuspuntu diferentek ere garatu dituzte idazle periferiko hauek. Bai nafarrek, bai Iparraldeko zenbaitek (Itxaro Bordak, kasu).

Xabier Etxanizek honako galdera hau mahai-gaineratu du: «gatazkaren gaiari dagokionez, nafarren ikuspuntua eta gainerako euskaldunena ezberdina al da?». Txomin Peillenek gogorarazi du Jon Alonsok berak posizio periferiko hori aldarrikatu izan duela.

Asier Barandiaranen ustez joera kritikoa eta urrutiratzea markatuagoa da idazle nafar hauengan. Ideologiari urutiagotik begiratzen diote idazle hauek, ez horren barrutik.

Iratxe Retolazaren ustez, etika, historia eta literatura gaiak elkartzen direnean, beharrezkoa da jarrera etiko hori historian irudikatzen den zein subjektuari dagokion adieraztea: historia-egilearen jarrera etikoa hartuko den ardatz, egilearen jarrera etikoa hartuko den ardatz edo pertsonaien jarrera etikoa hartuko den ardatz.

Bestalde, Retolazak adierazi du historiografiar aritzeko lerro berri bat zabaldu duela Asier Barandiaranek, oso interesgarria: tematikari dagokiona, eta orain arte gutxi jorraturiko kezka bat mahai-gaineratu da: «nola jorratu gai literarioak literaturaren historiografian?».

Edonola ere, Iratxe Retolazak ez du argi ikusten idazle periferiko hauek ikuspuntu kritikoa garatu dutelako hartu direnik kontuan erdigunean. Retolazak Atxagaren *Zeru horiek* nobela ekarri du gogora, erdiguneko idazle batek idatzi zuena. Retolazak honako hau adierazi zuen: «Beharbada, erdigunean indarrean zegoen ikuspuntua garatu zutelako onartu ditu idazle hauek erdiguneak, eta ez alderantziz».

Ibon Egañak gogorarazi du Muñozek *Joan zaretenean* nobela 1997. urtean idatzi zuela jada, begirada kritiko horrekin.

Asier Barandiaranek, bestalde, gogora ekarri du Aingeru Epaltzak *Garretatik erauziak* narrazio-bildumarako egina zuela ikuspuntu kritikoa zuen narrazioren bat, baina, ez zuen bildumara ekarri.

Manu Lopezek nafar idazleen periferikotasun horretan gurutzaketa dagoela dio: batetik, tematikoa, heterodoxoak baitira gaien tratamenduan; eta bestetik, zentroa Euskal Autonomia Erkidegoa dela uste duenez (eta ez Gipuzkoa), geografikoki ere periferikoak dira nafarrak, eta erakundeek sistematikoki enoratzen dituzte.



Jon Casenavek adierazi du tematika bat iraupen luzeko irudimen iturri dela, eta zentzu horretan, irudimen iturri hori ez da gaur egungoa soilik. Adibide moduan, *Amair* aipatu du. Hortaz, «nola txertatu behar da tematikaren azterketa ibilbide historikoaren kontaketan?».

Ibon Egañak adierazi du euskal literaturaren azken hamarkadak irudikatzerakoan hamarkadaka eta egileka osatu dela narrazioa. Egañaren ustez, hutsune hori nabaria da literaturaren historietan, eta beharbada hutsune hori tematikaren lerroa garatuz bete zitekeen, besteak beste.

Asier Barandiaren ustez gai konkretu horrekiko egileak duen jarrera da aztertu behar dena, eta hori zaio interesgarria. Bide horretatik, Ibon Egañak honako galdera hau egin du: «ikuspuntu etikoa zein gairi eta zein errealitatei aplikatu behar zaio?». Egañak adierazi du zaila dela jarrera etikoaren inguruko muga bat ezartzea: «emigrazioaz, genero-indarkeriaz, lan-baldintzez... idazleak duen jarrera etikoa hartu behar al du kontuan historiografiak?». Ibai Atutxak Bakthin eta Voloshinoven ekarpenak izan ditu aipagai: autore horien arabera hizkuntza ideologiaz josia dago, eta hizkuntza bera gatazka eremua da. Hartara, ez da hain erraz jarrera etiko hori egilearen jarrerari bakarrik egoztea.

Ibon Egañak literaturaren autonomiaz egin du gogoeta. Euskal literatura garaikidearen historia egiterakoan autonomiaren aldeko tentsio eta borroka bezala irudikatzen da, eta literaturaren autonomia horrek dakarren ikuspegi honako hau da: autonomia= diskurtso aseptiko edo neutroa. Bide horretatik, erdiguneak duen metarrelatoa zein den ere aztertu beharko genuke, erdiguneak ez baitu diskurtsoa esplizitu edo ikusgarri egiten. Ikuspegi horretatik, honako galdera egin du: «oso barneraturik dauden metarrelatoak (abertzaletasuna, neoliberalismoa edo beste zenbait) nola egin ikusgarri historia literarioetan?».

## 6. Txostena: «Naissance de l'écrivain? Literatura eta mezenasgoa Euskal Herri penintsularrean XVIII. mendean», Josu Bijuesca.

Ana Toledok adierazi du Bijuescaren txostenarekin argi geratzen dela Estatu baten babesa izan ez duen hizkuntza baten ibilbide historikoaz dihardugula. Egoera hori kontuan hartu behar da literaturaren historia egiterakoan.

Txomin Peillenek adierazi du XVIII. mendean bazela iraultzaren beldurra, eta horrek eragin handia izan zuen euskal literaturaren bilakaeran.

Iratxe Retolazak adierazi du instituzio literarioa eta sistema literarioa erabili izan dela eztabaidetan, eta oso gutxi zehaztu dela zer adierazi nahi den kontzeptu horiekin, eta hartara, oso gutxi zehaztu dela zer den guretzat euskal literaturak sistema bat osatzea edo instituzio literarioak izatea. Horrek baldintzatzen du sistema literarioaren sorreraz izan dezakegun diskurtsoa ere.

Josu Bijuescaren arabera, Pierre Bourdieu-ren ikuspegiak abantaila du, historian zehar alorrak bereizten doazela diolako, eraldaketa eta autonomia alor zabalenetatik berezituenetara doala aitortzen duelako.

Josu Bijuescak gogorarazi du XVIII. mendean geure kultura idatzia gaztelaniazkoan oso txertaturik zegoela, are gehiago, garai horretan borroka egin behar izan zen dependentzia horretatik askatu ahal izateko. Nolabait, askatze horren kontaketa egin nahi izan duela adierazi du, tentsio-dinamika horien berri eman.

Ana Toledok adierazi du orain arte XVI. eta XVII. mendeetan erdigunea nahikoa argi egon dela, Ipar Euskal Herrian kokatu izan da erdigune literarioa. Beharbada Bijuescak eginiko adierazpenek egoera hori argitzen dute, izan ere, badirudi Hego Euskal Herriko euskal produkzioari kosta egin zitzaiola gaztelaniazko produktiotik askatzea, sarritan gaztelaniazko testuen barruan integraturik agertzen baitzen.

Josu Bijuescak gogorarazi du Larramendik berak Ipar Euskal Herrian eginiko lan literarioa ezagutu eta bildu zuela, eta esaterako, Axularren prosa baloratu egin zuela. Are gehiago, Euskal Herri kontinentala erreferentziatzen zuen, eta horrela ulertu behar da Axularren kanonizazioa. Axularren estiloa goraiatu zuen Larramendik, eta Añibarrok berak itzuli ere egin zuen bizkaierara. Alegia, Axular zuten eredu.

Ibai Atutxak interesgarritzat jo du biolentzia sinbolikoa eta habitus-aren oinarritzko ezaugarri bat gogora ekartzea: errepika. Alegia, denboran etengabe errepikatzen diren ideiak dira beharrezko, eta errepika horrek biolentzia sinboliko hori esentzia emaile bihurtzen du, euskaldunak barbaro bihurtzen.

tuz. Horregatik garrantzitsua da XVIII. mendeko erantzun hori, ironiak errepikaren subertsioa ekar baitezake. Atutxak gogorarazi du errepika hori gaur egun ere bizirik dagoela.

**8. Txostena:** «Literatura herrikoa, herri-literatura, herri-idazleak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta», Iratxe Retolaza.

Eztabaidara bildu diren galdera eta zalantza gehienak kontzeptuen ingurukoak izan dira. Zentzu horretan, Manu Lopezek adierazi du beharrezkoa dela ordena terminologia ezartzea, eta terminoak zentzua argitzea. Manu Lopezek ohartarazi du ez direla hainbat alderdi behar bezala bereizi: tradizionala eta ez-tradizionala, esaterako. Karlos Otegik ere terminologia kontuetan antzeman ditu oztopo zenbait: izan ere, erabilitako kontzeptu askok ikuspegi eta zentzu ugari izan ditzakete, eta horiek zehaztea beharrezkoa da. Besteak beste, honako kontzeptu hauek aipatu dira: herri-literatura, literatura jaso, literatura kultura...

Ibon Egañak adierazi du beharrezkoa dela bereizketa bat egitea. Izan ere, herrikoitasunari loturiko ezaugarriak literaturaren historia ofizialean onartu ohi dira, bakar-bakarrik testuaren bigarren mailakoak diren neurrian. Alegia, literatura idatziaren paradigmen barruko ezaugarri bereizle diren neurrian, eta ez besterik.

Jean Haritschelharrek ohartarazi du Etxahunen inguruko tesia osatzerakoan herri-literatura balioztatzeko asmoa ere izan zuela, modu horretara, euskal literaturaren historian eta euskal erromantizismoan izan zuen eraginaren berri emateko.

# Beste ikerketak



# Amatasunaren gaineko diskurtsoak euskal eleberrigintza garaikidean

LASARTE, Gema  
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Artikulu honetan, bi alde aski diferenteak aztertu nahiko genituzke amatasunaren inguruko diskurtsoetan. Batetik, lehen partean, datu soziologikoak eskuan, aztertu nahi ditugu, 1979-2009 bitartean, amatasunak izan dituen gorabeherak. Beraz, datu soziologikoak buruan, literatur testuak aztertu ditugu bigarren atalean. Artikulu hau garatzeko orduan, protagonista ugalkortasun garaian dauden emakumeak dituzten literatur lanen hautua egin da batik bat.

**Hitz-gakoak:** amatasuna, literatur pertsonaiak, berdintasunaren feminismoa, diferentziaren feminismoa.

En este artículo queremos analizar dos aspectos muy diferentes en los discursos sobre la maternidad. Por una lado, en la primera parte y teniendo a mano los datos sociológicos, haremos un estudio sobre el desarrollo de la maternidad en el periodo 1979-2009. Teniendo estos datos en mente analizaremos los textos literarios. A la hora de desarrollar este trabajo, se han seleccionado las obras de mujeres que están en edad de procrear.

**Palabras clave:** maternidad, personajes literarios, feminismo de la igualdad, feminismo de la diferencia.

Nous voulons analyser dans cet article deux aspects très différents dans les discours sur la maternité. D'une part, dans la première partie, nous étudierons à la lumière de données sociologiques le développement de la maternité au cours de la période 1979-2009. Sans perdre de vue ces données nous analyserons les textes littéraires. Pour réaliser ce travail nous avons sélectionné les oeuvres écrites par des femmes en âge de procréer.

**Mots-clés :** maternité, personnages littéraires, féminisme de l'égalité, féminisme de la différence.

In this paper the authors would like to examine two totally different aspects in the discourses on motherhood. On the one hand, armed with sociological data the authors set out in the first part to examine the vicissitudes that motherhood has undergone between 1979 and 2009. So with the sociological data in mind, the second part is devoted to the analysis of literary texts. When writing this article the works of literature mainly chosen were those by women of child-bearing age.

**Keywords:** motherhood, characters in literature, equality feminism, difference feminism.

## 1. Sarrera

Artikulu honetan, bi alde aski diferenteak aztertu nahiko genituzke amatasunaren inguruko diskurtsoetan. Batetik, lehen partean, datu soziologikoak eskuan, aztertu nahi ditugu, 1979-2009 bitartean, amatasunak izan dituen gorabeherak. Hala, zehaztuko ditugu amatasunaren jaitsieran eragina izan duten hainbat kontu, hala nola emakumeen kopuruak ikasketen eremuan nahiz lan munduan nabarmen gora egina; hainbat legek amatasunaren inguruan izaniko eragina...

Halere, datu guztiek azpimarratzen dute amatasuna aipaturiko sasoian jaitsi egin dela (Tobío, 2005; Pérez-Díaz & Chuliá & Valiente, 2000), eta horren inguruko zioak aztertu dira atal ezberdinetan. Lehenik eta behin, datuak eman dira (Emakunde, 2009; Eustat 2009; Alonso-Arbiol, 2006). Bigarrenik, emakumeak lan munduan sartzeak ekarri dituen ondorioak eta estrategiak aztertu dira (Tobío, 2006: 121-151). Geraldine Nicholsek (2003:192) ondo esaten duen bezala, ugalketaren gaia mahai gainean jaritzeak garai ezberdinak aztertzeke aukera ematen du:

«Poner de relieve el tratamiento de la procreación puede iluminar constelaciones de significados hasta ahora ocultos, a la vez que ofrecer una radiografía de los tiempos». (Nichols, 2003:192)

Beraz, datu soziologikoak buruan, literatur testuak aztertu ditugu bigarren atalean. Artikulu hau garatzeko orduan, protagonista ugalkortasun garaian dauden emakumeak dituzten literatur lanen hautua eginda batik bat. Horrela, aztertu ditugun literatur lanetan azaltzen diren protagonistak amatasunaren inguruan badute iritzi propiorik. Bikotekidearekin eraikitako harremanak, lana egiteko eta independentzia lortzeko zailtasunak, zoriontasuna...

«La reproducción propicia una discusión de estos temas porque funciona como sinécdoque de una serie de prácticas que implican la desigualdad». (Nichols, 2003:193)

Eleberrien azterketa egin aurretik, aukeratu diren nobelen eta aukeraketaren arrazoen argudioak azalduko dira. Lehenik eta behin, euskal emakume idazleek aipatu berri dugun tenorean (1979-2009) argitaratutako eleberrigintzan hartu dugu oina. Esan behar da, amatasunaren alde eta kon-



tra azaldu diren diskurtsoak bereizi nahi izan direnean bi multzoetan lerratu direla amatasunaren inguruko hari narratiboak. Bi ikuspegi horiek, gure eleberrigintzan ez ezik, teoria feministan ere ibilbide luzea izan dute.

Kritika feministak hastapenetatik izan ditu amatasunekiko bi ikuspegi diferente horiek. Berdintasunaren feminismotik amatasunaren alde ezkorak aztertu ohi dira (Beauvoir, 2005; Firestone, 1976; Mitchell, 1974; Sau, 1993). Aldiz, diferentziaren feminismotik amatasunaren alde onak azpimarratu dira.

Marta Segarrak dio feminismo burgesarentzat familiaren kontzeptua kartzela dela, eta amatasunaren kontzeptua, berriz, emakumearen rol bakar bezala ikusten den zerbait.

«Feminismo afroamerikararentzat, aldiz, familia babeslekua da, eta amatasuna, euren historiaren, herrialde-tasunaren gune garrantzitsu bat, euren kulturaren transmisioztat hartzen duten zerbait».  
(Segarra, 2000: 80)

Azkenik, ondorioak atera ditugu. Esan behar da lan honetan gidariak izan ditugula, beste egile askoren artean, Geraldine Nichols (2003), Adrienne Rich (1978), Luisa Muraro (1994), Ángeles de la Concha eta Raquel Osborne (2004), literatur ikuspegitik, eta alde soziologikotik; Víctor Pérez-Díaz, Elisa Chuliá eta Celia Valiente (2000), Constanza Tobio (2005) eta Itziar Alonso-Arbiol (2006).

## 2. Amatasunaren inguruko datu soziologikoak

### 2.1. Amatasunaren jaitsieraren inguruko datuak eta arrazoiak

#### a. Datuak

1975etik hona euskal gizarteak aldaketa nabarmenak izan ditu demografia dinamikari dagokionez: migrazio-mugimenduen aldaketa, adinari begira sortutako egitura berriak.

«Se ha transformado la estructura por edades, y tras una época en que los matrimonios y nacimientos estaban en alza, encontramos los

índices sintéticos de nupcialidad y natalidad más bajos de Europa».  
(Luxan, 2005:123)

Bestalde, familia ereduaren aniztasunak, laguntza bidezko ugalketa-teknika berriek, nazioarteko adopzioaren igoerak, pertsona homosexualen errekonozimendu sozialak, besteak beste, familia eta gurasotasunaren kontzeptuak berraztertzea ekarri dute (Alonso-Arbiol, 2006:7).

Jaiotza-tasak behera egin du, nabarmen, azken hamarkada hauetan. Adibidez, Arabak 1978. urtean 1.000 biztanleko 18,6ko jaiotza-tasa zuen, eta 2008an, berriz, 10,4koa. Nolanahi ere, jaiotza-kopuru absolutuen gorakadak erakusten du 90eko hamarkadatik hona jaiotza-tasa pixkanaka hazten ari dela. Une honetan, Gipuzkoak du jaiotza-tasarik handiena (10,6) eta Bizkaiak txikiena (9,7) (Emakunde, 2009).

Autonomia-erkidegoetako jaiotza-tasekin alderatzen badugu, Melillaren (20,8ko jaiotza-tasa) eta Asturiasen (7,88ko jaiotza-tasa) artean dago Euskadi, 10,08ko jaiotza-tasarekin. EAeko tasa handiagoa da soilik Extremadura, Kantabria, Gaztela eta Leon eta Asturiasekin erkatuta.

«En 1975 el índice de fecundidad femenino era de 2,8 hijos por mujer, en 1995 se había reducido a 0,9 hijos por mujer. Se trata, pues, de una reducción del 65% de la fecundidad en 20 años».  
(Luxan, 2006: 129)

Jaiotzen gutxiagotze hori Euskal Herrian ez ezik, Espainian, Italian, Portugalen eta Grezian ere gertatu zen, ez hainbeste Frantzian, Erresuma Batuan, Alemanian eta Eskandinaviako herrialdeetan. Ugalketa gutxitze horri «bigarren trantsizio demografikoa» deitu izan zaio (Pérez-Díaz, Chuliá eta Valiente, 2000: 32). Egile horien arabera, «lehen trantsizio demografikoa» XX. mendean abiatu zen, heriotza-tasaren jaitsierarekin, baina mesedegarri izan zituen nekazal-iraultza, industria-iraultza eta industriaren hirugarren sektorerako hedapena. Horrela, 1930 aldera, jaiotza eta heriotza tasek ordezte maila egonkortu zuten. Ordezte maila emakume ugalkor bakoitzeko 2,1 haur edukitzean kontsideratzen da. Oreka hori II. Mundu Gerraren ostean hautsi zen *baby boom*-aren ondorioz, eta Europako herrialdeetan 60ko hamarkada arte jaiotza-tasek gora egin zuten. (Pérez-Díaz, Chuliá eta Valiente, 2000: 33)

b. *Amatasunaren jaitsieraren inguruko arrazoiak*

60ko hamarkadatik 1990. urtera arte jaitsiera handia izan dute jaiotza-tasek, eta jaitsiera hori interpretatzeko, hainbat argumentu erabili dira. Lehenik eta behin, Van de Kaak, 1987; Rouseel-ek, 1992; Fukumayak, 1999, teoriarari batzuk aipatzearen, jaiotza-tasaren jaitsieraren zergatiak esplikatzeko orduan, gizartean edota kulturaren hautematen dituzte beherakada horren arrazoirik nagusienak, hala nola balioen aldaketa, egungo gizarteak bultzatzen duen norberekeria, mentalitate aldaketa, antisorgailuen zabalkundea eta emakumezkoen parte-hartzea lan munduan, lan-egonkortasun eskasa, etxebizitza garestiak eta bikote-harremanen ahulezia. Imaz ere (2006) korrante horretan lerratzen da, eta, haren ustez, ugalketaren gaineko kontrolak ez dira soilik ernaltzea eta haurdunaldia eteteko teknikak, baita ernalketa eta haurdunaldia posible egiten duten gizarte mekanismoak ere.

Horien artean, arauak, ohiturak, legeak eta mekanismo ideologikoak. Beraz, antisorgailuak eta abortua ugalketaren kontrolerako metodoak baldin badira, ezkontzeko eginbidea edo koito heterosexualak ez diren praktika sexual ororen estigmatizazioa ere horrelakoxe metodoak dira. (Imaz, 2006: 97)

Jaiotza-tasaren jaitsiera esplikatzeko duen beste korrantea, ikuspegi ekonomikoan oinarritzen da (Pérez, Díaz, Chuliá eta Valiente, 2000: 37). Dagoeneko seme-alabak ekartzea kostu bat da, ez inbertsio bat.

«Los hijos suponen un coste muy elevado y ya no representan una inversión para la vejez, habida cuenta de la extensión de los sistemas de protección social». (Pérez, Díaz, Chuliá eta Valiente, 2000: 37)

James Colemanek Mendebaldean seme-alaben arteko harremanetan izandako aldaketan inguruan ikertu du. Hiru motatako sendiak sailkatu ditu: sendi premodernoa, modernoa eta postmodernoa. Premodernoan seme-alabak produkzio-ondasunak dira; modernoa, inbertsio ondasunak, eta postmodernoa, estatusa eta komunikazio gunea (Imaz, 2005: 171-177).

Azkenik, jaiotza-tasaren jaitsieraren zergatiak gizarte politikan ikusi behar direla esan duen teoriaririk ere badago. Politika horiek, gizarteak, oro har, amatasuna babesteko abian jartzen diren zerbitzu publikoetan eta

pribatuetan oinarritzen dira. Esan behar da Espainian zerbitzu horiek, Europako hainbat herrialderekin alderatuta, oso eskasak direla (Imaz, 2006; Díez, 2000).

«A diferencia de la mayoría de los países europeos, aquí no existe una amplia red de servicios hacia la familia. En gran medida, se sigue considerando la maternidad exclusivamente de mujeres y no una necesidad social». (Imaz, 2006:194)

«La gran paradoja del sistema capitalista, para el cual la necesidad de producir individuos es básica y elemental, es que el embarazo y la maternidad se consideran opciones individuales, no necesidades sociales, y que las mujeres son las responsables directas de la reproducción». (Díez, 2000:175)

## 2.2. Amak lan munduan, ondorioak eta estrategiak

Christine Delphyk (1985) dio gizarte gehientsuenak emakumeen doako lanetan oinarritzen direla oraindik, eta doako lan hori seme-alaben zaintzan eta etxeko lanak egitean oinarritzen dela. Zerbitzu horiek harreman partikular baten barruan ematen direla dio, non gizonaren eginkizuna lan indarrak mantentzeaz arduratzea den (1985: 13).

Delphyk esandakotik oraindik zerbait geratzen bada ere, emakumeek hezkuntza eta lan ordainduaren eremuan eginiko aurrerapenak oso adierazgarriak dira, nahiz eta oraindik kontratatu eta langabe tasek emakumeen kontra hitz egiten duten (Esteban, 2006: 44). Etxetik kanpoko lanak amatasun paradigma ezberdinen aurrean gogoeta egitera eraman ohi du emakumea nahitaez. Horrela, emakume batzuek lanbidea lehenetsi eta amatasunari uko egin diote.

«Las mujeres que quieren tener un proyecto de vida propio sienten temores ante la dificultad de compartir ese proyecto con la maternidad». (Díez, 2000:166)

Beste batzuek, amatasuna beranduagorako uzten dute, amatasuna kudeatzeko momentu egokiaren bila (Imaz, 2006: 100). Badira beste batzuek,

amatasuna aspaldi beren gain hartu dutenak, eta azkenik, amatasunaren lehen esperientziak bizitzen ari diren emakumeak (Díez, 2000:157).

Hala eta guztiz ere, ama gehienek lan egin nahi dute. Familiak behar ekonomikoa duelako, independentzia ekonomiko indibiduala lortzeko, ikasitako ogibidea lantzeko, lana gustatzen zaielako, pertsona gisa garatzeko, etxean itxita ez egoteko. Beste batzuekin hartu-emanetan egoteko, lanak bizitza egituratzen duelako, lana egiten duen emakumea baloratuago dagoelako (Tobío, 2005: 36).

Lana egiten duten amek, amatasuna aurrera ateratzeko eta,aldi berean, lan egin ahal izateko, estrategia diferenteak martxan jartzen dituzte. Estrategia horien artean familia (amonak, lagunak...), zerbitzu domestikoa eta laguntzaile puntualak daude. (Tobío, 2005: 215)

Zerbitzu domestikoaren harira, Alice Hochschildek (2001) erabilitako «zaintzen kate globala» kontzeptua aipatu beharko genuke, transnazioalizazioa. Beste hitz batzuekin esanda, kontzeptu hori Mendebaldeko emakumeek nahi ezik uzten dituzten etxeko lanak egitera datozen emakume etorkinen gertakaria da. Fenomeno horretan ikusi behar da, halaber, emakume etorkin horiek euren umeen ardura beste emakume batzuen zaintzapean uzten dutela (Tobío, 2005; Alvarez Veinguer, 2007).

«La ayuda de la red familiar y la ayuda renumerada tienen en común que en ambos casos se trata, fundamentalmente, de un proceso de sustitución de unas mujeres por otras. El cuidado sigue siendo asunto de mujeres y la liberación de algunas de ellas es posible en la medida que otras, abuelas o inmigrantes, estén disponibles para asumir el papel tradicional de la madre». (Tobío, 2005: 196)

Estrategia guztiak, halere, ez dira aski amatasunak sortzen dituen hutsuneak betetzeko: umeen gaixoaldiak, ordutegien koordinazioak edota udako oporraldi luzea, esaterako (Tobío, 2005: 231-238). 1999an onartu zen Lana eta Familia Uztartzeko Legea. Lege horrek amatasun baimena eta 8 urtetik beherako haurrak zaintzeko hiru urte arteko soldatarik gabeko eszedentzia aurreikusten du gurasoentzat. Baina legeak ez ditu kontuan hartzen seme-alaben gaixoaldietan hartu beharreko bajaaldiak, eta hauteskunde garaietako ikur bilakatu dira.

### 3. Landuko diren nobelak

Pertsonaia protagonista femeninoak dituzten nobeletan amatasunaren gaineko hausnarketa nola gertatzen den aztertzeko, bi ataletan banatu dugu corpusaren azterketa. Lehenik, amatasunaren alde ezkorrak dituztenak aztertu ditugu, eta bigarrenik, alde baikorrak azaltzen dituztenak. Hiru eleberrri aztertu dira batik bat: *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999), edota amatasunaren errenuntzia; *Sisifo maiteminez* (2003), amatasunaren alde negatiboan aldarria izan daitekeena, eta *Zergatik Panpox* (1979), gure irudiko, amatasuna gorpuzten duen eleberria. Hiru eleberrri horien azterketaz gain, corpuseko eleberrriak bi multzotan banatuko ditugu, alde batean amatasuna babestu duten eleberrriak daude, eta, beste aldean, kontra daudenak. Bi multzo horiek argi adierazi nahi izan dira, azterketan zehar jarrera horiek gainean aipamenak egingo ditugulako.

#### Amatasunari bai edo ez

Ukapena edo alde negatiboak gailentzen dira	Alde onak erakusgai
Bai... baina ez	Zergatik Panpox
Sisifo maiteminez	Amaren eskuak
Koaderno gorria	Jostorratza eta haria
Greta	31 baioneta
Jaione	
Ugerra eta kedarra	
Eta emakumeari sugeak esan zion	
Edo zu edo ni	
Musika airean	
Nerea eta biok	
Nora ez dakizun hori	
Tango urdina	
Aulki-jokoa	
Lau sasoiako zipriztinak	
Bizi nizano munduan	

#### 4. Corpuseko eleberriak: amatasunaren kontrako jarrerak

Hasteko, esan behar da, aztergai ditugun eleberrietako pertsonaia protagonista femeninoak garapen eta barru lanketa handiaren isla direla. Bestalde, amatasunaren inguruko erabakiak jendartearekin dialektikan harturiko erabakien ondorio direla, beraz, Goldamenn-ek (1965) aipatzen zuen pertsonaien dimentsio soziala egiaztatzen da.

Lehenik eta behin, Laura Mintegiren, *Bai... baina ez*; Sonia Gonzalezen *Ugerra eta kedarra* eta, azkenik, Aitziber Etxeberriaren *Tango urdina* eleberrikin multzo bat osatu dugu. Hiru eleberriak ere indarkeria giroan erai-kiak dira, eta amatasunaren paradigmatari modu urrunean eta hotzean begiratzen zaio.

«Lo que la niña descubre a su alrededor no es un vacío por madre, sino unos discursos que se empeñan en asegurar que es negativo e imperfecto». (Bengoechea, 2004: 103)

Hiru eleberri horietako subjektu protagonistek (Rosa, Kat, Marga) ez dute amatasuna desira (objektu); izan ere, gizartean bizi izan dituzten esperientziak amatasunaren kontrako jarreraren (eragile) bihurtu baitira.

Beste multzo batean Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* eta Laura Mintegiren *Nerea eta biok* daude. Eleberri horietako pertsonaiak 30-40 urte bitarteko amak dira, estatus bat dute eta biak ere lana egiteaz gain, politikan dihardute. Pilar Aguilarrek amatasunaren diskurtsoen gainean, amatasun tipologia proposatu zuen, eta sailkapen horretan, besteak beste, defektuz ama onak ez direnak aipatzen dira (2004: 185). Eleberri hauetako protagonistak (*Koaderno gorri*-ko eta *Nerea eta biok*-eko amak) defektuz ez dira ama onen sailkapenean sartzen.

«La tradición más pura exige, pues, una madre que no viva exclusivamente centrada en su maternidad sea presentada como un monstruo o tenga que justificar tan «horrible» abandono con miles de desgracias e impedimentos». (Aguilar, 2004: 186)

Hala eta guztiz ere, Virginia Mataixek dioen antzera (1996: 222), ama gaiztotzat edota ama ontzat zer ulertzen den galdetu beharko litzateke gaur

egun, eta hori beste tesi baterako lana izango litzateke. Dena den, bi protagonistek (ama izenik gabea (KG), Isabel (NB)) egite narratiboan subjektuaren funtzioa betetzen dute eta objektutzat euren bizimodua (amatasuna barne) aurrera ateratzea. Bakarrik dauden amak dira, eta bakartze horren eragileak senarrak dira neurri batean, senarraren abandonua jasan baitute. Lehen pertsonan mintzo dira eta fokalizazioa erabat bereganatua dute.

Beste multzo batean adinean aurrera egindako amak edo amonak sartu ditugu; horrela, Ixiar Rozasen *Edo zu edo ni*, Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* eta Karmele Jaioren *Musika airean* nobelak ditugu errealitate horren lekuko. Hiru emakume protagonistak batu ditugu (Graziana, Teresa, eta Elena), batez ere, Simone de Beauvoirren hitzak gurera ekartzeko eta protagonista femenino hauen kasuan bete-betea betetzen direlako.

«La maternidad tiene que dejar de ser un destino para convertirse en un proyecto. Tiene que ser elegida libremente». (De Beauvoir, 2005: 633-683)

Beauvoirrek ama hauek frustratuak, asegabeak, etxean itxita ikusi zituen, inolako garapen pertsonalik gabe, hitz batean, «mater dolorosak». Eta berak esaten zuenez, horrelako egoeretan haur txikiak haien eskuetan uztea arriskutsua izan zitekeen. Mercedes Bengoechea, Richen diskurtsoa bereganatuz, ama boteretsuz mintzo da, faliko kastratzaileaz.

«Succiona el alma y controla la sexualidad masculina». (Bengoechea, 2004: 414)

Gizarteak (eragilea) amak izatera behartu ditu, ondorioz (subjektu) hauek amatasuna (objektutzat) dute, baina ez modu desiratuan, modu inposatuan baizik.

Azkenik, Laura Mintegiren *Sisifo maiteminez* eta Jasone Osororen *Greta* aipatu behar ditugu. Bietan ere abandonua da nagusi. Amek umeak abandonatu dituzte. Beatriz Domínguez García *Hadas y brujas* (1999) saiakeran, ipuinetako emakumezkoen arteko harremanak aztertu ditu. Ama absentea eta ordezkio ama aztertzen ditu Domínguezek. Ama absenteaz dio, umeak abandonatzen dituen amaz, ama batek egin lezakeen deliturik handiena dela, lehenik eta behin, gizarteak ezarritako rola betetzen



ez duelako. Abandonuari Greimasek (1983)<sup>1</sup> proposaturiko paradigma aktantziala egokitzea zaila da. Halere, esan daiteke bi eleberrri hauetako protagonista femenino (subjektuen) kasuan, gizarteak (eragilea) ama izatera behartu dituela ama izateko preparatu gabe egonik, eta subjektu hauek horren aurrean, amatasunaren gainetik euren bizitzaren garapena hartu dutela objektutzat, horretarako seme-alabak abandonatu behar izan badituzte ere. Bi eleberrietan, ordea, kontakizunak aurrera egin ahala, ama hauek abandonuaren arrazoiak argitzea eta ulertzea dute helburutzat. Gizartea, oro har, interlokutorea barne aurkari gisa azaltzen da, eta azalpenak eskatzen ditu modu inplizituan bada ere, ama batek egin dezakeen deliturik handiena ulertzeko. Azkenik, subjektu hauek, egitura narrati-boaren korapiloa askatze aldera, abandonuaren zergatiak argitzen eta bereganatzen dituzte.

Bukatzeko, amatasunaren alde ezkorrak gainditu eta amatasuna beste modu batera proposatzen duten bi nobela Irati Jimenezen *Nora ez dakizun hori* eta Dorleta Urretabizkaiaren *Jaione* eleberriak ditugu. Bi eleberriak ere jaiotza-heriotzaren alegoria dira. Bietan hil egiten dira jaiotzeko eta amatasuna modu interesgarrian proposatzeko. Pilar Aguileren sailkapenean ama interesgarria izango litzateke eleberriotako ama, ez dira ama politikak eta egun guztia umeari begira ematen dutenak, beren bizitza pertsonala eta amatasuna ahalik eta modu naturalean ezkontzen ahalegintzen direnak baizik. Ez dira ama idilikoak, ez ama eredugarriak, ezta erabateko amak ere (Aguilar, 2004; Warner, 2006), ama interesgarriak baizik. Ama subjektu hauek amatasuna objektu interesgarritzat hartu dute, baina gizarte eragileak ezarritako amatasuna kuestionatuz eta berria proposatuz.

---

<sup>1</sup> Aktanteen eskemak sei eragile proposatzen ditu. Ekintzaren subjektu-objektuak. Subjektuak ekintzari printzipio dinamikoa eskaintzen dio: desirari, nahiari, beldurrari, eta abarri erantzunez. Sentituriko beharra, beldurra edo nahia da objektua, subjektuak lortu nahi duena. Hartara, desira edo nahia da bi aktante horiek uztartzen dituen (ikus Retolaza, 2008: 25). Ekintzaren bidaltzaile-jasotzaileak. Bidaltzaileak subjektuari eragiten dio, zeregin bat jartzen dio edo eginarazten dio (gizartea, patua...). Hartzailea ekintzaren onuraduna izan daiteke; askotan, protagonista bera izan daiteke. Ekintzaren laguntzaile-aurkariak subjektuari bere zereginen lagunduko dio edota estropezuak jarriko dizkio.

Amatasunaren eraikuntzan ama tipologia zabala ikusi dugu, baina historian zehar pisu handiena izan duena, Maria, faltan bota dugu gure eleberrigintza garaikidean.

«Una mujer madre que no haya sido nunca poseída y que exista para el hijo, en función del hijo». (Rivera Garretas, 1996: 42)

«Dentro de la cultura oficial y popular católica, la única figura femenina importante y exaltada es la de María y lo es, casi estrictamente, en cuanto madre». (Mataix, 1996: 38)

Esan behar da amatasunaren gaiarekin, hilerokoak (*Nora ez dakizun hori, Zergatik Panpox, Eta emakumeari sugeak esan zion*), haurdunaldiak (*Tango urdina*), haurdunaldiak ekiditeko antisorgailuak (*Ugerra eta kedarra, Bai... baina ez, Eta emakumeari sugeak esan zion*) erditzeak (*Jaione, Amaren eskuak*) abortuak (*Sisifo maiteminez*) desiratu gabeko haurdunaldiak (*Musika airean, Aulki-jokoa, Sisifo maiteminez*), umeen abandonua (*Sisifo maiteminez, Greta*) eta menopausia (*Eta emakumeari sugeak esan zion, Edo zu edo ni*), besteak beste, lotu direla amatasunaren semantika zabalean.

#### 4.1. Eta emakumeari sugeak esan zion (Teresa: iruzkinak)

Geraldine Nicholsek (2003) esaten duenez, *Eta emakumeari sugeak esan zion*<sup>2</sup> eleberrian, Genesian emandako eredu femeninoaren gaitzespena narratzen da.

«El título de la obra orienta su lectura, al referirse a la historia bíblica que explica por qué la mujer tiene que someterse al varón, desear al varón y parir los hijos con dolor». (Nichols, 2003: 202)

Gure lehen gurasoen bekatuari erreferentzia egiten dion Genesiak oso irakurketa diferenteak izan ditzake. Orain artean ezagunena, Ebaren este-reotipoak eragindakoa da. Eba, Ama Birjina guztiz garbiaren antonimoa da, eta Pandoraren antzera, bekatuen ugaltzearen errudun. Beraz, Teresa (ES) eleberriko subjektu protagonistaren garapenean Genesiaren oihartzun es-

<sup>2</sup> *Eta emakumeari sugeak esan zion*, hemendik aurrera (ES) izendatuko da.

plizituak edota intertestualitatea aurkituko dugu. Literatur tradizioan, bestalde, Genesiaren eta mito femininorik esanguratsuenaren inguruan, hau da, Ebaren inguruan, kritika feministak egindako berrirakurketaz baliatu gara Teresaren azterketa abiatzeko.

Cristina Molinak (2004) Genesiaren interpretazioa beste oso modu diferentera egitea proposatzen du. Jainkoaren antzera eraikitako pertsonak izanik Adam eta Eba, azken horrek Jainkoaren antz handiagoa izatearren ahalik eta jakintza gehiena bereganatu nahi izan zuen. Hartara, Jainkoarekin alderatu ahal izateko, eta horrexegatik jan zuen debekatutako sagarra.

«Pero entonces sería la mujer la fuente del conocimiento, la que ejerció la iniciativa y no el hombre. (...) Desde aquí lo femenino aparecería como sabiduría, como amor a la sabiduría, al menos como afición o pasión por el conocimiento y como poder de persuasión, todo ello impensable para una práctica de dominio patriarcal». (Molina, 2004: 48)

«Hartaz, Ebak eginiko bekatua ez litzateke desobedientzia bekatua izango, urguilu edota hantuste bekatua baizik». (Molina, 2004: 48)

Irakurketa hori buruan, Teresak eleberrian zehar eginiko gogoeta, beraz, bere bitzta eta gorputza libreki kudeatzeko aldarria da.

«Se pone a leer su cuerpo de otra manera, y ve en sus síntomas la señal de que se está finalizando una etapa de su vida, precisamente la pauta en el Génesis». (Nichols, 2003: 202)

Hasieratik bukaera arte Teresaren gorputza mintzo zaigu, baina amatasunari lotutako gorputza ere badela esan genezake.

«Pixa eginda gero, eskuak garbitu. (...) Zuk aspaldi ez duzu arrastorik uzten, hileroko emakumeen odolaren arrastorik». (ES<sup>3</sup>, 71)

Teresa bere gorputzaren jabe izan da, eta haurdunaldiak ekidin ditu

«Haurdun ez gelditzeko pilulak erosten ikasi zenutenean». (ES, 85)

---

<sup>3</sup> Hemendik aurrera, *Eta emakumeari sugeak esan zion* eleberria ES izendatuko da.

Horrek zalantzak ekarri dizkio:

«Bestalde, tristura umeekin sendatzen ez bada (zure tristura amatasunak sendatuko ez balu), zer pasako dio ama deprimitu batek umeari». (ES, 107)

Eta, azkenik, erabaki irmoa etorri zen:

«Badakizu betiko erabakiaren ordua iristen ari dela, ari zaizula, betirako ezetzarena. (...). Haurrik gabe zahartzen hastea». (ES, 162)

Amatasunaren inguruko semantika guztia abian jarri du Teresak, azkenean, gorputza & haurrak adierari ezetz borobila emateko. Halere, erabaki honetan giza dialektika argia nabarmen daiteke:

«Agian Jainkoak zigortu zaitu horrenbeste aldiz ezetz esateagatik eta orain ezin duzu. Haurdun gelditu». (ES, 72)

«Nondik ote datorkizu malenkonia zoro hori. Agian umeak izatearena horren erraz alboratu ez bazenute. Baina ez, ez da zurekin horretaz hitz egiteko unerik onena. Zerbaitek hori esaten dio Andrés. Gainera, nahi al du berak umerik». (ES, 107)

Teresaren eraikuntzan, Rivera Garretasek proposatzen duen modura (1996: 20), emakumearen gorputzaren kudeaketa bikoitza nabarmendu behar da. Umeak sortzeko eta kudeatzeko gaitasuna duen gorputza, alde batetik, eta, bestetik, harremanak sortzeko eta kudeatzeko gaitasuna duen gorputza. Baina Teresaren gorputza nekatua dago umerik edukitzeko, unatua dago harremanak izateko. Eleberri hau protagonistak gorputzarekin duen solasaldia da. Azkenean, Teresa, maitemina eta herrimina alde batera utzita, lur berri baten bila abiatzen da, gorputza da, bestalde, bidaia horren iraupena baldintzatuko duena.

«Hizkuntza gozoa eta Mediterraneoaren argi epelerantz. Zure hizkuntzan, zure hizkuntzetan, ez zara moldatzen. (...) Bakarrik segitu nahi duzu, gorputzak aguantatzen duen arte segitu». (ES, 169)

Dakusagunez, Teresak bi bidaia egiten ditu eleberrian zehar, bata fisikoa (Vienara) eta bestea psikologikoa (barrualdera). Bidaia horiek bilakaera baten funtsa testuratzen dute, 2. pertsonaren erabilera eginaz. Barrurako bidaian, lehen esan bezala, erabakiak hartzeko tenorea du Teresak, horien

artean amatasunarena. Teresak ezetz esan du, eta bakardadea aukeratu du bidaide lur berrien bila abiatuko duen bidaia fisikoan, heriotzarako bidaian.

Bidaia horien subjektu nagusia Teresa da, eta objektutzat bere bizitzaren inguruan gogoeta egitea du, gizarteak ezarritako hainbat egiteren inguruan hausnartzea. Fokuaren etengabeko aldaketak nahiz kronologia lineala apurtzeak Teresaren egonezina irudikatzen dute, eta naturaren zikloaren, gorpuztaren zikloaren, aurkako borroka ere adierazten. Teknika hauek guztiek ere Teresa bere buruan murgildua, baina era berean helburutzat duen bidaiarekiko distantzia zedarritzera daramate. Teresa, hasieran esan bezala, Ebaren izena eta izanaren intertestua da, eta haren gorputza, genesiari egiten zaion alegoria. Hasteko, kritika feministak genesiaren inguruan esandakoarekin begiratu badiogu Teresari, bukatzeko, kritika psikologistek aipatzen duten pertsonaien barruraino sartzeko beharra aipatu behar dugu; izan ere, gorputzetik abiatuta, erraietaraino bidaiatu baitu Teresak, oroimena eta gogoeta bidaide dituela.

Ez genuke bukatu nahi, halere, eleberri honen izenburua mito femeninorik esanguratsuenaren iradokitzaile izateaz gain, paradigma akatantzialaren esplikazioa argia dela esan gabe. Horrela, esan genezake sugea (gizarte-eragilea) dela eta emakumea (subjektua-Teresa), objektua, berriz, (genesia). Beraz, gizarteak Teresari emakumeak genesiarekin duen zorra gogorarazten dio. Laguntzaileak eta aurkariak eleberrian zehar topatzen ahalegindu gara, baina ez dago ez laguntzailerik, ezta aurkaririk ere, subjektua bakar-bakarrik baitago. Izan ere, eleberri honetako protagonistaren bilakaeran azaltzen diren gizonezko protagonistak (senarra eta maitalea) oso urruti baitaude Teresagandik. Eleberri honen erdigune tematikoa horixe baita: gizonezkoen eta emakumezkoen arteko urruntasuna, sentitzeko eta bizitzeko era ezberdinak; bi hitzetan, ezin ulertua.

#### 4.2. *Sisifo maiteminez (iruzkinak: Ane)*

Laura Mintegik idatzitako eleberri hau Biruté Ciplijauskaiték (1994) eleberri psikoanalitikotzat hartuko luke.

«La novela psicoanalítica indaga el subconsciente siguiendo un método determinado. Lleva al paciente a evocar la infancia, intentando descubrir las causas secretas que han moldeado el estado de ánimo presente». (Ciplijauskaité, 1994: 85)

«Estebanek badaki hitzaren bidez kanporatzen dela inkontzientea. Subjektuaren eta hitzaren arteko harremana psikoanalisiak bakarrik jar dezakeela agerian; lengoaiak bakarrik salba dezakeela» (SM,<sup>4</sup> 34). «La curación de su neurosis pasa por el afloramiento a la conciencia, es decir por la racionalización de los conflictos suprimidos en su primera infancia en la relación con su madre». (De la Concha, 1992: 46)

Rosario Ariasek (2002: 34) harreman objektualen teoriaren eskolaren berri ematen digu, eta eskola honek umearen garapenean hiru aspektu azpimarratzen ditu:

«Periodo preedípico, proceso de separación, autonomía y por último el llamado transicional space. (...) La teoría de las relaciones objetuales adopta como eje central de sus estudios la figura de la madre y la influencia que ésta ejerce en el desarrollo psicológico y sexual de las niñas en general, frente al androcentrismo del psicoanálisis freudiano». (Arias, 2002: 34)

Egile honek garrantzi handia ematen dio garai preedipikoari; izan ere, amatasun zainketak aski ona eta egokia izan behar du, umeak psikologikoki handitzeko.

«En consecuencia, la personalidad femenina, que ya se define en la etapa preedípica, se caracteriza por la definición en relación con otros individuos, sin embargo; la masculina se define por la individualidad». (Arias, 2002: 44)

Teoria hau oso egokia izan daiteke aztergai dugun eleberriko pertsonaia protagonistaren (Ane) barrualdea arakatzeko. Anek bere bi alabak abandonatu ditu, eta beste gizon batekin joan da. Ama absente bihurtu da, eta eleberrian horren arrazoia aurkitzea du xedetzat psikoanalistak (Estebanek).

---

<sup>4</sup> Hemendik aurrera, *Sisisfo maiteminez* SM izendatuko da.

«Ezagutu nahi luke halakorik egitera zer pasiok bultza dezakeen, eta, berak seme-alabarik ez duen arren, ezin du asmatu ama batek nolatan egin dezakeen halakorik, Ane bezalako ama batek». (SM, 38)

Susan Rubin Suleimanek (2007: 128) Nancy Chodoroven teorian oinarrituta, esplizitatuko luke emakumeak psikologikoki amatasunerako prestatuak daudela hazi diren baldintzen baitan, hau da, euren amak erakutsi dienaren baitan

«Sólo un cambio radical en la crianza, compartida por padres que hagan de padres y madres por igual puede suponer un cambio importante en la psique femenina». (Suleiman, 2007: 128)

Anek bere ama nolakoa zen esplikatzen du eleberrian

«Ama ez zen zorionsua. Amak gorrotatu egiten ninduen». (SM, 131)

«Anek azaldu dio Estebani ez dela ikasten ama izaten. (...) Haurdun gelditzeak eta erditzeak ez zaitu ama egiten. Gizona izanik, Jon amagoa da Ane baino...». (SM, 165)

Chodorovek (1984: 49) amatasunaren izatea rol baten irakaskuntza kognitiboan oinarritzen zuen, rolaen irakaskuntzan alegia.

«En nuestra sociedad, la madre de una niña está presente de un modo que el padre y otros adultos varones no lo están para el niño. La niña entonces puede desarrollar una identificación personal con su madre, porque tiene una verdadera relación con ella». (Chodorov, 1984: 260)

«Ikusita bi alaba ekarri zituela, eta ez zuelarik inolako asmorik ez gogorik seme-alabarik ekartzeko, ikusi nuen niri gauza bera gertatu zitzaidala neure alabekin. Ikusi nuen gure amak bere alabak fisikoki inoiz ez bazituen utzi ere, seguruen betebeharren zentzu okerragatik, baka-rago utzi gintuela ahizpa eta biok nik neure alabak baino». (SM, 119)

«La carencia de afecto materno imprime todas sus secuelas: ansiedad, falta de autoestima y de seguridad, pasividad, parálisis y dependencia emocional». (De la Concha, 1992: 40)

Maria Angeles de la Conchak artikulua berean, Nancy Chodorovek, Dorothy Dinnnersteinek, Jessica Bondek eta Adrienne Richek matrofobiaren

inguruan aztertutakoa gogoratzen du, eta hauen esanetan matrofobia ez da hainbeste amarekiko gorrotoa, norberaren ama bezala izateko beldur izugarria baino.

Psikoanaliaren bidetik pertsonaia honen gorabeherak ikusi ondoren, esan dezakegu Ana paradigma aktantzialeko subjektu nagusia dela eta objektutzat alaben abandonuaren zergatia ulertzea duela. Horretan lagunduko diote, batez ere, Esteban psikoanalistak eta Karmele bere lagun minak. Abandonuarekin abiatzen da Anaren bizitzaren kontaketa, eta honen zergatiaren aurkikuntzarekin ixten da. Abandonuaren eragilea azkenean ikusiko da haren ama dela. Pertsonaia autodiegetikoa dugu Ana eta aldi bereko denbora erabiliko du narrazio mailan, baina iragana oso kontuan izanik ulertuko du oraina. Balek (1985: 87) bestalde, pertsonaia giza ezauzgarri bereizgarriak dituen aktorea dela esaten zuen, hau da, leku estrukturala betetzeaz gain esanahi semantiko osoa duen aktorea.

Pertsonaia honen esanahi semantiko osoa zedarritzeko, Milagros Rivera Garretas kritikari feministak amatasunaren gainean egiten duen gogoeta ekarri nahi izan dugu lerro hauetara. Riverak dio (2001: 85) ama zehatza eta pertsonala dela arazoa feminismoarentzat, betiere, hobetu zitekeen zer-bait bezala ikusten zelako.

«No nos había querido lo suficiente, no había entendido nuestro anhelo de cambio social, no nos había dejado volver tarde por la noche, no había sido suficientemente libre, no había sido capaz de enseñarnos a hablar sin transmitirnos el lenguaje patriarcal... Estábamos dispuestas a honrar a un Partenón de madres simbólicas, pero la madre concreta y particular, no».

Horregatik, dio Milagros Riverak, emakume feminista batzuek amak izateari ekin ziotela betiere euren amak hobetzeko asmoz

«La paradoja fue que su obra éramos nosotras». (Rivera, 2001: 85)

Bukatzeko, amodioz, desiraz, maiteminaz... hitz egiten duen eleberririk inguruan, Olaziregik (2002:119) Mintegik egindako eleberririk biribilenaren aurrean gaudelako susmoa azaldu zuen. Haren ustez, egituraketa erakargarria edo erritmo narratibo arina dira nobelaren bertute estilistikoak.



«Eta guztiaren oinarrian, mendi gailurrera harrizarra igotzera kondenatu zuten Sisifo gizajoa, A. Camusek esan bezala (ik. *Sisiforen mitoa*, 1942), lehenengo heroi absurdua». (Olaziregi, 2002: 119)

## 5. Amatasunaren aldeko aldarria egiten duten corpuseko eleberriak

Diferentziaren feminismoak azterketarako eskaintzen dituen tresnak gure eginik *Jostorratza eta haria*, *31 baioneta* eta *Amaren eskuak* aztertuko ditugu modu arinean bada ere. Yolanda Arrietaren *Jostorratza eta haria* eleberrian, ama batek jaiotzeke dagoen alabari bere sendiaren izana edota iragana kontatzen dio, hartara, jaiotzen denerako errealitate baten jakitun izan dadin.

«Esto quiere decir que la madre, cuando nos enseña a hablar, nos enseña, para toda la vida, el sentido de la realidad y de la verdad». (Rivera, 2005: 57)

Edota, Luce Irigarayk esango lukeen bezala, *Jostorratza eta haria*-ko amak bere hizkuntza sortu du, bere historia eta diskurtsoa eraiki ditu, alabari bere amona eta amamaren bitartez historia kontatzeko:

«Definidas como sustancia-madre, a menudo oscura, oculta del verbo de los hombres, nos falta nuestro sujeto, nuestro sustantivo, nuestro verbo, nuestros predicados: nuestra frase elemental, nuestro ritmo de base, nuestra identidad morfológica». (Irigaray, aip. Rodríguez Magda, 2003: 56)

*Jostorratza eta hariaren* inguruko historiarekin semantika propioa eta sintaxi berria eskaini dizkio ama protagonistak alabari. Patxadaz josia, bisuala, eta ulergarria.

Amatasunaren presentzia eta defentsa Aitziber Etxeberriaren *31 baioneta* liburuan ere ikus genezake. Beatriz bere alabarekin bizi da Napoleonen tropen menpe dagoen Donostian, 1813ko uda partean. Alabak aita hila du, eta bere iragan osoa isiltasuna da. Beatrizek Inkisizioarekin arazoak izan zituen, eta, ondorioz, aita hil zuten. Amak, alaba babestearren, iragana isil-

tzea deliberatzen du. Isiltasunaren hautua egiten du, *Jostorratza eta harian*-n ikusi dugunaren justu kontrakoa.

«La infancia es la demostración más sencilla y directa de que hemos pertenecido al silencio y de que el silencio precede a las palabras y a los discursos». (Muraro, 1994: 25)

«En definitiva, la particularidad de lo femenino se encuentra en la ausencia y en el silencio, en definitiva, en torno aquello que nuestra cultura ha reprimido y acallado». (Arias, 2002: 68)

(Beatriz ama subjektuak) alaba aurrera ateratzea du helburutzat eta (gizarte-eragileak) eginiko kalte guztia isiltzea lehenesten du narrazioaren has-tapenetan, halere, kontakizunak aurrera egin ahala, alabari zor dion egia, ukatutako egia, argitzen joango da narrazioaren korapiloa askatzen doan heinean. Zeregin horretan aurkariak (ejerzittoa) eta laguntzaileak (haren koinata) agertuko dira.

*Amaren eskuak* eleberrian, Nerea protagonista, memoria galdu berri duen amaren iraganaren aztarnak aurkitzen saiatuko da. Iraganaren berreskura-pena gorputzaren bidez izango da eleberri honetan. Amaren gorputza eta eskuak, bizitza oso baten metonimia izango dira. Amaren gorputza umearentzat janaria, berotasuna, lasaitasuna, jolasa eta plazera dira.

«El vínculo corporal del bebé con la madre es el vehículo a través del cual se forman y se expresan los sentimientos fundamentales de la muy compleja criatura femenina...». (Dinnerstein, 1976: 34)

Nereak (subjektuak) amaren eta bere iragana aurkitzea eta ulertzea du (objektutzat) oraina ulertu ahal izateko. (Laguntzaile) gisa bere amaren ahizpa bat agertuko da eta iraganaren ukapenaren eragile gisa (gizartea).

### 5.1. *Zergatik Panpox (iruzkinak)*

*Zergatik Panpox* guraso bakarreko familiaren edota amatasunaren eredu-a dugu.

«La maternidad monoparental no sólo es una posición familiar nueva, sino una realidad compleja y significativa en curso, que las

mujeres tras una experiencia de separación y/o divorcio van dotando de sentido». (Barrón, 2004: 229)

Esperientzia hau narratzeko orduan, amaren eta semearen gorputzak eta hizkuntzak berebiziko garrantzia hartu dute.

«Ama, zergatik gogortzen zait batzutan pitilina, hautsi egingo zait agian, ama, neskek pitilina barruan dute, andereñoak esana». (Z P<sup>5</sup>, 6)

«Baina zulo bat edukitzea arriskutsua da: edozer gauza sartu dai-teke barrura, defentsarik gabeko tunel honetan, ez esfinterrik ez be-tazalik». (Z P, 7)

«Ama, beti egongo nintzateke ni zure masailaren eta ilearen kon-tra». (ZP, 32)

Suleimanek (2007: 151) Chantal Chawaf idazlearen *Maternité* kritika-tzeko orduan esan zuena ekar genezake *Zergatik Pamfox*-en azaltzen zaigun amatasuna laburbiltzera.

«Ha unido el ejercicio de la escritura femenina con el hecho bio-lógico de la maternidad. La experiencia central alrededor de la cual gira su escritura es la experiencia emocional y física de la maternidad y del amor maternal, dotándose de una trascendencia casi cósmica». «Lurraren sabeleko suzko odola sustraien muturretatik sartzen zait, zuri loa sudurreko hegaletatik sartzen zaizun bezala». (Z P, 19)

«Lore-kolore-usaiezko bola bat gerririk gora, bularrean lehertzen zait, ni bizitza naiz». (Z P, 19)

«Lo esnatuaren usai, ametsen arrastoek gozatutako azalaren aho-tsa, geratu dadila mundua minutu batez». (Z P, 14).

Harreman kosmiko horrez gain, diferentziaren feminismoarentzat gai zentralak diren emakumearen gorputza eta odola antzeman genitzake

«La centralización del cuerpo y la sangre de la mujer, su proximi-dad con la Naturaleza (...) escribir en tanto que flujo (de la sangre menstrual, de la leche materna, del flujo uterino), sintaxis líquida». (Suleiman, 2007: 153)

<sup>5</sup> Hemendik aurrera, *Zergatik Pamfox* ZP izendatuko da.

«Bertatik muki gorri-marroi bat zerion, ia solidoa zen muki bat».  
(Z P, 6)

«Esne epelaren usai xamurra». (ZP, 17)

«Non bizi dira malkoak begietara azaltzen ez diren bitartean». (Z P, 26)

«Sabeletik laister aterako zaidan odol mukitsua bezala». (Z P, 31)

Liburuan zehar amatasuna, zainketa eta bizitza goraiatzeko dira.

«Vivir es hermoso. Ver, oír, tocar, beber, comer, orinar, defecar, zambullirse en el agua y mirar el cielo, reír y llorar (...) Vivir es hermoso. Ver sentir la sangre tierna y cálida que fluye de una misma, que fluye del manantial. (...) Estar encinta, ser ciudadela...». (Leclerc, 1974: 34)

*Zergatik Panpox*-en erabiltzen den hizkuntzan umearekiko hurbilpena dago. Berdintasunaren feminismitik, amek umeak ulertzeko erabilitako hizkera gutxietsi egin ohi da, betiere amaren nortasuna gutxitu eta ezabatzen duelakoan. Diferentziaren feminismitik, aldiz, Luisa Muraroren teoriak jarraituz, amek umeak ulertzeko erabiltzen duten hizkuntza beste oso modu batera ikusi da. Amak, umeen hizkera erabiltzerakoan, gutxietsi beharrean egokitu egiten direla dio Murarok. Amek euren boterea gutxitu asmoz, hizkuntza estrategia berezi bat abian jartzen dutela dio Murarok. Estrategia honetan ume-amen arteko harremanean hurbilpena eta berdintasuna gertatzen da. Jarrera honekin, kultura toleranteagoa eta negoziatzaileagoa azaltzen dute amek, kontuan edukiz eurek dutela boterea eta jakintza.

«La negociación conjunta de significados, en lugar de imposición de los propios o la falta de reconocimiento de los ajenos, sería básica en una sociedad que valorase la negociación». (Bengoechea, 2004: 103)

Hizkuntzari dagokionez, *Zergatik Panpox* jarioz eta kantuz idatzia dago, umearen syntaxira eta hurbiltasunera egokitua.

«Blandiblup» (Z P, 6), «panpox, pirulo» (ZP, 17), «amatxo, muxera, muxontzi» (Z P, 22). «zu, panpox bihotzekoa, Antxon pirulero,» (ZP, 14) «ario, panpox, muxu, lehoikumea, artaburua, tira, panpox, muxu». (ZP, 18)

Ariasek (2002: 103) Ruddicken teoria bere eginez, amatasunaren pentsamendu zientifikoa hiru aspektu azpimarratu ditu, hirurak ere eleberri honetan bete-betea suertatu direnak, eta atal honi amaiera emateko aukeratu ditugunak. Lehenik eta behin, malgutasuna, ez delako batere dogmatikoa amatasunaren pentsamendua. Bigarrenik, detaileaz jabetzeko gaitasuna. Eleberri hau zerbait baldin bada, egunak dituen 24 orduetan ama batek umeak pentsatu eta senti dezakeenaren inguruan egin dezakeen transferentzia da. Eta, azkenik, amatasunaren pentsamenduan oinarrian dagoen zainketa eta babesa. Malgutasuna, behaketa eta zainketa amatasun pentsamenduaren zutabeak baldin badira, eleberri honen zioak ere badira, betiere, diferentziaren feminismotik hain aipatuak diren gorputz eta hizkuntzaren bidez azaleratuak.

Amatasunaren defentsan giltzarria izan daitekeen nobela honetako izenik ez duen protagonistaz ezer gutxi esan dugu. Beraz, izenik ez edukitzeak duen balio semantikoak, neurri batean bederen, amatasuna modu positiboan proposatzen duten ama protagonisten kolektiboari begiratu botatzeko balio izan digu. Baina, esan behar dugu, izenik gabeko ama hau euskal literaturako lehen protagonista femenino modernoa dela, bera dela kontalaria, berak erabiltzen duela ikuspuntua eta pentsamenduen jariora «stream consciousness» teknikaren bidez. Paradigma aktantzialean subjektu nagusia da eta objektutzat ditu 70eko hamarkadan emakumezkoaren askapen mugimenduekin lotuta zeuden hainbat gai: bikote harremanak, amatasuna, emakumezkoen gorputza, emakumezkoen ahotsa, antisorgailuak, egunerokotasunaren zama...

## 6. Ondorioak

1. Artikulu honen lehen ondorioa euskal emakume idazleek amatasuna hautu bezala landu dutela izan daiteke, eta, ondorioz, amatasunaren inguruko gai guztiak ikusarazi dituztela, antisorgailuak, hilerokoa, haurdunaldia, erditzea, abortuak, abandonua, menopausia. 1979tik 2009ra arteko tenorean, emakume idazleek pertsonaia protagonisten bidez eraikitako eleberriak 26 eleberri aztertu ditugu. Eleberri horie-

tatik %90ak amatasuna sartu du diskurtsoan, eta horietarik %80ak alde ezkorrak egotzi dizkio, berdintasunaren feminismoak aipaturiko kezkekin bat eginik. Amatasunaren eraikuntzan ama tipologia zabala ikusi da, baina historian zehar pisu handiena izan duena, Maria, faltan bota dugu gure eleberrigintza garaikidean.

2. Islatu den seme-alaba kopurua, inoiz hiru baino gehiago, eta amen lan egoera errealitatearekin oso lotua dago. Adinean aurrera egindako amonak (60-80 urte bitartekoak) jostun eta etxeakoandre gisa agertzen dira. Adin bateko emakumeak, 45-60 urte bitartekoak, etxeakoandre bezala eta 30-45 bitartekoek goi mailako ikasketak eginak dituzte: unibertsitateko irakasleak, abokatuak, kazetariak. Bada gazterik ere lanik gabe eta edozer lan egiteko prest dagoenik, eta kalean lana egiten duenik ere. Ondorio gisa esan daiteke proposatzen diren amatasunak eta amen lan baldintzak egun Euskal Herrian bizi denarekin eta eman ditugun datu soziologikoekin oso bat datozela (ikus atal honetan, datu soziologikoak).
3. Abandonuaren gaia bi modu oso diferentetan landu da. Batetik ama abandonatuak aurkeztu dira, *Zergatik Panpox* edota *Koaderno gorria* eleberrietan, eta beste batzuetan umeak abandonatzen dituzten amak, *Sisifo maiteminez* eta *Greta* nobeletan. Lau eleberrietan, nahiz eta abandonua oso ikuspegi diferentetik eratorria izan, narrazioaren epizentroa eta hari narratiboa bilakatu da. Egite aktantzial guztian abandonua objektu gisa aurkeztu da. Horrela, batzuetan amak subjektuak bezala aurkeztu dira eta bestetan abandonuaren hartzaile gisa. Bi abandonuen arteko aldea, amek seme-alabak abandonatzeko arrazoa ezintasunean legitimatu izana da, seme-alabak eurekin izatea abandonatzea baino okerrago izango zelako arrazoipean.
4. Amaren gaixotasuna edota heriotza hiru eleberritan azaldu zaigu, *Amaren eskuak*, *Ugerra eta kedarra* eta *Nora ez dakizun hori* testuetan. Hiru eleberrietan alabak mintzo dira. Alabek amaren hutsunea, zauria plazaratu dute beren gogoetan. Azken bi eleberrietan amaren maitasun ezaren ondorengo bortizkeria agerian utzi dute eta Jaioren *Amaren eskuak* eleberrian, amaren maitasun eta ezagutzaren falta izugarriaren samina hezurmamituz.

5. Gorputzaren presentzia nabaria da. Oñederraren eleberriak amatasuna gorputzaren emankortasun garaiarekin lotzen du. *Kairos* bilakatzeko da. Gorputzen mintzoaren ondorioz, amatasuna onartu edota ukatu baita. Bi paradigma argi ditugu *Zergatik Panpox*-ek eskaintzen duen jariakortasuna eta *Eta emakumeari sugeak esan zion* nobelak gorputzaren nekearen ondorioz iradokitzen duen bizitzaren akabera, heriotza, amatasun eza. Antisorgailuak, hilerokoa, planifikazioa. Biak ala biak nobela mugarriak dira gure historian.
6. Amatasunak dituen denborak ere azaldu dira kapitulu honetan. Horrela, *Zergatik Panpox*-ek laburbiltzen ditu denboraldi mota guztiak, edota denbora ulertzeko adiera diferenteak: zainketak eskatzen duen maitasun denbora: infinitua, ordurik gabekoa; lehenagotik ezagutu dugun *Kairós* edota denbora esanguratsua, amatasuna bizitzaren gune inportantea bilakatzen duena; kronosa egunerokoak sekuentziazera eramaten duena eta, azkenik, zain egotearen denbora, ezin zenbatu daitekeena (Varela, 2007: 68). Amatasunaren denbora horiek guztiak agertu dira aztertu ditugun eleberrietan.
7. Datu soziologikoak buruan, esan daiteke, 1979tik 2009ra bitartean jaiotza jaitsiera izan bada ere, emakume idazleek amatasuna edota amen presentzia indarberritu dutela eleberrigintza garaikidean. Pertsonaia femenino protagonisten bidez, kasu batzuetan jaitsiera horren arrazoiak azaldu dituzte, eta beste batzuetan gogoeta modura eskaini dituzte, baina ahalegin nabarmena egin dute amatasunaren inguruan diskurtsoak eraikitzeke, batzuetan aldekoak eta beste batzuetan kontrakoak.
8. Azkenik, Oñederrak eta Mintegik, Teresa eta Ane protagonista femeninoez baliatuz, gizon berri baten beharra edota aipamena ere egiten dute. Oñederrak Teresaren bidez azpimarratu du zaila egiten zaiola inguruko gizonekin harremanik edukitzea, komunikatzea, beregandik oso urrun daudela, ez dutela hizkuntza bera erabiltzen, eta, bestetik, Mintegik Aneren bidez, Chodorov (1984) eta Suleimanen (2007) teoriak bere eginez, aipatzen digu amatasunaren izatea rol baten irakaskuntza kognitiboan oinarritzen dela, eta alabaren psikean bene-

tako aldaketa gertatzeko aitatasunak aldatu egin behar duela. Beraz, feminismoak berdintasunaren ikuspuntutik aldarrikatzen duen gizon eta emakumeen arteko gatazka konpontzeko, emakume berria ez ezik, gizonezko berria ere nahitaezkoa dela iradokitzen digute modu inplizituan bi egile horiek pertsonaia protagonista femeninoen bitartez.

## 7. Bibliografia

AGUILAR, P., 2004. «Madres de cine: entre la ausencia y la caricatura». In: De la Concha, A. eta Osborne, R. (Ed). (2004). *Las mujeres y los niños primero*. Bartzelona: Icaria.

ALONSO-ARBIOL, I., 2006. *Amatasuna eta aitatasuna. Proposamen berriak*. Bilbo.

ALVAREZ VEINGUER, A., 2007. «El universo sexuado: cuerpos invisibles pero imprescindibles. Una aproximación a experiencias de mujeres de la Europa del este que realizan trabajos domésticos». In: Muñoz Muñoz, A.M.; Gregorio Gil, C., eta Sánchez Espinosa A. (Koord). (2007). *Cuerpos de mujeres*. Granada: Colección Feminae.

ARIAS, R., 2002. *Madres e hijas en la teoría feminista. Una perspectiva psicoanalítica*, Universidad de Malaga.

BAL, M., 1985. *Teoría de la narrativa*. Madril: Cátedra.

BARRON, S., 2004. «Introducción: La maternidad monoparental». In: De La Concha, A.; Osborne, R. (Koord.) (2004). *Las mujeres y los niños primero: discursos de la maternidad*. Bartzelona: Icaria.

BENGOECHEA, M., 1994, postfazioa (405-419 orr.). In: Riche, A. (1994). *Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución*. Madril: Feminismos Clásicos, Cátedra.

———, 2004. «Mi madre es... un hueco en el espacio: discursos poéticos y lingüísticos sobre la insignificancia materna». In: De la Concha, A.; Osborne, R., (Koord.) (2004). *Las mujeres y los niños primero: discursos de la maternidad*. Bartzelona: Icaria. 81-110.

BEAUVOIR, S., 2005. *El segundo sexo*. Madril: Cátedra, Feminismos.



CIPLIJAUSKAITÉ, B., 1994. *La novela femenina contemporánea (1970-1985). Hacia una tipología de la narración en primera persona*. Barcelona: Anthropos.

CHODOROV, N., 1984. *El ejercicio de la maternidad. Psicoanálisis y sociología de la maternidad y paternidad en la crianza de los hijos*. Barcelona: Gedisa.

DE LA CONCHA, A.; OSBORNE, R., 2004. *Las mujeres y los niños primero*. Barcelona: Icaria.

DE LA CONCHA, A., 1992. *La sombra de la madre. Un mito en la novela de las mujeres*. Revista Canaria de Estudios Ingleses, 24. Zk., (33-48 orri.)

DELPHY, C., 1985. *Por un feminismo materialista*. Barcelona: Cuadernos Inacabados.

DIEZ, C., 2000. «Maternidad y orden social. Vivencias del cambio». In: Del Valle, T., (Ed). (2000). *Perspectivas feministas desde la antropología*. Madrid: Ariel Antropología.

DINNERSTAIN, D., 1976. *The Mermaid and the Minotaur. Sexual Arrangements and Human Malaise*. Nueva York: Harper & Row.

DOMÍNGUEZ GARCÍA, B., 1999. *Hadas y brujas. La reescritura de los cuentos de hadas en escritores contemporáneos en lengua inglesa*. Huelvako Unibertsitatea.

EMAKUNDE, 2009. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2008, Genero azterketarako taldea. Politika eta Administrazio Zientzia saila.

ESTEBAN, M. L., 2006. «Amatasuna eztabaida antropologikoak eta feministak». In: Alonso-Arbiol, I. (Koor). (2006). *Amatasuna eta aitatasuna, proposamen berriak..* Bilbo: UEU.

———, 2000. «La maternidad como cultura. Algunas cuestiones sobre la lactancia materna y cuidado infantil». In: Perdiguero, E. eta Cornelles, J. M., (Ed). (2000). Barcelona: Bellaterra.

FIRESTONE, S., 1976. *La dialéctica del sexo: en defensa de la revolución feminista*. Barcelona: Kairós.

GREIMAS, A. J., 1983 (1973). *La semiótica del texto, ejercicios prácticos*. Madrid: Paidós Ibérica.

HOCHSCHILD, A. R., 2001. «Las cadenas mundiales de afecto y asistencia y la plusvalía emocional». In: Giddens, A. eta Huton, B. (2001). *En el límite*. Barcelona: Tusquets. (187-209 orri.)

GOLDMANN, L., 1967 (1964). *Para una sociología de la novela*. Madril: Ciencia Nueva.

IMAZ, E., 2005. «Condiciones sociológicas de la fecundidad: pareja, maternidad, paternidad». In: Arregi, B, eta Davila, A. (Ed). (2005). *Reproduciendo la vida, manteniendo la familia. Reflexiones sobre la fecundidad y el cuidado familiar desde la experiencia en Euskadi*. Bilbo: EHU.

———, 2006. «Haurra eduki ala ez: ugalketaren inguruko planteamenduak, desirak eta kontraesanak,». In: Alonso-Arbiol I. (Ed). (2006). *Amatasuna eta aitasuna. Proposamen berriak*. Bilbo: UEU.

LECLERC, 1974. *Parole de femme*. Paris: Grasset.

LUXÁN SERRANO, M., 2005. «La fecundidad en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Un estudio generacional». In: Arregi, B, eta Davila, A. (Ed). (2005). *Reproduciendo la vida, manteniendo la familia. Reflexiones sobre la fecundidad y el cuidado familiar desde la experiencia en Euskadi*. Bilbo: UEU.

MATAIX, V., 1996. *Maternidades*. Madril: Planeta.

MITCHELL, J., 1971. *Woman's Estate*. Penguin: Harmondsworth.

MURARO, L., 1994. *El orden simbólico de la madre*. Madril: Horas y Horas.

NICHOLS, G., 2003. «El procrear, pro y contra». In: Redondo Goicoechea, A. (Koor). (2003)., *Mujeres novelistas*. Madril: Narcea.

OLAZIREGI, M. J., 2002. *Euskal eleberraren historia*. Amorebieta-Etxanoko Udala: Labayru Ikastegia.

PÉREZ-DÍAZ, V.; CHULIÁ, E.; VALEINET, C., 2000. *La familia española en el año 2000. Innovación y respuesta de las familias a sus condiciones económicas, políticas y culturales*. Madril: Visor.

RICH, A., 1978. *Nacida de mujer*. Bartzelona: Noguer.

RIVERA GARRETAS, M., 1994, *Nombrar el mundo en femenino*, Icaria, Bartzelona.

———, 1996. *El cuerpo indispensable. Significados del cuerpo*. Madril: Horas y Horas.

———, 2001. *Mujeres en relación*. Bartzelona: Icaria.

———, 2005. *La diferencia sexual en la historia*. Balentzia: PUV.

RODRIGUEZ MAGDA, R. M., 2003. *El placer del simulacro. Mujer, razón y erotismo*. Madril: Icaria.

SAU, V., 1993. SAU, V. 1993. *Ser mujer: el fin de una mujer tradicional*. Bartzelona: Icaria.

SEGARRA, M., 2000. *Feminismo y crítica literaria*. Bartzelona: Icaria.

SULEIMAN, S. R., 2007. «Escritura y maternidad». In: Dovay, M. (Ed). (2007). *Maternidad y creación. Lecturas esenciales*. Madril: Alba.

TOBÍO, C., 2005. *Madres que trabajan. Dilemas y estrategias*. Madril: Feminismos, Cátedra.

WARNER, J., 2006. *Una auténtica locura. La maternidad en el siglo XXI*. Bartzelona: Peninsula.

# Oharrak



# Andima Ibinagabeitiaren nortasun politikoa

AULESTIA TXAKARTEGI, Gorka

Ohorezko euskaltzaina eta Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordekidea

A. Ibinagabeitiaren lana garrantzitsua izan zen prosa eta itzulpen eremuetan nahiz saiakera eta literatura kritikan. Idazle eta itzultzaile gisa ezin konta ahala lan argitaratu zituen Europan (Euskal Herria, Espainia, Portugal, Belgika) eta Ameriketara (Kolonbia, Guatemala eta Venezuela). Haren gai aipagarrienak Euskal Herria, abertzaletasuna, euskara eta euskal literatura, politika (EAJ) eta musika izan ziren. Horrez gain, Frantzia, Guatemala eta Venezuelako egonaldi luzeetan (20 urte guztira) haren bizitza eta lana opa-roak izan ziren. Halaber A. Ibinagabeitia kritikalarik zorrotz eta zoli bezala agertzen zaigu beste eremu batzuetan ere: Euskaltzaindia, EAJ-PNV, euskara batua, Eliza, euskal burgesia, etab. Aberriak eta euskarak kezkatzen zuten. A. Ibinagabeitia, «Sabin», «Elentxu», «Idoyaga» eta «Norbait» izen-goitiz ezagutua izan zena.

Caracas-ko egonaldi luzearen ondorioz (11 urte, 1956-1967) euskal arlo politikoan gero eta sartuago ikusten dugu. Venezuelako egonaldi honetan politika izan zuen erakargarri, *Irrintzi* eta *Eman* bere aldizkarietako artikulua askotan egiazta daitekenez. Baina A. Ibinagabeitia, jaiotzatik bere famili giroaren eraginez, beti abertzale sabindar sentitu zen hil arte; euskal abertzaletasuna eta euskara haren bizitzaren bi ardatzak baitziren. Oso sentibera zen eta askatasunaren oinarriaren bila aritu zen beti, abertzaletasuna euskal kulturaren eta, batez ere, euskararen gainean jarriz. Euskararen aldeko odolik gabeko matxinada baten sortzaile agertuko zaigu.

A. Ibinagabeitia Elantxoben (Bizkaia) 1906ko urtarrilaren 27an jaio zen. Galo, bere aitak, «Abandoko Maisua»-rekin izandako harremanen oroitza-penak, Andima haurraren bizitza zeharo baldintzatu zuen. Geroago, Jesulagunen hainbat ikastetxe eta komentutan ikasle igarotako urte luzeetan, Euskal Herriarenganako eta euskararenganako maitasuna errotzen joan zitzaion.

Hamaika urte zituela (1917-1921) lau urte eman zituen Nafarroako Erriberan, Tuteran, batxilergoa egiten; geroago, 15 urteko mutil gazteak bost urte Humanitateak ikasten igaroko ditu Loiolan (1921-1926). Hemen, 1922an euskal giroa sortu zuen Jokin Zaitegi eta beste euskaldun lagun batzuekin, Aita José M<sup>a</sup> Estefania bilbotar irakaslearen zuzendaritzapean. Ordukoak ditugu Aita Bianchirekin izandako arazoak; donostiar errektore

honek, Loiolako Basilikaren kupula gainean Espainiako bandera ipini zuelako, A. Ibinagabekiak eta euskal lagun batek eskailera bat erabiliz, oihal hori kendu eta trastelekuan ezkutatu zuten, etxeko nagusia aztoratuta eta haserre utzirik. Urteotan espaniar monarkia eta Jesuiten Lagundia oso loturik ikusten zituen elantxobetarrak, eta geroago ere, M. Primo de Riveraren diktadurapean iritzi bera izango du. 1923an Jesulagunen botoak egin ondoren, Oñara joan zen Filosofiako ikasketak egitera, eta han hiru urte iragan zituen (1927-1929).

Ikasketa hauek bukatu eta bidegurutzean aurkitzen du bere burua: edo Madrilera soldaduska egitera joan edo Kolonbian Jesulagunen maisutza («maestrillo») hasi. Noski, ez zuen inolako zalantzarik izan, beraz Bogota hiriburuan eta Bukaramangan hiru urte eman zituen (1929-1932), Etika, Psilologia, Historia Natural eta Musika irakasten. Hegoamerikatik Marneffera doa Teologia ikastera (1932-1935); Belgikan apaizteko gutxi falta zitzaiola, 1935ko Aste Santuan apaizgoari uko egin, eta Jesusen Lagundia uztea erabaki zuen, Euskal Herrira itzuliz. 18 urte jesulagunekin bizi ondoren, Deustura (Bilbo) ama bizi zen etxera joan zen. Geroxeago, «Explosivos de Galdácano» lantegian bulegari gisa sartu zen. 1936an Trafaria-n, Lisboa ondoko bizkaitar enpresaren dinamita lantegian lanean ari zela, Espainiako Gerra Zibilak eztanda egin zuen.

Guda odoltsu honen ostean, 1943an Portugal utzi eta Bilbora itzuli zen berriro Jose A. Agirre lehendakariaren deiari baietza emanez. Bigarren Mundu Gerraren erdian Eusko Jaurlaritzak erbestean zeukan informazio eta espioitza zerbitzurako (EAJ., J.A. Agirre eta CIA) lanean hasi zen Bilbon, Bartzelonan eta Madrilan, «Gorka» ezizena erabiliz. Pasarte honek polizi eleberriak dakarzkiz burura. «*Aberriaren onerako, kanore ta garrantzi aundiko lana ixilpean egiten ari nintzan. Sareak Hispania oro barna edatuta neuzkaan, Euzkadin zer esanik ere ez. Urte batzu neramažkin ekin bide gogor ortan*» (Paris 1947-V-5, J. Zaitegi-ri). Baina eginbehar horretan buru-belarri zebilela, Francoren polizia joan zitzaion Deustuko etxera, atxilotu nahian, eta egoitzaren atzeko aldetik jauzi bat egin, eta horma pasatu ondoren, Parisa ihes egin beharra izan zuen. «*Igara Epailaren 15.ean, Prankoren bidaliak, bazkal garaian, etxean aurkeztu zitzaizkidan ni atxilotzeko asmoz. Aiek ate nagusitik sar, ni ordea ate extutik atera. Baratzeko orma gainetik jauzi nintzan eta atertu bage*



*Parisera arte... Azkenez, aipatu garaian, salatzailearen baten eraginez edo, bila etorri zitzaizkidan... Etxekoak atsedabez utzi nitum, baina dagoneko xuspertuta arkitzen dira, Prankoren atzaparretatik onik atera nintzalako» (Paris, 1947-V-5, J. Zaitegi-ri).*

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuan Parisen iragan zituen zazpi urteak (1947-1954), garrantzi handikoak eta oparoak izan ziren: gutunak idazten; BB-Crako euskal literaturari buruzko hitzaldiak prestatzen; euskarazko ikastaroak ematen; lehendakariaren hitzaldiak eta idazlanak euskaratzen; euskal aldizkarietarako artikulua idazten (*Euzko-Deya*, *Euzko-Gogoa*, *Gernika*, *Alderdi*, etab.), «Pen Euskal Kluba» sortzen; euskal liburu berrien argibideak ematen *International PEN Bulletin-i*. Horrezaz gainera, etorkizunean euskal poeta ospetsua izango zen Jon Miranderi eta Tx. Peillen-i euskara irakasten, denboraldi luzea eman zuen. J. Miranderen euskara garden eta jorian Elantxobeko maisuaren eragina nabaria da. Geroago ere, Euskal Herrian haren idazlana inork onartzen ez zuenean (bere kristautasunaren kontrako jarre-ragatik) Elantxobeko idazleak *Euzko-Gogoa*-ko atea ireki zizkion bere lanak argitaratzeko.

A. Ibinagabeitia-ren nortasun politikoaren zutaberik sendoena ama hizkuntza izan zen. Euskara komunikabide ona izateaz gain, euskaldunon ezaugarri nagusia zen harentzat, Euskal Herriaren askatasuna eta independentzia lortzeko tresnarik hoberena. Hori dela eta bere ama euskararen iraupenerako buru-belarri jardun zuen bizitza osoan. Caracas-en bere lagun mina zen Jon Urresti ondarroarrak honela dio: «*ez naiz inoiz izan literaturatzaz arduratu naizenetakorik, nahiz eta 'euskara' irakurle porrokatua naizen eta hori, hain zuzen, Andima zenari zor diot... Ezin dut ukatu Andimarekiko dudan behin-behineko eragina eta sentiberatasuna. Horregaitik, hain justu, eskerrak eman behar dizkizut idatzi duzun artikulugaitik, zemetan Andimaren izaera hain zuhur, egoki ta fidel isladatzen duzun, zera idazten duzunean: '...me gustaría resaltar... donde el objetivo prioritario no era tanto la belleza literaria como la supervivencia del instrumento de esa belleza, en este caso el euskara'. .... Bere izaeraren muinean jo duzu, erdaraz izango litzaken 'has dado en el clavo' erabiliz.... nahiz eta bere ondasun guztiak xahutu eta miserian bizi, EUSKARA-ren egonkortasuna eta bizia zela bere nahi eta helburu bakarra» (Ondarroa 1991-IV-4, G. Aulestia-ri).*

Euskaltzaindiko eta Eusko Ikaskuntzako bilerak gazteleraz egiten ziren urteetan, A. Ibinagabeitiak ozenki aldarrikatu zuen euskararen premia. Zentzu horretan behintzat, urte batzuk geroago J. Mirande, G. Aresti, «Txillardegi» eta uhin berriaren aintzindaria izan zen, hots, bultzagile zolia, zorrotza eta gogorra; euskararen babesle sutsua eta gotorlekua:

«Zertarako euskeratzen erderaz iardun? Garai ori ioana da, ta oraingo euskal-iakitun gazteek olakorik ezin dezakete egari. Ez dute nai euskeratzen erderaz ari dan batzarrik, ikaskun-mota guzietaz euskeraz soilik ari diranak baizik. Beto batzarretara iakitun arrotzak ere. Oriei ez diegu ukatzen beren izkeraz mintzatzeko eskubiderik; ez gera ain ergelak. Bañan euskal-iakitunek, euskeraz mintzo bitez: euskeraz ager bitzate euren txostenak, euskera bedi Ikaskuntza-Batzarretako izkera nagusia, beste izkera oro bere menpean dauzkan mintzo garai ta iakintsua. Ori iristen ez dugun artean, orain arte bezala, antzu gertatuko dira eusko ikaskuntza batzarrak oro, kaltegarri ta lotsagarri ez denean. Erdal-ikaskuntza batzarrik ez dugu nai, gure euskera, illozt baten gisa, erdal-aitzo ilgarriz moztu, iñausi ta sarraskitzeko.

Erotua gaudela esango dute zenbait iakitun erdel-iarriok. Bai, euskerakin zoratuta gaude, ta euskerak beste euskotar guztiei burutik eragiten ez dieneño galdurik gaude. Ikusi dugu zuen gurbiltasunak, zuen zuhurtziak noradiño eraman dituen gure aberri-izkera eta gure erria. Aski zuertasunik eta betorkigu euskal-eroaldi betea, gure izkera ederraren oiartzunez Euskadi'ko muga urrutienak ere beteko dituen euskal zoro-aldia... «Asmoz ta Jakitez bai, bañan Euskeraz». (Euzko-Gogoa 1954,-3-4:49)

Bigarren Mundu Gerran Naziak juduekin eginiko sarraskiatatik, 1948ko maiatzaren 15ean euskaldun eta abertzale askok begirune eta miresmen handiz onartu zuten David Ben Gurion-ek Tel Aviv-en aldarrikatu zuen Israel Estatu berriaren itzaropena. Zoritxarrez gaur egun, zeharo aldatu da giroa gure artean, beraiek palestinarrekin egiten ari diren antzeko sarraskiatatik. Baina, garai hartan, A. Ibinagabeitia horietariko euskal miresle bat zen, israeldarrek aberri bat eraiki zutelako eta batez ere, arbasoen ama hizkuntza, alegia, hebreera, berreskuratzen ari zirelako: «*Omen zuri, Israel, erri zar eta erri berria. Aintza zuri*». (Euzko-Gogoa 1952, 1-2: 47). Gertakizun hau izan zen A. Ibinagabeitiaren iritziz, «*gizaldi honetako miraria*». Beraz,

Israel jarriko digu euskaldunon eredu eta ispilu gisa, zeren herri honek bezain ugari jasan duenik ez du beste bat aurkitzen. Beraz, Euskadiren independentziaren zain egon gabe, aberri hizkuntza, alegia, euskara aldarrika dezagun euskaldunok, eguneroko bizitzako premia guztietara eramanez eta arazo guztietan erabiliz. Eta urte batzuk geroago gai honi buruz patsarte polit hau idatzi zuen.

«*Tel-Aviv-en kabaret apain batean eserita nago. Zer dantzute nere belarriak? Salmoetako izkuntzan, liburu sainduetako irumilla urte lenagoko izkuntza santuan kanta berrienak, dantza berrienak abesten ari dira oraingo isrraeldarrak orkesta eder baten soñu kilimakorrez inguraturik. Zer ote lioke Dabid'ek esnatuko ba'litza? Ori bai gauza ederra!, esango luke: ara nere izkuntza paregabez berpiztuta! Ta bere arpa artuta orkestarien ondoan yarriko litzake kanta ta dantza berrien lagungarri. Nik beintzat, orixe egingo nuke Dabid'en lekuan. Euskeraz kantatzekotan, yakiña.*» (Euzko-Gogoa 1952, 1-2 zb).

## Guatemala

1954ko otsailaren 21an erabaki sendo bat hartu zuen; Frantzia utzi eta Le Havre-ko portutik Guatemalarantz abiatu zen. J.A. Agirre lehendakariari hauxe diotso: «*Ara joango banintza Aberri ta batez ere euskeraren alde lan egiteko izango litzake*» (Paris 1951-XII-13, J.A. Agirre-ri). Jokin Zaitetik zuzendutako *Euzko-Gogoan* lanean hasi eta Orixek utzitako zuloa betetzen saiatu zen. Argitalpen hau euskaldunek atzerrian euskaraz argitaratzen zuten aldizkaririk garrantzitsuena bilakatu zen, tradiziozko euskal kultura zein garaikidearen transmisio tresna bihurtu zelarik. Elantxobetarrak borroka galduen aintzindari bakarti gisa lan egin zuen euskara eta euskal kulturaren alde, jasan zuen 20 urteko atzerrialdi luzean, euskal sustraiak sekula ahaztu gabe, eta bere famili giroaren eraginez, beti abertzale sabin-dar sentitu zen. 1950. hamarkadan euskaldunek denboraldi latzak jasan zituen ONU, UNESCO eta antzeko nazioarteko erakundeetan Francoren gobernuaren onarpena ikusirik. Beraz, bere bakardade, etsipen eta beheraldiei ihes egiteko A. Ibinagabeitiak atzerrian bizi ziren euskal lagunei idazten zien.

1956an Lehen Euskal Biltzarra bukatu ondoren, bere alderdiaren (EAJ) eta Eusko Jaurlaritzaren aurkako kritika gogor eta zorrotzen adierazpenak gehitzen hasi zen, Sabino Aranaren ildotik aldentuta, errepublikazale espainiarrekin ituna egiten saiatu zirelako; *Alderdiaren* norabide okerra salatu eta Maisuaren jatorrizko iparraren bila eman zuen bizi-tza gutzia.

## Caracas

Lekualdaketa honek haren eguneroko bizitzan ondorio larriak eragin zituen, alegia, lanpostu on bat utzi ondoren Guatemalan, lan arloan Venezuelan arazoak izan zituen. Behin eta berriz lana lortu eta behaztopa egingo du lana galduz:

«Ederki nengoen lanean baina bazkideekin aserretu nintzan, eta nere lana utzi bear izan nuen ainbeste mila bolibar galdurik. Arrezkerore nere gorriak jasan bear izan ditut lan berri bat bilatzeko, ezpaita bada erreza garai auetan eta lur alde auetan lanik errex arkitzea» (Caracas, 1962-IV-11, J. Miranderi).

Diru arazoez gainera, osasun buruhauste handiak ere izan zituen. Ez da euskaldunik asko euskerari eta Euskal Herriari Elantxobeko idazlearen mailan osasuna bera ere eskaini dizkionik.

*Euzko-Gogoa* aldizkariaren amaiera tristea konpondu ostean, 1956ko otsailaren erdialdean Caracas-era heldu zen. Hona hemen arazo honetaz Tx. Peillen-i idatzitako hitzak:

«Zaitegi jauna euskadiratu zen, eta Euzko-Gogoa ere berarekin eramane zun, or nunbait argitaratzeko. Beraz nere emengo egitekoa bukatu zen. Otsailean edo, emengo gora-berak eta arazoak antola ondoren, Caracasea noa an nolarebait nere bizibidea aurrera ateratzeko... Dirurik ez dut Amerika ontan eginen, lurrak ikusi bai ordea. Zerbait bada ala ere» (Guatemala, 1955-XII-23).

Hiri honetan beste euskaldun atzerriratuak ezagutu zituen, adibidez: Vicente Amezaga, Toribio Etxebarria eta Martin Ugalde. Venezuelako hiriburuan emandako hamaika urteetan (1956-1967) gero eta gehiago politika

arazoetan sartuta ikus dezakegu: «*Ni orain, politikan murgilduta ari naiz sortu dugun aldizkari berria dala medio, Irrintzi, alegia*» (Caracas 1958-IV-8, J. Zaitegi-ri). Hemen ere nahigabe eta burukomin faltan ez zen egon eta gutunen bidez lagunei bere barruko grinak azaltzen dizkie. Txomin Peillen-i idazitako lau gutun hauek giro txar horren adierazgarriak dira, eta gainera oso garrantzitsuak, orain arte argitaratugabeak direlako:

1. (Caracas, 1956-VI-3). *Eta gaiñera emengo euzkotarrak... ikusiko bazenitu.... Ez da aien artean erdera baizik aditzen. Ai gure Paris'ko euskal billeraxoak: nun zerate? Zearo erderari emanak, vasco itza maizegi aoan, baiñan egiñetan maketo utsak. Egia erran, emengo eusko-etxea arora urbildu nintzan egunean, lur iota gelditu nintzan, euskerakiko ango ibillerak ikusi-ta. Zer uste ote dute emengo abertzale diru-zale ta erdelzale porrokatuok. Ni ez naiz etxe artara urbiltzen... Erderaz aritzeko kalea ere aski zait. Beraz ez dizut emen gure girorik arkitu, Txomin, erbesteko giro zitalena baizik.»*
2. (Caracas, 1956-XII-11). «*Eztakizu Txomin zer nolako melankonia sortzen zaidan Paris'ko egun ederrak gogoratzean, zuen ingurunean eman nituenak oroitzu batez ere*».
3. (Caracas, 1961-III-?). «*Zenbatetan damutu zaidan Europa maitea bazterrerat utzia... Ameriketa amerikarrentzat... zearo arkitzen naiz akituta*».
4. (Caracas, 1963-III-21). «*Ez didazu sinistuko, baina ni urbildu ere ez naiz egiten emengo Centro Vasco sonatu ortara. Nazka ematen dit eta goragalea, erdera beste izkuntzarik entzuten ezten etxe ark*».

Hitz gogor hauek eta asko gehiago erabiltzen ditu, batez ere, euskaldun abertzale eta burgesen kontra; are gehiago, sarritan Frankoren laguntzaile eta kolaboratzailetzat jotzen ditu. Baita ere, hitz eta esaera garratz, gozakaitz, mingotz, zakar, eta mingarriak erabiliz gogor salatuko ditu, esate baterako: ao andi, lukur, iguingarri, doilor, ergel, etoi, lerde, gaxo zakil, nazkagarri, lotsagabe, txepel, saldu, burugalduak, kakaztuak. Elantxobeko idazlearena dugu baita ere esaldi luze hau: «*euskaldun alperrez, zabarrez, inozoz, aluz, madarikatuz, iroz, ustelez, koldarrez, izor, txanpon eta ardo beste ametsik ez duten ordi, salo*». (Paris, 1952-IX-27, J. Mirander-i).

Eta zer esaten zuen erdipurdiko abertzaleei buruz? Hona hemen argibide gisa haren pasarte luze bat:

«Euskera ez dala aski abertzale zintzo izateko darasate... Eta erdal merkatari etoi biurtu zaizkigu euskaldunak oro. Merkatari lotsagabeak euskel izenpean erdera besterik ematen ez diguten ainbeste ta ainbeste albistari. Txepel utsak, euskera baiño erdera erabili naiago duten alderdikideak. Etoi batzu, iakintza ta kultura erderaz sakatzen diguten guztiak. Saldu batzu erdera elizetan barreiatzen duten gotzai, apaiz eta lekaideak. Ziraun batzu, erdera betiko zapuizten ez duten euskaldunak euskera soilik erabiltzeko. Zer itxaron ote dezakegu txepel, saldu, etoi ta ziraunez iositako erri baten gandik? Irakurleak asma beza. Gure erria aberri-izkera bein betiko iasotzeko kemenik gabe, amildegirik beltz eta ilgarrienera lerratu zaigu, etoikeriaren leize-zuloan betiko usteltzeko». (Euzko-Gogoa 1954, 5-8 zb: 74).

Politika mailan, gaur erabiltzen diren hitz potoloak, adibidez: autodeterminazioa, paktua, subiranotasuna, etab. baztertuz, A. Ibinagabekiaren azken helburua eta xede nagusia Euskadiren burujabetasun osoa, hots, independentzia lortzea zen, eta horretarako euskotarren batasuna behar-beharrezkotzat jotzen zuen. Helburu hori erdiesteko eta Francoren diktaduraren aurka egiteko, Espainiako Monarkia eta Errepublika zaleekin elkar-tzea, okerreko bidea iruditzen zitzaion. «Zergatik ez gera alkartu bear euskera ta Euzkadiren askatasuna aintzat dauzkagun guztiok? Ez al da lotsagarriago milla bider negargarriago ta galgarriagoa espainiarrekin paktu zoroetan naasita ibiltzea?». (Caracas 1958-IX-22, J. Beiztegi-ri).

1956an Lehen Euskal Biltzarra Parisen bukatu ondoren, bere Alderdiko jeltkideen eta Eusko Jaurlaritzaren aurkako kritika zorrotz eta gogorren adierazpenak egiten zituen, «Abandoko Maisuaren» bidetik aldendu eta, errepublikar espainiarrekin ituna egiten ahalegintzen zirelako: «Jel-Alderdiari ere jipoi ederrak eman dizkiogu, espainiarrekin paktu iñozo ta burugabeoetan naasi delako, jaurlaritzari jarraituz» (Caracas 1958-VI-11, J. Mirande-ri). Hiru hilabete beranduago hitz gogor hauek erabiliko ditu: «Bioa Espainia ondamentdira, eta bete Euzkadiren askatasuna!... Ortik atera zakezu zer nolako leize beltzean, etsipen-leizean, erori zaizkizun gure jeltkideak, lotsagarriagorik» (Caracas 1958-IX-17, J. Mirande-ri).

Eta erasoak ez dira maila horretan geratzen. Haratago doa eta bere lagun mina zen Jose A. Agirre lehendakaria ere, gogor astinduko du:

«Gainera Agirrek, abertzaletasuna, au da askatasun naia, lausotu egin du bere jardunakin, bere politika kolaborazionismoz irotutakoa-kin. Garaia diralako (sic) agintariak argi mintzo ditezen, espaini-prantsezekin ez daukagula bizi-bidea aldegia, independentziaren alde burruka gogor bati ekiteko». (Caracas 1959-III-27, J. Mirande-ri).

Politika arloan sentiberatasun irekia eta zabalaren jabe azaltzen zaigu. ETA (*Euskadi ta Askatasuna*) sortu eta hamarkada bat beranduago, 1965ko eta 1966ko A. Ibinagabeitiaren gutunetan (beraz mugimendu honek azken ia 40 urtetan eragin dituen odoljario eta erailketen aurretik) harrera abegikorra egiten die Euskal Herriatik ihes egin eta Caracas-era heltzen ziren ETA-ko militanteei. Elantxobeko idazlea ez zen inolaz ere ezkertiarra eta F. Krutwig-en *Vasconia* liburuko ezkertiar ideiekin ez zegoen ados. Beraz, ETA-ri marxismotik zetorkion oinarria zeharo gaitzesten zion eta orduko EAJ-ko bazkide askok bezala, kristau-demokraziaren miresle agertzen zaigu, baina baita ere J. Mirande, bere lagunaren antisemitismo eta nolabaiteko nazismoaren kontra. Poeta honi igorritako gutunean honela mintzo zaio: «*Vasconia* liburuak marxismua txonpelaka dario. Gizona, alako liburu batean euskaldumentzat egin liburuan, ezitzakean ergelkeri geiago bildu... Eta nundik nora dabil gizon hori? ETA-koetaz diozuna, egia ezan extakit nola ar; nik emen eraulguntza ortako zenbait gazte azkar ezagutzen ditut, onak eta langileak. Oso gutxi, egia esan, baina oietzek bakarrik egiten dute zerbait aberriaren alde emen gaindi beintzat. Bertzeak, espainiar errepublikanoekin musuka, lanik aski eta geiegi ere badute; itxututa dabilta, aspaldi ilda dagoen errepublika espainiolak zerbait emango ote dielakoan: ostikada bat ipur-zuloan...» (Caracas 1965-V-7, J. Mirande-ri).

Urtebete beranduago ere, 1966an (beraz, beste urte bete bera hil aurretik) A. Ibinagabeitiak antzeko ideiak tinko aldeztu eta defenditu zituen. Espainiar erregezale eta errepublikazaleen ildotik joan beharrean «paktu zoroak» egiten, euskotar gazteen jokabidea ipiniko die jeltzaleei jarraibideztat eta ez sudur eta belarrietatik sartu nahi diguten eta kiratsa darion sasi-federalismo ustel, antzu eta igatua:

«Egia esango ba dizut, ni ez naiz ETAKoa, alare al dudan guzian laguntzen diet, nere laguntasuna exkasa eta kaxkarra izan arren... Ni enago ados ETAKoekin aunitz gauzetan, ez orixe. Gizarte auziari

ematen ari diran gurpil berria, zenbait aldetatik, bearrezkoa dugu... Beste onik ere arkitzen dut ETAKoen artean; oraindainoko ezkoalderdi guztien artean baino euskal-zaletasun aundiagoa. ETAKo agintariek beinipein, euskeraz ikasi dute etzekitenak, eta batxok ere ez du nai euskera gabeko Euzkadirik eta zoritxarrez nazionalista askotxo ezagutzen ditut euskerari begiko zakarrari baino garrantzi geiago ematen eztiotenak: ez ori bakarrik, erderaren aldre zikinean gure aberri izkuntza bakarra pozik erreko luketenak ere bai». (Caracas 1966-XI-4, N. Etxaniz-i).

Idea hau behin eta berriz errepikatuko du lagunekin izandako gutun trukean, adibidez erresistentzian partaide izan zen Pedro Beitia kiderarekin:

«Lo milagroso es cómo esos jóvenes hayan podido ver la verdad de Euzkadi entre tanta tiniebla y tanta pasividad. ¿Cuándo nos vamos a convencer de que los viejos ya no servimos para nada? Es hora ya de dar paso a la juventud y dejarles la vía libre sin ponerles obstáculos de ninguna especie. El nacionalismo actual solamente puede coincidir con el histórico en que Euzkadi es la única Patria de los vascos y el euskera su única lengua... Pero erre que erre, quieren mantenerse en aquella época, transida y requete pasada, soñando todavía con estatutos imbéciles y republicanos españoles caducos y democracias traidoras.» (Periko Beitia-ri 1964-IX-16; P. Sudupe, 2003:103).

Burutapenak sortzeko gaitasun ikaragarrikoa zuen eta bere ideiak bazituen, hark ere, euskararen bidez eskuratzeko. Tx. Peillen-i Caracas-tik idatzi zion argi eta garbi nolako Euskal Herria nahi zuen. Hasieran esan dugun bezala, A. Ibinagabeitia-k batxilergoa egin zuen Nafarroako Tuteran herrian, Jesuitek duten ikastetxe erraldoian. Matias Ibinagabeitia, Andimaren osaba batek (Oña-ko Jesulagunen zuzendari eta Deustuko Unibertsitateko errektoreak) eraman zuen bere iloba, sona handiko ikastetxe honetara eta orduan Nafarroaz maitemindurik, 40 urte geroago hitz hauek idatziko ditu:

«Ez nau batere arritzen Naparroa agerkizun bat bezalako izan zitzazula iakiteak. Egia esan, nik ez dut amesten Naparroa gabeko Euzkadirik. Uraxe dala derizkiot gure erri-zatirik bikaiñena. Ni beti izan naiz napar porrokatua, bear bada nere aur-egunak erri artan eman nituelako edo. Euskerak indar artuko balu lurralde artan gure



ametsak laister egi biurtuko lirake. Eta nork daki? Zaletasun aundia zabaltzen ari omen da Napparroan gure izkuntzarekiko». (Caracas 1957-XII, Tx. Peillen-i).

Franco hil eta 20 urte geroago, Euskal Herriko gazteek kaleetan aldarrikatzen zuten oihu zolia: «Nafarroa Euskadi da» baino, Telesforo Monzon-en garrasia gehiago gustatzen zitzaion, hots, «Euskadi Nafarroa da». Ziur nago baita ere, pozik sinatuko zituela Bergarako ameslari, politikari eta idazleak, *Egin* egunkarian zortzi hilabete hil baino lehenago idatzi zituen hitz hauek: «*Sin Nafarroa, no queremos nada, nada, nada. Sin Nafarroa, ni un solo paso... nuestra lengua es la «Lingua Navarrorum»... Iruña es la capital de Euskal Herria entera. Gora Nafarroa Batua!*» («El Jarrón roto», en *Egin* 1980-VIII-24).

1958. urtea garrantzitsua izan zen Elantxobeko idazlearentzat, zeren IRRINTZI bere aldizkariak oiartzun handia izan zuen Caracas hiriburuko euskaldunen artean. Guatemalan euskal kultur giroan buru-belarri sartuta bi urte eman ondoren, oraingoan gai politikoak izango dira haren lehen helburua:

«Irrintzik euskera ta azkatasuna ditu elburu, eta Euzkadiko auzi larri bi oien inguruan ez dago txantxetarik ezta umekeririk be, ez orixe. Azkatasun osoa lortu arte ez da izango gentzarik, gudan gara ta gudan jarraituko dugu, gaur makal ta biar gogor, bera lortu arte...» (Caracas, 1958-IX-22, J. Beiztegi-ri).

Sarritan adinak ahuldua eta eguneroko lanak akitua sentizen zen, gogaituta eta nekatuta. Hala ere inoiz ez zitzaion falta indarrrik lanean jarraitzeko bere aldizkarian:

«...sail geiena neonek bete bear izaten dut Jainkoak daki nola.. Ala ere Aberriaren deiari ezin entzungor egin, eta andik edo emetik kemenak ateratzen ditut lan ori egiteko» (Caracas, 1958-IX-16, N. Etxaniz-i).

«... adiskide bat eta ni gaituzu aldizkaritxo orren egile ta sortzaileak. Izkeria gogorrez idatzita dator gure jendeak noiz edo noiz esnatzeko. Elburu argia da berea, Euzkadiren askatasun osoa, ez gabiltza ertainkeritan, eta espaniarrekiko artu eman guztiak zearo zapuzten ditugu. Ala ere Alderdiaren bidetik ibili nai dugu». (Caracas, 1958-IV-8, J. Zaitegi-ri).

A. Ibinagabeitiaren azkena oso penagarria izan zen; neguko ekaitzak irauli eta errorik gabe gelditzen den zuhaitz ihartuaren antzera bizi izan zituen azken egunak: eskasia, gaisotasuna, etsipena, langabezia, etab. 1951an J. Zaitegi-ri iragarritako erbestearen laztasuna eta egun gogorrak heldu zitzaizkion, zinez, batez ere Caracas hiriburuko lurrikararen ondorioz. «... *egun gogorrek bear ditugu ikusi erbesteturik arkitzen geranok eta noragabe ibili bear ko dugu etsaiez inguraturik*» (Paris, 1951-IV-25, J. Zaitegi-ri). Bilintx bertsolaria bezala, bere kiroak «*gitarra zaarraren ariak baino motelago*» zeuzkan bizkaitar idazleak, bere penak lagun kutunei kontatzen urteak eman zituen, eta horien artean hiru izen azpimarratuko nituzke: J. Mirande, J. Zaitegi eta N. Etxaniz. Azken honi hauxe diotso: «... *erbestetu errukarriok ez daukagu beste erremediorik, ni bezalako erbestetuek alegia, mundua nekez ta penaz beterik mundua goldatu bearra baizik*» (Paris, 1954-I-15, N. Etxaniz-i). 1953an Tx. Peillen-i, Parisen bizi zirela bidalitako data gabeko gutun batean, barne-minez azaltzen dio bere aspaldiko tristura. «*Etsita nago, adiskide.... auleriak iotako erri ta iendeak gaituztu, eta auleriak eriotza, bertzerik ez dakar*». Euskal Herrira pozik itzuliko zen baina ezina zen: «*Biderako txanponik ez daukat, bestela biar bertan egalontzia artuko nuke orra joateko*» (Guatemala 1954-VII-17; N. Etxaniz-i).

Herio krudel hau bakardadeak, gaisotasunak, herriminak, urrutiminak eta gabeziak sorrarazi zioten. 1954an pozik urrutiratu zen Paristik Guatemala-lara, baina zazpi urte geroago, 1961an bere lagun Jokin Zaitegi-ri hitz samin-garri hauek idatzi zizkion: «*Egia diotsut, bidea zabal baldin banuke, lurralde hauek bertan-bera utzi eta aberrira itzuliko nintzake pakean iltzeko baino ezpada ere. Bainan ezin itzuli ango agintariek lur-joten ez duten bitartean, eta ez dute ain arin lur-joko noski*». (Caracas 1961-I-7).

Lur jota hil zen, José A. Agirrerren ametsa («Este año la Navidad en casa») eta beste atzerriratu askoren desira biziak zeharo zapuztuta, bereak barne. 1967ko azaroaren 2an, hilen egunean, hain zuzen ere, zendu zen Caracas-en.

Eta amaitzeko haren miresle den P. Urkizu irakaslearen hitz hunkigarri hauen bidez emango diogu bukaera hitzaldi honi:

«Jota, pitzatuta, zartatuta zeukan bihotza, eta hori dela eta hainbeste maite zuen A aberrira itzuli gabe, desterruan, bakardadean

hil zen Caracasen 1967an azaroaren 2an, mende honetako euskal idazle, itzultzaile eta saiogilerik handienetakoa. Bera lurpean datza, baina bere obrak zutik dirau». (A. Ibinagabeitia. Erbestetik barne-minex: 14).

## Bibliografia

1. AULESTIA, G. «Andima Ibiñagabeitia, prosista y traductor excelente», en *Diario Vasco* 12-III-1991.
2. AULESTIA, G. *Erbesteko euskal literaturaren antologia*. Ed. J.A. Ascunce, Donostia, 1992:23-25; 176-208.
3. AULESTIA, G. «Cinco defensores del euskara en el exilio» en *La Cultura del Exilio Vasco*. Ed. J.A. Ascunce y M.L. San Miguel. Donostia, 1994:155-197.
4. AULESTIA, G. «Andima Ibinagabeitia Ameriketean», en *Euskaldun etorkinak Ameriketean*. Ed. Tx. Peillen. Donostia. Utriusque Vasconiae, 2003:119-134.
5. AULESTIA, G. «Ibinagabeitia Idoyaga, Andima». Bilbo. Euskaltzaindia. 2008: 71-74.
6. IBIÑAGABEITIA, A. *Birgiliren Unai eta Alor-Kantak*. Ed. Iñigo Ruiz Arzalluz. Klasikoak. Donostia, 1992.
7. *Andima Ibiñagabeitia. Erbestetik barne-minex. Gutunak (1935-1967)*. Ed. P. Urkizu. Donostia, Susa. 2000.
8. SUDUPE, P. *Andimaren Idazlan Hautatuak*. Donostia. Elkarlanean, 1999.
9. SUDUPE, P. «Andima Ibiñagabeitia: abertzaletasun berria», en *Herri bat gurutzean*, Ed. X. Apaolaza. Donostia, Saturrarán, 2003:89-105.
10. SUDUPE, P. *Andima Ibiñagabeitia (1906-1967)*. Bidegileak. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1997.

# Liburu-aipamenak



# *Retorno a la lealtad: El desafío carlista al franquismo*



MARTORELL, Manuel  
Madrid: Actas, 2010, 443 or.

GARTZIA ISASTI, Pruden  
Euskaltzaindia  
Azkue Biblioteka

Aipatuko dugun liburua ziur aski ez da izango hedapen handi-handia izango duen horietakoa, baina Euskal Herriko historiarekin interesatuta dagoen edonorentzat gutxienez ezagutu beharrekoa da eta, interes hori maila batetik gorakoa bada, irakurri beharrekoa dudarik gabe. Historiako liburua da berez, baina saiakera gisa idatzia edo, agian zehazkiago, kazetari-tzako kronika baten moldean, aipu bibliografikoak minimora ekarriz. Eta alde batetik arin batean irakurtzeko modukoa bada ere, beste alde batetik astuna suertatzen da, Historiako liburuek fama duten bezala. Ondoko lefroetan saiaturako gara argitzen bi ildo horien nondik-norakoak.

Karlismoa, dudarik gabe, anaia pobrea da XX. mendeko euskal historiografian. Mila eta bat lan egiten dira abertzaletasunari buruz, alderdi askotatik hartuta gainera; orobat, ikerketa ugari dago langile-mugimenduari eta haren garapen politiko eta sozialari buruz; gutxiago dira, baina gero eta ugariagoak, halaber, elite ekonomiko eta enpresarialei buruz dedikatzen zaizkien ikerketak. Beraz, gizartearen hiru esparru hauek ikerturik, hots, nazionalismoa, sozialismoa eta elite edukitsuen mundua (hirurak zentzu zabalenean hartuta), badirudi XX. mendeko euskal panorama politikoa aski ondo deskribatuztat jo beharko genukeela, baldin eta postulatuko bagenu karlismoa XIX. mendeko mugimendu bat izan zela eta XX. mendean ondar txiki bat baino ez zela gelditzen, garrantzia sozial eta politiko txikikoa. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da: karlismoa, ziur aski, Arabako eta Nafarroako indar sozial eta politiko nagusia izan da mendearen lehen bi herenetan, eta Bizkaia eta Gipuzkoan presentzia oso esanguratsua izan du epe berean. Gerra Zibilean jokatu zuen papera, bestalde, guztiz erabakigarria izan zen Euskal Herri osoan. Francoren heriotzaren ondoren haren bat-bateko desagertze orokorra, beraz, oso fenomeno engainagarria izan daiteke eta, ororen buru, *azaldu beharrekoa*. Izan ere, nola esplikatzen da Gerra Zibilean karlistek erakutsitako indar izugarri hura, mobilizazio ahalmen ikaragarri hura, berrogei urte *garaileen* artean pasatu ondoren bat-batean desagertzea ia guztiz?

Liburu honek ez du fenomeno hori bere orokortasunean esplikatzeko asmorik, baina fokua karlisten gainean ipintzean mahai-gainera ekartzen du gure memoria kolektibotik ia-ia desagertuak ditugun mamuak: nortzuk izan ziren XX. mendeko karlistak? Zenbat izan ziren? Zer egin zuten gerran? Eta, bereziki, zer egin zuten gerra ostean?

Erantzunak, liburu honen kasuan, ez dute ikerketa historiko orekatu baten pretentsiorik hartzen baizik eta, lehenago esan dugun bezala, kronika baten forma. Baina ez da kronika inpresionista bat, datu argi eta zehatzetan oinarritutako diskurtso koherentea baizik. Pertsonak eta gertakariak, horiek dira liburuaren ardatza; nortzuk ziren karlistak eta zer egin zuten gerran eta gerra ostean. Zehaztaperen garrantzitsu batekin: jasotzen duten gertakari guzti-guztiak, salbuespenik gabe, aurrez azaldutako tesi bat sostengatzera datoz, *frogak* dira, egileak bere tesia aldezteko bildu dituen frogak.

Tesi hori hitz gutxitan laburbil daiteke: gerra abiatu bezain laster, eta bukatu ondoren bereziki, karlista gehienak *traizionatuak* sentitu ziren. Alegia, beraiek partidu politiko berezi bat ziren, beren programa politiko propioa zuena; Errepublikaren kontra bat egin zuten militar altxatuekin eta Espainiako hainbat indar eskuindarrekin (falangistak, monarkikoak, *kato-likoak...*) baina beren helburu propioak zituzten, ororen buru *bidezko erregea* Madrileko tronuan ezartzea. Martorellen arabera batzuk hasiera-hasieratik, 1936ko uztailetik bertatik, ikusi zuten militar altxatuek helburu hori oztopatuko zutela; urrats bat gehiago emanez, karlista gehienek ez zuten bihotzez onartu Francoren Bateratze Dekretua (1937ko apirila), zeinaren bidez indar politiko guztiak partidu bakar batean biltzen ziren, buruzagi absolutu bakarra izango zuen partidua, hain zuzen ere Caudilloa bera. Hortik aurrera, eta beti Martorelli segituz, karlistek lehia gogor bat izan zuten falangisten kontra eta ahal izan zuten guztietan saiatu ziren beren erakunde politiko bereziari eusten, beren buruzagitza eta programa propioarekin. Jakina denez, alferrik, zeren Francoren buruzagitza pertsonala argi eta garbi nagusitu zen Errepublikaren kontra altxatuen koalizio eskuindarraren barruan eta haren heriotzeraino iraun zuen. Hortik karlista asko *traizionatua* sentitzea eta Franco bihotz-bihotzez gorrotatzea.

Liburu hau, funtsean, lehia horren kronika zehatza da, *traizionatuen* ikuspuntutik kontatua. Hartara, xehetasun osoz jasotzen dira 1936-1945 bitartean hainbat buruzagi eta militante karlistek falangistekin (eta frankistekin oro har) izandako istiluak, borrokak eta, kasu batzuetan, kartzelaldiak. Datu ugari ematen da, beti arestian aipatu dugun ikuspuntutik hartuta. Batzuk zerikusia dute historia orokorrarekin, adibidez, karlisten erregegai Don Javierrek 1937ko maiatzean eta berriz ere azaro-abenduan Espainian zehar



egindako bi bidaia politiko-propagandistikoak, Francok hura Frantziara ohiltzea dekretatu arte; beste batzuk Euskal Herria dute interes nagusi, adibidez, argazki batean Don Javier bera Gernikako arbolaren azpian ikustea, Foruei zin egiten; eta beste batzuk, aldiz, interes zuzena dute euskararen historiarekin interesatuentzat, adibidez, Antonio Arrue euskaltzain ospetsuaren ibilaldiei egiten zaizkion aipamenak. Horrela, uste dut gure artean ez dela oso ezaguna Arrue Granadako kartzelan sartu zutela 1937ko abenduan, hain juxtu ere Francok batera erabaki baitzuen Don Javier Frantziara ohiltzea eta Don Antonio kartzelan sartzea inkomunikaturik; anekdota bereziki bitxia da ikustea nola karlisten kapilauetakoa zen Garzon izeneko apaiz baten eskuhartze bereziari esker lortu zen atxilotzera zetorren Guardia Zibilaren presentzia saihestea, hark bermatu baitzuen Arrue bere borondatez aurkeztuko zitzauela (61-62.or.).

Eta anekdotekin segituz, ez zaigu garbi esaten zenbat denbora egin zuen Arruek kartzelan; bai, ordea, Antonio Arrue dela Gernikako Arbolaren azpian arestian aipatu dugun Don Javierren zinari (1937ko maiatzak 19) agur militarrez erantzuten dion hiru lagunetako bat (ik. liburuaren azaleko argazkia eta 224-225 orrialdeen artean argazki bera, azalpen batez lagundua). Izan ere, euskaltzalearentzat interes berezia du 4. kapituluak («Defensa del País Vasco y Cataluña», 138-154); hor kontatzen zaigu, adibidez, nor izan zen Gernikaren bonbardaketaren ondoren (1937ko apirilak 26) Gernikako Arbola zaintzeko karlistek antolatu zuten zaintza bereziaren antolatzaille eta arduraduna: Jaime del Burgo Torres, nafarra baina une horretan Bizkaiko erreketen bataloiaren kapitaina. Agian merezi du kontakizun osoaren zati hau hona ekartzea: «Igualmente es revelador el enfrentamiento que se produce entre Jaime del Burgo Torres con un mando del arma de Artillería cuando llegaron a Guernica, inmediatamente después de que la aviación alemana bombardeara la villa foral. Del Burgo pudo ver cómo algunos de sus requetés «lloraron de rabia e indignación por lo sucedido» y se quejaba de lo inútil del castigo aéreo cuando el militar le contestó, fuera de sí, que lo mismo había que hacer con toda Vizcaya y Cataluña. Del subido tono se pasó a los insultos, terminando Del Burgo por mentar a la madre de su superior en rango, mientras le agarraba de las solapas. No terminaron a tortas porque, en ese momento, intervino...» (141. or.). Martorellen konta-

kizunaren arabera, Del Burgo izan zen Arbolaren zaintza antolatu zuena, izan ere zurrumurrua zabaldu baitzen falangista talde bat zetorrela Iruñetik espresuki Arbola moztera. Ez dugu detaileekin segituko, baina bai uste dugu komenigarria dela argitzea Jaime del Burgo hori gaur egun ospetsuagoa den politikari eta historialari nafar baten aita dela: Jaime Ignacio del Burgo.

Azken argibide hori ematea ez da hutsala. Izan ere, gorago iradoki dugun lez, liburu honek tesi bat aldezea helburutzat badu ere, bada sakoneko galdera bat historialari orok erantzun beharrekoa tesi horrekin ados izan ala ez: zer gertatzen da karlistekin gerra ostean? Nora joan dira? Zertan bilakatu dira? Ildo horretan komenigarria izan daiteke, beti bezala, sinplismoetatik eta azalpen linealegietatik ihes egitea; Martorellek kuadro argi bat marrazten digu 1937-1945 aldirako, alegia, karlistak bi multzo argitan banatuta: batetik Esteban Bilbao edo Rodeznoko kondea bezalako buruzagi *traidoreak*, frankismoarekin guztiz bat egin zutenak; bestetik, karlisten masa sozial handia, mesfidatia eta haserre, Fal Conde edo Balezenatarrak bezalako buruzagiei segitzen ziena eta Francori gorroto ziona. Baina dudarik gabe sinplis-  
tegia litzateke banaketa hori Francoren heriotzaren ondoren sortzen den berrantolatze politikoari zuzenean aplikatzea. Aldi luzeegia da, gertakari asko, esplikazio bakun bat erdiesteko bi lerroetan. Besteak beste, Martorellek berariaz nahi izan du bere kronika 1945ean bukatzea; azken kapituluan (410-425. or.) ondorengo urteei buruzko aipamen labur batzuk badira ere, ez dute oinarritzko data hori gainditzeko pretentsiorik.


Beste hausnarketa bat egitea ere ez da alferrikakoa izango: 1937-1945 abagune horretan Francorekin hain haserre zeuden karlista horiek beroriek euskal nazionalismoarekin nolabaiteko hurbiltasun batzuk izan badezakete ere (erlijio katolikoa edo euskal identitatearen defentsa foruen bidez), separatismoaren arerio gogorak dira eta, argi eta garbi, espainoltzat dute beren burua; bestalde, berriz ere argi eta garbi, beti sostengatuko dute uztailaren 18an armaz altxatzearen legitimitatea eta ezinbestekotasuna; nolabait esanda, amorrua ematen diena da altxamendu hori Francok eta falangistek kapitalizatu izana, ez besterik.

Beraz, esan dezagun laburbilduz Manuel Martorellek karlisten kronika bat idatzi nahi izan duela, 1937-1945 bitartean eta ikuspuntu zehatz bat

aldezteko. Helburu hori bikain bete du, interes handiko datuak ekarriz kontakizun atsegin batean. Ez du hortik aurrera joan nahi izan, baina elementu asko utzi du han-hemenka sakabanatuak hausnarketa ederrak eragingo diotenak irakurleari XX. mendeko karlisten historiaren gainean, alegia, gure herriaren osagai guztiz garrantzitsu baten gainean, misterioski historialarien arreta guztiz txikia erakarri duena beste batzuen aldean.

Bukatzeko, bi kontu deitoratzea baino ez zait gelditzen: batetik, liburuak aurkibide onomastikorik ez izatea eta, bestetik, euskaltzaleentzat hain garrantzi handia duen Antonio Arrueren bizitzari buruzko datu gehiago ez ematea. Biak konpon daitezkeen akatsak.

# *Witch Hunts in the Western World: Persecution and Punishment from the Inquisition through the Salem Trials*



PAVLAC, Brian A.

Lincoln: University of Nebraska Press, 2010, 228 or.

GARTZIA ISASTI, Pruden  
Euskaltzaindia  
Azkue Biblioteka

Aipagai dugun liburuak jakinmin handia sortuko du Euskal Herriko historian interesatuta dauden guztien artean. Izan ere, ez da sekretu bat sorginkeriak xarma handia sortzen duela gaur egun herritar xumeen artean, zinean eta literaturan mota horretako gaiak arrakasta itzela izan baitute hamarkadaz hamarkada eta gero eta handiagoa sortuko dutela ematen du, *Harry Potter*-en sagak argi eta garbi frogatzen duen bezala. Mundu mailako fenomeno bada ere, garbi dago Euskal Herrian beste edozein lekutan balio duten arrazoi guztiez gain beste batzuk ere gaineratzen direla, alegia, euskaldun askoren aburuz sorginkeriak paper berezi bat jokatu du gure herriaren historian. Uste orokor horren froga gisa bi motako datuak daude: batetik, 1610 inguruan Lapurdi eta Goi Nafarroaren arteko muga aldean gertatzen diren ehizaldi ospetsuak eta, bestetik, ehizaldi horiek bereziki, eta sorginkeriak oro har, euskal historialari, antropologo eta idazleen artean sortu duen lilura, liburu ugarietan erakutsia: Azkue, Barandiaran, Baroja edo Caro Baroja izen klasikoaren artean, berriagoetatik Garmendia Larrañaga, M. Azurmendi, T. Martinez de Lezea, J. Dueso, K. Ortega, J. Ospital, C. Labat... zerrenda luze-luzea atera daiteke. Kasu guztietan, alde edo moldez, badirudi pentsatu behar dugula goiko baieztapen orokorra egiazkoa dela, alegia, sorginkeria eta euskaldunak lokarri berezi batez egon garela estekatuak historikoki.

Uste orokor hori egiazkoa ote den frogatzeko ezer hobeagorik ez dago sorginkeriaren historia orokorren bat edo batzuk irakurtzea baino. Aitor dut ez naizela gaian aditua eta kuriositate orokor batek bultzatu nauela aukera izan dudanean horrelako bati heltzera; baliteke, beraz, ondoren esango ditudan ezagunak eta arruntak izatea sorginen historiaz eta istorioez ganorazko ezagutzak dituztenen artean, baina esango nuke neu bezala hurbilpen orokor baten aparretan bizi direnentzako aipagai dugun liburua oso egokia dela uste okerrak eta irudikeriak desegiteko eta fenomenoaren ulerkuntza bere onera ekartzeko. Alegia, eta garbi esanda, historikoki euskaldunok ez dugu sorginkeriarekin inolako lotura berezirik, ez behintzat alemanek, frantsesek, ingelesak edo eskoziarrek dutena baino handiagoa. Aski da liburu hau irakurtzea horretaz jabetzeko.

Liburuak zortzi kapitulu ditu, egitura erraz batean antolatuak. Lehenengoan, gaiaren sarrera orokor bat egiten da, batez ere arazo kontzeptualak

argitzera bideratua: zer den sorgin bat eta zer ez, zer den magia, zer esan nahi dugun mota horietako kontzeptuak erabiltzean. Horretan seinalatzen da, halaber, liburu osoa korritzen duen baieztapen nagusia: Europari dago-kionez sorginkeriaren fenomenoa historikoki mundu grekolatinotik abiatzen bada ere, 1400. urtera arte, gutxi gorabehera, fenomenoa marginala da horren ondorio penalei dagokionez, alegia, sorginkeriak eragindako auzialdiak eta epaiketak aski bakanak dira. Data horretatik aurrera, berriz, sorginkeriako prozesuen gorakada itzela gertatzen da, erpina 1600-1700 bitartean erdiesten delarik. Garai horretakoak dira *sorgin ehizaldi* ezagun eta sonatuenak. Data horretatik aurrera, berriz, beherakada dator, ehizaldiak gero eta urriagoak bihurtzen direlarik erabat desagertu arte 1800. urte inguruan; XIX. mende hasieran, berriz, oraindik kasu bakanen bat dokumentatu daiteke, baina honez gero ez du heriotza-zigorrik ekartzen. Adi, dena den, ñabardura garrantzitsu bati: desagertzen dena da sorginkeria delitu gisa, hots, herri aginte eta epaileek ez dute aurrerantzean sorginkeriako deliturik dagoenik ikusten; aldiz, herri xehearen gogoan oraindik ere sorginen eta sorginkeriaren existentziak oso sustraiturik segituko du. Nabarmena da, bestalde, sinesmen horrek gaur egun ere populazioaren sektore zabalak besarkatzen dituela, baina, gorago esan dugun lez, gaur egun ez dago sorginkeriako deliturik. Horra aldea.

Beraz, gaiaren sarrera orokorra lehen kapituluan egin ondoren bigarren kapituluan Erdi Aroan gaiak izandako trataera laburbiltzen da, argi eta zehatz. Pavlacen iritziz, 1400. urtean bihurgune bat gertatzen da: ordura arte batez ere heretikoak izan badira autoritate zibil eta eklesiastikoen pertsekuzioak pairatu dituztenak sorginen kontrako auziak aski bakanak izaten zirelarik, aurrerantzean horiek ere protagonismo handia hartuko dute herri aginteen kezken artean, ehizaldi gero eta larriagoak antolatzen direlarik. Ehizaldiekin batera, sorginkeriaren gaineko literatura oso aberats bat antolatzen da, egileak *strixology* deitzen duena (*strix*, latinez, emakumezko sorgin bat da) eta *Malleus Maleficarum* (1486) ospetsuarekin hasi eta Pierre de L'Ancre-ren *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons* (1613) gure artean txit irakurria bezalako lanak biltzen dituena. Baina De L'Ancreren liburua bat gehiago besterik ez da mende horretan bereziki lortzen den genero ugari baten barruan.

Hurrengo bost kapituluetan Pavlacek Europako bost eremu geografiko aztertzen ditu monografikoki, hurrenez hurren Inperio Santu Erromatarra (hots, Erteuropa), Frantzia, lurralde britainiarrak (Ipar Amerika barne), Hego Europa (Hego Amerika barne) eta Ipar eta Eki Europa. Kasu guztietan izandako ehizaldi eta prozesu nagusien kronika eskaintzen digu, zehatza, aberatsa, beti interesgarria, nahiz eta batzuetan apur bat erreplikagarria izan daitekeen. Horrela azaltzen dira, adibidez, euskaldunentzat ospetsuak izan diren bi kasuak, Lapurdikoa (95-97. or.) eta Zugarramurdikoa (154-156 or.). Hain zuzen ere aski da ehizaldien kronikari segitzea konturatzeko euskal kasua (edo kasuak) ez dutela inolako berezitasun nabarmenik bete-betean europarra den fenomeno baten barruan: beste bi gehiago, besterik ez, ñabardura eta kolore lokala izango dutenak beste guztiek ere izaten duten antzeko heinean. Sorginkeriarri dagokionez ez dago euskal berezitasunik.

Beste hausnarketa bat ere erants daiteke: sorginkeria ez da izan, inola ere ez, Europako bazterretako eskualde *atzeratu*, *errural* edo *basatiago* batzuen ezaugarria. Aitzitik, ehizaldi gogorrenak, sonatuenak, hilgarrienak, gerora europar zibilizazioaren sehaskatzen eta gunetzat hartu izan diren eskualde batzuetan gertatzen dira, ororen buru, Alemaniako hegoaldea, Frantziako eskualde batzuk, Ingalaterra, Eskoziako hegoaldea (hots, ezgaelikoduna) eta Estatu Batuetako Eki Kosta (zehazkiago, Massachusetts); aldiz, Irlanda bezalako leku *exotikoek* ez dute ia-ia sorginkeriazko ehizaldirik izan historian zehar. Eta honekin batera, beste ñabardura bat ere berez dator: katolikoek eta protestanteek, luterano, anglikano zein kalbinistek, guzti-guztiek antolatatu dituzte sorgin-ehizaldi ikaragarriak. Ez dago alderik eliza batetik bestera. Areago, nork bere komunitateko sorginak ehizatu izan ditu heretikoak ehizatzeke erabilitako amorru eta krudeltasun berberarekin. Hitz batez, fenomeno europar baten aurrean gaude hitzaren zentzurik estriktoenean.

Ildo horretan liburu honek balio dezake bi gauzetarako: euskaldunen europartasuna naturaltasunez asimilatzeke eta europartasun horri sarritan franko inozoki atribuitzen zaion gorentasun *zibilizatzailea* berriz ere bere neurrian ulertzeko, apologiarik gabe. Askia izan beharko litzateke, adibidez, ez bakarrik Pavlacek aurkezten dizkigun sutean erretako edo lepotik eskegitako milaka eta milaka biktima errugabeen testigantza, baizik eta beraien kontra erabilitako tortura sistema ezinago krudelak, xeheki azalduak eta

irakurleari ikara sakon bat eragingo diotenak. Eta horrelako gauzak ez ziren gertatzen soilik Inkisizioaren Espainian, sarritan gogoratzen den bezala, baita ere antzera edo oraindik ere krudelkiago Frantzian edo Alemanian. Hori da Historiak erakusten duena.

Azken kapituluan egileak ahalegin bat egiten du fenomenoaren azalpen orokor bat emateko. Kapitulu interesgarria da, dudarik gabe, baina esango nuke aurreko kapituluen kronika indartsu eta aberatsaren aldean apur bat makalago geratzen dela. Ez da arraroa, langa oso goian jarri baitu liburuan zehar eta badirudi gaia agortutzat jo behar dela. Zer dio, bada? Espero izatekoa zen bezala, Pavlacek ez du sorginkeriaren existentzian sinesten, ezta inoiz edo beste planteatu izan den hipotesi *leun* edo *zientifikotan* ere ez, hau da, adibidez, droga natural zenbaitek eragindako eldarnioak; aldiz, gertakari sozialtzat ditu, gizarte baten barne tentsioek sortutako fenomeno soziale-tatik esplikatu behar direnak, baina ez du pentsatzen sorgin-ehizaldientzat azalpide bakun eta koherente bat egon daitekeenik. Edonola ere, ez du berak horrelakorik formulatzeko asmorik; gorago esan duguna borobilduz, gertakarien kronika bikaina eskaintzen digun liburua da hau, ikuspegi zabal eta aberatsa, datuz hornitua eta argia, baina teorizatzekeo ardurarik erakusten ez duena. Neuk behintzat ez dut teoriarik aurkitu liburu txit gomendagarri honetan, zer pentsatua ugari eragin badidate ere han-hemenka barreiatzen dituen hausnarketa laburrek.





*Euskera* agerkariaren idazketa arauak

Normas de redacción de la revista *Euskera*

Normes de rédaction de la revue *Euskera*

Writing guidelines for the journal *Euskera*



## Euskera agerkariaren idazketa arauak

### 1. *Euskera* agerkariaren esparruak

*Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da. Bi motatako zenbakiak argitaratzen ditu: lehenik eta behin, instituzioaren kide berrien sarrera-hitzaldiak, erakundearen lanak, agiriak, hizkuntza-arauak, *Iker* edo *Jagon* Saileko Jardunaldiak eta antzekoak jasotzen dituztenak, eta, bigarrenik, Euskaltzaindiaren intereseko jakintza esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak. Ondoren zehazten diren irizpideak soilik bigarren motako zenbakietako ikerketa-artikulu originalei eta liburu-aipamenei dagozkie, eta bete beharrekoak dira aintzat har daitezzen argitaratze-bidean. Gainerakoetan, bete beharrekoak dira Euskaltzaindiak ezarritako baldintzak; ikus “Euskaltzaindiaren argitalpen eremua”, *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Hauxek dira *Euskera* Agerkarian jorra daitezkeen zenbait gai:

- Euskal filologia
- Hizkuntzalaritza orokorra
- Gramatika
- Dialektologia
- Lexikografia / lexikologia
- Literatura
- Toponimia / Onomastika
- Fonetika eta Fonologia
- Semantika eta pragmatika
- Hizkuntzaren historia
- Hizkuntzaren normatibizazioa
- Hizkuntzaren normalizazioa
- Soziolinguistika
- Teknologia berriak eta hizkuntza

- Iurilinguistika eta hizkuntza-zuzenbidea
- Itzulpengintza
- Zientzia-arlo desberdinetako euskara teknikoak.

Orobat, aintzat hartuko dira beste hainbat esparrutako diziplinak, euskararekin zerikusirik duten neurrian.

Ikerketa-artikulu originalen eta testuen proposamenak Argitalpen arduradunari zuzenduko zaizkio, ondoko helbidera:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.  
Argitalpen arduraduna  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO

## 2. Hizkuntzak

Ikerketa-artikulu originalak Euskal Herriko mundu akademikoan erabiltzen den edozein hizkuntzatan idatziak izan daitezke, baina euskaraz idatzitakoak hobetsiko dira.

## 3. Luzera

Bi motatako testuak argitaratuko dira: artikulu akademikoak eta liburu-aipamenak (erreseinak). Lehenak ez dute luzera jakinik, baina oro har ez dute izango 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago (15-30 orrialde). Liburu-aipamenak bi motatakoak izango dira: 3 orrialdekoak (6.000 karaktere) edo 5 orrialdekoak (10.000 karaktere), salbuespenak baztertzeke.

## 4. Laburpenak

Ikerketa-artikuluarekin batera haren laburpena (gehienez ere 500 karaktere) eta artikuluaren hitz-gakoak (gehienez ere, sei) entregatuko dira, artikulua idatzia den hizkuntzan.

## 5. Onarpena

Ikerketa-artikuluak eta testuak onartzea *Euskera* Agerkariko Idazketa Kontseiluari dagokio. Honek artikulu bakoitzerako bi kanpo-ebaluatzaile izendatuko ditu eta haien iritzia entzun ondoren hartuko du azken erabakia. Artikulua onartzerakoan egileari oztopo, akats edo aldabeharren zerrenda emango zaio, hala balegokio. Egileak bere adostasuna jasotzen duen agiria sinatuko du. Hortik aurrera ez da muntazko aldaketa edo zuzenketarik onartuko ez egilearen aldetik ez argitaratzailearen aldetik.

## 6. Epeak

Ikerketa-artikuluak eta testuak urtean zehar aurkeztuko dira, urtea bukatu arte eta hurrengo urteko lehen seihilekoan argitaratzekotan. Argitaratze-prozesuan ezarritako epeak ez betetzeak artikuluaren argitalpena bertan behera uztea ekar liezaioke autoreari, argitaratzailearen erabakiz.

## 7. Artikuluaren euskarriak

Artikuluak ordenagailu formatuan aurkeztuko dira, bertsio inprimatu bat erantsiz. Euskal Herrian arruntak diren testu-prozesadoreak erabiliko dira.

## 8. Erreferentziak eta oharrak

Ohar gehiegikeriak mugatzeko ahaleginak hobetsiko dira. Erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikuluaren bukeran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, honela: (Larramendi, 1729) edo Mitxelena (1961, 123). Edozein arrazoirengatik mota horretakoak erabiltzea baztertzen denean ere, eman bitez erreferentzia zehatzak, *op. cit.* edo *ibidem* bezalakoak saihestuz eta erreferentzia osoak bibliografian eskainirik.

## 9. Bibliografia

Bibliografia artikulua bukaeran emango da, oinarritzko eredu honi segituz:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiologia vasca : Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

Egileak artikulua bibliografia oinarritzko eredu horren arabera antolatuko du. Kasuan-kasuan izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzaile-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

## 10. Ordainketak

Egileak modu eskusiboan lagatzen dizkiote Euskaltzaindiari argitaratutako artikuluen gaineko erreproduzio-eskubideak. Halaber, ikerketa-artikulu eta testu guztiak ordainduko dira Euskaltzaindiaren Argitalpen batzordeak kasuan-kasuan erabakitzen dituen tarifen arabera.

## Normas de redacción de la revista *Euskera*

### 1. Ámbitos de la revista

*Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia. Publica dos tipos de números: en primer lugar, aquellos que recogen discursos de ingreso de los nuevos miembros de la institución, trabajos de la Academia, actas, normas lingüísticas, coloquios organizados por las secciones de Investigación (*Iker*) y Tutelar (*Jagon*) o análogos y, en segundo lugar, los que publican artículos de investigación originales en los ámbitos de interés de la Academia, reseñas de libros y similares. Los criterios que se especifican a continuación sólo corresponden al segundo tipo, es decir, a artículos originales de investigación y reseñas de libros, y son de obligado cumplimiento para poder ser aceptados en el proceso de publicación. Para el resto de textos deberán cumplirse las condiciones establecidas por Euskaltzaindia en “Euskaltzaindiaren argitalpen eremua”, *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Los ámbitos de interés de la revista *Euskera* son los siguientes:

- Filología vasca
- Lingüística general
- Gramática
- Dialectología
- Lexicografía / Lexicología
- Literatura
- Toponimia / Onomástica
- Fonética y Fonología
- Semántica y Pragmática
- Historia de la lengua
- Normativización lingüística
- Normalización lingüística
- Sociolingüística
- Lengua y nuevas tecnologías



- Iurilingüística y Derecho de lenguas
- Traducción
- Euskera científico en los diversos campos del saber.

Asimismo, se tomarán en consideración otras disciplinas en la medida en que tengan relación con la lengua vasca.

Las propuestas de publicación de artículos de investigación originales deberán remitirse al responsable de Publicaciones a esta dirección:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.  
Responsable de Publicaciones  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO

## 2. Lenguas

Los artículos de investigaciones originales podrán ser redactados en cualquiera de las lenguas que habitualmente se emplean en los ámbitos académicos de Euskal Herria, aunque se dará preferencia a los redactados en euskera.

## 3. Extensión

Se publicarán dos tipos de textos: artículos académicos y reseñas de libros. Los primeros no tienen una extensión previamente establecida, pero en general no tendrán un número de caracteres inferior a 30.000 o superior a 60.000 (15-30 páginas). Las reseñas de libros serán de dos tipos: de tres páginas (6.000 caracteres) o cinco páginas (10.000 caracteres), aunque se admitirán excepciones.

## 4. Resúmenes

Los artículos de investigación deberán estar acompañados por un resumen (máximo de 500 caracteres) y sus correspondientes palabras clave (máximo de seis), ambos en la lengua original del artículo.

## 5. Admisión

La admisión de artículos originales y textos es competencia del Consejo de Redacción de la revista *Euskera*, el cual designará dos evaluadores externos para cada artículo y, tras tomar en consideración su dictamen, tomará la decisión definitiva, en su caso. Al comunicar la aceptación del artículo se facilitará al autor una lista de errores o cuestiones sujetas a corrección. El autor firmará un documento manifestando su acuerdo. A partir de ese momento no se aceptará ninguna modificación o corrección sustancial ni por parte del autor ni del editor.

## 6. Plazos

Los artículos de investigación y textos se podrán presentar hasta final de año, en el caso de que vayan a ser publicados en el primer semestre. El incumplimiento de los plazos establecidos en el proceso de publicación puede acarrear la anulación de la publicación del artículo por decisión del editor.

## 7. Soportes del artículo

Los artículos se presentarán en formato de ordenador junto con una versión impresa. Se utilizará un procesador de textos de uso habitual en Euskal Herria.

## 8. Referencias y notas

Se favorecerán los intentos de limitar el uso exagerado de notas. A ser posible todas las referencias se integrarán en el texto, conectándolas con la bibliografía que se coloca habitualmente al final del artículo, de este modo: (Larramendi, 1729) o Mitxelena (1961, 123). Cuando por cualquier razón se decida prescindir de ese tipo de referencias, éstas deberán facilitarse de forma exacta, rehuendo los *op. cit.*, *ibidem* o similares y ofreciendo las referencias completas en la bibliografía.

## 9. Bibliografía

La bibliografía se colocará al final del artículo, siguiendo este modelo básico:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiología vasca : Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

El autor organizará la bibliografía de acuerdo con este modelo básico. Las peculiaridades o especificaciones que puedan darse en cada caso deberán ser resueltas de acuerdo con el responsable de Publicaciones.

## 10. Retribuciones

El autor cede a Euskaltzaindia los derechos de reproducción de su artículo de forma exclusiva. Asimismo, los artículos originales de investigación así como todos los textos serán objeto de retribución de acuerdo con las tarifas que establezca en cada caso la Comisión de Publicaciones de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia.

## Normes de rédaction de la revue *Euskera*

### 1. Domaines de la revue

*Euskera* est la publication officielle de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia. Deux types de numéros sont publiés: tout d'abord, ceux qui rassemblent les discours d'intronisation des nouveaux membres de l'institution, les travaux de l'Académie, les procès-verbaux, les normes linguistiques, les colloques organisés par les sections de Recherche (*Iker*) et Tutélaire (*Jagon*) ou similaires et, ensuite, ceux dans lesquels sont publiés des articles originaux de recherche qui portent sur l'un des domaines d'intérêt de l'Académie, comptes rendus de livres et autres publications. Les critères qui sont précisés ici correspondent seulement au deuxième type de numéros de la revue, c'est-à-dire aux articles originaux de recherche et comptes rendus de livres, et sont à respecter impérativement pour pouvoir être acceptés dans le processus de publication. Pour les autres textes, il faudra remplir les conditions prévues par Euskaltzaindia dans «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Les domaines d'intérêt de la revue *Euskera* sont les suivants :

- Philologie basque
- Linguistique générale
- Grammaire
- Dialectologie
- Lexicographie / Lexicologie
- Littérature
- Toponymie / Onomastique
- Phonétique et Phonologie
- Sémantique et Pragmatique
- Histoire de la langue
- Normativisation linguistique
- Normalisation linguistique

- Sociolinguistique
- Langue et nouvelles technologies
- Jurilinguistique et Droit des langues
- Traduction
- Le basque scientifique dans les divers domaines du savoir.

D'autres disciplines seront également prises en considération dans la mesure où elles ont trait à la langue basque.

Les propositions de publication d'articles originaux de recherche devront être remises au responsable des Publications à cette adresse :

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.  
Responsable des Publications  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO

## 2. Langues

Les articles originaux de recherches pourront être rédigés dans l'une des langues qui sont habituellement employées dans les domaines académiques du Pays Basque, même si une préférence sera accordée à ceux rédigés en basque.

## 3. Longueur

Deux types de textes seront publiés : les articles académiques et les comptes rendus de livres. Les premiers n'ont pas de longueur préalablement établie, mais en général le nombre de caractères ne sera pas inférieur à 30 000 ni supérieur à 60 000 (15-30 pages). Les comptes rendus de livres seront de deux types: de trois pages (6 000 caractères) ou cinq pages (10 000 caractères), même si des exceptions seront autorisées.

## 4. Résumés

Les articles de recherche devront être accompagnés d'un résumé (500 caractères maximum) et de leurs mots-clés correspondants (six maximum), tous deux dans la langue originale de l'article.

## 5. Admission

L'admission d'articles originaux et de textes relève de la compétence du Comité de Rédaction de la revue *Euskera*, qui désignera deux évaluateurs externes pour chaque article et, après avoir tenu compte de leur avis, prendra la décision définitive, si cela s'avérait nécessaire, le Comité de Rédaction fournira à l'auteur une liste des erreurs ou points susceptibles d'être sujets à révision lors de la communication de l'acceptation de l'article. L'auteur signera un document exprimant son accord. Dès lors, il ne sera accepté aucune modification ou correction substantielle ni de la part de l'auteur ni de la part de l'éditeur.

## 6. Délais

Les articles de recherche et textes seront présentés tout au long de l'année, jusqu'au 31 décembre et seront publiés au plus tard au cours du premier semestre de l'année suivante. Le non-respect des délais fixés dans le processus de publication peut entraîner l'annulation de la publication de l'article sur décision de l'éditeur.

## 7. Supports de l'article

Les articles seront présentés au format informatique avec une version imprimée. L'auteur utilisera un traitement de texte couramment utilisé au Pays Basque.

## 8. Références et notes

Les tentatives de limiter l'utilisation exagérée de notes seront appréciées. Dans la mesure du possible, toutes les références seront insérées dans le texte, et seront reliées à la bibliographie placée à la fin de l'article, de la manière suivante : (Larramendi, 1729) ou Mitxelena (1961, 123). Si pour une raison ou pour une autre, l'auteur décide de se passer de ce type de références, celles-

ci devront être indiquées de façon exacte, en évitant les *op. cit.*, *ibidem* ou similaires et en offrant les références complètes dans la bibliographie.

## 9. Bibliographie

La bibliographie se place à la fin de l'article, en suivant ce modèle de base :

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiologia vasca : Oihenart conoció los *Refranes y sentencias en vascuence* de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », dans *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

L'auteur organisera la bibliographie de son article en fonction de ce modèle de base. Les particularités ou précisions susceptibles de se présenter dans chaque cas devront être résolues en accord avec le responsable des Publications.

## 10. Rémunérations

L'auteur cède de manière exclusive à Euskaltzaindia les droits de reproduction de son article. De même, les articles originaux de recherche ainsi que tous les textes feront l'objet d'une rémunération conformément aux tarifs qu'établira dans chaque cas la Commission des Publications de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia.

## Writing guidelines for the journal *Euskera*

### 1. Overview of the journal

*Euskera* is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia. It publishes two types of issue: one containing induction speeches of the newest members of the institution, the Academy's work, publications, language rules, symposia organised by the Research (*Iker*) and Tutelary (*Jagon*) sections and so on, and a second containing original research articles on topics of interest to the Academy, book reviews and the like. The criteria specified below only concern original research articles and book reviews appearing in the second type of issue and are mandatory for manuscript acceptance. All other manuscripts must meet the conditions set by Euskaltzaindia in "Euskaltzaindiaren argitalpen eremua", *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

The following topics are covered in *Euskera* journal:

- Basque philology
- General linguistics
- Grammar
- Dialectology
- Lexicography / Lexicology
- Literature
- Toponymy / Onomastics
- Phonetics and Phonology
- Semantics and Pragmatics
- History of language
- Corpus planning
- Status planning
- Sociolinguistics
- Language and New Technologies



- Jurilinguistics and Language Law
- Translation
- Scientific Basque in the various fields of knowledge.

Likewise, other disciplines will be taken into consideration insofar as they relate to the Basque language.

Proposals for publication of original research articles must be submitted to the Publications Manager at the following address:

Euskaltzaindia  
Publications Manager  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Spain

## 2. Languages

Original research articles may be written in any of the languages that are normally used in academic circles in the Basque Country, although preference will be given to those written in Basque.

## 3. Length

Two types of texts will be published: academic articles and book reviews. The former do not have a set length, but generally will not have less than 30,000 characters or more than 60,000 (15-30 pages). Book reviews are of two types: three pages long (6,000 characters) or five pages (10,000 characters), although exceptions are allowed.

## 4. Abstracts

An abstract (maximum of 500 characters) and the corresponding key words (maximum of six), both in the original language of the article, must be submitted together with research articles.

## 5. Acceptance

Acceptance of original articles and texts is the responsibility of the Editorial Board of the journal. Two external reviewers will be designated for each article and, after taking their opinion into consideration, the Board will make its final decision, if necessary. Upon notification of the acceptance of the article the author will be provided with a list of problems, errors or issues subject to correction. The author will sign a document stating his/her agreement. From that moment on, no substantial modification or correction by either the author or the editor will be accepted.

## 6. Deadlines

Research articles and texts can be submitted throughout the year for publication by the end of the following half-year. Failure to comply with publishing deadlines may result in cancellation. The editor's decision is final.

## 7. Article Format

Manuscripts must be submitted in digital format together with a printed version. Any format commonly used in the Basque Country is acceptable.

## 8. References and Notes

Attempts to limit the excessive use of notes will be looked upon favourably. If possible, all references should be incorporated into the text, connected to the bibliography that is usually placed at the end of the article, as follows: (Larramendi, 1729) or Mitxelena (1961, 123). If for any reason an author decides not to use that reference format, precise mention should be made, avoiding the use of *op. cit.*, *ibidem* or similar and providing full references in the bibliography.

## 9. Bibliography

The bibliography will be placed at the end of the article, following this basic model:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller and Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, «Euskal-itzak zein diren», *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, «De paremiologia vasca: Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596», *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques» in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris, 331-337.

The author will organise the bibliography according to this basic model. Any additional features or specifications must be agreed with the Publications Manager case by case.

## 10. Remuneration

Authors must vest copyright in their articles exclusively to Euskaltzaindia. Original research articles and other texts will be remunerated in accordance with the rates established in each case by the Publications Committee of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia.

## Harpidetzak eta eskariak / Pedidos y suscripciones

### ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE:

Izen-deiturak / Nombres y apellidos: \_\_\_\_\_

Erakundea / Institución: \_\_\_\_\_

Helbidea / Dirección: \_\_\_\_\_

Posta kodea / C.P.: \_\_\_\_\_ Udalerria / Población: \_\_\_\_\_

Lurraldea / Provincia: \_\_\_\_\_ Estatua / Estado: \_\_\_\_\_

NAN/IFK · DNI/NIF: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Faxa: \_\_\_\_\_ E-mail: \_\_\_\_\_

Eskaera data / Fecha de pedido: \_\_\_\_\_ - \_\_\_\_\_ - \_\_\_\_\_

### 2011 irako harpidetzaren prezioa / Precios de suscripción para el año 2011:

Espainia: 27,12 €

Atzerria / Extranjero: 29,08 €

### Zenbaki solteak / Números sueltos:

Kopurua Cantidad	Aldizkaria Revista	Urtea / Año	Bolumena Volumen	Zenbakia Número

## Zenbaki solteen prezioa 2011rako / Precios de los números para el 2011

Euskera 2010, 55, 1, 16,75 €

Euskera 2010, 55, 2, 10 €

Euskera 2010, 55, 3, 16,75 €

### Ordainketa era / Modo de pago

- Transferentziaz / Transferencia
  - Postordainez / Contrareembolso
  - Errezibuz (kontu korrante zenbakia) / Recibo (número de cuenta corriente):
- 

### Salmenta eta banaketa / Venta y distribución

Euskaltzaindiko Argitalpen Banaketa Zerbitzua

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel. 94 415 8155

Fax: 94415 8144

e-mail: jartza@euskaltzaindia.net

\* \* \*

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituzenez gero, eskatzaile horrek esanbidezko baimena eman du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezenez; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskribatuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira.

Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezereztzeko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: info@euskaltzaindia.net. Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.

\* \* \*

El solicitante autoriza expresamente a que los datos personales aportados en relación a su pedido, sean incorporados al fichero informático de Euskaltzaindia, destinado exclusivamente a dar un servicio personalizado al usuario. Dicho fichero resulta inscrito en la Agencia de Protección de Datos y es gestionado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa de desarrollo.

El usuario queda informado de sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición respecto de sus datos personales, pudiendo ejercitar estos derechos por escrito mediante correo electrónico a la dirección info@euskaltzaindia.net. En cualquier caso, el usuario garantiza que los datos personales facilitados son veraces.









